


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

DOKTORE-TESIA

**KARTZELA GENERO-ERAKUNDE BEZALA:  
genero-bereizkeriak, erresistentzia-praktikak eta agentzia  
Euskal Herrian espetxeratutako emakumeen artean**

**Maria Ruiz Torrado**

**Tesi-zuzendaria: Mari Luz Esteban Galarza**

Donostia, 2016

Ikasketa Feministak eta Generokoak Doktorego-programa  
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea  
Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila



Doktore-tesi hau Eusko Jaurlaritzaren Doktorego Aurreko Programako beka (2013-2016)  
baten laguntzarekin egin da.



*Para a Katia, pela sua força,  
pela sua fragilidade.*

*Alma, Edurne, Laura eta Mireni  
elkarrekin hasitako bideagatik.*



## ESKER ONA

Asko dira doktorego-tesiaren bide luze honetan moduren batean edota bestean lagundu didatenak. Horregatik, nola ez, haiei guztiei nire eskerrik beroenak emanez hasi nahiko nuke. Amaitutako lanak eskainitako ikuspegitik, ez dut zalantzarik topikoa bezain benebenetakoa dela haiek guztiak gabe ikerketa hau ez zela posible izango.

Hasteko, mila-mila esker Mari Luzi, doktore-tesi hau zuzentzea onartzeagatik, nire kasa lan egiteko emandako askatasunagatik eta konfiantzagatik. Era berean, beharrezko izan dudan guztietan berehala erantzuteagatik, babes eskainita, zuzenketa nahiz iradokizun ezin hobeak egiteko prest.

Hurrena, esker berezi-bereziak elkarrizketatu guztiei; ikerketaren ardatz, muin eta gako izan diren horiei. Oroz gain, eskerrak bihotzez emakume preso nahiz preso ohiei, beren bizipenak nirekin partekatzeko eskuzabaltasunagatik.

Esker mila elkarrizketatuak aurkitzen lagundu didaten guztiei eta, lortu ez arren, saialdia egin dutenei: Ane (ACASGI - Gipuzkoako Hiesaren Kontrako Elkarte Hiritarra); Ana, Josune, Lourdes, Natalia eta Silvia (ADAP - Presoen Laguntzarako Elkarte); Haizea, Irati eta Iser (Arrats Elkarte); Txipi (Autodefentsa Taldea); Izaskun (Gizakia Helburu Gipuzkoa); Garbiñe eta Josean (Goiztiri Elkarte); Brais (Gurutze Gorria Gipuzkoa); Haizea Núñez; Ana eta Mamen (Hegaldi); Ana, Koro eta Silvia (IRESGI - Gizarteratze eta Biktimologiako Euskal Institutua); Marta eta Martín (Loiolaetxea Elkarte); Remar Gipuzkoa; Iranzu, June, Libertad, Maite, Paz, Ruth eta Urtzi (Salhaketa Nafarroa); Julia (Sare); Josemari (Sidálava - Arabako Hiesaren Kontrako Batzordea); Luque eta Sergio (Trintxer - Cáritas Gipuzkoa); Carmen eta Idoia (Zubiko Elkarte).

Orobat, milesker behaketa parte-hartzailearekin laguntzen ahalegindu diren guztiei ere: Ana, Josune, Lourdes, Natalia eta Silvia (ADAP – Presoen Laguntzarako Elkarte); Ana eta Silvana (Donostiako Emakumeen Etxea); Mikel (Gipuzkoako Espetxe Pastoralza); Ana, Koro eta Silvia (IRESGI – Gizarteratze eta Biktimologiako Euskal Institutua).

Eskerrak bihotzez ikerketaren gorabeherei eta zailtasunei aurre egiteko aholkuak eman dizkidaten ikerlari eta adituei: Elisabet Almeda, Ruth Alvarado, Ana Ballesteros, Paola

Contreras, Estibaliz de Miguel, Paz Francés, Elixabete Imaz, Dolores Juliano, Marta Luxán, Dario Malventi, Nerian Martín, Nagore Martinez, María Jesús Miranda eta, oro har, Red Geispe eta SinRejas ikerketa-sareetako partaide guztiak. Halaber, eskerrik asko Liliana Cabrera eta Marcia Paradiso-ri, Argentinatik zenbait lan lortzen laguntzeagatik, eta Irantzu Fernandez-i, bitartekari eta garraiolari izateagatik.

Eskerrik anitz Universidade do Minho-ko (Braga, Portugal) Manuela Ivone P. da Cunha eta Vera Duarte irakasleei, baita Instituto de Ciências Sociais-eko idazkariei ere, luze espero nituen hiru hilabete horiek arin bezain atsegin egiteagatik, eta idazketari ekiteko giro bikainagatik. Era berean, mila esker Caterina Canyelles, Chloé Constant eta Dario Malventiri, Manuelarekin harremanetan jartzeagatik.

Esker bereziak «bekarias prekarias» guztiei, bidelagun izateagatik, ikerketa-kezkak eta gorabeherak partekatzeko espazioagatik eta, azken finean, doktore-tesia bide ez-bakartia egiteagatik. Eskerrik asko, Amaia, Carlos, Eli, Irantzu, Itxaso, Jon, Josune, Lado, Laura, Maialen, María, Marta, Miren A., Miren G. eta Omar.

Bihotz-bihotzez eskerrak Alma, Edurne, Katia, Laura, Miren, Oihana eta Sorayari gaiari buruzko solasaldi kritikoengatik, erreferentziengatik, babesagatik, animoengatik. Esker mila Laura eta Oihanari, doktore-tesia garaiz bukatzeko bultzadagatik ere.

Mila esker Alaitz, Aratz, Haize, Nagore E., Nagore I., Nagore M. eta Odeiri, kuadrilako lagunei, doktore-tesiaz haratago bizitza ekartzeagatik, baita ikerketaren une gogorretan animatzeagatik ere.

Eskerrik zintzo eta sakonenak attatto eta amari, betiereko babes, laguntza eta erraztasun guztiengatik, ni hain ondo zaintzeagatik. Amagoia eta Juleni, iganderoko merienda zein paseoengatik, doktore-tesiaz atsedean hartzeko une atseginengatik. Galder, Imo eta Danel xomorro ttikiei jolastera animatzeagatik, barre eginarazteagatik eta dena samurtzeagatik. Mikeli, etengabeko sostengu eta animoengatik, ondoan egoteagatik, hitzez adierazi ezin den guztiagatik.

Zuek denak funtsezkoak izan zarete ikerketa honen ibilbidean.

Mila esker, guztioi.



## AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b> .....	17
<b>HELBURUAK ETA HIPOTESIAK</b> .....	27
Helburu nagusiak eta zehatzak .....	29
Abiatze-hipotesiak .....	31
<b>MARKO ETNOGRAFIKOA ETA ESTRATEGIA METODOLOGIKOA</b> .....	35
Espetxe-testuingurua Euskal Herrian .....	37
Arabako eta Langraiz Okako presondegiak.....	37
Iruñeko presondegia(k).....	38
Martuteneko presondegia.....	39
Metodologiari buruzko hainbat ohar .....	41
Azterketa bibliografikoa eta bigarren mailako beste zenbait informazio-iturri.....	42
Elkarrizketa sakonak.....	43
Emakume presoiei egindako elkarrizketak.....	43
Espetxeko langileei egindako elkarrizketak .....	70
Elkarteetako kideei egindako elkarrizketak .....	72
Behaketa parte-hartzailea.....	75
Ikuspegi antropologikoa eta feminista.....	78
<b>LEHENENGO ATALA</b>	
<b>Espetxeratutako emakumei begira: ekarpen antropologikoak eta feministak</b> .....	81
1. Emakumeen delituzko ekintzak: generoa, aurreiritziak eta zaugarritasuna .....	85
1.1. Delituak. Transgresioak. Estigmak.....	85
1.2. Emakumeen delituei buruzko interpretazioen bilakaera.....	91
1.3. Delitua (bir)definituz: egungo testuinguru penala .....	94

2. Espetxe-sistema aztergai: oinarriak eta aldaketak .....	109
2.1. Diziiplina zein zuzenketa helburu.....	110
2.2. Izaera totalizatzailea bide .....	115
2.3. Espetxe Erakundeen printzipio juridikoak eta azken urteotako eraldaketak ..	118
2.3.1. Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorra eta Espetxe Araudia.....	119
2.3.2. Makrokartzelak, Modulu Terapeutikoak eta Errespetu Moduluak .....	123
3. Emakumeen giltzapetze penalaren iragana eta oraina .....	127
3.1. Errezatu eta lan egin: emakumeen itxialdiari gainbegiratu historikoa .....	128
3.2. Espetxe-egoera gaur egun: zigorrak eta genero-diskriminazioak miran.....	136
4. Desberdintasunak nahiz desberdinkeriak. Emakume presoan arteko aniztasuna .....	143
4.1. (Zuhurki hartu beharreko) irudi orokorra .....	144
4.2. Atzeritarrak: bizimodua hobetzeko ahaleginean .....	148
4.3. Ijitoak: aukera-eskasiari aurre eginez .....	154
4.4. Droga-kontsumitzaileak: menpekotasunaren eta delituzko ekintzen artean ...	156
5. Emakume atxiloen erresistentzia-praktikak: hainbat aipamen, iruzkin eta zertzelada .....	161
5.1. Esanahietan barrena: agentzia, boterea, erresistentzia.....	162
5.2. Zapalduen praktikak etnografiatzen .....	169
5.3. Agentzia giltzapean... zantzuei segika .....	172

## **BIGARREN ATALA**

<b>Espetxeratutako emakumeekin solasean.....</b>	<b>179</b>
--	------------

6. Kartzelaldiaren esanahiak, ibilbideak eta balorazioak.....	183
6.1. Egoera anitzak, egoera zaurgarriak: delituetara daramatzaten bideak.....	184
6.2. Sarrerak, irteerak eta ate birakariak.....	191
6.3. Emozioak, aldaketak, ikaskuntzak.....	200
6.4. Kartzelaldiari buruzko iritzi positiboak.....	205
6.5. Espetxealdiari buruzko balorazio negatiboak.....	212

7. Espetxeko genero-diskriminazioak hizpide: askotariko iritziak eta ikuspegiak .....	219
7.1. Genero-bereizkeriak gaur egun? Euskal Herriko presondegietan?.....	220
7.2. Zentroak, azpiegiturak eta barne-antolaketa.....	224
7.3. Jarduerak, ikastaroak, enpleguak.....	233
7.4. Kontrolaren adierazleak eta erasoak.....	240
7.5. Osasun-egoera, arreta medikoa eta zaintza.....	248
7.6. Kanpokoekiko hartu-emanak.....	254
7.7. Generoa bestelako kategoriekin korapilatuta: jatorria, etnia eta klase soziala .....	259
8. Harremanak presondegian: abaguneak, mugak eta gorabeherak.....	267
8.1. Presoen arteko erlazioak, elkartasun-sareak eta adiskidetasun-loturak .....	268
8.2. Harremanak espetxe-langileekin: aurkarizatit preso onaren itxurakeriara ...	277
8.3. Salerosketak eta elkartruke ekonomikoak: «trapitxeatzeko» tarteak .....	289
8.4. Kartzelako erlazio sexu-afektiboak: ekarpenak, mugaketak, aldaketak .....	296
9. Kanpo-harremanak, espazioak eta denborak. Murrueen zurruntasunari ihes egiteko bideak.....	309
9.1. Espetxetik kanpoko hartu-emanak: arnagune eta estugune.....	310
9.2. Hormen arteko espazioa eta denbora birdefinitzeko saialdiak .....	327
10. Barrena lasaitzeko ahaleaginean: giltzapeko adierazpen-moduak eta sormena .....	345
10.1. Gorputz-espresioa eta nor bere buruari egindako zauritze-ekintzak.....	346
10.2. Adierazpen idatzia edo kartzelako izkribuak.....	352
10.2.1. Simone: komunikatzeko beharra.....	356
10.2.2. Lourdes: egunerokotasunaren kontraera .....	373
10.2.3. Altagracia: idazteko zaletasuna .....	378
<b>ONDORIOAK.....</b>	<b>395</b>
<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>407</b>

Bibliografia .....	409
Erreferentzia juridikoak .....	443
Ikus-entzunezko lanak .....	445
Webguneak .....	447
<b>ERANSKINAK</b> .....	<b>449</b>
I. ERANSKINA: Emakume presoekin erabilitako elkarrizketa-gidoia (banakako elkarrizketa) .....	451
II. ERANSKINA: Emakume presoekin erabilitako elkarrizketa-gidoia (talde-elkarrizketa) .....	457
III. ERANSKINA: Espetxe-langileekin eta elkarteetako kideekin erabilitako elkarrizketa-gidoia .....	459

## TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: <i>Presoak Espainiako Estatuan (2015eko iraila)</i> .....	98
2. taula: <i>Emakume presoak EB Europar Batasunean (2015eko uztaila)</i> .....	98
3. taula: <i>Presoak Hego Euskal Herrian (2015eko iraila)</i> .....	99
4. taula: <i>Presoak Hego Euskal Herrian (2011-2014)</i> .....	100
5. taula: <i>Delituak Espainiako Estatuan, sexuaren arabera (2015eko iraila)</i> .....	101
6. taula: <i>Delituak Espainiako Estatuan, delitu-motaren arabera (2015eko iraila)</i> .....	102
7. taula: <i>Egoera prozesala eta penala Espainiako Estatuan (2015eko iraila)</i> .....	103
8. taula: <i>Emakumeen egoera prozesala eta penala Hego Euskal Herrian (2011-2014)</i> ...	104
9. taula: <i>Gizonen egoera prozesala eta penala Hego Euskal Herrian (2011-2014)</i> .....	104
10. taula: <i>Gradu-sailkapena Espainiako Estatuan (2015eko iraila)</i> .....	145
11. taula: <i>Emakume presoen adina Espainiako Estatuan (2015eko iraila)</i> .....	145
12. taula: <i>Emakume preso atzerritarrak Espainiako Estatuan (2000-2015)</i> .....	149



*Por cada recuento, por cada palabra, por cada cierre de puertas, por cada cacheo, por cada llamada telefónica 10 por semana de 5 min, por cada café de economato, por cada cunda, por todos los ibuprofenos, valiums, tranxiliums, por cada día de mi vida en libertad... ¡yo voy a continuar hablando! Optando por ese proyecto UTÓPICO para que ninguna PERSONA regale ni un día de su vida a alimentar un sistema retrógrado, podrido, que no funciona en ningún lugar del mundo.*

Katia Reimberg Castello Branco





**SARRERA**



Simone<sup>1</sup> ezagutu nuenean, ez nuen emakume presoeri buruzko jakintza handirik. Ordura arte ez nuen kartzelan egondako emakume bat bera ere ezagutzen –ez jakinaren gainean, bederen–. Ordura arte ez nintzen sekula egon aurrez aurre atxilo izandako emakumezko batekin. Ordura arte ez nuen inoiz hitz egin emakume batekin bere espetxeko bizipenen inguruan. Ez nuen nehoiz horrelako kontakizunik zuzenean entzun. Simone izan zen nik ezagaturiko aurreneko emakume preso, kartzelako esperientziaz nirekin mintzatu zen lehena, giltzapeko pasadizoen berri eman zidan lehenbizikoa. Bera ezagutu nuen artean, zehaztasunik gabeko irudi lausoak baino ez nituen; nire jakineza elikatzen zuten imajina difusoak baino ez. Nahiz eta, Euskal Herriko egoera politikoaren kausaz, betidanik izan nuen espetxe-sistema moduren batean edo bestean presente, benetan, ezagutza gutxi eta aurreiritzi asko nituen. Kartzela-sistemarekin kritiko nintzen; kontrol sozialerako tresna iruditzen baitzitzaidan, bere ustezko helburuak lortzeko alferrikakoa eta argiro klasista. Alabaina, ez nekien kasik ezer bere barrunbeen inguruan, bere baitan itxitako banakoen inguruan, bere barnean giltzaperatutako emakumeen inguruan. Libururen bat edo beste irakurrita nuen ordurako, eta biziera latzak izandako emakume legez irudikatzen nituen presoak. Baina hori besterik ez. Ez nintzen euren istorioak zehaztasunez deskribatzeko gai, eurei buruzko deus konkretu adierazteko kapaz, iruzkin espezifikorik egiteko gauza. Pelikuletako eta telesailtako mezuak ere hor nituen buruan jiraka; eta, horiekin batera, biolento bezain arriskutsu irudikatzen dituen imajinario kolektibo osoa ere –errealitatea oso bestelakoa izan arren–. Zalantzarik gabe, Simone ezagutu nuenean, kartzelatik urrun bizi nintzen, emakume atxiloetatik aparte oso. Alta, hori aldatzen hasteko lehen urratsak ematen ari nintzen.

Simone ezagutu nuenean, 2011ko iraila erdialdea zen, eta elkarte erlijioso baten harrera-etxean ginen. Simone bertan bizi zen garai hartan, presondegian egondako beste hainbat gizon-emakumerekin batera; bada, Simonerentzat –beste atxilo askorentzat bezala– hori zen zigorra amaitu baino lehen kartzelatik ateratzeko aukera bakarra. Erregimen irekian zegoen, baldintzapeko askatasunaren zain, eta hamabost egunetik behin espetxera joaten zen «sinatzera». Ikerketa-lagun nuen Edurne Bengoetxea eta biok, berriz, bertan ginen emakumezko preso bati elkarrizketa sakona egiteko asmoz; hain zuzen ere, elkarrizketa sorta bateko lehen solasaldia egiteko intentzioz. Hartara, elkarrekin hizketan igarotako denboran, Simonek bere espetxe-esperientziak kontatu zizkigun, biziki hunkituta ia une

---

<sup>1</sup> Ikerketa honetako protagonisten anonimotasuna mantentzeko, fikziozko izenak erabiliko ditut une oro, bai elkarrizketatuen kasuan, bai haiek aipaturiko norbanakoen kasuan, salbuespenik gabe.

oro. Narratzaile ezin hobea, bere sentipenak hitzez adierazteko gaitasun izugarrikoa eta sentsibiltate bereziko, xehetasunez betetako bere kontakizun aberatsean murgilarazi gintuen. Espetxealdiaren balorazio guztiz negatiboa egin zuen, eta ezintasunaz, lotsaz zein amorruez mintzatu zen. Bizitzarekin akabatzen duen amaierarik gabeko zulo legez ere deskribatu zuen kartzela, etengabeko erorialdian eta ezdeus sentiarazten zaituen hobi moduan. Elkarrizketa astintzailea izan zen hirurontzat; baina, horrez gain, giltzapetutako emakumeen errealitatean sakontzen hasteko bidea ere izan zen niretzat. Ondo konektatu genuen, eta besarkada estu batekin agurtu gintuen Simonek. Haatik –orduko hartan ez bagenekien ere–, ez zen behin betiko agurra izan, gaur arte irauten duen adiskidetasun-erlazio baten hasiera izan baitzen.

Simone ezagutu genuen hartan, *Mujeres ex-presas: vulnerabilidad y autonomía* (2012) ikerketa-lana egiten ari ginen, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen ikerketa-beka (2011) baten bidez<sup>2</sup>. Miren Arbelaitz, Edurne Bengoetxea, Alma Méijome, Laura Vara eta ni neu, Ikasketa Feministak eta Generokoak unibertsitate masterra (UPV/EHU) elkarrekin egindako bost lagun, urtebete eskaseko diru-laguntza hori eskatzera animatu ginen, ikerkuntza feministaren esparruan sakontzen segitzeko. Denboran atzera begiratu bat eginez gero, aitortu beharra dut nahiko zirkunstantzialki iritsi ginela espetxeratutako emakumeen gaira. Izan ere, 2011ko deialdian Emakundek proposatutako hiru ikerketa-ildoak ikusirik, diskriminazio anizkuna jasaten zuten emakumeen inguruko zer edo zer egitea deliberatu genuen<sup>3</sup>. Hainbatetan bildu eta aukera zenbaitzuk eztabaidatu ondoren, emakume atxilo ohien inguruko ikerlana egitea erabaki genuen, bi zergati nagusi zirela eta: alde batetik, Laura gai horren inguruan aritu zela bere master amaierako lanean<sup>4</sup>; eta, bestetik, masterrean Dolores Juliano antropologoaren hitzaldi iradokitzailea entzun genuela<sup>5</sup>, emakumezkoen eta delituzko ekintzen arteko gogoeta berri, erakargarri bezain mamitsuak mahaigaineratuta. Horrenbestez, hertsiki, ez nintzen ekimen propioz ailegatu emakume presoen gaira; ez zen nire barne-ezinegon bategatik izan, ezta istorio pertsonal

---

<sup>2</sup> Zehazki, 2011. urtean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko hiru beketako bat zen.

<sup>3</sup> Emakundek zehaztutakoaren arabera, ikerketa-beka bakoitza gai konkretu bati buruzkoa izan behar zen: 1) berdintasunaren alde egiten zuten enpresa-kulturako faktoreen azterketa; 2) egoera eta ezberdintasunen azterketa askotariko bereizkeria jasateko arriskuan zeuden emakumeen kolektiboan –bereziki, baliabide sozio-ekonomikoak baliatzeari eta segurtasunari zegokienez–; eta 3) EAE Euskal Autonomia Erkidegoan sektore kultural edo artistikoan, prestakuntza, sorkuntza, ekoizpen, banaketa eta berrikuntzaren eremuetan ziharduten emakumeen edo emakume-taldeen presentziaren azterketa.

<sup>4</sup> Zehatz-mehatz, ondorengo ikerlana burutu zuen: *Amatasuna eta espetxeak: hainbat euskal emakumeren esperientziak* (2011).

<sup>5</sup> Donostian, 2010eko apirilaren 28an.

bategatik ere. Lagun batzuekin batera iritsi nintzen emakume presoengana, testuinguru zehatz batean eta baldintza jakin batzuetan. Hori dela eta, emakumezko atxiloak gure jendartean ahaztuta daudela esaten denean, aintzat hartzen ez ditugula eta ikusezinak direla kritikatzten denean, usu oroitzen dut nik neuk ere ez nituela (kasik) gogoan. Ezin ukatuzkoa da horrela zela hastapenean. Alta, era berean, ukaezina da azken urte hauetan egindako urratsek hori guztiz aldatu dutela. Bestelako begirada dut orain, bestelako kontzientzia. Kartzelaratutako emakumeen gaian barrendu dut, nire aurrejuzguei aurre egin diet, ikasi egin dut, eta aldatu ere egin naiz. Ezbairik gabe, Simone funtsezkoa izan da prozesu horretan; eta, berarekin batera, baita urte hauetan guztietan bidelagun izan ditudan eta euren istorioak nirekin partekatu dituzten emakume preso guztiak ere.

*Mujeres ex-presas: vulnerabilidad y autonomía* talde-ikerketarekin giltzapean egondako emakumezkoen egoera, zailtasunak eta desabantailak aztertu nahi genituen. Konkretuki, xede nagusia honakoa zen: espetxean egondako emakumeek, gertakari horren ondorioz, biziera autonomoa izateko zer-nolako arazoak zituzten ezagutzea, arreta jarrita baliabide fisiko, ekonomiko, soziokultural eta politikoen erabileran, kontuan hartuta gehienek era askotako diskriminazioak jasaten zituztela. Hipotesi nagusitzat genuen espetxe-sistemak emakumeen zaurgarritasuna areagotzen zuela, autonomia-maila gutxitzeaz batera. Profil edo ezaugarri sozio-ekonomiko ezberdinetako emakumeen egoera jorrratu genuen, Hego Euskal Herria ikerketa-esparru geografikotzat hartuta. Orobat, hiru ardatz izan genituen aintzakotzat: lehena, kartzelaldiaren aurreko bizimodua, delituzko ekintza eta atxiloketa; bigarrena, giltzapetzearen denboraldia; azkena, espetxealdiaren ondorengo egoera. Gure ikerketa-objektuarekin zuzenean lotutako informazio interesgarri ugari eskuratu genuen, baina aurreikusten ez genuen edukiarekin ere topo egin genuen.

Ezustean azaleratutako gaietako bat emakume presoen agentziarena izan zen. Ez genuen aurrez ikusi, baina hortxe zegoen haien erresistentzia-gaitasuna; hortxe zeuden eremuan eragiteko praktikak, euren egoera hobetzeko saialdiak, baita espetxe-itxialdia arintzeko eta giltzapeko genero-zapalkuntzari aurre emateko askotariko ahaleginak ere. Espero ez bagenuen ere, aurkikuntza atsegina izan zen oso, kartzelatutako emakumeen kontraeretan agertu zena. Besteak beste, elkarrizketatutako atxilo ohiek zera azaldu zuten: nola ikasi zuten espetxe-ingurunera moldatzen, nola konpondu ziren ez nabarmentzeko, nola usatu zituzten nahi zutena lortzeko tresna ofizialak eta ez-ofizialak, nola neurtu zituzten euren indarrak desio edo egitasmo jakin batzuei lehentasuna emateko, etab. Agentziaren gaiari

egindako aipu zuzen eta zeharkako gehiago egon ziren arren, gehienbat bi emakumeren kontakizunak oroitzen ditut: Amaia eta Elixabeten kontraerak, hain zuzen. Lehenak, osasun publikoaren kontrako bi deliturengatik prebentiboki kartzelatutakoak, oso modu zehatzean deskribatu zuen nola lortu zuen aurrera egitea eta nagusitzea giltzapean; bere eskubideen urraketa iruditzen zitzaion oro salaketan, instantzien edo helegiteen bitartez erantzunez, jarrera aktibo eta aldarrikatzaile horrek on egiten baitzion. Bigarrenak, talde armatu bateko kide izateagatik bederatzi urteko espetxe-zigorra konplitutakoak, azaldu zuen bizirauteko bere esku zegoen dena egitea deliberatu zuela eta, horretarako, kalkulu kontziente baten moduko zerbait egin zuela, bere izatearen zer alderdi babestuko zituen eta, aldiz, beste zer alderdi galtzea onartuko zuen erabakita; izan ere, guztia defendatzea ezinezkoa iruditzen zitzaion eta indarrak dosifikatu behar zirelakoan zegoen. Horrelako testigantzak bilduta, talde-ikerketako azpiatal bat agentziaren gaiari eskaintzea hautatu genuen azkenean. Finean, kartzelak emakumeen boterea gutxiagotzen zuela pentsatuta ere, garrantzitsua iruditu zitzaigun zenbait egoerarengan eragiteko edo zenbait gertakari aldatzeko emakume atxiloek zuten gaitasuna mahaigaineratzea.

Doktore-tesia egitea erabaki nuenean, ordurako emakume atxiloen agentziarekin erabat harrapatuta, ildo horretatik jarraitu nahi izan nuen; aurreko ikerketa abiapuntu hartuta, galdera berrien norabidean segituta, gehiago sakontzeko. Itxialdiko genero-zapalkuntza eta diskriminazioak alboratu gabe –egitate saihestezinak, euren garrantzia eta larritasuna direla eta, batik bat azken urteotako espetxe-aldaketen testuinguruan–, erresistentziazko praktikei ere heldu nahi nien, ahal zen heinean emakume presoan arteko aniztasuna eta ñabardurak ere jorratuta, ikergaiaren konplexutasuna zela eta. Orekazko kontu bategatik egin nahi izan nuen; zuzentasunagatik, doitasunagatik. Nire interes pertsonalengatik ere egin nahi izan nuen; seguruenik, erresistentziaren gaiak duen halako erromantizismoren baten eskutik, baina, halaber, ohikoa dena baino ikuspegi itxaropentsuago bat emateko gogoz ere. Gabezia edo hutsune-sentsazio bategatik ere egin nahi izan nuen. Funtsean, emakume presoan buruzko ikerketa gehienek haien agentzia baztertzen, gutxien edota ezkututzen zutela iruditzen zitzaidan, eta ekintzarako gaitasuna nahiz transformaziorako ahalmena behin eta berriro alde batera uzten zutela. Salbuespenak salbuespen (Bhavnani eta Davis, 1996; Bosworth, 1996, 1998, 1999, 2000, 2003; Fabre eta Nari, 2000; Ribas, Almeda eta Bodelón, 2005; Imaz, 2007; Carlen, 2012), emakume atxiloen trebetasunak ez zirela aintzatetsi pentsatzen nuen; ez zirela baloratu eta, are gehiago, maiz, ez zirela aurreikusi ere egin. Kartzelatutako emakumeen agentzia isilarazitako errealitate moduan

ikusten nuen, eta falta horri heldu nahi nion ikuspegi antropologikotik zein feministatik, baina presondegien izaera murriztailea ezeztatu gabe.

Horrenbestez, esan daiteke ondorengoek osatzen dutela doktorego-tesi honen ikerketa-objektua: kartzelatutako emakumeek giltzapean izandako bizipenek, jasandako genero-bereizkeriek eta gauzatutako erresistentzia-praktikek; betiere, kartzela genero-erakunde bezala hartuta, generoa (bir)sortzen duen heinean<sup>6</sup>. Konkrétuki, abiaburutzat dut genero-azterketarik gabe ezin dela espetxe-sistema sakonean ulertu; alde batetik, genero-eredu hegemonikoen ondorioz, emakumeek eta gizonak ezberdin bizi dutelako giltzaperatzea, eta, bestetik, kartzela-sistema errotik guztiz sexista, androzentrikoa eta diskriminatzailea delako, genero-rol tradizionalak zein erlazio hierarkikoak indartzen dituzenez gero. Hori horrela izanik, lehenik eta behin, ikerlan honek emakume presoek bizipenak, ibilbideak, aldaketak nahiz ikaskuntzak aztertzen ditu; bigarrenik, genero-desberdinkeriak jorratzen ditu; eta, azkenik, itxialdiak dakartzan zailtasunei eta mugei aurre egiteko erresistentzia-praktikak lantzen ditu, agentziaren gaiari hartuta. Azken batean, ez dut espetxealdiaren baitako genero-zapalkuntza edota izaera murriztailea inolaz ere baztertu nahi; alabaina, ezta emakumeek egoerari nola edo hala aurre egiteko gauzatutako eginahalak ukatu edo gutxietsi nahi ere –horien nolakotasuna zeinahi ere izan–. Horrela, hiru ardatz horietan sakontzen saiatu naiz, Hego Euskal Herrian kartzelatutako emakumezko preso sozialen<sup>7</sup> nondik norakoak ikertuta.

---

<sup>6</sup> «Genero-erakunde» kontzeptuari dagokionez, aipagarriak dira Joan Acker soziologo feministaren lanak (1990, 1992, 1998). Izan ere, Ackerrek instituzioen neutraltasunik eza aztertu du, genero-desberdinkeriak eta bereizkeriak azaleratuta. Bere ustez, generizatutako erakundeek gizonen menperatzea eta emakumeen desabantaila-egoera sortzen dute, eta egitate horrek gure jendarteko (ia) alderdi guztiak inplikatzeko; generoak trebesatzen baititu bai legea, bai politika, baita estatua, akademia, ekonomia eta erlijioa ere.

<sup>7</sup> Egia esateko, ez naiz «preso sozial» eta «preso politiko» kontzeptuen oso aldekoa –gehienbat, ikuspegi dikotomikoarekin erabiltzen badira–. Alabaina, ezin ukatuzkoa da modu batean eta bestean izendatu ohi diren atxiloen artean hainbat diferentzia azpimarragarri daudela. Ikerlan honetan soilik «sozial» deituriko horiengan zentratu naiz; batetik, azterketa zehatzagoa egiteko errealitate espezifikoko bat(zu)e(t)an ardaztu nahi izan dudalako, eta, bestetik, Euskal Herriko presondegia hartu nahi izan ditudalako ikerketa-marko espazialtzat, eta horietan apenas daudelako «politiko» izenda daitezkeen presoak. «Sozial» eta «politiko» deiturak guztiz baztertu ez arren, ez dut aipatu gabe utzi nahi lehena nahiko zehaztugabea dela, aniztasun handiko egoerak barne hartzen dituela, «preso arrunt» kontzeptuaren bertsio eguneratua baino ez dela, eta «preso sozial» izendapenak «politikoarekiko» aurkaritzan baino ez duela nolabaiteko zentzua –«politikoa ez dena» esan nahi izateaz gainera, ez baitu esangura handirik–. Era berean, ezin adierazi gabe utzi «preso sozialak» «politikoak» direla aldarrikatzen duenik ere badagoela. Eva Forest (1979) idazleak, adibidez, iritzi hori zuen. Izan ere, bere ustez: «*Para nosotros, en mayor o menor grado, todos son presos políticos: víctimas más o menos conscientes de la represión del sistema, de la injusta situación que les ha tocado vivir. Muchos de ellos jamás han tenido acceso a las más elementales condiciones humanas, marginados entre los marginados, explotados, pisoteados, de correccional en correccional, encarcelados una y otra vez, sometidos habitualmente a la tortura, considerados la escoria de la sociedad, han muerto durante años en recónditas cárceles, olvidados de todo el mundo, sin que su nombre apareciera jamás en las páginas de los sucesos y sin que nadie presentara denuncia de su desaparición...*» (1979: 280).

Doktore-tesi hau moduren batean edo bestean eraldaketa sozialerako baliagarria izatea espero dut; hausnarketa sustatzeko eta bestelako ikuspegiak edo iruditeriak zabaltzeko erabilgarria izatea. Izan ere, hainbat arrazoik emakumezko presoek egoera aztergaitzat hartzea behar-beharrezko egiten dute. Lehenik eta behin, kartzelaratutako emakumeen inguruko ezjakintasuna gainditzeko premia dugu. Kontuan eduki behar dugu emakume preso sozialak nahiko ezezagunak direla euskal jendartearen zati handi batentzat eta, oro har, beraien egoera eta arazoak gutxi jorratutako ikerketa-esparruak izan direla –azken urteotan hori nabarmenki aldatzen hasi den arren–. Giltzapetutako emakumeei buruzko jakineza handia izan da eskuarki eta, haiekin solas egitearen bitartez, hutsune horri aurre egiteko ordua da.

Bigarrenik, emakumezko atxiloek buruzko imajina negatiboak eta ezegokiak gainditzeko beharra dugu. Azken batean, esperientzia egiazko gehienetatik oso urrun dago espetxe-sistemari eta bere baitan itxitako emakumezkoek dagokien iruditeria kolektiboa, eta aurreiritziak zein estereotipoak oso ugariak dira. Askotariko aurrejuzguez ari naiz: irudi biktimizatzaileen arabera, emakume presoak pasiboak, ezgauzak eta gaitasun gutxikoak dira; ikuspuntu kriminalizatzaileen arabera, berriz, emakume gaiztoak, ankerrak eta maltzurak dira, eta gizarte-gaitzespena eta estigmatizatzea merezi dute. Orobat, azken urteotan modan jarri diren eta emakume presoek buruzko morboa eta sentsazionalismoa hauspotu dituzten telesailak nahiz telebista-programak ere hartu behar ditugu kontuan<sup>8</sup>. Izan ere, emakume atxiloen presentzia publikoa argiki areagotzea lortu duten arren, orokorki ez dute modu egokian egin. Beraz, premiazkoa da irudi desitxuratuak bazter uztea, estereotipoak nahiz aurreiritziak gainditzea eta emakumezko presoak solaskide baliozkotzat hartzea, oinarri hartuta errespetua, aintzatespena eta elkartasuna.

Hirugarrenik, eta azkenik, espetxe-sistemari buruzko gogoeta ikuspuntu feministatik eta abolizionistatik egiteko beharra ere badugu<sup>9</sup>. Ezinbestekoa da bere izaera bidegabearen inguruan hausnartzea; bere kutsu androzentrikoaren, sexistaren, klasistaren eta, azken batean, diskriminatzailearen gaineko eztabaida bultzatzea. Are eta beharrezkoagoa da, gainera, baldin eta kontuan hartzen baditugu azken urteotan kartzela-sisteman jazotako aldaketa guztiak. Izan ere, eraldaketa handiko garaia bizi dugu testuinguru penalari eta

---

<sup>8</sup> Baten batzuk aipatzearen: *Callejeros: Cárcel* (Cuatro, 2010), *Encarcelados* (La Sexta, 2013), *Reclusas* (Antena 3, 2015), *Vis a vis* (Antena 3, 2015, 2016), etab.

<sup>9</sup> Feminismoaren eta espetxe-sistemaren abolizionismoaren arteko harremanetan gehiago sakontzeko, ikus Davis (2003, 2016), Restrepo eta Francés (2016).



espetxekoari dagokionez: dela kontrol-politiken gehiagotzea, preso kopuruen areagotzea edo Kode Penalaren erreforma, dela Iruñeko eta Arabako presondegi berrien eraikuntza edo bestelako diziplinazko erregimenen hedapena. Nolanahi ere den, argi eta garbi dago markoa itxuraldatzen ari dela eta, ezinbestean, generoaren esparruan ere aldakuntzak ari direla gertatzen. Hortaz, premiazkoa da jazotzen ari denari erreparatzea, itxialdiaren eta askatasun-gabetzearen inguruan pentsatzea, baita hausnarketa egitea ere giltzaparatzeak dituen funtzioen, ondorioen, eraginen eta esanahien inguruan. Ezbairik gabe, kartzelako murrutatik haratago doan premia batez ari naiz. Espetxe-sistemak gure jendarte osoaz hitz egiten du, gu guztiotaz mintzo da; kartzela ez baita gizartearen isla –usu hori esaten bada ere–, gizartea bera baizik. Ezin dugu atzeratu edo geroko utzi espetxe-sistemaren inguruko debate kritikoa, gaur egun garenaz eta etorkizunean izan nahiko genukeenaz eztabaidatzeko garaia baita.

Doktorego-tesi honen egiturari dagokionez, esan beharra dago hainbat ataletan banatuta dagoela. Lehenik eta behin, ikerketaren helburu nagusiak eta zehatzak azalduko ditut. Jarraian, abiapuntuko hipotesiak ere aurkeztuko ditut. Behin hori eginda, testuinguru etnografikoan eta estrategia metodologikoan murgilduko naiz; batetik, Euskal Herriko presondegiak ezagutzeko, eta, bestetik, doktorego-tesian eginiko urrats metodologikoak deskribatzeko.

Hurrengo atalean, «Espetxeratutako emakumeei begira: ekarpen antropologikoak eta feministak» deiturikoan, ikerketaren marko teorikoa dago, bost kapituluatan antolatuta. Lehenengoan, emakumeen delituzko ekintzak, estigmatizatzea eta egungo marko penala aztertuko ditut. Bigarrenean, berriz, kartzela-sistemaren oinarrietan barrenduko dut. Emakumeen giltzapetze penala jorratuko dut segidan, hirugarren atalburuan, bilakaera historikoa eta egungo egoera uztartuta. Laugarren kapituluatan, emakume atxiloen arteko ezberdintasunei helduko diet, aniztasuna kontuan izatearen garrantzia azpimarratuta. Bosgarrenean, emakume presoan erresistentzia-praktiketara hurbiltzen saiatuko naiz.

Gero, hurrengo atalean, «Espetxeratutako emakumeekin solasean» izenekoan, analisiari ekingo diot, beste bost kapitulu baliatuta. Aurrenekoan, elkarrizketatutako emakume presoan ibilbideak jorratuko ditut, kartzelaldia bizitzeko nahiz baloratzeko askotariko moduetan sakonduta. Bigarrenean, espetxeko genero-diskriminazioen inguruko iritziak landuko ditut, ikuspegi ezberdinak erabilita. Ondoren, erresistentzia-praktikak bihitzen hasiko naiz: hirugarren atalburuan, kartzela barruko harremanekin loturikoak aztertuko

ditut; laugarrean, presondegiko itxialdiaren zurruntasuna nola hala gaintzeko balio duten jardunbideei helduko diet; eta, azkenekoan, sormenean zein adierazpen-moduetan barrenduko dut.

Bukatzeko, doktore-tesiaren ondorio aipagarrienak laburbilduko ditut.

Luzabide gehiagorik gabe, murgildu gaitezen ikerketan.

## **HELBURUAK ETA HIPOTESIAK**



## Helburu nagusiak eta zehatzak

Ikerketa hau hasi nuenean, zenbait jomuga finkatu nituen:

- Kartzela genero-erakunde bezala aztertzea eta bere jardunbide zein esanahien inguruan gogoeta egitea; ezarritako sistemaren nahiz arauen sostenguari lotuta, espetxe-sistemak emakumezkoen eredu hegemonikoa zein rol tradizionalak nola bultzatzen dituen aztertuta, eta, halaber, harreman desorekatuak, bereizkeriak eta diskriminazioak nola gehiagotzen dituen jorratuta.
  - Espetxeak sustatutako generizatzearen nondik norakoak lantzea, hainbat alorretan –besteak beste, lan-egoeran eta prestakuntzan, osasun-egoeran, medikalizatzean eta legearen kontrakoak diren substantzien kontsumoan, harremanetan eta sexualitatean– gertatzen dena jasota eta aztertuta.
  - Presondegietan, aipatutako alorretan jazotako diskriminazioak sakonki ezagutzea eta aditzera ematea; batez ere, azken urteotan espetxe-sistemak hartutako norabideari jarraiki, desabantaila horiekin guztiekin gertatzen ari dena aztertuta eta aldaketa posibleak kontuan edukita.
- Emakumezko presoan espetxeko bizipenen berri izatea, emakumeek eurek bizi dutenaren inguruan pentsatzen dutena eta esateko dutena jasota; egon daitekeen aniztasuna baztertu gabe, haien iritziak, usteak, jarrerak, portaerak zein ekintzak, diskurtsoak nahiz jarduteak landuta, haien irakurketetara edota interpretazioetara hurbilduta.
  - Kartzelako egunerokotasunera nola hala egokitzekeo premiak emakume atxiloari suposatzen diena ezagutzea eta horren inguruan gogoeta egitea; itxialdiaren nahiz askatasun-gabetzearen kausaz, espetxealdiak murruen barruan eta kanpoan ekartzen diena, jazotako aldaketak, horren inguruan egiten dituzten interpretazioak eta aburuak ikertuta.

- Emakumeek presondegi-bizipenen inguruan egiten dituzten irakurketa anitzen izatea jasotzea eta lantzea; espetxealdia haustura, jarraipen edota inflexio-une legez ikusten duten aztertuta eta horren zentzuaren inguruan galdeginda.
- Kartzelaraturako emakumeen agentzia azaleratzea, itxialdiak nahiz askatasun-gabetzeak eragindako trabak eta zailtasunak gainditzeko erresistentzia-praktiken azterketaren bitartez; espetxe-sistemaren izaera murriztailea abiapuntu hartuta, ondorioak nola hala arintzeko eta genero-zapalkuntzari kontra egiteko moduak jorratzea.
  - Espetxeratutako emakumeen agentzia ardatz hartuta, jasotako alorretan noiz, nola eta zergatik jokatzen duten modu batean edo bestean, urratzeak maila indibidualean edo kolektiboan egiten dituzten eta desberdintasunek zeri erantzuten dioten jakitea.
  - Indarrean dauden ereduak eta arauen eztabaidatzeak nahiz asaldatzeak ekiditeko, edonolako portaera kritikoak saihesteko eta mendetasuna zein pasibotasuna bultzatzeko, kartzela-sistemaren kontrolerako mekanismoen berri izatea, ñabardurak eta xehetasunak landuta.

## **Abiatze-hipotesiak**

Orobat, ikerketak honako hipotesiak izan ditu abiapuntutzat:

- Bai gizonentzat eta baita emakumeentzat ere presondegia lazgarria izan ohi da, baina modu desberdinean. Jende gehienak gizonentzat okerragoa dela pentsatzen du fisikoki indarkeria nabarmenagoa delako eta, zentzu horretan, bortitzagoa edo arriskutsuagoa izan daitekeelako. Emakumezkoentzat arinagoa dela dirudi, baina horrek ez du hobe denik esan nahi; indarkeria fisikoa bezain eraginkorrak diren bestelako mekanismoen bitartez espetze-sistemak bere balioak ezartzen baititu. Presondegiak generitzatzea bultzatzen du eta, hala, emakumeei haurrak bailitza tratatzen zaie, mendekoak izango balira bezala, aintzatespen gutxiago erakutsita. Eredu hegemonikoen eztabaidatze-erak genero-desorekak gainditzea oztopatzen du.
- Emakume presoei zuzendutako enpleguen eta prestakuntzaren alorrean hainbat diskriminazio gertatzen dira. Aukerak urriagoak dira, gabezia handiak dituzte eta oro har feminizatzea edo emakumeen rol tradizionala sustatzera bideratzen dira. Lan, tailer nahiz jarduera asko etxeko lanekin eta eskulanekin lotuta daude; eta, ondorioz, denbora-pasak izan daitezke, baina ez dira jeneralean kalean enplegua topatzeko lagungarriak, edota, izatekotan, gaizki ordaindutako eta arautu gabeko lanbideetara bideratzen dira.
- Giltzapean emakumeen osasun-egoerak okerrera egiten du, gaixotasun berriak sortzen direlako eta aurretik zituztenak larriagotzen direlako. Tratamendua ez da aproposa. Osasun-zerbitzuek gabezia nabarmenak dituzte eta eritasun gehienak medikalizatzearen bidez artatzen dira. Emakume presoen diagnostikoetako asko buruko gaitzenak dira –depresioa edo antsietatea, kasu–, haien «natura» dela eta, histerikoagoak eta sentikorragoak direnaren usteekin lotuta egon daitekeena.

- Espetxeratutako emakume askok bakardade handia bizi dute, kausa diferenteak direla eta: senideen, lagunaren edota bikotekideen abandonatzea, elkartasun sareen urruntasuna –bereziki, atzerritarren kasuan–, seme-alaben tutoretza-galera, etab.
- Orokorki, kartzelatutako emakumeak genero-desoreka batzuetaz jabetzen dira, baina ez dute beraien burua «feminista» definitzen. Arau-urratzaileak direla uler dezakegu, ekintza zenbaiten bidez feminitatearen rol tradizionala hautsi dutenez gero, gehienek eredu jakinaren gainean kritikatu edota zalantzan jarri ez badute ere.
- Presondegikoa bizipen samingarria izanagatik ere, emakume batzuek beraien bizitza alor batzuetan hobetzeko aukera dute, aldaketarako baldintzak gertatzen direnez gero; adibidez, droga-kontsumoa atzean utzi dutenen kasua izan daiteke. Espetxealdia inflexio-puntua, ikaskuntza-aldia, jarraipen- edo haustura-unea izan daiteke emakume atxiloentzat; ohizko egoeran ezagutuko ez luketen jendearekin hartu-emanen egoteko parada, bestelako errealitateak ezagutzekoa, beste sexu-aukera batzuk frogatzekoa, baita norberaren izatearen gainean hausnartzekoa ere aurki baitezakete.
- Emakume presoen arau-hausteak, eztabaidatzeak nahiz erresistentzia-praktikak antzematea zaila izan ohi da, jendarteak gutxiesten eta ikusezin egiten dituelako. Estereotipoen zein aurreiritzien kausaz, biktimizatzea eta infantilizatzea tartean egonik, emakumeak erabakiak hartzeko eta estrategiak garatzeko, sortzeko edota aurkitzeko kapaz diren subjektu moduan ikustea eragozten da. Hala ikusi ohi ez diren hainbat egitate –legearen aurkako eta legezko drogak hartzea, salerosketak zein elkartrukeak, harreman lesbikoak edo nork bere burua zauritzea, kasurako–eredu hegemonikoak kolokan jartzeko bideak izan daitezke, espetxealdiari aurre egiteko moduak.
- Kartzelan generizatzea, feminizatzea eta emakumeen rol tradizionala sustatzen badira ere, aldi berean, eredu hegemonikoaren urratze handiena izan daitekeena, lesbianismoa, kalean baino agerikoagoa da. Nonbait, presondegri barruan aukera horrek onarpen handiagoa du, ez duelako hainbesteko gaitzespenik jasaten; eta, nolabait, «egiazkoagoa» edota posibleagoa da. Kontraesankorra eta paradoxikoa izan daitekeen arren, bakarrik «benetako» lesbianak ez direneko ustean gertatzen



da –identitateari buruzko ikuspegi esentzialisten eta zurrunen arabera–. Ez dirudi heterosexualitate normatiboa auzitan jartzen dutenik, ez presoek, ezta espetxeko langileek ere.

- Espetxe-sistema emakumeen arteko elkartasun-adierazpenak ekiditen saiatzen da, edonolako talde-sentimendu edo berdinak izatearen kontzientzia saihestuta. Diskriminazioez jabetzeko eta erresistentziak planteatzeko emakumeen indarra gutxiagotzen du horrek. Hala ere, elkartasun-adierazpenak egon badaude.



**MARKO ETNOGRAFIKOA ETA  
ESTRATEGIA METODOLOGIKOA**



## Espetxe-testuingurua Euskal Herrian

Ikerketa honek Euskal Herria du marko geografiko. Hartara, gaur egunean emakumezko atxiloentzako modulu edo departamenturen bat duten –edo duela gutxi arte izan duten– presondegietan ardaizten da: Arabako eta Langraiz Okako kartzelatan, Iruñeko(et)an eta Martutenekoan<sup>10</sup>.

### Arabako eta Langraiz Okako presondegiak

Arabako kartzela Langraiz Oka (Araba) udalerrian dago. 2011n eraiki zen; teoriarik, EAE Euskal Autonomia Erkidegoko presondegien preso-pilaketari aurre egiteko (SIEP, 2011: 13). Zentro Tipo edota Makrokartzelaren egitura du<sup>11</sup>; eta, beraz, nolabaiteko «espetxe-hiria» da, kanpoaldetik isolatzen duten bost segurtasun-itxieraz osatutakoa (*Ibidem*: 16). Zortzi egoitza-modulu ditu, eta atxiloen egunerokotasunaren parterik handiena horietan egiten da; zeldak, jantokiak, egongelak, etab. horien barnean baitaude. Egoitza-modulu bakoitzak 72 zelda ditu. Alta, horiez gain, lau modulu balioaniztun daude, eta bakoitzak 36 zelda ditu. Hortaz, guztira, 720 egoitza-zelda daude. Era berean, horiez bestalde, 152 zelda osagarri ere badaude; honelaxe banatuta: 64 zelda erizaindegian; 56 zelda sartze, irtete eta iragateentzat; eta 32 zelda erregimen itxiko moduluan (*Ibidem*: 78). Emakume presoek espresuki zuzendutako bizitoki-moduluak bi dira: bata, Konplimendu Modulua; eta, bestea, Errespetu Modulua. Orokorrean, ehun bat emakume preso daude<sup>12</sup>.

---

<sup>10</sup> Atalburu honetan aipatutako presondegiez gainera, Euskal Herrian beste bi kartzela daude: Basaurikoa (Bizkaia) eta Baionakoa (Lapurdi). Gaur egun, ez dago emakumeentzako modulerik ez batean ez bestean. Aitzitik, ezin aipatu gabe utzi Basauriko kartzelan emakume atxiloak egon zirela 1990 arte. Urte horretan, emakumeen departamentua kentzea erabaki zuten, gizonentzako sekzio irekia jarri ahal izateko (*Arbelaitz et al.*, 2012: 35).

<sup>11</sup> «Zentro Tipo», «Makrokartzela» edo «Errespetu Modulu» bezalako kontzeptuen esanahia aurreraxeago azalduko dut; zehatz-mehatz, «2.3.2. Makrokartzelak, Modulu Terapeutikoak eta Errespetu Moduluak» azpiatalean.

<sup>12</sup> Zenbateko zehatzak jakin nahi izanez gero, ikus 3. eta 4. taulak, «1.3. Delitua (bir)definituz: egungo testuinguru penala» azpiatalean.

Langraiz Okako espetxea (Araba) izen bereko udalerrian dago, baina presondegi berritik urrun. 1981. urtetik du egungo egitura, eraikina zaharragoa bada ere<sup>13</sup>. Arabako kartzela zabaldu zenetik, Langraiz Okako espetxea presoek ireki bezala jardun du; baina, horren aurretik, presondegi modular arrunta zen. Gizonentzako lau modulu zituen; eta emakumeentzako bakarra, bi departamentutan bereizita –presondegi korriente moduan egindako azken urteetan, bat Errespetuzkoa zen, eta bestea Konplimentuzkoa—. Orotara, 562 zelda zituen; eta horietatik 470 inguru ziren egoitzarako. Emakumeek 40 bat zelda zituzten. Orokorki, 70-80 inguru ziren bertan espetxeratutako emakumeak.

### **Iruñeko presondegia(k)**

Gaur egungo Iruñeko kartzela (Nafarroa) 2012an inauguratu zen; zaharkitua ei zegoen lehengo espetxea ordezkatzeko (SIEP, 2012: 3). Arabako presondegiaren kasuan bezala, Zentro Tipoaren edota Makrokartzelaren egitura du; haatik, ez da aurreneko hori bezain handia. 72 zeldaz osaturiko lau egoitza-modulu ditu, eta 36 zeldaz osaturiko beste bi. Orobat, lau modulu balioaniztun ere ditu, 36 zeldaz osaturik horietako bakoitza. Beraz, denera, 504 egoitza-zelda daude. Horiez gainera, osagarriko 120 zelda daude; honelaxe banatuta: 44 zelda erizaindegian; beste 44 zelda sartze, irtete nahiz iragateentzat; eta 32 zelda erregimen itxiko moduluan (*Ibidem*: 31). Emakume atxiloentzat bizitoki-modulu bakarra dago; 36 zelda ditu eta Errespetu Modulua da. Oro har, 25 bat emakume preso daude.

Iruñeko espetxe zaharra (Nafarroa) 1908an zabaldu zen. Jardunean egon zen presondegi berria eraiki arte. Baina, behin kartzela berria bukatuta eta atxiloak lekualdatuta, eraitsi zuten. 107 egoitza-zelda zituen, eta 11 zelda osagarri. Emakumeentzat bizitoki-modulu bakarra zuen, eta 2009. urteaz geroztik Errespetuzkoa zen. 25 inguru ziren bertan preso zeuden emakumeak. Edonola ere, aipagarria da emakumeentzako moduluak gorabehera handiak izan zituela urteetan. Bada, 90eko hamarkadan itxi egin zuten, egoera eskasean zegoela argudiatuta; eta, 1999. urtera arte, eraberritze-lan batzuk egin ondoren berriz ere ireki zuten arte, Nafarroan atxilotutako emakume guztiak Langraiz Okako presondegira eramán zituzten (Salhaketa Nafarroa, 2011: 51).

---

<sup>13</sup> Lehenago, tamaina askoz ere txikiagoko zentroa zen, preso prebentiboentzat (Arartekoa, 1996: 85).

## **Martuteneko presondegia**

Martuteneko kartzela (Gipuzkoa) izen bereko auzo donostiarrean dago. 1948an zabaldu zen; beraz, egun jardunean dagoen Euskal Herriko presondegirik zaharrena da<sup>14</sup>. Egitura erradiala du; 115 egoitza-zelda eta osagarritzko 27 zelda inguru. Emakume atxiloentzat departamentu bakarra du, 11 zeldaz osaturikoa (Arartekoa, 1996: 63), eta, gaur egunean, Errespetuzkoa da. Orokorrean, 30 bat emakume daude bertan espetxeratuta.

Martuteneko espetxea zaharra izanik eta jardunean segitzeko etengabeko birmoldaketak beharrezkoak izanik, Zubietan (Gipuzkoa) presondegi berria eraikitzea deliberatu zuten 2005ean. Alabaina, azken horren eraikuntzak hainbat atzerapen izan ditu eta, proiektuak aurrera jarraitzen badu ere, ez dago oso argi kartzela berria noiz zabalduko den. Edonola ere, prentsa idatzian argitara eman denaren arabera (Munguía, 2013-01-24), Zubietako presondegiak Iruñeko espetxe berriaren egitura berbera izango du, Zentro Tipoaren edo Makrokartzelaren ereduarekin bat eginez. Hala, 504 egoitza-zelda izango ditu, eta 120 zelda osagarri.

---

<sup>14</sup> Emakume presoak dituzten lau presondegien artean zaharrena esan nahi dut. Baionako espetxea 1891n inauguratu zen; baina, esan bezala, ez du emakumerik kartzelatzen.





## Metodologiari buruzko hainbat ohar

Orrialde hauetan aurkeztutako ikerlanak metodologia antropologikoa du ardatz; hots, norbanakoen iritzien, pertzepzioen, bizipenen, jarrerren zein usteen sakoneko azterketa. Hainbat ikerketa-teknika erabili ditut –azterketa bibliografikoa, elkarrizketa sakonak eta behaketa parte-hartzailea, gehienbat–; lehen mailako zein bigarren mailako informazio-iturriak. Jarraian, hain zuzen, horien inguruko zenbait azalpen emango ditut, ikerketa-prozesuaren nondik norakoetan barrendatzeko asmoz. Doktore-tesi honen testuinguruan berariaz egindakoan zentratuko naiz. Aitzitik, kontuan hartzekoa da *Mujeres ex-presas: vulnerabilidad y autonomía* (2012) talde-ikerketan bildutako informazioa ere berrikusi eta baliatu dudala<sup>15</sup>, nolabaiteko abiapuntutzat edo oinarritzat hartuta, nahiz eta orokorki ez dudan aipamen zuzenik egingo.

Erabilitako teknika kualitatibo ezberdinek ikerketa-objektua lantzeko informazio zinez aberasgarria eskaini didate, baita askotarikoa ere. Horrela izanik, sailkatzeko eta gerora analisisa egiteko, bost gai-multzo hartu ditut kontuan: 1) emakume presoan espetxeko ibilbideak eta kartzelaldiari buruzko balorazioak; 2) espetxeko genero-diskriminazioen inguruko iritziak, baita bestelako bereizkerien ingurukoak ere; 3) kartzela barruko hartu-emanei loturiko erresistentzia-praktikak; 4) presondegien murrueen zurruntasuna kolokan jartzeko jardunbideak; eta 5) barrena arintzeko eginbideak nahiz adierazpen-moduak. Alabaina, gai-multzo horien edukiari heldu aurretik, baita erreferentzia teorikoak landu aurretik ere, esan bezala, alderdi metodologikoan sakonduko dut.

---

<sup>15</sup> Ikerketa horren inguruan gehiago jakiteko, ikus Arbelaitz *et al.* (2012). Nolanahi ere, ohar labur batzuk ematearren, preso egondako 19 emakumezko elkarrizketatu genituen, emakume atxiloekin zuzenean edo zeharka lan egiten zuten 46 agenterekin bildu ginen (espetxe-langileak, presondegiatan lan egiten zuten elkarteetako kideak nahiz norbanako boluntarioak) eta gure ideiak zenbait ikerlari aditurekin eztabaidatu genituen. Doktore-tesian, aurreko ikerlan horretako elkarrizketa sakonen transkribapenak zein bileretako oharra erreparasatu eta berraztertu ditut.

## **Azterketa bibliografikoa eta bigarren mailako beste zenbait informazio-iturri**

Ikerlan hau aurrera eramateko, ikerketa-objektuarekin loturiko literatura zientifikoaren edota esparruko lan esanguratsuenen azterketa egin dut. Prozesu osoan zehar etengabe egindako jardunbidea izan da; sakonagoa edo arinagoa, unean uneko beharren arabera. Besteak beste, ondorengo gaiak jorratu dira: emakumezkoen delituzko ekintzak nahiz bizirauteko estrategiak, eta emakumeen delituei garai historiko ezberdinetan emandako esplikazioak; emakumeen giltzapetzearen bilakaera historikoa (XVI. mendetik aurrera); espetxe-sistemaren barruan emakume presoek alor ezberdinetan jasaten dituzten genero-diskriminazioak nahiz bestelakoak; kartzelaratutako emakumeen artean aurki daitezkeen profil ezberdinak (atzeritarrak, ijitoak edota droga-kontsumitzaileak, kasu) eta haietako bakoitzaren berezitasunak; espetxean egondako emakumeek idatzitako lanak; etab.

Azterketa bibliografikoaz ari naizela, ezin aipatu gabe utzi Universidade do Minho-ko (Braga, Portugal) CRIA Centro em Rede de Investigação em Antropologia-n egindako hiru hilabeteko egonaldia (2015eko irailaren 21etik abenduaren 20ra). Izan ere, bertan, Manuela Ivone P. da Cunha irakaslearen tutoretzapean, ezezagun nituen ikuspuntu nahiz erreferentzia teorikoetan sakontzeko beta izan nuen. Batik bat, bi esparru jorratu nituen: presondegien barrualdearen eta kanpoaldearen arteko elkarreraginak zein artikulazioak, eremu horien arteko mugaren porositateari helduta (Cunha, 1994, 2002, 2005a, 2005b, 2008a, 2008b, 2008c, 2014; Maciel, 2011) eta emakume atxilo zein delitugileei buruzko nondik norakoak Portugalen (Matos, 2006; Duarte, 2012; Granja, Cunha eta Machado, 2012; Cunha eta Granja, 2014; Gomes eta Granja, 2015).

Era berean, irakurketekin batera, ikus-entzunezko zenbait lan ere jaso eta aztertu ditut. Ikerketan zehar oro har erreferentzia zuzena egingo ez badiet ere, emakume presoekin lotutako dokumentalak, pelikulak, telesailak, irrati-elkarrizketak, hitzaldien grabaketak, etab. landu ditut. Erakuskari bezala, baten batzuk aipatzearen, ondorengoak zerrenda daitezke: *Septiembre* (Bosch, 2007), *El patio de mi cárcel* (Macías, 2008), *Módulo 10* (Marcos eta Muñiz, 2010), *Prohibido recordar* (Martinez eta Larreategi, 2010), *Barrura begiratzeko leihoak* (Martinez et al., 2012), *Lunas cautivas* (Paradiso, 2012), *Mur-mur* (Gutiérrez, 2012), *The Grey Area* (Ashkenazi, 2012), *La mochila invisible* (Hernández, 2015), etab.

Orobat, ikerketa kualitatiboa izanagatik ere, datu zenbaitzuen bilketa eta jarraipena ere burutu dut; ondorengo iturriak baliatuta: EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea, INE Espainiako Estatistika Institutua, SGIP Espetxe Erakundearen Idazkaritza Nagusia, ICPR Politika Kriminalaren Ikerketarako Institutua, eta ICPS Espetxe Ikerketen Nazioarteko Zentroa. Horrela, Hego Euskal Herriko, Espainiako Estatuko, Europako eta nazioarteko espetxe-egoerak neurri batean alderatzeko aukera izan dut. Aitzitik, aipagarria da datu dezente eskuragai egon arren, gutxi direla sexuaren arabera bereizitakoak, baita Euskal Herriari buruzkoak ere. Ikerketan jasotako azken datuak 2015eko irailekoak dira.

### **Elkarrizketa sakonak**

Doktorego-tesi honen markoan, elkarrizketa sakonak ere burutu ditut. Guztira, 36 izan dira; honela banatuta: banakako 20 elkarrizketa emakume preso sozial edo preso sozial ohiei, eta taldeko elkarrizketa 1 haietako 4ri<sup>16</sup>; banakako nahiz taldeko 6 elkarrizketa kartzelatako beharginei (3 gizarte-langile, 3 irakasle, 2 jurista, 2 gizarte-hezitzaile eta psikologo 1); banakako edota taldeko 6 elkarrizketa emakume presoekin aritzen diren eta nolabaiteko genero-ikuspegia duten 7 elkartetako kideei; eta banakako 3 elkarrizketa EPPK Euskal Preso Politikoen Kolektiboko 3 menbru ohiri<sup>17</sup>. Zalantzarik gabe, aktore ezberdin horiek guztiek dute ikergaiaren gaineko ezagutza. Alabaina, euren ikuspegiak eta posizionamenduak diferenteak dira. Beraz, askotariko irakurketak eta interpretazioak eskaini dituzte; informazio zinez aberasgarria, iritziak alderatzeko nahiz kontrajartzeko.

#### *Emakume presoiei egindako elkarrizketak*

Jada esan bezala, hogeit hamar emakume preso sozial edo preso sozial ohi elkarrizketatu ditut banaka; eta horietako hirurekin, baita laugarren batekin ere, taldeko elkarrizketa bat ere egin dut. Elkarrizketa guztiak 2013ko maiatza eta 2014ko ekaina bitartean osatu dira; denak grabatuta, transkribatu ahal izateko. Batez besteko iraupena ordu eta erdikoa/ordu

---

<sup>16</sup> Banaka ere elkarrizketatu ditut talde-elkarrizketan parte hartu duten lau emakumeetako hiru.

<sup>17</sup> Hasieran, emakume atxiloen senideak, lagunak edota bikotekideak ere elkarrizketatzea pentsatu nuen. Baina, ikerketak aurrera egin ahala, asmo hori bertan behera utzi nuen, zenbait zailtasun zirela eta. Izan ere, emakume preso askorentzat familia gai delikatua da oso. Batzuek hartu-eman gorabeheratsuak dituzte senideekin edota, sinpleki, ez dituzte espetxearekin zerikusia duen ezertan nahastu nahi. Halaber, kontuan hartu behar da batzuetan senitartekoak urruti daudela ere.

eta berrogei minutukoa izan da; elkarrizketa luzeena hiru ordukoa izanik, eta laburrena hogei minutukoa. Oro har, behin baino ez dut elkarrizketatu emakume bakoitza; baina birritan egin dut hirurekin, bildutako lehenengo aldiko denbora falta konpentsatzeko. Elkarrizketak prestatzeko, balizko galderekin osatutako gidoiak erabili ditut<sup>18</sup>; baina malgutasun handiz egin dut, elkarrizketatu bakoitzari moldatzeko saialdian. Nolanahi ere, guztiekin jorratutako gaiak antzekoak izan dira. Zalantzarik gabe, solasaldi horietan jasotako informazioa gako izan da ikerketa honetan, zinez emankorra izan denez gero.

Bi kasutan izan ezik, elkarrizketatuen kontaktatzea emakume presoekin lan egiten duten elkarteen bidez egin da<sup>19</sup>. Kontaktuak nagusiki horrela egiteak bi egitate aipagarri ekarri ditu: alde batetik, elkartearen bitartekaritzaren garrantzia; eta, bestetik, elkarrizketatuen perfilak aukeratzeko ezintasuna. Lehenengo egitatearekin adierazi nahi dudana zera da: elkarrizketatuengana iristeko modua zeharkakoa izan dela, kasuan kasuko elkartearen esku egon dela ikerketaren eta elkarrizketaren nondik norakoen aurreneko azalpena, eta, elkartearekiko hartu-emanaren arabera, balizko elkarrizketatuek baiezkoa edo ezezkoa eman diotela errazago solasaldiari. Horrekin ez dut inondik inora iradoki nahi elkarteen bitartekaritza positiboa izan ez denik; zinez mesedegarria izan baita, elkarteek orokorki laguntzeko jarrera izan dutenez gero. Alabaina, ukaezina da euren artekaritzak kontuan hartzeko eragina izan duela. Bigarren egitateari dagokionez, hau da, elkarrizketatuen perfilak aukeratzeko ezintasunari dagokionez, elkarrizketatzaileak ez du solasaldia zeini proposatu aukeratzeko betarik izan oro har; hortaz, elkarrizketatuentzat hainbat aldagai finkatuta izan arren, elkarrizketatuen taldea ez da horien arabera osatu. Hala eta guztiz ere, profil ezberdinetako emakumeekin bildu naiz, aldagaien aniztasuna jasota eta lagin esanguratsua lortuta. Landa-lanaren une jakin batean, bestelako moduen bitartez ere kontaktatzen saiatu nintzen –kasurako, elkarrizketatuen bitartez kontaktu berriak egiten ahaleginduta–, baina orokorki ez nuen gehiegi lortu.

Elkarrizketatutako emakumeen jarrerari dagokionez, oro har oso positiboa, laguntzailea eta kolaboratzailea izan dela esan beharra dago. Izan ere, asko ireki direnaren sentsazioa izan dut, baita, hainbat kasutan, euren istorioak xehetasun handiz azaldu dituztenarena ere. Alta, inportante samarra iruditzen zaidan ñabardura bat egin nahiko nuke: batzuetan elkarrizketari garrantzia eman diotenaren sentipena izan dut, euren egoerak hobetzeko

---

<sup>18</sup> Ikus I. eta II. eranskinak.

<sup>19</sup> Salbuespenetako batean kontaktua zuzenean egin da, elkarrizketatua eta elkarrizketatzailea adiskideak izanik; eta, bestean, beste elkarrizketatu baten bidez egin da.

mesedegarria izango balitz bezala; eta beste batzuetan, aldiz, solasaldiari muntarik eman ez diotenaren inpresioa izan da nagusi, ikerketa soil batek euren problemak konponduko ez dituenaren jakitun. Era berean, batzuek eskerrak eman dizkiote elkarrizketatzaileari, eurentzat onuragarria izan daitekeen zerbait egiteagatik edota euren egoeragatik interesa erakusteagatik; baina beste batzuek argi izan dute elkarrizketatzailea dela eurei eskerrak eman behar dizkiena, haren ikerketa gauzatzeko euren istorioak kontatzeagatik. Jarrera batek zein besteak ikerketari –eta ikerlariari– oreka aproposa eman diotelakoan nago; azken batean, ikerlariaren eta ikerketan parte-hartzaile diren subjektuen arteko botere-erlazioen inguruan hausnartzeko abiarazle izan dira, baita ikerlanaren mugez eta ahalez jabetzeko sustatzaile ere.

Horrekin lotuta, baina ikerlariaren jarreran zentratuta, beharrezkoa da ikerketa-prozesu osoan presente egon den arrisku bat aipatzea; emakume presoekin lotura duten aktore ezberdinek hainbatetan ohartarazi baitidate haren inguruan. Itxura denez, emakumezko presoen egoera azken urteotan ikerlarien eta kazetarien artean garrantzia hartu duen gaia da; horrenbeste, ezen batzuek modan dagoela ere baieztatu duten. Espetxean egon diren emakumeak elkarrizketatzeko eskaerak areagotu egin dira, bat-bateko jakin-min horren ondorioz; eta, antza, horrek emakume atxilo zenbait gogaitzen ditu. Batzuek ez omen dute ulertzen zergatik diren interes-objektu, ezta zer dela eta egiten diren haien inguruko hainbeste lan ere. Nire ikerketa hasi nuenean horren kontziente ez banintzen ere, eta nire elkarrizketatuen aldetik sentipen hori nabaritu ez dudan arren, arazo horren jakitun izateak hainbatetan nire lana birpentsatzera eraman nau, nire egiteko moduen inguruan hausnartzera bultzatuta. Hala, elkarrizketatuak une oro errespetatuta sentitzeko kontuz jokatu nahi izan dut; norberaren istorioa nahi bezala kontatzeko –edo isiltzeko– aukera helarazita, hitz egiteko erritmo eta modu ezberdinei egokitzen saiatuta, etab. Era berean, kontakizunen zenbait pasarte elkarrizketatuentzat bereziki mingarriak eta asaldagarriak direna jakinda, konfiantza eta babesa ere transmititzen ahalegindu naiz. Ezbairik gabe, intentsitate emozional handiko solasaldiak izan dira elkarrizketatuentzat orokorki, baita antropologoarentzat ere –modu guztiz ezberdinean izan arren–. Hunkitze-uneak nahiz malkoak oso presente egon dira, isiluneak eta etenaldiak bezalaxe; baina aipatzekoa da barreentzako tarterik ere egon dela.

Segidan, elkarrizketatutako emakume preso eta preso ohiak aurkeztea baino ez da falta. Hala, euren deskribapenak emango ditut, ikerketan kontuan hartutako aldagaien arabera:

- Adina
- Jatorria, etnia, naziotasuna eta egoera legala
- Ikasketa- eta lan-jarduerak
- Alkoholaren eta legez kontrakoak diren drogen kontsumoa
- Gizarte-harremanak eta sareak
- Egoera sexu-afektiboa
- Ardurapeko pertsonak, amatasuna eta elkarbizitza
- Delitu-mota eta espetxe-zigorra

Aipagarria da deskribapen-sortan ez dudala *Amparo* izendatutako emakumea sartu. Izan ere, taldeko elkarrizketan parte hartu duen arren, ez da banaka elkarrizketatua izan – berak hala erabakita– eta, ondorioz, apenas dut berari buruzko informazioa. Dakidan apurra zera da: ijitoa dela, heldua eta hainbat seme-alabaren ama; espetxean asko sufritu duela, senitartekoak urrun izatearen kausaz; eta indarkeria matxista jasan duela.

Ezagutu ditzagun orain ikerketa honetako gainerako hogeitak protagonista:

### *Aitana*

---

47 urte ditu eta zamorarra da. 13 urterekin eskola utzi zuenetik, hainbat lanpostu izan ditu; hegazti-hiltegi bateko langilea, garbitzailea eta sukaldaria izan baita, besteak beste. Gizonezkoekin izan ditu harreman sexu-afektiboak, eta hiru seme-alaba ditu. Kartzelan egondako urte guztietan, senitartekoen babesa izan du eta, batik bat, gurasoen sostengua nabarmentzen du. Orokorrean, bere familiak erlazio nahiko estua izan du espetxearekin; Aitanaz gain, bi anaiek eta iloba batzuek ere kartzelatzea ezagutu baitute. 14 urterekin, Aitana heroina eta kokaina hartzen hasi zen eta, denbora luzez, bere bizitzan «drogak, drogak eta drogak» nagusitu zirela dio. Haatik, 2005ean metadona-tratamendua burutu zuenetik, ez du inolako drogarik hartu. Bitan espetxeratu dute: aurreneko aldiz 1996an, 2000. urtera arte, droga-trafikoa leporatuta; eta bigarren aldiz 2004an, berriro ere osasun publikoaren kontrako delituengatik, baita hainbat lapurretaren pilaketagatik ere. Azken aldi horretan, hamalau urteko espetxe-zigorra jaso zuen eta, elkarrizketaren unean, kasik bederatzi urte eta erdi zeramatzan preso, denbora horretan hainbat presondegi ezagututa: Topas (Salamanca), Mansilla de las Mulas (León) eta Araba, kasurako. Espetxealdian,

bere seme-alaben aita eta bera dibortziatu egin ziren, eta kartzelan ezaguturiko gizon atxilo batekin ezkondu zen. Solasaldiaren momentuan, lau urte zeramatzaten elkarrekin eta, Aitanaren arabera, senarra zen espetxeak emandako onura bakarra. 2012ko irailean iritsi ziren biak Arabako kartzelara, lekualdaketa eskatu baitzuten, itxialditik lasterrago irteteko itxaropenez. Hizketaldiaren unean, Aitana sekzio irekian zegoen, baldintzapeko askatasunaren zain eta senarra espetxetik irtetea esperoan, biak elkarrekin Santanderrera joateko. Hasiera batean, lehen aldiz proposatzean, ez zuela elkarriketarik nahi erantzun zuen, ez zituelako oroitzapen mingarriak astindu nahi; baina, aurrerago, bigarren aldiz galdetzean, baiezkoa eman zuen. Ziurtasunez, ahots sendoarekin hitz egiten du, eta argia bezain zuzena da; ez du, ostera, gai batzuen inguruan ezer aipatu nahi. Bere kontaketan, bizipenen aniztasuna eta espetxe-sistemaren aldaketak nabarmentzen ditu. Bere iritziz, kartzelan ez dago «esperientziarik», «biziraupena» baizik. Itxialdia zinez latza izan dela eta markatuta utzi duela pentsatzen du, baina, hala eta guztiz ere, nahiago du aurrera egiteko indarra eta kemena erakutsi. Elkarrizketa egin eta hilabete batzuen buruan, jada baldintzapeko askatasunean zegoela, dibortziatu egin zen. Bolada txarra pasatu zuen, eta bere semeetako bat berarekin bizitzera etorri zen Euskal Herrira. Azken berrien arabera, ondo zegoen eta mementoko ez zuen inora lekualdatzeko asmorik.

### *Altagracia*

---

35 urte ditu. Dominikar Errepublikakoa da jatorriz, aspalditik Bizkaian bizi bada ere. Bere jaioterrian unibertsitate-mailako ikasketak egin zituen eta, horri esker, idazkari lanpostu publikoa lortu zuen. Bere egoera sozioekonomikoa benetan ona zen eta inolako arazorik gabe bizi zen bere semearekin. Behinola, oporretan zegoen gizon euskaldun bat ezagutu zuen eta bikote-erlazioa hasi zuten. Denbora batez bata bestearengandik urruti egon ostean, Altagracia eta bere semea Euskal Herrira lekualdatu ziren. Bikotea orduan ezkondu, eta beste bi seme-alaba izan zituen. Hasiera batean, aldakuntza latza izan zen Altagraciarentzat; testuingurua oso desberdina iruditu baitzitzaion, eta etxeko lanak zein haurren zaintza nekosoak baitziren beretzat. Aitzitik, etxetik kanpo lanean hasi zenean, gusturago sentitu zen. Kartzelan sartu baino urte eta erdi lehenago, dibortziatea erabaki zuen eta, bere ustez, une horretatik aurrera bolada batez nahiko «erotuta» ibili zen, jende «desegokiarekin» elkartuta. Izan ere, liskar batean, lesio batzuk egin zizkion emakume bati eta, horren ondorioz, erantzukizun zibila ordaindu beharrean zegoen. Ez zuen egin,

osteria; epaileak askotan ohartarazi bazuen ere. Azkenean, atxilotu eta preso sartu zuten, bi urte eta egun bateko espetxe-zigorra ezarrita. Urtebete pasatu zuen itxialdian, Alcalá-Mecoko (Madril) eta Arabako presondegietan. Une oro, bikotekide ohiaren laguntza eta sostengua izan zuen eta seme-alabekin harremanetan egon zen, bi gazteenek ama preso zegoela ez jakin arren. Elkarrizketaren egunean, hirugarren graduari (erregimen irekia) zegoen. Bere kontakizunean azaltzen duenez, espetxealdia oso esperientzia traumatikoa eta mingarria izan da beretzat, baina alde positiboa aurkitzen saiatzen da eta asko ikasi duelakoan dago. Besteak beste, bere egungo bikotekidea kartzelan ezagutu duela aintzat hartzen du. Berritsua da eta gogoz hitz egiten du.

### *Angie*

---

22 urte ditu eta kolonbiarra da, baina Bizkaian bizi da 9 urte zituenetik. 18 urterekin, batxilergoa eta enpresa-administrazioarekin loturiko ikastaroak egin eta gero, ikasteari uztea erabaki zuen; lanean hasi nahi baitzuen, lehenbailehen ekonomikoki autonomia bilakatzeko. Hainbat enplegutara aritu bazen ere, berehala topo egin zuen problema ekonomikoekin eta, ondorioz, kezka berriak sortu ziren bere bizitzan. Berak esaten duenez, ordura arte ez zuen ezagutzen bizirauteko zailtasunik, aitarekin bizi zenean dena oso erraza zelako beretzat. Egoera hartan hasi zen drogak hartzen, bere interesia bakarria «festa» omen zelako. Espetxean sartzean utzi zion drogak hartzeari, bestelako bizimodua nahi zuela erabakita. 2012an kartzelatu zuten, Kolonbiatik Madrilerako *mula*-lanetan harrapatu ondoren. Osasun publikoaren aurkako delitua egotzita, sei urte eta egun bateko espetxe-zigorra jaso zuen. Hasieran, Alcalá-Mecoko presondegira (Madril) eramantzen zuten, eta, aurreraxeago, Arabara lekualdatu zuten. Guztira, hamalau hilabete egin ditu itxialdian. Kartzelan pasatako denboran, gorabehera handiak izan ditu familiarekiko harremanetan. Senideengandik urrutiratu zela dio, baina, egun, erlazio ona berreskuratu duela kasik guztiekin, bereziki, Kolonbian daudenekin. Bisexuala da eta hainbat harreman izan ditu espetxean. Elkarrizketaren unean, ia bi hilabete zeramatzan sekzio irekian; eta, atzerritar gisa urteetan egoera erregularrean egon eta gero, modu irregularrean zegoen. Narratzaile ona da eta gustura hitz egiten du, lasai, adierazi nahi duena ondo azaltzeko behar duen denbora hartuta, baita xehetasunak eta ñabardurak emanda ere. Hainbat gai lantzen ditu bere kontaeran, bere bizipenak ulertarazteko beharrezkotzat dituen gakoetan sakonduta. Bere hitzetan, gizarteak ezarritako jomugak



ez betetzearen ondoriozko mina eta porrot egin izanaren sentipena nabari dira. Espetxea, bere iritziz, «zure nortasuna ez galtzeko etengabeko borroka» da.

### *Diana*

---

33 urte ditu; eta bizkaitarra zein ijitoa da. 15 urte zituenean utzi zuen eskola, baina ez daki zer ikasketa-maila lortu zuen. Heterossexuala da, ezkondata dago eta lau seme-alaba ditu. Bere bizitzan zehar egindako lanen artean, «txatarra biltzea» aipatzen du bakarrik. Horrekin lotutako hainbat lapurreta pilaketaren ondorioz, espetxe-zigor luzea ezarri zioten. 2007an sartu zuten preso, printzipioz, urtebeteko zigorra betetzeko. Bete gabe zituen hainbat auziren ondorioz osterara, azkenean, zortzi urteko kondena jaso zuen. Elkarrizketaren unean, Langraiz Okako eta Arabako presondegiatan urte mordoa egin ostean, hirugarren graduan (erregimen irekia) zegoen. Bere kontaeran, nahiko baxu hitz egiten du eta isilkorra da. Orokorki, oso labur erantzuten ditu galderak, solasaldia bai isilunez bai etenaldiz josita. Bere iritziz, ez dago hitzik itxialdia zer den azaltzeko, baina tristura eta ezintasuna aipatzen ditu. Hala eta guztiz ere, ez du uste dena negatiboa edo txarra denik. Elkarrizketa nahiko motza izan zen, azaldu zuenez, ez zuelako hitz egiteko gogo handirik. Nazkatuta zegoen espetxearekin, gaiak mintzatzeak itotzen zuen eta bere burutik desagerrarazi nahi zuen. Alabaina, hizketaldia egin eta hilabete batzuk geroago, gradu-atzerapena jaso, eta presondegira bueltatu behar izan zuen. Azkenean, 2015eko abuztuan atera zen behin betiko, ia zigor osoa itxialdian bete eta gero. Beti izan du bere familiaren babesa, eta seme-alabekin egoteko irrikan zegoen.

### *Elena*

---

39 urte ditu eta gipuzkoarra da. Oinarrizko ikasketak burututa, hainbat enplegutuan ibili da. Zenbait mutil-lagun izan ditu eta lau alaben ama da. Nahiko gaztea zenean, heroina hartzen hasi zen eta, pixkanaka, bere drogazaletasuna asetzeko, lapurretak egiteari ere ekin zion. Berak dioenez, joan-etorri asko izan ditu drogarekin eta aldizkako kontsumoa izan du, baina aspaldi utzi zuen behin betiko. Nolanahi ere, droga erosi ahal izateko urteetan egindako lapurretek lau aldiz eraman dute espetxera. Duela hogeit hamar urte inguru

sartu zuten lehenengo aldiz preso; azken aldiz 2013. urte hasieran, urte eta erdiz bera bilatzeko eta atxilotzeko agindua egon ondoren. Bere espetxe-zigorak ez dira luzeegiak izan eta guztira, lau auziak kontuan hartuta, hiru bat urte egin ditu itxialdian. Bere azken espetxealdian, hamaika hilabete pasatu ditu Martuteneko presondegian, aspaldiko auzi baten kausaz. Aurretik, beste kartzela batzuk ere ezagutu zituen; esaterako, Aranjuezen (Madril) eta Zueran (Zaragoza) izan baitzen. Urte horietan guztietan zehar, gurasoen eta alaba zaharrenaren sostengua eta laguntza izan du. Aitzitik, adinez txikikoak diren hiru alaben tutoretza galdu du, bere droga-menpekotasunaren eta espetxeratzeen ondorioz. Elkarrizketaren unean, hirugarren graduan (erregimen irekia) zegoen eta, poliki-poliki, alaba gazteenekin harremana berreskuratzen saiatzen ari zen. Argi eta zuzen erantzuten ditu galderak, ziurtasunez orokorki, baina labur eta azalpenetan gehiegi luzatu gabe.

### *Itziar*

---

Bizkaian jaio zen, orain dela 47 urte. Azaltzen duenez, familia-giro guztiz «normalean» hazi zen, bere amarekin eta anai-arrebekin; baina, nerabezaroan, lagun «marjinalak» egin zituen eta horiekin drogak hartzeari ekin zion. 12 edo 13 urterekin porruak erretzen zituen, eta 14 urterekin heroina ere hartzen zuen; «bizimodu latza» eramaten hasi zen horrela. Eskolatik irtetean hartzen zituen drogak hasieran, eta, urte batzuen buruan, bere egunerokotasun osoa drogen araberakoa zen: bilatu, lortu eta salerosi; eta, amaitzean, prozesu berari ekin berriro ere. Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) amaitu zuen; ez zuen, ordea, enplegurik izan inoiz. Aitzitik, pixkanaka, lapurreta txikitan parte hartzen hasi zen eta, aurrerago, armekin aurrezki-kutxetan lapurtzeari ere ekin zion. Hiru aldiz espetxeratu zuten, egoera prebentiboan beti. Lehen kartzelaratzea 20 urte zituenean izan zen; eta Iruñeko presondegian egon zen hamabost bat egunez, fidantzapean atera zuten arte. Droga-trafikoa leporatu zioten, baina ezinezkoa izan zen hori frogatzea eta auzitegiaren barkamena lortu zuen. Bigarren aldia 1989. urtean izan zen, eta hirugarrena 1991n, eta urtebete inguru egon zen aldietako bakoitzean. Azken bi horietan, bere ahizparekin batera atxilotu eta kartzelatu zuten Langraiz Okako presondegian, lapurreta armatua egotzita. Batean, kasua artxibatu zuten, eta bestean, auzitegiaren barkazioa jaso zuen berriz ere. Urte horietan, orduko mutil-lagunarekin bi seme-alaba izan zituen. Bere iritziz, droga-menpekotasunaren ondorioz, lehenengoarekin ez zuen inolako amatasun-sentimendurik izan, eta, horrela, umea aitaren familiarekin geratu zen. Bigarrenarekin,

baina, esperientzia guztiz bestelakoa izan zen. Haurdun zegoela jakin zuenean kartzelan zegoen eta, hasiera batean, abortatu nahi izan zuen; haatik, presondegiak jarritako traben kausaz, ezin izan zuen. Hala ere, haurra jaiotzean, amaren paperean murgildu eta drogak uztea erabaki zuen. Elkarte ebanjeliko batean sartu zen orduan, eta, bertan ezagututako gizon batekin ezkontuta, beste bi seme-alaba izan zituen. Egun, elkarte berean segitzen du, egoitza batean bizitzen eta boluntario legez lan egiten. Urte hauetan guztietan zehar, Itziarrek bere familiaren babesa izan du, gorabeherak egon diren arren. Bere kontaktetan, espetxe-sistemak ez duela inor birgaitzeko balio argudiatzen du; «infernu», «irteerarik gabeko tunel» edota «itzalitako argi» bezala definituta. Gertutasunez, lasai eta argi hitz egiten du, modu oso ordenatuan.

### *Julia*

---

53 urte ditu. Extremaduran jaio eta Asturiasen hazi zen, aspaldidanik Bizkaian bizi bada ere. 13 urterekin eskola utzi zuenetik, askotariko lanak izan ditu; ostalaria, zaintzailea zein lisatzailea izan baita, besteak beste. Heterosexuala da eta hiru aldiz egon da ezkontuta; gaur egun, bere hirugarren senarrarekin banatzean dago. Alaba bat eta bi biloba ditu. Bere alabarekin harremana mantendu arren, erlazioak gorabehera handiak izan ditu preso sartzaren kausaz. Juliak pertsona bakarzale bezala deskribatzen du bere burua, bizitzan aurrera egiteko ez duela inor behar eta ez duela benetako lagunik adierazita. Bere ustez, zakurra da bere konpainiarik onena. 17 urterekin porruak erretzen hasi zen, eta, beranduxeago, kokaina ere hartzeari ekin zion. Azken droga-mota horrekiko atxikimenduak eramane zuen, hain zuzen ere, presondegira lehenbiziko aldiz. Bitan egon da atxilo, osasun publikoaren aurkako delituak egotzita. Aurrenekoz 2006an kartzelaratu zuten, eta hiru urteko itxialdia ezarri zioten; Villabona (Asturias) eta Langraiz Okako presondegietan egon eta gero, 2007an irten zen. Bigarren aldiz 2012an kartzelatu zuten, Arabako presondegian, eta bi urte eta egun bateko zigorra ezarri zioten; sartu eta lau hilabetetara, hirugarren gradua (erregimen irekia) lortu zuen, eta kalera irteten hasi zen. Elkarriketaren unean, kasik zazpi hilabete zeramatzan sekzio irekian. Positiboki balioesten du bere lehen espetxealdia, droga hartzeari utzi ziolako eta sartu zena baino hobeto atera zela uste duelako. Batzuetan, bere iritzia espetxearen oso aldekoa dirudien arren, bere hitzetan suma daiteke bizitako lazgarritasuna, ezintasuna zein amorrua, kritika batzuk mahaigaineratuta. Ziurtasunez hitz egiten du, argi eta garbi.

## *Kontxi*

---

48 urte ditu. Bartzelonan jaioa, Gipuzkoan hazi zen. Familia ugari bateko alaba nagusia izanik, oso gaztetatik arduratu behar izan zuen etxeko lanak egiteaz, baita anai-arrebak zaintzeaz ere. Azaltzen duenez, zio horregatik ez zituen amaitu oinarritzko ikasketak eta goiz hasi behar izan zuen soldatapeko lanean. 18 urte zituenean, bere lehenengo alaba jaioberria zelarik, gurasoen etxetik alde egin zuen umea bertan utzita. Aurretik gaizki ordaindutako nahiz erregulaziorik gabeko hainbat lanetan ibili ondoren, une horretan prostituzioan hastea erabaki zuen. Bere egoera ekonomikoa nabarmenki hobetu zen orduan, eta, horrela, denborarekin, bere prostituzio-negozio propioak zuzentzera ere iritsi zen. Bere bizitzan indarkeria sexista oso presente egon da beti, bai aitaren eta bai bikotekideen aldetik. Kontxi kartzelara eramanean zuen gertakaria ere tratatu txarrekin lotuta egon zen. Izan ere, bere beste bi alaben aitarekin bizi zela, haren erasoak jasaten, liskar baten erdian gizona tiroz akabatu zuen; eta, izututa, gorpua gorde egin zuen, ahizparen laguntzarekin. Bi urtetara aurkitu zuten hilotza, eta, gorabehera batzuk eta gero, Kontxi prebentiboki kartzelatu zuten. Lau urtetara egin zen epaiketa eta, orduan, erailketa egin izana leporatuta, hogeituro urteko espetxe-zigorra ezarri zioten. Elkarrizketaren momentuan, hamahiru urtez Martuteneko eta Langraiz Okako presondegietan itxialdian egon ostean, kalean zegoen eskumuturreko telematikoa jantzita. Preso egondako urte guztietan zehar, familiaren sostengua izan du, aitarekin harremana nahiko gatazkatsua izan arren. Bere kontaketan, oso modu argian eta itzulunguruka ibili gabe azaltzen du bere istorioa, baina kontu batzuk isildu egiten ditu edo erdizka kontatzen ditu. Bere ustez, espetxealdia latza eta denbora-galera da, baina nola edo hala aprobetxatu behar da. Beretzat mingarriena alaben ondoan egon ez izana izan da eta gogor borrokatu behar izan du beraien tutoretza ez galtzeko. Ahots sendoarekin, gogoz hitz egiten du.

## *Léa*

---

28 urte ditu eta frantziarra da. Nerabea zela, adingabeentzako zentro batean sartu zuten, bere amaren egoera ekonomiko eskasaren ondorioz. Bere familiarengandik urruntzean, jarrera errebolitaria eta erantzunkorra hartu zuela dio, eta horregatik utzi zuela eskola 14 urterekin. Han-hemenka bizitzen eta lanean hasi zen orduan; bere hitzetan, nahiko «espabilada» baitzen. Senitartekoekin bizi ez arren, harreman estua mantentzen zuen

amarekin eta anai-arrebekin. Urtean zehar hilabete batzuez lan egiten zuen –batik bat, jatetxe-zerbitzari bezala–, gaineratiko hilabeteetan bidaiatu ahal izateko. Valentzian egindako opor batzuetan, bere bikotekidea izango zen gizona ezagutu zuen. Berarekin batera, heroina eta kokaina hartzen hasi zen, baita saltzen ere. Horrexegatik atxilotu eta espetxeratu zuten, 2009. urte hasieran. Prebentibo bezala kartzelatu zuten Picassenteko presondegian (Valentzia); han bi urte bete ondoren, eta ia hamar urteko espetxe-zigorra jaso eta gero, Langraiz Okara lekualdatu zuten. Preso egondako denbora guztian zehar, familiaren babesa eta sostengua izan du; batez ere, amarena, aurrez aurre oso gutxitan egon badira ere. Elkarrizketaren unean, bi urte zeramatzan sekzio irekian eta oso pozik zegoen, lana lortu zuelako, gida-baimenerako ikasten ari zelako eta bikote-harreman bat hasi berria zuelako. Bere kontakizunean, espetxealdia positiboki baloratzen du; drogak hartzeari utzi diola, bizirik jarraitzen duela eta bigarren aukera moduko zerbait izan dela nabarmenduta. Alta, era berean, oso gaizki pasatu duela eta bere burua zauritzera ere iritsi dela azaltzen du. Lotsati nahiz urduri, baxu hitz egiten du, eta bere hauskortasuna nabari daiteke. Elkarrizketa egin eta hainbat hilabete geroago, bere egoera nabarmenki aldatu zen, berriro ere drogak hartzeari ekin baitzion. Lortu berria zuen baldintzapeko askatasuna urratuta, Araba espetxean sartu zuten.

### *Leire*

---

41 urte ditu eta gipuzkoarra da. Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko (OHO) 8. mailara arte ikasi zuen eta, ondoren, lanean hasi zen. Hainbat enplegu izan ditu, baina, batez ere, ostalaritzan aritu da. 1999. urtean, Eusko Jaurlaritzari maula egiteagatik eta funtsak desbideratzeagatik zigortu zuten, bere mutil-lagunarekin batera. Haatik, heroina hartzen zuenez, zentro terapeutiko batean ordezkoko konplitzea egitera bidali zuten, epealdi batean delitu gehiago ez egiteko baldintzarekin. Zentroan, drogak hartzeari utzi zion, baina ez zuen tratamendua bete, haurdun geratu eta programatik kanporatu zutelako. Bere mutil-lagunarekin Cádizera joan zen orduan. Bertan, ezkondu egin ziren eta hiru seme-alaba izan zituzten. Bizimodu arrunta zuten, Leireren senarra berriro ere atxilotu eta kartzelatu zuten arte. Leirerentzat egoera jasanezina izan zen eta, drogarik gabe zortzi urte bete eta gero, kokaina hartzen hasi zen. Ez zenez bere seme-alabak zaintzeko gai sentitzen, bere gurasoekin bidali zituen, Euskal Herrira. Hilabetera atxilotu eta espetxeratu zuten, beste maula bat egiteagatik eta etxe batean lapurtzeagatik. Bi urte eta zortzi hilabeteko zigorra

jaso zuen azken delituengatik, eta zazpi urteko zigorra 1999ko delituengatik, ezarritako baldintza ez betetzearen ondorioz. Zortzi urte egin ditu itxialdian eta hainbat presondegi ezagutu ditu; besteak beste, Iruñekoa, Langraiz Okakoa eta Martutenekoa. Urte hauetan guztietan zehar, ez du senideen sostengurik izan. Azaltzen duenez, bera laguntzeari uko egin zioten, kalean baino, espetxean egotea nahiago zutelako. Bere ama, senarra eta aita hil dira kartzelan igaro duen denboran, eta biziki mingarria izan da beretzat. Espetxetik behin betiko irtetea, seme-alabekin erlazioa berreskuratu nahi du; ez ordea gainerako senideekin. Elkarrizketaren unean, egun batzuetako baimena zuen. Bere kontraera arnasa sakon hartzeko etenaldiz beteta dago, hainbat gauza esatea kosta egiten zaiola islatuta. Halere, eta urduri egon arren, argi eta garbi hitz egiten du. Bere ustez, emakume presoak hutsaren hurrengoa dira kartzelan, testuingurua zinez matxista delako. Elkarrizketa egin eta hilabete batzuen buruan, hirugarren gradua (erregimen irekia) lortu eta gero, berriro ere kartzelatu zuten, nahiko zargaldurik.

### *Lourdes*

---

48 urte ditu eta gipuzkoarra da. Nerabea zenean drogak hartzen hasi zen eta, ordudanik, ez ditu inoiz utzi, hainbat desintoxikazio-tratamendu egin baditu ere. Horrek izugarrizko eragina izan du bere bizitzaren esparru guztietan, baita espetxearekin izandako hartu-emanen ere. 14 urterekin ikasketak utzi zituen eta, bi urteren buruan, ezkondu eta bere lehen alaba izan zuen. Hiru urtetara, bikotekide zirenek banatzea erabaki zuten, eta, une horretan, Lourdesek Malagara bizitzera joatea deliberatu zuen. Hainbat urte geroago, Euskal Herrira itzuli zen eta beste gizon batekin bere bigarren alaba izan zuen. Tarteka, erregulatu gabeko lanak izan ditu; besteak beste, garbitzailea, zaintzailea eta zerbitzaria izan baita. Haatik, bere biziraupenerako diru-iturri nagusia droga garraiatzea eta saltzea izan dela dio; horrela, bere kontsumoa ere ziurtatzen baitzuen. Bere kartzelatze guztiak egitate horren kausaz izan dira, hots, osasun publikoaren aurkako delituengatik. Orotara, hamar aldiz egon da atxilo eta presondegi asko ezagutu ditu, tartean Martutenekoa. Bere ustez, espetxeratzeak batzuetan bere onerako izan dira, nolabait ere, heriotzatik salbatu dutelako. Baina gehienetan kalterako izan direla baieztatzen du, oso presente dituela eta bizitza «izorratu» diotela nabarmenduta. Orokorrean, ez du senideen sostengua izan eta bakardade handia ezagutu du. Elkarrizketaren unean, behin betiko askatasunean zegoen eta bere mutil-lagun ohiarekin bizi zen. Bere kontaktetan, emakume presoaren estigma

baino emakume «jonkiarena» gailentzen da, horren ondoriozko gizarte-mespretxua baita beretzat mingarriena. Ahots urratuarekin, azkar hitz egiten du, era nahiko kaotikoan.

### *Marcela*

---

28 urte ditu eta ekuadortarra da. Bere herrialdean Bigarren Hezkuntza ikasi zuen eta, ondoren, 18 urte zituenean, dirua aurreztu eta Madrilera bizitzera joan zen bakarrik. Bertan, ez zuen inolako kontakturik, eta, hasiera batean, egoera oso zailean egon zen. Pixkanaka, ordea, bere maila ekonomikoa hobetuz joan zen; eta, hartara, bere egoera erregularizatu ahal izan zuen. Horretarako, bere lan-jarduera funtsezkoa izan zen. Batez ere, ostalaritzan aritu zen, baina bestelako enpleguak ere izan zituen. Lan egiten ematen zuen ia egun osoa eta, hortaz, ez zuen gizarte-harreman gehiegirik. Halaz ere, Madrilen ezagututako neska-laguna zuen, eta elkarrekin bizi ziren. Kartzelaratu zutenean baina, bere bikotekideak harremana eten zuen. 25 urte zituenean izan zen atxilotua, osasun publikoaren aurkako delitua egotzita; Ekuadortik Madrilera drogaz betetako maleta garraiatzen harrapatu baitzuten, *mula* bezala. Hasieran, bederatzi urte eta egun bateko espetxe-zigorra ezarri zioten; baina, helegite batzuei esker, zigorra bost urtera murriztea lortu zuen. Soto del Realeko espetxean (Madril) egon eta gero, 2012ko otsailean Araba kartzelara lekualdatu zuten. Elkarrizketaren unean, itxialdian ia lau urte bete ondoren, baldintzapeko askatasunean zegoen. Bere egoera legeztatzen saiatzen ari zen, espetxean sartzearen kausaz «paperak» galdu baitzituen. Epaiketa baten zain ere bazegoen, azaldu nahi izan ez zuen kontu batengatik. Bere kontaeran, espetxean ekonomikoki bizirauteko bideak zehaztasun handiz deskribatzen ditu; une oro, nola edo hala bizimodua ateratzen eta aurrera egiten dakiten horietakoa dela adierazita, baita inoren mende egotea gogoko ez dutenetakoa ere. Bere istorioa oso gustura kontatzen duela dirudi, eta xehetasunetan sartzen da. Lasai hitz egiten du, poliki eta tonu baxuan, baina oso argi. Elkarrizketa egin eta hainbat hilabete geroago, Euskal Herrian bizitzen jarraitzea erabaki zuen.

## **Maya**

---

27 urte ditu. Naziotasun frantsesa du; baina, aita mexikarra eta ama frantsesa izanda, Mexikon jaio zen eta urte batzuez bertan egon zen bizitzen, bere gurasoak banatzean amarekin Frantziara lekualdatu zen arte. Nolanahi ere, urte batzuen buruan eta Atzerriko Hizkuntzetan lizentziatu ondotik, Mexikora itzultzea erabaki zuen. Hasieran, harreragile moduan lan egin zuen; baina, pixkanaka, *mula* bezala bidaiatzen hasi zen, baita, tarteka, drogak hartzen ere. Bere familiarekin harremana inoiz eten ez arren, Mexikon igarotako denboraldian kontaktua zertxobait galdu zuten; lotura Maya espetxeratzean berreskuratu zuten, senideek babesa nahiz sostengua eskaini baitzioten. Urte hauetan guztietan zehar, hainbat mutil-lagun izan ditu; eta, gaur egun, Langraiz Okako presondegian ezagututako bikotekidea du. 2009ko azaroan atxilotu zuten, Madrilgo aireportuan; eta, hasieran, Soto del Realeko kartzelan (Madril) sartu zuten. Bertan hiru hilabete igaro ondoren, Alcalá-Mecora (Madril) eramán zuten; eta, kasik urtebeteren ostean, Langraiz Okan espetxeratu zuten. Hastapenean, prebentibo bezala sartu zuten; bost hilabetetara jakin zuen kondena: osasun publikoaren kontrako delitua egotzita, sei urteko espetxe-zigorra. Elkarrizketaren unean, itxialdian hiru urte eta erdi igaro ondoren, hirugarren graduan (erregimen irekia) zegoen, eta hilabete eskas baino ez zitzaion falta baldintzapeko askatasuna eskuratzeko. Bere kontakizunean, kartzela-sistemaren kritika egiten du eta *mularen* lana azaltzen du, inolako biktimizatzerik gabe; askea eta burujabea izatea bene-benetan estimatzen duten horietakoa baita. Bere hitz egiteko moduan espetxealdiak eragindako samina suma daiteke. Baxu egiten du solas, ahots dardaratsurekin batzuetan; oso hunkituta ia une oro, urduri, baina argi eta garbi. Bizitakoaren inguruan mintzatzea kostatu arren, bere kartzelaldiari buruz hitz egiteko gogoia du. Elkarrizketa egin eta bi hilabete geroago, senideengana itzuli zen Frantziara, bere mutil-lagunarekin batera.

## **Mertxe**

---

61 urte ditu eta bizkaitarra da. Oinarrizko Batxilergoa ikasita, nahiko gazterik hasi zen lanean. Askotariko enpleguak izan ditu, baina berak supermerkatu bateko lana aipatzen du gehienbat. Nahiko gazte ezkondu zen eta hiru alaba izan zituen; alabaina, harremana senarrarekin ez zen ona eta, azkenean, banandu egin ziren. Beretzat zinez garrantzitsua izan zen bikotekidea izan zuen aurrerago. Urte luzez egon ziren elkarrekin, Mertxeren



hiru alabekin elkarbizitzen. Gizona itsasontzi bateko kapitaina zen, eta Mertxek berekin bidaiatzen zuen ahal zuen guztietan. Ez zuten zailtasun ekonomikorik, baina, bizimodua hobetzeko asmoz, baietz esan zioten ontzian droga garraiatzeko proposamen bati. Alta, Portugalen zeudela, poliziak atzeman zituen, eta, hala, ontziko kide guztiak atxilotu eta espetxeratu zituzten. 1994. urtea zen eta Mertxe Carabancheleko presondegian (Madril) sartu zuten. Urte eta erdira aske utzi zuten fidantzapeko askatasunean, eta bederatzi urte geroago burutu zen epaiketa. Auzitegi-akordio bati esker, zortzi urteko espetxe-zigorra jaso zuten ontziko kide guztiek; Mertxe Langraiz Okako espetxean sartu zuten orduan. Aurrerago, beste kontu batzuegatik kartzelaratu zuten berriro ere; lapurreta batean parte hartzen harrapatu baitzuten eta lokalizatzeko-iraunkorra urratu baitzuen. Hala, delitua eta falta betetzeko, 2012ko irailean bere borondatez sartu zen preso. Arabako presondegian ia zazpi hilabete bete ostean, baimenekin ateratzen hasi zen. Elkarrizketaren unean, hain zuzen ere, baimen bati esker zegoen kanpoan. Azaltzen duenez, espetxean asko sufritu du eta bere bizipen negatiboetan blokeatuta dago, aurrera egiten saiatzen den arren. Bere iritziz, okerrena alaben alboan egon ez izana izan da, erruduntasun-sentimendu handia eragin baitio horrek. Bere alabak hasieran asko lotsatu eta haserretu baziren ere, beraien babesa eta sostengua izan du denbora honetan guztian zehar. Bere bikotekidea zena hil egin zen duela urte batzuk, eta egun kartzelan ezagutu zuen gizon batekin dabil, benetan kontent. Oso berritsua eta kaotiko samarra da, eta batzuetan bere kontakizunean inguruminguru dabil. Ahots urratua du, eta ia une oro ziurtasunez hitz egiten du, argi eta garbi. Nolanahi ere, pasarte batzuk oroitzean asko hunkitzen da. Elkarrizketa egin eta hilabete batzuetara, hirugarren gradua (erregimen irekia) lortu zuen, baina berriro ere espetxean sartzeko zorian egon zen, ordaindu gabeko multa baten ondorioz.

## ***Mila***

---

48 edo 49 urte ditu –ez du bere adina ondo gogoratzen– eta gipuzkoarra da. Gaztetan, Lanbide Heziketan ile-apainketa ikasi zuen, baina ez zuen ikasketen titulua eskuratu, eta garbitzaile bezala lanean egon zen, inolako lan-erregulaziorik gabe. Heterosexuala da eta alaba bat du; ez dute harremanik oster, alabak amarekiko lotsa ei duelako. Oro har, Milak familiarekin duen erlazioa ez da oso sendoa eta nahiko bakarrik sentitzen da. Oso gazte hasi zen heroina eta beste hainbat droga hartzen, eta 17 urterekin GIB/HIESarekin kutsatu zen. Gaur egun, soilik metadona kontsumitzen du. Ez daki zenbatetan egon den

preso, baina zazpi aldiz izan dela uste du. Urte piloa pasatu du espetxean. Aurrenekoz 16-17 urterekin kartzelaratu zuten eta azken aldiz 2010ean. Azkenekoan gizahilketa eta indarrez egindako lapurreta egotzi dizkioten arren, gainerakoetan poliziekin izandako istiluak leporatu dizkiote. Drogak hainbatetan saldu baditu ere, horregatik ez dute sekula kartzelaratu. Elkarrizketaren egunean, baldintzapeko askatasunean zegoen eta ez zuen inolako nahirik etorkizunerako; hainbatetan errepikatu zuenez, hiltzeko gogoia besterik ez zuelako. Bere solasaldia zailtasunez beteta egon zen. Fisikoki nahiko ahul zegoen, zargaldurik, eta ahotsa asko urratzen zitzaion hitz egiterakoan, batzuetan esaten zuena ulertzea ezinezko eginez. Era berean, guztiz medikatuta zegoen, eta tarteka begiak ixten zitzaizkion. Bere kontraera hutsunez, etenaldiz nahiz isilunez josita dago. Gai batzuekin asko hunkitzen da eta begiak malkoz betetzen zaizkio.

### *Miriam*

---

39 urte ditu eta ijitoa da. Bizkaian jaio eta hazi zen, baina Nafarroan ere egin ditu urte batzuk. 9 urterekin utzi zituen ikasketak eta, ondorioz, zailtasunak ditu bai irakurtzeko, baita idazteko ere. Bere egoera ekonomikoa nahiko kaskarra izan da beti. Gehienbat, erregulazio gutxiko edota gabeko lanbide informaletan ibili da; txatarra jasotzen eta merkatuan baratxuriak saltzen, kasu. Behin baino ez du izan lan-kontratua: eguneko zentro batean, adineko pertsonen eta aniztasun funtzionala duten pertsonen zaintzan lan egin zuenean. Heterossexuala da eta bi bikote-harreman izan ditu. Aurreneko bikotekidea bere hiru alaben aita izan zen; eta, arazoak zituztenez, banatzea erabaki zuten. Bigarrena bere egungo mutil-laguna da, eta 2009tik daude elkarrekin. Miriamentzat bere senideak oso garrantzitsuak dira eta hartu-eman hurbila mantentzen saiatzen da. Elkarrekin bizi ziren denak: bikotekidea, hiru alabak, alaba zaharrenaren senarra, bi biloba eta Miriam bera. Araba kartzelan sartu zutenean, 2013ko otsailean, alaba zaharrenaren ardurapean gelditu ziren denak. Txatarra lapurtu izana leporatu zioten hiru auziren pilaketa zela eta espetxeratu zuten, eta hiru urte eta erdiko kartzela-zigorra ezarri zioten. Elkarrizketaren unean, hilabete eskas zeraman hirugarren graduan (erregimen irekia). Bere kontaktetan, ijitoen lan-bazterketa nahiz prekaritatea salatzen ditu, baita justiziaren arbitrariotasuna ere. Oso gaizki pasatu du kartzelan; baliteke hori izatea ahots tristearekin solas egitearen zergatia. Isilune zein etenaldi asko egiten ditu, hitz egiteko denbora lasai hartzen duten horietakoa baita. Solasaldia burutu eta zenbait hilabete geroago, Araban pisu bat alokatu

zuen, bikotekidearekin eta alaba gazteenekin bizitzeko. Gora eta behera zebilen, urduri samar, hainbat izapide prestatzen: alaben eskoletako matrikulak, hainbat diru-laguntzen eskaerak, etab.

### *Nieves*

---

61 urte ditu eta nafarra da. Familia xume batean hazi zen eta, horrenbestez, gaztetandik uztartu behar izan zituen enplegua eta ikasketak. Industria-delineatzailea izateko erdi-mailako ikasketak burutu zituen, baina ez du horretan lan egin inoiz. Aitzitik, bestelako lan asko egin ditu; esaterako, fabrika bateko langilea, zaintzailea eta etxez etxeko bitxi-saltzailea izan baita. Heterosexuala da, eta hirutan ezkondu eta banandu da. Bere lehen senarrarekin bi seme-alaba izan zituen eta, beraiekin harreman ona mantendu arren eta espetxealdiari aurre egiteko kemena beraiengan pentsatuz lortu arren, urruti bizi dira eta Nieves nahiko bakarrik dago. Duela urte batzuk, bere lehenengo dibortzioan jaso zuen diruarekin, negozio propioa ireki zuen; bertan gertatutako egitate batzuek eraman zuten, hain zuzen ere, Nieves kartzelara. 2002an atxilotu, eta Iruñean espetxeratu zuten; haatik, epaiketa bi urte geroago egin zen. Epaiaren arabera, bai erailketa bai lapurreta egotzita, hogeita hiru urteko espetxe-zigorra jaso zuen; berak, halere, errugabea dela defendatzen du. Elkarrizketaren unean, kondenaren kasik erdia beteta, bigarren graduari (erregimen arrunta) zegoen eta bi urte zeramatzan lan egiteko kanpora irteten. Kritikoa da kartzela-sistemearekin oro har, baita azken urteotako aldaketekin ere. Bere aburuz, presondegiak giza-biltegiak eta negozioak dira; txikitu, kaltetu eta zanpatzeko baino ez dute balio, eta profesionaltasun eza nabarmena da. Atxilo betetako denboran, ezereztuta, indargabe eta babesgabe sentitu da, eta, ondorioz, orain pertsonekin fidatzea eta emozioak adieraztea kostatzen zaio. Hizketaldi osoan zehar, kartzela-sistema argi eta garbi salatzen du, baina ez du bere bizipen pertsonaletan gehiegi sakontzen; batik bat, bere familiari buruz hitz egitea saihesten du. Etengabeak dira isiluneak, hutsuneak nahiz bukatu gabeko esaldiak. Poliki eta nahiko hunkituta hitz egiten du, oso baxu askotan, itxialdiak eragindako mina azalera-tuta.

53 urte ditu eta brasildarra da. Bere herrialdean, oinarrizko ikasketak amaituta, dendari bezala lan egin zuen; harik eta, adiskide batzuen iradokizunez, Espainiara emigratzea erabaki zuen, diru gehiago irabaztearren. Horrela, denboraldi batez, Madrilen bizitzen eta prostituzioan lanean aritu zen, bere senarra izango zena ezagutu, eta berekin Euskal Herrira aldatu zen arte. Bikoteak hiru seme-alaba izan zituen, eta Rita euren zaintzaz eta etxeko lanez arduratzen zen. Azaltzen duenez, hasieran, senar-emazteen harremana ona zen; baina, geroago, gizonaren jarrera bestelakotu egin zen, Rita irainduz nahiz fisikoki kolpatuz. Azkenean, urte batzuen buruan, dibortziatu egin ziren, eta Rita seme-alabekin geratu zen. Bere ustez, une horiek oso gogorak izan ziren beretzat eta horrexegatik hasi zen legez kanpoko drogak hartzen. Trafikatzailea zen gizon batekin bikote-harremana ere abiatu zuen orduan, eta, hain zuzen ere, horri lotuta bukatu zuen espetxean. Izan ere, Ertzaintzak euren etxebizitzan droga mordoa aurkitu ostean eta Ritak, drogaturik, bere seme gazteenari alkohola eman ziola jakin ostean izan zen kartzelaratua. Hilabete batez prebentibo bezala egon ondoren, fidantzapean atera zuten; baina bi urtetara berriro ere espetxeratu zuten, haurrei min egin izana nahiz delituzko banda bati lagundu izana leporatuta eta zortzi urteko kondena ezarrita. Bestalde, seme gazteenaren tutoretza galdu zuen, baita harekiko urruntze-agindua jaso ere. Zazpi urte bete ditu itxialdian eta hainbat presondegi ezagutu ditu; tartean, Langraiz Okakoa, Arabakoa eta Martutenekoa. Epealdi horretan guztian, Brasilgo familiaren babesa izan du; eta espetxean ezagututako hainbat mutil-lagun ere izan ditu, gaur egun Martutenen ezagututako bikotekidea izanik. Alaba nagusiarekin badu kontaktua; ez, ordea, gazteagoak diren bi semeekin. Hori izan omen da beretzat kartzelaren alderdirik mingarriena eta hunkitu egiten da gogoratzean. Lehen elkarrizketa egin genuenean, irteera-baimen bati esker zegoen kanpoan; bigarrena egin genuenean, aldiz, hirugarren graduan (erregimen irekia) zegoen. Nahiko berritsua da eta ahots sendoz hitz egiten du, zenbait konturen berri emateko tonua jaitsita, sekretuak edo zurrumuruak balira bezala. Gustura dabil hitz eta pitz, gai batetik bestera salto eginez, era kaotiko samarrean. Preso egotea benetan «beldurgarria» dela dio, baita dirua izateak egonaldia eramangarriagoa egiten duela ere.

## *Saioa*

---

23 urte ditu eta arabarra da. Lanbide Hastapeneko Programa (LHP) batean ile-apainketa ikasi zuen, baina ez du inoiz soldatapeko lanik izan. Duela urte batzuk, mutil batekin bikote-harremana hasi zuenean, bere etxetik hanka egitea eta mutil horrekin eta haren familiarekin bizitzera joatea erabaki zuen. Beraiekin batera lapurtzeari ekin zion orduan, arazo ekonomikoak zituztelako eta hori zelako bizirauteko zuten modu nagusia. Mutilak beste neska batekin bikote-erlazioa hasi zuenean eta etxetik alde egin zuenean, Saioa bere gurasoenera itzultzen saiatu zen, baina ezin izan zuen; berak azaltzen duenez, mutil horren senideak beti bere bila joaten zirelako. Azkenean, ihes egitea lortu zuen eta bere amonaren etxera bizitzera joan zen, Extremadurara. Alabaina, hainbat lapurretaren pilaketa zela eta, kanpoan zela, kartzelan sartzeko agindua iritsi zitzaion. Hala, 2011ko uztailean Langraiz Okako espetxean sartu behar izan zuen. Guztira sei urteko espetxe-zigorra jaso zuen arren, hasiera batean, urtebeterako sartu zen; hori dela eta, hilabetera, hirugarren gradua (erregimen irekia) lortu, eta kalera ateratzen hasi zen. Elkarrizketaren unean, urte eta erdi zeraman sekzio irekian. Bere kontaeran, espetxealdia oso negatiboki balioztatzen du –adingabeentzako zentro batean egin zuen astebetea are okerragoa izan zela aipatzen badu ere– eta bere egonezin nagusia bere familia zela azaltzen du, une oro gurasoen eta ahizparen erabateko babesa eta sostengua izan duen arren. Bere narrazioa isilunez, etenaldiz nahiz hutsunez beteta dago. Une batzuetan, beharrezko dituen hitzak aurkitzea kostatzen zaiola dirudi eta esaldi asko amaitu gabe lagatzen ditu, esperientziak eragindako samina eta sufrimendua islatuta. Nolabait ere, zatikatutako edota apurtutako mintzaira da berea, hautsitako lengoia. Oso baxu hitz egiten du oro har, eta, batzuetan, esaten duena ulertzea benetan zaila da; hunkituta, ahots urratua du askotan. Elkarrizketa egin eta hainbat hilabete geroago, kontrol telematikorik eskumuturrekoa jarri zioten eta gizon batekin bikote-harremana hasi, eta alaba bat izan zuen. Pozik zebilen, baina, aldi berean, artega eta kezkatuta, euren egoera ekonomiko eskasa zela eta.

## *Simone*

---

36 urte ditu eta brasildarra da. Bere kontakizunean azaltzen duenez, bere herrialdean bizimodu guztiz «normala» zuen; ikasi eta lan egiten zuen, eta lagun-talde zabala nahiz familia-harreman egonkor bezain sendoak zituen. Alabaina, problema pertsonal batzuk

atzean uzteko asmoz, eta bestelako testuinguru kultural bat ezagutzeko nahiaz, 2006an Gipuzkoara iritsi zen, bertan sasi-senide bat zuela baliatuta. Iritsi eta hilabete gutxitara, dirua irabazteko, prostituzio-klub bat garbitzen hasi zen. Bertan, Polizia Nazionalaren bi sarekada izan zituen 2007an zehar. Lehenengo aldian, egoera irregularrean egoteagatik atxilotu zuten, baina kanporatze-gutuna eman, eta aske utzi zuten. Bigarrean, ostera, klubeko langile batek kokaina-poltsa batzuk gorde zituen Simoneren motxilan; poliziek aurkitu, eta Simone atxilotu zuten. Ziegan hiru egun pasatu eta gero, aske utzi zuten, epaiketaren zain. Judizioa bi urtetara egin zen, eta, osasun publikoaren aurkako delitua leporatuta, lau urteko espetxe-zigorra jaso zuen; epaileak, baina, kondena horren ordeztu, Espainiako Estatutik kanporatzea agindu zuen. Simonek ez zuenez kanporatzerik nahi, bere abokatuari errekurtsioa jartzeko eskatu zion. Horrela, dena konponduta zegoela uste zuen; baina, egiaz, abokatuak ez zuen inolako helegiterik prestatu eta, ondorioz, 2009ko irailean, beste hiri batean eta beste enplegu batekin zegoela, atxilotu eta espetxeratu egin zuten, epaia hausteagatik. Martuteneko presondegian sartu zuten orduan; urte eta hiru hilabetetara hirugarren graduan (erregimen irekia) atera zen. Solasaldiaren unean, behin betiko askatasunean zegoen; baina, halere, ez zen libre sentitzen, berriro ere kanporatze-agindua jaso zuelako. Senideak ikusteko gogoz egonda ere, oso argi du ez duela horrela itzuli nahi Brasilerara; eta helegitea jarri du. Berak erabaki nahi du noiz eta nola bueltatu. Espetxe-sistemari buruzko iritzi benetan negatiboa du eta bizitzarekin akabatzen duen amaierarik gabeko zuloa dela dio. Bere aburuz, itxialdian hutsaren hurrengo sentitzen zara; zaurgarritasuna, bakardadea, ezintasuna eta, batik bat, lotsa eta erruduntasuna bizi dituzu. Bisexuala, feminista nahiz kritikoa da, eta bai emakumezko presoek baita preso atzerritarrek ere jasaten dituzten diskriminazioak azpimarratzen ditu. Berak bizitakoaren kausaz, kartzela-sistemaren kontrako jarrera aktibista hartu du, hainbatetan jendaurrean agertuta, baita gaiari buruzko artikuluak eta liburuak irakurrita ere. Bizitasun zein indar berezia du, eta zinez sentikorra da, bere hitz egiteko moduan nabari daitekeen moduan. Espetxealdiaren inguruan mintzatzea zaila eta mingarria da beretzat; tarteka, oso baxu hitz egiten du, ahotsa dardarka du, isildu egiten da edo negarrez hasten da. Edonola ere, bere bizipenak ulertarazteko aparteko gaitasuna du.

<b>Izena</b>	<b>Adina</b>	<b>Jatorria, etnia, naziotasuna eta egoera legala</b>	<b>Ikasketa- eta lan-jarduerak</b>	<b>Alkoholaren eta legez kontrakoak diren drogen kontsumoa</b>	<b>Gizarte-harremanak eta sareak</b>	<b>Egoera sexu-afektiboa</b>	<b>Ardurapeko pertsonak, amatasuna eta elkarbizitza</b>	<b>Delitu-mota eta espetxe-zigorra</b>
<i>Aitana</i>	47 urte	Zamora	13 urterekin eskola utzi Askotariko enpleguak: garbitzailea, sukaldaria, etab.	Heroina eta kokaina	Familiaren babesa eta sostengua	Heterosexuala Elkarrizketaren unean, espetxean ezagututako gizon batekin ezkondua; geroago, dibortziatua	Ardurapeko pertsonarik ez Hiru seme-alaba Elkarbizitzarik ez	1) Osasun publikoaren aurkako delitua; lau urteko espetxe-zigorra 2) Osasun publikoaren aurkako bi delitu eta hainbat lapurreta; hamalau urteko espetxe-zigorra
<i>Altagracia</i>	35 urte	Dominikar Errepublika; aspalditik Bizkaian Legezko egoeran	Unibertsitate-mailako ikasketak Askotariko enpleguak: idazkaria, GKE bateko langilea, etab.	Kontsumo aipagarriarik ez	Familiaren babesa eta sostengua	Heterosexuala Espetxean hasitako bikote-harremana	Ardurapeko hainbat pertsona Hiru seme-alaba Elkarbizitza	Lesioak; bi urte eta egun bateko espetxe-zigorra
<i>Angie</i>	22 urte	Kolonbia; aspalditik Bizkaian Naziotasun kolonbiarra Hasieran, legezko egoeran; geroago, egoera irregularrean	Batxilergoa Askotariko enpleguak	Noizean behineko kontsumoa	Hasieran, harreman gorabeheratsuak familiarekin; geroago, familiaren babesa eta sostengua, urrutitik	Bisexuala Bikotekiderik ez	Ardurapeko pertsonarik ez	Osasun publikoaren aurkako delitua; sei urte eta egun bateko espetxe-zigorra

<b>Izena</b>	<b>Adina</b>	<b>Jatorria, etnia, naziotasuna eta egoera legala</b>	<b>Ikasketa- eta lan-jarduerak</b>	<b>Alkoholaren eta legez kontrakoak diren drogen kontsumoa</b>	<b>Gizarte-harremanak eta sareak</b>	<b>Egoera sexu-afektiboa</b>	<b>Ardurapeko pertsonak, amatasuna eta elkarbizitza</b>	<b>Delitu-mota eta espetxe-zigorra</b>
<i>Diana</i>	33 urte	Bizkaia Ijitoa	15 urterekin eskola utzi Erregulaziorik gabeko lanak	Kontsumo aipagarrik ez	Familiaren babesa eta sostengua	Heterosexuala Ezkondua	Ardurapeko hainbat pertsona Lau seme-alaba Elkarbizitza	Hainbat lapurretaren pilaketa; zortzi urteko espetxe-zigorra
<i>Elena</i>	39 urte	Gipuzkoa	Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) Askotariko enpleguak	Heroina eta haxixa	Familiaren babesa eta sostengua	Heterosexuala Bikotekiderik ez	Ardurapeko pertsonarik ez Lau alaba Elkarbizitarik ez	Lau espetxeratze; hainbat lapurretaren pilaketa; guztira, auzi guztiak kontuan hartuta, hiru urte inguru espetxe-itxialdian
<i>Itziar</i>	47 urte	Bizkaia	Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) Soldatapeko lanik ez	Heroina, kokaina eta haxixa	Familiaren babesa eta sostengua	Heterosexuala Ezkondua	Ardurapeko hainbat pertsona Lau seme-alaba Elkarbizitza seme-alaba gazteenekin	1) Osasun publikoaren aurkako delitua; espetxeratze prebentiboa 2) Lapurreta armatua; espetxeratze prebentiboa 3) Lapurreta armatua; espetxeratze prebentiboa



<b>Izena</b>	<b>Adina</b>	<b>Jatorria, etnia, naziotasuna eta egoera legala</b>	<b>Ikasketa- eta lan-jarduerak</b>	<b>Alkoholaren eta legez kontrakoak diren drogen kontsumoa</b>	<b>Gizarte-harremanak eta sareak</b>	<b>Egoera sexu-afektiboa</b>	<b>Ardurapeko pertsonak, amatasuna eta elkarbizitza</b>	<b>Delitu-mota eta espetxe-zigorra</b>
<b>Julia</b>	53 urte	Extremadura/ Asturias; aspalditik Bizkaian	13 urterekin eskola utzi Askotariko enpleguak: ostalaria, zaintzailea, lizatzailea, etab.	Kokaina eta haxixa	Gizarte-harreman sendorik ez Harreman gorabeheratsuak familiarekin	Heterosexuala Bikotekiderik ez	Ardurapeko pertsonarik ez Alaba bat eta bi biloba Elkarbizitarik ez	1) Osasun publikoaren aurkako delitua; hiru urteko espetxe-zigorra 2) Osasun publikoaren aurkako delitua; bi urte eta egun bateko espetxe-zigorra
<b>Kontxi</b>	48 urte	Bartzelona; aspalditik Gipuzkoan	14 urterekin eskola utzi Erregulaziorik gabeko lanak; batez ere, prostituzioan	Noizean behineko kontsumoa	Familiaren babesa eta sostengua	Heterosexuala Bikotekiderik ez	Ardurapeko hainbat pertsona Hiru alaba Elkarbizitza	Erailketa; hogeitau urteko espetxe-zigorra
<b>Léa</b>	28 urte	Frantzia Naziotasun frantsesa	14 urterekin eskola utzi Askotariko enpleguak; batik bat, jatetxe-zerbitzaria	Heroina eta kokaina	Familiaren babesa eta sostengua, urrutitik	Heterosexuala Bikote-harremana	Ardurapeko pertsonarik ez	Osasun publikoaren aurkako delitua eta isuna; bederatzitau urte, zazpi hilabete eta hemeretzi eguneko espetxe-zigorra

<b>Izena</b>	<b>Adina</b>	<b>Jatorria, etnia, naziotasuna eta egoera legala</b>	<b>Ikasketa- eta lan-jarduerak</b>	<b>Alkoholaren eta legez kontrakoak diren drogen kontsumoa</b>	<b>Gizarte-harremanak eta sareak</b>	<b>Egoera sexu-afektiboa</b>	<b>Ardurapeko pertsonak, amatasuna eta elkarbizitza</b>	<b>Delitu-mota eta espetxe-zigorra</b>
<i>Leire</i>	41 urte	Gipuzkoa	Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) Askotariko enpleguak; batik bat, ostalaritzan	Heroina eta kokaina	Gizarte-harreman sendorik ez Harreman gorabeheratsuak familiarekin	Heterosexuala Bikotekiderik ez	Ardurapeko pertsonarik ez Hiru seme-alaba Elkarbizitzarik ez	Maula eta funtsen desbideratzea, zazpi urteko espetxe-zigorra; maula eta lapurreta, bi urte eta zortzi hilabeteko espetxe-zigorra
<i>Lourdes</i>	48 urte	Gipuzkoa	14 urterekin eskola utzi Erregulaziorik gabeko lanak	Heroina, kokaina eta haxixa	Harreman gorabeheratsuak familiarekin	Heterosexuala Bikotekiderik ez	Ardurapeko pertsonarik ez Bi alaba eta biloba bat Elkarbizitzarik ez	Hamar espetxeratze; osasun publikoaren aurkako delituak; azkeneko aldian, hiru urte eta lau hilabeteko espetxe-zigorra
<i>Marcela</i>	28 urte	Ekuador Naziotasun ekuadortarra Hasieran, legezko egoeran; geroago, egoera irregularrean	Bigarren Hezkuntza Askotariko enpleguak; batik bat, ostalaritzan	Kontsumo aipagarririk ez	Gizarte-harreman sendorik ez Harremanik ez familiarekin	Lesbiana Bikotekiderik ez	Ardurapeko pertsonarik ez	Osasun publikoaren aurkako delitua; bederatzi urteko espetxe-zigorra
<i>Maya</i>	27 urte	Mexiko/Frantzia Naziotasun frantsesa	Unibertsitate-mailako ikasketak Harreragilea	Noizean behineko kontsumoa	Familiaren babesa eta sostengua, urrutitik	Heterosexuala Espetxean hasitako bikote-harremana	Ardurapeko pertsonarik ez	Osasun publikoaren aurkako delitua; sei urteko espetxe-zigorra

<b>Izena</b>	<b>Adina</b>	<b>Jatorria, etnia, naziotasuna eta egoera legala</b>	<b>Ikasketa- eta lan-jarduerak</b>	<b>Alkoholaren eta legez kontrakoak diren drogen kontsumoa</b>	<b>Gizarte-harremanak eta sareak</b>	<b>Egoera sexu-afektiboa</b>	<b>Ardurapeko pertsonak, amatasuna eta elkarbizitza</b>	<b>Delitu-mota eta espetxe-zigorra</b>
<i>Mertxe</i>	61 urte	Bizkaia	Oinarrizko Batxilergoa Ama izan arte, askotariko enpleguak: saltzailea supermerkatu batean, kasu	Kontsumo aipagarririk ez	Familiaren babesa eta sostengua	Heterosexuala Espetxean hasitako bikote-harremana	Ardurapeko pertsonarik ez Hiru alaba eta zenbait biloba Elkarbizitzarik ez	1) Osasun publikoaren aurkako delitua; zortzi urteko espetxe-zigorra 2) Lapurreta, urte eta erdiko espetxe-zigorra; lokalizatze iraunkorraren urratzea, bederatzi hilabeteko espetxe-zigorra
<i>Mila</i>	48-49 urte	Gipuzkoa	Lanbide Heziketa (amaitu gabe) Garbitzailea	Heroina eta beste hainbat droga	Gizarte-harreman sendorik ez Ia harremanik ez familiarekin	Heterosexuala Bikotekiderik ez	Ardurapeko pertsonarik ez Alaba bat Elkarbizitzarik ez	Hainbat espetxeratze; oro har, poliziekin izandako liskarrak; azken espetxeratzean, gizahilketa eta indarrez egindako lapurreta
<i>Miriam</i>	39 urte	Bizkaia Ijitoa	9 urterekin eskola utzi Batez ere, erregulaziorik gabeko lanak	Kontsumo aipagarririk ez	Familiaren babesa eta sostengua	Heterosexuala Bikote-harremana	Ardurapeko hainbat pertsona Hiru alaba eta bi biloba Elkarbizitza	Hainbat lapurretaren pilaketa; hiru urte eta erdiko espetxe-zigorra

<b>Izena</b>	<b>Adina</b>	<b>Jatorria, etnia, naziotasuna eta egoera legala</b>	<b>Ikasketa- eta lan-jarduerak</b>	<b>Alkoholaren eta legez kontrakoak diren drogen kontsumoa</b>	<b>Gizarte-harremanak eta sareak</b>	<b>Egoera sexu-afektiboa</b>	<b>Ardurapeko pertsonak, amatasuna eta elkarbizitza</b>	<b>Delitu-mota eta espetxe-zigorra</b>
<i>Nieves</i>	61 urte	Nafarroa	Erdi-mailako ikasketak Askotariko enpleguak: zaintzailea, bitxi-saltzailea, etab.	Kontsumo aipagarririk ez	Gizarte-harreman sendorik ez Familiaren nolabaiteko babesa eta sostengua	Heterosexuala Bikotekiderik ez	Ardurapeko pertsonarik ez Bi seme-alaba eta hiru biloba Elkarbizitarik ez	Eraiketa eta lapurreta; hogeita hiru urteko espetxe-zigorra
<i>Rita</i>	53 urte	Brasil; aspalditik Bizkaian Legezko egoeran	Oinarrizko ikasketak Askotariko enpleguak: dendaria, sexualgilea, etab.	Kokaina, anfetamina eta haxixa	Familiaren babesa eta sostengua, urrutitik	Heterosexuala Espetxean hasitako bikote-harremana	Ardurapeko pertsonarik ez Hiru seme-alaba Elkarbizitarik ez	Seme-alabei min egin izana eta delituzko banda bati lagundu izana; zortzi urteko espetxe-zigorra
<i>Saioa</i>	23 urte	Araba	Lanbide Hastapenerako Programa (LHP) Soldatapeko lanik ez	Kontsumo aipagarririk ez	Familiaren babesa eta sostengua	Heterosexuala Elkarrizketaren unean, bikotekiderik ez; geroago, bikote-harremana	Elkarrizketaren unean, ardurapeko pertsonarik ez; geroago, alaba bat	Hainbat lapurretaren pilaketa; sei urteko espetxe-zigorra
<i>Simone</i>	36 urte	Brasil; aspalditik Gipuzkoan Naziotasun brasildarra Egoera irregularrean	Unibertsitate-mailako ikasketak Askotariko enpleguak: garbitzailea, zaintzailea, etab.	Kontsumo aipagarririk ez	Familiaren babesa eta sostengua, urrutitik	Bisexuala Bikotekiderik ez	Ardurapeko pertsonarik ez	Osasun publikoaren aurkako delitua; lau urteko espetxe-zigorra

Hogei emakume horiek elkarrizketatzeaz gain, aipagarria da hiru kasutan espetxealdian zehar idatziriko testuak jasotzeko aukera ere izan dudala, aldez aurretik aurreikusten ez banuen ere. Altagraciak, Lourdesek eta Simonek kartzelako hainbat idazki utzi dizkirate ikerketarako mesedegarriak izango direlakoan.

Bestalde, jada aipatutako hogei emakume preso sozial zein preso sozial ohi horiez gain, giltzapean egondako beste hiru emakumezko ere elkarrizketatu ditut; hain zuzen ere, EPPK Euskal Preso Politikoen Kolektiboko hiru kide ohi. Banaka elkarrizketatu ditut, 2014ko urtarrila eta urria bitartean; hiru solasaldiak grabatuta, gerora transkribatu ahal izateko. Elkarrizketen batez besteko iraupena ordu eta erdikoa izan da; luzeenak bi ordu iraunik, eta laburrenak berrogei bat minutu. Hasiera batean, ez nuen tankera horretako elkarrizketarik aurreikusi. Alabaina, zenbait ezagunen bitartez aukera agertuta, ontzat jo nuen. Solasaldi horiek egitea erabaki nuen hiru elkarrizketatuek kartzela-sistemaren eta generoaren arteko erlazioen inguruan gogoeta feministak plazaratu izanagatik. Eurekin ez dut gidoi espezifikorik erabili, eta gainerako emakume presoekin usatutakoa egokitu dut. Ikerketan zehar hiru emakume hauen hitzak zuzenean agertuko ez badira ere, eurek eskainitako hausnarketak aberasgarriak izan dira landa-lanean jasotako informazioaren analisia egiteko. Laburki, honela deskriba daitezke hiru elkarrizketatuak:

- ***EPPKko lehenengo kide ohia***<sup>20</sup>. 37 urte ditu eta Bizkaikoa da. Birritan egon da kartzelan eta, denera, sei urte inguru bete ditu itxialdian. Espainiako hainbat espetxe ezagutu ditu, baita Euskal Herriko bat ere. Bere kontateran, preso egonda ere bizirik jarraitzen duzula nabarmentzen du, emakumezko atxiloen agentzia aipatuta. Era berean, kartzela definitzeko hainbat modu bururatzen zaizkiola dio. Hala, gizartearen ispilu dela aipatzen du; jendarteak nahi ez dituen norbanakoen zabortegia, zigorra helburu duen eta menpekotasuna gehiagotzen duen instituzio patriarkala. Haatik, ikuspegi negatiboa apur bat ñabartuta, espetxea askatasun-une ere izan daitekeela gaineratzen du; kasurako, lesbianismoa aipatuta. EPPKko eta gainerako atxiloen artean diferentziak ikusten dituen arren, preso «sozial» eta «politiko» izendapenak zalantzan jartzen ditu; funtsean, atxilo guztiak politikoak direlakoan, gizarte-arazoak politikoak ere direlako eta espetxe-sistema gizarte-bazterkeria kudeatzeko tresna delako.

---

<sup>20</sup> Hiru elkarrizketatu hauen kasuan ez dut fikziozko izenik jarri, analisisian ez baitzaie aipamen zuzenik egingo.

• **EPPKko bigarren kide ohia.** 27 urte ditu eta bizkaitarra da. Atxilo pasatu ditu hamasei hilabete, Frantziako eta Espainiako zenbait presondegiri ezagututa. Bere elkarrizketan, espetxea jendartearen ispilu dela adierazten du, baita bere baitan zapalkuntza guztiak nabariagoak direla ere. Ildo horretatik, itxialdia gizonentzat eta emakumeentzat oso desberdina dela pentsatzen du. Orokorrean, giltzapetzea txikitzeko eta izutzeko balio duelakoan dago, horretarako tresna andana izanik.

• **EPPKko hirugarren kide ohia.** 35 urte ditu eta nafarra da. Bi urte eta erdi egin ditu kartzelan, Espainiako zenbait presondegiri ezagututa. Bere elkarrizketan pare bat ideia nagusi nabarmentzen du: bata, kartzelan agentzia garatzea nahiko zaila dela, kasik elkarren aurkakoak diren kontzeptuak izanik; eta, bestea, emakume presoen artean dauden desberdintasun soziokulturalak kontuan hartu behar direla agentzia-mota ezberdinak ulertzeko. EPPKko menbrua moduan, preso sozialekin alderatuta, pribilejiodun sentitu da.

### *Espetxeko langileei egindako elkarrizketak*

Euskal Herrian kokatutako presondegietako langileekin sei elkarrizketa ere egin ditut. Alta, zehaztu beharrekoa da denak ez direla zuzenean Espetxe Erakundearen beharginak; Elkarrizketatu batzuek espetxearen barruan lan egiten dute, baina kartzela-sistemaren partaide izan gabe<sup>21</sup>. Banakako lau elkarrizketa eta taldeko bi egin ditut, presondegiri zein lanpostu diferenteetan aritzen diren langileekin. Solasaldi guztiak 2013ko otsaila eta 2014ko maiatza bitarte egin dira. Orokorrean, elkarrizketak grabatu egin ditut, geroago transkribatu ahal izateko; baina hiru elkarrizketatuen kasuan oharrak besterik ez ditut hartu, ez dutelako solasaldia grabatzerik onartu<sup>22</sup>. Elkarrizketen batez besteko iraupena ordu eta berrogei minutukoa izan da; luzeenak bi ordu iraunik, eta laburrenak ordubete inguru. Solasaldi hauek egiteko berariazko gidioa erabili dut<sup>23</sup>, ikerketa-objektuarekiko euren posizioa kontuan hartuta. Kontaktuak elkarteetako kideen, ezagunen nahiz beste elkarrizketatuen bidez egin dira.

---

<sup>21</sup> Hori da, konkretuki, irakasleen kasua.

<sup>22</sup> Aipagarria da solasaldia grabatzeko baimena eman ez duten hiru horiek presondegiri berean egiten dutela lan, bertako hermetismo bereziki handiaren isla dirudienaz gero.

<sup>23</sup> Ikus III. eranskina.

Elkarrizketatuen jarrerari dagokionez, batzuegan mesfidantza eta hermetismoa sentitu ditudala esan beharra dago –aurreneko hartu-emanetan, bederen–. Izan ere, batzuek une oro kolaboratzaileak, irekiak, eta berritsuak izan diren arren, beste batzuegana iristeko zailtasunak topatu ditut. Azken horien erreserbak edo errezeloak bi konponbide baino ez dituzte izan: bata, elkarrizketa ez grabatzea adostea; eta, bestea, artekariren bat nire alde agertzea, nolerebaiteko konfiantza bermatzeko. Behin oztopo horiek gaindituta baina, solasaldiak emankorrak izan dira, elkarrizketatu guztiek luze eta zabal hitz egin baitute.

Honela aurkeztu daitezke elkarrizketatutako espetxe-langileak:

- **Ana Mari eta Belén**<sup>24</sup>. Helduen Hezkuntzako irakasleak dira eta urte luzez ibili dira presondegi bateko eskolan elkarrekin lanean. Ana Mari duela urte pare bat erretiroa hartu du, espetxeko eskolan urte mordoa egin eta gero. Belenék, ostera, jardunean segitzen du; eta aipagarria da 1982an eskola martxan hasi zenetik aritu dela zeregin horretan. Bien iritziz, eskola kartzelatik bereizi behar da, euren lana ez delako espetxe-sistemaren parte. Solasaldian adierazitakoaren arabera, ez dute uste kartzelan genero-bereizkeriak daudenik; bai, ordea, jatorriaren eta etniaren arabera. Halere, espetxe-sistemak betiko genero-rol tradizionalak sustatzen dituela adierazten dute.
- **Blanca**. Egun, gizarte-hezitzailea da, eta aurretik segurtasun-funtzionarioa izan zen. Eskarmentu handikoa da, 1980ko hamarkadatik ibili baita emakumezkoekin lanean, Espainiako Estatuan zehar barreiatutako hainbat presondegitan. Genero-gaietan interesa du; eta, hartara, gizartea patriarkala den bezala, espetxe-sistema ere horrelakoxea delako kexu da. Gizonentzat diseinaturiko instituzioa dela dio, baita genero-bereizkeriak ugariak direla ere. Bere ekimenez, jabeakuntza-tailerrak egin ditu emakume presoekin.
- **Enara**. Duela zazpi urte, Helduen Hezkuntzako irakasle bezala lanean hasi zen espetxe bateko eskolan. Zehazki, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 3. eta 4. mailako ikasleekin aritzen da Natur Zientziak, Matematika eta Informatika lantzen. Maila horietan emakumezko ikasle gutxi daudela aipatzen du, gehienek ikasketa-maila txikiagoa dutela baietsita. Ana Mariaren eta Belénekin moduan, oso

---

<sup>24</sup> Analisisian guztiak zuzenean aipatuko ez baditut ere, elkarrizketatutako kartzela-behargin guztiei eman dizkiet fikziozko izenak, euren deskribapena erraztearren.

argi du eskola, kartzela baten barruan egonda ere, ez dela kartzelaren parte; eta, mugak muga, gaineratiko ikastetxeen ahalik eta antz handiena izan behar duela. Orokorki, espetxealdia emakumeentzat gogorragoa dela pentsatzen du; gizartea matxista bada, kartzela are matxistagoa dela adierazita. Emakumeak kasik beti galtzaile gertatzen direlakoan dago.

- **Fernando, Irene, Josean, Marta eta Pablo.** Emakume presoek arduratzen den Tratamendu Batzorde bateko kideak dira. Zeregin diferenteak dituzte: Fernando gizarte-hezitzailea da; Irene jurista; Josean jurista eta tratamendu-zuzendariordea ere; Marta psikologoa; eta Pablo gizarte-langilea. Generoaren aldetik, ñabardura, xehetasun eta gako ugari mahaigaineratzen dituzte, kartzelaratutako emakumeen eta gizonen portaerak zeharo ezberdinak direla azpimarratuta. Behin eta berriro diote emakumeak gizonak baino askoz eskatzaileagoak eta tematiagoak direla.

- **Nora.** Gizarte-langilea da, eta berdintasun-teknikaria ere izateko ikasten ari da. Egun espetxean lan egiten ez badu ere, duela urte batzuk hilabete zenbait iragan zituen zeregin horretan. Batez ere gizon presoekin aritu zen, baina emakumeekin ere elkartzeko aukera izan zuen tarteka. Kexu da kartzelatutako emakumeek eta gizonen instituzioaren aldetik trataera ezberdina jasotzen dutelako.

- **Sandra.** Gizarte-langilea da, eta hogeita bost urte inguru daramatza presondegi berean lanean. Urte horietan guztietan zehar, hainbat zeregin izan ditu, gizonekin zein emakumeekin lan eginez. Gaur egun, hiruzpalau urte daramatza espetxeko gizarte-langileen koordinatzaile bezala eta emakumeen departamentuko gizarte-langile bezala. Bere ustez, Espetxe Erakundeek ez dute inolako kezkarik genero-diskriminazioen inguruan eta ez daude eremu horretan ezer egiten ari. Indarkeria sexistaren kasuan, ordea, lan aipagarria egiten ari direla pentsatzen du. Oro har, emakume presoekin harreman gertukoa duela dio, baita nahiko ondo ezagutzen dituela ere.

#### *Elkarteetako kideei egindako elkarrizketak*

Emakume presoekin lan egiten duten elkarteetako kideekin sei elkarrizketa egin ditut, zazpi elkarteren inguruko informazioa jasota baina. Banakako bi elkarrizketa izan dira,



eta taldeko lau; 2013ko maiatza eta abendua bitarte egindakoak. Elkarrizketa bat salbu, guztiak grabatu egin ditut, geroago transkribatzeko. Irarri gabeko bakar horren kasuan oharrak soilik jaso ditut, elkarrizketatuek eskatutakoaren arabera<sup>25</sup>. Solasaldien batez besteko iraupena ordu eta erdikoa izan da; luzeenak bi ordu eta erdi inguru iraunik, eta laburrenak ordubete. Elkarrizketa horiek egiteko berariazko gidoia erabili dut<sup>26</sup>; hain justu, kartzelako langileekin usatutako bera. Elkarreentako kideen kontaktazioa zuzenean egin dut, harremanetan jartzeko informazioa baliatuta. Emakumezko presoekin erlazio gehien duten edota nolabaiteko genero-ikuspegia duten elkarreentan zentratu naiz.

Honako hauek dira elkarrizketatutako elkarre-partaideak:

- **Alaitz eta Eider**<sup>27</sup>. Gizarte-langileak dira, eta gizon-emakume presoekin aritzen den elkarre profesionalista batean egiten dute lan. Elkarre 1999. urtean jaio zen, baliabide juridikoak eta sozialak eskaintzeko helburuz. Egun, Euskal Herriko bi presondegitan dihardute, nahiz eta sartzeko baimenekin gorabehera batzuk izan dituzten –antza, espetxe-sistemarekiko euren jarrera kritikoa dela eta–. Alaitzen eta Eiderren ustez, teorian gizon-emakumeekin lan egiten duten arren, praktikan lehenengoekin bakarrik aritzen dira. Euren jardunbidearekin kritiko, emakume presoengana ailegatzeko zailtasunak dituztela aipatzen dute, baita haiei buruzko ezezagutza handia dutela ere; «ahaztuta» dituztelako. Horren inguruan gogoeta egin nahian omen daude, emakumeentzat baliabide gutxiago daudela pentsatzen baitute. Oro har, emakumeak diskriminaturik daudela eta gizonek baino gizarte-gaitzespen handiagoa jasaten dutela adierazten dute.

- **Alba**. Sistema penala abolitzearen aldeko penalista moduan definitzen du bere burua, jarrera kritikoa eta feminista agertuta. Gizon eta emakume presoekin lan egiten duten bi elkarre profesionalistako partaide da. Bata, 1988an sortu zen, eta, urte luzez asistentzia juridikoa eskaini eta gero, egun, presoen egunerokotasuna arintzeko askotariko jarduerak antolatzen ditu. Besteak, aldiz, ez du ibilbide hain luzea, eta bitartekaritzaz nahiz gatazkak konpontzeaz arduratzen da. Batean zein bestean, genero-ikuspegia presente dago.

---

<sup>25</sup> Azpimarragarria da elkarrizketa grabatzeko baimena eman ez duen elkarre bakar horretako kideek eta gauza bera egin duten kartzela-langileek presondegi berebetean egiten dutela lan. Berriro ere, espetxe horren hermetismo bereziki handiaren seinale dirudi.

<sup>26</sup> Ikus III. eranskina.

<sup>27</sup> Kartzelako langileen kasuan bezala, fikziozko izenak asmatu ditut elkarrizketatutako elkarre-menbrudenentzat, nahiz eta analisisian ez ditudan guztien aipu zuzenak jasoko.

• **Coro eta Grego.** Emakume presoekin aritzen den elkarte ludiko bateko kideak dira. Corok ia hogeita hamar urte daramatza zeregin horretan; Gregok gutxiago, nahiz eta urte mordoa ere bete duen jardunean. Batez ere, jorsketa eta bestelako orratz-lanak egiten dituzte. Aitzitik, azken urteetan genero-berdintasuna lantzeko ikastaroak ere antolatu dituzte. Gizartea emakumeentzat matxista delako egiten omen dute, kartzela barruan ez baitute genero-ezberdinkeriarik ikusten.

• **Miren eta Montse.** Espetxeratutako gizon nahiz emakumeekin lan egiten duen eta izaera profesionalista duen elkarte bateko menbrak dira. Miren psikologoa da zehazki, eta Montse abokatua. Euren azalpenaren arabera, batik bat enplegu-txertatzeaz eta gizarteratzeaz arduratzen dira, alderdi sozio-juridikoak eta psiko-sozialak landuta. Programa zenbaitzuk dituzte horretarako, generoa transbertsala izanik guztietan. Alabaina, praktikan gizon presoekin baino ez dutela lan egiten aitortzen dute, baita emakume atxiloen inguruan ezjakintasun nabarmena dutela ere. Oro har, ez dute uste kartzelan genero-diskriminazioak daudenik; bai, ordea, zenbait genero-berezitasun.

• **Paula.** Emakume presoekin lan egiten duen elkarte profesionalista bateko kide da. Gizarte-hezitzaile bezala lanean nahiz boluntario moduan dihardu. Elkartea 1991n sortu zen, eta, hastapenean, gizon presoekin ere egiten zuen lan. Aitzitik, duela urte batzuk, soilik emakume atxiloekin lan egitea erabaki zuten, haientzat gizarte-baliabide gutxiago zeudenaz jabetzean. Paularen iduriko, ezberdintasun nabarmenak daude gizonen eta emakumeen espetxean jasotako trataeran; haatik, zalantza egiten du «diskriminazioaz» mintzatu gaitezkeen. Kritikoa da espetxe-sistemarekin, baieztatuta ez duela inor birgizarteratzeko balio.

• **Susana eta Zuriñe.** Gizon-emakume presoekin lan egiten duen elkarte ludiko bateko kide dira. Elkartea 1992an sortu zen, atxiloen parte-hartze soziokulturala, lan-eremukoa nahiz kiroletakoa lantzeko. Aspalditik, eurek antolatutako jarduera guztiak mistoak dira. Hasiera batean, zaila izan omen zen, espetxe-zuzendaritzak trabak jartzen zituelako etengabe; baina, egun, arazorik gabe egiten omen dute. Emakume presoak diskriminaturik daudela pentsatzeaz kontrara, gizonak baino hobeto daudela ziurtatzen dute, babes handiagoa eta abantailak dituztelakoan.

## Behaketa parte-hartzailea

Ikerketa honetan lanean hasi nintzenean, presondegiren batean behaketa parte-hartzailea ere egitea pentsatu nuen; kartzelaratutako emakumezkoen esperientziak konplexutasun gehiagoz eta sakonago ulertzeko asmoz, ezagutzan haratago joateko xedez. *Mujeres ex-presas: vulnerabilidad y autonomía* (2012) talde-ikerketan jazotakoagatik<sup>28</sup>, baita beste zenbait ikerlariri entzundakoagatik ere, banekien espetxe baten barruan lekuan lekuko lana egiteko baimena lortzea zinez zaila –kasik ezinezkoa– izango zela. Esate baterako, Daniel Maciel antropologoaren hitzetan, presondegi barruan landa-lana egitea benetako «malabarismo burokratikoa» da (2011: 835), kontrola handia delako eta sartzeko nahiz barruan lan egiteko baimena eskuratzea nekeza delako. Ez dago zalantzarik eremu itxia dela, hermetikoa oso. Alabaina, oztopoz beteriko bidea zela jakinda ere, saialdia egitea erabaki nuen.

Zailtasunen jakitun, nire aurreneko urratsa espetxe barruan landa-lana egindako beste zenbait ikerlarirekin harremanetan jartzea izan zen, euren gomendioak entzun eta nire zalantzak argitzeko intentzioz. Solasaldi horietan hainbat aukera mahaigaineratu ziren, baina guztiek zuten trabaren bat edo beste. Lehenik eta behin, ikerketa kartzela barruan egiteko baimena Espetxe Erakundeei zuzenean eskatzeko aukera zegoen. Aitzitik, duda egiten nuen, banekielako elkarrizketen grabaketak eurei emateko betebeharra eta, ezer argitara atera baino lehenago, euren oniritzia jasotzeko obligazioa ere izango nituela. Bigarrenik, elkarte bateko boluntario moduan sartzeko posibilitatea zegoen. Alabaina, muga handiak ekartzen zituen; emakumezko presoek onespina jasota ere, Espetxe Erakundeek baimenik gabe ezingo nukeelako informazioa usatu. Azkenik, emakumezko atxiloentzat tailer edo jardueraren bat antolatzeke aukera nuen. Alta, aurreko aukeraren eragozpen berbera zuen; eta, bestalde, nire gaitasunak kontuan hartuta, ez zitzaidan okurritzen zer eskaini nezakeen.

---

<sup>28</sup> *Mujeres ex-presas: vulnerabilidad y autonomía* (2012) ikerketarekin ere saiatu ginen presondegi baten barruan landa-lana egiten. Horretarako, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak eskari ofiziala egin zien Espetxe Erakundeei, orduko zuzendari zen María Silvestre-ren izenean. Erantzuna ezezkoa izan zen: «Tras analizar el contenido del trabajo que se desea realizar (*Mujeres ex-presas: vulnerabilidad y autonomía*), esta Secretaría General de Instituciones Penitenciarias considera que no es procedente extender el estudio a mujeres que actualmente se encuentran en [...] prisión [...], ya que el contenido del estudio y su impacto debe valorarse desde el ámbito social externo» (2012ko apirilaren 12a). Beraz, antza, Espetxe Erakundeek ustez, «preso ohien» egoera aztertzeke ez zuen axola zer pasatzen zen «preso» izan bitartean.

Azkenean, bide baten alde egin nuen; Espetxe Erakundeen baiezkoa erdiesteko aukera gehien zituena zelakoan. Haatik, aurreneko ekinaldi hori arrakastarik gabekoa izan zen. Konkretuki, Euskal Herriko Unibertsitateak indarrean zuen akordio bat baliatzen saiatu nintzen; zehazki, Martutene presondegiko elkarte batekin zeukana, Gizarte Langintzako ikasleek praktikak egin zitzen. Elkarte horrekin praktikak egiteko eskaera bidali nuen; baina espetxe-zuzendaritzaren ezetza jaso nuen, Gizarte Langintzako ikaslea ez nintzela argudiatuta.

Aurreraxeago, huts egin zuen beste saialdi bat egin nuen. Baina, bigarren aldi horretan, Espetxe Erakundeek igorri nien zuzenean kartzela barruan landa-lana egiteko baimen-eskaera, doktore-tesiaren zuzendariaren zein Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia unibertsitate-saileko zuzendariaren berme-eskutzekin batera. Presondegietan ikerlanak egiteko eskaera ofiziala bete nuen horrela, doktore-tesiaren nondik norakoak azalduta: izenburua, ikerketa-objektua, helburuak, metodologia, bibliografia, etab. Aukera horren bidez ere baimena lortzea zaila izango zela banekenez, berriro ere gomendioak eskatu nizkien zenbait ikerlariri, eskaera ahalik eta eraginkorrena egiteko. Askotariko aholkuak jaso nituen: eskaera oso modu formalean egitea eta argiro erakustea unibertsitatearen bermea nuela; ez eskatzea gehiegi, baina egiazki nahi nuena baino denbora gehiagorako galdegitea baimena –orokorki, eskatutakoa baino gutxiago ematen dutelako–; ikerketa ondo «saltzea», Espetxe Erakundeen gustuetara moldatuta eta euren irudi negatiborik emango ez zuela argi utzita, baina gezurrik esan gabe; etab. Aholku horiek guztiak kontuan hartuta idatzi eta bidali nuen eskaera, eta erantzuna honakoa izan zen:

**09 de junio de 2014**

Sra. D<sup>a</sup>. María Ruiz Torrado

Sentimos informarle que no es posible autorizar el trabajo solicitado dado que no existe convenio de colaboración vigente entre la Universidad del País Vasco y la Secretaría General de Instituciones Penitenciarias.

Le saluda atentamente.

SUBDIRECTORA GENERAL  
DE RELACIONES INSTITUCIONALES  
Y COORDINACIÓN TERRITORIAL

Lerro eskas horiek irakurtzean aitzakia txarra baino ez izatearen sentsazioa izan nuen; eta laguntza eskaini zidaten ikerlariek bat egin zuten nire iritziarekin, guztiek adierazi baitzuten nahiko erantzun xelebrea zela eta desenkusa zirudiela. Nolanahi ere, nahiz eta pena izan zen ezezkoa jasotzea, ezin dut esan harritzekoa izan zenik; bada, hasieratik, banekien ezetza zela probableena.

Dena den, porrot egin zuten bi saialdi horien artean, baita ondoren ere, behaketa parte-hartzaileran nolabait ere gerturatu nauten zenbait jarduera egiteko beta izan dut. Oro har, ezin dut bildutako informazio hori ikerlan honetan zuzenean erabili; ez baitut ez emakume presoen baimena, ez Espetxe Erakundeena. Hala eta guztiz ere, oharrak hartu ditut lekuan lekuko koadernoan; hain justu, nire ezagueran eta hausnarketetan harago joateko funtsezkoak izan diren oharrak. Honako jarduerak aipa daitezke:

- **«Políticas del cuerpo, maternidad y familia: el caso de las mujeres reclusas» udako ikastaroa Madril I presondegian (Alcalá de Henares, 2013ko uztailaren 8tik 10era).** UNED Urrutiko Unibertsitate Nazionalak egindako ikastaroan egon naiz, emakume atxilo zenbaitzuekin batera.

- **Emakume presoen irteera terapeutikoak (Donostiako Emakumeen Etxean, 2013ko azaroaren 16an eta 2014ko azaroaren 8an).** Martuteneko presondegiko bospasei emakume atxilorekin eta Tratamendu Batzordeko zenbait menbrurekin elkartzeko aukera izan dut, Emakumeen Etxeko baliabideak aditzera ematearen testuinguruan.

- **Martuteneko espetxeko lanaldia (Donostian, 2014ko uztailaren 19tik 27ra).** Gipuzkoako Espetxe Pastoraltzaren eta Caritasen eskutik, Martuteneko kartzelan sartzeko eta bertako gizon-emakume presoekin patioan hizketan aritzeko aukera izan dut. Era berean, espetxeko langileen prestakuntza-hitzaldietan egon naiz.

- **ADAP Presoen Laguntzarako Elkartarekin boluntariora, Araba kartzelan (Langraiz Okan, 2015eko otsailaren 18tik irailaren 4ra).** Astero-astero, hainbat hilabetez, Araban espetxeratutako emakumeekin bildu naiz astean behin, ADAP elkarteko langileen eskutik. Nahiko modu espontaneo eta informalean, emakume atxiloek askotariko aholkularitza eskaini diet, barne- eta kanpo-baliabideen berri ematearekin batera.

• **Arte-erakusketak.** Emakume presoen –edota gizon-emakume presoen– lanekin osaturiko lau erakusketetan egon naiz:

- **«Donostia... barrutik»** (*Donostiako Loiola Kultura Etxean, 2013ko azaroaren 18tik 29ra*). IRESGI Gizarteratze eta Biktimologiako Euskal Institutuaren ekimenez, Martutene presondegiko gizon-emakume atxiloek heziketa-tailerretan egindako artelanak ikusi ditut.
- **«Emakume presoak: indarkeria matxistaren inguruko hausnarketak»** (*Donostiako Emakumeen Etxean, 2013ko abenduan zehar*). Azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren testuinguruan Martuteneko kartzelan itxitako emakumeek taldean egindako *collageak* behatu ditut, Donostiako Udaleko Berdintasun Sailari esker.
- **«SelfFOCUS. Zaballako presondegian atxilotuta dauden emakumeek eginiko argazkigintza proiektua»** (*Gasteizko Hegoalde Gizarte Etxean, 2013ko abenduaren 16tik 30era*). ENELU – Sortu eta Eragin – irabazi asmorik gabeko elkartearen eskutik, Arabako presondegiko emakumezko atxiloek sortutako argazkiak eta idatziriko testuak aztertu ditut.
- **«Askatasun binetak»** (*Iruñeko Ziudadelako Armen Aretoan, 2014ko abuztuaren 30etik irailaren 28ra*). Tiza komiki-elkartearen eta Boutade Comunicación enpresaren ekimenez, Iruñeko kartzelako gizon-emakume presoek egindako komikiak irakurri ditut.

Zerrendatutako jarduera horiek guztiak zinez garrantzitsuak eta mesedegarriak izan dira ikerketarentzat, emakume presoengatik inguruko ezagutzan sakontzeko orduan. Baina, esan bezala, tamalez ez dut ikerketan informazio hori erabiltzeko aukerarik.

## **Ikuspegi antropologikoa eta feminista**

Metodologiari buruzko azalpenekin amaitzeko, Antropologia Feminista (Moore, 1991; Thurén, 1993; Martín Casares, 2006; Méndez, 2008; Moncó, 2011) ikuspegi teorikoaren

inguruko ohar txiki batzuk egiteko tartea ere hartu nahi dut, marko horretan kokatzen baita ikerketa hau. Honelaxe definitu daiteke Antropologia Feminista:

«Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak gizarteak eta kulturak eratzen dituztela azaltzea eta eztabaidatzea helburu duen analisi mota bat proposatzen duen ikuspuntu epistemologiko, teoriko eta metodologikoa. Alde horretatik, determinismo biologikoarekiko ikuspuntu kritikoa dakar, eta *genero*<sup>29</sup> kontzeptua egiturazko printzipiotzat onartzen du, beste faktore batzuekin estuki lotuta –hala nola, klase soziala, etnia, nazionalitatea, adina, sexu-joera, eta abar–» (Apaolaza, Hernandez eta Perez, 2014: 25).

Aipuak argiro adierazten duenez, Antropologia Feministaz ari bagara, ezinbestekoa da «genero» kontzeptuari ere heltzea; gako eta oinarri baita. Haatik, askotariko definizioak egonik, nire ikuspuntua zehaztuko dut. Horren arabera, generoa zera da: norbanakoen arteko ezberdintasunak modu transbertsalean eta hierarkikoan antolatzen dituen artificio edo eraikuntza soziala, botere-harremanek trebesatutakoa; prozesu dinamiko, aldagarri eta historikoen baitakoa (Bullen eta Hernández, 2010). Gure testuinguruan konkretuki, gaineratu daiteke «gizon» eta «emakume» moduan identifikatzen diren norbanakoei buruzko sinesmenak, jarrerak, sentimenduak, balioak, iruditegiak zein jarduera sozialak adierazten dituela (Benería, 1987: 46); baita funtzioak, espazioak, zereginak, ardurak eta boterea banatzen dituela ere (Maquieira, 2001: 159). Era berean, ikuspuntu estatikoak baztertuta, Verena Stolcke (2003) edo Mari Luz Esteban (2009) bezalako antropologoei jarraiki, aipagarria da generoa «egiten dugun» zer edo zer dela –ez da «garen» zerbait–. Ikusmolde horrek determinismo biologikoa eta bestelako esentzialismoak ukatzea dakar eta, gainera, identitateak modu finkoan, egonkorrean eta aldaezinean ulertzeari uztea ere dakar. Esteban beraren hitzetan:

«Generoa, beraz, munduan “Egoteko” modua litzateke, eta ez “Izatekoa”, eta ikuspuntu horrek esperientzia desentziazatzen laguntzen digu. [...] Begirada horren arabera, gizonetzko edo emakumezko izatea edo sentitzea, edo generoa bizitzeko modua zeinahi ere den, prozesu guztiz dinamikoak lirateke, harreman heterosexualak, lesbikoak edo bestelakoak izatea bezalaxe [...], eratuz eta eraldatuz doazen praktikak, kontzienteki edo inkontzienteki, testuinguruaren araberako marko pluralen baitan, baina ahalbidetzen dituzten koordinatu historiko eta sozialekin etengabeko eztabaidan dauden sentsazio fisiko eta emozionalen haritik ere. Gainera, identitate generiko edo sexualen osaera zera

---

<sup>29</sup> Kurtsiba autoreena da.

lirateke, prozesuak non narratibotasuna eta gorpuztasuna elkar eragiten duten, funtsean gorputzeko ekintzen bitartez: sentitzeko, ibiltzeko, adierazteko, mugitzeko, janzteko, apaintzeko, (elkar) ukitzeko, (elkar) hunkitzeko, (elkar) erakartzeko, gozatzeko, sufritzeko... moduak, betiere beste pertsonekin elkarrekintzan, denboran eta espazioan eraldatuz doazen ekintzak» (2009: 34)<sup>30</sup>.

Orobat, Antropologia Feministaz ari bagara, aintzakotzat hartu behar ditugu kokatutako ezagutza eta ezagueraren izaera partziala ere (Haraway, 1991). Izan ere, objektibotasun asmorik gabeko antropologia da, bai ikerlariaren bai ikertuen subjektibotasuna onartzen dituen, ikuspegiak neutroak izatearen ezinezkotasuna aitortzen duena eta, azken finean, kontuan hartzen duena ikerlariaren espezifikotasunak ikerkuntza osoa trebesatzen duela –ezinbestean–.

Era berean, eta azkenik, Antropologia Feministaz ari bagara, ezin aipatu gabe utzi bere bokazio eraldatzailea. Funtsean, ezagutza antropologikoa eta feminista, kritikoa izanez gero, transformazio sozialerako baliagarria izan daitekeela sinesten duen korrontea da (Bullen, 2011); norbanakoen arteko berdintasuna xede, bereizkeria eta desberdinkeria estrukturalak gainditu nahi dituen.

---

<sup>30</sup> Gaztelaniaz jatorrizkoan: «*El género, por tanto, sería una forma de “Estar” en el mundo y no de “Ser”, y esta visión nos ayuda a desencionalizar la experiencia. [...] Desde esta mirada, ser o sentirse hombre, mujer o como quiera que se viva el género, así como tener relaciones heterosexuales, lesbianas o del tipo que sean [...] serían procesos totalmente dinámicos, prácticas que irían constituyéndose y modificándose, consciente o inconscientemente, dentro de marcos contextuales plurales, pero al hilo también de sensaciones físicas y emocionales que están en permanente discusión con las coordenadas históricas y sociales que las hacen posibles. Además, la conformación de las identidades genéricas o sexuales serían procesos donde la narratividad y la corporalidad interactuarían mutuamente, a través de actos básicamente corporales: maneras de sentir, andar, expresarse, moverse, vestirse, adornarse, tocarse, emocionarse, atraer o ser atraída, gozar, sufrir... en interacción continua con los otros, actos que van modificándose en el tiempo y en el espacio*» (Esteban, 2009: 34).



## **LEHENENGO ATALA**

**Espetxeratutako emakumeei begira:  
ekarpen antropologikoak eta feministak**



*I have been locked by the lawless.*

*Handcuffed by the haters.*

*Gagged by the greedy.*

*And, if i know any thing at all,*

*it's that a wall is just a wall*

*and nothing more at all.*

*It can be broken down.*

Assata Shakur (2001: 1)



## 1. Emakumeen delituzko ekintzak: generoa, aurreiritziak eta zaurgarritasuna

*Aurreiritzien sustraiak  
hain dira sakonak  
arrazoiaren bidea  
luzea bezain zaila dela.*

Fermin Muguruza eta Dut (1997)

Indarrean dagoen Kode Penalaren arabera «delitua» den zer edo zer egin izana da –edo ustez egin izana, bederen– jendea espetxera eramaten duen arrazoia. Hortaz, emakume presoen bizipenak eta esperientziak beren osotasunean ulertu eta aztertu nahi baditugu, ezinbestekoa da generoaren eta delituzko ekintzen arteko harremana jorratzea. Gai horri helduko diot marko teorikoaren lehen kapitulu honetan. Genero-eredu hegemonikoen eraginez emakumeen delituek suposatzen duten transgresioa aztertuz hasiko naiz, bizi duten estigmatizatzea nabarmenduta; jarraian, emakume delitugileen inguruan aurreko mendeetan egin diren azalpenetara hurbilduko naiz, batez ere, ikuspegi esentzialistetan eta naturalizatzaileetan jarrita arreta; eta, bukatzeko, delitua ulertzeko egun nagusi diren moduetan murgilduko naiz, aldaketa handiko garaian gaudela kontuan hartuta. Delituak egi(te)n dituzten emakumeei buruzko aurreiritziak zein beraien zaurgarritasuna giltzarri izango dira une oro.

### 1.1. Delituak. Transgresioak. Estigmak

Teorikoki, gaur egun legeak berberak dira gizonentzat eta emakumeentzat, eta eskubide berak ditugu guztiok. Dolores Juliano antropologo feministak adierazi bezala, «azken

urteotako lorpena da eta luzaroan desiratutako garaipena» (2009a: 80)<sup>31</sup>. Baina ez dirudi nahikoa denik. Legearen aurrean balizko berdintasuna egon arren, nabaria da praktikan, egunerokotasunean, ezberdintasunak eta desorekak daudela batzuen eta besteen artean. Berdintasunezkotzat hartzen den zuzenbide-esparruaren gibelean, ikuskera sozial zinez bestelakoak daude, eta, genero-eredu hegemonikoen ondorioz, emakumeen arau-haustea eta gizonenak ez dira era berean ulertzen. Gaur egun, oraindik ere, estereotipo ugari daude batzuen eta besteen jokaeren inguruan, eta, hortaz, gure jendartean nagusi diren genero-ereduekin estuki loturiko bizipenak dira honako hauek: nola bizi ditugun arauak eta zer gertatzen den urratzen ditugunean, zergatik sentitzen garen errudun, zer iruditzen zaigun zilegi eta zer ez, edo zer-nolako estrategiak erabiltzen ditugun arazoak gainditu eta bizitzan aurrera egiteko (*Ibidem*). Beraz, emakumeek delituen munduarekin dituzten loturak eta hartu-emanak aztertzeko, ezinbestekoa izango da genero-ikuspegia erabiltzea eta berariazko analisi-esparrua sortzea, aintzat hartuta orain arte gutxitan kontuan eduki diren hainbat elementu (Juliano, 2008: 219).

Planteamendu horren abiapuntuaren arabera, delituaren ideia erabat androzentrikoa da. Izan ere, hasiera batean, gizonengan pentsatuta, gizonekin erabiltzeko, hainbat gizonek sortutako kontzeptua da. Genero-ideologia hegemonikoa dela eta, gizonak autonomotzat jotzen dira, eta, ondorioz, beraien erabakien eta ekintzen erantzule direla pentsatzen da. Emakume delitugileen kasuan, aldiz, askotan esaten edo iradokitzen da inguruko gizon batek bultzatu dituela beraien delituzko ekintzak, baita zenbaitetan egin ere; eta, horrela, «biktima» edo «engainaturiko emakume» bezala ageri dira jendaurrean; zertan ari ziren ez zekiten edota zer-nolako istoriotan nahasten ari ziren ulertzeko gai ez ziren emakume gisa, alegia. Delitua kasik «beraien ahuleziaren erakusle» bilakatzen da (Juliano, 2009a: 80).

Alabaina, nahiko kontraesankorra badirudi ere, emakume delitugileei buruzko ikuspegi biktimizatzaileekin batera, jarrera zigortzaileak zein kriminalizatzaileak daude. Gainera, dirudienez, maiz emakumeen «desbideratzeak» gizonenak baino zorrotzago epaitzen eta zehatzen dira (Davis eta Faith, 2002). Emakumeen transgresioak moralki aztertzen dira orokorki eta gizarte-gaitzespen handiagoa jasaten dute; nolabait, delitugilea emakumea izateak gertatutakoa larriagotuko balu bezala. Era berean, egitate berdinegatik edota antzekoengatik zigor handiagoak jasotzen dituzte, baldintza aringarri gutxiago onartzen

---

<sup>31</sup> Gaztelaniaz jatorrizkoan: «*Este es un logro de los últimos años, y una conquista largamente deseada*» (Juliano, 2009a: 80).

zaizkie eta, are gehiago, gizonei normalean aurpegiratzen ez zaizkien gaiak leporatzen zaizkie (Juliano, 2009a: 85). Argi eta garbi ikus daiteke sexualak nahiz indarkeriazkoak diren delituzko ekintzen kasuetan (Azaola, 1996; Davis eta Faith, 2002; Macaya, 2013). Izan ere, horrelakoak gizonezkoek egiten dituztenean, zalantzarik gabe, gertaera arbuia garritzat jotzen dira; baina emakumeek egiten badituzte, benetako «ankerkeriak», «krudelkeriak» zein «aberrazioak» bihurtzen dira (Juliano, 2010: 26). Bestalde, genero-eredu tradizionaletatik urrutiratzen diren emakumeak gehiago zigortzeko joera dagoela azpimarratu dute egile batzuek (Carlen, 1988; Davis eta Faith, 2002; Pheterson, 2013); alaba, ama edo emazte txartzat hartutakoek espetxean sartzeko aukera gehiago dituztela jasota. Funtsean, epaileen esku-hartzearen aurrean zaugarriak dira gizonen kontrolpetik landako emakumezko guztiak; besteak beste, neska gazte desobeditzaileak, etxetik ospa egindakoak, etxebizitzarik gabekoak, jende anitzekin erlazio sexualak dituztenak, sexu-langileak, lesbianak, bikoterik gabeko heterosexualak, banandutakoak, alargunak, baita seme-alabak erakunde publikoen tutoretzapean dituztenak ere. Dena dela, delitua egin izanak ere kokatuko ditu «emakume txarrak» izatearen susmopean; hots, «galdutako», «desbideratutako» edo «bide okerretik joandako emakumeak» izatearen aieruan.

Azken batean, gizartearen zati handi batentzat, emakumeen delituek hutsegite larriagoa ekartzen dute; lege penalak hausteaz gain, arau sozialak ere urratu dituztelako, eta, hala, transgresioa handiagoa delako. Genero-eredu nagusiek egotzitako rolaekin apurtu dute, beraiengandik espero zena bete gabe. Imaginario kolektiboaren arabera, delitua burutzea gizonekin zein maskulinitatearekin lotuta dago; hortaz, feminitatearen eredu nagusiaren kontrakoa da. «Egiazko emakumeak» ez du inolako delituzko ekintzarik egiten (Juliano, 2011: 131); eta, beraz, egin izanez gero, ezinezkoa da «behar den bezalako emakumea» izatea. Premisa horri segituz, inkontziente kolektiboak «antiemakume» (Juliano, 2009a, 2011) edota «desnaturalizatutako emakume» (Naredo, 2007) bihurtzen ditu delitugileak, gizarte-portaerei buruzko ikuspuntu esentzialisten eta biologizisten baitan. Itxura denez, emakumeek otzanak, esanekoak bezain errespetutsuak izan behar dute, beraien familien zaintzaileak eta babesleak izatearekin batera. Delitugileek gizartearen mandatuak hautsi dituzte, beraien generoari ez dagokion jokabidea erakutsita. Horrela, gehiengoak uste du banako kontrolaezinak direla, diziplinarik gabekoak, autoritateari aurka egiten diotenak, baita beraien interesen arabera soilik jokatzen dutenak ere (Faith, 2011: 1). Aurreiritziei jarraituz, delitugile guztiak gaiztoak dira; emakumeak badira, ziur aski emazte, kide eta ama txarrak ere izango dira, herritar errespetugabe bezain arduragabeak izateaz gainera

(Almeda, 2010: 203). Ikuspegi horien eraginez, emakumeek estigmatizatze ikaragarria bizi dute; estigma ez baita «delitugile» bezala soilik, «emakume delitugile» gisa baizik (Herrera, 1993; *in* Naredo, 2007: 271).

Estigmatizatzeak errespetua, begirunea eta zilegitasuna ukatzea suposatzen du; hau da, balio-galera, gutxiespena eta mespretxua. Zaurgarritasuna dakar, babesgabetasuna, eta diskriminazio eta desoreka sozialen areagotzea. Ikusezintasuna eta estigma bizi dutenak baliozko solaskidetzat ez hartzea ere esan nahi du. Izan ere, finean, estigma jendartearen kontrolerako tresna da, eta pertsona edo talde batzuen gizarte-marjinazioa eta bazterketa eragiten du (Juliano, 2004: 27). Erving Goffman soziologoaren hitzak jasota, «erabateko onarpen sozialerako gaitasungabetze egoera» moduan uler dezakegu estigma (2006: 7), horrela markatutako pertsonen egiazko irudia antzematea eragozten duen desitxurataile ideologikoa denez gero. Estigmatizatutakoa pertsona oso bezala hautematea galarazten du, eta errotulu edo etiketa bateratzaile baten azpian kokatzen du; bertan, gizartearentzat arbuigarrienak diren bere ezaugarriek –edo ustezko ezaugarriek– esleitutako identitate-eremu ia guztia betetzen dute (Juliano, 2004: 150). Goffman berriro aipatuta:

«Definizioz, zalantzarik gabe, estigma duen pertsona ez dela guztiz gizatiarra uste dugu. Suposizio hori baliatuta, hainbat diskriminazio mota burutzen ditugu, eta horien bidez bere bizi-aukerak praktikan mugatzen ditugu, askotan, pentsatu gabe egiten badugu ere. Estigmaren teoria eraikitzen dugu, bere gutxiagotasuna azaltzeko eta pertsona horrek zer-nolako arriskua suposatzen duen jakinarazteko ideologia» (2006: 15)<sup>32</sup>.

Dudarik gabe, pairatzen duenarentzat benetan jasateko zaila den egoera da; are gehiago, estigmak kategoria nahiko zurrinak izan ohi direla kontuan hartzen badugu. Bestalde, ezin dugu ahaztu gaitzespen soziala larriagotu daitekeela, zenbait estigma batzen badira edo balioa gutxitzen duten bestelako ideiekin nahasten badira (Juliano, 2004: 18). Hori arrunt samarra da emakume delitugileen kasuan, gehienek era askotariko diskriminazio egoerak ezagutu baitituzte.

Estigmatizatzea indarkeria sinbolikoaren parte da, Pierre Bourdieu (1998) soziologoak azaldutako moduan. Aurreiritziek, txisteeek nahiz mespretxuzko esamesek osatzen dute;

---

<sup>32</sup> Gaztelaniazko bertsioa: «*Creemos, por definición, desde luego, que la persona que tiene un estigma no es totalmente humana. Valiéndonos de este supuesto practicamos diversos tipos de discriminación, mediante la cual reducimos en la práctica, aunque a menudo sin pensarlo, sus posibilidades de vida. Construimos una teoría del estigma, una ideología para explicar su inferioridad y dar cuenta del peligro que represa esa persona*» (Goffman, 2006: 15).



pertsona batzuen gizarte-bazterketa kasik sen onekoa, logikoa eta nabaria izatea eragiten duten mekanismo guztiek; azken batean, diskriminazioaren justifikazioa baita. Halaber, biolentzia ikusezina da, normaltzat hartzen den menperatze-egiturak bidezkoak edota legitimatzen duenez gero (Juliano, 2004: 72). Funtsean, indarkeria sinbolikoak balio du edonolako auzitan jartzea edo eztabaidatzea ahultzeko. Estigmatizatutako norbanakoen adierazpen-gaitasuna ukatzea dakar, beraien nahiak ez baloratzea, beraien iritziak zein eskubideak kontuan ez hartzea, baita batzuetan beraien segurtasun fisikoa ez bermatzea ere. Biolentzia sinbolikoak indarkeria materiala ahalbidetzen du, horretarako bidea prestatuta. Bertan kokatzen dira bestelako bortizkeria-erak, eta horiek horrela ez ikustea ere lor dezake, jendarteari zilegi direla sinestarazita (*Ibidem*: 68).

Estigmak pedagogikotzat har dezakegun alderdia ere badu, arau sozialetatik aldentzen diren pertsonak zigortzeaz gainera, zehapenaren bidez eredu izateko eta herritar guztiei erakusteko ere balio baitu. Gaitzetsitako egitateek adierazten dituzte gizarte jakin batek, une zehatz batean, ontzat jotzen dituen ekintzen mugak zeintzuk diren. «Onargarria» eta «onartezina» dena zehazten dute, eta jendarteko kide «normalak» eta «besteak» bereizi (*Ibidem*: 12). Oro har, anomalotzat ulertzen den edozerk larritasuna eta ondoeza sortzen du, eta gehiengoak ez du transgresioetatik gertu egon nahi, «kutsatzeko» beldur delako. Horrek gizarteko kideek elkar zelatatzea eta kontrolatzea dakar; horrela, arauen betetzea bilatuta. Azken finean, presio sozialek eta hertsadura-jarduteek sistema hegemonikoaren erreprodukzioa bultzatzen dute (Douglas, 1991: XXIX).

Transgresioak ekar ditzakeen arriskuak kontuan izanda, hau da, gizartearen bazterretara eramán dezakeela, eta isolamendua, gaitzespena nahiz harreman sozialen galera eragin (Imaz, 2007: 193), norberak erabakiko du nola kudeatu estigmari dagokion informazioa. Betiere eskura dituen aukeren baitan, bakoitzak deliberatuko du zer egin etiketa astun horrekin: «erakutsi edo ezkutatu; adierazi edo isilik egon; ezagutarazi edo gutxiagotu; gezurra edo egia esan; eta, kasu bakoitzean, zeinekin, nola, non eta noiz» (Goffman, 2006: 56)<sup>33</sup>. Burubide horiek guztiak nork bere eskuera dituen egiazko boterearekin eta barkaberatasun sozialarekin hertsiki lotuta daude (Juliano, 2011: 152), eta, hala izanda, kartzelan egon diren emakumeak, maiz, isiltasunaren bidez saiatzen dira babesa lortzen. Julianoren hitzak ekarrita:

---

<sup>33</sup> Gaztelaniazko bertsioa: «*Exhibirla u ocultarla; expresarla o guardar silencio; revelarla o disminuirla; mentir o decir la verdad; y, en cada caso, ante quién, cómo, dónde y cuándo*» (Goffman, 2006: 56).

«Isiltasuna defentsa-modua da, ekintzei zilegitasuna emateko botere nahikorik ez dagoen egoeretan erabiltzen dena. Gizarte-zigorra estigmaterekin hasten da eta zigor formalarekin sendotzen da. Espetxearekin zehatuak izan direnek ezin dute zigor hori ekidin, baina estigma saihesten saia daitezke, beraien egoeraren ezaguera eragotzita» (*Ibidem*: 151)<sup>34</sup>.

Preso egondako emakumeek beraien ingurunearen sostengua eta babesa baldin badute, estigma zertxobait eramangarriagoa izan daiteke; baina inguruko jendeak ere gaitzesten eta baztertzen baditu, elkarrekintzarako zailtasun handiak izango dituzte (Juliano, 2004: 66).

Argi dago, Julianok adierazi bezala, premiazkoa dela «begirada aldatzea» (2009a: 91). Iritzi estigmatizatzaileek ez diete inolako mesederik egiten emakume delitugileei, baina ezta gainerakooi ere, beraien esperientziak nahiz delinkuentziaren auziak konprenitzea eragozten digutenez gero. Alde batetik, biktimaren figurak ez du gehienek istorioarekin bat egiten eta beraien agentzia ukatzea dakar. Ez du ez aritzeko ahalmena aitortzen ez arazoek gainetik aurrera segitzeko ekinaldirik onartzen; eta, horrela, haien estrategiak ezkututzen ditu, hautuak egiten dituzten subjektu aktiboak direla ezeztatzearekin batera. Bestetik, ikuspegi kriminalizatzaileek ere delituak egiten dituzten emakumeei buruzko irudi faltsu bezain kaltegarria zabaltzen dute eta zirkunstantziak ulertzea galarazi. Biak ala biak gutxiespen-jokaerak dira, aintzatespenaren ukoak eta indarkeria sinbolikoaren zeinuak. Delitugileak are zaurgarriago egiten dituzte eta baliozko solaskide gisa hartzea oztopatu. Julianori jarraiki, horrek kasik «pertsona» kategoriatik kanpo gelditzea esan nahi du, «pertsonatzat tratatzea “arrazoiduntzat eta kontzientziaduntzat” hartzearen sinonimo delako [...], hau da, baliozko solaskide izateko eskubidea onartzea» (2004: 217)<sup>35</sup>. Behar-beharrezkoa da aurreiritziak gainditzen hastea.

---

<sup>34</sup> Gaztelaniaz jatorrizkoan: «*El silencio es una forma de defensa, que actúa en las situaciones en que no se tiene el poder suficiente para dotar de legitimidad a las acciones. La sanción social comienza con el estigma y se refuerza con el castigo formal. Quienes están sancionadas con prisión, no pueden evitar ese castigo, pero pueden intentar evadir el estigma, evitando que su situación se conozca*» (Juliano, 2011: 151).

<sup>35</sup> Gaztelaniaz jatorrizkoan: «*Ser tratada como persona es sinónimo de ser considerada “dotada de razón y conciencia” [...], es decir, reconocer su derecho a constituirse en interlocutora válida*» (Juliano, 2004: 217).

## 1.2. Emakumeen delituei buruzko interpretazioen bilakaera

Delituaren izaera androzentrikoaren baitan, delinkuentziaren azterketa gizonak egindako delituzko ekintzen analisia besterik ez da izan gehienetan. Alta, emakumeengan arreta jarri duen egileren bat edo beste egon da beti, eta, hala, emakumeen delituek ere azalpen edota interpretazio gutxi batzuk jaso dituzte urteetan zehar. Esaterako, XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen bigarren zatira arte, ikuspuntu eta zergati naturalizataileak izan ziren nagusi. Egia esan, portaeren esentzializatzea, hau da, kausa biologikoen bidez azaltzea, arrazoi sozialen bidez egin ordez, nahiko arrunta eta ohizkoa izan da, bereziki emakumeen kasuan (Juliano, 2011: 21). Horrela, XIX. mende amaierako kriminologia positibistaren teoria aurremodernoen (Lombroso eta Ferrero, 1895) zein XX. mendeko lehen hamarkadetakako funtzionalistek (Thomas, 1923; Pollak, 1950), eta gero garatutako beste hainbatek ere (Sabater, 1962, 1972; Aznar, 1968; Cowie, Cowie eta Slater, 1968; Ellis, 1982), emakume delitugileen ustezko «esentzian» edo «naturan» kokatu zituzten beraien «desbideratutako» ekintzen azalpenak, argudio fisiologikoak, sentimenduzkoak zein emoziozkoak erabilia (Almeda, 2007: 33) eta, maiz, euren portaerak patologizatuta (Matos, 2006: 26). Gizonekin batzuetan zio ekonomikoak eta sozialak erabiltzen ziren; emakumeekin, aldiz, biologia zen beti nagusi (Almeda, 2007: 35-36), jarraian sakonago ikusiko dugun moduan.

Cesare Lombroso eta Guglielmo Ferrero (1895), mediku kriminologoa lehenbizikoa eta historialaria bigarrena, emakumeen delinkuentziarengan arreta jarri zuten lehenak izan ziren, eta, hala, beraienak dira gaiari buruzko lehen erreferentzia esanguratsuak, argudio guztiz sexistak erabili bazituzten ere. Abiaturtzat hartuta emakumeak ez zirela gizonak bezainbeste eboluzionatu eta, ondorioz, primitiboagoak zirela, egitate horrek gehienak deliturako ezgai egiten zituela defendatu zuten, horrela azalduta haien delinkuentziaren tasa baxua. Beraien ikuspuntuaren arabera, emakume batek delituzko ekintza bat egiten bazuen, jaiotzetiko anormaltasunen baten edota nolabaiteko eromen emozionalen baten ondorioz behar zuten izan. Haien kriminalitateak maskulinitateko portaera suposatzen zuten, haien naturari ez zegokiona, eta, hortaz, anomalia bikoitza zena: biologikoa eta soziala (Lombroso eta Ferrero, 1895; *in* Canteras, 1990: 58). Beraien iritziz, salbuespen doblea eta eboluzio primitiboagoa izanaren kausaz, emakume delitugileak «muntroak» ziren, gizonak baino krudelagoak zein arriskutsuagoak, bereziki «degeneratuak»; baita emakumeengandik espero zitekeenaren aurkakoak ere, beste zenbait aldagai izateagatik:

«maltzurkeria, gorrotoa, faltsukeria» (Lombroso eta Ferrero, 1895; *in* Ribas, Almeda eta Bodelón, 2005: 41) eta «amatasun-senaren gabezia» (Lombroso eta Ferrero, 1895; *in* Clemente, 1987: 136). Delinkuentziarako joera itxura fisikoan ere nabaritzen zela aipatu zuten, eta, besteak beste, ezaugarri hauek bota zituzten: larruazal iluna, bekain iletsuak, atzeraka botatako kopeta, masailalbo-hezur nabarmenak, anomaliak garezurrean, etab. (Lombroso eta Ferrero, 1895; *in* Salhaketa Nafarroa, 2011: 28).

Garai bertsuan, William I. Thomas (1923) soziologoa izan zen emakumeen eboluzio-gutxiagotasuna defendatu zuenetako beste bat. Bere iritziz, emakumeek berezkoa zuten jendarteak gaitzetsitako ekintzak egiteko bultzada, eta, horregatik, gizonen etengabeko kontrola behar zuten (Thomas, 1967; *in* Canteras, 1990: 69). Bere argudioei jarraituta, familia-batasun tradizionalaren galeraren ondorioz egiten zituzten emakumezkoek lege-haustek. Maitasuna emateko eta sentitzeko senezko beharra zutela uste zuen, eta lehen sozializazioa eskasa bazen eta senitarteko rol tradizionalak ez bazituzten behar bezala barneratu, emaitza delinkuentzia edo prostituzioa zela (Thomas, 1967; *in* Almeda, 2007: 36).

Hainbat urte geroago, Otto Pollak (1950) soziologoak ere erabili zuen emakumezkoen gutxiagotasun biologikoaren ideia, beraien pasibotasun sexuala zela bide, «faltsuak, gezurtiak eta mendekatiak» zirela argudiatzeko (Pollak, 1961; *in* Almeda, 2007: 35). Autore horren ustez, emakumeen gutxiagotasuna beraien sexu-garapenaren ondoriozko «krisi biologikoetan» edo «endekapenezko faseetan» azaleratzen zen nabarmenen; batez ere, hilekoan, haurdunaldian eta menopausian zehar. Horietan gizonen azpitik sentitzeak mendeku-nahia eragiten ziela adierazi zuen eta zio horrek bultzatzen zituela delituzko ekintzak egitera (Pollak, 1950: 157; *in* Clemente, 1987: 179). «Zalduntasunaren tesia» ere proposatu zuen; zeinaren arabera, faltsukeria eta manipulazioa emakumeen berezko ezaugarriak izanik, delitugileek eztiak, puruak eta babesgabeak izatearen plantak egiten zituzten, horrela epaileak zein poliziak seduzituta (Pollak, 1961: 73; *in* Canteras, 1990: 70-71). Trataera lagungarri bezain onbera jasota, gehienetan zigorra ekiditen zutela uste zuen; eta, hala, beraien delinkuentzia estalita, ezkutuan, gelditzen zela (Pollak, 1950; *in* Clemente, 1987: 120).

Hurrengo hamarkadetan ere tankera bereko azalpen esentzialistak eta naturalizatzaileak erabili zituzten. Esate baterako, John Cowie, Valerie A. Cowie eta Eliot Slater (1968) kriminologoen delinkuentziaren kausak hainbat patologia biologikotan zeudela adierazi

zuten, nerbio-sistemaren gaitzak, anomalia kromosomikoak zein anormaltasun fisikoak azpimarratuta (Cowie, Cowie eta Slater, 1968; *in* Canteras, 1990: 72); eta, ildo beretik, Lee Ellis (1982) soziologoak herentziazko faktore genetikoak zeudela proposatu zuen, guraso delitugileak zituztenek lege-haustea egiteko joera handiagoa zutela defendatuta (Ellis, 1982; *in* Clemente, 1987: 155). Halaber, urte horietan, ikerlariek emakume zehatz batzuegan kokatu zuten gero eta gehiago arreta; eta, hala, garaiko aurreiritziak jasota, eta horiei azalpen «zientifikoa» eman nahian, egile batzuek (Von Hentig, 1975; Climent *et al.*, 1977) lesbianismoaren eta kriminalitatearen artean lotura zegoela adierazi zuten, zio biologikoak zirela eta, lesbianek prostituziorako, lapurretarako eta hilketarako ganua zutela eutsita (Platero, 2008, 2013).

Espainiako Estatuan ere aurki ditzakegu horrelako adibideak. Kasurako, XX. mendearen bigarren erdialdean, Antonio Sabater (1962, 1972) epaileak lesbianak eta ijitoak jarri zituen miran: lehenek «ohitura onen, jabetzaren eta bizitzaren aurkako delituak» egiteko berezko «grina» zutela defendatu zuen (Sabater, 1962: 208, 1972: 147; *in* Platero, 2013: 83); eta bigarrenek «lanari nazka zion eta ordena sozialari men egiten ez zion» «arraza berezia» osatzen zutela, eta, horrexegatik, «nagusiki, ebasketatik, maulatik eta bestelako egite zigorgarrietatik» bizi zirela (Sabater, 1972: 120). Testuinguru berean, aipagarriak dira Blas Aznar (1968) medikuaren ideiak. Zenbait autore anglosaxoiren korrontearekin bat egin zuen (Middleton, 1933; Deutsch, 1944; Gibbens, 1960; Dalton, 1961; Gibbens eta Prince, 1962) eta hilekoaren zikloaren eta kriminalitatearen arteko lotura landu. Bere aburuz, emakumeen sexualitatean «larriak» ziren etapak zeuden, hala nola, pubertasuna, haurdunaldia, erditzea, edoskitzea eta menopausia; baina guztien artean «arriskutsuena» hilekoa zen (Aznar, 1968: 11). Bere iritzien arabera, azken hori prozesu anomaloa zen, ernalketaren porrotaren emaitza zelako eta aldaketa biokimiko sakonak eragiten zituen odol toxikoa sortzen zuelako (*Ibidem*: 143). Ideia horiek oinarri hartuta defendatu zuen, sarri, patologikoa zela eta emakumeak delituak egitera bultzatzen zituela.

Planteamendu biologizista horien guztien oso bestelakoa izan arren, aipatzekoa da XX. mendearen zati luze batean, Espainiako Estatuan, arrunta izan zela emakumeek eginiko delituak bekatu moduan ere ulertzea. Antza denez, kontzeptu baten eta bestearen arteko bereizketa ez zegoen oso argi, eta emakumeen lege-hausteei moralezko erantzuna eman behar zitzaizela pentsatzen zuten; horretarako, erregutearen nahiz otoitzaren eremuetan murgilaraziz (Juliano, 2009a: 81). Gizonak «delitugileak» ziren; eta emakumeak, ordea,

«bekatariak», nagusiki «perbertituak», «arriskutsuak» zein «biziotsuak» (Juliano, 2011: 24).

Mota bateko zein besteko esplikazioa izan, emakumeen delinkuentziari buruzko teoria sexistak gailendu ziren urte luzez pentsamendu kriminologikoan. Ikerlari batzuen ustez (Almeda, 2003; Azaola, 2007), oraindik ere erabat gaindituta ez egon arren, ukaezina da aldaketa asko gertatu direla eta, egun, bestelako testuinguruan gaudela. Aldakuntzarako gako izan ziren kriminologia kritikoaren eta generokoaren ekarpenak; batez ere, Estatu Batuetako zein Erresuma Batuko zenbait autoreren lanak<sup>36</sup> (Smart, 1976; Carlen, 1983, 1985, 1988; Heidensohn, 1985; Dobash, Dobash eta Gutteridge, 1986; Eaton, 1986; Mandaraka-Sheppard, 1986). Izan ere, ordura arte landu gabeko ikergai eta eztabaidak mahaigaineratu zituzten, genero-ikuspegiaren bidez. Zehatz-mehatz, delituzko ekintzak desnaturalizatu eta presondegiatiko arazoak azaleratu zituzten, eta bai sistema penala bai espetxekoa androzentrikoak, sexistak zein diskriminatzaileak zirela baieztatu, hala, itxialdiaren zigorra emakumeentzat lazgarriagoa ohi zela ondorioztatuta (Almeda, 2007: 32). Beraien ekarriak funtsezkoak izan ziren, eta pixkanaka hedatu egin dira, bestelako ikuspuntuak garatuta, marko teorikoaren hurrengo kapituluetan islatuko den moduan.

### **1.3. Delitua (bir)definituz: egungo testuinguru penala**

Gaur egunean, esan daiteke delitua aztertzeke bi ildo edota joera gailentzen direla. Alde batetik, gizarte-bazterketarekin edota zaurgarritasun-egoerekin hartu-emanen ulertzeko jaidura dago; eta, bestetik, banakako diziplina ezarekin lotzeko ganua. Elkarren aurkako jarrera bateraezinak diruditen arren, egia esan, askotan bat egiten dute; eta, adibide gisa, 2004tik 2011ra bitartean SGIP Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiko buru izan zen Mercedes Gallizo<sup>37</sup>-ren hitzak ekar ditzakegu:

«Norbaitek arau sozialak urratzeko duen borondatek dator delinkuentzia. Erantzukizun hori hor dago. Gizakion erabakiak libreak eta arduratsuak dira. Ez osasun-arazoek, ezta droga-menpekotasunek ere, ez arazo ekonomikoek, eta are gutxiago erlijio- edo

---

<sup>36</sup> Dena dela, ezin da aipatu gabe utzi ikerlari anglosaxoi horien aurretik ere egile bakan batzuek salatu zutela emakume delitugileen egoera gehienetan okerragoa zela. Concepción Arenal (1894) idazle galegoa gogora dezakegu, kasu. Espetxeratzearen ondoreak emakumeentzat larriagoak zirela defendatu zuen, eta gizarte-gaitzespen handiagoa jasaten zutela kritikatu.

<sup>37</sup> 2012ko urtarriletik Ángel Yuste da Espetxe Erakundeetako Idazkari Nagusia.

politika-ikusmoldeek ez dute bidezkatzen legearen aurkako egiteak, bidegabekeriak edo krimenak gertatzea. Ez du ezerk justifikatzen indarkeria, lapurreta, estortsioa edota gure hurkoen askatasunaren eraso. Baina beharrezkoa da estatistika hotzek ezagutzera ematen diguten egitatea azpimarratzea: presondegietan, Espainian eta Europako herrialde guztietan, presoehuneko handi batek espetxean bereganatu ez dituen buruko gaitzak dituela, droga-menpekotasuna duela eta hezkuntza-maila baxua duela, eskolaporrotaren aurrekariekin; gehiengoak ez duela inoiz enplegu egonkorrik izan eta askok haurtzaroan abusuak, tratu txarrak, abandonatzeak, etab. pairatu dituztela. Labur esanda, kartzelan, batez ere, gure gizartearen hainbat porrotaren emaitza biltzen da» (SGIP, 2010a: 7)<sup>38</sup>.

Lerro horietan, norberaren ardurari egindako erreferentziak hauteman ditzakegu, batez ere, «arau sozialak urratzeko borondatea» aipatzen denean; baina, era berean, pertsonon zaurgarritasunean eragina duten zenbait problematikaren aipuak ikus ditzakegu, «gure gizartearen hainbat porrot» jasotzean. Azken batean, Espetxe Erakundeek defendatu nahi dute preso daudenak beraien «portaera antisozialaren ondorioz» daudela egoera horretan (*Ibidem*: 6), baina zenbait faktore sozialen eragina hain da nabarmena, ezen saihestezina den.

Edonola, Espetxe Erakundearen diskurtsoak azaleratzen du kontrol-politiketan eraldaketa handiak ekarri dituzten Estatu Batuetako eta Europako zenbait joeren pisua<sup>39</sup>; delituaren eraketa sozialaren inguruan eta sistema polizialaren, penalaren eta espetxekoaren izaera selektiboaren gainean pentsarazten duten hainbat jaidurena, hain zuzen ere. Soziologo zenbaitek diotenez (Wacquant, 2001, 2008, 2010; Young, 2003; Bauman, 2005, 2007; Garland, 2005), Manhattan Institute, Heritage Foundation edota American Enterprise Institute moduko Estatu Batuetako *think tank* neokontserbadore eta neoliberalen azken

---

<sup>38</sup> Gaztelaniaz jatorrizkoan: «*La delincuencia proviene de la voluntad de alguien en violar las normas sociales. Esa responsabilidad existe. Las decisiones humanas son libres y responsables. Ni problemas de salud, ni drogodependencias, ni dificultades económicas y mucho menos concepciones religiosas o políticas, pueden justificar que se cometan ilegalidades, injusticias o crímenes. Nada justifica la violencia, el robo, la extorsión o los ataques a la libertad de nuestros semejantes. Pero es necesario hacer hincapié en el hecho que nos revelan las frías estadísticas: que en las prisiones, en España y también en el conjunto de los países europeos, un alto porcentaje de internos sufren enfermedades mentales que no han adquirido en la cárcel, padecen drogodependencia y presentan un bajo nivel educativo, con antecedentes de fracaso escolar; la mayoría no han tenido nunca un empleo estable y muchos han padecido en su infancia abusos, malos tratos, abandonos, etc. En resumen, que en la cárcel se concentra mayoritariamente el resultado de algunos fracasos de nuestras sociedades*» (SGIP, 2010a: 7).

<sup>39</sup> Delituekiko kontrol-politiken eraldaketa Estatu Batuetan hasi zen, 70eko hamarkadan, eta New Yorken izan zuen adierazte nabarmenena, batez ere, Rudolph Giuliani-ren alkatetzaren garaian, 1994tik 2001era bitartean. 90eko hamarkadan Europan zabaltzen hasi zen pixkanaka, Ingalaterran lehenik, eta, geroxeago, Belgikan, Espainian, Frantzia, Holandan, Italian eta Suedian.

lau hamarkadetako lanek egiturazko aldaketa sakonak bultzatu dituzte, delituaren lekua eremu soziokulturalean aldarazita. Gaur egun, lege-hausteen kontrola eta justizia penala bestelakoak dira, delituzko ekintzen esanahi kulturalak eta erantzun sozialak itxuraldatu direnez gero. Hala, delinkuentziaren kopuruak eta nolakotasunak mantendu diren arren, gizartearen jarrerak eta diskurtsoak erabat ezberdinak dira. Delituekiko izuak garrantzi handia hartu du. Jendartearen gehienak oso gai larria dela eta etorkizunean are larriagoa izango dela uste du, eta, ondorioz, beldurrarekin nazkatuta, zigor-neurri zorrotzagoak eskatzen ditu. Segurtasunaren beharra azpimarratzen da, arriskuak eustearen premia eta perilosa izan daitekeen oro identifikatzearen eta kontrolatzearen garrantzia. Herritarrak babestea bilakatu da helburu nagusi, eta, hortaz, eztabaida biziak piztu dira fidantzen, kartzelatik irteteen, baldintzapeko askatasunen zein ordezeko neurrien inguruan. Eredu berriak askatasun-gabetzei eman die lehentasun osoa, eta, hori dela eta, azken urteotan kartzelaratzek nabarmenki areagotu dira, sektore penala zein espetxekoa garatzearekin batera. Izan ere, «kriminalak kaleetatik urrun izateko» bide seguruen eta eraginkorrena itxialdia dela sinestarazten bada ere, eta, beraz, delitugileekiko beldurra gainditzeko era aproposena hori dela esaten den arren, kartzelatzearen areagotzeak ez du inoiz gutxiagotu lege-hausle potentzialen kopurua; alderantziz, espetxe-erakundearen hedapena eta presoak gehitzea ekarri du (Bhavnani eta Davis, 2007: 198).

Delitua diziplinari ezarekin zein autokontrol edota gizarte-kontrol faltarekin lotzearen ondorioz gertatu dira aldaketa horiek guztiak, zigorra merezi duten «pertsona gaiztoak» daudela pentsarazi baitute. Arrazoibide hegemonikoaren arabera, delituak gizabanako antisozialen edo ezmoraleen erabaki arrazionalak dira, eta legeen aplikazio laxoarekin eta zehapen-erregimen bigunekin erlazionatuta daude. Horrela, ulertzerik eman da zigorrak behar bezain gogorrak ez izatearen kausaz daudela lege-haustekak, eta soluzioa kontrola handitzea dela. Modu nahiko bitxian, ordea, diskurtso zein ekimen guztiek gizarte-talde zaurgarrien delinkuentziarengan jarri dute arreta, horien ekintzak gainzigtuta, baita pobreak diren edo gatazkatsutzat jotzen diren auzoetan polizia-presentzia areagotuta ere (Davis, 2001; Bosworth eta Flavin, 2007a, 2007b). Horrela sortu dira egun nagusi diren idealak: «krimenaren aurkako gerra», «kale-garbiketara», delinkuentzia txikiarekiko «zero tolerantzia» eta, Loïc Wacquant (2001) soziologoaren esamoldeak erabilita, «miseriaren kriminalizatzea» zein «marjinalen itxialdi handia». Finean, autore askok adierazi bezala (Bhavnani eta Davis, 1996; Guagliardo, 1997; Wacquant, 2001; Bauman, 2005; Curcio,



2014), «hondakin» gisa hartu dituzte gizartean baztertutako kolektiboak, beharrezkoak ez diren gizabanako moduan; hala, kartzela «gizarte-zabortege» bihurtuta.

Espainiako Estatuaren kasuan, FAES Gizarte Analisirako eta Ikerketarako Fundazioaren moduko *think tank* kontserbadoreen eskutik hedatu dira horrelako planteamenduak. Izan ere, honako mezuak kaleratu dituzte: segurtasun-gabeziaren sentipena delinkuentziaren igoera errealaren emaitza dela (Cosidó, 2009; *in* Sales i Campos, 2014: 67-68), delituen gehitzearen kausak balio tradizionalen gainbehera eta instituzioek arau-hauste txikiekin izandako permisibitatea direla (Cosidó *et al.*, 2003; *in* Sales i Campos, 2014: 68) eta konponbidea Kode Penalaren gogortzea dela (Ortiz, 2008; *in* Sales i Campos, 2014: 68). Hala, alderdi politiko zein komunikabide batzuekin elkarlanean (Zuloaga, 2014), Estatu Batuetan eta Europako beste estatuetan jazo legez, sozialki nahiz ekonomikoki ahulenak diren taldeen gaineko polizia-presioa gehiagotu da, eta estatu- eta tokian tokiko araudiak zorrotzu<sup>40</sup> (Juliano, 2014: 217). Kontrol-eredu berriaren indarra geroz eta handiagoa da; eta, ondorioz, gaur egungo testuinguruan bestelako kartzelak diseinatu dira, diziplinazko erregimen anitzak eratu eta Kode Penala are gehiago gogortu<sup>41</sup>. Beraz, Julianok aipatu bezala, «ongizate-estatutik estatu kartzelaratzailerara» igaro gara (2009a: 83); nahiz eta azken urteotan delitu-tasa egonkor mantendu den –eta, batzuetan, gutxitu ere egin den– (Zuloaga, 2014; Díez Ripollés, 2015).

---

<sup>40</sup> Lekuko arautegien gogortzearen adibide argienak hainbat hiritan indarrean jarri diren udal-ordenantzak dira, gizarte-talde batzuen estigmatizatzea eta gehiegizko zigortzea ekarri baitituzte (Maqueda, 2008: 21; *in* Juliano, 2014: 217). Euskal Herrian, esate baterako, Bilboko kasua dugu.

<sup>41</sup> 1995eko Kode Penalak aldaketa ugari izan ditu: neurriak gero eta gehiago zorrotzu dituzten hogeitaka lege-erreforma, hain zuzen ere (Díez Ripollés, 2015). Halaz ere, 2015ean, azken lege-erreformak asaldura berezia piztu zuen; ordurako Europako zigor-kode zorrotzenetarikoa izanda, are gehiago gogortu zuelako eta frankismoaren ondorengo latzena edota zigortzaileena bilakatu. Azken erreforma horrek 252 artikulua aldarazi zituen eta beste hogeita hamar inguru desagerrarazi (Noticias Jurídicas, 2015-03-31). Zalantzarik gabe, aldaketarik polemikoena «berriz azter daitekeen espetxe-zigor iraunkorra» izan zen. Horren arabera, «erailketa kasu larrienen» –esan nahi baita, askatasun sexualaren aurkakoetan zein erakunde armatuekin lotutakoetan– legezkoa da delitugilea betirako edukitzea giltzapean (Sagarzazu, 2015-01-22); betiere, 25-35 urte igaro ondoren, egoera bi urtetik behin aztertuta, aske gelditu daitekeen deliberatzeko (Goikoetxea, 2012-09-15). Azkenean bertan behera gelditu zen arren, zeresan ohargarria eragin zuen erreformaren aurreproiektuan jasotako «zaintzapeko askatasunak» ere; kartzelaldia amaituta, «arriskutsutzat» hartutako preso ohiak hamar urteko epean zelatatzea proposatzen zuenak, baita egoitza berezi batean egotera edo tratamendu bat betetzera behartu ahal izatea ere (*Ibidem*). Bestalde, horren eztabaidatuak ez izanda ere, zalaparta handia sortu zuten honako aldaketek ere: faltak kentzea eta delitu arin berriak agertzea –esate baterako, ebasketak delitu bilakatuta–; gogorrago zigortzea lege-hausteak errepikatzea; baldintzapeko askatasuna desagertzea eta, horren orde, «zigorraren betearazpena etetea» sortzea; etab. (Hermosilla, 2012-10-04). Erreformak hainbat legelariren, alderdi politikoren eta gizarte-eragileren kritikak jaso zituen, oinarritzko eskubideak urratzen zituelakoan eta talde batzuen kriminalizatzea sustatzen zuelakoan: egoera irregularrean zeuden atzerritarrena, buruko gaixoena, droga-konsumitzaileena eta abarrena (No Somos Delito, 2013, 2014; Iraola, 2014-06-11). Nolanahi ere, ez zen erreforma gelditzea lortu.

Datuak aztertzen baditugu, azken hogeita hamar urteotan kartzelatzeek nabarmenki egin dutela gora ikusiko dugu<sup>42</sup>, eta preso en zenbatekoak Europako altuenetariakoak direla<sup>43</sup> (1. taula; 2. taula).

**1. taula: Presoak Espainiako Estatuan (2015eko iraila)**

Presoak	Kopurua	%
Emakumeak	4.901	7,73
Gizonak	58.535	92,27
GUZTIRA	63.436	100

Iturria: egileak egin, Espetxe Erakunde en datuak erabilia.

**2. taula: Emakume presoak EB Europar Batasunean (2015eko uztaila)**

Herrialdea	%
Alemania	5,9
Austria	6,0
Belgika	4,3
Bulgaria	3,2
Danimarka	4,0
Erresuma Batua	4,3
Errumania	5,1
Eslovakia	6,3
Eslovenia	5,6
Espainia	7,7
Estonia	5,5
Finlandia	7,5
Frantzia	3,3
Grezia	4,9
Herbehereak	5,4
Hungaria	7,6
Irlanda	3,3

<sup>42</sup> 1985ean, Espainiako Estatuan, 1.004 emakume zeuden preso eta espetxeratuen guztizkoaren %4,60 ziren. 2015eko irailean, aldiz, 4.901 emakume zeuden preso eta kartzelaratuen totalaren %7,73 ziren (in <http://www.institucionpenitenciaria.es>) [Kontsulta: 2015eko azaroaren 3a]. Ikus 1. taula.

<sup>43</sup> 2011tik 2013ra arteko zenbatekoen arabera, Espainiako Estatuan 147 preso zeuden 100.000 biztanleko; Mendebaldeko Europako batez bestekoa, aldiz, 98koa zen (Walmsley, 2013). Bestalde, 2015eko uztaileko kopuruak erabilia, kartzelatatuko emakumeen tasa guztizkoaren %7,7 zen; Europa osoko batez bestekoa, ordea, %4,9 zen, eta EB Europar Batasuneko %5,4 (Walmsley, 2015). Ikus 2. taula.

<b>Herrialdea</b>	<b>%</b>
Italia	4,1
Kroazia	5,1
Letonia	7,2
Lituania	4,4
Luxenburgo	4,1
Malta	6,3
Polonia	3,5
Portugal	5,9
Suedia	5,6
Txekiar Errepublika	6,6
Txipre	7,6
<b>BATEZ BESTEKOA</b>	<b>5,4</b>

Iturria: egileak egina, oinarri hartuta Walmsley (2015).

Hego Euskal Herriko kopuruen arabera, espetxean dauden emakumeak presoaren totalaren %10,59 dira; erkidegoka, %11,01 EAEn eta %8,96 Nafarroan<sup>44</sup> (3. taula).

### **3. taula: Presoak Hego Euskal Herrian (2015eko iraila)**

<b>Presoak</b>	<b>EAE</b>	<b>Nafarroa</b>	<b>Hego Euskal Herria</b>
Emakumeak	149 (%11,01)	31 (%8,96)	180 (%10,59)
Gizonak	1.204 (%88,99)	315 (%91,04)	1.519 (%89,41)
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.353 (%100)</b>	<b>346 (%100)</b>	<b>1.699 (%100)</b>

Iturria: egileak egina, Espetxe Erakundearen datuak erabilia.

Ikus daitekeenez, Hego Euskal Herriko batez bestekoa Espainiar Estatuko baino are eta altuagoa da; eta, gainera, igotzeko jaidura ere izan du<sup>45</sup> (4. taula).

<sup>44</sup> 2015eko iraileko datuak jasota, EAEn 149 emakume (%11,01) eta 1.204 gizon (%88,99) zeuden preso, eta Nafarroan 31 emakume (%8,96) eta 315 gizon (%91,04) (*in* <<http://www.institucionpenitenciaria.es>> [Kontsulta: 2015eko azaroaren 3a]). Ikus 3. taula.

<sup>45</sup> Azken urteotako datuak hartuta, 2011n, Hego Euskal Herrian espetxeratutako emakumezkoak %9,22 ziren; 2012an, %9,36; 2013an, %11,07; eta, 2014an, %10,74. Igoera EAEn gertatu da, bereziki; izan ere, 2011n, 135 emakume (%9,37) zeuden kartzelan; 2012an, 132 emakume (%9,40); 2013an, 164 emakume (%11,91); eta, 2014an, 158 emakume (%11,74) (*in* <<http://www.eustat.es>> [Kontsulta: 2015eko azaroaren

#### 4. taula: *Presoak Hego Euskal Herrian (2011-2014)*

Urtea	Presoak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa	Hego EH
2011	Emakumeak	90 (%12,36)	16 (%4,46)	29 (%8,19)	135 (%9,37)	21 (%8,37)	156 (%9,22)
	Gizonak	638 (%87,67)	343 (%95,54)	325 (%91,81)	1306 (%90,63)	230 (%91,63)	1536 (%90,78)
	GUZTIRA	728 (%100)	359 (%100)	354 (%100)	1441 (%100)	251 (%100)	1692 (%100)
2012	Emakumeak	90 (%12,40)	13 (%3,89)	29 (%8,43)	132 (%9,40)	29 (%9,15)	161 (%9,36)
	Gizonak	636 (%87,60)	321 (%96,11)	315 (%91,57)	1272 (%90,60)	288 (%90,85)	1560 (%90,64)
	GUZTIRA	726 (%100)	334 (%100)	344 (%100)	1404 (%100)	317 (%100)	1721 (%100)
2013	Emakumeak	114 (%16,31)	14 (%3,97)	36 (%11,08)	164 (%11,91)	23 (%7,35)	187 (%11,07)
	Gizonak	585 (%83,69)	339 (%96,03)	289 (%88,92)	1213 (%88,09)	290 (%92,65)	1503 (%88,93)
	GUZTIRA	699 (%100)	353 (%100)	325 (%100)	1377 (%100)	313 (%100)	1690 (%100)
2014	Emakumeak	112 (%16,12)	16 (%4,91)	30 (%9,23)	158 (%11,74)	23 (%6,78)	181 (%10,74)
	Gizonak	583 (%83,88)	310 (%95,09)	295 (%90,77)	1188 (%88,26)	316 (%93,22)	1504 (%89,26)
	GUZTIRA	695 (%100)	326 (%100)	325 (%100)	1346 (%100)	339 (%100)	1685 (%100)

Iturria: egileak egin, EUSTATen eta INEren datuak erabilita.

Estatuko joera aintzat hartzen badugu, ordea, kartzelatutako emakumeen zenbatekoa pitin bat gutxiagotu da 2010etik goertzik, batez ere, Europako zifretara gerturatzeko esfortzuak direla eta: Kode Penalaren 2010eko erreforma, isuna gehiago erabiltzea, baldintzapeko askatzea aurreratzea eta, bereziki, erregulaziorik gabeko egoeran dauden atzerritarrei zigorra lurraldetik kanporatzearekin ordezkatzeta (García, 2014-05-29).

Emakume presoek kopuru bereziki altu horien zergatiak ez dira sakonki aztertu, baina ikerlari gutxi batzuk zioen inguruan pentsatzen eta gogoeta egiten aritu dira, eta azalpen batzuk bota dituzte. Elisabet Almeda (2003) soziologoak, kasurako, elkar-erlazioan dauden hainbat faktore aipatzen ditu. Lehenik eta behin, Europako gainerako estatuekin alderatuta, Espainiako ongizate-estatuaren garapen urria jasotzen du, delituzko ekintzen prebentziorako eta presoek birgizarteratzerako zerbitzu eta baliabide gutxi egotea eragin baitu; eta, hala, kartzelaren ordezkotza bideen erabilera zaildu eta lege-hausteak zehatzeko modu nagusia –eta ia bakarra– itxialdia izatea ekarri<sup>46</sup> (*Ibidem*: 28).

3a)]. Nafarroan, ordea, igotzea ez da horren nabaria izan; 2011n, 21 emakume (%8,37) zeuden preso; 2012an, 29 emakume (%9,15); 2013an, 23 emakume (%7,35); eta, 2014an, berriro ere beste 23 emakume (%6,78) (*in* <<http://www.ine.es>> [Kontsulta: 2015eko azaroaren 3a]). Ikus 4. taula.

<sup>46</sup> Preso kopuruak eta kartzelatutako emakumeen zenbatekoak ez dira Europako beste herrialdeetan baino altuagoak Euskal Herrian edota Espainiako Estatuan delitu gehiago gertatzeagatik, gehien erabiltzen den zigorra espetxearena izateagatik baizik, Kode Penalak hobesten duen neurria denez gero. Aitzitik, polizia-

**5. taula: Delituak Espainiako Estatuan, sexuaren arabera (2015eko iraila)<sup>47</sup>**

Delitua	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Jabetzaren eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak	1.401 (%6,82)	19.151 (%93,18)	20.552 (%100)
Osasun publikoaren aurkakoak	1.622 (%13,20)	10.669 (%86,80)	12.291 (%100)
Genero-indarkeria	3 (%0,07)	4.042 (%99,93)	4.045 (%100)
Hilketak	293 (%7,51)	3.609 (%92,49)	3.902 (%100)
Sexu-askatasunaren aurkakoak	57 (%1,84)	3.039 (%98,16)	3.096 (%100)
Lesioak	192 (%7,12)	2.505 (%92,88)	2.697 (%100)
Ordena publikoaren aurkakoak	146 (%6,93)	1.962 (%93,07)	2.108 (%100)
Trafiko-segurtasunaren aurkakoak	33 (%2,45)	1.313 (%97,55)	1.346 (%100)
Faltsukeriak	81 (%9,25)	795 (%90,75)	876 (%100)
Justiziaren administrazioaren aurkakoak	117 (%14,05)	716 (%85,95)	833 (%100)
Askatasunaren aurkakoak	46 (%6,42)	670 (%93,58)	716 (%100)
Administrazio eta Ogasun Publikoaren aurkakoak	25 (%8,59)	266 (%91,41)	291 (%100)
Familia-harremanen aurkakoak	13 (%5,35)	230 (%94,65)	243 (%100)
Ohorearen aurkakoak	0	0	0
Gainerako delituak	84 (%13,42)	542 (%86,58)	626 (%100)
Faltak	5 (%6,10)	77 (%93,90)	82 (%100)
Zehaztu gabekoak	4 (%9,30)	39 (%90,70)	43 (%100)
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.122 (%7,67)</b>	<b>49.625 (%92,33)</b>	<b>53.747 (%100)</b>

Iturria: egileak egina, Espetxe Erakundearen datuak erabilia.

Bigarrenik, droga ilegalen salmentarekin edota garraioarekin lotutako ekintzak gero eta modu zorrotzagoan zigortu izana aipatzen du<sup>48</sup>, osasun publikoaren aurkako delitu horiek baitira arruntenak emakumeen artean; eta horien segidan, ebasketa zein lapurreta

zerbitzuek ezagututako delituak eta faltak aintzat hartzen baditugu, bertako zifrak Europar Batasunekoak baino txikiagoak direla ikus dezakegu. Kasurako, 2011ko datuen arabera, EAEn %35,37 zen eta Europar Batasunean, ordea, %70en ingurukoa (in <http://www.eustat.es>) [Kontsulta: 2012ko otsailaren 28a]). Era berean, nabarmentzekoa da Komunitatearen Aldeko Lanen erabilera androzentrikoa eta diskriminatzailea dela emakumezkoentzat. Izan ere, batik bat, bi delitu-motaren kasuetan ezartzen dira horrelakoak: genero-indarkeriazkoetan eta trafiko-segurtasunaren kontrakoetan; horiek nagusiki gizonezkoek eginikoak izanik. 2015eko iraileko estatu-mailako kopuruen arabera, gizonek egin zituzten genero-indarkeriazko falten eta delituen %99,93 eta trafiko-segurtasunaren aurkakoak %97,55 (in <http://www.institucionpenitenciaria.es>) [Kontsulta: 2015eko azaroaren 3a]). Ikus 5. taula.

<sup>47</sup> 1995eko Kode Penalaren baitako delituak ageri dira soilik, indargabetutako Kode Penalekoak kontuan hartu gabe.

<sup>48</sup> 2010 arte, osasun publikoaren aurkako delituak gero eta zorrotzago zigortu ziren. Baina, urte horretan, Europar Batasuneko herrietako ildoarekin bat egiteko asmoz, Kode Penalaren 368. artikulua aldatu zuten, kasu arinenen gehienezko espetxe-zigorra bederatzirte gutxituta.

txikiak<sup>49</sup> (6. taula), askotan drogekin harremanetan daudenak, delitugile zenbaitzuen menpekotasuna dela eta (*Ibidem*: 28-29). Oro har, zehatze gogor horren kaltetu nagusiak «droga-salmentaren kateko azken kate-mailak» izan dira, tartean emakumeak, gehienak kalean droga saltzeagatik eta *mula* edo *correo*<sup>50</sup> bezala garraiatzeagatik hartu baitituzte preso.

**6. taula: Delituak Espainiako Estatuan, delitu-motaren arabera (2015eko iraila)**<sup>51</sup>

Delitua	Emakumeak	Gizonak
Osasun publikoaren aurkakoak	1.622 (%39,35)	10.669 (%21,50)
Jabetzaren eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak	1.401 (%33,99)	19.151 (%38,59)
Hilketak	293 (%7,11)	3.609 (%7,27)
Lesioak	192 (%4,66)	2.505 (%5,05)
Ordena publikoaren aurkakoak	146 (%3,54)	1.962 (%3,95)
Justiziaren administrazioaren aurkakoak	117 (%2,84)	716 (%1,44)
Faltsukeriak	81 (%1,97)	795 (%1,60)
Sexu-askatasunaren aurkakoak	57 (%1,38)	3.039 (%6,12)
Askatasunaren aurkakoak	46 (%1,11)	670 (%1,35)
Trafiko-segurtasunaren aurkakoak	33 (%0,80)	1.313 (%2,65)
Administrazio eta Ogasun Publikoaren aurkakoak	25 (%0,61)	266 (%0,54)
Familia-harremanen aurkakoak	13 (%0,31)	230 (%0,46)
Genero-indarkeria	3 (%0,07)	4.042 (%8,15)
Ohorearen aurkakoak	0	0
Gainerako delituak	84 (%2,04)	542 (%1,09)
Faltak	5 (%0,12)	77 (%0,16)
Zehaztu gabekoak	4 (%0,10)	39 (%0,08)
GUZTIRA	4.122 (%100)	49.625 (%100)

Iturria: egileak egina, Espetxe Erakundearen datuak erabilia.

<sup>49</sup> 2015eko iraileko estatu-mailako zenbatekoak kontuan izanda, emakumeen kasuan, osasun publikoaren aurkako delituak %39,35 ziren, eta jabetzaren eta ordena sozioekonomikoaren kontrakoak %33,99. Gainerako delituen kopuruak nahiko txikiak ziren: hilketak (%7,11), lesioak (%4,66), ordena publikoaren aurkakoak (%3,54), etab. Gizonen kasuan, berriz, kopuruak bestelakoak ziren: jabetzaren eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituak %38,59 ziren eta osasun publikoaren kontrakoak %21,50. Jarraian, hauek ageri ziren: genero-indarkeria (%8,15), hilketak (%7,27), sexu-askatasunaren aurkakoak (%6,12), etab. (*in* <<http://www.institucionpenitenciaria.es>> [Kontsulta: 2015eko azaroaren 3a]). Ikus 6. taula.

<sup>50</sup> Gorputzaren barruan edo ekipajearen droga eramanen duten pertsonak izendatzen dira *mula* edo *correo*. Asko emakumeak dira, eta, normalean, garraiatzen duten droga-kopurua ez da oso handia.

<sup>51</sup> 1995eko Kode Penalaren baitako delituak ageri dira soilik, indargabetutako Kode Penalekoak kontuan hartu gabe.

Azkenik, proposatzen dituen beste zergati batzuk dira azken urteotan emakumezkoen kartzelatze prebentiboen zenbatekoak altuagoak izan direla beti<sup>52</sup> (*Ibidem*: 33) (7. taula; 8. taula; 9. taula), gizarte-eztabaida eskasa dela, eta urria dela bai presoek eskubideen alde, bai espetxe-sistemaren ordezkori neurrien onetan lanean dauden taldeen kopurua – bereziki, emakumeen kasuan– (*Ibidem*: 34-35).

**7. taula: Egoera prozesala eta penala Espainiako Estatuan (2015eko iraila)**

Egoera	Emakumeak	Gizonak
Zigortuak	4.133 (%84,33)	49.901 (%85,25)
Prebentiboak	703 (%14,34)	7.404 (%12,65)
Gainerakoak	65 (%1,33)	1.230 (%2,10)
GUZTIRA	4.901 (%100)	58.535 (%100)

Iturria: egileak egin, Espetxe Erakundearen datuak erabilia.

Ezin ditugu ahaztu, era berean, beste ikertzaile batzuek jasotako arrazoiak; pobreziaren feminizatzea eta pertsona txiroen kriminalizatzea, kasu (Naredo, 2005). Izan ere, horiek berriro ere gogorarazten digute kontrol-politikek ez dietela herritar guztiei modu berean eragiten, eta, ondorioz, ezta emakumeei ere. Arestian adierazi bezala, gakoak delituaren eraikuntza soziokulturala zein sistema polizialaren, penalarren eta espetxekoaren izaera hautakorra dira. Lehenari dagokionez, aintzat izan behar dugu leku eta garai bakoitzean onartzen zein baztertzen diren portaerak ezberdinak direla (Bergalli, 1996), eta, hortaz, ohikoa dela egun baimendutako egitateak iraganean debekatuta egotea, eta alderantziz (Juliano, 2013: 11); kasurako, frankismoan, adulterioa, prostituzioa zein abortua lege-hausteak ziren, eta, gaur egun, gorabehera batzuekin bada ere, ez dira delituak. Azken batean, egitate bat delitua den edo ez erabakitzea botere-adierazpena da (Miranda, 1979: 140), eta, orokorki, talde hegemonikoen irizpideak gailentzen dira (Lagarde, 2011: 647),

<sup>52</sup> 2015eko iraileko datuen arabera, Espainiako Estatuan, emakume presoek %14,34 zegoen espetxeratze prebentiboan, eta gizon presoek %12,65 (*in* <<http://www.institucionpenitenciaria.es>> [Kontsulta: 2015eko azaroaren 3a]). Hego Euskal Herriko zenbatekoak, ordea, ezberdinak dira, eta behin behineko emakume kartzelaratuak gizonak baino gutxiago izan dira orokorrean. Hala ere, joera aldatzen ari da. Adibidez, 2011n, emakumeek %7,69 zegoen egoera horretan eta gizonen %16,93; 2012an, emakumeek %10,56 eta gizonen %15,26; 2013an, emakumeek %11,23 eta gizonen %10,84; eta, 2014an, emakumeek %6,08 eta gizonen %10,70 (*in* <<http://www.eustat.es>> eta <<http://www.ine.es>> [Kontsulta: 2015eko azaroaren 3a]). Ikus 7., 8. eta 9. taulak.

**8. taula: Emakumeen egoera prozesala eta penala Hego Euskal Herrian (2011-2014)**

Urtea	Egoera	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa	Hego EH
2011	Zigortuak	81 (%90)	16 (%100)	27 (%93,10)	124 (%91,85)	19 (%90,48)	143 (%91,67)
	Prebentiboak	8 (%8,89)	0	2 (%6,90)	10 (%7,41)	2 (%9,52)	12 (%7,69)
	Gainerakoak	1 (%1,11)	0	0	1 (%0,74)	0	1 (%0,64)
	GUZTIRA	90 (%100)	16 (%100)	29 (%100)	135 (%100)	21 (%100)	156 (%100)
2012	Zigortuak	84 (%93,33)	13 (%100)	25 (%86,21)	122 (%92,42)	21 (%72,41)	143 (%88,82)
	Prebentiboak	6 (%6,67)	0	4 (%13,79)	10 (%7,58)	7 (%24,14)	17 (%10,56)
	Gainerakoak	0	0	0	0	1 (%3,45)	1 (%0,62)
	GUZTIRA	90 (%100)	13 (%100)	29 (%100)	132 (%100)	29 (%100)	161 (%100)
2013	Zigortuak	103 (%90,35)	14 (%100)	31 (%86,11)	148 (%90,24)	17 (%73,91)	165 (%88,24)
	Prebentiboak	11 (%9,65)	0	5 (%13,89)	16 (%9,76)	5 (%21,74)	21 (%11,23)
	Gainerakoak	0	0	0	0	1 (%4,35)	1 (%0,53)
	GUZTIRA	114 (%100)	14 (%100)	36 (%100)	164 (%100)	23 (%100)	187 (%100)
2014	Zigortuak	105 (%93,75)	16 (%100)	29 (%96,67)	150 (%94,94)	19 (%82,61)	169 (%93,37)
	Prebentiboak	7 (%6,25)	0	0	7 (%4,43)	4 (%17,39)	11 (%6,08)
	Gainerakoak	0	0	1 (%3,33)	1 (%0,63)	0	1 (%0,55)
	GUZTIRA	112 (%100)	16 (%100)	30 (%100)	158 (%100)	23 (%100)	181 (%100)

Iturria: egileak egina, EUSTATen eta INEren datuak erabilita.

**9. taula: Gizonen egoera prozesala eta penala Hego Euskal Herrian (2011-2014)**

Urtea	Egoera	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa	Hego EH
2011	Zigortuak	578 (%90,60)	275 (%80,17)	269 (%82,77)	1122 (%85,91)	154 (%66,96)	1276 (%83,07)
	Prebentiboak	60 (%9,40)	68 (%19,83)	56 (%17,23)	184 (%14,09)	76 (%33,04)	260 (%16,93)
	Gainerakoak	0	0	0	0	0	0
	GUZTIRA	638 (%100)	343 (%100)	325 (%100)	1306 (%100)	230 (%100)	1536 (%100)
2012	Zigortuak	570 (%89,62)	263 (%81,93)	266 (%84,44)	1099 (%86,40)	212 (%73,61)	1311 (%84,04)
	Prebentiboak	62 (%9,75)	58 (%18,07)	49 (%15,56)	169 (%13,29)	69 (%23,96)	238 (%15,26)
	Gainerakoak	4 (%0,63)	0	0	4 (%0,31)	7 (%2,43)	11 (%0,70)
	GUZTIRA	636 (%100)	321 (%100)	315 (%100)	1272 (%100)	288 (%100)	1560 (%100)
2013	Zigortuak	547 (%93,51)	289 (%85,25)	259 (%86,62)	1095 (%90,27)	236 (%81,38)	1331 (%88,56)
	Prebentiboak	35 (%5,98)	48 (%14,16)	29 (%10,03)	112 (%9,23)	51 (%17,59)	163 (%10,84)
	Gainerakoak	3 (%0,51)	2 (%0,59)	1 (%0,35)	6 (%0,50)	3 (%1,03)	9 (%0,60)
	GUZTIRA	585 (%100)	339 (%100)	289 (%100)	1213 (%100)	290 (%100)	1503 (%100)
2014	Zigortuak	544 (%93,31)	269 (%86,77)	261 (%88,47)	1074 (%90,40)	246 (%77,85)	1320 (%87,77)
	Prebentiboak	31 (%5,32)	37 (%11,94)	30 (%10,17)	98 (%8,25)	63 (%19,94)	161 (%10,70)
	Gainerakoak	8 (%1,37)	4 (%1,29)	4 (%1,36)	16 (%1,35)	7 (%2,21)	23 (%1,53)
	GUZTIRA	583 (%100)	310 (%100)	295 (%100)	1188 (%100)	316 (%100)	1504 (%100)

Iturria: egileak egina, EUSTATen eta INEren datuak erabilita.



bai generoaren eremuan, baita klase sozialaren, etniaren edo jatorriaren esparruetan ere. Mekanismo selektiboek dagokienez, kontuan izan behar dugu poliziek ez dituztela delitu guztiak modu berean jazartzen (Manzanos, 1991: 67). Aurretik esan bezala, testuinguru politikoaren zein komunikabideen presioaren arabera, pertsona batzuek beste batzuek baino askoz ere kontrol eta zaintza handiagoa bizi dute, sarekada zein miaketa gehiago, «delitugilearen» nolakotasunari buruzko estereotipoak oinarri izanda. Epaileak, fiskalak eta abokatuak ez daude aurreiritzietatik salbu ere ez, ikertzaile zenbaitek sektore batzuk kaltetzeko joera dutela azalatu baitute (Martín Palomo, 2002: 167). Halaber, ezin dugu ahaztu, dirua izanez gero, epaituek defentsa hobea izateko aukera dutela, eta askatasun-gabetzea ekiditeko fidantzak eta isunak ordaintzekoa (Cabrera, 2011: 83). Azken finean, iragazki horien guztien emaitza da norbanako batzuek kartzelan amaitzeko probabilitate gehiago dituztela eta, jakina, horiek jendarteko zaurgarrienak direla.

Beraz, mekanismo selektibo horiek guztiak begietan izanda, eta emakume presoak inola ere estereotipatzeko asmorik gabe, gehienak sozialki nahiz ekonomikoki marjinatutako taldeetakoak direla eta atzeritarrak, ijitoak zein droga-kontsumitzaileak gainordezkaturik daudela esan beharra dago. Desabantailak, zaurgarritasuna eta arazo ekonomikoak jasan dituzte ia denek (Cabrera, 2002; Romero, 2003; Fernández Galán, 2011; Arbelaitz *et al.*, 2012; De Miguel, 2014), eta delituzko ekintzaren eragile nagusia norberaren biziraupen ekonomikoa bermatzea izan da, baita, zenbaitetan, senideena ere (Almeda, 2007; Acale, 2015; Cerezo, 2015).

Egia esan, delinkuentziaren eragile garrantzitsuenak arazo ekonomikoak direla jakinda, Julianori jarraituta, pentsa genezake kartzelatutako emakumeen kopurua ez dela altuegia ere; bada, emakumeak dira pobreenak gizarte guztietan, baliabide ekonomiko gutxien dituztenak, desenplegu nahiz lan-ezgonkortasun handiena bizi dutenak eta, hori gutxi balitz bezala, familia-ardura gehien dituztenak (2009a: 79). Delituzko ekintzak egiteko makina bat arrazoi izan arren, ikusi dugun moduan, gizonekin alderatuz gero, emakume presoen zenbatekoa txikia da; azken urteotako gehiagotzea kontuan izanda ere. Hortaz, dirudienez, zailtasunen aurrean gizonek baino gutxiagotan egiten dute delituaren aukera, eta horrek bestelako estrategiak erabiltzen dituztela pentsatzera garamatza. Julianoren arabera (2009a, 2009b, 2011), hauek dira emakumeek delituen ordeztu behar dituzten praktika nagusiak: ikasketen bidez prestakuntza areagotzea, babes- eta elkartasun-sareak sortzea, diru-laguntza instituzionalak eskatzea, emigratzea, erregulatu gabeko eta gaizki

ordaindutako lanak egitea, sexu-lanean aritzea, etab. Nolabait ere, badirudi «pobreziaren feminizatzeari» «biziraupenaren feminizatzearekin» egin diotela aurre (Sassen, 2000; *in* Juliano, 2009a: 83).

Estrategia horien guztien zergatiaren inguruan gogoeta eginda, kontuan izan behar dugu genero-eredu hegemonikoen barneratzeak emakume gehienak delituzko ekintzetatik eta perilosa izan daitekeen edozertik aldentzen dituela. Hala, asko delitua ez den «zernahi» egiteko prest daude, espetxeak dakarren kostu soziala dela eta. Jasotako sozializazioak beste pertsona batzuen zaintzara zein sostengura bideratu ditu batik bat, «besteentzako-izaki» bilakatuta (Lagarde, 2011: 38), eta, ondorioz, kartzelaldia bereziki mingarria da beraientzat. Familia urrun izatea benetan gogorra da gehienentzat, eta emozionalki duen inpaktua ez da nolana hikoia. Nahigabe, ezinegon eta larritasun handiz bizi dute kanpoan «utzi» dituztenen egoera; ziurgabetasuna, erruduntasuna, lotsa, senideak «abandonatu» izana, baita «huts egin» izana ere sentitzen dute (Juliano, 2009a: 89-90).

Baina espetxealdiaren zama oso handia izanda ere, emakume batzuek delituzko ekintza egitea erabakitzen dute. Esan bezala, maiz biziraupen-estrategia da, eta garrantzitsua da «deliberatutakoa» dela azpimarratzea, egoera konplexuetan ere har baitaitezke zenbait erabaki. Azken buruan, une jakin bakoitzean eskuera ditugun aukerekin jokatzeko dugu denok, hautu hoberenak egiten saiatuta, edota okerrenak ez direnak behintzat (Juliano, 2011: 19). Delituan ari ziren ia denek bazekiten arriskatzeko ari zirela eta egiten ari ziren hori legez kanpokoa zela –sistema penalarren zein espetxe-sistemaren nondik norakoak sakon ez ezagutu arren, gehienon moduan–. Alta, arriskua beraien gain hartzea hautatu zuten (Imaz, 2007: 194). Bistakoa denez, lege-hausteen bidearen emaitza askorentzat ez zen desiratutakoa izan, baina, gutxienez, zer edo zer irabazi zuten: denbora, aukera berri bat edota bestelako alternatiba bat (Juliano, 2011: 19). Alabaina, horrelako ahaleginak gehienetan ez dira baloratzen. Julianok dioenez:

«Diskriminazio eta balio-galera istorio luzea daramate emakumeek arrastaka. Askotan, ez dituzte egokitu zaizkien ardura ugariak betetzeko beharrezkoak diren baliabideak. Ia beti ebaluatzen dituen begirada hotza eta zigortzailea da. Gizarteak asko eskatzen eta oso gutxi ematen die, eta, porrot egiten dutenean, gogor epaitzen ditu» (2009a: 80)<sup>53</sup>.

---

<sup>53</sup> Gaztelaniaz jatorrizkoan: «*Las mujeres arrastran tras de sí una larga historia de discriminación y desvalorización. Con frecuencia no disponen de los recursos necesarios para cumplir con las múltiples responsabilidades que se les han asignado. Casi siempre la mirada que las evalúa es distante y*

Egile horren ildotik jarraituta, emakume delitugileek esateko dutena kontuan ez hartzea eta beraien hautuak ukatzea aintzatespena eragozteko eta gutxiespena zabaltzeko bideak dira. Baina, jada aurretik azaldu dudan bezala, delituak egiten dituztenen eta espetxean egon direnen bizipenak sakon jorratu nahi baditugu, ikuspuntuaren aldaketa nahitaezkoa da. Aurreiritziak zein zaurgarritasuna gainditzeko, errespetuak oinarri behar du izan, eta horrek gizabanako guztiak norbera bezain arrazoiduntzat eta heldutzat hartzea esan nahi du, zilegi diren diskurtsoak eratzeko beraien gaitasuna jasota (Juliano, 2004: 64). Hala, jarrera solidarioak bultzatu eta emakume presoak baliozko solaskidetzat hartu beharrean gaude, urratsak emanda transgresio hutsetik ereduak zalantzan jartzera.

---

*sancionadora. La sociedad les pide mucho y les da muy poco, y cuando fracasan las juzga con dureza»* (Juliano, 2009a: 80).



## 2. Espetxe-sistema aztergai: oinarriak eta aldaketak

*Gizakia ez dago preso bizi izateko prest. Kartzelak gogorarazten digu hori. Horretarako dira kartzelak. Eta kartzelak setiatu bizi gara. Dena urruti, eta, hala ere, kartzelaren itzala luzea da oso.*

Markel Ormazabal (2014: 10)

Oro har, jendarteari zinez zaila egiten zaio presondegirik gabeko mundua irudikatzea. Badirudi espetxeak saihestezinak direla, betidanik egon direla gure artean eta betirako jarraituko dutela. Baina, kartzela «naturalizatzeko» joera edukita ere (Davis, 2003: 10), jakin badakigu eraikuntza soziokulturala dela, testuinguru zehatzei lotutakoa, eta bere zurruntasunean malgua ere badena, espazio eta denbora anitzei egokitzeko gaitasuna eta dinamikotasuna erakutsi duenez gero. Horrenbestez, segidan, indarrean dagoen espetxe-sistemaren nondik norakoak lantzen ahaleginduko naiz, askatasun-gabetzea eta itxialdia ardatz dituen instituzioaren printzipioak azalduta. Egia esan, aunitz idatzi da kartzelaren esanahien eta ezaugarrien inguruan; nire asmoa, ordea, ez da azterketa sakona, ikerketa honen ulermenean barrentzeko lagungarriak izan daitezkeen oinarrizko ideien agerpena baizik. Hala, gaia dagokion marko orokorrean kokatzeko, lehen azpiatalean diziplinaren eta zuzenketaren inguruan arituko naiz; bigarrenean, presondegien izaera totalizatzaile hurbilduko naiz; eta, azkenean, Espainiako Estatuko sistemaren funts juridikoak jasoko ditut, azken urteotako aldaketak aipatzearekin batera, hartutako norabidea nolakoa den adierazita. Era horretan, eduki horien bidez, kartzela-sistemaren baitako konplexutasun handia islatzen saiatuko naiz.

## 2.1. Diziplina zein zuzenketa helburu

Kartzela-sistemari buruzko ekarpen benetan esanguratsuak egin zituen Michel Foucault (1975) filosofoak; presondegien nahiz kode penal modernoan ikerketari ekin baitzion, itxialdia zuzentzeko erabiltzearen inguruan galdeginda. Bere ustez, XVIII. mendearen amaieran gertatutako aldaketa izan zen, diziplinazko gizartea hedatzearekin batera. Alta, azken hamarkadetan irakurketa androzentrikoa egin izana kritikatu diote zenbait autorek (Bosworth, 1999, 2000; Almeda, 2002; Matthews, 2003; Hernández Holgado, 2013), gizon delitugileen kasuan horrela gertatu bazen ere, emakumeentzat ezberdina izan zela azpimarratuta; jada XVI. mendean baitzeuden bai zigorra bai artezketa jomuga zituzten itxialdi-eremuak, horietako batzuk «kartzelak» zehatz-mehatz ez izan arren. Hala, gaur egungo presondegien benetako aurrekariak emakumeak giltzaperatu zituzten etxe horiek direla defendatzen duenik ere badago (Almeda, 2002: 23), hirugarren kapituluan ikusiko dugun eran. Baina, halere, Foucaultek diziplinaren eta artezketaren inguruan egin zituen gogoetak mugarri izan dira espetxe-sistemaren analisisian, eta bere ekarriak oraindik ere kontuan hartzekoak dira. Beraz, bere planteamendu nagusiak azalduko ditut jarraian.

Egilearen arabera, XVIII. mendearen amaiera eta XIX. mendearen hasiera arte, oinazea edo tortura izan zen zigor-bide nagusia. Minaren nolabaiteko kode juridikoa zegoen, eta zehapenaren nolakotasuna, gorputz-kaltea, sufrimenduaren intentsitatea, baita iraupena ere, lege-haustearen arabekoak zein delitugilearen eta biktimaren kategorien baitakoak ziren (Foucault, 2012: 43). Egiatan isuna edo desterratzea zigor fisikoak baino askoz ere arruntagoak izan arren, ganorazko edozein zehapen nolabaiteko oinazeraren batekin lotuta zegoen, zeinahi izan: gorpila, urka, sutzarra nahiz erakusketa; pikota, zepoa, azotea zein seinalea. Garrantzizkoena zigorra publikoa izatea eta delitugilearen gorputzean fisikoki gauzatzea zen, justizia argi egiteko euskarria izan behar zuenez gero (*Ibidem*: 53). Baina justizia ez ezik, egitate horren bidez, boterea eta nagusigoa ere nabarmentzen ziren. Izan ere, delitugilearen ekintza biktimekiko iraina izateaz gain, ezarritako boterearekikoa ere bazela ulertzen zen. Hala, torturaren bitartez, botere absolutistak indarra erakusten zuen eta bere agintea lege-hauslearengan berrezarri (*Ibidem*: 61). Garai horietan ere, itxialdia egon bazegoen, baina ez zen zigortzat hartzen; delitugilea epaitua edota exekutatua izan arteko zaintze-modu soila baitzen.

Eredu horren aldakuntza Ilustrazioaren eskutik hasi zen, eraldaketa sozioekonomikoen eta Estatu Modernoen eraikuntzaren testuinguruan. Orduko pentsalarien ustez, indarreko

legeak garai basatien eta ohitura ankerren ondorio ziren, eta, hori zela eta, aldi berriaren abantzamenduentzat erabat ez-moralak eta desegokiak ziren. Horrela, erreforma-proiektu mordoa mahaigaineratu zen, legediei zein lege-hausteei buruzko teoria berriekin batera, eta zehatzeko eskubidearen bestelako esplikazio etikoekin eta politikoeekin batean. Hala sortu zen eredu penal berria, eta, muinean, bere helburu nagusia zigorraren sakontasuna areagotzea izan zen, zehapena hobetze aldera. Hein batean, neurrien gogortasuna leundu egin zen, baina delitua burutu zuenarengan eragin handiagoa lortzearen mesedetan egin zen soilik; zuzenketa xedetzat hartuta, delitugileen nahiak aldarazten saiatu baitziren. Haien hutsegiteen larritasuna ulertarazi nahi zieten, etorkizunean arauak bete zitzaten, herritar guztien onerako; zigor-molde berrian, delitua ez baitzen subiranoaren kontrako iraina, gizarte osoaren aurkakoa baizik, kontratu sozialaren urratzea zelakoan (*Ibidem*: 104). Nagusiki, lege-hauslearen otzantasuna zein mendetasuna bilatu ziren, diziplina eta zaintzaren moduko tresnen bidez.

Beraz, ilustrazioko ideiek oinazearen desagertzea gauzatu zuten pixkanaka, eta, handik aurrera, gorputzen bestelako maneiatzea gertatu zen. Foucaulten ustez, «zigor fisikoaren espektakulu» handiaren galtzeak (*Ibidem*: 23) gorputzak errepresio-eremu izateari uztea ekarri zuen, eta zehapena prozesu penalaren atal ezkutuen bilakatzea eragin zuen, nola edo hala, «zigor-soiltasuna» hedatuta (*Ibidem*: 24). Egia esan, zehapen fisikoak ez ziren guztiz alboratu, baina, edozelan ere, jada ez ziren zigorraren osagaitzat jotzen. Izan ere, boterearen jomuga berria arima edo espiritua zen. Delitugilea giltzapetuta eta lan egitera behartuta, epe batez «askatasuna» kendu nahi zitzaion, bai eskubide bai ondasun bezala ulertuta. Hala, hertsapenak, gabeziak eta debekuak jasanaraziz, gizartearentzat baliagarri egin nahi zuten. Prozesu horretan, nolabaiteko «min fisiko» gertatzen zen, jakina. Ezin ditugu ahaztu, besteak beste, elikagai-errazionamendua, sexu-harremanen mugatzea eta kolpeak. Baina gorputzarekiko ekintzak erabat desagertu ez arren, estalita gelditu ziren, esan bezala, zigorra ordurako ez baitzen tortura edo gorputz-sufrimendu gisa ikusten.

Eredu penal berriak ezinbestekotzat jotzen zuen delituak «modu objektiboan» hartzea, eta, hortaz, behar-beharrezkoak zituen legediaren erreformak. Hala, ordenantza zaharren indargabetzea eta kode modernoek idazketa gertatu ziren (*Ibidem*: 117). Lege-hausteen definizioek argiak behar zuten izan, zigorren iraupenek, prozesu penalaren urratsek edo magistratuen funtzioek bezalaxe, arbitrariotasuna saihestearren (*Ibidem*: 121). Batetik, zehapena proportzionala eta egokia izatea bilatu zuten erreformistek, arau-urratzea era

bidezkoan, berdintasunezkoan, kudeatuko lukeen sistema erdietsi nahi baitzuten; baina, bestetik, zigorra sendoa eta irmoa ere izatea nahi zuten, delituaren egilearentzat zein gainerako herritarrentzat irakaspen argia izan zedin. Esaterako, Cesare Beccaria (1764) filosofo eta jurista izan zen delituzko ekintzei buruzko teorialari garrantzitsuenetako bat, eta bere ideiek oihartzun nabarmena izan zuten Europa osoan zehar. Bere aburuz, legehaustek ekintza arrazionalak ziren, delitugileek aldez aurretik abantailak eta ondorioak aztertzen zituztenez gero. Horrela, zigorraren kaltea behar bestekoa izan behar zela uste zuten, disuasio-eragina izan zetzan (Beccaria, 1764; *in* Foucault, 2012: 136).

Foucaulti jarraituz, eraldaketa penal horietan guztietan, diziiplina izan zen giltzarri; izan ere, aurreko garaietan diziplinazko prozedurak egon bazeuden arren, XVIII. mendearen amaieraz gero, zabalkunde izugarria izan zuten eta menderatze-bide nagusi bihurtu ziren (2012: 159). Diziplinazko boterearen xede nagusia gorputzen kontrola ahalbidetzea zen, otzantasuna zein erabilgarritasuna eskuratze aldera; horretarako, norbanakoak zaintzen, bereizten eta aztertzen zituen. Autorearen arabera, honakoak ziren bere tresna nagusiak: ikuskatze hierarkikoa, hots, zaintza eta kontrola jomuga zituen begirada; normalizatzeko zigorra, onartutakoa eta debekatutakoa zehazten zuena, eta, abantailen eta desabantailen bidez, kide «onak» eta «txarrak» sailkatzen eta alderatzen zituena; eta azterketa, hau da, diziplintatu beharreko gizabanakoen gaineko ebaluazio-behaketa. Hiru printzipio horiek espazioaren eta denboraren kudeaketa jakina zekarten, besteak beste, oso garrantzizkoak zirelako itxialdia, eremuen banaketa, guneen erabilgarritasuna, ordutegiaren zurruntasuna, jarduteen erregulartasuna, etab. Helburu horiek miran, agintariak eraikin arkitektoniko aproposak diseinatu eta sustatu zituzten; tartean, nola ez, presondegiak.

Aurretik aipatu bezala, XVIII. mendearen amaierara arte, espetxea zenbait zigor gauzatu ahal izateko azpiegitura soila zen. Pixkanaka, ordea, hainbat delituzko ekintzen zehapen bilakatu zen. Hasiera batean, ez zen inondik inora zigor-modu bakarra; eta, are gehiago, orduko erreformistetako askok gogor kritikatu zuten itxialdi penalaren ideia, argudiatuta tiranikoa, kontrolaezina, neketsua, ezkutukoegia eta jendartearentzat alferrikakoa zela (*Ibidem*: 133). Alabaina, urteen poderioz, sistema penalaren oinarri eta giltzarri bihurtu zen, zehapen onberagoa zelakoan. Hala, XIX. mende hasierarako, kode penal guztietako zigor garrantzitsuena eta ohikoena zen. Delitugileek epe jakin batez giltzaperatuta egon behar zutela adostu zen, euren ondasunak, mugimendu-askatasuna, denbora antolatze



gaitasuna, etab. galduta, besteenak errespetatzen ikas zezaten, eta, kartzelako zaintzaren, kontrolaren, sailkapenaren eta behaketaren bidez, artez zitezten (*Ibidem*: 124).

Foucaulten iritziz, atxiloak zuzentzeko eta diziplinatzeko, hots, beraien otzantasuna eta mendetasuna lortzeko, hiru ziren espetxe-sistemaren osagai nagusiak: isolamendua, lana eta zigorraren modulazioa. Lehenengoari dagokionez, murrueetatik barruko zein kanpoko erlazioak saihesten ziren, bakartzeak kartzelak presoengan zuen boterea indargabetzeko aukerak zailtzen zituen zere (*Ibidem*: 273); bigarrenak giltzapetuak eskulan ekoizkor egin nahi zituen, bai espetxearentzat, bertan igarotako denboran, baita jendartearentzat ere, berriro kalera irtendakoan; azkenak mailaz mailako sistema progresiboak eta barne-sailkatzeak sustatzen zituen<sup>54</sup>, bereziki, kontrola areagotze aldera. Funtsezkoenak horiek izan arren, kartzelak, apurka-apurka, printzipio gehiago ere hartu zituen bere gain, hala nola, presoan «gizarte-laguntzarekin» lotutakoak. Azken batean, jendartean medikuntza, psikologia, hezkuntza edo gizarte-lana hedatzearekin batera, presondegietan ere txertatu ziren medikuak, psikologoak, irakasleak eta gizarte-langileak (*Ibidem*: 357).

Esan bezala, aldaketen eta jomuga berrien testuinguruan, espetxeen espazioari buruzko hausnarketak ere jaio ziren; ezinbestean, itxialdi penalaren helburuen eta presondegien nolakotasunaren arteko harremanari erreparatzeko beharra sortu zenez gero. Hala, ideia berrien eskutik sekulako garrantzia bereganatu zuten eraikuntzen arkitektura-diseinuek eta egiturek. Esaterako, kezka edo interes horien baitan kokatu zuen Foucaultek Jeremy Bentham (1791) filosofo utilitaristaren ekarria, «panoptiko» izendatu zuen diziplinazko eraikina deskribatu baitzuen, hartzaile anonimo bati zuzendutako hogeita bat gutunetan. Artezketari buruzko garaiko ideiekin guztiz bat eginda, zaintza, behaketa eta sailkapena areagotuko lituzkeen espetxe-eredua mahaigaineratu zuen Benthamek horrela; baina zer edo zer orokorragoa izan zitekeela nabarmendu zuen, kartzela-sisteman ez ezik, besteak beste, pobreentzako aterpeetan, lantegietan, erroetxeetan, ospitaletan edota eskoletan ere erabilgarria zela adierazita (2011: 40). Dirudienez, guztien artean konplexuena zelakoan aukeratu zuen presondegiaren adibidea, «zigorraren, erreformaren eta diru-ekonomiaren helburu baterakoak» nola lortu azaltzen saiatuta (*Ibidem*: 73). Eraikina arkitektonikoki diseinatu zuen, zenbait alderdi nola arautu zehaztearekin batera: elikadura, garbitasuna, janzkera, osasuna, heziketa morala eta erlijiosoa, gradu-sailkapena, zigorrak, etab.

---

<sup>54</sup> Ideia horri lotuta, aipatu behar da egun nagusi den lau graduko sailkapena XIX. mendearen amaieran sortu zela, Walter Crofton espetxe-zuzendari irlandarraren ekimenez. Azkar zabandu zen Europa osoan zehar, baina aplikazio-moduak nahiko anitzak izan ziren (Chueca, 2013: 5).

Benthamen panoptikoa, funtsean, erdigunean zaintzarako dorrea zuen eraztun formako eraikina zen. Eraztunean, presoek zeldak zeuden, bina leiho zituztela, bata barnealdera, bestea kanpoaldera, argiak zelda alde alde zeharkatzea ahalbidetuta. Dorreak atxiloen zelden barrualdea behatzeko leiho handiak zituen, eta, era berean, bertan zaindaria ote zegoen jakitea ekiditen zuten pertsianak, tabikeak zein sigi-sagako pasabideak. Horrela, dorreko zaindaria presoek siluetak ikus zitezkeen etengabe, baina atxiloek ezin zuten zaindaria inoiz antzeman, eta gainerako presoak ere ez. Foucaulten iduriko, Benthamen diseinuak ziegak ordura arte izandako helburuak aldarazi zituen horrela, jada ez baitzen atxiloa ezkutuan eta itzalpean eduki nahi; giltzapean jarraitu behar zuen, baina, aitzitik, argitasunez eta zaindariaren begiradapean, jagoletza erraztearren (2012: 233). Izan ere, giltzapetua etengabean ikusia izateak eta berak zaindaria sekula ez ikusteak espetxearen boterea izugarri handiagotzen zuen. Azken batean, zaintza praktikan gertatu ala ez, bere eragina iraunkorra zen; presoak ezin baitzuen jakin noiz zen behatua eta noiz ez, baina bazekien aukera etenik gabekoa zela. Hala, panoptikoaren azken jomuga giltzaperatuak eurak zaintzaile bilakatzea zen, kartzelaren botereak ezarritako portaerak barneratuta eta automatikoki errepikatuta. Ezbairik gabe, ereduak asimetria, desoreka eta desberdintza ziurtatzen zituen (*Ibidem*: 234), baina Benthamek langileengan ere nolabaiteko jagoletza nahi zuen, gehiegikeriak eta tirania saihesteko; horrela, herritarrek panoptikoan sartzeko eta bere funtzionamendua kontrolatzeko eskubidea zutela defendatu zuen (*Ibidem*: 239).

Panoptikoaren ideiak hedapen ikaragarria izan zuen, nahiz eta oso gutxitan gauzatu zen materialki. Bentham berak hogeitun urte eman zituen proiektua egikaritzeko ahaleginetan, baina bere saialdi guztiek porrot egin zuten (Miranda, 1979: 130). Hala eta guztiz ere, modeloak Europa osoan zehar eta Estatu Batuetan izan zuen eragina nabaritu zen XIX. mendean eraiki ziren presondegietan; gehiengoa erdigunean zaintza-dorrea zuten forma erradialeko eraikinak izan baitziren<sup>55</sup>. Bestalde, erabilerari zegokionez ere sortu zuen zeresana, giltzapetuen sailkapenaren eta banaketaren inguruan adostasun zabala egonda ere, eztabaida handien iturburu izan zelako elkarrekin lan egin zezaketen edota hori ere isolatuta egin behar zuten erabakitzea<sup>56</sup>.

---

<sup>55</sup> Esate baterako, 1861ean Gasteizen eraikitako presondegia aipa daiteke, Hego Euskal Herrian garaiko ideia erreformatzaileen arabera diseinatutako lehenengoa izan baitzen (Bazán eta Ibáñez, 2000). Baina, edonola ere, esan beharra dago XIX. mendeko espetxe gehienak komentu, monasterio eta kaserna militar zaharrak izan zirela, espetxeratzeetarako aldaketa txiki batzuk eginda (Almeda, 2002: 64).

<sup>56</sup> Eztabaida horren adierazle nagusiak Estatu Batuetako Auburneko eta Pennsylvaniako presondegietak sistema artean piztutako liskarrak izan ziren. Lehenengoan, espetxeratuek bakarrik egiten zuten lo, baina

Nolanahi ere, garaiko erreformatzaileen ideia eta oinarrietako askok –edo gehienek– ez zuten esperotako emaitza izan. Alde batetik, ez zituzten zailtasun guztiak kontuan izan; eta, bestetik, ez zuten presoan erresistentziarako ahalmena aurreikusi ere ez. Egitateek erakusten dutenez, presondegi gehienetan pilaketa nagusi zen, botere-gehegikeriak eta arbitrariotasuna arruntak ziren, segurtasun- zein kontrol-arazoak bezalaxe. Atxiloek beti topatzen zituzten komunikatzeko moduak, ihesbideak eta espetxearen begiradarekiko erresistentzia-bideak (Foucault, 1979: 24). Begien bistan gelditu zen «diziplinatzeko eta zuzentzeko» saioek kale egiten zutela eta ez zutela inor «erreformatzeko» balio; baina, hala ere, aurrera jarraitu zuten.

## 2.2. Izaera totalizatzailea bide

Espetxe-sistemaren analisisian, aipagarria den beste ikertzaile bat Erving Goffman (1961) soziologoa da, zeinak «erakunde total» kontzeptua sortu zuen, presondegien eta ospitale psikiatrikoen gisako instituzioen izaera eta nolakotasuna jasotzeko. Bere hitzak ekarrita:

«Erakunde totala bizileku eta lantoki bezala defini daiteke, bertan egoera berean dauden gizabanakoen kopuru handi bat epe luze batez gizartetik isolatuta dago, eta itxialdian formalki kudeatutako eguneroko ohikeri bera du. Kartzelak adibide nabarmenak dira, baina kontuan izan behar da badaudela espetxearen berezko izaera bera duten bestelako instituzioak» (2001: 13)<sup>57</sup>.

Goffmanen iritziz, erakunde totalaren funtsa joera totalizatzailea edo xurgatzailea zen. Izan ere, neurri batean, bertan zeudenen denbora, interesak eta beste zenbait gai hartzen edota absorbatzen zituen, bestelako berezko mundua ematearekin batera. Jaidura horren erakusle argienak instituzioko murrueetatik kanpoko bizitzarekin elkarrekintzan egoteko trabak eta mugak ziren; maiz, materialki ere gauzatzen ziren trabak eta mugak, besteak beste, itxitako ateen, horma altuen eta alanbre arantzadunen bidez (*Ibidem*: 17).

---

elkarrekin egiten zuten lan kartzela-tailerretan. Bigarreanean, ostera, presoak beti zeuden isolatuta, «kutsadura» ekiditeko. Argudiaketa luzeen ostean, Auburneko eredia gailendu zen, bai Estatu Batuetan eta bai Europan. Alde batetik, erabateko bakartzea krudela zela eta eromenera zeramala defendatu zuten; eta, bestetik, ekonomikoki merkeagoa eta etekintsuagoa zela (Matthews, 2003: 40-41).

<sup>57</sup> Gaztelaniazko bertsioa: «Una institución total puede definirse como un lugar de residencia y trabajo, donde un gran número de individuos en igual situación, aislados de la sociedad por un período apreciable de tiempo, comparten en su encierro una rutina diaria, administrada formalmente. Las cárceles sirven como ejemplo notorio, pero ha de advertirse que el mismo carácter intrínseco de prisión tienen otras instituciones» (Goffman, 2001: 13).

Egileak honako lau hauek zerrendatu zituen erakunde totalaren ezaugarri nagusi bezala: egunerokotasuna espazio berean eta autoritate beraren zuzendaritzapean egiten zela beti; banakoen eguneko jarduera guztiak beste kide askoren presentzian burutzen zirela, eta beste kide horiei tratua bera ematen zitzaiela eta egiteko berberak eskatzen zitzaizkiela; autoritateak ekintza guztiak zorrozki planifikatzen zituela; eta, azkenik, bete beharreko jarduera guztien xedea instituzioaren helburuak lortzea zela (*Ibidem*: 19-20). Autorearen arabera, halabeharrez, nolakotasun horiek bereizte nabarmena eragiten zuten «barneko» izendaturikoen eta gainbegiraleen lantaldeko partaideen artean. Hasteko, erakundearen hormetatik landa zegoen munduarekin harreman zeharo diferentea zuten; eta, bestalde, murruek barruan, langileek nagusi eta zuzen sentitzeko joera zuten eta barnekoak, aldiz, gutxiago, ahul eta errudun (*Ibidem*: 20-21). Hierarkia agerikoa zen eta edozein langilek barneko edozein diziplinatzeke zilegitasuna zuen (*Ibidem*: 52). Horrek distantzia handia egiten zuen batzuen eta besteen artean, salbuespenak salbuespen; langileengandik beste barnekoengandik baino gertuago uste zen barnekorik izan zitekeen eta (*Ibidem*: 100).

Goffmanen aburuz, erakunde totalak hiru giltzarri zituen: niaren mortifikazioa, arautegi propioa eta galdutako denbora. Lehenengoari dagokionez, norbanakoaren profanazioak, depresioak, degradazioak eta beheramenduak azpimarratu zituen, nahita ala nahi gabe, beti niaren nolabaiteko hildura edota nekaldia gertatzen zela defendatuta. Instituzioaren totaltasunak barnekoek beraien buruaz zein beste kontu batzuetaz zituzten sinesmenak aldarazten zituela zioen, aurretik zituzten erreferentziak eta rolak baliogabetzen zituenez gero (*Ibidem*: 27). Galera gehienak zinez mingarriak zirela nabarmendu zuen, esaterako, ondorengo egitateak jasota: izen bereziaren galtzapena, jabetzen galtzea, irudi fisikoaren aldaketa, mugimenduen mugaketa, eguneroko ohikeriaren inposatzea, erlazioen gaineko kontrola, etab. Izan ere, gehienetan, erakunde totalak barnekoaren izena desagerrarazten zuen, horren ordezkotako zenbakia emanda, edo, kasurik onenean, abizena baliatuta. Aldez aurretik zituen ondasunak usatzea galarazten zitzaion, bestelakoak ematearekin batera, instituzioarenak zirela adierazten zuten seinale handiekin. Ohiko jantziak, apaingarriak, tresnak eta zerbitzuak galduta, askok desitxuratzea bizi zuten. Gainera, otzantasuna eta mendetasuna erakusteko mugimenduak, jarrerak, keinuak eta hizkerak bereganatu behar zituzten, zernahi huskeriarako baimena eskatu eta, kasurako, honakoak onartu: beraien intimitatearen inbasioa, norberarentzat hartzen ez zen egunerokotasuna, bestelako dieta, medikamentuak hartzeko betebeharra, etab. Hori guztia gutxi balitz bezala, behartutako gizarte-harremanak zituzten, eta erakundetik kanpo zeudenekiko kontaktu-bide guztiak

autoritatearen kontrolpean zeuden. Alderdi horien guztien bildumak sekulako galera- eta desidentifikatze-sentsazioa eragiten zuen (*Ibidem*: 31).

Arautegi propioari buruz, instrukzio-prozesu formala eta informala zegoela azaldu zuen Goffmanek. Nolabait, barnekoak instituzioko arauak ikasi behar zituen eta bere jarrera egokitu, langileekiko esanekotasuna eta mendetasuna erakutsita; horren trukean, argi eta garbi finkatutako sariak eta pribilegioak eskuratzen zituen; edo, alderantziz, ez bazituen jarraibideak behar bezala bete, zigorra. Autorearen iduriko, abantailena eta zehapenena erakunde totalaren izaerari atxikitako dinamika zen (*Ibidem*: 60) eta bere eraginetik ihes egitea ia ezinezkoa zen, barnekoak egokitze beharra zuenez gero, moldaera zein-nahi ere izan. Alta, erakundearen nola edo halako meneratzea lortzeko mekanismoak zeudela uste zuen, eta, adibidez, elkartasun-taldeak eta adiskidetasun-harremanak aipatu zituen; baina, hala ere, instituzioarekiko errefusatzeko eta aurka egite iraunkorra benetan zaila eta sostengaezina zelakoan zegoen (*Ibidem*: 70-71). Erakunde totala uzterakoan maiz ageri ziren izua, antsietatea eta ezbaia egokitzearen ondore nagusiak zirela zioen (*Ibidem*: 79).

Denborari dagokionez, Goffmanek galtzearen sentipenari heldu zion berriro ere; finean, pentsatzen zuen barnekoarentzat erakunde totalaren baitako denbora alferrik galdutakoa edo norbaitek lapurtutakoa zela; aintzat hartu behar ez zen denbora, konplitu beharrekoa eta nolabait markatu, bete edo arrastaka eraman beharrekoa, alegia. Jasaten zuenak epe hori parentesi artean kokatzen zuela zioen, eta gogoeta etengabea eta kontzientea egiten zuela, intentsitate handikoa zenez gero. Halaber, denbora hutsartetzat hartzeak edozein distrazio-ekintza oso garrantzitsu bihurtzen zuela uste zuen; egoera, une batez behintzat, ahaztea ahalbidetzen zuelako (*Ibidem*: 76-77).

Argi dago Goffmanen planteamenduetako asko oraindik ere baliozkoak eta erabilgarriak direla. Baina, hala eta guztiz ere, hainbat kritika ere jaso dituztela esan beharra dago, horietako batzuk kontuan hartzekoak baitira. Esate baterako, egileak erakunde totalaren iragazkortasuna aipatu zuen, murrue barruko eta kanpoko arau sozialen elkarrenganako eragina landu nahian (*Ibidem*: 124). Aitzitik, azken urteotako zenbait ikerlariren aburuz (Cunha, 1994, 2002, 2005a, 2005b, 2008a, 2008b, 2008c, 2014; Garreaud, 2011; Maciel, 2011), hura nahiko motz gelditu zen, oro har, ikuspegi zurrunezia izan zuelako. Beraz, azkenaldian, irudi dinamikoagoak, malguagoak zein aldakorragoak hedatzen hasi dira pixkanaka, eta, egia esan, ñabardura benetan interesgarriak burutu dituzte. Besteak beste, espetxea murrueetatik landako gizartearekin etengabeko elkarreraginean dagoela

defendatu dute (Cunha, 2002, 2005b, 2008a), kartzela barruko eta kanpoko eremuen arteko artikulazioei helduta (Cunha, 2008c, 2014), etenda, zintzilik edota aparte dagoen itxitako mundua denik ezeztuta (Garreaud, 2011); barneko botere-dinamika eta erlazio-modu propioek, neurri batean, auto-erreferentzial egiten badute ere (Maciel, 2011: 837). Finean, kartzela ez dago inoiz isolatuta, ezta bakartuta ere; indarrean dagoenarekin bat egiten du, eta, horrela, «kulturaren moldeen nahiz esanahien nolabaiteko transferentzia [dago], barrutik kanpora eta kanpotik barrura» (*Ibidem*)<sup>58</sup>. Bizirik dagoen instituzioa da; kontraesankorra, paradoxikoa, etenik gabeko aldaketan dagoena eta diskurtso jakinen bitartez mantentzen dena. Arestian aipatu bezala, egitate soziokulturala da; eta, hortaz, jendarteko beste edozein elementu legez, interpretazioen baitan dago (*Ibidem*). Halaber, aipatu izan da presoan artean dauden erlazio-sare anitzek ere espetxearen barnealdearen eta kanpoaldearen arteko *continuuma* ahalbidetzen dutela, muga horren erosioa nahiz porositatea defendatuta (Cunha, 2002: 227) eta bien arteko etenduraren ideia gainduta, etengabe elkarreraikitzen duten esparruak izanda (*Ibidem*: 241). Ikuspegi horien guztien arabera, «kartzela ez da egiazki “totalizatzailea”» (Cunha, 1994: 8)<sup>59</sup>; edo, gutxienez, ez da pentsatu izan den bezain totala.

### **2.3. Espetxe Erakundeen printzipio juridikoak eta azken urteotako eraldaketak**

Aurreko bi azpiataletan espetxe-sistemak otzantasunarekin eta mendetasunarekin duen lotura estua jorratu ostean, azken honetan, Espainiako Estatuko egungo egoera zehatzera hurbilduko naiz. Horretarako, hasteko, presondegien funtzionamendua zuzentzen duen testuinguru legala azalduko dut; eta, ondoren, azkenaldiko aldakuntzak aipatuko ditut, hala, Makrokartzelak, Modulu Terapeutikoak eta Errespetu Moduluak zer diren argituta. Espelikazio guztiak maila teoriko hutsean egingo ditut; edo, bestela esanda, Espainiako Estatuko gobernu anitzek zein Espetxe Erakundeek juridikoki agertu eta aditzera eman dutena baino ez dut azalduko. Hurrengo kapituluetan, berriz, praktikan gertatzen denan barrenduko dut, diskriminazioak, bidegabekeriak, gabeziak eta hutsuneak islatuta.

---

<sup>58</sup> Portugesez jatorrizkoan: «*Um certo transporte de formas culturais e significados de dentro para fora e de fora para dentro*» (Maciel, 2011: 837).

<sup>59</sup> Portugesez jatorrizkoan: «*A prisão não é verdadeiramente “totalizante”*» (Cunha, 1994: 8).

### 2.3.1. *Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorra eta Espetxe Araudia*

Espainiako Estatuan egun indarrean dagoen kartzela-sistemak honako oinarri juridikoak ditu: 1978ko Espainiako Konstituzioko 25.2. artikulua, 1979ko Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorra, 1981eko Espetxe Araudia eta azken horren 1996ko erreforma. Izan ere, lehenak finkatu zuen «berreztea» eta «birgizarteratzea» direla askatasun-gabetzea oinarri duten zigorren zereginak, eta besteek zehaztu zuten ereduaren funtzionamendua, apurka, gero eta jarraibide gehiago emanda. Batetik, Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrak kartzelak «beharrezko diren gaitzak» direla adierazi zuen, eta, xede nagusiak berreztea eta birgizarteratzea izanagatik ere, erantsi zuen atxilo hartuak atxikitze eta zaintzeko eginkizunak zein gizarte-laguntza ematekoak ere badituela. Bestetik, Espetxe Araudiak giltzapetuen «bizitza-erregimen bereziak» zer esan nahi duen xehatu zuen, eta, horrela, Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorra osatu eta espezifikatu zuen. Horiek funts hartuta egiten du lan SGIP Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiak, Barne-arazoetako Ministerioaren baitan.

Teorikoki, oinarri juridiko horiei jarraiki, lau tresna ditu espetxe-sistemak bere jomugak lortzeko: indibidualizazioa, gradu-progresioa, presondegitik kanpoko komunikazioa eta espetxe-tratamendua. Lehenari dagokionez, Espetxe Erakundeek presoak sailkatzeko eta banatzeko betebeharra dute, izaera zein delituzko perfil anitzen arabera; eta, era berean, zigortutako bakoitzari PIT Banan-banako Trataera Programa prestatu behar diote, bere «gabeziak» konpontze aldera.

Bigarrenak espetxe-sistema mailaz mailakoa dela adierazten du, horrela, zigortuentzat<sup>60</sup> lau gradu bereizten dituela: lehen gradua (erregimen itxia), bigarren gradua (erregimen arrunta), hirugarren gradua (erregimen irekia) eta baldintzapeko askatasuna. Kartzelan sartu eta gehienez ere bi hilabeteko epean jakinarazi behar zaio espetxeratutakoari zein mailatan izan den sailkatua, ohikoena bigarren gradua izanik. Hasierako kokapena, baita geroko gradu-progresio zein erregresioak ere, espetxeko langileek presoaren portaeraren gainean egindako balorazioen arabera dira. Sarien eta zigorren dinamika oinarrizatz hartuta (Almeda, 2002: 153), jarrera «negatiboak» kontrol-neurriak gogortuta zehatzen dira; «positiboak», oster, erregimena malgututa saritzen dira. Besteak beste, atxiloaren

---

<sup>60</sup> PITa eta gradu-sailkapena soilik epai irmoz zigortutako presoekin burutzen dira. Espetxe-prebentiboan dauden pertsonak ezin dira inola sailkatu, kautelazko neurri baten egoeran daudenez gero. Legez, lau urte ere bete ditzakete prebentibo moduan.

izaera, espetxe-historia, familia- zein gizarte-egoerak, delituzko bilakaera eta zigorraren iraupena hartzen dira kontuan (SGIP, 2010b: 17). Gradua gutxienez sei hilero berrikusi behar da, kartzelaratutakoak maila berean jarraitzen duen edo egoera aldatzea merezi duen deliberatuta. Zigorraren hiru laurdenak beteta, baldintzapeko askatasunean irteteko aukera izango du.

Hirugarrenak, presondegitik kanpoko komunikazioak, presoak murrueetatik landakoekin dituen kontaktu-bideak arautzen eta mugatzen ditu. Teorikoki, espetxe-zigorra gizarterrotzea duen tokian bete behar du atxiloak (SGIP, 2010a: 15) eta eskura izan behar ditu bere ingurunearekin harremanetan egoteko baliabideak, intimitatea ahalik eta gehiena bermatuta. Hasteko, lokutorioetako eta aurrez aurreko bisitak izan ditzake. Lehenengoak beiraren bidezkoak dira eta astero egin daitezke, hogeit hamar minutuko bi komunikazioren edo berrogei minutuko bakarraren bidez; gehienez ere, presoaren lau senide edota lagun joan daitezke, betiere, aldeztatik espetxeko langileen oniritzia jasota. Aurrez aurrekoak, aldiz, ez dute hainbesteko maiztasunik, eta hiru motatakoak dira: familiakoak, asko jota, lau seniderek biltzeko; intimoak, bikote-lagunarekin elkartzeko; eta elkarbizitzakoak, 10 urte beteta ez dituzten seme-alabekin egoteko, gehienaz ere, sei pertsona agertuta. Lehen biak egiteko aukera gutxienez hilean behin eskaini behar zaio presoari, eta bisiten iraupena ordubete eta hiru orduren artekoa izango da. Hirugarrena hiru hilabete behin behintzat galdegin behar zaio, eta hiru eta sei ordu bitartean iraungo du (SGIP, 2010b: 11-12). Bestalde, telefono-deiak, gutunak eta paketeak izan ditzake. Gehienera ere, bost minutuko iraunaldia har dezaketen hamar dei egingo ditu astean, espetxeko lantaldeak aurrez onartutako senide eta lagunei soilki<sup>61</sup>, eta berak ordaindu beharko ditu kartzelako telefono-txartelak erosita (*Ibidem*: 13). Gutunek ez dute inolako mugarik izango, baina instituzioak finkatutako moduan bidali eta jaso beharko ditu; eta, paketei dagokionez, hilean bi ahalko ditu hartu, horrela, arropa, oinetakoak, aldizkariak eta liburuak lortuta. Era berean, irteteko baimenak ere eskuratzeko posibilitatea izango du, hainbat baldintza betez gero. Kasu baterako, egun batzuek ateratzeko baimen arrunta lor dezake ez badago lehenengo graduan, zigorraren laurdena eginga badu eta espetxe-langileek bere jarrerari «egoki» irizten badiote. Askok jota, zazpi eguneko baimenak izango dira, gehienera ere hogeita hamasei egun batuta, bigarren graduan badago; edota, berrogeita zortzi egun, hirugarrenean badago (*Ibidem*: 27). Ezohiko baimenak ere eskatzeko aukera izango du,

---

<sup>61</sup> Bai bisitetarako bai telefono-deietarako, gehienez hamar pertsonen osatutako zerrenda aurkeztu behar dio atxiloak espetxeko lantaldeari.



honakoetan baliatzeko: hurbileko senideen heriotzetan, eritasun larrietan, seme-alaben jaiotzetan eta abarretan.

Sistemaren laugarren tresnak, espetxe-tratamenduak, giltzapetuen «berreskuratzea» eta «asistentziazko arreta» jartzen ditu miran, «gaitasun sozialak» garatzeko «programa hezigarriak, soziokulturalak, olgetarakoak eta kiroletakoak» eginda (SGIP, 2010a: 15). Horrelakoetan parte hartzea ez da derrigorrezkoa, tratamendua «borondatezkoa» denez gero; baina, egia esan, ez badira egiten, ezinezkoa da espetxe-onurarik lortzea eta horrek zigorra itxialdian oso-osorik betetzea esan nahi du. Espetxe-tratamenduaren arduradun nagusia diziplina anitzeko lantaldea da; zehazki, juristek, psikologoek, hezitzaileek eta gizarte-langileek osatzen duten Tratamendu Batzordea. Izan ere, bertako menbruak dira PITak prestatzen dituztenak, gradu-sailkapenak erabakitzen dituztenak, kartzelaratuek murrutatik kanpokoekin dituzten erlazioak deliberatzen dituztenak, jarrera «egokiak» saritzeko onurak ematen dituztenak<sup>62</sup>, etab. Horrekin guztiarekin batera, presondegiak garatzen dituen tratamendu-programa orokorrak ere hautatzen dituzte, batzuk ala beste batzuk aukeratuta, baliabideen edo beharren arabera; kasurako, honakoak izan daitezke: genero-indarkeria, sexu-erasoak, atzerritartasuna, alkoholismoa, droga-menpekotasuna, suizidioen prebentzioa, buruko gaitzak, etab. Halere, legediak ontzat jotzen du Espetxe Erakundeen baitakoak ez diren hainbat norbanakok eta elkartek ere parte hartzea preso daudenen kartzela-tratamenduan.

Indarrean den sistemaren arabera, trataeraren osagai inportanteenetako bat espetxe-lana da, eta, horrela, eskubide eta betebeharrak moduan ikusten du instituzioak. Bere helburua, teoriarik, giltzapetutakoak kaleko enplegurako prestatzea da, eta, horrexegatik, «duina» eta «hezigarria» behar du izan, baita ahalik eta parekagarriena ere, soldadari, lanaldiari eta gizarte-segurantzari dagokienez (Almeda, 2002: 155). Halaber, Espetxe Erakundeek hezkuntza aipatzen dute tratamenduaren beste funtsezko osagai bezala, eta, hala, zentro guztietan eskola eta liburutegia egon behar direla arautzen dute. Horren xedea, bereziki, gazteenen eta analfabetoen prestakuntza bermatzea da, baina, derrigorrezko hezkuntzez gain, batxilergoa eta lanbide-heziketa ere ziurtatu behar dituzte, unibertsitate-ikasketak UNED Urrutiko Hezkuntza Unibertsitate Nazionalean egiteko aukera baiesteaz batera. Bestalde, prestatu behar dituzte kirola egiteko azpiegiturak, baita pintura, zeramika edo antzerkia egiteko kultura-espazioak ere.

---

<sup>62</sup> Esate baterako, ezohiko komunikazioak baimen ditzakete.

Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrak zein Espetxe Araudiak jasotzen dutenez, presoek tratamendua hain da lehentasuna, ezen kartzelako erregimenak ere bere premien menpe egon behar duen. Beraz, teorian, atxilo daudenen trataerak izan behar du nagusi, eta atzetik jarri behar dira erregimenaren funts diren jagoletza, kontrola eta diziplinazko ordena; azken finean, erregimena ez da jomuga, tratamendua gauzatu ahal izateko «giro egokia» eskuratzeko bidea baizik (*Ibidem*: 153-154). Edonola ere den, erregimenak bere ardurapean ditu bai presondegiaren «segurtasuna», baita «elkarbizitza ordenatua» ere, eta, horrela, segurtasun-langileek etengabeko zaintzak, zenbaketak zein miaketak egiten dituzte, espetxeko arau-hausteen nahiz zigorren kargu egitearekin batean. Egia esateko, zehapenen gama nahiko zabala da, baina, zalantzarik gabe, isolamendu-gela da guztien artean larriena; izatez, soilik preso batek agresibitate oso handia erakusten badu edota elkarbizitza seriooki oztopatzen badu erabili baitaiteke, gehienera ere, bertan hamalau egun atxikita. Legez, tratu txarrak debekatuta daude eta neurri hertsatzaileak bakarrik ihesaldiak edo indarkeria ekiditeko dira.

Sistemak aurreikusten duenez, presoek jasotako zigorrei errekurtoa jartzeko eskubidea dute, eta, halaber, erregimenari zein tratamenduari buruzko eskaerak eta kexak egitekoa. Berez, ahoz nahiz idatziz, beraien iritzia jakinarazi diezaiekete kartzelako langileei eta zuzendariari, zein Espetxe Erakundeei; eta, horien ebazpenekin bat egin ezean, helegitea aurkez diezaiekete Espetxe Zaintzarako Epaileari ere (SGIP, 2010b: 18).

Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrak zein Espetxe Araudiak finkatutako azken eremu aipagarria osasunarena da; kartzela-administrazioak bermatu behar baitu presoek gainerako herritarren moduko mediku- eta osasun-arreta jasotzen dutela. Hala, espetxe guztietan, medikuek, erizainek eta laguntzaileek osatutako osasun-taldea egon behar da, gutxienez, oinarrizko zerbitzuez arduratzeko. Ahal dela, kontsultak espetxearen barruan egin behar dira, eta, horretarako, puntualki espezialista batzuk ere joango dira. Baliabide horiek nahikoak ez direnean baino ez dira irtengo preso daudenak espezialistarenera eta ospitalera. Orokorki, presondegietak osasungintza Espetxe Erakundeen eskumena da, salbuespenak salbuespen; EAEn, adibidez, 2011n transferitu baitziztaion Osakidetzari<sup>63</sup>.

---

<sup>63</sup> EAEko salbuespenarekin batera, Kataluniakoa aipatu behar da, 1984. urtean espetxe-eskumen guztiak transferitu baitzizkioten.

### 2.3.2. Makrokartzelak, Modulu Terapeutikoak eta Errespetu Moduluak

Aurreko kapituluan ikusi bezala, Estatu Batuetatik eta Europako zenbait herrialdeetatik etorritako kontrol-politiken eraldaketek eragin izugarria izan dute Espainiako Estatuko testuinguru penalean. Jarraian azalduko dudanez, delituzko ekintzei dagokien markoa ez ezik, kartzeletakoa ere aldarazi dute, espetxe-sistemaren hedapen nabarmena bultzatuta. Azken urteotako presondegi eta diziplinazko eredu berriak dira gertatutakoaren erakusle agerikoenak: Makrokartzelak, Modulu Terapeutikoak eta Errespetu Moduluak, preseski.

Lehenik eta behin, Makrokartzela edo Zentro Tipoari dagokionez, Espetxe Erakundeek 90eko hamarkadatik sustatu duten eredu nagusia da<sup>64</sup>. Labur esanda, egitura modularra eta barruti baten inguruan hainbat segurtasun-eraztun zentrokide dituen eraikin-multzoa da, gune batzuk bereizten dituela: bizilekua, lantokia, hornitzekoa eta perimetrala. Bere ezaugarritzat ditu segurtasun-neurri zorrotzagoak, baliabide teknologiko sofistikuak, presoak barne hartzeko edukiera handiagoa zein biziguneetatik urrutiago egotea, besteak beste. Modeloa 1991n mahaigaineratu zen estreinakoz, Presondegiak Amortizatzeko eta Sortzeko Lehen Planaren baitan; eta hurrengo urteetan barreiapen nabarmena izan zuen, segidako planen bitartez, zein egitasmoak gauzatzeko espresuki eraturako SIEP Espetxe Azpiegituren eta Hornikuntzen Estatuko Sozietatearen bidez. 2005ean onartutako plana izan zen azkenekoa; hain zuzen ere, egin beharreko presondegi berrien artean, Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako Makrokartzelak jaso zituen berbera. Egia esanda, hasieratik kritika eta kexa pila sortu zuten Zentro Tipoen eraikitzeak<sup>65</sup>, baina Espetxe Erakundeek aurrera egitea erabaki zuten, jaramonik egin gabe. Edozelan ere, egun, kartzela berrien eraikuntza bertan behera gelditu da; dirudienez, azkeneko aurrekontuen murrizketa dela eta<sup>66</sup>.

Bigarrenik, Modulu Terapeutikoak aipatu behar ditugu; hau da, Errespetu Moduluekin batera, Espetxe Erakundeek proposatu duten diziplinazko eredu berria, adierazitakoaren arabera, «kartzela tradizionalaren alternatiba» izateko eta, hala, «espetxeko azpikultura» delakoarekin amaitzeko (SGIP, 2010a: 46). Mota horretako lehenengo moduluak 90eko

<sup>64</sup> Makrokartzelaren edo Zentro Tipoaren eredu Estatu Batuetan jaio zen, eta Espainiako Estatura Antoni Asunción-en eskutik iritsi zen, hau da, 1988tik 1993ra Espetxe Erakundeetako buru izan zenaren eskutik.

<sup>65</sup> Esaterako, 2006an, Eusko Jaurlaritzak Zentro Tipoen eraikuntza alde batera uzteko eskatu zien Espetxe Erakundeek eta, zer edo zer egitekotan, CIS Gizarteratze Zentroak izan zitezela (Salhaketa, 2010). Haatik, ez zuen aldaketarik lortu.

<sup>66</sup> Ángel Yuste Espetxe Erakundeen egungo buruak adierazitakoaren arabera, aurrekontuen gutxiagotzea dela eta, presondegi berriak eraiki ordez, jada badaudenak zaharberrituko dituzte (Ormazabal, 2014: 137). Horrela, Zubietako espetxearen eraikuntza salbuespena izango da.

hamarkadan sortu ziren<sup>67</sup>, eta, harrezkero, hedapen nabarmengarria izan dute. Funtsean, drogarik zein indarkeriarik gabeko gune bezala deskribatu dituzte Espetxe Erakundeek, eta presoan eta langileen arteko kogestioa edota erantzunkidetasuna bereizgarritzat dute. Horrelako modulu batean egoteko, atxiloek «kontratu terapeutikoa» sinatu behar dute, arau guztiak betetzeko konpromisoa hartuta; besteak beste, hitzeman behar dute talde-bilera terapeutikoetan parte hartuko dutela eta lantaldeak «kaltegarritzat» jotzen dituen pertsonekin erlazionatzeari utziko diotela (DGIP, 2005: 19-20). Izan ere, modelo honen baitan, talde terapeutikoa ardatz da; bilduta, kide bakoitzaren «gabeziak» topatzen saiatu behar baitira (*Ibidem*: 20-21). Lantaldea eta metodologia kontuan hartuta, hiru modulu terapeutiko klase hauteman daitezke: UTE Unitate Terapeutikoa eta Hezigarria, Espetxe Erakundeetako langileek gidatuta, droga-menpekotasuna duten eta ez duten presoentzat; Komunitate Terapeutikoa, Espetxe Erakundeetako nahiz hainbat GKEetako partaideek zuzenduta, droga-kontsumitzaileak diren atxiloentzat; eta Mistoa, aurrekoaren modukoa, baina droga hartzen dutenentzat ez ezik, gainerakoentzat ere badena (SGIP, 2010a: 47).

Azkenik, Errespetu Moduluak ditugu, terapeutikoen oso antzekoak izanagatik ere, askoz ere zabalkunde handiagoa izan dutenak. Lehenengoa 2001ean sortu zen<sup>68</sup>, eta gaur egun presondegi guztietan dago horrelako modulu bat, gutxienez; bada, Espetxe Erakundeek erabateko lehentasuna eman diete. Modulu Terapeutikoetan bezalaxe, Errespetu Modulu batean egoteko ere ezinbestekoa da kontratua sinatzea, arauak beteko direla hitzemanen; kasu baterako, presoak egokitu dioten PITa bete beharko du, ezingo du inolako drogarik hartu, ezta indarkeria-adierazpenik egin ere, higiena zein janzkera zaindu beharko ditu, zelda beti garbi eta txukun mantendu, etab. Halaber, moduluko zeregin guztiak atxiloek egin beharko dituzte, eta, horretarako, espetxeko langileek taldeetan antolatuko dituzte, arduradun batzuk izendatuta, instituzioaren irizpideen arabera. Bestalde, egunero, preso bakoitzaren portaera ebaluatuko da, «positiboen» zein «negatiboen» bitartez; asko jota, aldeko puntu bakarra emanda; kontrakoak, aldiz, mugagabeak izanda ere. Besteak beste, negatiboa jaso ahal izango dute «behar den bezala» ez agurtzeagatik, ohea «ondo» ez egiteagatik, edota jarraibideak eta aginduak eztabaidatzeagatik. Norbanakoaren jarrerari lotuta egon arren, ebaluazioek eragina izango dute preso-taldeengan, eginkizunak astero esleituko baitira, kide guztien balorazioak kontuan hartuta; hala, hautatzeko lehentasuna

---

<sup>67</sup> Aurretik beste entseguren bat edo beste egon arren, 1992an Villabonan (Asturias) sortutako Modulu Terapeutikoa da aipagarriena (DGIP, 2005).

<sup>68</sup> Mansilla de las Mulasen (León) jarri zuten martxan lehen Errespetu Modulua (DGIP, 2007; Cendón, Belinchón eta García, 2011).

emango zaie negatibo gutxien dituzten taldeei, berdinketa dagoenean, positiboak aintzat hartuta (*Ibidem*: 44-45). Baina eguneroko ebaluazioa ez ezik, asterokoa ere jasoko dute, PITaren jardueren arabera, «aldekoa», «normala» edota «kontrakoa» den zehaztuta; eta, horrela, abantailak irabazita ala galduta. Espetxe Erakundeek finkatu dutenez, Errespetu Moduluek hiru aldaera dituzte, eskakizun-motari erreparatuta: lehenengoa (oinarrizkoa), bigarrena (tartekoa) eta hirugarrena (altua) (Cendón, Belinchón eta García, 2011: 84).

Espetxe-sistemaren azken urteotako eraldaketa horiek guztiak ikusita, ikerlari zenbaitek (Malventi eta Garreaud, 2008a, 2008b; Malventi, 2009, 2011; Zamora, 2011) bestelako printzipio batzuk gailendu direla baieztatu dute. Besteak beste, aipatu izan dira kartzela berrietako itxialdi, kontrol eta isolamendu zorrotz(ago)ak, Modulu Terapeutikoen izaera patologizatzailea, baita Errespetu Moduluen barne-presioa ere. Horrela, bata edo bestea izan, argi dago gaur egungo panorama ezberdina dela eta gogoeta sakona egin beharrean gaudela.



### 3. Emakumeen giltzapetze penalaren iragana eta oraina

*Behin eta berriro entzun dudan zurrumurrua da, gizonezkoen kartzelekin alderatuta, emakumezkoen instituzioak gizalegez onberak direla, eta arazo larriena emakume gatibuak neskatilak bailiran “mimatzeko” joera dela. Berehala deuseztatu beharreko mitoa da hori.*

Angela Davis (1971: 125)<sup>69</sup>

Zalantzarik gabe, kartzela genero-erakundea dela baieztatu dezakegu. Hastapenetik gaur egunera gizonentzat eta emakumeentzat genero-eredu zehatzak –hegemonikoak, jakina– bideratu zein bultzatu ditu, genero-harreman desorekatuak edota hierarkikoak gauzatu. Mendeetan barrena, batzuk eta besteak zigortzeko nahiz «zuzentzen» saiatzeko moduak erabat diferentek izan dira; eta, egun, Espetxe Erakundearen diskurtsoak zein jarduteak konplexuagoak direnean, markoa ez da gehiegi eraldatu, «berdintasuna» mahaigaineratu den arren. Genero-ikuspegia ezinbestekoa izanagatik ere, itxialdiaren eta presondegien azterketak maiz emakumeak kontuan hartu gabe egin dira<sup>70</sup>; batzuetan, alde batera utzita emakumezkoak ere preso egon direla; besteetan, gizonezkoen esperientziak orokortuta, eta, hortaz, genero-berezitasunak ezkatuta (Bodelón, 2011: 9). Horrelako gabeziak eta hutsuneak gainditzen ahaleginduko naiz, jarraian, kapitulu honetan. Alde batetik, XVI. mendeaz geroztiko emakumeen giltzapetze penalaren nondik norakoak jorratuko ditut, bilakaera historikoari helduta; eta, bestetik, gaur egungo egoera islatuko dut, bereziki,

---

<sup>69</sup> Ingelesean jatorrizkoan: «*I have often heard the rumor that as compared to men's prisons, women's institutions are humanely benign, the gravest problem being the tendency to “baby” the women captives. This is a myth which must be immediately smashed*» (Davis, 1971: 125).

<sup>70</sup> Gai honetan sakonduko ez badut ere, aipagarria da «gizon» eta «emakume» kategorietatik kanpo edo haratago kokatzen diren norbanakoak ere alde batera uzteko joera izan dutela espetxe-sistemari buruzko ikerketek (Stanley eta Smith, 2015).

genero-diskriminazioak nabarmenduta. Hainbat zentzutan, eraldaketa gutxiko ibilbidea izango da.

### **3.1. Errezatu eta lan egin: emakumeen itxialdiari gainbegiratu historikoa**

Aurreko kapituluan aipatu bezala, gizonen kasua bestelakoa izan arren, emakumeentzat jada XVI. mendean bazeuden itxialdia eta zuzenketa helburu zituzten zenbait instituzio. Beraz, XVIII. mendeko aldakuntza penala, giltzapetzea zehapen-bide moduan nagusitu zuena (Foucault, 1975), beraienez ez zen inolako «aldakuntza» izan, «jarraipen» hutsa baizik. Elisabet Almeda (2002) soziologoaren arabera, emakumezkoentzako lehenengo presondegiekin batera, aintzat hartu behar ditugu zehatz-mehatz kartzelak izan ez ziren zenbait itxialdi-gune; artezketa jomuga hartuta, espetxe-erakunde garaikideen aurrekari argienak direlakoan. Bere iritziz, bai erregimena bai bizi-baldintzak nahiko antzerakoak ziren, funtsezko xedeak bezalaxe: jendarteko arau hegemonikoen baitan, «arriskutsuak», «desbideratuak» edota «ezdeusak» ziren norbanakoak baztertzea, jagotea eta zuzentzea, laneko diziplinaren zein formakuntza eta jardute erlijiosoaren bidez. Nagusiki, pobreak izan ziren horrelakoetan itxitakoak; aldizka, delitugileak; aldizka, zaharrak, umezurtzak, eriak, arloteak, eskaleak zein prostitutak; gehienetan, gizonezkoen kontrolpetik kanpoko emakumeak.

XVI. mendean, gaur egun gertatzen den bezala, bazeuden gizonen presondegien barruan kokatutako berezko departamentuak emakume presoentzat. Baina, dirudienez, banaketa eta kontrola ez ziren zorrotzegiak, eta asko ziren gizon presoen zein kartzelarien aldetik sexu-erasoak eta hertsapenak pairatzen zituzten emakumeak. Aitzitik, gertakari horien «ezmoraltasuna» zein «lizunkeria» hain ziren jasanezinak erreformista ebanjelikoentzat, ezen gizonezkoen eta emakumezkoen espetxeak bereizteko zein eraikuntza eskusiboak egiteko kanpainak sustatu baitzituzten (Matthews, 2003: 37). Horrela, emakumeentzako zenbait kartzela eraiki ziren, nahiz eta ohikoagoa izan zen, XIX. mendera arte behintzat, gizonentzako baitako departamenturen batean sartzea. Esate baterako, Euskal Herrian baditugu horren hainbat adierazle: Donostian, XV. mendeko kontzejuaren presondegiak emakumeentzako eremu jakina zuen, eta, hurrengo mendean, haietzako barruti berezia eta propioa eraiki zen (Murugarren, 1995: 55); baina, hala ere, gizon-emakume presoek,



maiz, elkarrekin jarraitu zuten; garai bertuko Gipuzkoako korrejidorearen espetxeek<sup>71</sup> arazo berbera izan zuten, eta emakumeak beste norabait eramateko eskaerak egin ziren, beraien «onestasuna» gorde ahal izateko (*Ibidem*: 53); orduko Bilbo, Gasteiz zein Iruñea ez ziren salbuespenak izan ere ez, XVIII. mendera artean, gizon eta emakume atxiloak nahasturik egon zirenez gero (Bazán, 1992; Salhaketa Nafarroa, 2011; Roquero, 2014). Aro Modernoaren hasierako horrelako kartzelatan zaintza eta atxikitzea ziren betebeharrak nagusiak; presoek zuzenketa aurrerago ezarritako jomuga izan zen (Almeda, 2002: 22). Edonola, garaiko beste zenbait instituziok, ordea, bazuten ordurako artezteko xedetzat.

Egia esateko, nahiko gutxi ziren legeak hausteagatik espetxeratutako emakumeak; askoz ere arruntagoa izan baitzen «ebasketetan, lizuntasunetan eta bestelako bizioetan» sartuta zeuden horiek denboraldi batez desterratzea edota itxialdi-etxe erlijiosoetan giltzapetzea (Murugarren, 1995: 66). Adibidez, XVI. mendearen lehen erdialdean, Damutuaren Etxeak eta Jasotakoaren Etxeak<sup>72</sup> zabaldu ziren ia Europako hiri handi guztietan, emakumezko delitugileentzat, baita «bizimodu galgarria» zuen edozeinentzat ere. Oro har, komentuen zein monasterioen ondoan eraiki zituzten horrelakoak, otoitza eta lana euskarri hartuta, «galdutako» emakumeak zuzentzeko (Blázquez eta Ramos, 2011: 28-29).

Alabaina, itxialdi-etxe erlijioso guztien artean, aipagarrienak Erruki Etxeak<sup>73</sup> dira; XVI. mendearen amaieratik XIX. mendearen hasierara arte, horrelakoetan sartu baitzituzten emakume lege-urratzaile gehienak (Almeda, 2002: 40). Berez, instituzio mistoak ziren, baina praktikan kasik giltzapetu guztiak emakumezkoak ziren; zehazki, adin zein jatorri anitzetako emakumeak, txiroak denak; delitugile apalak zein umezurtzak, eskaleak eta arloteak (Blázquez eta Ramos, 2011: 32). Laburki esanda, erlijio-ordenek kudeatutako asistentzia-etxeak ziren eta helburu zigortzaileak zein zuzentzaileak zituzten, nahiz eta ez gerora garatutako erakundeek bezain modu esplizituan (Almeda, 2002: 42). «Behar bezalako» emakumeak erdiesten ahalegindu ziren, eta, horretarako, otoitzaren munduan murgilarazi zituzten eta etxeko lanak egiten zein zerbitzatzen irakatsi, ama zirenei seme-alabak beraiekin izateko aukera ematearekin batera<sup>74</sup>. Bestalde, josketan, ardazketan eta jantzigintzan trebatu zituzten, norberaren kontsumorako eta instituzioaren mantentzeko

---

<sup>71</sup> Donostian, Azkoitian, Azpeitian eta Tolosan egon ziren Gipuzkoako korrejidorearen presondegiak.

<sup>72</sup> Jatorrizkoan, *Casas de Arrepentidas* eta *Casas de Recogidas*.

<sup>73</sup> Jatorrizkoan, *Casas de Misericordia*.

<sup>74</sup> Emakumeentzako gainerako itxialdi-etxe erlijiosoetan ez zen ohikoa izan seme-alabak amekin egotea.

(*Ibidem*: 40). Besteak beste, Erruki Etxeak izan ziren Bilbon, Donostian, Gasteizen zein Iruñean.

Erruki Etxeek bezainbesteko hedapena izan ez bazuten ere, XVII. mendearen hasieratik ohargarriak dira Galera Etxeak<sup>75</sup>; emakumeentzat propio eginiko lehen kartzelak, alegia. Izan ere, aipatu bezala, berariazko presondegiak egiteko asmoa indarra hartzen hasi zen, eta, egoera horretan, San Jeronimotar Sor Magdalenak (1608), Valladolideko Damutuen Etxeko zuzendari zenak, bere proposamena aurkeztu zion Felipe III.a orduko erregeari, emakumeentzako bakarrik ziren lehen presondegien eraikuntza lortuta. Mojaren aburuz, garaiko emakumeetako askok errespetua galdu zieten Jaungoikoari zein justiziari, hala, «hondamen izugarria» eraginda gizon «koitaduei»; eta, artean ez zegoenez «emakume gaiztoentzako» zigor nahikorik, beharrezko ziren gizon delitugileen pareko zehapenak, emakume «askok gaiztakerietan eta bekatuetan sekulako abantaila» eramaten baitzieten (1991: 68). Hortaz, garaiko emakume «ustelak eta txarrak» izan ziren Galera Etxeetan itxi zituztenak (*Ibidem*: 69); arloteak, eskaleak, pobreak, ijitoak, lapurrak, prostitutak eta artekariak, kasu; baita «okertzeko» arriskuan zeuden neska umezurtzak eta gazteak ere. Azken batean, gizonen kontrolpetik nahiz etxeko eremutik kanpo bizi ziren emakumeak ziren (Juliano, 2011: 23). Esaterako, honelaxe zioen Galera Etxe bat eraikitzean herrian iragarri beharreko pregoiak:

«Emakume bat bera ere ez dadila ausartu harat-honat ibiltzera, egonean egotera edota nagusirik gabe bizitzera: bada, horrela dabilena galerara eramango dugu eta merezi bezala zigortuko dugu, eta, denek jakin dezaten, baita zerbitzatzeko nagusia aurki dezaten ere, sei eguneko epea emango diegu» (San Jerónimo, 1608; *in Fiestas*, 1978: 92)<sup>76</sup>.

Aurretik aipatutako instituzioen moduan, Galera Etxeen oinarrizko helburuak zehapena eta zuzenketa izan ziren. Batetik, emakumeek giltzapean bete behar zuten korrejidoreak finkatutako denbora, eta, bestetik, bitarte horretan, ama, emazte zein zerbitzari «egoki» bilakatu. Oztantasuna, esanekotasuna eta mendetasuna ezartzeko, diziplina zorrotza zein zurruna zen nagusi. Atxiloek ilea moztu eta uniformeak jantzi behar zuten, eta eguneko ia

---

<sup>75</sup> Jatorrizkoan, *Casas Galera*; hortaz, bertan zeuden emakumeei *galeriana* deitzen zitzaien (Martínez Galindo, 2002).

<sup>76</sup> Gaztelaniaz jatorrizkoan: «*Que ninguna mujer se atreva a andar vagando, ni ociosa, ni estar sin amo: porque la que así se topare será llevada a la galera y castigada conforme lo mereciere, y para que venga a noticia de todas y busquen amo a quien servir se les da de término seis días*» (San Jerónimo, 1608; *in Fiestas*, 1978: 92).

ordu guztiak errezatzen edota josketan igaro (Almeda, 2002: 33). Batzuetan, «arrastoa sartzeko», mozala, katea, zepoak eta girgiluak ere erabili ohi ziren (San Jerónimo, 1991: 85). Nahiko arruntak ziren bai pilaketa bai zikinkeria, baita janari-falta ere, eta sekula ez bezain agerikoa murrueetatik kanpokoekiko isolamendua. Orduko hiri aipagarri guztietan eraiki ziren Galera Etxeak, eta Euskal Herrian baditugu hainbat adibide. Kasu baterako, Iruñean egin zen bat, «libreki jostari» bizi ziren emakumezkoentzat desterrua nahikoa ez zelakoan (Roquero, 2014: 80); Bilbon ere eraiki zuten bat; eta Gipuzkoan saialdiak egin ziren<sup>77</sup> (Murugarren, 1995: 66-67).

XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendearen hasieran, arestian esan bezala, itxialdia zehapen-bide bezala nagusitu zuen paradigma hedatzen hasi zen pixkanaka, erreformak proposatuta sistema penalean nahiz espetxe-sisteman, aldaketa guztiak oso motel gertatu baziren ere<sup>78</sup>. Emakumeen kasuan, Erruki Etxeek zein Galera Etxeek artezketa helburu hartuta lan egiten zutenez betidanik, eraldaketa ez zen ia nabaritu, eta aipagarriena izen-aldakuntza baino ez zen izan, funtsean. Izan ere, XIX. mendean zehar emakumeentzako itxialdi-etxe anitzak Zentzabide Etxe<sup>79</sup> bilakatu ziren. Izendapenaz harago, ordea, ez zen kasik ezer aldatu; zuzentasuna jomuga zuten itxialdi-guneak ziren emakumeentzat eta adinez txikikoentzat, gehienak pobreak, eskaleak edo prostitutak ziren, eta eguna etxeko lanekin lotutako tailerretan eta otoitzean ematen zuten. Ikerlari zenbaiten iritziz (Burillo, 1999; Matthews, 2003; Blázquez eta Ramos, 2011), hala ere, aurreko itxialdi-etxeetan baino nabarmenagoak izan ziren bai erlijioaren bai moralaren garrantzia, jagoletza eta erregimenaren zorroztasuna. Inoiz ez bezala arautu ziren barne-sailkapenak eta jarrera

---

<sup>77</sup> Hasiera batean, Gipuzkoako emakumeak Valladolideko eta Zaragozako Galera Etxeetan itxi zituzten; baina, geroxeago, gertuago zer edo zer izateko asmoa piztu zen, eta, lortu artean, Tolosako erietxe baten baitako gunea erabili zuten (Murugarren, 1995: 66-67).

<sup>78</sup> XVIII. mendearen amaieran eta XIX. mendearen hasieran, zenbait erreformistak eraldaketak proposatu zituzten sistema penalean eta espetxe-sisteman, European eta Estatu Batuetan gertatzen ari ziren aldaketen ildoari jarraituta. Haatik, ez zituzten beraien helburuak erdietsi, zenbait arrazoi direla medio: instituzioen aldakuntzen moteltasuna, zailtasun ekonomikoak, komunikazio-eragozpenak, urbanizatzeko-prozesu geldoa, arrazoibide teologikoen eragina, etab. 1822ko Kode Penala izan zen askatasun-gabetzea zigor nagusitzat hartu zuen lehenengoa, baina, gehienetan, behartutako lanekin batera finkatu zuen, eta, gainera, ez zuen baztertu heriotza-zigorra, ezta desterrua, deportazioa edo lotsabide publikoa ere. Dudarik gabe, Espainian motelagoa izan zen lege absolutistekiko haustura; eta, hortaz, zuzentasun-ideiak ez ziren XX. mendearen hasierara arte nagusitu (Almeda, 2002: 70-71). Eraldaketaren eragile garrantzitsuenetako bat Concepción Arenal izan zen. 1863. urtean Espetxeetako Bisitari Nagusi izendatu zuten urtebetez, eta 1868tik 1872ra emakumeentzako Zentzabide Etxeetako Ikuskatzaile izan zen. Berak ezagututakoa oinarri hartuta, hainbat aldaketa sustatu zituen, kasurako, atxiloen prestakuntza defendatuta. Euskal Herrian, aldiz, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen izen erreforma-asmo ilustratuen bultzatzaile garrantzitsuenak (Bazán eta Ibáñez, 2000: 31-32).

<sup>79</sup> Jatorrizkoan, *Casas de Corrección*; horrenbestez, bertan zeuden emakumeei *corrigenda* esaten zitzaizkien (Martínez Galindo, 2002).

«egokiak» zein «desegokiak» kudeatzeko neurriak. Bestalde, aurrenekoz atxiki zituzten emakumeen espetxeak Presondegien Zuzendaritza Nagusian, gizonenekin batera<sup>80</sup>.

Edonola ere, benetako eraldaketa esanguratsuak II. Errepublikaren garaian gertatu ziren; zehazki, 1931n, Victoria Kent legelari eta politikari errepublikarra Kartzelen Zuzendari Nagusi izendatu zutenean. Izan ere, espetxe-sistema leuntzeko ahalegin aipagarriak egin zituen, besteak beste, ondorengo neurriak ezarrita: baldintza kaskarrak zituzten zentroen uztea; zigor-zelden desagerpena; girgiluen, kateen eta gisako burdin-loturen ezabapena; 70 urte zituzten giltzapetuen kaleratzea; askatasuna lortzekotan zeudenen baldintzapeko irtetea; kexak jasotzeko buzoiak; zentsurarik gabeko prentsa; janarirako aurrekontu handiagoa; erizaindegietako berokuntza; eskolak zein soldatapeko tailerrak; baimenak; bisita intimoak; gurtza-askatasuna zein elizkizunetara joateko betebeharraren kentzea; etab. Emakumeek eguneko ia ordu guztietan josten jarraitu bazuten ere, Kentek beraien egunerokotasuna nabarmenki aldarazi zuen, hiru egitate bultzatuta: lehenik eta behin, emakumeentzat espresuki egindako lehen presondegi «modernoaren» eraikuntza sustatu zuen<sup>81</sup>; bigarrenik, 3 urte baino gutxiagoko haurrak amekin kartzelan egoteko aukera eman zuen; eta, azkenik, erlijio-ordenak espetxeetako aginpidetik kendu zituen<sup>82</sup>, eta presondegiak administrazio zibilaren esku jarri, eguneroko kudeaketarako emakumezko funtzionarioak sortuta<sup>83</sup>. Dena den, asmo berritzaileek gutxi iraun zuten, Kentek kargua hartu eta hamalau hilabeteetara dimisioa aurkeztu baitzuen, bere alderdikideen berme-faltaren kausaz (Almeda, 2002: 119).

Hurrengo hamarkadetan izugarri larriagotu zen presondegien barruan itxitakoen egoera, 1936ko altxamendu faxistak hasitako gerra zibilaren eta, batez ere, ondorengo diktadura frankistaren ondorioz. Gerraurreko urteetan espetxeratutako emakumeak oso gutxi ziren eta gehienak ebasketan, lapurretan edota maulan aritzeagatik zeuden preso, baten batzuk «haien sexuaren berezko delituengatik»<sup>84</sup> ere egonik. Gerraostean, aldiz, kartzelak inoiz

---

<sup>80</sup> 1846an gertatu zen gizonentzako eta emakumeentzako presondegien bateratze administratiboa.

<sup>81</sup> Madrilgo Ventasko espetxearen eraikuntza bultzatu zuen, hain zuzen.

<sup>82</sup> Edonola, erlijio-ordena gehienek asistentziazko lanetan jarraitu zuten.

<sup>83</sup> Konkretuki, Espetxe Zerbitzuetako Emakumezkoen Atal Laguntzailea eratu zuen. Bertan lan egiteko, kriminologia eskolan ikastaro bat egin behar zen eta, ondoren, oposizioak gainditu (Blázquez eta Ramos, 2011: 17). Gizonen kasuan, 1881etik zeuden funtzionarioak presondegietan (Hernández Holgado, 2011b: 199).

<sup>84</sup> Horrelaxe izendatzen ziren prostituzioa, ohaidetza, abortua, umeen abandonatzea, adulterioa eta beste zenbait delitu.

ez bezala masifikatu ziren<sup>85</sup>, eta giltzapean sartu zituzten ia emakume guztiei delituzko ekintza politikoak leporatu zitzaizkien. Batzuetan Errepublikan eta gerran aktiboki parte hartutakoak izan ziren. Baina, besteetan, horrelako parte-hartzea izan zutenak beraien senide gizonak izan ziren (Hernández Holgado, 2013: 165). Testuinguru horretan hartu zuen indarra emakume preso «politikoen» eta «arrunten» arteko banaketak, ordura arte ez baitzen halako bereizterik egiten. Lehenen delituzko ekintza ohikoenak «matxinadari laguntza», «matxinadari atxikimendua» eta «matxinada militarra» ziren (Jiménez *et al.*, 2012: 209); bigarrenenak, nolabait ere, gaineratiko guztiak: jabetzaren kontrakoak zein «moralaren eta ohitura onen aurkakoak» edo bestelakoak. Ez ziren beti elkarrekin egon kartzelatan<sup>86</sup>, baina askotan horrela gertatu zen; eta, harreman anitzak egonda ere, ohizkoak izan ziren beraien arteko tentsioak. Izan ere, diktadurak emakume «gorrien» irudi negatiboa zabaldu nahi zuen, aditzera emanda «lizunak», «ezmoralak» bezain «lotsagabeak» zirela (Osborne, 2012: 124); eta preso politikoek, horri aurre egiteko, preso arruntekiko aurkaritzan azpimarratu zituzten beren ustezko «nagusitasun morala» zein estatus berezia<sup>87</sup>.

Frankismoaren ezarpenarekin hainbeste areagotu zen atxiloen kopurua, ezen presondegia berriak inprobisatu behar izan baitziren; eta, hala ere, pilaketa ikaragarria izan zen. Egia esateko, bizi-baldintzak ezin txarragoak izan ziren, oso arruntak izan zirenez gero gosea, desnutrizioa, zikinkeria, sendagaien gabezia, baita tuberkulosiaren, sarnaren zein zorrien izurriteak ere (Juliano, 2011: 25). Ezinbestean, murruen artean, emakume eta haur asko gaixotu eta hil egin ziren, sekula ez bezalako espetxe-hilkortasuna gertatuta (Hernández Holgado, 2013: 162); erregimeneko propaganda egokiro zainduta zeudela sinestarazten saiatzen zen arren. Kontrola zein tratua nabarmenki gogortu ziren (Vinyes, 2002, 2005), eta mojen esku gelditu ziren berriro ere zaintza eta jagoletza, ohizko bilakatuta erasoak, umiliazioak eta mehatxuak<sup>88</sup>. Ordena erlijiosoekin batera, elizkizunak zein errezoak ere

---

<sup>85</sup> Datu ofizialen arabera, 1934an, Espainiako Estatuan espetxean zeuden emakumeak ez ziren 500 ere; 1940an, aldiz, 23.000 inguru ziren (Hernández Holgado, 2013: 161).

<sup>86</sup> Kasurako, prostitutak maiz aparte egon ziren, frankismoan «eroritako emakumeentzako» eta «bizimodu desegokia» zutenentzako kartzela bereziak egin baitziren zenbait hiritan (Blázquez eta Ramos, 2011: 95).

<sup>87</sup> Esaterako, sexualitatea izan zen emakumezko preso politikoek erabili zuten tresnetako bat arruntekiko distantzia adierazteko, baita haien modukoak ez zirela nabarmentzeko ere (Osborne, 2009). Antza denez, masturbazioa nahiz lesbianismoa erlatiboki ohikoak ziren preso arrunten artean, eta politikoek horrelako praktika guztien gaitzespen zorrotza egin zuten, «ahuldadeak» zirelakoan, espetxe-zuzendaritzari presoak manipulatzeko aukera ematen zirelakoan, eta «nazkagarriak» edota «gaixoberak» zirelakoan (Hernández Holgado, 2011a: 791-792). Batzuetan, moja kartzelazainei horrelako jardunbideak zituzten atxiloen berri ematera ere iritsi ziren (Juliano, 2012: 269).

<sup>88</sup> Julianoren iduriko, mojek abusu eta bidegabekeria itzelak burutu zituztela ukalezina den arren, behar baino hedatuagoa dago gizonezkoen kartzelarako funtzionarioak baino «okerragoak» izan zirenen ustea.

bueltatu ziren, generizatze zorrotza bezalaxe. Esaterako, 1943an, Familia Eskola ezarri zuten mojek eta Falangeko *Sección Femenina*ko kideek; 30 urtetik beherako presoentzat derrigorrezkoa zen, helburua «behar bezalako etxe katolikoa» nola gauzatu irakastea izanik, besteak beste, honako gaiak landuta: josketa, jantzigintza, sukaldaritza, familia, aberria, erlijioa, etab. (Alvarado, 2012: 173). Era berean, «beren sexuarentzat egokiak» ziren tailerretan ere lan egiten zuten presoek; eta, batzuetan, diru-iturriak izan zitezkeen, xumeak betiere<sup>89</sup>, nahiz eta beraien jomuga nagusia zigorra luditzeko tresna izatea zen. Funtsean, atxilo kopurua hain zen altua, non kontrolaezina zen diktadurarentzat; eta, testuinguru horretan, ezinbestekoak bilakatu ziren kartzelak gutxika husteko bideak, horietako bat lana izanda, bi lanegunek zigor-egun bat kentzen baitzuten<sup>90</sup>. Aldi berean, presoen seme-alabak ere joan ziren espetxeetatik desagertzen; beraien kasuan, askotan, gurasoek onartu gabeko adopzioak gertatu zirelako<sup>91</sup> (Jiménez *et al.*, 2012: 208).

Hego Euskal Herrian, gerraurrean, bi ziren emakumeak preso hartzen zituzten kartzelak: Larrinagakoa Bilbon eta Ondarretakoa Donostian. Ondoren, atxilo kopuru izugarrizkoak zirela eta, espetxe gehiago jarri zituzten martxan; eta horrela sortu ziren Orue txaletekoa Bilbon, Nevers mojen komentukoa Durangon, Saturrarango hondartzakoa Mutrikun eta Karmelo ikastetxekoa Zornotzan<sup>92</sup>. Seguruenik, guztien artean ezagunena Saturrarangoa

---

Antropologoaren ustez, emakumeen balizko «berezko perbertsioari» buruzko sinesmenean dago azalpena; ideia horiek pentsarazi baitute boterea lortzen duten emakumeak gizonak baino are eta krudelagoak direla (*Ibidem*: 263).

<sup>89</sup> Teorikoki, egindako lanagatik soldata jasotzen zuten emakume presoek, baina «borondatez» diru guztia edo kopuru oso altua ematen zieten mojei (Alvarado, 2012: 174).

<sup>90</sup> Lan eginez penak luditzearekin batera, presondegiak husteko bideak izan ziren indultuak eta zigorraren konmutazioak, baita exekuzioak ere. Horrela, 1940tik aurrera, gizon nahiz emakume atxiloen kopuruak gutxiagotzen hasi ziren, poliki-poliki (Jiménez *et al.*, 2012: 207). Edozelan ere, ohargarria da, printzipioz, gizonentzat pentsaturiko neurriak izan zirela guztiak. Esate baterako, lanaren bidezko luditzearen kasuan, gizonak izan ziren onuradun nagusiak, emakumeen tailerrak, askotan, ez zirelako «lantzat» hartzen; eta, horrez gain, luditzea lortu ahal izateko betebeharren artean analfabetoa ez izatea zegoelako –garai hartan, emakumeen herena baino gehiagok ez zekienean ez idazten ez irakurtzen–. Egoera ez zen seriozki aldatu 1960ko hamarkadaren amaierara arte, zigorra luditu ahal izateko, emakumeen espetxe-zereginak gizonen lanekin parekatu zirenean. Era berean, orduko sistema progresiboak ere diskriminatu zituen emakumeak. Izan ere, erregimen irekia eskuratzeko aukeren artean, kartzelatik kanpo enplegua aurkitzea zegoen, baina horrek, praktikan, emakume asko baztertzuten zituen, etxeko lanak zein erregularizatu gabekoak ez zirelako aintzat hartzen (Mapelli, Herrera eta Sordi, 2013: 64-65).

<sup>91</sup> Antonio Vallejo-Nágera psikiatra frankistaren usteen arabera, marxismoa eta gutxiagotasun mentala hertsiki erlacionatuta zeuden, eta haurrak amen balioekin «kutsatzea» ekiditeko metodo hoberena beraiek bereiztea zen (González eta Barinaga, 2010: 70).

<sup>92</sup> Behin behineko presondegi horien artean, luzaroen erabili zena Saturrarangoa izan zen. Orue txaletekoa 1939. urtean itxi zuten, Nevers komentukoa 1940an eta Karmelo ikastetxekoa 1943an (*Ibidem*: 66). Larrinagako eta Ondarretako espetxeen kasuak bestelakoak izan ziren. Larrinagakoa 1871tik 1967ra egon zen irekita, Basauriko espetxea eraiki eta hurrengo urtera arte; 1897tik emakumeentzako pabiloi berezia zuen, herritarren artean «Galera Etxe» izendatu zena (Villa, 2008-09-14). Ondarretakoa 1890etik 1948ra erabili zen, Martuteneko presondegia ireki zuten arte; emakumeak eraikinaren hirugarren solairuan egon ziren (Egaña, 2012: 18).

da, milaka emakume egon baitziren bertan preso<sup>93</sup>, beraien seme-alabekin batzuetan<sup>94</sup>, 1938tik 1944ra presondegi bezala erabilitako eta garai batean hotel-bainuetxe izandako hainbat eraikinetan<sup>95</sup>. Eskuarki, bertan bizitakoa gainerako kartzelatan gertatutako gauza bera izan zen: pilaketa, gosea, gaixotasunak, heriotzak<sup>96</sup>, irainak, umeen desagerpenak, etab. Ustelkeria ere presente egon zen, zuzendaria zein moja-taldearen burua<sup>97</sup> kargutik kendu baitzituzten, presoek eman beharreko janaria beste batzuei saltzeagatik (*Ibidem*).

Diktadura amaituta, trantsizioaren urteetan espetxe-aldakuntza aipagarriak gertatu ziren. 1975eko indultuak hainbat preso utzi zituen aske eta 1976ko amnistiak ia atxilo politiko guztiak kaleratu zituen, eta gelditzen ziren gutxi horiek hurrengo urtean zehar hartutako neurrien bidez atera ziren. Alabaina, amnistia bakarrik politikoztat izateak dezepzio ikaragarria eragin zuen preso arrunten artean, eta, hortaz, borrokarako mobilizatu zituen (Lorenzo, 2013). Beraien kaleratzea eta erreforma penala nahiz espetxekoa aldarrikatu zuten, eta beraien burua preso «sozial» izendatzen hasi ziren, giltzapean zituena jendarte bidegabe bezain desorekatua zela salatuta, eta frankismoko lege zorrotzen arabera izan zirela epaituta azpimarratuta (Rivera, 1996: 102-103). Hasiera batean, beraien ekimenak baketsuak izan ziren; parlamentuaren gehiengoak indultu orokor baten aukera errefusatu eta gero<sup>98</sup>, ordea, gatazkak eta indarkeria areagotzen hasi ziren (Malventi eta Garreaud, 2008b: 7). COPEL Presoak Borrokan Koordinakundea<sup>99</sup> buru zela, Estatuko ia kartzela guztietan, baita Euskal Herrikoetan ere, arruntak izan ziren gose-grebak, besoa besoaren

---

<sup>93</sup> Datuak ematea zinez zaila bada ere, Saturrarango emakume atxiloak 1940an 1.500-1.600 inguru zirela kalkulatu da eta, guztira, 1938tik 1944ra, 3.000-4.000 inguru izan zirela (González eta Barinaga, 2010: 5; Ugarte, 2011: 270).

<sup>94</sup> Ez dago umeen kopuruari buruzko datu ofizialik, baina aipatu izan da 1940an 70-80 bat zirela (Ugarte, 2011: 270).

<sup>95</sup> XIX. mendean hotel-bainuetxe izan ondoren, eraikin-multzoa seminario bihurtu zuten XX. mendearen hasieran eta Eusko Gudarostearen kuartel gerra zibilean (Jiménez *et al.*, 2012: 207).

<sup>96</sup> Iturri batzuen arabera, 120 emakume eta 57 haur hil ziren (González eta Barinaga, 2010: 67), eta, beste batzuen arabera, 116 emakume eta 56 haur (Jiménez *et al.*, 2012: 208). Ohargarria da, 1940an, kartzelak erabiltzen zuen ur-andela kutsatu egin zela eta tifus-izurritea jazo zela; horren ondoriozko heriotzak hain ugariak izan ziren, ezen Mutrikuko udalak herriko hilerrria handitu behar izan zuen (Ugarte, 2011: 272-273).

<sup>97</sup> Mesedetako ordenako mojek kudeatu zuten espetxea.

<sup>98</sup> 1978an, Juan María Bandrés eta Lluís Maria Xirinacs senatariek preso sozialentzako indultu orokorra gauzatzeko proiektua aurkeztu zuten parlamentuan. Ekimenak, ostera, ez zuen aurrera egin, gehiengoak errefusatu zuelako, batik bat, talde kontserbadoreen presioa zela eta (Lorenzo, 2013: 242-243).

<sup>99</sup> COPEL Presoak Borrokan Koordinakundea 1976an sortu zen Carabancheleko presondegian (Madril), eta, hainbat kartzelatan komizioak eratu ondoren, 1982an gelditu zen bertan behera. Amnistia eta espetxe-sistemaren erreforma helburu, antolatutako preso sozialek osatu zuten mugimendua, eta, esate baterako, honako neurriak exijitu zituzten: presoek esplotazioaren amaiera, tratu txarren desagerpena, zigor-zelden indargabetzea, senideekin eta lagunekin komunikazio askea, elikadura osasuntsua, etab. (Lorenzo, 2013). Mugimenduak Euskal Herriko espetxeetan izan zuen bere oihartzuna; baita emakumezkoen batzuetan ere, nahiz eta, nagusiki, gizonek osatutako mugimendua izan zen eta ez zuten inoiz egin emakumeen egoerari buruzko eskaerarik.

gaineko grebak, plantoak, zauritze kolektiboak, instalazioen hondatzea zein matxinadak; eta kalean ere preso sozialen aldeko ekintzak egin ziren. Espetxe Erakundearen erantzuna, baina, errepresioa izan zen: jipoiak eta isolamendua. Hala, indarkeria etengabe areagotu zen, 1978an bi erailketa gertatu arte: alde batetik, Agustín Rueda preso anarkistarena<sup>100</sup>, eta, bestetik, bakarrik egun batzuetako aldearekin, Jesús Haddad Espetxe Erakundeetako Zuzendari Nagusiarena<sup>101</sup>. Gertaerok espetxe-sistemaren presako erreforma eragin zuten eta, beraz, Espetxe Erakundeetako hurrengo Zuzendari Nagusiak, Carlos García Valdés-ek, Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorren proiektua prestatu eta aurkeztu zuen; 1979an talde parlamentario guztiek onartu zuten (Rivera, 1996: 104) eta, aurretik esan moduan, 1981eko Espetxe Araudiarekin osatu zen.

Euskarri juridiko berriek aldaketa zenbait ekarri zizkieten emakume presoek; kasurako, mojak desagertu eta funtzionarioak bueltatu baitziren emakumezkoen presondegietara<sup>102</sup> (Juliano, 2011: 38). Alta, jarraian ikusiko dugunez, bestelako gabeziak, hutsuneak nahiz arazoak gertatu dira.

### **3.2. Espetxe-egoera gaur egun: zigorrak eta genero-diskriminazioak miran**

Marga Aguilera (2011) abokatuaren moduko zenbait egilek aipatu dute, kartzelaratzearan, emakumezkoek zigor hirukoitza topatu ohi dutela: soziala, pertsonala zein espetxekoa. Aurreneko bien inguruan eman dira dagoeneko zertzelada batzuk, alde batetik, eredu nagusiei muzin egitearen ondorioz, emakume delitugileek gizarte-gaitzespen handiagoa pairatzen dutela esanda; eta, bestetik, itxialdia sufrimendu, samin eta kezka sakonez bizi dutela azalduta, erruduntasun-sentimendu itzela eragiten dienez maite dituztenengandik eta haien ardurapean daudenengandik urruntzeak –ama direnen kasuan, batez ere, seme-alabengandik aldentzeak–. Espetxe-zigorrari dagokionez, kondenaren nolakotasuna eta

---

<sup>100</sup> Funtzionario batzuek hil zuten Agustín Rueda, 1978ko martxoaren 14an, Carabancheleko espetxean.

<sup>101</sup> GRAPO Urriaren Leheneko Erresistentzia Talde Antifaxistak hil zuen Jesús Haddad, 1978ko martxoaren 22an.

<sup>102</sup> Hala ere, aipagarria da batzuetan funtzionarioen itzulerak ez zituela mojak berehalakoan desagerrarazi. Esate baterako, Martuteneko espetxeko adibidea dugu. Santa Ana kongregazioko mojak 1939an hasi ziren Ondarretako kartzelan lanean, bereziki, emakume presoan departamentuan, ekonomatuan, sukaldean eta erizaindegian. Geroago, Martuteneko presondegia zabaldu zenean, 1948. urtean, lekualdatu egin ziren, bizitokia bertan finkatuta, beraien asistentziako lanarekin jarraitzeko. Ez ziren bertatik behin betiko joan 2014. urteko azarora arte, hau da, Espetxe Erakundeek alde egin behar zutela erabaki zuten arte, mojak zituen Estatuko azken kartzela izanik (Olabarri, 2015-02-22).



baldintzak izan behar ditugu kontuan<sup>103</sup>, kartzela-sistema emakumeentzat erabat sexista, androzentrikoa zein diskriminatzailea dela oinarritzat hartuta. Presondegien artean alde nabarmenak egonda ere, sistema genero-bereizkeriaz josita dago. Azken finean, botere-egitura eta eredu hegemonikoen sostenguekin zerikusi estuan, genero-rol tradizionalak eta harreman hierarkikoak (bir)sortzen ditu; horrela, gizarte-desorekak zein emakumeen zaugarritasuna handiagotuta (Cruells eta Igareda, 2005; Arbelaitz *et al.*, 2012).

Hasteko, emakume presoen zentroei, azpiegiturei eta instalazioei erreparatu behar diegu. Izan ere, beraientzako zentro gutxiago daude eta, beraz, dispersio geografiko handiagoa jasaten dute; askok zigorra beraien errotze- edota afektu-inguruneetatik urrun bete behar izaten dute, arautegiak finkatutakoaren aurka<sup>104</sup>. Preso sozialen kasuan<sup>105</sup>, bereziki larria da lehen graduan dauden emakumezkoen egoera, baita seme-alabekin bizikide izan nahi dutenena ere<sup>106</sup>. Oso urriak dira haientzako moduluak, eta Euskal Herrian ez dago bat bera ere. Aipatutakoa gutxi balitz bezala, kondenaren azken faseak erdiaskatasunean egiteko aukera material gutxiago ere dituzte, haien bizilekuetatik gertuko azpiegitura eta instalazio egokien gabezia dela kausa (SGIP, 2009a: 3).

Halaber, espetxeratutako emakume gehienak printzipioz gizonentzat soilik diseinaturiko presondegietan daude, eta, ondorioz, ia denak gizonen kartzelai erantsitako hala-holako guneetan daude; bada, eremu osoaren zati txikia hartzen duten eta nolabait egokitu diren

---

<sup>103</sup> Egile zenbaitzuen aburuz (Manzanos eta Balmaseda, 2003; Ugarte, 2003; Piñeiro, 2010), kondenaren konplizteaz haratago, espetxe-araudia hartu behar dugu aintzat, genero-diskriminazioak bertan hasten direlakoan. Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrean zein Espetxe Araudian gutxi dira emakumezko presoei egindako aipamenak, eta, oro har, honako alderdiak jasotzen dituzte: gizon eta emakume presoen arteko bereizketa nahiz bereizketa eza (Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrearen 8.3., 9.1. eta 16.a. artikulua, eta Espetxe Araudiaren 99.3. eta 168. artikulua); haurdunaldia, erditzea, edoskitzea eta seme-alabekiko harremana (Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrearen 29.e., 38. eta 43.3. artikulua, eta Espetxe Araudiaren 17., 72.2., 133.2.e., 151.c., 178., 209.1.2., 213.1., 226.3. eta 254.3. artikulua); eta etxeko lanak (Espetxe Araudiaren 82.2. artikulua).

<sup>104</sup> Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrearen 12. artikulua arabera, «zigortuen deserrotze soziala ekidin» behar da.

<sup>105</sup> Preso sozialen kasuaz harago, EPPK Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kideek urteetan dispersioa modu sistematikoan jasan dutela esan beharra dago (Amnistiaren Aldeko Mugimendua, 2009).

<sup>106</sup> Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrearen 38. eta Espetxe Araudiaren 17. artikulua arabera, 3 urte baino gutxiagoko haurrak dituzten emakume presoei kartzelan beraiekin batera egoteko aukera dute, zenbait baldintza beteta. Horretarako, Espetxe Erakundeek zenbait aukera eskaintzen dituzte: Amentzako Barneko Unitateak eta Kanpoko Unitateak; Amentzako Mendeko Unitateak; eta, salbuespen moduan, puntualki umeak onartzen dituzten Emakumeen Departamentuak (SGIP, 2009b, 2010a). Gizonen kasuan, ordea, ez dago horrelako ezer, eta aukera bakarra Madril VI presondegian dagoen Familia Unitatea da, bikotekide biak atxilo dauden kasuetarako; izan ere, zentro horretan gurasoak 3 urte baino gutxiagoko seme-alabekin bizikide izan daitezke, baldin eta segurtasuna eta umeen zaintza egokia bermatzen badute (SGIP, 2010a: 25). Edonola, hainbat lanek (Naredo, 1999, 2007; Yagüe, 2005, 2006, 2010; Townhead, 2006; Igareda, 2009; Vara, 2011; García Idiákez, 2013; Gea, Domínguez eta Sádaba, 2014) erakutsi dute espetxeetan bizi diren haurren egoera oso konplexua dela, baliabideak urriak eta desegokiak direla, baita gurasoek –amek, bereziki– kezka, buruhauste eta zalantza handiak izaten dituztela ere.

espazioetan egon ohi dira, oro har, bizigarritasun-baldintza okerragoak izanik. Baina, alderdi horiei dagokienez ez ezik, desabantailak pairatzen dituzte jasotako arretan zein zentroaren barne-antolaketan ere. Gizonezkoak kopuruan gehiago direla aitzaki hartuta, espetxe-plangintza eta kudeaketa beraiei zuzenduta dago batik bat, gizonen beharrei edo eskakizunei emanda lehentasuna (*Ibidem*: 4). Horrela, emakumezkoentzat langile zein baliabide ekonomiko eta material urriagoak daude, eta horrek ondorengo esan nahi du: hezkuntzarako aukera gutxiago, tailer produktibo zein hezigarri, eta kultur-, kirol- edota aisialdi-jarduera gutxiago bezalaxe, hainbat eremu eta zerbitzu usatzeko mugekin batera (Almeda, 2003: 39-40).

Ezin dugu inola ahaztu ere ez, emakumezkoentzako espazioak txikiagoak izaterakoan, presoak ez direla profil sozialen eta kriminologikoen arabera bereizten, behin eta berriro urratuta espetxe-arautegia<sup>107</sup>. Beraz, gune berean elkarrekin daude kartzelan lehenengoz daudenak zein aurretik egon direnak, prebentiboak eta zigortuak, delitu anitzen egileak, eriak eta osasuntsuak, gazteak eta adinduak, etab. Horrelako sailkapen-eza derrigorrean kaltegarria den galdegin dezakegun arren, batzuetan gatazken sorburu dela adierazi izan da. Egia esan, emakumeen arteko elkarbizitza, normalean, nahiko lasaia da eta benetako agresibitatea oso txikia, baina egiazkoa da tentsioak piztu ohi direla ere, hautatu ez diren kideekin egunero bizikide izan eta ia dena partitu beharraren kausaz; are gehiago, eremu txikiak zein gehiegi betetakoak izan ohi direla kontuan hartzen badugu (Aguilera, 2011: 116). Masifikazioa eta pilaketa arruntak dira kasik presondegi guztietan<sup>108</sup> eta, batez ere, emakumeen moduluetan (Almeda, 2003: 40).

Bigarrenik, emakume presoak «etxekotzeko» eta «feminizatzeko» saialdiei heldu behar diegu (Almeda, 2003, 2007). Alde batetik, eta salbuespenak salbuespen, emakumezkoiei eskainitako ikastaro zein jarduera aunitzek bat egiten dute tradizionalki femeninotzat jo den rolaekin; eta, hortaz, oso ugariak eta arruntak dira ondorengo tailerrak: makillajea, estetika, ile-apainketa, jostea, jantzigintza, broderia, eskulanak, pintura, zeramika, etab. Bestetik, irakaskuntza ofizialari eta tailer hezigarriei dagokienez, emakumezkoen jarrera aktiboagoa izan ohi da, proportzionalki gizonezkoak baino gehiago matrikulatzen baitira

---

<sup>107</sup> Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorraren 16. zein Espetxe Araudiaren 99. artikuluei jarraituta, presoak profilen arabera sailkatu behar dira, honako irizpideak aintzat hartuta: adina, aurrekariak, egoera fisikoa zein burukoa, eta tratamenduaren beharrak.

<sup>108</sup> Espainiako Estatuko berrogeita bost presondegitan burututako SINDISCRIP Espetxe Diskriminazioen Adierazleen Sistema ikerketaren arabera, 2010ean, %178koa zen batez besteko pilaketa (Del Val, 2012a: 10).

horrelakoetan (SGIP, 2014: 112); baina zailtasun handiekin topo egiten dute, baldintzak, espazioak eta baliabideak desegokiak eta eskasak direnez gero (Ayuso, 2001: 81).

Tailer produktiboen kasuan, ikus dezakegu presondegietan enplegua duten emakumeen kopurua areagotuz joan dela eta, gaur egun, antzekoak direla soldatapean lanean dauden gizonezkoen eta emakumezkoen tasak. Alabaina, horrek ez du esan nahi ezberdinkeriak desagertu direnik. Izan ere, soldaten arteko diferentzia handiagotu egin da, emakumeak okerren ordaindutako lanetan daudenez gero<sup>109</sup> (Viedma eta Frutos, 2012: 103); horiek, gehienetan, etxeko lanekin eta zaintza-lanekin lotutakoak izanik. Emakumeek egindako enpleguen ia hiru laurdenak espetxe-zerbitzuak<sup>110</sup> eta zeregin laguntzaileak dira; hau da, zehaztugabeko eta prestakuntza txikiko lanak (SGIP, 2009a: 18). Oro har, gizonezkoen moduluentzat errefusatutakoak dira; gaizki ordaindutakoak, espezializazio urrikoak edo zailtasun handikoak izateagatik (Almeda, 2003: 49-50). Beraz, emakume presoen lanek ez dute balio gehiegirik kalean enplegua aurkitzeko, eta, gainera, nahiko zaila da halako lan-esperientzia egiaztatzea. Ordaindutako lana topatzeko teknika zein tresna aproposik gabe (*Ibidem*: 51), oso gutxi dira –eta gizonak baino gutxiago dira– nolabaiteko enplegu egonkorra lortzen dutenak, eta, zer edo zer egitekotan, gehienbat, erregularizatu gabeko jarduerak izaten dira (Elías eta Manzanos, 2001; De Alós-Moner *et al.*, 2011; Esteban *et al.*, 2014).

Hirugarrenik, garrantzitsua den beste alderdi bat emakume presoen kontrolari dagokiona da. Izan ere, egitateek erakusten dutenez, jagoletzaz arduratzen diren langileek, iritzi eta balorazio sexistak erabat barneraturik, diziplina zurrunagoa darabilte emakumeekin, eta esanekotasun eta sumisio handiagoa exijitzen diete. Hala, modu zorrotzagoan zehatzen dituzte, baita gehiagotan ere; eta, hortaz, gizonak baino gatazkatsuagoak ez izanagatik ere, proportzionalki zigor eta diziplinako espediente gehiago izaten dituzte<sup>111</sup> (Viedma eta Reviriego, 2012: 200). Bestalde, erabaki asko hartzeko ezintasuna eta erantzukizun-eza nagusi dira kartzelaldian, autonomia-galera nabarmena eraginda (Imaz, 2007: 192). Azken batean, eta berriro ere espetxe-arauegiak dioenaren kontra, lehentasuna ez dago

---

<sup>109</sup> SINDISCRIPeko emaitzak erabilia, 2010ean, emakumeen batez besteko soldata 180 eurokoa zen eta gizonena 224 eurokoa (Viedma eta Frutos, 2012: 103).

<sup>110</sup> Besteak beste, espetxe-zerbitzuak dira sukaldaritza, okintza, garbiketa, etab.

<sup>111</sup> Kasurako, SINDISCRIPeko datuen arabera, 2010ean, emakumeen zigorrak kasik gizonen bikoitza izan ziren, eta, gainera, zorrotzago zehatu zituzten. Emakumeen kasuan, zigor oso larriak %24,36 ziren eta larriak %59,22. Gizonen kasuan, %22,19 eta %48,08, hurrenez hurren (Viedma eta Reviriego, 2012: 199-200).

ustezko «tratamenduan», segurtasunean eta jagoletzan baizik, ia baliabide guztiak azken bi esparru horietarako baitira (Arnos, 2005: 46; Ormazabal, 2014: 137).

Laugarrenik, kontrolaren gaiari lotuta, neurrigabeko medikalizatzea aipatu behar da. Oro har, preso dauden emakumeei gizonei baino lasaigarri, antidepresibo eta antsiolitiko gehiago errezetatzen zaizkie<sup>112</sup>; eta dirudienez, justifikatu egiten da emakumeei buruzko ideia naturalizataileekin eta estereotipatuekin, aditzera emanda «berez» histerikoak eta ezegonkorrak direla, gizonak baino emozionalagoak eta irrazionalagoak (Almeda, 2003; Mountian, 2007; Carrizo, Gutiérrez eta Tapia, 2013). Alta, espetxeratutako emakumeen gehiegizko medikalizatzea gertatzen dela esatean, ez da ukatu nahi kartzelan osasun-arazoak daudenik, begi-bistakoa baita itxialdiak ondorio psikologiko zein fisiko benetan larriak dituela. Aitzitik, tratamenduak, baliabideak eta zerbitzuak ezegokiak direla islatu nahi da; oso arruntak direlako, besteak beste, ondorengo osasun-arazoak: antsietatea, depresioak, fobiak, legezko nahiz legez kanpoko drogen kontsumoak, nor bere buruari egindako zauriak, suizidioak zein suizidio-saialdiak, buruko gaitzak, elikadura-arazoak, ikusmenaren eta entzumenaren galera, arazo ginekologikoak, buruko minak, etab. Arazo horiek guztiak tratatzerakoan, gabeziak oso agerikoak dira, eta, kritika nagusiak kontuan hartuta, ez dago langile nahikorik, zaila da espezialistarengana joatea, arreta eskasa zein irregular samarra da, diagnosi okerrak egiten dira, kartzela askotan ez dago ginekologia-zerbitzurik, sobera erabiltzen dira ibuprofenoa bezalako farmakoak eta, hori gutxi balitz bezala, urria da osasunari buruzko informazioa (Del Val, 2012b: 132-134).

Bosgarrenik, emakume presoek espetxe-murrueetatik kanpokoekin dituzten harremanena da aintzat izan beharreko beste gai garrantzitsu bat. Esparru honetan argitzekoa da, oro har emakumezkoek gizonezkoek baino bisita gehiago izaten dituzten arren<sup>113</sup> (García de Cortázar eta Gutiérrez, 2012: 151), erlazioen haustura handiagoa ere bizi dutela, atxilo egotearen kausaz. Espetxean sartzean bikotekidea zutenen kasuan, emakumeek gizonek baino sostengu eta laguntza ekonomiko gutxiago izan ohi dute, eta, gainera, gehiagotan amaitzen dira beraien bikote-erlazioak (Aróstegui *et al.*, 2008; De Miguel, 2010, 2012, 2016; Etxebarrieta, 2013). Ama direnei dagokienez, askok familiako emakume baten<sup>114</sup>

---

<sup>112</sup> SINDISCRIP ikerketa hartuta, 2010ean, psikofarmakoak hartzen zituzten emakumeak %36,5 ziren, eta gizonak %32,9 (Del Val, 2012b: 140).

<sup>113</sup> SINDISCRIPeko datuekin jarraituta, 2010ean, bisitak jaso zituzten emakumeen %55,8k eta gizonen %40k (García de Cortázar eta Gutiérrez, 2012: 151).

<sup>114</sup> Hainbat ikerketek erakutsi dutenez (OSPDH, 2006; Etxebarrieta, 2013), emakumeak dira, gehienbat, preso gizonezkoen zein emakumezkoen zaintzaz arduratzen direnak.

edota aitaren ardurapean dituzte seme-alabak; baina batzuek ez dute umeen zaintzaren erantzukizuna har dezakeen edo hartu nahi duen inor, eta, hala, tutoretza galtzen dute<sup>115</sup>. Gizon presoen egoera, aldiz, zeharo ezberdina da. Kasik guztiek haurrak amarekin utz ditzakete, eta, hala, tutoretzaren galera oso gutxitan gauzaten da<sup>116</sup> (Cruells, Igareda eta Torrens, 2005a: 83).

Emakumeek giltzapean topatzen dituzten bidegabekerien zerrendarekin amaitzeko, ezin ditugu aipatu gabe utzi espetxe-langileen aldetik gertatutako erasoak<sup>117</sup>; bada, batzuetan, presoekiko tratu iraingarriak, eraso fisikoak zein psikologikoak eta abusuak egiten dira (Hernández, 2005, 2009; CPDT, 2014). Egia esan, oso gutxitan ematen dira horrelakoak ezagutzera eta ez dira kasik inoiz salatzen, zailtasunak zein gerta litezkeen errepresaliak direla eta<sup>118</sup>. Hala ere, badaude zenbait salbuespen, eta hortxe dugu, esaterako, Langraiz Okako kasua. Izan ere, 2009an epaitegietara iritsi zen, eta ebazpenak frogatutzat jo zuen kartzelako segurtasun-zuzendariordeak jazarpenak egin zizkiela bi emakume presori<sup>119</sup>, sexu-harremanen trukean espetxe-onurak eskainita. Horrela, bi urteko kartzela-zigorra, hamabi urteko gaitasungabetzea zein emakume bakoitzari eman beharreko 3.000 euroko kalte-ordainak ezarri zizkieten<sup>120</sup> (Rejado, 2013-02-05: 13).

---

<sup>115</sup> EAEn 1996an eta 2002an egindako ikerketa baten arabera, ama presoek %43,7k aitaren zaintzapean zituen seme-alabak, beste %43,7 batek beste senide baten ardurapean eta %12,6k erakunde publikoen tutoretzapean (Manzanos eta Balmaseda, 2003: 58).

<sup>116</sup> Alemanian, Britainia Handian, Espainian, Frantzian, Hungarian eta Italian 2002tik 2005era egindako ikerketa bateko datuak erabilita, ama presoek %25k aitaren zaintzapean zituen seme-alabak, baina aita presoek %92k zituen amaren ardurapean. Bestalde, amen %12k galdua zuen tutoretza; aiten kasuan, aldiz, %2k (Cruells, Igareda eta Torrens, 2005a: 83).

<sup>117</sup> Era berean, ezin dira aipatu gabe utzi EPPKko partaide askok inkomunikazio-aldian jasandako torturak (Barrenetxea *et al.*, 2014).

<sup>118</sup> Salatu diren ia kasu guztiak epaiketarik gabe artxibatu eta amaitutzat jo dira; eta, epaitegietara ailegatu diren gutxiak, gehienetan, funtzionarioen kontrasalaketa jaso dute, eta, hala, salaketa jarri duen presoaren aurkako zigor-epaiarekin bukatu dira (Gallego *et al.*, 2010: 150-151). Ondorioz, tratu iraingarriak pairatu dituzten preso gehienek ez dute inolako salaketarik egiten, eta, hortaz, ezinezkoa da kasuen zenbatekoa ezagutzera (Del Cura, 2011: 54).

<sup>119</sup> Lau emakumek jarri zituzten salaketak, baina epaileak bi baino ez zituen eman frogatutzat. Bosgarren batek sexu-hertsapenak eta abusuak baieztatu zituen, nahiz eta ez zuen salaketarik jarri nahi izan. Gizon preso batzuek ere salatu zituzten bestelako jazarpenak: mehatxuak, presioak zein xantaia ekonomikoak, kasu (Salhaketa, 2005).

<sup>120</sup> Ezin da esan espetxeetan sexu-abusuak sistematikoki gertatzen direnik, baina, zalantzarik gabe, ezin ukatuzkoa da zorigaiztoz ohikoak direla. Horren erakusgarri, aipagarria da Langraiz Okako kasua ez dela Espainiako Estatuko Espetxe Erakundearen erantzukizunpean gertaturiko bakarra. Izan ere, jakina da azken urteotan sexu-abusuak jazo direla Madrid I (Alcalá de Henares, Madril) zein Madrid V (Soto del Real, Madril) presondegietan (Ceberio, 2010-06-17; La Rebelión de las Palabras, 2013-07-04; Tokata, 2014-02-14); eta, gaur egunean, Brieva (Ávila) eta Alcalá de Guadaíra (Sevilla) kartzelatan ustez gertatutako sexu-hertsapenak ikertzen ari direla (Alsedo, 2015-01-27; Muñoz, 2015-07-02). Kasu horietan guztietan salaketa egin zuten emakumeek adierazi bezala, halako egoerei aurre egitea ez da batere erraza; zaila da salatzea, gertatutakoa frogatzea, balizko errepresalien beldurra gainditzea, baita mehatxuei eta hertsapenei

Behin diskriminazio zein bidegabekeria horiek guztiak zerrendatuta, ezin ukatuzkoa da kartzela-sistemak genero-desorekak handiagotzen dituela. Egitateen ebidentzia ikusi eta gero, Espetxe Erakundeek ere onartzen dute desberdinkeriak egon badaudela; eta, beraz, berdintasuna –zuzenean edo zeharka– helburu duten zenbait neurri jarri dituzte martxan. Horien artean aipagarriak dira *Programa de Acciones para la Igualdad entre Mujeres y Hombres en el ámbito penitenciario* (2009), Zentro Tipoen ereduaren araberako espetxe berrien eraikuntza, baita Modulu Terapeutikoen zein Errespetu Moduluen ezarpena ere. Teorian, ekimen horien jomuga nagusietako bat emakume atxiloen egoera hobetzea da; zehazki, beraien moduluak gizonenak bezalakoak bilakatzeko eta prestakuntza-, lan- zein aisialdi-aukera berberak bermatzea. Haatik, autore zenbaitzuek dagoeneko adierazi dute neurri hauen eraginkortasunik eza. Izan ere, berdintasun-programa bertan behera dago 2011z geroztik, eta, halere, ez zen inoiz guztiz aplikatu, ezta behar bezalako jarraipenik egin ere<sup>121</sup> (Ballesteros eta Almeda, 2015: 171); Zentro Tipoei berriro ere gizonen eredu unibertsaltzat eta neutrotzat jo dute (Yagüe, 2007; Alvarado, 2012; Ballesteros, 2013a, 2013b), Modulu Terapeutikoei eta Errespetu Moduluei bezala<sup>122</sup>, ez baitituzte kontuan izan emakumeek pairatutako genero-bereizkeriak (Ballesteros, 2013a, 2013b; Ballesteros eta Almeda, 2015). Beraz, aldaketak eginda ere, ez dirudi ezer hobetu denik.

---

muzin egitea ere, jasaten dituzten zaurgarritasuna eta botere-asimetria direla eta (De Miguel, 2015-02-25). Horregatik, ez litzateke zentzugabea izango sexu-abusu gehiago izan direla pentsatzea.

<sup>121</sup> Behar bezala gauzatu ez baziren ere, berdintasun-planak ondorengo ekimenak bultzatzea aurreikusten zuten: genero-diskriminazioen adierazle-sistema eta behatoki iraunkorra, lege-erreformak, espetxe-egitura berriak eta zaharren berrikustea, osasunaren sustapena, hezkuntza- eta lan-egoerak hobetzeko egitasmoak, indarkeria sexista lantzeko programak, familia-bitartekaritzarako programak, etab. Berdintasun-planaren eskutik etorri ziren emakumeentzako Errespetu Moduluak, Amentzako Kanpoko Unitateak eta indarkeria sexista jasan dutenentzako *Ser mujer.eS* (2010) programa.

<sup>122</sup> Modulu Terapeutikoei eta Errespetu Moduluei, printzipioz, gizonentzat diseinatu zituzten; eta, hortaz, sortutako lehenak gizonentzat izan ziren. Alta, une jakin batean, Espetxe Erakundeek eredu horiek – Errespetu Moduluen, batik bat– emakumeen artean ezartzea sustatu zuten, portaera «otzanagoa» izan ohi dutenez, erraza izango zelakoan. Teorikoki, horrelako modulu batean egotea borondatezkoa da, alabaina, emakumeen kasuan sarri inposaketak gertatu dira. Izan ere, presondegi askotan emakumeentzako modulu bakarra dago, eta, hori Errespetu Modulu bihurtu denean, preso guztiek onartu behar izan dute –beste espetxe batera lekualdatuak izan nahi ez bazuten, behintzat–. Hainbat ikerlanek (Ballesteros, 2013a, 2013b; Ballesteros eta Almeda, 2015; Francés, 2015) adierazi dute emakumezkoen gaineko kontrola eta presioa gehiagotzen dutela, preso «onak» eta «gaiztoak» bereizten dituztela, baita eredu normatiboetatik aldentzen direnentzat baliabide eta aukera gutxiago daudela ere.

#### 4. Desberdintasunak nahiz desberdinkeriak.

##### Emakume presoen arteko aniztasuna

*Orain, andre, esadazu: baduzu nire egoeraren antzekoa den zerbait? Badut nik zure egoeraren parekoa den zer edo zer? Bada, zer berdintasunaren inguruan hitz egingo dugu gure artean, antzekotasunik ez badugu, hain ezberdinak bagara? Une honetan, ezin gara berdinak izan, emakume bezala ere ez, ez al duzu uste?*

Domitila Barrios de Chungara (in Viezzer, 2005: 166)<sup>123</sup>

Aurreko atalburuan espetxeratutako emakumeek presondegietan bizi dituzten desorekak zein diskriminazioak soilik genero-ikuspegitik landu ondoren, bestelako desberdinkeriei eta desberdintasunei heldu nahi diet jarraian. Izan ere, preso hartutako emakumezkoen arteko aniztasuna benetan handia da; eta, horrenbestez, kartzelako beraien bizipenak edo esperientziak, hainbat zentzutan, diferenteak dira. Hortaz, premiazkoa da generoa beste kategoria batzuekin elkarreraginean ulertzea; behintzat, itxialdi penalak emakumeentzat zer esan nahi duen seriozki jorratu eta aztertu nahi badugu. Zeregin horretan murgilduko naiz segidan, ahalik eta hurbilpen aberatsena lortzen ahaleginduta, analisi interseksional sakona egin gabe bada ere. Lehen azpiatalean, kartzelatutako emakumei buruzko trazu jeneral batzuk emango ditut, jaidura nagusiak aipatuta –betiere, gehiegizko orokortzea arriskutsua dela ahortzi gabe–; eta, ondorengoetan, presondegietan nabarmentzen diren taldeetara gerturatuko naiz, emakume atzerritarren, ijitoen zein droga-kontsumitzaileen

---

<sup>123</sup> Gaztelaniaz jatorrizkoan: «Ahora, señora, dígame: ¿tiene usted algo semejante a mi situación? ¿Tengo yo algo semejante a su situación de usted? Entonces, ¿de qué igualdad vamos a hablar entre nosotras? ¿Si usted y yo no nos parecemos, si usted y yo somos tan diferentes? Nosotras no podemos, en este momento, ser iguales, aun como mujeres, ¿no le parece?» (Barrios de Chungara, in Viezzer, 2005: 166).

berariazko kasuetan barrenduta<sup>124</sup>. Berriro ere oinarri izango dira bai zaurgarritasuna bai aurreiritziak.

#### **4.1. (Zuhurki hartu beharreko) irudi orokorra**

Kartzelatutako emakumeei buruzko zertzelada nagusi batzuk lagungarriak izan daitezke beraien nondik norakoetara hurbiltzeko nahiz beraien istorioak edota ibilbideak hobeto ulertu zein aztertzeko. Nolanahi ere, bistan dago «emakume preso» izendatzen ditugun horiek anitzak eta askotarikoak direla; eta, era berean, beraien nolakotasuna orokortzeak hainbat muga zein arrisku dakartzala –kasu baterako, estereotipoak sustatzea edota hain ohizkoak ez diren egitateak ezkatzea–. Hala eta guztiz ere, zailtasunak zailtasun, joera eta ezaugarri orokorrak hausnarketarako erabilgarriak izan daitezkeelakoan nago. Hala, ohargarrienak ekarriko ditut.

Delitu- zein espetxe-profilari dagokionez, gogorarazi behar da atxilo diren emakumeen artean arruntenak diren lege-urratzeak osasun publikoaren aurkakoak direla, hots, legez kontrako drogen salmentarekin edota garraioarekin lotutakoak; eta, jarraian, jabetzaren eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak, normalean, ebasketa nahiz lapurreta txikiak direnak. Egia esanda, gutxitan egiten dituzte benetan arriskutsuak diren lege-hausteak, hala nola, hilketak, lesioak edo sexu-askatasunaren kontrakoak; eta nahiko eskasak dira ordena publikoaren aurkakoak, trafikiko-segurtasunaren kontrakoak eta gaineratikoak ere<sup>125</sup>. Bestalde, urria da espetxean behin baino gehiagotan egon direnen zenbatekoa<sup>126</sup> (SGIP, 2009a: 16). Hortaz, emakumeen delitu-profila apala da; espetxe-zigorrak, aldiz, iraupen ertainekoak badira ere, batez bestekoa sei urtekoa denez gero (*Ibidem*: 14). Bigarren graduan edo erregimen arruntean daude gehienak, baina nabarmentzekoa da

---

<sup>124</sup> Ikerketa hau preso sozialei buruzkoa denez gero, ez dut EPPK Euskal Preso Politikoen Kolektiboko partaideen kasua jasoko. Edonola ere, ezin ukatuzkoa da ezaugarri espezifikokoak eta zehatzak dituen taldea osatzen dutela.

<sup>125</sup> Kopuru zehatzak ikus daitezke «1.3. Delitua (bir)definituz: egungo testuinguru penala» azpiataleko 6. taulan.

<sup>126</sup> 1996an eta 2002an EAEn egindako ikerlanaren arabera, emakume presoek %47,6 ziren berrerorleak (Manzanos eta Balmaseda, 2003: 36).



hirugarren graduan edo erregimen irekian duten presentzia proportzionalki altua dela<sup>127</sup> (10. taula).

**10. taula: Gradu-sailkapena Espainiako Estatuan (2015eko iraila)**

Gradua	Emakumeak	Gizonak
Lehen gradua	80 (%1,94)	985 (%1,97)
Bigarren gradua	2.738 (%66,25)	38.293 (%76,74)
Hirugarren gradua	1.040 (%25,16)	7.473 (%14,98)
Sailkatu gabe	275 (%6,65)	3.150 (%6,31)
GUZTIRA	4.133 (%100)	49.901 (%100)

Iturria: egileak egina, Espetxe Erakundearen datuak erabilia.

Bestelako ezaugarriei erreparatuta, aipa dezakegu kartzelatutako emakumeen gehiengoa 41 eta 60 urteen arteko adin-tartean dagoela, eta, segidan, 31 eta 40 urteen artekoan<sup>128</sup> (11. taula).

**11. taula: Emakume presoaren adina Espainiako Estatuan (2015eko iraila)**

Adin-tarteak	Zigortuak	Prebentiboak	Guztira	%
18-20 urte	8	21	29	0,60
21-25 urte	278	83	361	7,46
26-30 urte	575	109	684	14,14
31-40 urte	1.465	255	1.720	35,57
41-60 urte	1.664	223	1.887	39,02
61 urtetik gora	143	12	155	3,21
GUZTIRA	4.133	703	4.836	100

Iturria: egileak egina, Espetxe Erakundearen datuak erabilia.

<sup>127</sup> 2015eko iraileko estatu-mailako datuak kontuan izanda, emakumeen kasuan, %66,25 bigarren graduan zegoen, %25,16 hirugarren graduan, %1,94 lehen graduan eta %6,65 sailkatu gabe. Gizonen kasuan, berriz, %76,74 zegoen bigarren graduan, %14,98 hirugarrenean, %1,97 lehenean eta %6,31 sailkatu gabe (in <<http://www.institucionpenitenciaria.es>> [Kontsulta: 2015eko azaroaren 3a]). Ikus 10. taula.

<sup>128</sup> Berriz ere 2015eko iraileko estatu-mailako zenbatekoak hartuta, honakoak dira kopuruak: 41-60 urteen artean, %39,02; 31-40 urteen artean, %35,57; 26-30 urteen artean, %14,14; 21-25 urteen artean, %7,46; 61 urtetik gora, %3,21; eta, 18-20 urteen artean, %0,60 (in <<http://www.institucionpenitenciaria.es>> [Kontsulta: 2015eko azaroaren 3a]). Ikus 11. taula.

Orokorki, ez dute ikasketa-maila altuegirik. Bada, gutxiengoa dira erdi mailako zein goi mailako prestakuntza egin dutenak, eta jendartean ohikoa dena baino gehiago ikasketak nahiko gazterik utzi dituztenak eta analfabetoak direnak<sup>129</sup>. Lan-ibilbideari dagokionez, asko langabeak izan dira; eta, enplegua izan dutenen artean, arruntak izan dira lanpostu ezegonkorrak eta behin behinekoak, nagusiki, lanbide-prestakuntzarik gabeak eta etxeko edo zaintza-lanei lotutakoak, hots, sozialki eta ekonomikoki gutxietsitakoak. Ondoriozta daitekeenez, gehienek arazo ekonomikoak pairatu dituzte, eta, hainbat kasutan, pobrezia ere esan genezake. Irudia are larriagoa bihurtzen da aintzat izaten badugu ugariak direla gurasobakarreko sendien buru direnak<sup>130</sup> eta indarkeria sexista jasan dutenak<sup>131</sup> (Cruells, Igareda eta Torrens, 2005a, 2005b). Gutxi balitz bezala, jada preso sartu aurretik, askok bazituzten osasun-gaitz nabarmenak, hala nola, depresioak, arazo psikiatrikoak, droga-menpekotasuna eta kontsumoaren ondoriozko eritasunak. Ezbairik gabe, zerrendatutako adierazle guztiak kontuan hartuta, eta sistema polizialaren, penalaren eta espetxearen izaera hautakorra ere tarteko, argi dago emakume zaurgarrienak direla, gehienbat, preso egon ohi direnak. Nahiz eta aipatutako egitateak ez diren delituzko ekintzak gauzatzeko kausa zuzenak, ezin ukatuzkoa da zailtasunak gehitzen eta aukerak gutxitzen dituztela, eta horrelako egoera konplexuetan hartu ohi dela, batik bat, delituaren hautua. Arestian ikusi bezala, atxilo hartutako emakumeen bizitzetan nagusi izan dira desabantailak zein gizarte-bazterketa<sup>132</sup> eta itxialdian gainordezkatuta daude atzerritarrak, ijitoak eta droga-kontsumitzaileak.

Haatik, kapitulu honen hasieran azpimarratu legez, kontuz ibili beharra dugu horrelako orokortzeekin. Elixabete Imaz antropologoak dioenez:

---

<sup>129</sup> EAEn 1996an eta 2002an eginiko ikerketaren datuen arabera, kartzelatutako emakume gehienek lehen mailako ikasketak zituzten (%42), eta asko ziren ikasketa-maila baxua zutenak: analfabetoak (%15,6) edo ikasketarik gabeak (%9,8). Erdi mailako eta goi mailako ikasketak zituztenek ez zuten herena ere osatzen; bigarren mailako ikasketak (%15,7), unibertsitate-mailakoak (%8,3) eta Lanbide Heziketa (%7) aintzat hartuta (Manzanos eta Balmaseda, 2003: 29).

<sup>130</sup> Ez dut inola ere iradoki nahi gurasobakarreko familia izatea negatiboa denik. Alabaina, ezin da ahaztu horrelakoek zaurgarritasun handiagoa nahiz bizi-baldintza eskasagoak jasan ohi dituztela. Esate baterako, INE Espainiako Estatistika Institutuaren arabera, 2014an, gurasobakarreko familien %90 emakume baten ardurapean zegoen eta totalaren %53,3k pobrezia-arriskua zuen (Requena, 2015-05-26).

<sup>131</sup> Indarkeria sexistaren agerpen anitzak hartu dira kontuan: psikologikoa, fisikoa, sexuala, soziala eta ekonomikoa (Cruells, Igareda eta Torrens, 2005b).

<sup>132</sup> Joan Subirats (2004) politologoari jarraituta, desabantailak eta zaurgarritasun-faktoreak pilatzen dituen prozesu dinamikoa da gizarte-bazterketa. Banakoei zein gizarte-taldeei eragiten die, zailtasunak ekarrita garapen pertsonala, gizarteratzea zein gizarte-babesa lortzeko. Besteak beste, honako adierazleak aipatzen ditu: pobrezia, arazo ekonomikoak, diru-laguntza publikoen beharra, langabezia eta lan-ezegonkortasuna, analfabetismoa, ikasketa-maila baxua, droga-menpekotasuna eta eratorritako gaixotasunak, etab. Beraz, emakume preso askoren kasuetan atzeman dezakegu gizarte-bazterketa edo, gutxienez, horren arriskua.

«Nabarmendu beharra dugu ez orokortzearen premia, kolektibo horietan kokatutako emakumeei ezaugarri berberak egozte saihestearena. Presoen gaineko aurreiritzien eta estereotipoen arabera, prestakuntzarik gabeak dira, baliabiderik gabekoak, komeni zaienaren inguruan erabakitze gaitasunik gabeak, gizon baten menpekoak eta seme-alaba ugaridunak» (2007: 194)<sup>133</sup>.

Batzuetan deskribapen horrek errealitatearekin bat egiten duen arren, ezin dugu ahaztu ez dagoela profil sozio-penal bakarrik, bizipenak ez direla uniformeak, askotarikoak eta oso anitzak baizik, eta orokortzeak beti motz gelditzen direla. Hala, estereotipoetara edo konplexutasunik gabeko irudietara mugatzen bagara, ezinezkoa izango zaigu giltzapean hartutako emakumeen istorioak benetan irudikatzea. Ikuspegi sakonagoak garatu behar ditugu; eta, zeregin horretan, oinarritzkoa izango da generoaren eta bestelako kategorien arteko elkarrekiko loturei erreparatzea (Bosworth, 1996, 1998, 1999, 2003; Tóth, 2010; Burgess-Proctor, 2012; Carlen, 2012; Bello, 2013), hain zuzen ere, intersektzioei.

Intersektzionalitatearen inguruko hainbat gogoeta aipagarri plazaratu dira azken urteotan (Crenshaw, 1989, 1991; Yuval-Davis, 2006; Davis, 2008; Platero, 2012, 2014). Horien arabera, banakoen esperientziak sakon ulertzeko, nahitaezkoa da barneratzea elkarrekin korapilatuta edo elkarri lotuta daudela generoa, etnia, naziotasuna, klase soziala, sexu-aukera, erlijioa, adina, (ez)gaitasuna eta sozialki eraikitako gainerako kategoria guztiak. Bestela esanda, egiturazko desoreka-sistemak ez dira nor bere kasa gauzatzen; aitzitik, denak loturik daude eta elkarrekiko hartu-emanak dituzte (Platero, 2014: 63). Ondorioz, banakoaren bizipenak ez dira gai horien guztien batuketaren emaitzak, elkarreraginean eta aldi berean gertatzen direnez gero, banako bakoitzari gizarte-kokaleku zehatz bezain aldagarria emanda. Testuinguruaren arabera, desberdina da kategoria bakoitzak daukan gailentasuna, eta, hortaz, diferenteak dira eragiten dituzten posizio sozialak, hierarkiak, desabantailak nahiz pribilegioak (Platero, 2012, 2014).

Intersektzionalitatea botere-harremanak agerian uzteko tresna emankorra izanagatik ere, sarri, analisisetarako kategoriak banatu egiten ditugu eta bakoitza modu isolatuan aztertu. Giltzapetutako emakumeen esperientziak, zailtasunak eta arazo espezifikoak jorratzeko generoa bakarrik nahikoa ez dela onartuta baina, segidan, bestelako kategoriak kontuan

---

<sup>133</sup> Gaztelaniaz jatorrizkoan: «*Debemos insistir en la necesidad de no generalizar, de evitar atribuir a cada una de las mujeres incluidas en estos colectivos idénticas características. Las reclusas son prejuizadas y estereotipadas como carentes de formación, de recursos, de capacidad de decidir sobre lo que les conviene, dependientes de un hombre y con muchos hijos*» (Imaz, 2007: 194).

hartzeari ekingo diot. Zehazki, emakumezkoa zein presoak izateak atzerritarra izatearekin dituen elkarreraginak landuko ditut, nola ijitoa hala droga-kontsumitzailea izatearekin dituenak; hiru horiek baitira presondegietan ugarienak diren profilak. Ez dut azterketa interseksionalik egingo, baina, nolakotasun horiek aintzat izanda, hurbilpen sakonagoa burutzen saiatuko naiz. Horrela, esanahien konplexutasunera apur bat gehiago gerturatu nahi dut, besteak beste, honako alderdiak landuta: kolektibo zehatzen zaurgarritasuna, kriminalizatzea eta espetxe-gainordezkapena. Jarraian esango ditudanak ere tentuz hartu beharrekoak dira, jakina. Kolektibo bakoitzaren barruan ere aniztasun handia dago eta emakumezko preso guztiak ez dira inondik inora ordezkaturik egongo. Hala ere, mugak muga, lagungarria izango delakoan nago.

#### **4.2. Atzerritarrak: bizimodua hobetzeko ahaleginean**

Jatorri atzerritarra duten emakumezko presoek osatzen dute giltzapean topa dezakegun talde zaurgarrienetako bat. Nolabait, Elixabete Imazek eta Teresa Martín Palomok esan bezala, azken urteotan nabarmendu diren «besteak» dira (2007: 217-218); desabantaila handiak bizi dituztenak, eta, aldi berean, ziur aski, egun agerikoena den preso-taldeko parte direnak. Testuinguru eta egoera zinez anitzetatik datozen arren, esan daiteke, oro har, beraien sorterrietan erabat integraturik dauden emakumezkoak izan ohi direla, baina «etorkin» bilakatzerakoan, maiz, gizarte-bazterketa jasaten dutela (*Ibidem*: 218). Horren erakusle argienetako bat aurreiritzietan dugu. Kasu baterako, jendartearen gehienak uste du immigranteek ikasketa-maila baxua dutela, errealitatea oso bestelakoa izanagatik ere; bada, askok lan gaituak egiteko prestakuntza dute (Juliano, 2011: 162); baina, ikasketak homologatzeko oztopo handiak egon ohi direnez, sarri, soilik gaizki ordaindutako edota baldintza kaskarretako enpleguak lortzen dituzte, bereziki, umeen eta adinduen zaintzan zein etxeko lanetan (Suárez, 2005: 60). Halaber, beraiek biktimizatzeko joera izan behar dugu kontuan, «engainaturik ekarri dituztela» esaten baita askotan (Agustín, 2005: 92); nahiz eta, horrelako kasuren bat edo beste egonda ere, ezin ukatuzkoa den immigratzea beraiek hartutako estrategia izan dela, egoera ekonomikoa hobetzeko, nagusiki (Juliano, 2006: 7-8). Edonola, zaurgarritasunaz zein aurreiritziez hitz egiterakoan, garrantzitsua da Europar Batasunakoak diren eta ez diren atzerritarren kasuak argi bereiztea. Oro har, bigarrenak egoera okerragoetan daude; esan nahi baita, maiz irregulartasunean, egoitza-eta lan-baimenei dagokienez.

Datuei erreparatzen badiegu, emakume preso atzerritarren gainordezkapena agerikoa da. Izan ere, gutxi gorabehera, emakumezkoen guztizkoaren herena da atzerritarra. Gainera, naziotasun espainiarreko emakumeen kopurua baino modu nabarmenagoan handitu da haien zenbatekoa, azken hamarkadetan apur bat gutxitu den arren<sup>134</sup> (12. taula); arestian esan bezala, preso kopuruak urritzeko saialdi orokorrak eta atzerritarren kanporatzeen<sup>135</sup> areagotzea direla eta.

**12. taula: Emakume preso atzerritarrak Espainiako Estatuan (2000-2015)<sup>136</sup>**

Urtea	Emakume preso atzerritarrak	%
2000	804	22,00
2005	1.532	32,16
2010	2.295	38,85
2015	1.433	29,24

Iturria: egileak egina, Espetxe Erakundearen datuak erabilia.

Gehienak hegoamerikarrak dira; eta jarraian daude afrikarrak zein europarrak<sup>137</sup>. Jatorri nagusiak aintzakotzat hartuta, hauek nabarmentzen dira: Kolonbia, Errumania, Brasil, Maroko, Venezuela, Dominikar Errepublika, Nigeria, Ekuador, Bolivia eta Frantzia<sup>138</sup>

<sup>134</sup> Espainiako Estatuari buruzko datuen arabera, 2000. urtean, emakume presoan %22 ziren atzerritarrak; 2005ean, %32,16; 2010ean, %38,85; eta, 2015ean, %29,24 (*in* <<http://www.institucionpenitenciaria.es>> [Kontsulta: 2015eko azaroaren 3a]). Ikus 12. taula.

<sup>135</sup> Bi kanporatze-mota daude: judizialak eta administratiboak. Lehenak epaiaren egikaritzeak dira, Kode Penalaren 89. artikuluari lotutakoak. Horien arabera, Espainiako Estatuan egoteko baimenik ez duten atzerritarrei sei urte baino gutxiagoko espetxe-zigorra ezartzen bazaie, zehapenaren ordezkotzat kanporatzea aplikatu dakieke; eta, sei urte baino gehiagoko kartzela-zigorra ezartzen bazaie, hiru laurdenak beteta izan daitezke kanporatuak. Bi kasuetan, kanporatzeaz gain, itzultzeko debekua jarriko zaie hiru eta hamar urte arteko epean –gehienetan, hamar urtekoan–; baina kontuan hartu behar dugu ez dela soilik Espainiako Estatura itzultzeko debekua, Schengen Akordioaren baitako herrialde guztietara joatekoa baizik. Bestalde, bigarrenak, kanporatze-administratiboak, Atzerritartasun Legeari lotutakoak dira. Izan ere, atzerritarrak era horretan kanporatuak izan daitezke, egoera irregularrean egote hutsagatik; baina, horretaz gain, baita urtebete baino gehiagoko zigorra jasotzeagatik. Kanporatze judiziala zein administratiboa izan, helegitea jartzeko aukera dago, errotzea frogatzen saiatzeko. Erabakia epailearena izango da.

<sup>136</sup> Urte bakoitzeko iraileko datuak hartu ditut kontuan.

<sup>137</sup> Esate baterako, estatu-mailako 2000. urteko datuak hartuta, hegoamerikarrak %63,57 ziren, afrikarrak %15,93, Europar Batasunekoak %15,37 eta Europa Ekialdekoak %2,91 (Ribas, Almeda eta Bodelón, 2005: 150).

<sup>138</sup> Estatu-mailako 2005. urteko datuen arabera, hurrenkera honakoa zen: Kolonbia (%37,11), Errumania (%12,30), Brasil (11,23), Maroko (%10,37), Venezuela (%7,38), Dominikar Errepublika (%5,24), Nigeria (%5,03), Ekuador (%4,28), Bolivia (%3,53) eta Frantzia (%3,53) (Defensor del Pueblo Andaluz, 2006: 65).

(Defensor del Pueblo Andaluz, 2006: 65). Azpimarratzekoa da denak ez direla zehatz-mehatz «etorkinak», zenbait ez zirelako beraien sorterrietatik at bizi kartzelatuak izan arte. Bestalde, nahiko txikia da delitua errepikatzen dutenen kopurua (Castillo eta Ruiz, 2010: 475).

Zalantzarik gabe, emakume hauen bizipenak ulertzeko, ezinbestekoa da kontuan izatea Europako estatuak beraien mugak kontrolatzeko azken urteotan hartutako neurri gero eta zorrotzagoak (Miranda eta Martín Palomo, 2007: 191); teorikoki, etorkinen ustezko «jende-oldei» aurre egiteko xedea izan duten horiek, alegia. Izan ere, Europa-gotorleku horren testuinguruan, Espainiako Estatuak ere asko zurrundu ditu bere kontrol-politikak, Europar Batasunekoak ez diren atzerritarrei sarbide-baldintzak zailduta (Bodelón, 2007: 108). Aldi berean, immigrazioa eta segurtasun-eza lotzen dituzten diskurtsoak indartuz joan dira, atzerritarrak beti «susmagarri» bilakatuta eta, hortaz, kriminalizatuta (Martín Palomo, 2006: 29-30; Contreras, 2015: 49-50). Hainbat dikotomia ere sendotu egin dira; hala nola, «bertakoak eta kanpotarrak», «gu eta besteak», «legalak eta ilegalak» (Martín Palomo, Miranda eta Vega, 2005: 21). Horrela, etorkin-itxura dutenen gaineko kontrola, jagoletza eta presioa ere nabarmen gehiagotu dira.

Era berean, behar-beharrezkoa da legez kontrako drogen trafiko-dinamikei erreparatzea. Salbuespenak egonda ere, bereziki, osasun publikoaren aurkako delituengatik izan dira espetxeratuak jatorri atzerritarra duten emakumezko atxiloak. Egitate horrek, batez ere, *mula* edo *correo* delakoengana garamatza; hau da, gorputzaren barruan edota ekipajearen droga –kopuru txikia, oro har– garraiatzen duten emakumeengana. XX. mendeko 80ko hamarkadan eta «kartel» kontzeptuari lotuta sortutako figuraz ari naiz, oinarritzat duena trafikatzailen eta kontsumitzaileen arteko bereizketa; egia esateko, nahiko faltsua den bereizketa, lehenak «arriskutsu eta gaizto» irudikatzen baititu, eta bigarrenak «zaugarri eta biktima» (Bodelón, 2007: 112).

Emakume delitugileei buruz orokorki jasotako era berean, atzerritarren kasu zehatzean ere argi ikus ditzakegu biktimizatzea eta kriminalizatzea; maiz, diskurtso hegemonikoek «biktima» eta «delitugile» bezala aipatzen baitituzte: aldizka bata edota bestea. Batetik, kontuan hartu behar dugu askotan droga-kartelaren biktima moduan direla erretratatuak; zehatz-mehatz, gizarte-maila baxua edo arazo ekonomikoak izateagatik, «mafiek» droga garraiatzera behartu dituzten edo horretarako engainatu dituzten emakume gisa (*Ibidem*: 113). Horrela, Hegoaldeko herrialdeen «azpigarapenari» buruzko aurreiritzien markoan,

beraien herrikideek esplotaturiko emakume «ahul», «babesgabe» nahiz «otzan» bezala ageri dira (Juliano, 2011: 160-161). Alabaina, zenbaitetan hertsapenak gerta daitezkeela alboratu gabe (Janssen, 2007), ukaezina da *mula*-lana gehienetan emakumezkoek eurek hartutako erabakia dela, zio ekonomikoek bultzatuta (Ribas, Almeda eta Bodelón, 2005: 37). Bestetik, kriminalizatzeari dagokionez, aintzat izan behar dugu hainbat joerak bat egiten dutela: bai atzerritarrak susmagarritzat jotzeko Europako herrialdeetako jaidurak, bai emakume delitugileek gizarte-gaitzespen handiagoa jasatekoak, baita droga-trafikoaren gainzigtzekoak ere. Bata zein bestea, biktimizatzea zein kriminalizatzea, emakumezko horien agentzia ezezten duten posizioak dira (Mestre i Mestre, 2005: 246). Baina ez da komeni ahaztea, funtsean, droga-garraioa bizimodua hobetzeko estrategia dela; hau da, baldintzak zinez eskasak izanda ere, aukeraren bat gehiago ematen duen bidea. Encarna Bodelón juristak adierazi legez, «droga-trafiko operazio batean sartzen den emakumea ez da “emakume gajoa”, bere bizi-baldintzak hobetzen ahalegintzen ari den emakumea baizik» (2007: 114)<sup>139</sup>.

Atxilotuak eta kartzelatuak badira, emakume atzerritarrek diskriminazio espezifikoekin egingo dute topo. Espetxe-arauegiak naziotasunaren, «arrazaren» eta bestelako edozein bereizkeria debekatzen du<sup>140</sup>, eta, horren ondorioz, naziotasun espainiarra duten atxiloek aplikatutako neurri, baldintza zein eginkizun berak ezartzen zaizkie atzerritarrei. Baina hainbat zentzutan egoera zeharo diferentea denez, jarrera horrek ez ditu desberdinkeriak ekiditen. Alta, jatorri atzerritarra duten emakume presoen berariazko arazoak ezkututzen ditu. Labur esanda, kartzela-sistema «gizonezkoa» eta «bertakoa» den subjektuarentzat diseinatuta dago, eta, hortaz, nolakotasun horietatik aldentzen den pertsona oro bigarren mailan dago.

Natalia Ribas, Elisabet Almeda eta Encarna Bodelón (2005) ikerlarien iritziz, emakume atzerritarrek alderdi penalean zein espetxekoan pairatzen dituzte diskriminazioak. Maila penalari dagokionez, hiru egitate jasotzen dituzte. Lehenik eta behin, eta jadanik aipatu

---

<sup>139</sup> Gaztelaniaz jatorrizkoan: «Una mujer que se implica en una operación de tráfico de drogas no es una “pobre mujer”, sino que es una mujer que está intentando mejorar sus condiciones de vida» (Bodelón, 2007: 114).

<sup>140</sup> Zehazki, Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorraren 3. eta Espetxe Araudiaren 4.1. artikulua dira diskriminazioak galarazten dituztenak, honakoen ondoriozko desberdinkeria posibleak jasota: «sexua», «arrazaz», «naziotasuna», «iritzi politikoak», «erlijioa», «gizarte-egoera» eta «egoera pertsonala».

den bezala, *mularen* jarduera zorrozki zigortzen dela azpimarratzen dute<sup>141</sup>. Bigarrenik, erruduntasunaren nahiz erantzukizunaren ikusmoldea etnozentrikoa dela nabarmentzen dute. Izan ere, droga-intoxikazioaren salbueslea da osasun publikoaren aurkako delituen zigorra gutxitzeko tresnarik garrantzitsuena, baina horrelakoak egiten dituzten emakume atzerritarrak gutxitan dira droga-kontsumitzaileak; eta, horrez gainera, egindako bidaia nolabaiteko «sare» batek antolatu duenez gero, delitua zorrotzago zigor daiteke (*Ibidem*: 62). Azkenik, *mulak* droga-salerosketaren partaide zaurgarrienak zein kriminalizatuenak direla aipatzen dute, oroitarazita beste batzuek askoz ere babes gehiago jasotzen dutela, eta salatuta bidegabea dela sistema penala nagusiki azken katebegia zehatzera zuzenduta egotea<sup>142</sup> (*Ibidem*: 65).

Espetxe-mailari erreparatuta, beste hiru diskriminazio-era zerrendatzen dituzte. Hasteko, errotzerik ez izatetik edota hainbat harreman «errotzetat» ez hartzetik ondorioztatutako bereizkeriak nabarmentzen dituzte –Espetxe Erakundeek oro har soilik familia-erlazioak hartzen baitituzte kontuan–. Horrela, alde batetik, askok ez dute inolako bisitarik izaten, ezta inongo diru-laguntzarik ere (*Ibidem*: 78); bestetik, espetxe-prebentiboa gehiagotan ezartzen zaie eta edozein momentutan edozein presondegira lekualdatuak izateko aukera gehiago dituzte, baita irteera-baimenak, hirugarren gradua eta baldintzapeko askatasuna eskuratzeko zailtasun gehiago ere. Orokorki, beraientzat nekeza da eskatzen zaizkien baldintza pertsonalak, lanekoak eta egoitzakoak betetzea; batik bat, herrialdea alde zurretatik gutxi ezagutzen bazuten, babes-ingurunea urrun badute edota irregularki badaude. Hori dela eta, denbora gehiago egin ohi dute itxialdian eta askok irteteko duten bitarteko bakarra elkarteren batengana jotzea da<sup>143</sup> (*Ibidem*: 68). Bigarrenik, askorentzat desinformazioa, desorientazioa nahiz nahasmendua nagusi direla jasotzen dute. Izan ere, araudiak esaten duenaren arabera, kartzelaratzean, beraien jatorrizko hizkuntzan azaldu behar zaizkie honakoak: eskubideak, betebeharrak, espetxeko eginkizunak, kanporatze-

---

<sup>141</sup> Kode Penalaren 2010eko erreforma burutu arte, droga-garraiatzaile gehienek bederatzirteko espetxe-zigorra jasotzen zuten. Ironikoki, presoek «tarifa finkoa» deitzen zioten. Kodearen aldakuntzaz geroztik, sei urteko kondenak izan dira nagusi.

<sup>142</sup> Zenbait ikerketaren arabera, *mulak* espetxeratze-kuotak betetzeko erabiliak dira, nazioarteko herrialdeek droga-trafikoaren aurka hartutako konpromisoetan finkatutakoaren markoan (Torres, 2008: 19; *in* Juliano, 2014: 218-219). Horrenbestez, autore askoren iduriko (Contreras, 2014; Palma, 2014; De Miguel, 2015-03-25), zentzugabeak bezain eraginkortasunik gabeak diren drogen kontrako politiken kopia-burukoak dira; eta, gainera, benetan hipokrita da droga-kontsumitzaile nagusiak diren Iparraldeko herrialdeek Hegoaldeko herrialde produktoreetako droga-garraiatzaileak zigortzea eta kriminalizatzea.

<sup>143</sup> Ohargarria da Espetxe Erakundeek ez dizkietela elkarrekin guztiei presondegietan lan egiteko laguntza edo erraztasun berberak ematen. Esate baterako, talde katolikoak oso ugariak dira oraindik ere, eta begien bistakoa da kartzela-sistemarekiko jarrera kritikoa duten taldeei zailtasunak eta mugak ezartzen zaizkiela. Dena dela, azken urteotan azpimarratzekoa da elkarrekin profesionalen ugaritzea, hau da, gizarte-zerbitzuak, penalak zein espetxekoak eskaintzen dituztenena (Almeda, 2002: 191).



moduak, etab<sup>144</sup>. Aitzitik, dirudienez, ez da behar bezala egiten eta askok beste presoan laguntzari esker ikasten dituzte, pixkanaka, horiek guztiak (*Ibidem*: 74). Azkenik, haien sorterrian daudenekin komunikatzeko oztopoak aipatzen dituzte. Berrero ere arategiak finkatutakoari muzin eginda, telefono-deiak egiteko aukera eskaintzerakoan, ez da ordu-diferentzia kontuan hartzen<sup>145</sup>; eta, halaber, ez da deien kostu ekonomiko altua aintzat hartzen. Bisitak egiteko bidaiatzen duten senide gutxien kasuan, hainbat ordu pilatu ohi dira, baina, edonola, ez dira nahikoak; eta, teoriarik, bisitak jasotzen ez dituztenek bideo-konferentziak egiteko aukera izan arren<sup>146</sup>, praktikan, guztiz hutsala da, ez baita ia inoz betetzen. Horrenbestez, emakume atzerritar askorentzat kartzela-zigorra zinez gogorra da, familia eta lagunak urrun izatea eta komunikatzeko trabak topatzea zinez mingarriak baitira; are gehiago, kondena luzeak badira (*Ibidem*: 75).

Era berean, autore zenbaitzuen iritziz (Aguilera, 2005; García Berrio, 2011), ezin dugu ahaztu preso atzerritar askoren kondena ez dela presondegitik ateratzerakoan amaitzen. Izan ere, era irregularrean daudenek poliziak izango dituzte zain, atxilotu eta lurraldetik botatzeko<sup>147</sup>; eta, gainera, kanporatzeaz batera, Schengen Akordioaren baitako edozein herrira joateko debekua jarriko zaie<sup>148</sup>. Ustekabean, ateratzerakoan ez badute poliziek in topo egiten, egoera ez dute askoz ere hobea izango; aurrekari penalen ondorioz, ezingo baitute beraien egonaldia erregularizatu. Espetxe Erakundearen ustezko «birgizarteratzea» non dagoen galdegin dezakegu.

---

<sup>144</sup> Espetxe Araudiaren 52. artikulua hartuta, presoari informazio hori eman behar zaio bere hizkuntzan idatzitako liburuxka batean edota bere hizkuntza hitz egiten duen funtzionario edo preso baten bidez.

<sup>145</sup> Espetxe Araudiaren 47. artikulua atzerrira deitzeko ordutegi-malgutasuna jasotzen du.

<sup>146</sup> Espetxe Erakundearen arabera, bideo-konferentzia egiteko aukera dute gutxienez lau hilabeteko epean inolako bisitarik jaso ez dutenek (SGIP, 2010b: 12).

<sup>147</sup> Kasu horietan, CIE Atzerritarrak Barneratzeko Zentro batean itxiko dituzte, kanporatuak noiz izango zain. Laburki azalduta, Barne-arazoetako Ministerioaren mendekoak diren eta Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak kudeatzen dituen establezimendu publikoek ari naiz. Horietan, egoera irregularrean dauden atzerritarrak sartzen dituzte eta, gehienez, kanporatzearen zain hirurogei egun pasatu ditzakete (Martínez Escamilla, 2013: 5). Atzerritartasun Lege Organikoak espetxe-izaerarik izango ez dutela finkatzen badu ere, gertakizunek kontrakoa adierazten dute; hainbat zentzutan, baldintzak presondegietakoa baino are okerragoak baitira. Azkenaldian salaketa asko egon dira, besteak beste, honakoak jasota: desinformazioa, babesgabetasuna, hertsapenak, sexu-abusuak eta heriotzak (*Ibidem*: 11).

<sup>148</sup> Europako hogeita sei estatu daude Schengen Akordioan: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Hungaria, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburgo, Malta, Norvegia, Polonia, Portugal, Suedia, Suitza eta Txekiar Errepublika.

### 4.3. Ijitoak: aukera-eskasiari aurre eginez

Emakumezko ijitoek osatzen dute zaurgarritasun zein bereizkeria handia bizi duen beste preso-kolektibo bat. Atzerritarrak, nolabait, «etorri berriak diren besteak» badira, ijitoak «betikoak» dira (Imaz eta Martín Palomo, 2007: 220). Alabaina, lehenengoen ez bezala, ikusezintasun izugarria pairatzen dute. Beraien kasuan, kontuan izan behar dugu Europa osoan historikoki diskriminatua eta baztertua izan den gutxiengo etniko baten inguruan ari garela. Esaterako, Barań taldeak (2001, 2007) dioenez, egunerokotasunean arruntak dira ijitoekiko desberdinkeriak, estereotipo negatiboak, baita nolakotasun kultural nahiz ekonomia-modu propioak baloratzeko eragozpenak ere. Ondorioz, gutxietsiak izan dira beraien artean ohizkoak izan diren salmenta ibiltaria, txatarra-bilketa zein erregularizatu gabeko beste hainbat jardura; eta, halaber, kasik hutsalak izan dira bestelako enpleguak lortzeko aukerak. Beraz, salbuespenak salbuespen, pobrezia nagusi izan da ijitoen artean eta, maiz, baita bizigarritasun-baldintza eskasak, eskolatze-eza zein eskola-abandonatze goiztiarra, bazterketa sozialari lotutako osasun-gaitzak, etab. Egoera are kezkarriagoa bilakatzen da aintzakotzat badugu diskurtso hegemonikoek erantzukizun osoa ijitoengan jartzen dutela, «integratu nahi ez dutenak haiek dira» bezalako bitartez; era horretan, desberdinkeriek irautea ahalbidetuta.

Orokorrean, ijitoen kulturari, historiari zein egungo errealitateari buruzko ezjakintasuna handia da, eta, testuinguru horretan, aniztasuna eta ñabardurak desagerrarazten dituzten irudikapen estereotipatuak eta sinesmen lauak sendotzen dira (Barań, 2001: 29). Horiei jarraituz, ijitoen kriminalizatzearekin egingo dugu topo. Kasurako, oso zabaldua dagoen aurreiritzietako batek «ijitoa» eta «delitugilea» bateratzen ditu; «ijitoa-delitua-lapurreta» edota «ijitoa-delitua-droga» bezalako loturen bitartez (*Ibidem*: 41). Gainera, gutxi balitz bezala, horiek ez dira pairatzen dituzten estereotipo negatibo bakarrak; jendartean sarri entzun baita «ez dira fidagarriak» edo «engainatzaileak», «mendekatiak», «alferrak» eta «arrazistak» ere direla. Bestalde, gehienetan, mespretxu-ideia horien guztien larritasuna gutxiesten da (*Ibidem*: 46-47); baina ezin dugu alde batera utzi iritzi kriminalizatzaileek ijitoengan dituzten ondore aipagarriak. Izan ere, egon badaude delituzko ekintzak ijitoen artean, jakina; jendartearen gainerakoan dauden bezalaxe, ordea. Haatik, espetxeratzeak beraiei eragi(te)n die bereziki; neurri handi batean, polizia-presioa eta sistema penalaren zein kartzelakoaren mekanismo hautakorrak direla eta; baina baita, bazterketa sozialaren ondorioz, ijito batzuek bizirauteko eskura izan duten diru-iturri ia-ia bakarra delitua izan

delako ere. Horrenbestez, hausteko oso zaila den dinamika batean sartuta daude (Barańí, 2007: 164) eta marko horretan kokatu behar ditugu emakumeen bizipen zehatzak.

Datuak aztertuta, emakume ijitoen kasuan ere topatuko dugu espetxe-gainordezkapena. Egia esateko, orokorrean bizi duten ikusezintasun handiagoaren adierazle gisa, ez dago kopuru ofizialik, Espetxe Erakundeek egite «diskriminatzailea» izango litzatekeela uste duelako; baina, berriz ere, bereizkeriak ekidin beharrean, horrek lortutako gauza bakarra ijitoen berariazko desberdinkeriak ezkutatzea da. Dena dela, burututako zenbatespenen arabera, emakume presoek totalaren %25-30 inguru direla kalkulatu da; hots, kartzelan duten presentzia gizartean orokorki dutena baino hogealdi handiagoa dela<sup>149</sup> (Barańí, 2001: 14). Halaber, adierazi da atxilo behin baino gehiagotan egon direnen zenbatekoa batez bestekoa baino altuagoa dela<sup>150</sup> eta, hori dela eta, denbora gehiago betetzen dutela itxialdian (Imaz eta Martín Palomo, 2007: 222).

Barańí lantaldearen (2001, 2007) emaitzei erreparatuta, kartzelatutako emakume ijitoen artean bi profil nagusi daude: alde batetik, droga-menpekotasuna duten emakumeena<sup>151</sup>, beraien kontsumoa ahalbidetzeko ebasketak eta lapurreta txikiak egiten dituztenak; eta, bestetik, osasun publikoaren kontrako delituak egiten dituztenena, gehientsuenetan kalesalmentan ibilitakoak direnak eta, beraiek droga-kontsumitzaileak gutxitan izanda ere, maiz, menpekotasuna duen senideren bat badutenak<sup>152</sup>. Egia esateko, arrunt samarra da, batzuen zein besteen kasuan, nahasturik egotea familia, droga-kontsumoa eta delituzko ekintzak; eta, horren ondorioz, batzuetan, hainbat senitartekok bizi dute kartzelaratzea, aldi berean izan nahiz aldizkatuta izan<sup>153</sup>. Testuinguru horretan, hainbatetan iradoki izan da emakume ijito asko beste batzuek egindako delituengatik daudela preso, nolabait ere, aditzera emanda familiako gizonak babesteko autoerruztatzen direla. Horrelako kasuren bat edo beste egon daitekeenik baztertu gabe, ideia hori ezin da inondik inora orokortu; ez baitu benetako egitateekin bat egiten, ijitoen ustezko «matxismo izugarriari» buruzko

---

<sup>149</sup> Sistema penalaren izaera hautakorren erakusle argi moduan, askotan aipatu dira Estatu Batuetako beltzen edota Australiako aborigenen kasuak. Nabarmengarria da ijitoen gainordezkapena are handiagoa dela (Barańí, 2001: 14).

<sup>150</sup> Barańí lantaldeak 1999an zehar Espainiako Estatuko hainbat presondegitan egindako ikerketaren arabera, %61ekoa zen emakume ijito berrerorleen kopurua (Imaz eta Martín Palomo, 2007: 222) eta, batez beste, 2,6 espetxeratze zituzten (Barańí, 2001: 112).

<sup>151</sup> Barańí lantaldearen emaitzak hartuta, emakume ijito presoek %45 droga-kontsumitzailea zen edo izana zen (Imaz eta Martín Palomo, 2007: 221).

<sup>152</sup> Ikerketaren arabera, emakume ijitoen artean, jabetzaren aurkako delituak %40 ziren, eta horien %85 droga-menpekotasunari lotuta zeuden. Osasun publikoaren kontrako delituak %60 ziren (Martín Palomo, 2002: 156).

<sup>153</sup> Barańí lantaldeari jarraiki, emakume ijito presoek %63k bazuen senideren bat espetxean (*Ibidem*: 157).

estereotipoekin baizik (Barańí, 2001: 35). Inolako zalantzarik gabe, giltzapean dauden emakume ijito gehienentzat delitua hautatutako balizko diru-iturria izan da; beharbada, emaitza desiratutakoa ez izan arren.

Bestelako ezaugarriak aintzat hartuta, ohargarria da gaineratiko presoek baino ikasketamaila baxuagoa izan ohi dutela. Azken urteotan egoera nabarmen aldatzen ari den arren, oraindik ere deigarriak dira analfabetoak diren eta lehen mailako ikasketak bukatu ez dituztenen kopuru altuak<sup>154</sup>, bereziki, adinduenen artean (*Ibidem*: 127). Gainera, hori dela eta, askotan, ezjakintasun handiz bizi dituzte bai prozesu penala bai presondegikoa, zaurgarritasuna eta babesgabetasuna gehiagotuta (Martín Palomo, 2002: 157). Bestalde, aipagarria da, gaineratiko emakume atxiloekin alderatuta, ijitoek familiaren sostengu eta laguntza irmoa ere izan ohi dutela; batez ere, droga-kontsumitzaileak ez badira (Barańí, 2001: 116). Gehienak ama dira eta batez bestekoak baino seme-alaba gehiago dituzte<sup>155</sup>. Preso hartzen badituzte, haurrak familiako beste emakume batzuen ardurapean gelditu ohi dira, nagusiki amonenean, edo, bestela, aitarenean; baina azpimarratu beharrekoa da askok erakunde publikoetan ere amaitzen dutela<sup>156</sup> (Imaz eta Martín Palomo, 2007: 220-221).

#### **4.4. Droga-kontsumitzaileak: menpekotasunaren eta delituzko ekintzen artean**

Emakume presoaren artean kontuan hartzekoa den azken profila droga-kontsumitzaileena da. Baina, egia esan, hori oso kontzeptu zabala da, lausoa edo zehaztugabea; eta, hortaz, nahitaezkoa da zehazki zer esan nahi dudana argitzea. OME Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, drogak dira banakoari aldaketa fisiologikoak edo psikologikoak eragiten dizkieten gai kimiko guztiak, sintetikoak edo naturalak, legezkoak nahiz legez kanpokoak (Mountian, 2007: 73). Beraz, drogak hartzen dituzten emakumeak aipatzean, aniztasun handia azaleratzen da; substantzia-motari, kontsumoaren nolakotasunari, baita pertzepzio sozial anitzei dagokienez ere. Haatik, delituzko ekintzen zein kartzelaratzee

---

<sup>154</sup> Barańí lantaldearen datuen arabera, %32 erabat analfabetoa zen, ez baitzekien ez idazten ez irakurtzen ere; %27,7k bazekien irakurtzen, baina ez idazten; eta %25k ez zituen lehen mailako ikasketak bukatu. Beraz, %84,7k nahiko hezkuntza-maila baxua zuen (Barańí, 2001: 127).

<sup>155</sup> Barańí lantaldeak egindako ikerketaren emaitzak hartuta, emakume preso ijitoen %87 ama ziren eta batez beste 3,7 seme-alaba zituzten (*Ibidem*: 123).

<sup>156</sup> Barańí lantaldearen kopuruen arabera, seme-alaben tutoretza galtzen zuten emakume ijitoen zenbatekoa %15ekoa zen (Imaz eta Martín Palomo, 2007: 220-221); hortaz, batez bestekoa baino zertxobait altuagoa.

inguruan hitz egin nahi badugu, nagusiki alkohola eta legearen kontrako drogak hartzen dituztenengan eta, nolabait ere esateko, erabilera «problematikoa» egiten dutenengan jarri behar da arreta; horiek baitira bereziki jazartzen eta giltzapean sartzen dituztenak, hau da, bai kriminalizatzea bai zaugarritasuna bizi dituztenak. Horrela, EDIS ikerketalantalde soziologikoari jarraiki, finkatuko dut droga-menpekotasun aktiboa duten edota droga-kontsumoa osasunarentzat nabarmenkiro kaltegarria den moduan egiten duten emakumez ari naizela (2005: 33), definizioaren mugak muga. Komenigarria litzateke «menpekotasunaren» eta «kontsumoaren» arteko xehetasunei sakonkiago heltzea; baina oso zaila da bataren eta bestearen arteko aldeak ezartzea.

Era berean, benetan nekeza da legez kontrako drogak hartzen dituzten emakumezkoen profil soziologikoa eta kriminologikoa nolakoa den zehaztea; oso gutxi argitaratu delako gaiaren inguruan (Almeda, Di Nella eta Navarro, 2012: 135) eta, horrez gainera, antza denez, azken urteotan kontsumo-moduak zein jatorrizko egoera sozioekonomikoak asko ari direlako aldatzen. Edozelan ere, EDIS taldeak (2005) Espainiako Estatuan egindako lanari jarraituta, esan dezakegu, oro har, droga-kontsumoan nahiko gazterik hasi diren emakumeak direla eta, maiz, ez dutela bizileku finkorik izan; gehienak ez direla zentratu inolako lanbidetan edo enplegutuan, eta batzuk, uneren batean edo bestean, prostituzioan aritu direla; gaineratiko emakume presoengan baino arruntagoa dela familia-harremanak hautsita egotea, baita, ama direnen kasuan, seme-alabak erakunde publikoen ardurapean izatea ere (*Ibidem*: 114-116). Bestalde, ugariak dira indarkeria sexista pairatu dutenak. Batzuetan, egile zenbaitzuk biolentzia jasan izanaren eta drogak hartzearen arteko lotura ezarri nahi izan dute (Cruells, Igareda eta Torrens, 2005a: 80) baina, ziur aski, kausazko erlazioa egitea gehiegizkoa da. Hala ere, ezin ukatuzkoa da biak ala biak zaugarritasuna gehiagotzen duten egitateak direla (Martínez Redondo, 2009: 54).

Aurreko kasuetan bezalaxe, garrantzizkoa da beraien inguruko aurreiritziei heltzea. Izan ere, orokorrean, egoera nahiko lazgarria da, estigmatizatzea zein kriminalizatzea direla eta. Alde batetik, aintzat izan behar dugu, iruditeria kolektiboaren arabera, emakumezko drogazaleen ezaugarrien artean daudela menpekotasuna, kontrolik eza eta desoreka, eta, ondorioz, aditzera ematen dela «emakume eskasak» bezain «ama txarrak» direla; hala, modelo hegemonikotik urrunduta (Mountian, 2007: 73). Bestetik, kontuan hartu behar dugu gizartean ohikoa dela «droga» eta «delitua» bata bestearekin lotzea ere, eta horrek droga-kontsumitzaileak direnen kriminalizatzea nabarmenki bultzatzen duela. Ezbairik

gabe, drogazalea izateak ez dakar delituzko ekintza bat egitea; baina droga-hartzaileen kriminalizatzek, ordea, badakar polizia-jagoletza sektore jakin batzuegan areagotzea; nagusiki, bazterketa-egoeran daudenengan edota pobreak direnengan (Almeda, Di Nella eta Navarro, 2012: 125), menpekotasuna asetzeko, droga-salerosketan nahiz lapurretan aritzeko aukera gehiago dituztelakoan. Bestalde, estigmatizatzek eta kriminalizatzek gizarte-gaitzespena handiagotzea eragiten dute, droga-menpekotasuna gainditzea edota delituzkoak ez diren diru-iturriak lortzea zailduta; eta, hori dela eta, batzuetan nekeza da dinamika horiek haustea, batez ere, ez badago gizarte-sare sendorik (EDIS, 2005: 121).

Datuei erreparatuta, droga-kontsumitzaileak ere presondegietan gainordezkatuta daudela ikusiko dugu; Espetxe Erakundearen kopuruen arabera, 2011n, kartzelaturako emakumeen %71,7k hartu baitzituen drogak preso sartu aurreko azkeneko hilabetean, alkohola eta kokaina nabarmenduta<sup>157</sup> (SGIP, 2014: 181). Askorentzat kontsumoa egunerokoa zen, gutxiengoa ziren drogak uzteko tratamenduan zeudenak (Almeda, Di Nella eta Navarro, 2012: 136) eta gehienentzat delituzko ekintza drogazaletasuna ahalbidetzeko bidea izan zen; droga ilegaleen garraioa edota salmenta, ebasketak nahiz lapurretak izan. Eskuarki, espetxean behin baino gehiagotan egon direnen kopurua drogak hartzen ez dituztenena baino altuagoa da (Castillo eta Ruiz, 2010: 486) eta, hala, denbora gehiago bete ohi dute giltzapean.

Espetxeratzean, droga-kontsumoa uzteko hainbat egitasmo eta baliabide izaten dituzte. Esate baterako, ondorengo programak daude: prebentzioa eta osasun-heziketa, xiringen trukea, metadona-tratamendua, desintoxikazioa, kontsumoaren ohitura kentzea, etab.<sup>158</sup>; baita teoriarik droga ilegalek gabeko espazioak diren Modulu Terapeutikoak eta Errespetu Moduluak ere. Baina, antza denez, neurriek ez dute inolako genero-ikuspegirik, gabezia nabarmenak dituzte eta ez dira nahikoak (De Miguel, 2015); berriro ere, Espetxe Erakundeek lehentasun osoa ematen baitiote erregimenari –hau da, segurtasunari zein jagoletzari–, tratamenduari beharrean (Eusko Jaurlaritza, 2004: 45). Edozelan ere, eta jakina denez, oroitarazi behar da presondegi guztietan –eta Euskal Herrikoetan ez dago salbuespenik– droga-kontsumoa eta salerosketa daudela<sup>159</sup>. Hala, askok drogak hartzen

---

<sup>157</sup> Zehazki, hurrenkera ondorengoa zen: alkohola (%27,3), kokaina bakarrik (%18,5), haxixa eta beste batzuk (%11,8), heroina eta kokaina (%9,1) eta heroina bakarrik (%5) (SGIP, 2014: 181).

<sup>158</sup> Erreferentziaren bat ematearren, 2008ko abenduan, Espainiako Estatuko emakumezko presoen %20 zegoen drogak uzteko tratamenduan (SGIP, 2009a: 21).

<sup>159</sup> Kasurako, EAEn 1996an eta 2002an egindako ikerketaren arabera, emakumezko atxiloen erdiak baino gehiagok hartu zituen legez kontrako drogak bere espetxealdian zehar (Manzanos, 2007: 147).

jarraitzen dute kartzelaldian zehar; eta, kasu zenbaitzuetan, aurretik egiten ez zuten batzuek ere droga-kontsumoari ekiten diote. Gainera, legez kanpoko drogekin batera, medikalizatzeko orokorra ere hartu behar dugu kontuan. Izan ere, askorentzat itxialdia arintzeko bideak dira; pentsamendu mingarriak alboratzekoak eta ondorio atsegingarriak eskuratzekoak (Lledó eta Álvarez, 2011: 130). Horrenbestez, beste behin ere, espetxe-sistema zertan dabilen egin dezakegu duda.





## 5. Emakume atxiloen erresistentzia-praktikak: hainbat aipamen, iruzkin eta zertzelada

Praktikak *sortzen badu boterea*, praktika *ere izango da* praktika  
*botere-zapaltzaileei aurre egiteko bidea*.

Avtar Brah (2004: 133)<sup>160</sup>

Aurreko atalburuetan kartzelatutako emakumeen nondik norakoetara hainbat alderditik hurbildu eta gero, jarraian, marko teorikoaren azken kapitulu honetan, agentziaren gaiari erreparatuko diot. Izan ere, gehienetan, gutxietsi, ezkutatu edota ikusezin bihurtu den egitatea da; alabaina, behar-beharrezkoa da kontuan hartzea emakume presoak subjektu aktiboak direla eta hori espetxeko egunerokotasunean azaleratzen dela. Bestela esanda, sarri, haien giltzapeko egoera lantzen denean, soilik kartzela-sistemaren izate sexistaren, androzentrikoaren eta diskriminatzailearen ondorioak aipatzen dira; nire iduriko, ordea, nahitaezkoa da harago joatea, espetxeari nola edo hala aurre egiteko gauzatzen dituzten erresistentzia-praktikei helduta. Azken batean, testuinguru konplexuenetan eta baldintza ezkorrenetan ere, topa ditzakegu giza-ekintza eta erresistentzia; norbanakoak, gutxienez, jasaten duten egoera konpentsatzen saiatzen baitira (Juliano, 1992); nahiz eta, tamalez, gure muga teoriko, politiko zein sozialen ondorioz, askotan, ez garen hori antzemateko gauza (Esteban, 2013: 176). Horrenbestez, atalburu honetan, emakume atxiloak agente direla nabarmendu nahi dut, ikuspegi biktimizatzaileak alboratuta. Horretarako, lehen azpiatalean, funtsezkoak diren kontzeptu batzuen azalpenari ekingo diot; bigarrean, erresistentzia-ekintzen azterketak zer-nolako presentzia izan duen antropologian nahiz ikerketa feminista eta generokoetan adieraziko dut; eta, azkenekoan, espetxeratutako emakumeen erresistentzia-praktiken inguruan egindako lan urrietara gerturatuko naiz.

---

<sup>160</sup> Gaztelaniazko bertsioa: «*Si la práctica produce poder entonces es también la práctica el medio para desafiar a las prácticas opresoras de poder*» (Brah, 2004: 133). Enfasiak autorearenak dira.

## 5.1. Esanahietan barrena: agentzia, boterea, erresistentzia

Emakumeek presondegietan burutzen dituzten egintzak landu ahal izateko, lehenik eta behin, argi eta garbi gelditu behar da zehazki zer esan nahi dudana «agentzia», «boterea» edo «erresistentzia» diodanean. Beraz, gako diren nozio horiek definituz –testuinguruan jarritz, behinik behin– hasiko naiz, nire burua kokatuta, hausnarketa teoriko zenbaitzuen bidez. Nagusiki, antropologiaren eta teoria feministaren baitan plazaratu diren ekarpenei helduko diet, eta garrantzi berezia emango diet Sherry B. Ortner (1996, 1999, 2003, 2006) antropologoaren lanei, kontuan hartu beharreko gogoetak ekarri dituztenez gero, kulturaren, boterearen eta ekintzaren arteko interrelazioak (bir)pentsatzeko.

Abiapuntu izanda praktikaren teoriaren ideiak nahiz planteamenduak (Bourdieu, 1977; Giddens, 1979; Sahlins, 1981), Ortnerrek norbanakoek ekintzarako duten gaitasunaren inguruan hausnartu du, baita aktore sozialek «eremuan» dituzten praktiken eta «egitura» edo «sistema» handien arteko harremanen inguruan ere. Bere ekarrien arabera, praktika giltzarri da subjektibotasun(ar)en eraikuntzan zein munduaren ekoizpenean; bada, bere ustez, praktiken bidez, munduak subjektuak sortzen ditu eta subjektuek mundua sortzen dute; hots, kulturak –zentzu zabalenean– pertsonak aktore sozial bezala eraikitzen ditu, eta horiek, beraien egunerokotasunaren nahiz jardute beti aldagarrien bidez, sortu dituen kultura erreproduzitzen edota eraldatzen dute –bitzuk, normalean–. Praktikaren teoriari jarraituta, kulturak hainbat kontu ikustea, sentitzea, irudikatzea eta ulertzea ahalbidetzen digu, eta, aldi berean, beste batzuk ikustea, sentitzea, irudikatzea eta ulertzea eragozten digu (Ortner, 2006: 14). Testuinguru horretan, egiazkoak dira hertsapenak, mugak nahiz murrizketak, eta ez ditugu ukatu behar; baina, halaber, ez gara soilik haiengan zentratu behar, beraien sortze- eta birsortze-prozesuak ahaztuta edota norbanakoen agentzia eta praktika sozialek baztertuta, emaitza problematikoa bezain eskasa izango litzatekeelako betiere (*Ibidem*: 2). Egilearen hitzetan, «historiak pertsonak egiten ditu, baina pertsonak egiten dute historia» (2003: 277)<sup>161</sup>. Bere iritziz, itxuraz kontraesankorra dirudien esaldi horrek, benetan, ez dakar inolako kontraesanik, eta, gainera, beharbada bizitza sozialari buruzko egia sakonena eta absolutuena da (Ortner, 2006: 2).

Autorearen motibazio nagusia ezagutzan urratsak ematea da; zehatz-mehatz, sakonago ulertu ahal izatea nola den posible egitura handiek norbanakoen praktikak murriztea edo

---

<sup>161</sup> Ingelesez jatorrizkoan: «*History makes people, but people make history*» (Ortner, 2003: 277).

mugatzea, eta, aldi berean, horiek ahalbidetzea, gizarte-ekintzak beti aldarazi ditzakeela (*Ibidem*: 3). Horretarako, galdera berrien bila, «joko serio» (Ortner, 1996, 1999, 2006) kontzeptua baliatu du, aditzera emanda kulturalki antolaturiko gertaera sozialak direla, non aktore sozialek nolabaiteko agentzia duten eta euren gaitasunen, asmoen, usteen eta ezagueren arabera jokatzeko duten (Ortner, 1996: 12). Bere planteamenduan, praktikaren teoria orokorrean bezalaxe, bizitza soziala aktiboki egiten da kulturalki eratutako xede edo proiektuen markoan, eta berekin dakartza gutxi-asko ohikoak eta berariazkoak diren praktikak; baina bere ikuspegiak bestelako ekarpena ere egiten du, arreta-gunea gizarte-harremanetan –eta, bereziki, botere-harremanetan– finkatzen baitu, baita aktore sozialen subjektibotasunaren alderdi konplexuenetan ere, batik bat, «nahitasuna» eta «agentzia» landuta (Ortner, 2006: 129). Joko serioen ideiak bere gain hartzen du aktoreak kulturalki antizak bezain konplexuak direla; eta hori oinarri harturik saiatzeko da bizitza sozialaren indarrak, eraketak zein eraldaketak ulertzen. Testuinguru horretan, berebiziko garrantzia hartzen dute boterearen eta agentziaren arteko erlazioek, zein boterearen, dominazioaren eta bereizkeriaren artekoek (*Ibidem*: 130-131). Mundua norbanakoen ekintzen bitartez – zentzu zabal eta korapilatsuan– «egiten» denaren ikuspegiak berekin dakar desegin zein berregin daitekeela; aldaketaren aukera dagoela, alegia. Hala, praktikak ondore politiko argiak ditu eta Ortnerrek feminismoarekin lotzen ditu. Zehazki, feminista, gutxiengoena eta mendekoena izango den praktikaren teoria baten alde egiten du, tresna erabilgarria izan daitekeelakoan boterea, dominazioa nahiz bereizkeria (bir)pentsatzeko (*Ibidem*: 6), baita bestelako zapalketa-ardatzekin –etniarekin edo gizarte-klasearekin, kasu– dituzten artikulazioak lantzeko ere. Ondorioz, bereziki ardura zaizkio ondorengo egitate hauek: boterearekiko erresistentzia eta dominazioaren anbiguetatea, kontraesana zein hutsunea; azken batean, horiek baitira erakusten dutenak erreproduzio soziala ez dela totala edo absolutua, inperfektua baizik, eta botere-asimetriaren egoeretan sortzen diren presio eta ezegonkortasunekin hertsiki lotuta dagoela (*Ibidem*: 7).

Ortnerrek abiapuntu du aktore sozialak agenteak direla beti eta ezinezkoa dela beraien agentzia gizarte-harremanetatik landa ulertzea. Halaber, erlazio askoren parte dira, ez baita posible haietatik «kanpo» «izatea» edo «egotea». Askotariko hartu-emanek ari naiz; kontuan hartuta bai maitasuna bai elkartasuna, baita lehiakortasuna, norgehiagoka nahiz bereizkeria ere. Azken finean, garrantzizkoena ez da harremanaren nolakotasuna, aktore guztiak erlazio sozialen parte direla baizik. Denak daude halakoetan nahasturik, etengabe korapilaturik, katramilaturik, joko serioen ekintzen bidez. Egiazki eta nahitaez

sozialak diren izakiak diren heinean, beraien praktikak soilik gertatu daitezke jendarteek eraturako harreman-sareen baitan; eta, hortaz, birtualki ezinezkoa da «askea» den agentea irudikatzea, esan nahi baita, ez dela posible norbanakoen xedeak «hutsune sozialean» sortzea edo betetzea, eta ezin dituztela erlazioak «guztiz» kontrolatu beraien jomugak lortzeko (*Ibidem*: 152). Beraz, banakoek testuinguruan elkarri eragiteko duten gaitasuna adierazten du agentziak, oinarri hartuta nahitako eginbideen bitartez –horiek kontzienteagoak ala inkontzienteagoak izan– ahalmena dutela boterea negoziatzeko eta haien egitasmoak –indibidualak edo kolektiboak– lortzea bideratzeko, nahiz eta, betiere, posibilitate-baldintza zehatzen barnean. Horrenbestez, ezegonkorak bezain aldakorak diren gure gizarte-harremanetan, giltzarria elkarrekintza da; hots, negoziazioa.

Aitzitik, zenbait eztabaida daude ondorengo hauek argitu edo zehazterakoan: ekintzaren nahitasunaren garrantzia, bere izaera kulturala eta boterearekiko lotura. Kontu horietan barrena, lehenik eta behin, jarduteak gutxi-asko nahita burututakoak izatearen inguruan egin beharra da gogoeta; eta esan daiteke gai horri buruz lanean dabiltzan teorialariak *continuum* batean daudela: mutur batean daude agentziari buruzko definizio «suabeak» edota «samurrak» defendatzen dituztenak, zeintzuentzat nahitasuna ez den inondik inora zentrala; eta beste muturrean daude definizio «gogorrak», «zurrinak» edota «zorrotzak» erabiltzen dituztenak, pentsatzen baitute nolabaiteko nahitasuna –kontzientea ez izanda ere– ezinbestekoa dela mugak finkatu ahal izateko agentziaren eta praktika ohizko edo arrunten artean, nolabait ere, «egitea» eta «jokatzea» bereizita. Ornerren iritziz, guztiz funtsezkoa da agentzian intentzio bat dagoela aintzakotzat izatea, baita errutinaz edota ohituraz egiten ditugun praktiken eta modu berariazko(ago)an egiten ditugunen arteko bereizkuntza argi izatea ere; baina ez da komeni ikuspegi dikotomikoekin aritzea, maiz, ezberdintasunak ez direlako agerikoak. Bere iduriko, nahitasuna da agentziaren osagarri nagusia, eta bere baitan ditu hainbat egoera kognitibo edo emozional nahiz kontzientzia-maila. Horrela, barne hartzen ditu bai egitasmoak bai eskemak, baita xedeak, jomugak eta intentzioak ere, idealak, desioak edota premiak bezalaxe. Oinarrizkoena da, Ornerri jarraituta, ekintzak helburu batzuen lorpenera bideratzen direla (*Ibidem*: 134-136).

Bigarrenik, agentziaren izaera kulturalaren inguruan egindako interpretazioei erreparatu behar diegu. Oro har, adostasuna dago agentzia, nolabait, unibertsala dela baiesteko, eta, hortaz, gizateria osoari estrapolagarria dela defendatzeko, gizabanako guztiei atxikitako ezaugarria delakoan; baina, era berean, kontsentsu zabala dago kulturalki eta historikoki

eraikitako zerbait dela baieztatzeko. Hau da, teorialari gehienak bat datoz ulertzearekin banakoek nahitako ekintzak burutzeko nola edo halako ahalmena dutela, baina agentzia horren nolakotasuna marko espazialaren nahiz denborazkoaren arabera dela (*Ibidem*: 136). Horrenbestez, ez dago agentziarik bere eraikuntza soziokulturaletik kanpo; bestela esanda, kultura eta une historiko bakoitzak bere agentzia-modu propioak eratzen ditu, eta ez dago alde zuzenetik inolako borondate berezkorik, naturalik edota jatorrizkorik. Horrela, aditzera ematen da agentzia nahimen zein desira zehatzen bitartez osatzen dela, proiektu jakinen lorpena helburu, kulturalki eraturako sentimenduen, pentsamenduen eta esanahien subjektibotasunaren baitan –azken hori kontzientzia kultural eta historiko gisa hartuta, betiere konplexu bezain gogoetatsua– (*Ibidem*: 110).

Hirugarrenik, eta azkenik, agentziaren eta boterearen arteko harremana jorratu behar da. Izan ere, neurri batean, agentzia boteretzat uler daitekeen arren, bi nozioen arteko hartu-emanaren haratago doa eta hori baino askoz ere konplexuagoa da. Hala, Ortnerren iduriko, kontzeptuok hertsiki lotuta daude, bi arrazoi direla eta: alde batetik, joko serioak botere-harremanetan gertatzen direla; eta, bestetik, botere-adierazpenaren nolakotasuna modu batekoa edo bestekoa izan, agentzia ere modu batean edo bestean gauzatzen, hornitzen eta eraldatzen dela. Planteamendu hori oinarri, autorearentzat agentziak bi esanahi ditu: agentzia boterearen zentzuan eta agentzia proiektuen (bilaketaren) zentzuan. Egia esan, ez dira guztiz diferenteak diren esangurak, eta, hortaz, sarri, zaila da bereizketak egitea; baina, edonola ere, banaketa baliagarria da aldaeren arteko kontrastea islatzeko: batetik, lehenengoa, botere-erlazio handietan –kasurako, kolonialismoan edo esklabotzan– nahiz dominazio-erresistentzia ardatzean eratzen den agentzia; eta, bestetik, bigarrena, botere-asimetria (hain) begi-bistakoa ez den testuinguruetan sortzen dena, non onuraren logika eta desiratutakoa lortzeko ekintzak gailentzen diren (*Ibidem*: 145).

Proiektuen bilaketari dagokionez, aintzat izan behar dugu, hainbat ikuspunturen arabera, nahitasuna dela agentziaren elementurik funtsezkoena (*Ibidem*: 147). Mendeko taldeei ukatzen zaien alderdia da; baita sektore ahaltsuentzat botere bezala azaleratzen dena ere –menderatzea gutxitan dute berezko helburu eta, aitzitik, gehienetan, beren egitasmoak gauzatzeko bitarteko dute–. Halaber, botere gutxi(ago) dutenek bultzatu eta babestu nahi dutena ere bada, horretarako eremuak sortuta eta mantenduta «boterearen bazterretan». Agentziaren ideia horrek bat egiten du gizarte-agenteen jomuga, asmo nahiz desioekin;

botere-desoreken markoan, kulturalki osatutako jomuga, asmo eta desioekin, hain zuzen ere (*Ibidem*: 144).

Agentzia botere moduan hartuta, aldiz, kontuan izan behar dugu botereak bi dimentsio dituela harremanetan; izan ere, «gainetik» aritu daiteke dominazio bezala, edo «azpitik» erresistentzia gisa (*Ibidem*: 139). Segur aski, agentzia kontzeptuaren erabilera ohikoena banakoek eskura dituzten botere-moldeen sinonimoarena da, jokatzeko ahalmenarena, baita egoerak aldatzeko gaitasunarena ere (*Ibidem*: 143-144). Zentzu horretan, agentziak berebiziko garrantzia du bai dominazioarentzat bai erresistentziarentzat. Azken batean, posizio boteretsuetan daudenek –modu bidezkoan izan ala ez– «agentzia handia» dutela esaten da, baina ezin dugu ahanzi zapalkuntza jasaten dutenek ere, desberdinkerian eta mendeko mailan daudenek, badituztela nolabaiteko gaitasunak –eta, batzuetan, benetan adierazgarriak– egoerengan eragiteko eta aldaketak pizteko. Horrenbestez, erresistentzia agentzia-boterearen aldaeretakoa bat dela defendatu du Ortnerrek (*Ibidem*: 144).

Egilearen iritziz, erresistentziaren aukera zehaztugabea, lausoa eta ospel samarra da, eta, ondorioz, baita hautemateko zailagoa ere. Baina, nolana ere, inportanteena da begietan edukitzea betiere presente dagoen posibilitatea dela (*Ibidem*: 149). Era berean, nahiz eta Ortnerrek pentsatzen duen erabilgarria dela agentzia boterearen zentzuan eta egitasmoen zentzuan bereiztea, eta erresistentzia agentzia-botere bezala definitzen badu ere, aintzat hartzekoa da erresistentzia proiektu moduan ere uler daitekeela, hainbat helburu babestu nahi dituelako, edo, gutxienez, helburuak edukitzeko eskubidea (*Ibidem*: 147). Arestian esan bezala, berez, dominazioa ez da jomuga izaten, zenbait egitasmo gauzatzeko bidea baizik. Alabaina, mendeko posizioetan daudenek ez dute agentzia-faltarik, eta, gainera, ezinbestean, euren proiektu propioak dituzte. Hortaz, bai dominazioa bai erresistentzia, bata zein bestea, uler daitezke egitasmoen bilaketaren testuinguruan, hau da, kulturalki osatutako xedeak zein helburuak lortzeko ahalmenarenean (*Ibidem*: 153). Horrenbestez, dominazioaren eta erresistentziaren arteko dialektika tirabira moduan ikus daiteke; hain zuzen ere, proiektu, jomuga nahiz desio anitzen arteko talka bezala (*Ibidem*: 151).

Erresistentziaren anbiguotasuna eta norbanakoen ekintzen anbibalentzia subjektiboa ere landu ditu Ortnerrek. Izan ere, egoerak konplexu samarrak dira, sektore menderatzaileen eta menderatuen artikulazio- zein desartikulazio-sareetan azaleratzen baita erresistentzia (*Ibidem*: 62). Botere-harremanen markoan, zapal dutako posizioan daudenei zer eskaini izan ohi du dominazioak; eta, egia esanda, sekulako akordioa ere izan daiteke, nahiz eta,

betiere, boterea mantentzearen truke, jakina. Menderatuek, haien aldetik, erresistentzia-esparru zabala izango dute, horretarako zenbait jardunbide baliatuta; eta garrantzitsua da kontuan hartzea, zentzu horretan, ez dutela inolako talde bateratutik osatzen. Gatazkak, liskarrak, tentsioak nahiz kontraesanak egon ohi dira, egoerari buruzko ikusmolde edota posizionatze anitzak daudenez gero, eta, horrenbestez, jokatzeko erak ere askotarikoak direnez gero (*Ibidem*: 44-45). Hainbeste dira aukerak, ezen dominazioa onartzen duten mendekoak ere egon baitaitezkeen –euren jarrerarekin erresistentziarako posibilitateak ahultzen badituzte ere– (*Ibidem*: 52). Halaber, zapaldutako horien jomugen ugaritasuna behatzen badugu, nabarmendu beharra dago erresistentzia menderatzearekiko aurkaritza edo erantzun mekaniko hutsa baino askoz ere gehiago dela; zalantzarik gabe, sortzailea bezain eraldatzailea baita (*Ibidem*: 46).

Antzeman daitekeenez, Ortnerren hausnarketek eta ekarpenek Foucault (1976a, 1976b, 1977, 1982) filosofoaren ideiak ekartzen dituzte gogora; hain zuzen ere, boterearen zein erresistentziaren inguruko galdera edota itaunei konplexutasun handiagoa erantsitako planteamenduak. Izan ere, Foucaultek botere-harremanen azterketa sakonari ekin zion, dominazioaren eta erresistentziaren arteko dikotomia zalantzan jarrita, baita ikusmolde sinplistegiak alboratuta ere; bestela esanda, menderatzea boterearen erakuskari aldaezin zein instituzionala zenik ukatuta, eta erresistentzia erakundetutako boterearen aurkaritza hutsa zenik ezeztuta. Alderantziz, arretaz hartu zituen horren instituzionalak ez ziren eta egunerokotasunean askoz ere arruntagoak ziren botere-aldaerak; eta, hala, ordura arteko irudikapenekin hautsi zuen. Bere ustez, boterea ez zen aldaezina, ezta ahalguztiduna ere; ez zen inondik inora soilik dominazio-posizioetatik gauzatzen, eta nahitaezkoa zen bere harreman-dimentsioa eta subjektibotasunaren eraikuntzan zuen rola jorratzea (Foucault, 2006: 37; *in* Del Valle, 2012: 157). Bere ikuspuntuaren arabera, boterea berezkoa edota intrintsekoa zen giza-erlazio guztietan (Foucault, 1998: 116) eta, ondorioz, eremu sozial osoan presente zegoen, askotariko mailatan, modu anizkun nahiz konplexuetan, gizartea eratuta. Gertakari estrategikotzat harturik, kontingentea zein mugikorra, aldabera bezain ezegonkorra, subjektibotasunak ekoizten zituen hartu-emanen sarea zen, oinarri zituena jakintza, teknika eta prozedurei buruzko hainbat gailu zein mekanismo (Foucault, 2006: 37; *in* Del Valle, 2012: 157).

Erresistentziari dagokionez, Foucaulten esaldi ezaguna aipatu daiteke: «boterea dagoen lekuan, erresistentzia ere badago» (1998: 116)<sup>162</sup>; finean, autoreari jarraituta, erabateko boterea ezinezkoa zen, eta gailuekiko erresistentzia –derrigorrean, halabeharrez– betiere posiblea zen, kontrakoak boterearen deuseztapena ekarriko lukeelako (Foucault, 1999: 154). Bere ikusmoldean, zenbait erresistentzia-punturen arabera baino ezin zuen existitu botereak, horiek jabetzerako aurkari, jomuga edo euskarri moduan jokatzen zutelakoan, botere-harremanen baitan (Foucault, 1998: 116). Horrela, ez botereak ez erresistentziak ez zuten inolako zentzurik euren elkarrekiko erlaziotik kanpo –etengabean estrategikoa, mugikorra zein ezegonkorra zen erlazioa–, boteredun hartu-emanen zegoen lehen unetik, erresistentziarako aukera ere bazegoelako –boterea ahalbidetzen zuen aldi berean, aurka egiten zion elementu legez– (Del Valle, 2012: 162). Hala, Foucaulten iritziz, boterea eta erresistentzia garaikideak ziren, eta ez zegoen erresistentzia baino lehenagoko boteretik, ezta boterea baino lehenagoko erresistentziarik ere (1994: 161); horren ondorioz ulertuta erresistentzia ez zela bigarren mailakoa eta ez zegoela sekula boterearekiko kanpotasun-posizioan (Foucault, 1998: 116). Egileak erresistentziaren azterketan plazaratutako beste ñabardura aipagarrietako bat izan zen boterearen irudi alderantzikatua edota kontrajarria baino askoz ere gehiago zela eta «ezetz» esateaz haratago zegoela. Estrategikoa izateko, erresistentziak boterea bezain asmatzailea, mugikorra zein produktiboa behar zuela izan defendatu zuen (Foucault, 1994: 162). Zentzu horretan, muinean eraketa- eta eraldaketa-prozesuak zeudela adierazi zuen (Giraldo, 2006: 117), bere aburuz, zerbaiti eusteak edo aurka egiteak, funtsean, egoera aldatzeko sorkuntzan eta birsorkuntzan aktiboki aritzea esan nahi zuelako (Foucault, 1999: 155).

Aipaturiko planteamenduen ildo beretik, eta bestelako gaietan barrentzen hasi aurretik, aberasgarria izango da Lila Abu-Lughod (1990) antropologoak ere erresistentziaren eta boterearen arteko erlazioaz egindako hausnarketak ezagutzea; batez ere, hainbat arrisku azpimarratu dituelako. Bere ikuspegiaren arabera, 80ko hamarkadatik aurrera deigarriki ugarituz joan dira erresistentziari buruzko lanak; zehazki, mendeko taldeek zapalkuntza-egoerari erantzuteko edo eusteko dituzten moduen inguruko azterlanak, diziplina nahiz posizionamendu anitzetako ikerlariak egindakoak. Testuinguru horretan, Abu-Lughodek erresistentziak eragindako jakin-minari erreparatu dio, oinarrian zer dagoen galdeginda eta egitate batzuen gaineko miresmena kritikatu. Izan ere, bere iritziz, ikertzaile askok erresistentzia-ekintzak idealizatzeko joera dute; botere-sistemen eraginkortasunik ezaren

---

<sup>162</sup> Gaztelaniazko bertsioa: «*Donde hay poder hay resistencia*» (Foucault, 1998: 116).



edo porrotaren adierazletzat zein gizabanakoen askatasun-grinaren erakusletzat hartzeko jaidura, alegia; nolabait ere, ekintzok laudagarriak izango balira bezala. Abu-Lughoden ikusmoldean, ordea, era horretako analisiak okerrak bezain osatugabeak dira, ez baitute boterea aintzat hartzen. Bere iduriko, kontua ez da subjektuen duintasuna, heroitasuna edo balentria goraiatzea; beraien praktiken bidez, boterearen nondik norakoak eta giza-erlazioen konplexutasuna zein aldagarritasuna ulertzea baizik, subjektu guztiak botere-harremanetan korapilaturik daudenez gero (Abu-Lughod, 1990: 41-42). Oinarri hartuta erresistentziak ez daudela sekula botere-sistemetatik kanpo, beraien azterketa boterearen diagnostikorako erabiltzea proposatzen du. Zentzu horretan, eta Foucault parafraseatuta, «erresistentzia dagoen lekuan, boterea ere badago» (*Ibidem*: 42)<sup>163</sup> dio, hala, etnografia-analisirako emankorragoa delakoan. Egileari segituta, erresistentzia-ekintzen azterketak teoria abstraktuetatik egoera zehaztetara garamatza, botere-harremanen baitako ezagutza areagotuta (*Ibidem*). Horrenbestez, arestian esan bezala, boterearen eta erresistentziaren arteko elkarrekintza izango da giltzarri.

## 5.2. Zapalduen praktikak etnografiatzen

Oinarrizko hainbat kontzeptu landu ondoren, espetxeratutako emakumeen erresistentzia-praktiken analisia testuinguruan kokatzeari ekingo diot. Izan ere, banakoen eguneroko jardute orokorren eremu zabalagoan sar daiteke, azken hori, askotan, ahaztutako edota alde batera utzitako esparrua izan den arren, egon badaudelako aintzat hartu beharreko zenbait ekarpen. Zehazki, gizarte-zientzien baitan, antropologian zein ikasketa feminista eta generokoetan burututako ikerketez ari naiz; hain zuzen ere, eguneroko praktikak eta eginbideak hizpide izan dituzten lanez, hots, (hain) antolatuak ez diren –baina askoz ere hedatuago eta orokortuago dauden– jardunbide arruntak miran izan dituzten horiez.

Horrela, alde batetik, «zapalduetako taldeekin konprometitutako begirada etnografikoa» (Hernández, Gregorio eta Apaolaza, 2011) dei genezakeen eremuaren baitan, askotariko gaiak landu dira; bakan batzuk aipatzearren: banako «ahulenek» «indartsuenen» aurrean erabilitako taktika eta estrategia arrakastatsuak, abiapuntu hartuta abileziak zein jokaldi onak, azpikeriak, amarruak, itxurak nahiz aurkikuntzak (Certeau, 1980); nekazalgoaren eguneroko erresistentzia-bideak, esate baterako, nahitako lanaldi motel zein desegokiak,

---

<sup>163</sup> Ingelesez jatorrizkoan: «*Where there is resistance, there is power*» (Abu-Lughod, 1990: 42).

ebasketak eta lapurretak, eragindako suteak, ihesak, otzantasun-plantak, sabotajea, etab. (Scott, 1985); emakumezko langileen «erresistentzia-espirtuak» diziplina kapitalistaren aurka (Ong, 1987); talde indigenen erresistentzia-taktikak nahiz estrategiak, hala nola, praktika tradizionalak atxikimendua, ezaugarri kultural berrien sorkuntza, gainerako herrien elementu kulturalen birformulazioa edota borroka armatuaren erabilera (Bonfil, 1990); «babesgabeen azpitolitika» zein mendetasuna ukatzeko askotariko adierazpideak (Scott, 1990); etab.

Bestetik, ikasketa feministen zein generokoen esparruan ere, hainbat ikerketa nabarmen daitezke; nahiz eta, alderaketa egiten bada, gutxi izan diren genero-zapalkuntzari edota emakumezkoen erresistentzia-praktikei buruzko lanak (Abu-Lughod, 1990: 42). Horrek, jakina, ez du esan nahi ez direnik ekintzok gertatu; ikerlariak, orokorki, alde batera utzi dituztela eta ez dituztela ez hauteman ez aintzatetsi baizik. Alabaina, ezin da ezeztatu, mendekotasun-egoeretan, bizitako esperientziak oinarri, norbanakoak pairatzen dituzten desberdinkeriez jabetu ohi direla eta, hala, erresistentzia-estrategiak garatzen dituztela – askotan, modu jarraian edo antolatuan ez izanda ere– (hooks, 2004: 44).

Idea hori abiaburu izan duten ikerlan urrien artean, aipa ditzakegu, kasurako, emakume esklaboen eguneroko erresistentzia-bideen inguruko lanak (Davis, 1981; Fox-Genovese, 1986; Fishman, 1995); besteak beste, honako jarduteak azaleratu dituztenak: lan egitea saihesteko moduak, hala nola, lanabesak nahiz makinak hondatzea edo gaixo egotearena egitea; produkzioaren berariazko kalteak; eragindako suteak; ebasketak; haurdunaldiak ekiditeko bideak, baita abortuak eta infantizidioak ere –esklaboen seme-alabak jabearen ondasun izanik–; erasoak eta erailketak; etab. Halaber, gutxi landutako alorra izan arren, aipatzekoak diren bestelako gaiak ere jorratu dira; honakoak, kasu: emakume beduinoek komunitateko gizon nagusiek ezarritako mugei aurka egiteko egunerokoan baliatutako erresistentziak, esaterako, mundu propioen eraketa, sekretuen eta isiltasunaren erabilera, ezkontzak itzurtzeko erak, diskurtso hegemonikoa iraultzeko txantxak zein isekak, baita kondairak, elezaharrak eta poema-kantak ere (Abu-Lughod, 1990); *blues* musika Estatu Batuetako emakume beltzen erresistentzia-eremu bezala, genero-eredu nagusien kontra (Davis, 1999); gizaki-salerosketa jasan duten emakumeen estrategiak, adibidez, ahulak izatearen itxurak egitea, gaitasunen nahiz ezagueren ezkutetzea, bahitzaileen konfiantza eskuratzeko egintzak, ihesaldiak, espazio propioen eraketa, etab. (Flamtermesky, 2012); beste hainbatekin batera.

Testuinguru honetan, arreta berezia merezi dute antropologia feministaren baitan burutu diren ekarpenek; eta, bereziki, Julianok (1992, 1998) egindako lanek. Izan ere, autoreak defendatu du emakumeak ez direla sekula ez pasiboak ez otzanak izan, gailendu ohi den ideologiak dioenaren aurka (Juliano, 1992: 12). Bere iritziz, nahitaezkoa da emakumeak biktima moduan irudikatzen dituzten ikusmoldeak gainditzea, baita mendeko sektoreak pasibotzat eta akritikotzat hartzen dituzten posizioak alboratzea ere (*Ibidem*: 23). Bere ikuspegiaren arabera, zentzugabea da pentsatzea emakumeek ez dutenik ezer egin euren desabantaila-egoera gainditzeko –edota, gutxienez, arintzeko– (*Ibidem*: 14). Ondorioz, emakumeak agente aktibo bezala hartzearen alde egiten du, hau da, ezarritako mugez jabetzen diren subjektu gisa; euren egoera hobetzeko ahaleginean, gaitasuna dutenak bai zapalketa edo mendekotasuna konpentsa dezaketen estrategiak garatzeko, bai eskaerak, aldarrikapenak eta gatazkak planteatzeko. Hala, ñabardura eta ohar zinez interesgarriak eginez, historian zehar, emakumeek biziraupen- zein autobaieztapen-estrategiak gauzatu dituztela dio, honakoak adibide moduan aipatuta: aliantzak eratzea, komunikazio-sareak sortzea, genero-ereduak birdefinitzea edo berriak asmatzea, etab.; azken batean, botere-harremanak birnegoziatzeko «zuhurtasunak» (*Ibidem*: 162). Haatik, emakumeek egiten dutenaren eta jendarteak hautematen duenaren artean sekulako aldea dagoelakoan dago. Izan ere, bere aburuz, emakumeen estrategiena isilarazitako nahiz ikusezin bihurtutako errealitatea da, aintzatespena ukatzeko hainbat praktika sozial daudenez gero; kasurako: naturalizatzea, barregarri uztea, baliogabetzea, ahotsa ezeztatzea, etab. Funtsean, zenbat eta botere gutxiago izan, orduan eta handiagoak dira sektore jakin batek jasaten dituen ikusezintasuna, balio-galera nahiz estigmatizatzea. Orokorrean, kokagune boteretsuetan daudenek egiazkotasun-suposizioa monopolizatzen dute, eta, hori dela eta, mendekoek zailtasunak dituzte gizarte-onarpenera lortzeko. Baina, arestian adierazi bezala, Julianori jarraituta, zapal dutako taldeek inposatu dizkieten mugez konturatzen dira eta beti dute nolabaiteko ahalmena egoera zalantzan jartzeko, desiratutakoari eusteko nahiz beraien egunerokoa hobetzeko; horretarako, askotariko eginbideak baliatzen dituzte: ezkutuko diskurtsoak; obeditzearen plantak egitea; ahoz onartzea, baina praktikan transgreditzea; etab. (*Ibidem*: 13-14). Ondoren ikusiko dugunez, Julianorena bezalako planteamenduak oinarritzkoak dira espetxe-sisteman gertatzen dena ulertzeko.

### 5.3. Agentzia giltzapean... zantzuei segika

Jada esan bezala, kartzelatutako emakumeen erresistentzia-praktikei buruzko azterlanak nahiko urriak izan dira. Hutsunea edo gabezia nagusi da, eta euren agentzia gutxietsia bezain ezkutatua izan da. Eskuarki, jendartearen gehiengoak ez ditu emakume atxiloen abileziak ez aintzatetsi ez baloratu; ez ditu kontuan hartu, ezta irudikatu edota begitandu ere. Ezbairik gabe, ikusezin egindako eremua da, eta, ondorioz, gizarteak ez ditu beraien praktikak behar bezala ezagutzen eta balioesten. Alde batetik, espetxe-sistemari buruzko ikerketa kriminologiko gehienek instituzioaren boterea aztertu dute soilik, kontrolatzeko nahiz aginduak emateko zer-nolako gaitasuna duen eta horrek atxiloengan zer esan nahi duen jorratuta; baina erreparatu gabe haien jokatzeko ahalmenari, murrizketak bizitzeko edo interpretatzeko moduei, elkarreraginei eta aurre egiteko praktikei (Bosworth, 2003: 142), eta genero-analisirik egin gabe. Bestetik, ikasketa feministetan nahiz generokoetan egindako azterlanek ere ez dituzte emakume presoek egindako zehatzak landu; izan ere, nagusiki, presondegietak diskriminazioei zein desberdinkeriei heldu diete. Alta, nahiz eta emakumezkoek giltzapean topatzen dituzten bidegabekeriak jorratzea, aztertzea eta salatzea guztiz premiazkoa eta garrantzitsua den, haratago joan beharrean gaude; bada, espetxealdia «sufritzea» edo «pairatzea» ez da emakume presoek egiten duten bakarra. Haatik, genero-eredu hegemonikoen ondorioz, iruditeria kolektiboak ia beti –batzuetan, inplizituki, baina, askotan, baita esplizituki ere– pasiboak, ezjakinak nahiz ahulak balira bezala deskribatzen ditu, autonomiarik gabekoak eta trebetasun gutxikoak bailiran, baita norberaren egoera ulertzeko eta hobetzeko ezer egiteko ezgauzak ere (Bosworth, 1999: 39). Horren eraginez, beraien agentzia behin eta berriz ukatua bezain ezkutatua izan da, kartzelaldian burutzen dituzten erresistentzia-praktikak –indibidualak zein kolektiboak– ezeztatuta. Testuinguru horretan, bistan da halako irudiak deseraikiko dituen ikusmolde feminista baten beharra dugula; jarrera biktimizatzaileak baztertuko dituen eta, oster, egoerari nola edo hala aurre egiteko agentzia eta gaitasun gogoetatsua aitortuko dituen –nahiz eta, betiere, espetxeak ezarritako mugei eta zailtasunei muzin egin gabe–.

Egundaino emakume presoek erresistentzia-praktiken inguruan egindako ikerketa urriek abiapuntu izan dute beraien ezintasuna edo ezgaitasuna nabarmentzera jo duten jarreraren kritika; eta, alderantziz, honakoak defendatu dituzte: jokatzeko zein botere-harremanak negoziatzeko edota eraldatzeko nolabaiteko gaitasuna dutela, egoera murriztaileenetan ere dagoen ahalmena izanik (Bhavnani eta Davis, 1996; Imaz, 2007); espetxe-sistemari

aurre egiteko bide sortzaileak gauzatzen dituztela, eskura dituzten bitartekoak erabilia (Bhavnani eta Davis, 1996; Carlen, 2012); eta, horrela, sekula ez direla «geldirik dauden biktimak» (Ribas, Almeda eta Bodelón, 2005: 83), desabantailan jartzen dituen sistema sexista bezain diskriminatzaile baten barnean egon arren. Autoreen arabera, kartzelaren boterearen eta erresistentziaren arteko elkarrekintzan, euren jarduteen bidez, zailtasunak gainditzen eta egoerak hobetzen saiatzen dira, ahal bezala; testuinguru horretan, gai dira hausnartzeko, gertatzen ari dena ulertzeko nahiz aztertzeko, trebetasun berriak ikasteko, garatzeko, praktikan jartzeko eta, horrela, baita bizi duten egoerak ekarritako ondorioak aldatzeko ere, edo, behintzat, arintzeko. Halako planteamenduei jarraituta, ezinbestekoa da boterea espetxealdian nola taxutzen den jorratzea, egunerokotasunean gertatzen diren negoziazioei erreparatzearen bidez eta, halaber, miran izanez generoaren, etniaren, klase sozialaren, sexu-aukeraren, erlijioaren zein beste hainbat aldagaien arteko artikulazioen garrantzia, itxialdi penalak dakarren guztia ulertzeko funtsezko faktoreak direnez gero (Bhavnani eta Davis, 1996; Bosworth, 1996, 1998, 1999, 2003).

Ziur aski, guztien artean, Mary Bosworth (1996, 1998, 1999, 2000, 2003) kriminologoa dugu kartzelatutako emakumeen agentziari eta erresistentzia-praktikei buruzko autorerik esanguratsuena. Izan ere, espetxe-sistemaren bestelako analisisetarako oinarriak ezartzen saiatu da; horretarako, giltzarriztat hartuta «agentzia», «erresistentzia» eta «identitatea» kontzeptuak. Ikerlariaren arabera, emakume atxiloentzat, kartzela hierarkia, bereizkeria, desabantaila zein zaurgarritasun nabarmeneko eremua da, baina, halere, bere boterea ez da ez totala, ezta absolutua ere (Bosworth, 1996: 6). Hertsapenak hertsapen eta mugak muga, preso dauden emakumeak agenteak dira, subjektu aktiboak, egunerokotasunean boterea nola hala negoziatzeko gauza direnez gero (Bosworth, 1999: 3). Azken finean, mendekotasuna eta botere-harremanak ez dira finkoak, linealak edo aldaezinak, guztiz dinamikoak zein aldagarriak baizik; horrenbestez, emakume presoek euren artean nahiz espetxeko langileekin dituzten hartu-emanetan, egunero, etengabe, kartzelaren esanahia, nolakotasuna eta ondorioak zehaztean parte hartzen dute. Marko horretan, Bosworthen ustez, emakume atxiloen erresistentzia-estrategiak antzeman daitezke (2003: 137); maiz, instituzioaren kontrolari aurre ematen baitiote (Bosworth, 1996: 5), gehienbat, boterea identitate-mailan jokatuta. Hala, identitatea gako harturik, autorearentzat interrelazioak berebizikoak dira; zehazki, arestian aipaturiko horiek, generoaren eta gizarte-klasearen, etniaren, naziotasunaren, sexu-aukeraren zein bestelako aldagaien artekoak, bai boterea bai erresistentzia baldintzatzen dituztelakoan (Bosworth, 1996, 1998, 1999, 2003). Bere

ikuspegia garatuta, ikerlariak emakume presoen agentziaren hainbat erakusle zerrendatu ditu, eta kartzelaren autoritateari kontra egiteko praktika zenbaitzuk azalerratu; iskanbila, istilu, kalapita zein erreboltekin batera, erresistentzia-modu sotilagoak, ezkutukoagoak nahiz sortzaileagoak jasota.

Era berean, nahiz eta Bosworthen ekarpenak bezain sakonak edo espezifikoak ez izan, kartzelatutako emakumeen agentziari eta erresistentzia-praktikei buruz jardun duten lan gehiago ere aintzakotzat hartu behar ditugu. Batzuek eginbide kolektiboak hartu dituzte hizpide, besteek indibidualak; batzuek agentziaren eta erresistentzia-ekintzen inguruko berriazko analisiak burutu dituzte, besteek soilik zeharkako aipuak. Baina, edonola ere, guztiek egin dituzte kontuan hartzekoak diren iruzkinak eta erreferentziak; hori dela eta, zertzelada edo trazu orokor batzuk emango ditut.

Erresistentzia-praktika kolektiboei dagokienez, azpimarratu beharra da horiek izan ohi direla jardunbide agerikoenak eta, orokorki, antolaturiko sektoreek gauzatzen dituztela; ondorioz, adibide gehienak preso politikoenak dira, salbuespenak salbuespen. Besteak beste, honako etsenpluak zerrenda daitezke: gerra zibilaren zein diktadura frankistaren garaietan, emakume preso politikoen elkarrekiko babesak eta elkartasuna bultzatu zuten, eta, hori oinarri hartuta, gose-grebak, plantoak, boikotak nahiz sabotajeak egin zituzten, aldi berean, euren artean erizaindegiak, eskolak, liburutegiak, jarduera intelektuala eta kulturalak, aisialdia, etab. antolatuta (Blázquez eta Ramos, 2011; Hernández Holgado, 2011a, 2011b); EPPK Euskal Preso Politikoen Kolektiboko emakumeek, gizonak egin bezala, burutu dituzte egarri- nahiz komunikazio-grebak, «txapeo» iraukorak, ebakitze kolektiboak, batzarrak, trebakuntza-eskolak, sinadura-bilketak, idazkiak, ihesak, etab.<sup>164</sup> (Amnistiaren Aldeko Mugimendua, 2009; Martínez, 2014); Argentinan, XX. mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetakoa emakume atxilo politikoen ere, elkarlanean, ikastaroak, eskolak, irakurketak, eztabaidak, antzezlanak, kirol-jarduerak, idazki nahiz marrazkien artxiboak, etab. prestatu zituzten, eta, horrekin guztiarekin batera, gose-grebak ere egin zituzten, debekaturiko objektuak ekoitzi zituzten, presozaiei janaria ebatsi zieten, etab. (Beguán *et al.*, 2006); adibide batzuk aipatzearen.

Aditasun sakonagoa merezi dute Begoña Aretxaga (1995) antropologoak IRA Irlandako Armada Errepublikanoaren emakume atxiloen protesten harira egindako gogoetek; argi

---

<sup>164</sup> Halere, EPPKko emakumeak, maiz, gizonen laguntzaile bezala edo bigarren mailako ekintzaile bezala irudikatu dituzte (Rodríguez Lara, 2012).

eta garbi, gertaerok ulertzeko genero-ikuspegia erabiltzea behar-beharrezkoa dela islatu baitzuten. Zehazki, preso politikoen estatus berezia galduta, eta hainbat ekimen eta gero, atxiloek hasitako *Dirty Protest* edo *No-Wash Protest*<sup>165</sup> landu zuen; zeinak preso denak zeldetan txizaz nahiz kakaz inguraturik bizitzera eraman zituen eta, emakumeen kasuan, baita hilekoaren odolaz inguraturik ere. Koordinaturiko ekintza erabat ezohikoa izan zen (Aretxaga, 1995: 127). Ez zegoen inolako aurrekaririk, eta guztiz ulergaitza zen bai Ipar Irlandako komunitate katolikoarentzat, bai espetxeetako langileentzat zein administrazio britainiarrarentzat. Askok basakeria, irrazionaltasuna edo eromena baino ez zuten ikusi, eta, ondorioz, amaiera aldera arte, protestak ez zuen kasik elkartasun-adierazpenik jaso. Egoera are larriagoa zen emakumeen kasuan, gizonek horrelako zerbait egitea ulertezina bazen, emakumeek egitea are pentsaezinagoa baitzen (*Ibidem*: 129); hortaz, gaitzespen handiagoa eta sostengu txikiagoa jaso zuten. Prozesua benetan gogorra izan zen preso guztientzat, fisikoki nahiz psikologikoki, eta euren zaugarritasuna nabarmenki areagotu zuen (*Ibidem*: 130); baina, halaz ere, eta jendartearentzat ulergaitza izan arren, atxiloek bazekiten zertan zebiltzan (*Ibidem*: 132).

Aretxagaren planteamenduei helduta, presoek gorputza erresistentzia-esparrutzat hartu zuten; txizaren, kakaren nahiz hilekoaren odolaren balio sinbolikoa baliatuta, honakoak azaleratzeko: kartzelako indarkeria, gobernu britainiarraren metodoen krudeltasuna eta Ipar Irlandako gatazka. Alabaina, horiek ez ezik, bestelakoak ere nabarmendu zituzten, subjektibotasunaren, generoaren eta boterearen arteko elkarrekiko erlazioei dagokienez (*Ibidem*: 124). Izan ere, emakumeek protestan parte hartzeari ekin ziotenean, espetxeko zuzendaritzak gizon-emakume presoan artean egindako diferentziak ezabatzeko asmoz egin zuten; alde batetik, aintzatespen politikoa lortzeko, eta, bestetik, borroka berbera

---

<sup>165</sup> IRAren eta mugimendu errepublikanoaren bestelako taldeetako presoek protestak XX. mendeko 70eko hamarkadaren bigarren erdialdean hasi ziren, bi egitate eta gero: 1971n, aurretiko epaiketarik gabeko espetxeratzeen hasiera eta, 1976an, atxilo politikoen estatus bereziaren galera. Elkartzeko, antolatzeko eta denbora nahi bezala kudeatzeko eskubideak kendu zizkieten eta, gizonen kasuan, uniformeak janztearen betebeharra ere ezarri zen. Murrizketa horien aurrean, hasiera batean, presoek bi ekintza burutu zituzten: batetik, gizonek nahiz emakumeek *No-Work Protest* (1976-1981) gauzatu zuten; eta, bestetik, gizonek bakarrik *Blanketmen Protest* (1976-1981) ere egikaritu zuten, uniformeak jartzeari uko eginez eta gorputz biluziak mantekin estaliz. Azken horrek kartzelarien irainak, umiliazioak eta jazarpenak areagotu zituen; eta, azkenean, gizonek zeldetatik irteteari utzi zioten, *Dirty Protest* (1978-1981) delakoa hasita, dutxetara eta komunetara joateari uko egin baitzioten, euren hondakinen artean bizitzeari ekinez. Emakumeek 1980an batu ziren protestara, uniformeak erabiltzeko obligaziorik ez izan arren, kartzelazainen bestelako erasoek bultzatuta. Geroxeago, bi gose-greba izan ziren: lehenengoan (1980-1981), emakumeek gizonak baino bi aste beranduago hasi ziren, inork ez zuelako ekimenaren berri eman, IRAk protesta-mota hori gauzatzeko ahulegitzat zituelako; bigarrenean (1981-1982), gizonek soilik hartu zuten parte, emakumeek uko egin ziotenez, lehenengoan baztertuak izan eta gero. Protestok 1982an amaitu ziren, presoek estatus politikoa berreskuratu zutenean (Murray, 1998; Ros Domènech, 2013).

eta bakarra zela aldarrikatzeko (*Ibidem*: 142). Aitzitik, hilekoaren odolak –tabutzat eta kutsagarritzat hartutakoak– batzuen eta besteen arteko aldea areagotu zuen; nahi gabe, emakume-gorputz sexualak azpimarratuta (*Ibidem*: 138-139). Azken batean, iruditeria kolektiboan, gizonak ziren borrokalari, heroi eta martiri bakarrak; emakumeak, ostera, IRAn iragaitzaz zeuden neskatoak ziren, eta, beraz, kartzela ezin zen haien lekua izan – euren kopurua ekintza armatuetan nahiz giltzapean gero eta nabarmenagoa bazen ere– (*Ibidem*: 138). Aretxagaren ustez, hilekoak bestelako izatea erakutsi zuen (*Ibidem*: 142) eta, halaber, bestelako gaiei heltzea eragin zuen: indarkeria sexistari eta pobrezari, kasu (*Ibidem*: 143). Halaber, apurka, nazionalismoaz gain, feminismoa ere interpelatu zuen; esaterako, beraien egoera ez zela auzi feminista ziotenei erantzuteko, emakume presoek eurek 1980an idatziriko gutun honetan antzeman daitekeenez:

«Argi dugu gure egoera ez dela soilik gai feminista, oso oinarrizko gai gizatiarra eta soziala baizik. Gai feminista da emakumeak garen heinean, kriminalak bagina bezala tratatzen bagaituzte ere. Gai feminista da kartzela honen ehuna gizonen dominaziorako guztiz prest dagoen heinean. Gobernadorea, Gobernadoreordea nahiz medikua gizonak dira. Guardiaren abusu fisiko eta mentalen mende gaude, egunero gure hegala patruilatzen baitute, etengabe gure zeldak zelatatzen baitituzte... Hau ez bada gai feminista, orduan feminista hitza birdefinitu behar dela uste dugu» (Loughran, 1986: 64; *in* Aretxaga, 1995: 143)<sup>166</sup>.

Era berean, horrelako eginbide kolektiboetatik haratago, maila indibidualean gauzatzen diren erresistentzia-praktikei ere erreparatu behar diegu. Orokorrean, jardute sotilagoak, isilagoak eta ezkutukoagoak izan ohi dira (Makowski, 1997: 68); hortaz, ikusezinagoak nahiz ezeztatuagoak ere badira. Alabaina, egunerokotasunean, jardunbide kolektiboak baino askoz ere ohikoagoak dira, eta, hala, gure arreta merezi dute; gertatzen dena behar bezala ulertzeko, genero-ikuspegia guztiz nahitaezkoa izanik. Azken batean, espetxeko murrueetatik kanpo gertatzen den legez, emakumeek zailtasunak gainditzeko eta bizitzan aurrera egiteko estrategiak garatzen dituzte, eskura dituzten aukeren zein hautuen baitan (Dañobeitia, 2013: 118).

---

<sup>166</sup> Ingelesean jatorrizkoan: «*It is our belief that not only is our plight a feminist issue, but a very fundamental social and human issue. It is a feminist issue in so far as we are women, even though we are treated like criminals. It is a feminist issue when the network of this jail is completely geared to male domination. The Governor, the Assistant Governor, and the doctor are all males. We are subject to physical and mental abuse from male screws who patrol our wing daily, continually peeping into our cells... If this is not a feminist issue then we feel that the word feminist needs to be redefined*» (Loughran, 1986: 64; *in* Aretxaga, 1995: 143).



Jada aipatu bezala, horrelakoak hizpide izan dituzten azterlanak nahiko urriak izan dira; baina, dena dela, mota bateko edo besteko aipamenak, zertzelada orokorrak zein analisi sakon(ago)ak aintzat hartuta, eguneroko erresistentzia-praktika batzuen batzuk zerrenda ditzakegu. Izan ere, besteak beste, ikerlanek ondorengoak jaso dituzte: elkar babesteko nahiz laguntzeko elkartasun-sareak (Bhavnani eta Davis, 1996; Makowski, 1997; Ribas, Almeda eta Bodelón, 2005); erlazio sexu-afektiboak, oro har (Fabre eta Nari, 2000; Nari *et al.*, 2000; De Miguel, 2012, 2016; Etxebarrieta, 2013), eta, batzuetan, lesbianismoa, zehazki (Bosworth, 1999, 2003; Bosworth eta Carrabine, 2001; Tóth, 2010; Herrero, 2015); espetxetik kanpo daudenekin hartu-emanak mantentzeko bitartekoak (Nari *et al.*, 2000; Cunningham, 2006; Mignon eta Ransford, 2012; Granja, Cunha eta Machado, 2012; Cunha eta Granja, 2014); hainbat adierazpen-modu, kasu baterako, barne hartuta bai artelanak bai idazlanak (Retolaza, 2014), baita nork bere buruari egindako lesioak ere (Bosworth, 1999; Curcio, 2014); estrategia ekonomikoak eta produktiboak (Ribas, Almeda eta Bodelón, 2005; Nuñez Vega, 2007; Constant, 2014); espazioaz eta denboraz nola hala jabetzeko praktikak (Fabre eta Nari, 2000; Nari *et al.*, 2000), kirol- eta kultur-jardueren bidez (Medlicott, 1999; Mejía, 2012; De Graaf, 2013; Meek eta Lewis, 2014; O'Grady, Rolvsjord eta McFerran, 2014; Martinez-Merino *et al.*, 2015) edo legezko eta legez kontrako drogen bidez (Lledó eta Álvarez, 2011; Curcio, 2014); sumisio-itxura eta preso perfektuaren rola (Bosworth, 1999; Ribas, Almeda eta Bodelón, 2005; Ribas, 2005); feminitatearen eredu nagusiaren erabilpen estrategikoa (Bosworth, 1999, 2003); praktika erlijiosoak nahiz espiritualtasuna (Aday, Krabill eta Deaton-Owens, 2014); etab.

Beharbada, adibide horiek guztiak aipatu eta gero, emakume presoen agentzia nahikotxo landu dela pentsatuko du batek baino gehiagok. Aitzitik, behin eta berriz adierazi dudana bezala, errealitatea oso bestelakoa da; gehientsuenak sakontasun edo jarraipenik gabeko aipamen hutsak baitira, bakanak bezain puntualak, eta, horrez gainera, Euskal Herritik kanpoko testuinguruetan burututakoak. Hori dela eta, jarraian, hurrengo atalean, gaion konplexutasunean eta ñabarduretan barrena murgilduko naiz, itxita dauden emakumeen bizipenen alderdi anitzei helduta, betiere, kartzela genero-erakunde legez hartuta.



## **BIGARREN ATALA**

### **Espetxeratutako emakumeekin solasean**



*We are rooted in language, wedded, have our being in words. Language is also a place of struggle. The oppressed struggle in language to recover ourselves –to rewrite, to reconcile, to renew. Our words are not without meaning. They are an action –a resistance. Language is also a place of struggle.*

bell hooks (1989: 28)



## 6. Kartzelaldiaren esanahiak, ibilbideak eta balorazioak

*Ezinezkoa nigandik kanporatzea,  
bada, barruan bizitako hori  
ni neu naizenaren parte egin zen.*

Liliana Cabrera (2013)<sup>167</sup>

Emakumezkoen espetxeko bizipenak zinez anitzak eta konplexutasun handikoak dira. Euren iritzi eta interpretazioak, gogoeta zein hausnarketak askotarikoak dira; eta, horrez gain, nahiko ulergaitzak ere badira maiz, ñabardurei heldu ezean, behintzat. Horregatik, aurreko atalean kartzelaratuak emakumei buruzko hainbat erreferentzia teoriko landu ostean, atal enpirikoaren lehen kapituluan, ikerketa honetan elkarrizketatutako emakume preso eta preso ohien kontakizunetan murgilduko naiz; espetxealdiak beraiantzat duen esanahia argitzen ahaleginduta, aniztasuna abiapuntu hartuta eta xehetasunak jorratuta. Hasteko, lehenengo azpiatalean, kartzelan sartu aurretik euren bizimoduak zer-nolakoak ziren eta lege-haustera nolatan iritsi ziren landuko dut; ondoren, bigarren azpiatalean, espetxeko egonaldian eta horren ondoriozko estigmatizatzean barrenduko dut, sartzea eta irtetea ardatz hartuta; kartzelaldiak eragindako sentipenak, aldaketak eta ikaskuntzak izango ditut aztergai hurrenik hirugarren azpiatalean; eta, amaitzeko, espetxeko garaiari buruzko balorazioetan sakonduko dut laugarren eta bosgarren azpiataletan, iritzi gutxi-asko positiboak zein negatiboak jasota. Emakume atxilo zenbaitzuen iduriko, oso zaila da kartzelako bizipena hitzez adieraztea eta ezagutzen ez duen norbaiti haren esangura helaraztea; benetan berezia denez gero, beste deusekin ezin erkatuzkoa. Hala izanda ere, mugak muga, saialdia egingo dut eta zeregin horri ekingo diot segidan.

---

<sup>167</sup> Gaztelaniaz jatorrizkoan: «*Imposible sacarlo de mí, / porque lo que viví, adentro / se hizo parte de quién soy*» (Cabrera, 2013).

## 6.1. Egoera anitzak, egoera zaurgarriak: delituetara daramatzaten bideak

Emakumeek kartzelarekin zein delituzko ekintzekin dituzten hartu-emanak behar bezala aztertzeko, lehenik eta behin, ezinbestekoa da arreta jartzea espetxe-itxialdiaren aurreko beraien bizimoduetan. Zalantzarik gabe, aniztasun handiko egoerekin egingo dugu topo; arestian aipatu bezala, emakume presoak askotarikoak direlako –profil-orokortzeek hori lausotu ohi duten arren– (Imaz, 2007: 194). Era berean, zaurgarritasunarekin ere egingo dugu topo, atxilo sartzen dituzten ia emakumezko guztiek molde bateko edota besteko gizarte-kalteberatasuna bizi izan dutelako (Cabrera, 2002; Romero, 2003; Fernández Galán, 2011; Arbelaitz *et al.*, 2012; De Miguel, 2014), eta, argi eta garbi, egitate hori delituekin hertsiki lotuta egon delako (Almeda, 2007; Acale, 2015; Cerezo, 2015). Bestela esanda, oso anitzak dira lege-hausteetara eta presondegira daramatzaten bideak, baina kasik beti presente daude nolabaiteko eragile arazotsu edota zaurgarritzatzaileak. Esandakoa argiroago islatzen saiatuko naiz jarraian, ikerlan honetan elkarrizketatutako emakumeen bizipenetan sakonduta.

Hala, hasteko, aldagai nagusiei erreparatzen badiegu, elkarrizketatutako emakumezkoak adin guztietakoak direla ikus dezakegu; batik bat, 40 urte ingurukoak nagusi diren arren. Gehienak euskal herritarak dira, baina asko dira bestelako sorterriak dituztenak ere. Batzuek Espainian edota Frantzian dute sorlekua, eta beste batzuek urrutiago, batzuen batzuk hegoamerikarrak baitira. Atzerritarren artean, hainbatek ez zuten preso egon arte Euskal Herria ezagutzen; alabaina, ia guztiek bazuten testuinguruaren gaineko jakintza, aunitz aspalditik bizi baitziren bertan, legezko egoeran izan nahiz legez kanpokoan izan. Kopuruak aintzat hartuta, jatorri atzerritarra dutenen gainordezkapena nabarmena da, nabarmena den bezalaxe ijitoen gehiegizko zenbatekoa ere; gertakari berbera antzeman dezakegu baita droga-kontsumitzaileen kasuan ere, euren presentzia altua delako, modu izarigabea. Ikasketa-mailari dagokionez, gehienek maila baxua dute; izan ere, aunitzek oinarritzko ikasketak baino ez dituzte egin eta, gainera, ez dira gutxi horiek ere osatu ez dituztenak. Aipagarria da gehienbat emakume ijitoak direla ikasketa-maila nahiko baxua dutenak eta hainbatek irakurtzeko zein idazteko zailtasunak dituztela; batik bat, helduak badira. Halaber, azpimarragarria da atzerritarak izan ohi direla ikasketa-maila altuena dutenak, baten batzuek goi-mailako edo unibertsitate-mailako ikasketak baitituzte. Lan-esparruari heltzen badiogu, salbuespenak salbuespen, gehienak askotariko zereginetan aritu dira, lan ezegonkorak nahiz aldi baterakoak nagusituta, baita, hainbatetan, inolako



erregulaziorik gabekoak ere. Besteak beste, asko dira honako lanetan ibilitakoak: umeen eta pertsona helduen zaintzan, garbiketan, etxeko lanetan, ostalaritzan, etab. Behar egin arren, hainbatek arazo ekonomikoak izan dituzte; baten batzuk estatusunean edo egoera nahiko prekarioan bizi izan dira; eta gutxi batzuek bizirauteko diru-laguntza publikoak ere jaso dituzte. Alta, edonola ere, begi-bistakoa da azken urteotan profila aldatuz joan dela eta, gaur egun, areagotuz doala bai ikasketa-maila altua, bai lan-ibilbide egonkorra eta oparoa izan duten emakume presoen kopurua. Euren gizarte-harremani dagokienez, elkarrizketatuen gehiengoak, espetxeratzearen aurretik, bazuen nolabaiteko babes- edota sostengu-sarea; kasu batzuetan, nahiko urruti egonda ere. Gehienek familia-loturak eta bikote-erlazioak aipatzen dituzte; batzuek, gutxiagotan izan arren, baita adiskidetasun-harremanak ere. Hartu-eman horien nolakotasuna, jakina, benetan zabala eta oso anitza da; alabaina, nabarmendu beharrekoa da elkarrizketatutako emakume batzuek indarkeria sexista jasan zutela euren orduko bikotekideen aldetik. Era berean, azpimarragarria da gehienak ama direla eta hainbat, gainera, gurasobakarreko familien buruak, seme-alaben zaintzaren eta ongizatearen ardura osoa euren gain hartuta. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharrekoa da, preso sartu aurretik, eta askotariko arrazoiak direla medio, batzuek senideen zaintzapean zituztela euren seme-alabak; baita, batzuetan, erakunde publikoen tutoretzapean ere, harrera-pisu edota familietan. Hortaz, laburbilduz, aipatutako aldagai guztiak aintzat hartuta, argi dago zaurgarritasun-faktoreak gutxi-asko pilatzen zituzten emakumeak direla oro har.

Delituzko ekintzaren hautua egin zutenean, ia kasu guztietan, arrazoi ekonomikoengatik egin zuten. Izan ere, lege-haustearen erabakia hartu zuten diru-iturri bat lortzeko asmoz, eskura zituzten aukeren inguruan deliberatu ostean, hautu hobereana egiten saiatuta, edo, gutxienez, hautu okerrenak baztertuta. Askotan, benetako biziraupen-estrategia izan zen, beharrak bultzatutakoa, euren biziraupen ekonomikoa bermatzeko, batzuetan baita euren senideena ere. Beste hainbat kasutan, ordea, bizi-maila edo kalitatea hobetzeko nahiera gailendu zitzaion beharrari. Edonola ere, eragile nagusia bata ala bestea izan, delituzko ekintza estrategia ekonomikoa da oro har; eta, maiz, bestelako estrategia ekonomikoekin batera ageri da, esate baterako, eta jada aipatu dudana bezala, espetxean amaitzen duten emakumeetako askok erregulatu gabeko edota gaizki ordaindutako lanak egin baitituzte, diru-laguntza instituzionalak jaso baitituzte, emigratu baitute, etab. Beraz, delituarekin batera, edo delituaren aurretik, «delituaren ordezkoko praktika» (Juliano, 2009a, 2009b, 2011) deitutakoen erabilera antzeman daiteke.

Lege-haustearen bultzatzaile nagusia ekonomikoa izanik, bi delitu-mota nagusitzen dira emakumeen artean: alde batetik, osasun publikoaren aurkako delituak, hau da, legearen kontrako drogen garraioarekin eta salmentarekin lotutakoak; eta, bestetik, jabetzaren eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak, orokorki, ebasketa eta lapurreta txikiak direnak. Gaineratiko delituak gutxiengoa eta nahiko ezohikoak dira. Hortaz, oro har, emakumeek egindako lege-haustek ez dira biolentoak, ezta larriak ere. Hala eta guztiz ere, iraupen ertaineko kondenak nagusi dira euren artean; eta aipagarria da batzuen batzuk espetxe-zigor nahiko luzeak ere badituztela, zenbait auziren pilaketaren kausaz zein delitu jakin batzuk gogorki zigortzeko joeraren kausaz. Bestalde, salbuespenak salbuespen, hainbat kasutan, legez kanpoko drogen presentzia nabarmena da: batzuetan, delitua substantzia horien garraioarekin edo salmentarekin lotuta egon zelako; eta, besteetan, lege-haustea droga-menpekotasuna asetzeko egin zelako edo testuinguru hurbilean drogak salerosten zirelako. Segidan, kasuistikan murgiltzeari ekingo diogu.

Lehenik eta behin, *mula* deiturikoak aipa ditzakegu; euren gorputzetan edota ekipajetan legearen kontrako drogak garraiatu dituzten emakumeak, alegia. Asko atzerritarrak dira, eta aipagarria da, gainera, batzuek ez zutela Euskal Herria ezagutzen bertan espetxeratu zituzten arte. Gehienek lege-haustea egitate puntual moduan planteatu zuten, une zehatz batean, diru-kopuru gutxi-asko altua azkar irabazteko aukera bezala. Batzuek diotenez, premia ekonomikoak bultzatuta egin zuten; besteek diotenez, bizi-maila hobetzeko egin zuten, erosotasunez eta lasaiago bizitzeko, jendarteak arrakasta sozialarekin parekatzen dituen jomugak betetzeko ahaleginean.

Adibide moduan, Mayaren kasua ekar dezakegu. Frantziarra naziotasunez, Mexikon bizi zen eta harreragile bezala lan egiten zuen. Pixkanaka baina, ezagun batzuen bidez *mula*-zereginetan hasi zen. Ohikoa ez izan arren, droga garraiatzeko hainbat bidaia egin zituen eta diru-iturri gutxi gorabehera arrunta bilakatu zen beretzat. Azaltzen duenez, bestelako bizimodua izateko aukera eskaintzen zion horrek, bizimolde hobea izateko parada, eta horrexegatik egiten zuen. Bestalde, ez zitzaion etikoki gaizki iruditzen, nagusi den eredu sozioekonomikoa auzitan jarrita justifikatzen zuelako eta argi zeukalako *mulak* ez direla droga-trafikoaren erantzule nagusiak. Askea eta burujabea izatea zinez estimatzen duten horietakoa izanik, bere esperientzia inolako biktimizatzerik gabe azaltzen du; gizartean zabaldutako irudiaren kontra, ez du ez mafiarik ez engainaturiko emakumerik aipatzen,

jakin badakien arren, beharbada, beste *mula* batzuen bizipenak bestelakoak izan direla eta droga-trafikoak indarkeria handia eragin duela. Bere hitzetan:

«México es un país más... más pobre. Entonces, hay que trabajar mucho para tener un salario un poco decente, y, entonces, pues... Luego después de casi dos años que estuve en México trabajando, de recepcionista, todo legal, todo bien, [Barreak] pues eso, ahí pues conoces gente que te propone hacer viajes y, entonces, a mí me pareció interesante la idea. No por el tráfico, sino por el dinero fácil, porque... porque, si no, te pasas la vida trabajando y, al final, no disfrutas ni del dinero [...]. Estás amarrado al trabajo y yo no... no concebía la vida de esa manera. No... No quería esa vida. Y, entonces, yo no tenía nada contra las drogas. No las veía... [...] Los que manejan todo esto, los que ponen las leyes, todo eso, yo sé que... No veía mal traficar con droga, ¡porque sé que ellos trafican mucho más! Y, entonces, ellos imponen tener dinero. Si quieres vivir en la sociedad, tienes que tener dinero. [...] Si ellos han decidido esta manera de convivir, de que hay que tener dinero, pues, entonces... Para mí, el dinero ya de por sí es sucio. Entonces, para mí ganar dinero sucio... Pues no, no lo veía mal. Y, aparte, que me proponían viajar, ¡cosa que más me gusta en la vida! [Barreak] Entonces, viajar para ganar dinero... Te pagan todo, los hoteles, te pagan todo para... ¡para ganar dinero, encima! [...] Estaba segura de mí misma, porque piensas que realmente estás haciendo... no algo bien, pero no estás haciendo algo mal. Estás... igual robando unos miles de euros al Gobierno, ¡que tiene millones! ¡Vamos! Y, encima, ese dinero... Bueno, yo no... Nunca lo vi mal. Pero luego, cuando caí presa, claro... En México empezó como tipo guerra civil, ¿no? En México, desde 2009 es muy fuerte la violencia que hay por el tráfico de drogas. Entonces, en ese aspecto sí me molestaba haber participado, de alguna manera, en eso. Pero yo lo que hacía era... [Barreak] ¡muy reducido! No era una banda organizada ni armada ni mucho menos, ¿no?» (Maya, 27 urte)<sup>168</sup>.

Bigarrenik, osasun publikoaren aurkako delituekin jarraituta, legearen kontrako drogen txikikazko salerosketan aritu diren emakumeak aipa ditzakegu; hots, «trapitxeoan» edo xehekako salerosketan ibili direnak. Gehienetan, droga-kontsumitzaileak dira horretan dihardutenak, eta ohikoena da lege-haustea eta euren kontsumo propioa bata bestearekin nahastea. Askok diotenez, euren bizitzan drogak nagusi izan dira eta, beraz, kontsumoak pisu handia izan du euren egunerokotasunean; maiz, euren bizieren erritmoa markatuta, erdigunean kokatzeraino.

---

<sup>168</sup> Elkarrizketatuen kasuan, aipuak ez itzultzea erabaki dut; euren hitz egiteko modura eta izaerara ahalik eta gehien hurbiltzeko.

Lourdes aipa dezakegu bigarren kasu honen adibide argi moduan. Nerabea zela hasi zen drogak hartzen, eta ordudanik ez ditu inoiz utzi, hainbat desintoxikazio-tratamendu egin baditu ere. Kontsumo horrek eragin izugarria izan du bere bizitzaren esparru guztietan, baita espetxearekin izandako harremanean ere. Izan ere, tarteka erregulatu gabeko lanak egin dituen arren, bere biziraupenerako diru-iturri nagusia drogak saltzea eta garraiatzea izan da; hala, bere kontsumoa ere ziurtatzen zuelako. Bere kartzelaratze guztiak egitate horren kausaz izan dira eta, orotara, hamar aldiz egon da atxilo. Nolanahi ere, berak oso argi du garrantzi gutxiko delituak izan direla guztiak, eta honela adierazten du:

«Han sido tonterías, porque... ¡Tonterías! Es que... siempre mueves un poco, porque estás consumiendo. Pero yo no he sido nunca ninguna traficante ni... ¡Hostia! [...] No sé... Yo he estado buscándome la vida. He sido consumidora y me he buscado la vida. Pues he cogido papelinas<sup>169</sup>, he estado tres meses, he salido, pum, pum... [...] Si tienes tres, vendes dos y te consumes una. O sea, es que eso... Es que eso... ¿Quién? ¿Quién merece ir a la cárcel por...? Que yo no he inducido a nadie ni... ¿Sabes lo que te digo? Ni he movido kilos, ahí, que estás que... Yo... A mí me queman estas historias, ¿entiendes? [...] Pues, vale, ¿qué... qué te digo? ¿Que cambie un cachito de marihuana por un cachito de hachís? ¿Sabes? Pero es que eso no es traficar y eso no es... Eso es llegar a fin de mes y poder pagar la luz. No vivir en la calle. ¡Que yo me he visto durmiendo en un cajero! Chica, y como que no. [...] Te has estado buscando la vida, has estado trapicheando, has estado... Pero siempre moviéndote a nivel de supervivencia. [...] Te quiero decir que, bueno, buscas, pero que cuando tienes una adicción y tal, le pegas un poco al trapicheo y eso te da... te da el consumo diario. Y eso te lleva pues a la cárcel. No hay más. [...] Yo he sido una trapicherilla de... de última generación. Yo era sube y baja, para consumir. Sin más. No tengo donde caerme muerta. No tengo ni piso, ni tengo casa, ni tengo coche, ni tengo nada» (Lourdes, 48 urte).

Hirugarrenik, jabetzaren eta ordena sozioekonomikoaren aurkako lege-hausteei helduta, ebasketa nahiz lapurreta txikiak egin dituzten emakumeak ditugu. Eskuarki, horrelakoak egiten dituztenak estutasunez bizi dira, egoera ekonomiko nahiko prekarioan; eta, beraz, delitua beraien eguneroko biziraupenarekin lotuta dago, baita, askotan, beraien familien biziraupenarekin ere. Gehienbat, emakume ijitoak dira horrelakoetan dihardutenak eta, sarri, ohiko diru-iturritzat dute; hau da, bizimodua ateratzeko eta senideak mantentzeko usaiako jardueratzat dute, kasik enplegua izango balitz bezala. Hala, ohikoa da delituzko

---

<sup>169</sup> Txikikazko salmenta egiteko, paperean bildutako droga-dosiak; oro har, heroina- edo kokaina-dosiak.

ekintza ingurune hurbilean normalizatuta egotea eta familia bereko hainbat kide partaide izatea. Oro har, garrantzi gutxiko ebasketak edo lapurretak dira; baina, ohikoak izanda, auzien pilaketak espetxera eramaten ditu, kondena luzeekin batzuetan.

Esandakoaren erakusle, Miriamen kasua dugu. Bere maila ekonomikoa nahiko kaskarra izan da betidanik, eta bizirauteko erregulazio gutxiko edota gabeko lan informaletan eta delituzko jardueretan aritu behar izan du, gaztetatik, maiz bere amarekin batera. Berak prekariedade hori ijitoa izatearekin lotzen du, eurek jasan ohi dituzten lan-bazterketa eta askotariko diskriminazioak salatuta. Diru-laguntza publikoak jaso baditu ere, dirua ez da sekula familia mantentzeko nahikoa izan; eta, ondorioz, zer edo zer egiteko betebeharra zuela sentituta, usu txatarra lapurtu izan du. Ohiko ekintza izan da beretzat eta ia lanbide moduan ulertzen zuen. Egitate horregatik Komunitatearen Aldeko Lanak eta isunak jaso ondoren, azkenean, preso sartu zuten, txatarra lapurtu izana egozten zioten hiru auziren pilaketaren kausaz. Honela azaltzen du gertatutakoa:

«Mi experiencia ha sido un poco de... temas de la chatarra. He tenido... Hay días que me salía bien, hay días que me salía mal. Hay días que nos cogían y nos quitaban todo. Y se me ha ido acumulando, hasta que ha llegado el día de entrar a... a la cárcel. [...] Yo tenía la obligación de ir por ahí a trabajar... a coger chatarra. No íbamos a atracar bancos, ni mucho menos. Ibas a lo que ibas, a coger un poco de chatarra para dar de comer a tus hijos. Pero hemos tenido muy mala pata de... pues eso, de entrar a la cárcel. [...] Tenías que comprar todo lo que necesitaban, pagar la luz y todo eso... y no, no nos llegaba. Son cosas que pasan. Hay días que... pues eso, que no teníamos ni pa' comer. Hay días que tienes comida. Había días que no. Pues, tenía que ir... Era una obligación» (Miriam, 39 urte).

Delitu horietaz harago, esan bezala, gaineratiko delituak nahiko ezohikoak dira. Ikerketa honetan elkarrizketatutako emakumeen artean, nola ez, egon badaude hilketak, lesioak, indarrez egindako lapurretak edo maulak egin dituztenak, baina gutxiengoa dira argi eta garbi. Halaber, gutxi dira eurek egin ez dituzten delituengatik espetxeratutakoak, baina hainbat kasu daude, eta ezin ditugu aipatu gabe utzi; izan ere, baten batzuk lege-haustea egin zen lekuan eta unean egoteagatik, auziaren barne egon ziren eta, aholku desegokiak jasota batzuetan, giltzapean amaitu zuten.

Oro har, elkarrizketatutako emakumeek gertatutakoaren ardura euren gain hartzen dute, erantzule agertuta. Gehiengoaren iritziz, lege-haustea eurek hartutako erabakia izan zen.

Eurentzat onuragarria izan zitekeen aukeraren alde egin nahi izan zuten, legez kontrakoa zela jakinda, eta, horrenbestez, erantzukizuna euren da, eta ez beste inorena. Delituaren autoreak ez direnek ere, maiz, euren gain hartzen dute ardura, arriskuaz ez jabetzeagatik edo epaiketan zehar urrats egokiak ez emateagatik. Gutxi dira biktima edo engainaturiko emakume moduan sentitzen direnak, baina egon badaude batzuk, jakina; batez ere, lege-haustea egin ez dutenen artean, baita poliziaren aurrean salatu zituztela uste duten *mula* hainbaten artean ere, askok baitiote droga-trafikatzaile handiek *mula* batzuk traizionatu eta saldu ohi dituztela beti, beste batzuek euren jomuga lor dezaten. Bestalde, gehienek egindakoaren ardura eta ondoreak euren gain hartzeak ez du esan nahi jasotako espetxe-zigorrekin ados daudenik. Izan ere, ia guztien ustez, kondenak gehiegizkoak eta neurritz gorakoak dira. Eskuarki, delituzko ekintza egitea erabaki zutenek ez zekiten zer-nolako zigorra jaso zezaketen horregatik, eta, batzuetan, atxilotuta izateko aukerak zenbatekoak ziren ere ez. Hori dela eta, batzuek diote ez zirela benetako arriskuaz konturatzen; beste batzuek, nolana ere, jakinaren gainean zeudela dioten arren.

Mayak, kasurako, ez zuen arriskurik ikusi, ezta espetxeratuta buka zezakeenik pentsatu ere; besteak beste, aurretik hainbatetan egin zuelako *mula*-lana arazorik gabe. Nolanahi ere, ez da egindakoaz damutzen; baina ez du uste merezi izan zuenik. Bere hitzetan:

«No me asustaba ni... ni lo vi como un riesgo. De hecho, hasta caer presa, no... no piensas que puede pasar. Es más, tú misma te mentalizas que no va a pasar, porque si no, pues te... Emanas eso de ti. El miedo. Y pues atrae al que te... ¡Te pillan! Entonces, no... Lo he hecho antes y ha funcionado. [...] Nunca me voy a arrepentir de haber hecho eso. Pero luego, lo que pasé en la cárcel, me di cuenta de que no valía la pena el dinero. Aunque... aunque hubiera ganado millones, no vale la pena, porque te hacen mucho daño, a nivel psicológico. Tienes mucho... ¡Te cambia la vida! [*Malkoak ditu begietan*] Nadie está preparado para eso» (Maya, 27 urte).

Mayak bezala, elkarrizketatutako emakume gehienek ez direla egindakoaz damu diote. Batzuen ustez, egoerak erabat justifikatzen du gertatutakoa; eta, besteen iritziz, ez dago garbaitzeko ziorik, kartzelaldia positiboa izan zelako eurentzat, edo, sinpleki, damuak ez duelako ezertarako balio. Hala eta guztiz ere, Mayaren moduan, hainbatek nolabaiteko atsekabea adierazten dute; ez egitatea etikoki gaizki balioztatzen dutelako, espetxealdiak euren eta euren inguruneengan izandako ondorio kaltegarriengatik baizik. Bestalde, ezin aipatu gabe utzi egon badaudela argi eta garbi damu diren hainbat emakume, lege-

haustea errakuntza izan zela pentsatzen duten baten batzuk; batik bat, beharra asetzeko baino, bizi-maila edo kalitatea hobetzeko egin bazuten. Begi-bistakoa da, aztergaia zein-nahi ere izan, esperientziak askotarikoak direla.

## **6.2. Sarrerak, irteerak eta ate birakariak**

Elkarrizketatutako emakume askorentzat, espetxeko egonaldia jada euren atxiloketaren unean hasi zen, nolabait ere. Gehienek diotenez, momentu hori zauskada handikoa izan zen haientzat. Ezjakintasunaren, informazio-ezaren eta komunikatzeko oztopoen kausaz, segurtasun-gabezia, urduritasuna eta egonezina nagusi ziren, zaurgarri bezain babesgabe sentiarazteraino.

Batzuk zuzenean sartu zituzten kartzelan, prebentibo bezala; besteak, ostera, epaiketaren zain aske laga zituzten kalean, eta ez ziren espetxe-zigorra jaso arte sartu. Aukera bata ala bestea izan, eta ezberdintasunak ezberdintasun, epaia ezagutu arte igarotako denbora zinez latza izan zen guztientzat. Artega eta kezkatu, gertatuko zenaren ziurgabetasunak ez ziela euren bizitzekin aurrera egiten uzten sentitzen zuten. Izan ere, ezin zuten euren burua erabat kokatu ez kartzela barruan ez kanpoan; zerbait zuten jakiteke eta oso zaila zen etorkizunerako inolako planik pentsatzea. Batzuek, gainera, egoera horretan hainbat urte pasatu zituztela kontuan hartuta, irudia are eta larriagoa bilakatzen da; eta hori gutxi balitz bezala, batzuek diote ez zutela epaiketa ulertu, baita abokatuek okerreko aholkuak eman zizkietela edo ez zietela arreta nahikorik eskaini ere. Dena dela, ezin ukatuzkoa da zigortuta sartzeak, eta ez prebentiboki, sarrera nolabait prestatzeko aukera ematen duela.

Presondegian sartzeko moduan nolabaiteko aniztasuna hauteman daiteke; baina, oro har, elkarrizketatutako emakumezko guztien testigantzak nahiko antzekoak dira. Kartzelan aurrenekoz sartu zirenak nahigabetuta, kezkatu eta bakarrik sentitu ziren; une hori zinez mingarria, zaila bezain zirrarakoa izan baitzen beraiantzat. Askok diotenez, munduaren amaiera izango balitz bezala bizi izan zuten; eta, hortaz, etsipen handiz, ez zirela egoera jasateko gauza izango uste zuten. Sartzerakoan hala moduzko azalpen batzuk jaso arren, gehienak informazio-ezaz kexu dira, eta guztiz galdurik sentitu zirela baieztatzen dute. Egoera horretan, aurreiritziak nahiz pelikuletako irudiak nagusitu ziren aunitzentzat, eta, horrenbestez, askok pentsatzen zuten uniformeak jantzi beharko zutela eta beste presoan

erasoei aurre egin beharko zietela; bada, izututa, gaineratiko atxiloak arriskutsuak zirela eta eurak kolpatu, jipoitu eta are bortxatzeko ere kapaz izango zirela uste zuten. Haatik, azkar konturatu ziren beldur horien zentzugabekeriaz, presoek ez dutelako uniformerik janzen eta, eraso baino, sartuberriei laguntza eskaini ohi dietelako.

Simoneren testigantzak ondo islatzen du esandakoa. Brasildarra jatorriz, espetxean sartu aurretik egoera irregularrean zegoen eta prostituzio-klub bat garbitzen lan egiten zuen. Bertan, Polizia Nazionalea sarekada egiten ari zela, lankide batek kokaina-poltsa batzuk ezkutatu zituen Simoneren motxilan. Haatik, poliziek aurkitu eta Simone atxilotu zuten. Ziegan hiru egun pasatu eta gero, aske utzi zuten epaiketaren zain. Judizioa bi urtetara egin zen, eta, osasun publikoaren aurkako delitua leporatuta, lau urteko espetxe-zigorra ezarri zioten; epaileak, baina, kondena horren ordeztan, Espainiako Estatutik kanporatzea agindu zuen. Alta, Simonek ez zuen horrelakorik nahi, lotsagarria iruditzen zitzaizkion horretan itzultzea etxera, eta bere abokatuari errekurtsioa jartzeko eskatu zion. Dena konponduta zegoela uste zuen, baina, egiaz, abokatuak ez zuen helegiterik prestatu eta, azkenean, epaia hausteagatik atxilotu eta espetxeratu zuten. Auzi horrekin erabat lasai ez egonda ere, ez zuen inoiz irudikatu bere burua kartzelan. Aitzitik, ezustean giltzapean zegoen. Presondegian sartzea oso estugarria izan zen beretzat. Beldurra, bakardadea eta lotsa sentitzen zuen; eta ateen ixterakoan egiten zuten hotsa betiko geratu zaio gogoan, bizitza ere ixten ari zitzaizkiola sentitzen baitzuen. Ezin zuen gertatzen ari zitzaiona ez ulertu ez onartu, eta hirutan saiatu zen bere buruaz beste egiten. Honela azaltzen du:

«El día 1 de septiembre he ingresado en cárcere<sup>170</sup>. En Martutene. Y te da... cinco minutos. Una llamada de cinco minutos para que tú comunique a alguien de tu familia, ¿no? No tienen en consideración que tú... tú eres de China, de Brasil, de Colombia... con los fusos<sup>171</sup> y con las cosas, y que cinco minutos para que tú explique... que tú estás en cárcere ingresando... Se queda, ¿no? Claro, también ese momento es un momento que es... [Etenaldi luzea] [Hunkituta] Es que... [Negarrez] Tú no piensas en nada, ¿no? Yo no he pensado en nada. Sólo pensaba en... las portas<sup>172</sup> cerrando... “Jo, ¿qué hago yo aquí ahora? ¿Qué voy a hacer?”. Y todo el mundo te mirando... [...] Sólo fue me enterar mismo da... da situación que estaba, después de... unas dos semanas ahí. Y... en esas dos semanas, dentro de la cárcere, ¡puf! La única cosa que me pasaba por la

---

<sup>170</sup> Portugesez, kartzela.

<sup>171</sup> Portugesez, ordu-eremuak.

<sup>172</sup> Portugesez, ateak.



cabeza era... bueno... ¡quitar mi vida! ¡Sí! Ya no tenía más sentido nada. [*Oso baxu*]  
Eso» (Simone, 36 urte).

Espetxean aurretik ere egon direntzat, esperientzia guztiz bestelakoa da. Eurentzat ere kezkarria eta samingarria izan arren, espetxe-sistemaren gaineko ezagutzak bestelako ikuspuntua eskaintzen die; ondorioz, ezberdin barneratzen dute eta ezberdin egiten diote aurre.

Elenak, kasu baterako, lau espetxeratze izan ditu. Izan ere, nahiko gaztea zela, heroina hartzen hasi zen eta, pixkanaka, bere droga-menpekotasuna asetzeko, lapurretak egiteari ekin zion. Drogak aspaldi laga bazituen ere, urteetan egindako lege-hausteez kartzela sakonki ezagutzera eraman dute eta ezberdintasun nabarmenak antzematen ditu bere lau espetxeratzeen artean. Guztiak lazgarriak izan diren arren, lehenengoa bereziki gogorra izan zen beretzat. Gaineratiko hirurak bestelakoak izan ziren, bere burua nola edo hala prestatzen jakin zuelako. Honela oroitzen du bere lehen kartzelatzea:

«¡Oh, fue horrible! Fue... Fue horrible. Yo iba ahí... Jo, tenía 19... ¡20 años! Que era cuando empezaba a hacer el tonto con la heroína y eso. Jo, ¡pero era una niña! No dejás de ser una niña. Y yo ahí toda... Me dieron la opción de poder cumplir en un centro [de desintoxicación]. Cumplimiento alternativo. Y yo toda chula le digo a la jueza... Voy por varios centros [de desintoxicación], mirando a ver cómo eran, y le digo que no. No, no, no. ¡Que yo me voy a prisión! La jueza, la abogada, mis padres... todo el mundo se me quedaron mirando en el juzgado como diciendo “A ti... se te ha ido... ¿Te ha patinado el embrague?”. O sea, me llevaron por todos los centros [de desintoxicación] y yo que no, que para dentro. Una vez me veo dentro, ¡ay, madre! No era... Todo era coger el teléfono y “¡Sacarme de aquí! ¡Sacarme de aquí! ¡Que me he equivocado!”. Hice un escrito a la jueza, diciéndole que lo sentía, que me había equivocado, que la oportunidad que me había dado que no sé qué, que... Encima, estaba embarazada de mi primera hija. Y nada, dos meses y medio y salí disparada. [*Etenaldia*] Jo, un sustillo que me pegaron, pero fue algo horrible. La toma esa de contacto» (Elena, 39 urte).

Bere azken espetxeratzea oso ezberdina izan zen. Bera bilatzeko eta atxilotzeko agindua zegoela jakinda, sartzeko une egokienaren zain egon zen. Esaterako, iraganean, droga-kontu bategatik emakume preso batzuen erasoak jasan zuen eta, kartzelan berriz sartzeko, horiek barruan ez egon arte itxaron zuen. Egun aproposa, bere iduriko, ailegatu zenean, presondegian azaldu zen. Bere hitzetan:

«Este último, por ejemplo, yo sabía que tenía que entrar, sabía dónde iba perfectamente, sabía ya que había un Módulo de Respeto... que existía en Martutene. Por eso también esperé. Porque si yo llego a entrar en el momento que el juez me decía, que quería que entrara, o sea, me volvía a juntar con la gente de hace seis años, que fueron las que me dieron la paliza. O sea, ¿a qué voy a entrar? ¿A... buscarme otra ruina? Pues no. Y no estaba yo como para ello, además. O sea... A mí... Se acababan de llevar a mi hija, tenía... acababa de perder mi libertad, acababa de perder ¡todo! Y lo que no voy a hacer es entrar a destruirme más. Esperé a que... Las fueron llevando, y más o menos cuando ya vi... vi que pude entrar, pues cogí valor y ¡venga, para dentro! “Cumpló lo que tengo que cumplir”. Me entregué yo, después de un año y medio. “Cumpló lo que tengo que cumplir, voy a salir rápido, porque es una condena de dos años. O sea, es cuestión de ¡venga! De ir, hacer todo lo que pueda, aprovechar el tiempo al máximo que pueda y salir cuanto antes de ahí”. Y, pues... no me ha salido tan mal» (Elena, 39 urte).

Modu batean zein bestean izan, elkarrizketatutako emakume guztiek diote nolabaiteko ikaskuntza-prozesua dagoela. Hobeto ala okerrago, denek kokatzen dute azkenik euren burua testuinguruan. Izan ere, argi dute bertan bizirauteko, egoera jasateko eta aurrera egiteko, jarrera aldatu eta espetxera nola edo hala moldatu beharra dagoela, bertan nola bizi ikasita. Zaila izanda ere, nolabaiteko egunerokotasuna edo errutina sortu behar dela uste dute; baita jendea, hizkera, arauak, funtzionamendua eta eremuaren berezitasunak barneratu behar direla ere. Prozesu horretan, gaineratiko emakume presoek berebiziko garrantzia dute; finean, euren egiten dutena behatuta eta euren aldetik laguntza jasota ikasi ohi dute gehienek nola jokatu behar duten. Hala, batzuek diote azkenean egokitu, eta are ohitu ere egiten zarela; beste batzuek, ostera, hori ezinezkoa dela uste dute eta, sinpleki, egoera onartu, eta baldintza horietan bizitzen ikasten duzula.

Dianaren hitzak ekar ditzakegu. Beste emakume ijito askoren moduan, hainbat txatarra-lapurretaren pilaketaren ondorioz espetxeratu zuten; eta kartzelako arauak zehazki ez betetzeagatik, zortzi urteko zigorra kasik osorik bete zuen itxialdian. Bere esperientzia oinarri hartuta, baieztatzen du ezinezkoa dela atxilo egotera ohitzea, baina nola edo hala jasaten ikasten duzula. Honela azaltzen du:

«A ver, hacerte ahí no te vas a hacer, porque allí puedes pagar veinte años de cárcel y jamás te adaptarás a una cárcel. Tienes que saber llevarla. [Etenaldia] Es llevarla y sin más. Vivir el día a día que te toca ahí, hasta que te den tus... tus permisos, tus... algún artículo o la condicional, o tu libertad. [Etenaldia] Pero ahí nunca te adaptarás. En una

prisión, nunca jamás te adaptarás. [*Etenaldia*] Siempre haces... Te asimilas que tienes que llevarla y sin más» (Diana, 33 urte).

Dianaren kasua, zentzu batean, nahiko ezohikoa da; ez baita arrunta emakume presoek euren kondenak ia osorik betetzea itxialdian. Tratamendu Batzordeko kideek atxiloaren balorazio positiboa egiten badute –eta hala gertatzen da gehienetan–, irteera-baimenak, hirugarren gradua (erregimen irekia) eta baldintzapeko askatasuna eman ohi dizkiote.

Elkarrizketatutako emakume gehienek emozio askoren eztanda moduan oroitzen dituzte hasierako irteera horiek. Ateratzeko irrikaz eta beldurrez, barreak eta malkoak aipatzen dituzte; alde batetik, lasaitasuna eta poza sentitu zutelako; eta, bestetik, desorientazioa zein ziurgabetasuna. Askok fisikoki ondoeza ere bizi izan zuten. Denbora luzez espazio txiki bezain mugatu eta monotonoetan egon ondoren, eremu zabaletan zorabiatu egiten ziren, baita jende askorekin gainezka egin ere. Aurretik inkontzienteki eta arretarik gabe egiten zituzten ekintza arruntak egiterakoan, sentsazio arraroak zituzten gehienek.

Léak, kasurako, osasun publikoaren kontrako delitua egotzita, ia hamar urteko espetxe-zigorra jaso zuen. Hainbat urte bete zituen itxialdian, Picassenteko kartzelan (Valentzia) lehenik, eta Langraiz Okakoan ondoren. Lehen irteera-baimena lortu zuenean, bere ama eta aitaordea Frantziatik gerturatu ziren, egun hori berekin igarotzeko. Ondoezik eta zorabiatuta egon zela oroitzen du batik bat:

«Cuando empecé a salir, buah, ¡me ha cambiado mogollón! Ya la vista la siento más... No veo tanto como antes. O mis oídos o... No sé... Cuando la primera vez que salí a la calle, como... Comer con los cubiertos se me hacía raro. Hemos ido en el Boulevard<sup>173</sup> con mi madre y mi padrastro, y hemos cogido... ¿Cómo se llama? ¿La escalera que te sube? “Aaah”. Y los ascensores como “Aaah”. Y el corazón como... Ver tanta gente... No podía. Mi madre no paraba de hacerme foto, foto... Y mi padrastro hasta me vio blanca, y entonces me cogió y le dijo “Isabelle, para”. Me han sacado para fuera y había demasiada gente... “¿Estás bien?”. No podía casi respirar. “Estoy mareada, hay mucha gente”. De tanto... tanto tiempo encerrada, todo eso, yo... ¡buah!» (Léa, 28 urte).

Alta, behin kalera irtetera ohituta, askorentzat egonezinak jarraitu zuen. Izan ere, sekzio irekian eta baldintzapeko askatasunean zeudenean, bestelako arazoekin topo egin zuten. Azken batean, espetxetik ateratzea aldaketa handia izan ohi da; batetik, zinez pozgarria,

---

<sup>173</sup> Gasteizen kokaturiko merkataritza-gunea.

desiratutako askatasuna geroz eta gertuago dagoelako; baina, bestetik, zaila eta gogorra, kanpoan egon arren preso daudela oroitarazten dieten betebeharrak asko dituztelako: esate baterako, kartzelan lo egitea edo aldizka sinatzera joatea.

Era berean, behin behineko nahiz behin betiko askatasuna lortzea ere pozgarria bezain latza izan zen gehienentzat, hutsetik abiatu behar zutela sentitu zutelako maiz. Aurretik zituzten zailtasun berberekin segitu zuten; eta, gainera, kartzelaldiaren ondoriozko arazo gehiago ere topatu zituzten. Hasteko, kezka askori aurre egin behar izan zieten: non bizi, nola lortu enplegua, nola berrartu familiako harremanak, etab. Makina bat izapide ere prestatu behar izan zuten, euren agiriak eguneratzeko edo Espetxetik irten direnentzako Subsidioaren<sup>174</sup> gisako diru-laguntzak eskatzeko. Kasu batzuetan, presoekin lan egiten duten elkarretetako kideei edota senideei esker, prozesua apur bat samurragoa izan zen; baina, nolana ere, elkarrizketatutako emakume guztiek diote kartzelatik irtetea ez dela batere erraza. Beldurra, zalantza nahiz ziurgabetasuna nagusi da, eta askotan babesgabe sentitzen dira. Batzuek diotenez, gakoa kartzelak sustatutako autonomia-galeran dago. Giltzapean, erabaki asko hartzeko gaitasuna galtzen duzu, baina, berriro ere kalera irtetean, zuk zeuk atera behar duzu bizimodua eta, sarri, jadanik ez dakizu nola egin. Hala, elkarrizketatutako emakume gehienek kalera berriro ohitzeko denbora behar izan zutela diote, zure burua birkokatzea zaila baita.

Elenak, bere azken espetxealdian hamaika hilabete itxialdian pasatu eta gero, honelaxe azaltzen du nolakoa den irtetea:

«Es todo tan diferente... También es... [*Etenaldia*] O sea, me encontré... Te esperas encontrar lo mismo que dejaste y... no, no es así. Que la vida sigue adelante. Y sales y las cosas no están como tú creías. También es otro contraste... difícil de llevar» (Elena, 39 urte).

Bestalde, aintzat izan behar dugu, esan bezala, elkarrizketatutako emakumeetako batzuk hainbat aldiz sartu eta irten direla espetxetik. Oro har, delituzko ekintzak berriro egiten dituzten emakumeen zenbatekoa ez da oso altua (SGIP, 2009a: 16); alabaina, askotariko arrazoiak direla eta, egon badaude hainbat kasu, jakina. Salbuespenak salbuespen, legehausteren bat berriro egiten dutenen kopuru altuenak ijitoen eta droga-kontsumitzaileen

---

<sup>174</sup> Espetxetik irteten direnek hileroko 426 euro kobratzeko aukera dute, ondorengo kondizioak betez gero: baldintzapeko edo behin betiko askatasunean egotea, langabe egotea eta gutxienez sei hilabete egon izana preso. Gehienez ere, hemezortzi hilabetez jasoko dute diru-laguntza.

artean daude, delitua oso txertaturik dagoelako euren egunerokotasunean eta, ondorioz, dinamika aldatzea ez delako batere erraza (EDIS, 2005; Barańí, 2007; Castillo eta Ruiz, 2010). Edonola ere, horiek ez ezik, beste batzuek ere errepikatzen dituzte delituzko egitateak; gehienetan, zailtasun ekonomikoen edo prekarietatearen aurrean, lege-haustea berriro estrategiatzat hartzen dutelako.

Mertxek bere testigantzan azaltzen duenez, preso aurrenekoz sartu zutenean, benetako beharrik gabe egindako delitu bategatik izan zen. Bizi-maila hobetzeko asmoz, berak eta bere orduko bikotekideak baietz esan zioten euren itsasontzian droga-kopuru handia garraiatzeko proposamen bati. Alta, poliziak atzeman, eta zortzi urteko espetxe-zigorra jaso zuten. Geroago, berriro ere sartu zuten Mertxe atxilo, baina bigarren aldi horretan egoera zeharo diferentea izan zen. Arazo ekonomikoak zituen eta ez zuen lana topatzen; ez zien alabei dirua eskatu nahi, jadanik dirua laga ziotelako, eta ebasketa txikiak egiten hasi zen. Harrapatu zutenez, isuna jarri zioten; alabaina, ezin izan zuenez ordaindu, etxe barruko arreatzearekin ordeztu zioten. Azken horretan ere kale egin zuenez, azkenean, bederatzi hilabeteko espetxe-zigorra ezarri zioten. Zor zuena ordaintzeko eta horrekin kartzela saihesteko, lapurreta handiago batean parte hartu zuen orduan. Berriro atzeman zuten baina, eta urte eta erdiko beste espetxe-zigor bat ezarri zioten. Honela azaltzen du berak:

«Mira, tú, por ejemplo, haces un hurto. De nada, de un frasco de colonia. Te viene la ertzaina, porque te han pillado con el frasco de colonia. Te llevan a... Te hacen un acta para presentarte en un juicio rápido al día siguiente. Te condenan siempre normalmente a un mes. A 3 euros el día, supongamos. A 3 o a 6 [euros]. Depende, ¿no? Vale, es una falta y lo tienes que pagar. ¿Que no lo puedes pagar? Pues equivale, como tienes antecedentes penales, equivale por cada dos cuotas a un día de prisión. Y si no, arresto domiciliario. Pero yo como dejé de pagar treinta y tantos euros, me dijeron dos días de arresto. Y que en uno de ellos... Vienen tres veces al día, a mirar a ver si estás. Pero es que, en uno de ellos, no estuve. En una de las llamadas. ¡Que a mí me parece increíble! Pero como ellos no tenían la firma y dicen que llamaron varias veces a la puerta y repetidamente... [...] Bueno, pues quebrantamiento. Dieciocho meses. Dieciocho que son nueve. Pero mira cómo está la justicia que, por ejemplo, por dejar de pagar de una falta treinta y tantos euros, a lo que puedes llegar: a estar en la cárcel. Y mira cómo está la sociedad, que dices “Tengo que hacer... tengo que hacer algo para pagar esas multas. Porque si no, voy a la cárcel”. ¿Y qué haces? Volver a ir... a ver si puedes sacar un... [...] Fue como me metí al... a la liada del robo» (Mertxe, 61 urte).

Bestalde, espetxetik irteterakoan emakumeek aurre egin beharreko zailtasun eta arazoan artean, ezin dugu estigmatizatzea ahantzi (Naredo, 2007; Juliano, 2009a, 2011; Almeda, 2010). Eurengan eragin handiagoa ala txikiagoa izan, eurei gehiago edo gutxiago axola izan, denek dakite emakume delitugile eta presoaren irudia zinez negatiboa dela oro har. Jakin badakite, gizartearen gehiengoaren ustez, gaizkileak direla; arriskutsuak eta arazo-sortzaileak, inola ere ez fidatzekoak. Era berean, badakite emakume bezala ere auzitan daudela batzuetan; ama, alaba, amona edota bikotekide eskas moduan etiketatu ohi dituztela. Gizarte-bazterketari aurre egin behar diotenaz konturatzen dira. Baina, hala eta guztiz ere, askok diote pertsona batzuegan babes eta sostengua aurkitu dutela, eta ulerkorrek diren pertsona baten batzuekin topo egin dutela. Zalantzarik gabe, ingurune hurbilaren elkartasuna izan dutenentzat, estigma jasangarriagoa izan da.

Espetxetik atera berri, kalean jendea begira geratzen zitzaiela eta preso egon zirela jakin zezaketela sentitzen zuten elkarrizketatuetako askok; fisikoki sumatuko balitzaie bezala, seinale edo markaren bat izango balute bezala, kopetan idatzita eramango balute bezala. Gehienentzat sentipen hori denborarekin desagertu bazen ere, ez zen gauza bera gertatu estigmaren beste alderdi batzuekin. Izan ere, askok diote besteak baino gutxiago izatea sentitu dutela, eta zer esango dutenen beldurrez edo lotsaz egon direla. Beste batzuek ez omen dute inolako ahalkerik izan; baina, hala eta guztiz ere, preso ohia izatea enplegua edota etxebizitza lortzeko traba bezala aipatzen dute. Nolanahi ere, batzuek zein besteek estigmatizatzea kritikatzan dute. Jendartearen gehiengoak ezjakintasun handiz gogorkiro epaitzen dituelako kexu dira; giltzapean askotariko gizon-emakumeak daudela diote eta, oro har, ez direla gaiztoenak, zaurgarrienak edo pobreenak baizik.

Esate baterako, Saioak emakume presoan estigma auzitan jartzen du, eta euren istorioak kontuan izan gabe zorrozki gaitzesten dituztelako arranguratzen da, kartzelatzea jende gehienak uste duena baino askoz ere gertuago dagoela defendatuta. Bakoitzaren egoera eta baldintzak aintzat hartu behar direla dio; baita, bere kasuan, egindako lapurreta guztiak biziraupen-kontua izan zirela ere. Honelaxe dio:

«Se piensan que somos bichos raros. [Etenaldia] Se piensan que “Uy, ¿una mujer presa? ¡Uy, cuidado!”. Y no. Que somos personas igual que todo el mundo, vamos. Somos seres humanos también. No nos tienen que tratar peor por ser presas. Igual es... ¡Puede ser la mejor persona que te echas a la cara! [Etenaldia] Que en este mundo si... Estamos en la cárcel, pero por... Tenemos nuestras cosas. Por ganarlos la vida o lo que sea. Pero

por eso no te tienen que juzgarte, no te tienen que apartarte, porque seas una presa. ¡Digo yo, vamos! [Etenaldia] Porque, ¿quién sabe? La que más habla que “Oh, ¡una presa! ¡Qué miedo!”, no hables mucho, porque puede que tú entres... o puede que algún familiar tuyo entre. [...] ¿Pero? [Etenaldia] Es que somos bichos raros para la gente. Bichos raros. [...] Pero es que no saben todo lo que has pasado. ¡Tú no sabes la vida de antes que hemos tenido nosotras para...! Tú no puedes juzgar a una persona de repente. Tú no sabes nada de esa persona y no la puedes juzgar porque sea una presa, porque vaya a robar... porque tú tengas mucho dinero. ¿Y qué? Hay gente que se lo tiene que buscar ¡de una manera o de otra! Y yo antes de ponerme a puta, pues... fui a robar. La verdad. Y como yo, mucha gente. [Etenaldia] Es que yo no sé... Es muy fuerte también que te dejen de lado porque sepan que eres presa, porque robes o... Eso en su momento lo has hecho, pero tus motivos has tenido» (Saioa, 23 urte).

Bestalde, ezin dugu ahaztu emakume presoaren estigma bestelako kategoria baztertzaila zenbaitekin korapilatzen dela batzuetan. Horixe dugu, hain zuzen ere, Lourdesen kasua. Desairez eta gutxiago izango balitz bezala tratatu dute maiz; baina, bere iritziz, arrazoia ez da kartzela izan, droga-menpekotasuna baizik. Bere kontaeran, emakume atxiloaren gaitzespena baino, emakume «jonkiarena» ageri da, beretzat horren ondoriozko gizarte-arbuioa izan baita mingarriena. Bere hitzetan:

«Odio mucho la falsedad y la superioridad, ¿me entiendes? El... el déspota, el que te creas más, ¿entiendes? El que te mira por encima. Odio eso. [...] Hay tanto mamoneo de... de que te tratan como una yonqui, ¿entiendes? [...] Que te hacen como si fueras... Te hacen sentirte más o menos una mierda [...]. La gente que mira por arriba, ¡buah! [...] Rechazo... Es que de... sobre todo, de los que se creen... de los que te miran por arriba, ¡claro! [...] Como eres una tóxica... Si ya no es cuestión de cárcel y de no cárcel, ¿me entiendes? Es que estás marginada a nivel... social, y a nivel hasta de dentro de... de la marginalidad» (Lourdes, 48 urte).

Estigmatizatzearen nolakotasuna zeinahi ere izan, elkarrizketatutako emakume guztiek nolabaiteko kudeaketa egiten dute eta nola edo hala aurre egiten diote. Hasteko, guztiek erabakitzen dute, egoeraren eta hartzailearen arabera, zer esaten eta zer gordetzen duten, noiz eta nola kontatzen duten. Izan ere, gerta litezkeen ondorio kaltegarriak saihesteko babes-estrategia bezala erabiltzen dute isiltasuna (Juliano, 2011: 151). Batzuetan, euren ingurune hurbiletan ere baliatzen dute; haurrentzat edota egia kostata onartuko duten helduentzat bestelako bertsioak asmatuta –aldi baterako bertsioak, orokorki–, estigmatik

babesteko ahaleaginean. Orobat, baten batzuk estigma konpentsatzen saiatzen dira, eredu hegemonikoak zorrotz beteta, baita kartzelarekiko distantzia azpimarratuta eta presoak parekotzat hartzeari uko eginda ere; funtsean, behin arau batzuk apurtuta, beste zenbait ere apurtzea errazagoa izan daitekeen arren, guztientzat ez da hain askatzailea. Bestalde, asko dira sarri entzungor egin behar dela diotenak ere; jendeak esan dezakeenari muzin egin behar zaiola. Azken batean, ooren gainetik, nola hala aurrera egitea baita kontua.

### **6.3. Emozioak, aldaketak, ikaskuntzak**

Sartzeko eta irteteko uneez haratago, kartzelaldia bera emozio oso biziko denboraldia da emakumezko presoentzat, orain arte bakarrik zeharka esan badut ere. Elkarriketatuek, kasurako, gorabehera emozional handiak gogoratzen dituzte; bai askotariko sentipenak, bai aldarte aldakorrak aipatuta. Zalantzarik gabe, itxialdiak denei modu berean erasan ez badie ere, eragin nabarmena izan du guztiengan eta nolabait aldarazi ditu. Aunitz dira bere ondorioak osasunean ere pairatu dituztenak; esate baterako, asko baitira depresioa edota antsietatearen moduko gaitzak jasan dituztenak giltzapean, eta kalera irtendakoan horien kalteekin segitu dutenak ere bai.

Espetxealdia emozionalki deskribatzean, askok oroitzen dituzte frustrazioa eta etsipena, atsekabea eta nahigabea, baita bakardadea eta amorrua ere. Azken hori nahiko deigarria da, emakumezkoei usu ukatutako emozioa denez gero. Haatik, bestelako emozio batean jarri behar dugu arreta; oroz gain, sentipenik aipatuena ezintasuna baita. Léak, adibidez, honela adierazten du zer sentitzen zuen preso egonda:

«Impotencia. Una palabra: im-po-ten-cia. Impotencia, porque... [*Barre etsia*] no puedes hacer nada, ¡nada! [*Etenaldia*] Eso sí que... Para mí era lo peor, pero... ¡no hay otra! [*Etenaldia*] Duele, porque sé que mi familia me necesitaba y...» (Léa, 28 urte).

Léak asko sufritu zuen bera preso zegoen bitartean, bere ama urrun eta gaixo zegoelako; nolabait ere, senideek bere beharra zutela eta berak kale egiten ari ziela sentitu zuelako. Egia esateko, sentipen nahiko arrunta da (Juliano, 2009a, 2011; Aguilera, 2011). Bada, Léarentzat bezalaxe, emakume preso gehienentzat mingarriena ez da espetxeko murrue barruan egotea, familiaren ondoan ez egotea baizik. Hala, askorentzat zaila eta gogorra da senideekiko harremanari buruz hitz egitea, eta batzuek gaia saihesten dute. Edonola



ere, erruduntasun-sentimendu handia erakusten dute. Izan ere, orokorrean, genero-eredu hegemonikoak guztiz barneratuta, asko sufritu dute zaintza-lanak ezin egiteagatik, baita senitartekoei mina eragiteagatik ere; haiei huts egiteagatik, haiek babesgabe uzteagatik eta haientzat zama bihurtzeagatik. Kezka handien iturburu izan da familiaren egoera, eta asko hartu-emanak hondatzearen edota haustearen beldur izan dira. Bereziki gogorrek izan diren egunak aipatzen dituzte usu; senitartekoen heriotzak, eritasunak eta istripuak, nahiz urtebetetzeak, Gabonak eta bestelako familia-ospakizunak oroituta. Bestalde, batzuen batzuek oso gaizki pasatu dute ahaideen konfiantza eta errespetua galtuzat jota. Eskuarki, gehienek sentitu dute ama, alaba edo amona txarrak izan direla, moduren batean edota bestean; eta askok, gertatutakoarekin atsekabetuta, eta are lotsatuta ere, senitartekoei barkamena eskatu diete.

Miriamek, adibidez, bere bi alaba gazteenen ondoan ez egoteagatik eta zaintza-lanak ez egiteagatik asko sufritu du. Alaba zaharrenaren ardurapean ondo artatuta zeudela jakin arren eta aldiro euren babesa izan arren, ezin izan du haiei huts egin izanaren sentipena gainditu eta hori zinez samingarria izan da beretzat. Honela laburbiltzen du nola sentituen:

«Pues, mal. Mal... porque... por las niñas, porque nunca les he dejao solas. Unas niñas que siempre han estao conmigo y... Es muy triste, muy triste... He pasao... He estao poco tiempo, pero he... lo he pasao muy mal. [*Etenaldia*] Lo he pasao muy mal, muy mal... Llamaba y las niñas llorando y eso, y... Lo pasas mal. En una prisión, lo pasas muy mal por la familia. Llamas, pasa cualquier cosa y no puedes hacer nada. Me se ha puesto la niña enferma, la de 12 años. Estuvo con mucha fiebre. Claro, todo eso... El no poder estar con ella... Ya sé que está mi hija [mayor], ¿no? Pero no es igual, ¿sabes? Y la niña pues na' más que estaba esperando que veniría a casa. Claro, ellas, por mucho que les expliques, no... no... ¿Qué vas a decirles a las niñas?» (Miriam, 39 urte).

Mertxek ere bere alabengatik sufritu du batik bat. Baina ez zaintza-lanak ez egiteagatik, euri mina egiteagatik eta ama eskasa izateagatik baizik. Ahalkez nahiz erruduntasunez gainezka, oso nahigabetuta egon da, estu bezain larri; eta alabei barkamena eskatu behar ziela sentitu du. Hasieran asko lotsatu eta haserretu baziren ere, euren sostengua izan du. Bere hitzetan:

«Yo pensaba “He destrozado mi familia. Mis hijas están...”. Bueno, ¡yo unas lloreras...! Bueno, lloreras y más que lloreras. Me quedaba hasta sin voz de aguantar el

llanto, y ese nudo que se te forma te trabaja mucho las cuerdas vocales y yo muchas mañanas me levantaba sin voz [*Arnasa hartzen du sakon*] de lo mal que lo pasaba, ¿no? [...] Yo les he pedido perdón. Me... me adoran. Eso yo lo tengo bien claro. Como yo a ellas. Me he sentido muy culpable de hacerles sufrir. Eso lo he llevado encima. [...] A mí, ellas son las que más me han dolido, a las que más daño he podido hacer. Y eso yo lo he sufrido conmigo misma. Yo me he sentido mal conmigo misma por haberles hecho eso. [...] Y he sufrido. Pero ya conmigo misma, pero... pero no por mí. Porque a mí que me echen lo que quieran, pero que no las hagan sufrir a mis hijas. Y yo las he hecho sufrir. Son las que más quiero y las he hecho sufrir. Pues me he sentido mal. Iba a decir “sucía”. No es la palabra correcta “sucia”, pero me he sentido conmigo misma mal. Muy mal ejemplo» (Mertxe, 61 urte).

Dudarik gabe, giltzapean izandako bizipen horiek guztiek berebiziko eragina izan dute elkarrizketatutako emakumeengan. Ezinbestean, denak markatuta daude, zentzu batean ala bestean izan. Iritziak, baina, askotarikoak dira: batzuen ustez, nabarmen aldatu dira; beste batzuen aburuz, ez horrenbeste; eta, inolaz ere aldatu ez dela dioenik ere badago, itxialdiaren aztarnak sumatu arren, kartzelak ezin izan duela bera gainditu defendatzeko saialdian. Nolanahi ere, zuzenean edo zeharka, guztiek aipatzen dituzte eraldaketak; oso anitzak diren eraldaketak, guztiak ez baitira era berean mudatu. Kasu baterako, batzuek autonomiaren eta autoestimua galera azpimarratzen dute, euren buruengan ziurtasun eta konfiantza gutxiago nabari dutela adierazita, baita beldurtiagoak bilakatu direla ere; baina beste batzuek, kartzelaldia jasan ondoren, indartsuago sentitzen dira, zailtasunen gainetik bizitzan aurrera egiteko ahalmen gehiagorekin. Era berean, batzuk lehen baino herratsuago, egoistago zein oldarkorrago uste dira; eta, beste batzuk, aldiz, toleranteago, solidarioago nahiz pazienteago. Oro har, denek diote aurretik aintzat hartzen ez zituzten kontu asko estimatzen dituztela orain; maite dituzten pertsonekin txeratsuagoak direla, baina gaineratikoekin isilkorragoak, barnerakoiagoak eta mesfidatiagoak direla, nahiko hotz eta bakarzale bilakatu baitira.

Adibide argigarri bezala, Juliaren testigantza ekar dezakegu. Birritan egon da kartzelan, osasun publikoaren aurkako delituak leporatuta. Orokorrean espetxealdiak bere onerako izan direla uste badu ere, negatiboki balioztatzen ditu beregan sumatzen dituen hainbat eraldaketa; bere iduriko, itxialdiek inoiz ez bezain bakarti eta fidagaitz bilakatu baitute. Honela azaltzen du:

«Me he vuelto más solitaria. Soy incapaz de confiar en nadie. [...] No me fío de nadie, de nadie, nadie, nadie. Soy incapaz de... Soy muy... ¡muy tajante! Me he vuelto muy... ¿Cómo te digo? Más responsable que antes, pero muy cortante, muy a la defensiva... a la gente. Me tengo puesta mi caparazón, ¿cierto? O sea, me como mucho las cosas. Yo antes era... ¡buah! Hablaba de mi vida... Ahora no suelo hablar con nadie de mi vida, y cuando hablo con alguien es porque tengo confianza o porque me puede ayudar, ¿sabes? Psicológicamente. Me hundo mucho... Ahora más que antes. [...] Estoy más solitaria» (Julia, 53 urte).

Juliak bezalaxe, Simonek ere pentsatzen du kartzelak susmaberago eta hotzago bihurtu duela; eta, horrez gainera, baita autonomia, ziurtasuna eta espontaneotasuna galduarazi dizkiola ere. Askok aldatu denaz ohartzen da, eta gorputzaren mailan ere antzematen ditu diferentziak. Azken finean, behin betiko askatasuna aspaldi erdietsi zuen arren, kartzela beregan dagoela sentitzen du oraindik. Espetxean ohikoak diren, baina kalean arraroak diren keinu eta jarrera asko erabat barneratuta dituela dio. Atera berritan presondegiaren usaina sentitzen zuen larruazalean, eta, denbora batez, lixibarekin garbituta saiatu zen kanporatzen, nolabait, kartzela beregandik desagerrarazteko ahaleginean. Bere hitzetan:

«La cárcel es la cárcel... y ese puto olor y esa puta estructura no te quita, ¿no? No te sale. Parece que te... que está en la pele<sup>175</sup>, ¿no? Es una cosa... impresionante. [...] Esa educação<sup>176</sup> exacerbada también que se utiliza, los tratamientos... Que tener que llamar a un funcionario o a una funcionaria de “señorita”, “seño”, “don no sé qué”, “señorita” o “señor”. ¡Es que tú no usas eso en tu día a día! Y cuando sales, después de tanto tiempo, soltas, ¿no? “Señorita, no sé qué”, ¿no? Y las personas te miran así [extrañadas], ¿no? O sales, te das cuenta que a veces tú estás en un sitio y colocas las manos para atrás. O, si viene la policía, tú ya te quedas un poco... ¿no? Medio asustada, medio... [...] Yo no soporto el olor da cárcel. [*Barre etsia*] Sí. Me he pasado creo que un mes... un mes lavando con lejía. Y, claro, como estaba en una casa de acogida, luego pasaba... un perfume en el cuerpo, entonces me escocía muchísimo. Pero me frotaba, me frotaba con força<sup>177</sup>, eh. Sí. Me daba sensação<sup>178</sup> que estaba me limpiando. Porque me sento... me sentía sucia na cárcel. Por más que me duchase, que estaba siempre aseada, pero me

---

<sup>175</sup> Portugesez, larruazala.

<sup>176</sup> Portugesez, heziera.

<sup>177</sup> Portugesez, indarra.

<sup>178</sup> Portugesez, sentazioa.

sentía sucia. Todavía ainda<sup>179</sup> tengo ese síndrome de... suciedad. De olor. Parece que olor está impregnado en la pele» (Simone, 36 urte).

Simonek bezala, elkarrizketatutako beste emakume batzuek ere nabari dituzte aldaketak gorputzezko mailan. Bere antzera, hainbatek aipatzen dute otzantasuna eta mendetasuna adierazten duten portaerak barneratu dituztela; hala nola: burua makurtzea, begietara ez begiratzea edo eskuak bizkarraldean biltzea. Halaber, batzuen batzuek diote hurbilekoak gehiago ukitzen, besarkatzen eta musukatzen dituztela, nahiz eta ezezagunekin kontaktu fisikoa saihesten duten.

Bestelako maila batean, baina aldaketekin guztiz lotuta, aunitzek aipatutako ikaskuntzak ere jorratu behar ditugu. Espetxealdiaren balorazioa positiboagoa ala negatiboagoa izan, hainbatek dute bizipenarekin ikasi izanaren sentrazioa. Askotariko ikaskuntzei buruz ari dira: lasaiago eta egunean bizitzea, etorkizunerako egitasmo gehiegirik gabe; konpainia nahiz bakardadea estimatzea; bizitzan egiaz garrantzitsuak diren kontuak balioztatzea; etab. Baten batzuek jendarteak emakumeei nolabait ukatutako ikaskuntzak ere aipatzen dituzte; esate baterako, ezetz esaten edota agresibitatea erabiltzen ikasi dutela baitiote.

Simonek, adibidez, kartzelaldiari buruzko iritzi zinez negatiboa izanda ere, norbanakoak gehiago errespetatzen eta gutxiago epaitzen ikasi duela uste du; giltzapeko esperientziek bere aurrejuzguak auzitan jartzera eraman baitute. Honelaxe azaltzen du:

«Yo aprendí ahí que no tengo que juzgar a nadie. Cada uno tiene su... su verdad, sus cosas... En un determinado momento ha hecho lo que ha hecho, pero yo no soy nadie para juzgar a nadie. ¡No me gustaría que me juzgasen! Y aprendí a respetar y a no juzgar. Porque, queriendo o no, siempre hacía pensamientos pecaminosos sobre los actos de otros, ¿no? O siempre decía “Jo, conmigo eso no va a pasar, porque yo no estoy en ese medio y no voy me meter con eso”, porque... me sentía un poco más lista o... no sé. Pero, ahora, aprendí que no. No juzgo a nadie y no cuestiono. Por supuesto, puedo discutir con alguien, pero sanamente, ¿no? Pero va a ser mi punto de vista y su punto de vista. “Respeto tu punto de vista, que tú respetes también<sup>180</sup>, no compartimos eso, o lo compartimos a medias, pero... desde el respeto”. [*Oso baxu*] Sí, aprendí muchísimo a respetar a las personas» (Simone, 36 urte).

---

<sup>179</sup> Portugesez, oraindik.

<sup>180</sup> Portugesez, ere.

Argi dago eraldaketak eta ikaskuntzak askotarikoak direla, eta batzuk onerako eta beste batzuk txarrerako diruditela. Esan bezala, kartzelaldiari buruzko balorazioak ere benetan anitzak dira. Baina kontuan izan behar dugu, askotan, aldaketen eta ikasketen esparruan positiboa dirudienak ez duela zertan bat egin iritzi orokor positibo batekin, negatiboa dirudienak balorazio orokor negatiboa adierazten ez duen bezalaxe. Ulermenaren gakoa bizipenen konplexutasunean dago; eta, ezbairik gabe, ñabardura handiko istorioak dira.

#### **6.4. Kartzelaldiari buruzko iritzi positiboak**

Elkarrizketatuen artean, espetxealdia gutxi-asko positiboki balioztatzen duten hainbat emakume daude. Bada, itxialdiaren nolakotasuna zein-nahi ere izan, sartu zirena baino hobeto atera direla baloratzen dute, eta beraien bizimodua zentzuren batean edo bestean ondu dutela pentsatzen dute. Alta, aintzat izan behar dugu emakume horien diskurtsoek askotan kontraesankorrak diruditela lehenengoan; aldeko iritzia izan arren, negatiboak diren hainbat alderdi ere aipatzen dituztelako. Esate baterako, ez dute kartzela-garaiaren mingostasuna ukatzen; sufrimendua, samina edota beldurra gogoan hartuta. Era berean, nahiz eta espetxealdia eurentzat onuragarria izan den, eta nahiz eta beste batzuentzat ere halakoxea izan daitekeela uste duten, jakin badakite oro har ez dela horrela gertatzen eta emakume gehienentzat kalterako dela. Bestalde, argi dute giltzapetik hobeto ateratzea ez dela batere erraza eta merezimendua norberarena dela, inola ere ez espetxe-sistemarena; hobekuntzak lortzeko borondate eta kemen handia behar baita. Azken batean, emakume horien kontaerek ez dute zertan kartzela-sistemaren aldekoak izan. Batzuk badira, baina beste batzuk ez; hainbatek defendatzen dute eta beste hainbatek, ostera, auzitan jartzen dute; birgizarteratzearen ideian sinesten duenik badago, kritikatzten duenik ere badagoen bezalaxe. Izan ere, funtsean, positiboki baloratzen dutena euren esperientzia propioa da; besterik ez.

Emakume horien iritziak, kartzelaldia euren bizimodua aldatzeko nolabaiteko aukera izan da, bi egitate direla eta. Alde batetik, ohartarazpen edo hondoa jotze moduko zer edo zer izan da beraientzat, ordura arte zeramaten egunerokotasun kaltegarria gelditzera behartu dituen nola edo halako inflexio-puntua; bestetik, gogoetarako garaia ere izan da, bizitza birplanteatzeko nahiz hobekuntzak abiarazteko epealdia. Azken finean, egoera horretan, zenbait topatzen dituzte hausnartzeko eta norberaren buruaren kontzientzia hartzeko

baldintza egokiak, hau da, aldaketak eta hausturak gauzatzeko kondizio aproposak. Estebanen iduriko, hiru dira eraldaketak gertatu ahal izateko faktore nagusiak: lehenik eta behin, testuinguruak eta jarduerak; bigarrenik, elkarrekintzak; azkenik, erreferentzia ideologikoak; norbanakoak etengabe, modu dinamikoan eta malguan, eragile horien arabera eraikitzen garelakoan (2004: 245-246). Argi eta garbi, espetxera lekualdatzeak bestelako testuinguru batean egotea eta bestelako ekintzak egitea dakar, baita bestelako gizarte-harremanak izatea eta bestelako baloreak eta pentsaerak ezagutzea ere. Egiazki, kartzela ez den beste eremu batean ere jazo daitezke zirkunstantzia horiek; alabaina, balorazio positiboa egiten duten emakumeek giltzapean topatu dituzte, hain justu ere.

Orokorki, aldeko iritzia duten emakumeen artean hiru multzo bereiz daitezke. Lehenik, espetxean kanpoan baino arrisku gutxiago eta segurtasun gehiago daukaten emakumeak ditugu. Etxegabeak diren, muturreko pobrezia jasaten duten edota indarkeria pairatzen duten emakumeak izan ohi dira. Beraientzat presondegia nolabaiteko babeslekua izan daiteke; suspertzeko eremua, ohiko ingurunea baino erosoagoa eta lasaiagoa denez gero. Bigarrenik, kartzelaldian drogak hartzeari utzi dioten emakumezkoak ditugu. Izan ere, giltzapean ere drogak egon badauden arren, kontsumo-patroiak mudatu egiten dira, eta emakume batzuek egoera hori baliatzen dute menpekotasuna gainditzeko. Hirugarrenik eta azkenik, norberarentzako denbora eta espazioa topatuta, egoerari onura atera dioten emakumeak ditugu; besteekiko dedikazioa eta etxe barruko nahiz kanpoko lanak epealdi batez desagertuta, baten batzuk euren burua zaintzen, ongizatea bilatzen, baita ikasketa- eta lan-prestakuntza hobetzen ere aritzen baitira.

Elkarrizketatutako emakumeen artean, aipaturiko kasuak ondo islatzen dituzten hainbat daude eta, jarraian, hiru adibide ikusiko ditugu. Lehenik eta behin, Juliaren testigantzari helduko diogu; zeinak positiboki balioztatzen duen bere lehenengo espetxeratzea, droga hartzeari utzi ziolako behin betiko. Bere aburuz, itxialdia gogorra izan arren, aldatzeko aukera paregabea eskaintzen du; baliatzen dakienarentzat, behintzat. Berari bizitza eman diola uste du, eta horregatik eskerdun da. Bere hitzetan:

«Salí en 2007, y desde que salí de prisión, nunca más he vuelto a consumir droga. [...] Cuando salí, di gracias a Nanclares de la Oca, porque gracias a entrar en el penal de Nanclares [de la Oca], yo como persona me rehabilité, como mujer, como cerebro, como... analizar la mierda de la droga. Porque es una puta mierda. Porque la mejor droga es vivir el día a día, con los tuyos. Y, bueno, estoy muy orgullosa de haber pasado

por ahí. [...] Gracias a ello, yo... estoy viva. Porque no sé lo que hubiera acabado de hacer, ¿no? [...] Yo, para mí es lo mejor que he podido hacer en mi vida: entrar en prisión. [...] Me ha dado mucha vida estar en prisión. Me ha hecho ser y pensar. Y quitarme de la porquería. [...] Yo les agradezco a la Justicia que me hayan hecho pasar por ahí. Porque, si yo no entro en prisión, a lo mejor estoy criando malvas... o estoy con una aguja...» (Julia, 53 urte).

Nahiko gaztetandik droga-kontsumoan, menpekotasunak bere bizitza jasanezin bilakatu omen zuen, hondamendira eramanda. Honela azaltzen du:

«Es que antes de la cárcel era un infierno. Era un infierno. No era buena vida. Para nada... Para nada. Yo me levantaba y lo primero que pensaba en coger diez gramos diarios para estar drogada todo el día y olvidarme... Yo me olvidé de mi hija, me olvidé de su embarazo, me olvidé del nacimiento de mis nietas, me olvidé de todo, porque me absorbía bastante la droga. [...] Pero el meterme en la droga fue de la cosa más tonta también, ¿no? [...] A ver, yo me llevo drogando desde que tengo 17 años. Yo empecé drogándome con cannabis. Y nunca había probado la cocaína. Nunca en la vida. Nada más que cuando yo había ido a Bilbao, de la cosa más tonta... [...] en una fiesta, un cumpleaños: “Ah, pues una rayita”, “Venga, va, una rayita”. Me gustó. [...] Yo me encerré en un mundo... Yo me encerraba en mi habitación. Ahí me daban horas y días y días y días, y no salía. Me quedé muy delgada, [...] me quedé como destruida, mi cerebro se destruyó. Tampoco me preocupaba en ese momento mi vida, ¿me explico? O sea, ¿sabes lo que es meterte en un hoyo y no saber cómo salir?» (Julia, 53 urte).

Kartzela barruan, baina kartzelaren aldetik inolako laguntzarik jaso gabe utzi zion droga hartzeari. Bere kabuz egin zuen, bere borondatez; eta zinez harro dago horregatik, ondo baitaki droga-kontsumitzaile gehienek ez dutela lortzen. Honelaxe dio:

«No mucha gente sale de ello, ¿no? Y más, sin medicación. [...] ¿Qué necesidad tienes de ir a un médico? Si un médico te abotina de pastillas o medicaciones, si la mejor terapia es quitártela tú, día a día, a pulso. [...] Todo por mi coco. Mi fuerza de voluntad. ¡Es que tienes que tenerla! Es que si no eres... A ver, yo pienso que la gente que se mete en la droga se mete por un motivo, ¿cierto? Si tiene que salir, no necesita médicos. ¡Pienso que tiene que salir por ella misma! Si tu fuerza de voluntad ha sido para engancharte a una droga, tiene que salir también de ello. Porque si te metes en pastillas, medicaciones, médicos, psicólogos, psiquiatras... te vuelves más tarumba. [...] Poder es

querer, y cuando se quiere de corazón y de verdad... ¿Que tardas un año? ¡Como si tardas veinte! Pero sales» (Julia, 53 urte).

Prozesua oso gogorra izan zen eta, batik bat, bilobengan pentsatuta lortu zuen. Izan ere, drogak ama txarra sentiarazi du, eta ez zuen amona txarra ere izan nahi. Bere hitzetan:

«Yo, desde que me metí en la droga, habré hablado cuatro o cinco veces con mi hija. [...] Puf... Fue muy duro sentirme una madre marrana. No me comporté como una madre. Me comporté como una drogadicta. [...] El sentirte una drogadicta y... echar por tierra a tu hija, el nacimiento de mis nietas... [...] A lo mejor, si no hubiera tenido a mis nietas, hubiera seguido» (Julia, 53 urte).

Bigarrenik, Léaren adierazpenak jasoko ditugu. Geroago bere egoera nabarmenki aldatu zen arren, elkarrizketaren unean bere espetxealdia positiboki baloratu zuen; oroz gain, hari esker bizirik jarraitzen zuela azpimarratuta. Hala adierazi zuen:

«Yo estaba vendiendo, ¡y consumiendo! Pero gracias a Dios... Lo que le digo a mi madre, que “Mamá, es verdad que mucha condena y todo eso, pero me estaba drogando y necesitaba... o sea, entrar en prisión”. [...] Hay mucha gente que se ha muerto, ¿sabes? Y yo, al menos, he tenido la oportunidad de entrar en prisión y ¡de no morirme! Porque a lo mejor estaría ya muerta. [...] Es que estaba ¡enganchadísima! Si al entrar en la cárcel, ¡no llegaba ni a cincuenta kilos! Y hago 1,71 [m.]. ¡Imagínate! Era demasiado. Yo misma, o sea, ¡creo que me ha salvado la vida entrar en prisión! [...] Yo he tenido una segunda oportunidad. [...] Si no habría ido a la cárcel, yo estaría muerta creo. Metiéndome rayas en... en la nariz, ¿sabes? Estaba que no... no podía ni respirar. No tengo... No voy a mentir. ¡No tengo olfato! ¡No tengo! Porque me he metido tantas rayas que... Y sangraba de la nariz y todo, pero no... ¡Me daba igual! Es que estaba... [...] Me ha salvado la vida de verdad, el entrar. Y a lo mejor salvaría a otras personas que se están metiendo mierdas afuera. [...] A lo mejor me equivoco, pero a mí me ha salvado. Me ha ayudado muchísimo. [...] Creo que entré en el peor momento de mi vida. Pero... he salido. [...] A mí me ha venido bien, de verdad» (Léa, 28 urte).

Juliaren antzera, Léak ez zuen ez tratamendurik ez medikaziorik erabili menpekotasuna gainditzeko; baina kide on baten laguntza eta zainketa izan zuen. Prozesua ez zen batere erraza izan. Kostata lortu zuen heroina eta kokaina uztea. Honelaxe oroitu zuen:

«Yo he sufrido mucho, pero... Me quería hasta morir. O sea, quería... [Etenaldia] Y, al final, pues hice una compañera francesa, que todavía estoy en contacto con ella y viene



a verme de vez en cuando. [...] Me ha apoyado muchísimo. [*Etenaldia*] Gracias a ella voy a seguir adelante, he hecho deporte, he empezado a pensar por mí... Claro, lo he pasado muy mal, pero... ¡Puf! No había otra. [...] Yo no quería tomar metadona ni cosas así. No quería porque he tenido la experiencia de ver a una compañera mía que se murió con metadona. Me había jurado que no tomaría nunca y no he tomado. ¡Lo he pasado mal, eh! [...] No podía ni comer, vomitaba todo lo que comía, estaba... fatal. [...] No podía... Daba vueltas, calor, frío... Mi compañera [...] me ayudó a ducharme, me apoyó un montón... ¡Puf! Si no estaba ella, creo que... Me ha ayudado muchísimo» (Léa, 28 urte).

Droga ez hartzeari eusteko bere buruarengan pentsatzen zuen, baita bere amarengan ere. Aurrera ateratzeko nahiera bizia zuen. Aitzitik, oso argi zuen ez zela nolana hiko desira, lehendik hainbat berrerortze izan baitzituen. Hala azaldu zuen:

«Yo creo que tengo... Valgo más. Al menos, si no lo hago por mí, lo hago por mi mamá. Por mí también. [*Etenaldia*] No sé... Yo quiero salir para adelante. Puf... ¡Es que tengo muchas cosas! La vida es demasiado bella para... no sé... ¡para perderselo! Claro, hay malos momentos. Pues, te puedo asegurar que yo he subido muchas escaleras y me he caído de... casi todas, y agarrándome para reintentar subirlas muchas veces, ¿sabes?» (Léa, 28 urte).

Beste berrerortze bat izan zen, hain zuzen ere, elkarrizketa egin eta hilabete batzuetara izan zuena; berriro ere droga hartzeari ekin baitzion. Bere aburuz, berri txar batzuen eta zenbait beheraldiren kausaz gertatu zen. Nolanahi ere, egoera horretan, lortu berria zuen baldintzapeko askatasuna urratu, eta presondegira itzuli behar izan zuen. Hortaz, Léaren kasua eta Juliarena konparatuta, nahiko argi hauteman dezakegu espetxearekin lotutako hobekuntzak epe luzerakoak edo motzerakoak izan daitezkeela, iraunkorrak edota soilik une batekoak.

Hirugarrenik, azken adibide moduan, Altagraciaren istorioa hartuko dugu. Dominikarra jatorriz, aspalditik bizi zen Euskal Herrian, bertako gizon batekin ezkondu. Alta, preso sartu baino urte eta erdi lehenago, dibortziatzea erabaki zuen. Bere iritziz, une horretatik aurrera, bizimodu desagoki bezain kaltegarria izan zuen. Behinola, liskar batean, lesioak egin zizkion emakume bati; eta, erantzukizun zibila<sup>181</sup> ez ordaintzengatik, espetxean sartu

---

<sup>181</sup> Kasu batzuetan, epaileak erantzukizun zibilaren ordainketa ezartzen du; hau da, egindako kalteengatik, delituaren autoreak biktimari diru-kopuru jakin bat ordaindu behar diola erabakitzen du. Espetxean sartuz gero, ezin da ez erregimen irekia ez baldintzapeko askatasuna lortu, ordainketa hori egin ezean.

behar izan zuen. Itxialdiko esperientzia oso mingarria izan da beretzat, batez ere, seme-alabengandik urrun egoteagatik. Hala eta guztiz ere, positiboki balioztatzen du, onurak aurkitzen eta bizipena aprobetxatzen asmatu duelakoan. Bere iduriko, beharrezkoa zuen geldialdia izan da; bere buruarengan zentratzeko eta bere bizitza ardatzeko aukera eman dion epealdia. Ondo daki emakume gehienentzat ez dela horren onuragarria, baina berak bere burua zaintzeko, utzita zituen zaletasunak berrartzeko eta prestakuntza hobetzeko denbora propioa izan duela azpimarratzen du. Bere hitzetan:

«Estuvo bien que me pasara. [...] Hombre, ha sido una experiencia negativa, o sea, lo que viví la verdad es que... fue algo muy... Es muy traumático. Pero tal y como dice Kelly Clarkson en su canción *Stronger*: “What doesn’t kill you makes you stronger”. O sea, lo que no te mata te hace mucho más fuerte. Y eso fue lo que me pasó a mí. Fue una experiencia, que sí, fue difícil, fue muy difícil. Sufrí muchísimo. Pero he sacado todo lo positivo de la experiencia. [...] O sea, entré en la cárcel, y yo creo que entré en un momento adecuado, y que hasta agradezco hoy día haber entrado en la cárcel. ¡Fíjate lo que te digo! [...] De verdad que te digo que fue... es como... ¿cuando haces un stop en tu vida? Como que tú estás desbordada: móvil, ordenador, tal, cual, todo... tiendas, compras, esto, aquello, lo otro, fiesta, tíos, tías... ¡lo que sea! [...] Tienes tantas cosas... amigas, amigos, hijos, tal, que ni siquiera te da tiempo para... Es más, yo estaba hasta alejándome de mi familia. [...] Pero eso yo... ¡yo no lo pensé nunca! Yo lo pensé en la cárcel, en [Alcalá-]Meco, porque allí tenía tiempo de pensar, porque allí podía dedicarme tiempo a mí. [...] Tiempo a mí misma, a mi interior, a mi espiritualidad. [...] ¿Que sufrí muchísimo? Pues sí, coño. ¿Quién no va a sufrir? Estás lejos de tus hijos. [...] Pero allí leí muchos libros, aprendí muchísimo. [...] Ese año me aportó muchísimas cosas. Y... y fue una experiencia malísima, porque sufrí mucho estar lejos de mis hijos, pero para mí, saco de ella todo lo positivo que se puede sacar de la experiencia. [...] El stop que tenía que hacer en mi vida lo he hecho, y lo he aprovechado» (Altagracia, 35 urte).

Hiru adibide horiek ikusita, espetxealdiari buruzko aldeko iritzien atala bukatzeko ohar bat egitea besterik ez da falta. Izan ere, kontuan hartu behar dugu positiboak izan gabe, nahastuta eta okerki halakotzat har daitezkeen zenbait adierazpen daudela. Irudikatzen zuten bezain biolentoa ez izateagatik, latzagoak omen diren garaiak edota testuinguruak ezagutzeagatik, baita bizitzan esperientzia okerragoak izateagatik ere, elkarrizketatutako emakume batzuek kartzela ez dela horren gogorra ere adierazten dute nolabait. Aitzitik,

ez dira hitz horiek balorazio positibotzat hartu behar; konparaketa egitean, zerbait hain txarra ez dela adierazteak ez baitu esan nahi ontzat jotzen denik.

Azken oharpen honen erakuskari argi bezala, Aitanak esandakoari helduko diogu. Bitan egon da espetxean, osasun publikoaren kontrako delituak eta lapurretak egotzita; baina kartzelaldiari buruzko bere ezagutza haratago ere badoa, bere hainbat senidek ere jasan baitute itxialdia. Aurreko garaiekin alderatuta, gaur egun, presondegiak ez omen zaizkio benetako kartzelak iruditzen; iraganean askoz biolentoagoak eta arriskutsuagoak zirela nabarmenduta. Honelaxe dio:

«Para mí, ¡son colegios privados de libertad! Y yo siempre lo diré, aunque me digan lo contrario. Para mí, son colegios. No son como antes. ¡Cárceles! Antes eran cárceles. Antes entrabas por una puerta y... las típicas, como se solía decir antes, las kíes<sup>182</sup> del patio, te metían en el baño y te quitaban todo lo que tenías. O sea... Ahora son colegios privados de libertad. No son cárceles. [...] Es que... ¡hay muchísima diferencia! Ahora... Es que ahora ¡vives en la cárcel! Antes no tenías ni televisión, no tenías ni ducha, no tenías ni radio... en una celda. Sólo tenías tu cama. ¡Y la ropa te la tenía que traer tu familia! ¡La de la cama! No te la daba Instituciones [Penitenciarias] antes. Ahora tienes ducha, tienes radio, tienes televisión, tienes... la ropa, que te la dan ellos [...]. ¡Antes no tenías nada de eso! O sea, ¡ha evolucionado muchísimo! Que yo llevo desde los 11 años en la puerta de una cárcel, eh, para ver a mis hermanos. [...] Iba a verles y ¡no tenían vis a vises! [...] 21 ó 22 años tenía yo la primera vez que tuve un vis a vis con mi hermano. ¡En una cárcel! O sea, lo que es una sala, como ahora. Eso ha evolucionado... ¡vamos! Por eso te digo, que para mí la cárcel yo la defino ahora: colegios privados de libertad» (Aitana, 47 urte).

Aitanaren antzera, beste batzuek ere deskribatzen dute espetxea eskola moduan, baita erreformatario edota barnetegi bezala ere; horrela ikuspegia samurtuta, kartzela jendeak pentsa dezakeen bezain lazgarria ez delakoan. Alabaina, jadanik esan bezala, ez ditugu kasu horiek automatikoki balorazio positibotzat jo behar. Aitanak, hain justu ere, iritzi zinez negatiboa du, eta giltzapea benetan gogorra dela eta markatuta uzten zaituela uste du; oroitzapen samingarri asko dituela dio, eta horiek ez astintzeko hainbat solasaldi-gai saihesten dituela. Azken batean, aldeko eta kontrako balorazioak *continuumean* ulertzea komeni da, askotariko mailak daudela kontuan hartuta.

---

<sup>182</sup> Kartzelako jargoian, biolentoak, arriskutsuak eta gatazkatsuak diren preso boteredunak.

## 6.5. Espetxealdiari buruzko balorazio negatiboak

Kartzela-garaiaren gaineko iritzi positiboak egonda ere, preso izandako kasik emakume guztiek balorazio negatiboa egiten dute. Harreman, jarduera edo momentu batzuk onak izan direla ukatu gabe, inoiz izandako esperientziarik okerrena edo okerrenetarikoa izan dela adierazten dute. Zinez samingarria, gogorra bezain suntsitzailea, buruhaustea eta atsekabeak besterik ez dizkiela eman azaltzen dute. Era berean, bizitzan asko galduarazi dienaz eta sartu zirena baino eskasago atera direnaz kexu dira; eurentzat amesgaiztoa, infernua edota amaierarik gabeko zuloa izan dela baieztatuta. Aunitzek diote giltzapean umiliazioa eta beheramendua nagusi direla, duintasunak ez duela lekurik, eta, baldintza horietan, euren gizatasuna ere kolokan sentitu dutela; norbanako gisa baliorik izango ez balute bezala, eskubiderik merezi izango ez balute bezala edo gizartetik at egongo balira bezala. Guztientzat mugarrria izan da euren ibilbideetan; batzuentzat, baita parentesi edo kako artean kokatu beharreko zerbait ere, euren bizitzen aldi baterako etenaldi gisa bizi izan baitute, nolabait, euren benetako izatetik aldendu balitu bezala.

Milaren hitzek oso ondo adierazten dute kartzelak eragindako samina zein galerasentsazioa. Gazte hasi zen heroina eta beste hainbat droga hartzen; eta 16 edo 17 urterekin kartzelaratu zuten aurrenekoz. Ez du oroitzen guztira zenbat aldiz egon den preso, baina zazpi aldiz izan dela uste du. Nolanahi ere, urte piloa igaro du giltzapean eta presondegi asko ezagutu ditu, askotariko delituak direla eta. Ez du ia harremanik bere familiarekin eta nahiko bakarrik sentitzen da; malkoen artean, bere alaba amarekin lotsatu egiten dela ere aipatzen du. Bere iritziak, kartzelaldiek dena kendu diote bizitzan. Horregatik, hiltzeko gogoia baino ez duela dio; etorkizunerako ez duela inolako nahirik. Biziki hunkituta, espetxe-zigorra erabat zentzugabea dela dio. Bere hitzetan:

«¿La cárcel? [*Etenaldi luzea*] Para mí ha sido el... separarme de todo lo que quería [*Negarrez*] y quitarme todo. [*Malkoak irensten ditu*] Porque es que es un poco... [*Etenaldia*] Hasta el punto que yo... [*Malkoak irensten ditu*] cuando me hablan de casa, para mí mi casa es la cárcel. Ha sido más la cárcel que otra cosa. [...] Cualquiera persona quiere su libertad. [...] [*Oso baxu*] ¿Qué quieren hacer con nosotros? No lo entiendo. ¿Qué es lo que quieren? Es que no... [*Arnasa hartzen du sakon*] Es que no lo entiendo. [...] La verdad es que... es incomprendible. [*Etenaldia*] Es como si bajan ahora una jaula gigante y...» (Mila, 48-49 urte).

Era berean, Itziarren testigantzak ere argi erakusten du espetxealdiaren kontrako iritzia. Milaren antzera, nerabezaroan heroina eta beste hainbat droga hartzeari ekin zion; eta, kontsumo hori asetzeko, hainbat lege-hauste egin zituen. Sekula zigortu ez bazuten ere, hirutan kartzelatu zuten prebentiboki; aurrenekoan osasun publikoaren aurkako delitua egotzita, gainerako bietan lapurreta armatuak. Bere ustez, espetxealdiak bere bizitzaren aldi baterako etenaldiak baino ez ziren izan; tarte batez, bera bereizirik jarri izan balute bezala, bere benetako bizitza geldirik edo aparte egongo balitz bezala. Bere esperientzia oinarri hartuta, giltzapea denbora-galera handia dela pentsatzen du; ateratzean, aurreko bizimolde berarekin segitu baitzuen, berdin-berdin. Bere iduriko, ez du inolako onurarik edo ekarpenik egiten; ez du inor laguntzeko balio. Hala, auzitan jartzen du kartzelaldiak inoren hobekuntzan meritua duenik, eta eraldaketa horiek bestelako azalpenak dituztela defendatzen du. Berak, esate baterako, bere semearen tutoretza galtzeko arriskua sentitu zuenean baino ez zituen utzi drogak eta delituak behin betiko. Honelaxe argudiatzen du zergatik ikusten duen espetxe-zigorra negatiboki:

«Para mí... puf... la entrada en la cárcel fue una pérdida de tiempo. Pero, claro, es que... cuando robas, pues tienes que pagarlo, ¿no? [*Etenaldia*] Pero fue, pues eso, un tiempo de mi vida... ¡un stop! Yo es como si en ese tiempo de mi vida hubiese estado parada, sin hacer nada. O sea, que como si estaría... muerta no, pero... ¿Cuando te quedas paralizada? ¿No? Ese estadio de tiempo... que sí, que estuve allí, me estuve drogando, estuve presa, pero fue... sin vida. [...] Eso es un infierno. Porque... Es un infierno, pero no porque vives ahí muy mal, sino porque es todo una mentira. [...] Es un sitio donde... ¡se practica la mentira! ¿Sabes? Y entonces, una persona lo ve como... Para mucha gente eso es un infierno. [...] ¡Porque ahí no encuentras salida a nada! Eso es un túnel sin... La cárcel es un túnel sin salida. [*Etenaldia*] Es un túnel sin salida, porque ¿cuántas personas salen, entran, pagan grandes condenas, salen con un montón de años y... y qué? ¿Esa gente qué? ¿Qué es de su vida? Si no tienen nada luego. O sea, muchos vuelven a delinquir, otros muchos... ¡yo qué sé! Vuelven a delinquir y vuelven a entrar. [*Etenaldia*] Es un túnel sin salida la cárcel. ¿Que habrá gente que se haya rehabilitado en la cárcel? No lo creo que sea en la cárcel. Yo creo que más por su familia o lo que sea. ¿Y que hayan tenido oportunidades cuando hayan salido? Pues, igual hay alguien, algunos, pero los menos, eh. Pocos habrá. Yo eso lo veo como un túnel sin salida. [...] Es una luz apagada» (Itziar, 47 urte).

Itziarren moduan, kartzelaldiaren balorazio negatiboa egiten duten emakumezko guztiek diote espetxeak ez duela deus onerako balio eta preso sartutako gehienentzat kaltegarria

dela. Beraien iritziz, laguntza benetan behar duten pertsona aunitz egon arren itxialdian, presondegia ez da inola ere ez inor sostengatzeko gauza, guztiz desagokia denez gero. Espetxealdian zigorra nagusi dela diote, konplitu beharreko denbora-tartea dela eta kito. Hala, ondo azpimarratzen dute sartu zirena baino hobeto atera diren gutxi horiek euren merituz lortu dutela aldaketa, eta ez kartzela-sistemari esker. Helburu ofizialak ei diren birgizarteratzea, birgaitzea eta berreztea auzitan jartzen dituzte; ez direnez inondik inora ere betetzen, gezur edo iruzur handiak direlakoan. Hainbatek jomuga horien beharra ere jartzen dute zalantzan; atxiloek artezteko eta bestelako portaerak edota balioak ikasteko premia dutenik kritikatur, baita euren arazoak beste batzuk direla argituta ere. Batzuek espetxe-sistemaren kontrako jarrera nabarmena dute, eta presondegien desagertpenaren alde agertzen dira; beste batzuek, aldiz, soilik egiazki larriak diren kasuetan erabiltzekoa dela defendatzen dute. Edozelan ere, denek diote alternatibak sustatu behar direla, hots, ordezkoko neurriak eta bestelako sistemak bilatu beharrean gaudela.

Mertxe da kartzelaren ustezko izaera birgizarteratzailea argi eta garbi zalantzan jartzen duenetako bat. Izan ere, eragiten dituen aldaketa guztiak txarrerako direla baiesten du. Honela dio:

«La cárcel no reinserta. ¿Para qué sirve? Para cumplir una condena que has cometido un delito, y estar encerrado. Y, encima, para hacerte más duro y sufrir. Y... y avergonzarte. Todo... Yo lo veo negativo total. Yo la cárcel... La prisión la veo negativa totalmente»  
(Mertxe, 61 urte).

Halaber, Nievesek ere zalantzan jartzen du espetxe-sistema; txikitzeko, hondatzeko eta zanpatzeko besterik ez duela balio argudiatuta. Urte asko daramatza kartzelan, erailketa eta lapurreta egotzita, hogeita hiru urteko kondena ezarri ziotelako; nahiz eta berak beti defendatu duen errugabea dela. Edozelan ere, giltzapean igarotako urte luzeek espetxe-sistemarekin oso kritiko eta fidagaitz bilakatu dute; ezereztuta, indargabe eta babesgabe sentitu baita eta berreskuraezinak diren une asko galdu baititu. Bere ustez, presondegiak giza-biltegiak eta negozioak dira, hierarkia ardatz dute, eta ez dago ez duintasunezko ez gizatasunezko trataerarik presoentzat; hala, birgizarteratzea eragotzita. Kalterako baino ez dutela eragiten azaltzen du honela:

«Creo que la cárcel no debería ni de existir. Porque no sirve para reinsertar. Sirve para destruir... física y psicológicamente. Creo que hay otras alternativas. [*Arnasa hartzen du sakon*] No es normal que una persona que entré allí con una drogadicción no tenga

su programa para poder rehabilitarse, sino que, bueno, cuando cumple se va y al mes siguiente está aquí otra vez. Eso lo he visto yo, y lo veo. He tenido mucho tiempo para ver cosas. [...] La cárcel es un negocio. [*Etenaldia*] Un negocio es eso. Un negocio a costa de seres humanos. Me parece increíble que pueda todavía existir en pleno siglo XXI, cuando no ha cambiado nada. Entonces, ¿para qué ha servido? [*Etenaldia*] Para maltratar, para machacar, y, en algunos casos, para hacernos peores» (Nieves, 61 urte).

Elkarrizketatutako emakume zenbaitzuen kasuan, esandakoan ez ezik, esateko moduan ere hauteman daiteke balorazio negatiboa. Izan ere, nahiz eta batzuek lasai, gustura eta ziurtasunez hitz egiten duten, beste batzuen kontaeretan isiltasuna oso agerikoa da, era batean edo bestean. Dударik gabe, isilaldi horien esangurak askotarikoak dira<sup>183</sup>, eta ez dute beti kartzelaldiaren kontrako iritzia adierazten. Baina, askotan, halaxe gertatzen da. Batzuetan, isiltasuna babes-estrategia da; arestian aipatu bezala, balizko estigmatizatzea ekiditeko, emakume batzuek euren istorioetako zenbait pasarte ezkututzen dituztelako; eta, horrez gain, baita eurentzat samingarriak diren solasaldi-gaiak saihesten dituztelako ere. Beste batzuetan, isiluneak gogoetatsuak dira; eta hizlaria egokiro erantzuteko edota esan nahi duena ondo adierazteko hitz egokien bila ari dela islatzen dute. Azken batean, norberaren kontaketa egiterakoan, agentzia baitago (Duarte, 2012; Enck eta McDaniel, 2015). Edonola ere, badirudi aunitzetan isiltasunaren esanahi nagusia esperientziaz hitz egiteko ezintasuna edota zailtasuna dela; hau da, hutsuneak, etenak eta amaitu gabeko esaldiak sortzen direla bizipenak eragindako minaren kausaz. Horrela gertatzen denean, arrunta da baxu hitz egitea ere, ahots urratu edo dardaratsurekin, hunkituta eta urduri. Egiazki, solas egin nahi eta ezin izatea ez da soilik aurkako iritzia dutenen ezaugarria; balorazio-motarena baino, jasandako saminaren isla baita. Ukaezina da baina, batik bat, espetxea negatiboki balioztatzen dutenei gertatzen zaiela.

Egia esan, aspaldi nabarmendu zen esperientzia biolentoek bizitakoa modu egituratu eta linealean komunikatzeko trabak edo oztopoak eragiten dituztela, eta, hortaz, diskurtsoak aztertzeke zailtasunak ere sortzen dituztela (Scarry, 1985). Ideia hori garatuta, Francisco Ferrándiz antropologoak, adibidez, kontuan hartu beharreko gogoeta interesgarriak egin ditu Gerra Zibileko errepresaliatuen adierazpen-zailtasunen inguruan. Bere iritziak, duela urte oso gutxi arte, ahots horiek artikulatzeko oztopo handiak izan dituzte, eta, ondorioz,

---

<sup>183</sup> Isiltasun(ar)en inguruan sakontzeko, esate baterako, eroetxeetan sarturik bizi direnek isiltasuna(k) nola bizitzen, baliatzen eta baloratzen dutenaz hausnartzeko, ikus Martin Zapirain (2015). Orobat, isiltasunaren teorizazioan murgiltzeko, ikus Cage (1961), Castilla del Pino (1992), Le Breton (2001) eta Marco (2001).

gutxitan transmititu dituzte euren bizipenak (Ferrándiz, 2014: 70). Azalpena diktadura frankistak ezarritako politika errepresiboetan egongo litzateke; horiek galarazi baitzuten errepresaliatuek lengoaia koherentea eta legitimoa izatea. Sozialki onartutako hizkerarik gabe, denbora luzez ez dute euren sufrimenduaz hitz egiteko bitartekorik izan; eta, hala, nahiko ohikoa izan da, hitz egiten hastean, motel solastatzea, esaldi egokia ez topatzea, monosilaboak erabiltzea edo egoera konplexuak bizpahiru hitzekin azaltzea. Ferrándizi segituta, lengoaiarik edo mintzaira sofistikatorik gabeko egitate horiek, errepresaliatuen samina erakusten digute (Leizaola, 2006: 39). Ezberdintasunak ezberdintasun, ez baitut frankismoaren errepresioa eta espetxe-sistema parekatzeko inolako nahirik, Ferrándizek esandakoa zenbait emakume presori aplikagarria dela dirudi. Izan ere, begi-bistakoa da hainbatek kostata bakarrik hitz egiten dutela giltzapean bizitakoaz, min horren inguruan hitz egiteko lengoaia faltan dutela eta, ondorioz, eurena ere zatikatutako edo hautsitako mintzaira dela nolabait.

Elkarrizketatutako emakumeen artean, Simone da hitz egiteko zailtasun horietaz argien mintzatzen dena. Bere ustez, kartzelaldia norbanako batek bizi dezakeen esperientziarik okerrera da; giza-biltegi edo amaierarik gabeko zulo moduan definitzen baitu espetxea, eta bertan duintasuna zein nortasuna galtzen dituzula pentsatzen baitu. Bera ezereztuta nahiz baliogabetuta sentitu zen, gizartearen parte izateari utzi izan balio bezala. Pertsona batek ezagutu dezakeen lekurik baxuenean zegoela iruditzen zitzaion, eta, horrexegatik, ezin zela pertsona ona izan eta ez zuela deus merezi ere uste zuen. Oso argi du kartzela-sistemak ez duela onurarik egiten, ez dituela bere xede ofizialak betetzen eta ezinezkoa dela jendartetik aldentuta inor birgizarteratzea. Hori dela eta, presondegien desagerpena defendatzen du. Itxialdiaren eta estigmaren ondorioz, giltzapeaz hitz egiterakoan aunitz aztoratzen da, eta horrek komunikatzeko zailtasunak eragiten dizkio. Bere hitzetan:

«¡Es durísimo hablar sobre esto! Es... Te remueve muchísimo. Te remueve como ser humano, te remueve como persona. Tú te sientes... ¡puf! ¡Te sientes una mierda! ¡Una mierda! Simplemente. ¿Por qué estas etiquetas son... etiquetas crueles? Creadas... de la sociedad... ¡Son crueles! Porque me clasifican como... como anormal. Me clasifican como no-normal. [...] A mí personalmente me ha hecho mucho daño. Me hace mucho daño y todavía no he recuperado ni treinta por ciento de... de mi equilibrio emocional, de minha<sup>184</sup> tranquilidad emocional. Nada. Me ha hecho mucho daño emocionalmente. Aparentemente, sí, llevo una vida tranquila, estoy bien, hago un trabajo que me gusta,

---

<sup>184</sup> Portugesez, nire.



colaboro en una ONG, pero yo... yo... [Etenaldia] La cárcere para mí es... [Hunkituta] inclasificable» (Simone, 36 urte).

Alabaina, kostatu arren, Simonek hitz egiteko nahiera bizia du; eta berak bezalaxe, beste hainbatek ere. Hala, ohikoena ez izanda ere, baten batzuek publikoki kontatu dute euren esperientzia, solas egiteko zailtasunei aurre eginda. Prentsan nahiz ikus-entzunezkoetan, eskoletan eta are hitzaldietan ere, bakar batzuek euren istorioak azaldu nahi izan dituzte; jendaurrean mintzatzea oso gogorra eta asaldatzailea izanagatik ere, behar-beharrezkoa iruditzen zaielako gizartearen ezjakintasuna gainditzeko eta sentsibilizazioa sustatzeko.

Simoneren kasu zehatzean, nolabaiteko bilakaera aktibista egon dela antzeman daiteke; bere esperientzia pertsonala maila indibidualean ulertzeaz haratago, irakurketa politikoa egiten jakin duelako, urratsak emanda transgresio hutsetik eztabaidatzera, eta diskurtso ezkututik esplizitura. Presondegitik irten zenetik, bere iritzi eta ikuspegiak aldatuz joan dira, geroz eta ahalduntze-maila handiagoa erakutsita, baita jarrera geroz eta kritikagoa ere. Kontuan izan behar dugu emakume presoei buruzko liburu zein artikulu feministak irakurtzeari ekin diola; gaiarekin lotutako mintzaldi, jardunaldi eta ikus-entzunezkoetan parte hartu duela; baita kartzela-sistemeekin kritikoa eta feminista den geroz eta jende gehiagorekin erlazionatuz joan dela ere. Hala eta guztiz ere, ikusi dugun bezala, beretzat gaiari buruz hitz egitea ez da batere erraza, zinez samingarria denez gero. Bere istorioa kontatzen duenean, tarteka oso baxu hitz egiten du, ahotsa dardarka du, isildu egiten da edota negarrez hasten da. Haatik, solas egitea oso zaila izan arren eta benetan aztoratuta amaitu arren, hitz egiteko erabakia hartu duela dio; gaur egungo egoera aldatzeko bere esku dagoen guztia egiteko prest agertuta. Finean, berak sufritutakoak zer edo zertarako balio izatea nahi du; esaterako, hausnarketa pizteko baliagarria izatea, jendartea espetxe-sistemaren zentzugabekeriaz ohar dadin, gizarte-bazterketa zein aurreiritziak auzitan jarritzan, estigmatizatzeari utz diezaion, baita bestelako neurrien inguruan pentsatzen has dadin ere. Jomugak ez dira nolana hikoak, baina ezin ditu inola ere alboratu, bere izatea guztiz zeharkatzen dutenez gero. Egia esateko, kartzelaldia eta gero, espetxe-sistemaren kontrako ekintzaile bilakatzea ez da ohikoena emakumezkoen artean; baina euren arteko aniztasuna azpimarratu da hastapenetik eta, ezinbestean, aktibismoaren bidea hartzen duenik ere badago.

Azken batean, elkarriketatutako emakume guztiak daude, nola hala, beraien giltzapeko bizipenagatik trebesatuta, halabeharrez; eta, berdintasunak berdintasun, ezberdintasunak

ezberdintasun, bakoitzak esangura propioa ematen dio. Hala ulertu behar ditugu beraien kontaerak, bakoitza bere ñabardura nahiz xehetasunekin, iritzi zein ikusmolde anitzekin. Ikusten hasi garenez, kontakizunak askotarikoak dira, eta hurrengo atalburuetan horiek bihitzen jarraituko dut.

## 7. Espetxeko genero-diskriminazioak hizpide: askotariko iritziak eta ikuspegiak

*Mundu bera ikusten dugun arren, bestelako begiekin ikusten dugu.*

Virginia Woolf (1938: 16)<sup>185</sup>

Dagoeneko hainbatetan aipatu dut espetxeak genero-erakunde izaera duela, gizonezko eta emakumezko presoen arteko desberdinkeriak (bir)sortzen dituenz gero; edo, bestela esanda, emakumeentzat eremu diskriminatzailea, sexista eta androzentrikoa dela, eredu hegemonikoak bultzatuta, genero-harreman desorekatuak nahiz bereizkeriak indartzen dituelako. Haatik, lehen atalean ideia hori soilik teorikoki jorratu ondoren, landa-lanean bildutako informazioarekin uztartu nahi dut jarraian, atalburu honetan. Horretarako, aipatutako genero-desberdinkeriak ardatz hartuko ditut, ikerlanean elkarrizketatutako aktore anitzek horien inguruan dituzten iritzi eta usteak aztertuta. Izan ere, gaur egungo euskal testuinguruan emakumeek bizi duten espetxe-egoerara gerturatu nahi dut, alde batera utzi gabe azken urteotako balizko aldaketak. Lehenik eta behin, elkarrizketatuek kartzelan genero-diskriminazioak izatearen inguruan uste dutena jasoko dut; ondoren, esparruz esparru, bereizkeria horien guztien gaineko ikuspuntuak aztertuko ditut; eta, bukatzeko, generoa bestelako kategoriekin etengabeko elkarreraginean dagoela kontuan hartuta, bestelako zapalkuntzen inguruko aburuetan ere sakonduko dut. Ezbairik gabe, elkarrizketatuen ikuspegiak askotarikoak dira, eta, maiz, baita nahiko kontrajarriak ere; azken batean, erantzunek ikusmolde eta jabekuntza-maila anitzak azaleratzen baitituzte, segidan ikusiko dugun moduan.

---

<sup>185</sup> Ingelesez jatorrizkoan: «*Though we see the same world, we see it through different eyes*» (Woolf, 1938: 16).

## 7.1. Genero-bereizkeriak gaur egun? Euskal Herriko presondegiatan?

Gure testuinguruan, kartzelan jazotzen diren genero-diskriminazioak barrendatzea ez da batere erraza; bada, oro har, modu batean edo bestean errealitate hori ezagutzen dutenen artean, gehienek baieztatzen dute ez dela halakorik gertatzen. Esate baterako, edonolako bereizkeriarik hautematen duten galdetuz gero, elkarrizketatutako emakume preso nahiz preso ohi ia guztiek ezetz erantzuten dute; giltzapean, gizonak eta emakumeak berdintsu daudela edo egoera nahiko antzekoa dela adierazita. Hainbat gairen inguruan zehatzago itaunduz gero, ostera, batzuen batzuek zalantza egiten dute edota zenbait diferentzia eta berezitasun aipatzen dituzte, diskriminaziotzat hartu ez arren. Azken horien artean, mota guztietako iritziak daude. Izan ere, batzuek emakumezkoak okerrago daudela pentsatzen dute, zenbait egitate lortzeko zailtasunak dituztela edo orokorki gehiago sufritzen dutela argudiatuta; baina besteek espetxea gizonetaz gogorragoa dela uste dute, fisikoki biolentoagoa delakoan, bai presoan arteko harremanean, baita espetxeko langileekikoan ere. Beraz, begi-bistakoa da suerte guztietako irakurketak eta aburuak daudela.

Halaxe izanik, desberdintasunak ez ezik, genero-desberdinkeriak nabaritzen dituenik ere egon badago; ezbairik gabe, gutxiengo argia izanda ere. Horien iritziz, kartzela-sistema gizonentzat prestatuta dago, eta, ondorioz, guztiz «matxista» da emakumeentzat. Bertan pairatzen dituzten desabantailez nahiz bidegabekeriez ohartuta, hainbat kexa plazaratzen dituzte, euren eskubideak aldarrikatzearekin batera. Horrez gain, ohikoena ez izanagatik ere, baten batzuek diote, argiro eta ahoa beteka, giltzapean «genero-diskriminazioa» edo «sexu-diskriminazioa» dagoela.

Kasurako, Simone aipa dezakegu bereizkeriez konturatzen diren gutxi horien erakuskari moduan. Izan ere, gizartean txertaturik dauden genero-desberdinkeriak presondegiatan nabarmenkiro areagotzen direla uste du; finean, espetxe-sistema gizonentzat pentsatuta dagoelako. Alta, ikusmolde hori bere bilakaera aktibistaren baitan bereganatu du, behin kalean egonda. Bere iduriko, itxialdian zaudenean ez diezu genero-kontuei erreparatzen, bestelako kezkak, buruhausteak edo egonezinak dituzulako beti; eta horrek emakumeek jasandako zapalkuntzez jabetzea oztopatzen du. Honelaxe azaltzen du:

«Hay varias diferencias. Pero cuando tú estás dentro... tú no haces una evaluación... de que realmente existen esas diferencias. Tú vas al día a día, ¿no? Intentas pasar el día lo mejor que puedes, lo mejor que... De acuerdo con las cosas que tú tienes, adaptarse,

¿no? Al día a día. Lo que sea mejor para ti. Pero, claro, haciendo un análisis crítico, después de que sales, de algunas cosas que pasan ahí, y te ves que hay... hay una diferencia... ¡puf! Bastante... bastante grande. ¡Abismal!» (Simone, preso ohia<sup>186</sup>).

Espetxeko langileen eta presoekin lan egiten duten elkarteetako kideen artean, egoera ez da gehiegi aldatzen. Izan ere, emakume atxiloen kasuan bezalaxe, kasik denek diote ez dagoela genero-diskriminaziorik, gizonezkoen eta emakumezkoen baldintzak parekoak direla adierazita. Gehienen iritziz, zer edo zer egotekotan, genero-berezitasunak besterik ez dira, gizonen eta emakumeen bizipenak nahiz portaerak zinez ezberdinak direlakoan. Baina, egoeraren irakurketa guztiz partziala eginda, harago ere badoanik badago. Baten batzuek baieztatzen dute, bereizkeriak jasatearen kontrara, emakumeek abantailak edota pribilegioak dituztela. Harrigarriro, emakume presoekin ahalduntzea, berdintasuna edo indarkeria sexista lantzeko ikastaroak antolatu dituzten hainbaten artean ere entzun daitezke horrelako adierazpenak. Antza denez, gizartea matxista delako, emakumeentzat eguneroko bizitza gogorragoa delako edota askok indarkeria pairatu dutelako prestatzen dituzte halako jarduerak; ez dute, ostera, inolako desberdinkeriarik sumatzen giltzapean.

Aitzitik, espetxeratutako emakumeen kasuan bezalaxe berriro ere, kartzelako langile eta elkarteetako kide baten batzuek bestelako ikuspuntuak dituzte; bada, hainbatek, nahiko gutxi izan arren, presondegietan genero-diskriminazioak edo desberdinkeriak gertatzen direla adierazten dute. Batzuek laburki diote, jendartea «matxista» eta «patriarkala» den heinean, espetxe-sistema ere halakoxea dela, nahitaez; azken buruan, gizartearen parte edo erreflexu denez gero. Baina beste batzuek zertxobait zehatzago ere erantzuten dute, gizonezkoen bideratutako sistema izanik, emakumezkoentzat gogorragoa edota zailagoa dela baieztatuta.

Nolanahi ere, nahiko argi dago orokorki ezjakintasuna nagusi dela eta genero-ikuspegia ezohikoa dela, salbuespenak salbuespen. Teorikoki, genero-desberdinkeriaz konturatuta, Espetxe Erakundeek berdintasuna xedetzat jarri duten arren, agerikoa da ez dela behar bezalako lanketarik egin eta gaia alboratuta dagoela. Kartzelako langile eta elkarteetako kide gehienek ez dute diskriminazio horien berririk, Espetxe Erakundeek horietako asko jaso bazituen ere *Programa de Acciones para la Igualdad entre Mujeres y Hombres en el ámbito penitenciario* (2009) lanean. Egia esateko, elkarrizketatuen gehiengoak ez ditu

---

<sup>186</sup> Kapitulu honetan, elkarrizketatu askotarikoen hitzak jasoko ditut; hain zuzen ere, emakume preso eta preso ohienak, espetxe-langileenak nahiz elkarteetako kideenak. Horrela izanik, ez dut elkarrizketatuen adina zehaztuko, kartzela-sistemarekiko euren harreman-mota baizik.

ustez berdintasuna lortzeko martxan jarri diren neurriak ezagutzen. Horren erakusgarri, berdintasun-programaren gaineko jakineza izugarria da eta, printzipioz, inork ez ditu genero-ezberdinkerien gainditzearekin lotzen ez Zentro Tipoak, ez Errespetu Moduluak, ezta Modulu Terapeutikoak ere. Marko horretan, espetxeko langileei nahiz elkarteetako kideei arazo zehatzen inguruan galdetuz gero, aunitzek erantzuten dute horiek iraganeko kontuak direla, aspaldikoak, eta gaindituta daudela, azken urteotako aldaketak aipatuta. Halaber, presondegien arteko diferentziak eta bakoitzaren berezitasunak nabarmenduta, baten batzuek Euskal Herriko egoera hobea dela erantzuten dute; beharbada, Espainiako Estatuko zenbait espetxetan diskriminazioak gerta daitezkeela adierazita, baina Euskal Herrikoetan jazotzen direnik ukatuta, barne- nahiz kanpo-baliabide gehiago daudelako eta genero-berdintasunaren norabidean lan gehiago egin –omen– delako bai sozialki, bai instituzionalki. Ezinbestean, desberdintasunak justifikatzen dituenik ere badago; ia beti gizon atxiloak gehiago izatearen argudioa erabilita.

Esandakoaren adierazgarri, Sandraren hitzak ekarriko ditugu. Hogeita bost urte inguru daramatza espetxe-sistemaren baitan lanean eta, hortaz, esperientzia handikoa da. Bere ibilbidean, askotariko zereginetan aritu da, bai gizon bai emakume presoekin lan eginda. Egun, gizarte-langileen koordinatzailea eta emakumeen departamentuko gizarte-langilea da, bere lantoki den presondegian. Bere ustez, kartzelaldia bizitza hobetzeko aukera izan daiteke emakume askorentzat; hausnartzeko, egoera berriak ezagutzeko eta eraldaketak bideratzeko parada eskaintzen duelakoan. Baina jakin badaki gauza asko ez direla behar bezala egiten, eta, ondorioz, emakumeak, maiz, okerrago edota desabantailan daudela. Finean, kartzela-sistema matxista dela pentsatzen du eta, azken urteotan aldaketak egon diren arren, funtsean halakoxea izaten jarraitzen duela. Bere hitzetan:

«Vamos a ver, las prisiones son un entorno machista. Pero machista para las mujeres que están presas y para las que trabajamos, eh [*Barreak*]. Porque domina el hombre. Pues domina en... por el número de presos, en funcionarios, o sea... Y, bueno, han... han ido cambiando mucho las cosas en estos años, eh, pero sí es verdad que... que todavía hay sesgos, y que hay cosas, comentarios... o, bueno, pues que todavía quedan y hay que ir limando. Pero... sí. [...] Sí que es un entorno un poco... un poco machista» (Sandra, espetxeko gizarte-langilea).

Ez du uste Espetxe Erakundeek berdintasunari egiazko garrantzia ematen diotenik, ezta genero-desberdinkeriak gainditzeko seriozki ezer egiten ari direnik ere; azken batean, ez

baita benetako kezka eurentzat. Bere iritziz, ez dute genero-gaietan ez prestakuntzarik ez sentsibilitaterik sustatu; eta, hartara, dena presondegiko bakoitzeko lantaldearen eskutan dago, hots, langile zehatzen aburuen, ekintzen eta erabakien baitan. Hala, hobekuntzak gertatu direnean, talde edo banako jakinen ekimenez jazo direla baiesten du, adibidetzat jarrita eurek emakumeen egoera ontzeko saialdi kontzientea egin dutela, ohiz kanpokoa izan arren. Honela azaltzen du nola ikusten duen Espetxe Erakundearen jarrera:

«El tema del *Programa de Acciones para la Igualdad [entre Mujeres y Hombres en el ámbito penitenciario]*, bueno, estas cosas suelen ser un poco papel mojado, eh. [...] Hay muchas cosas que quedan muy bonitas en el papel, pero que luego... [...] De hecho, vamos, esto... Yo creo que no se le ha dado ni difusión entre los profesionales. O sea, pues igual cuando lo sacan, te avisan: “Sí, se ha publicado, se ha hecho un...”. Pero, luego, ¿qué seguimiento se hace de esto? Por lo menos yo, y fíjate que yo estoy con mujeres trabajando, no tengo ninguna... vamos, ninguna sensación de que se esté... No... No, no, no. [...] O sea, que... que luego no se... No es un tema de debate en la organización, ni tampoco nos trasladan desde arriba, instancias superiores, o desde el Ministerio [del Interior], noticias o información o... cosas que... que estén vinculadas a... al tema de la igualdad» (Sandra, espetxeko gizarte-langilea).

Alta, Sandraren ustez, genero-desberdinkerien eremuan ezer gutxi egin arren, indarkeria sexistaren esparruan lan aipagarria egin dute Espetxe Erakundeek azken urteotan. Hain zuzen ere, badirudi hori dela «genero» hitzaren esangura bakarra giltzapean. Oro har, gizon nahiz emakume preso askok, espetxeko langile zein elkarteetako kide askok soilki «genero-indarkeriari» lotuta ezagutzen dute kontzeptua, testuinguru horretatik kanpora esanahirik izango ez balu bezala. Sandrak dioenez, emakume atxilo aunitzek indarkeria-mota hori jasan dutelako eta, halaber, gizon atxilo aunitzek gauzatu dutelako abiatu dute Espetxe Erakundeek lanketa hori, genero-gaietan bultzatutako kasik formakuntza guztia horretara mugatuta.

Edozelan ere, nabarmena da genero-diskriminazioak antzemateko zailtasunak daudela; oro har, gizartean dauden bezalaxe. Genero-ikuspegia behar-beharrezkoa izanagatik ere, gehienetan ez da inon ageri; eta horrek egoerak balioztatzeke eragozpenak, gabeziak eta erdizka egindako analisiak ekartzen ditu. Batzuetan ez da erraza bereizkeriak sumatzea, batzuk oso zoliak direlako, aldaketa zenbaitzuk lausotzen dituztelako edo presondegitik presondegira diferentzia azpimarragarriak daudelako; baina, dudarik gabe, trebakuntza eza ere oztopo argia da. Jendartean eskuarki zabaldua dagoen modu berean, espetxeen

kasuan ere oso barreatuta dago gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna jada lortuta dagoela dioen mito faltsua. Hala eta guztiz ere, elkarrizketatu gehienek aipatzen dituzte diskriminazioen markoan uler daitezkeen egitateak, jasotako genero-desberdinkerietara igortzen dutenak. Horien inguruan zehazkiro galdetuta, hainbat zapalkuntza azaleratzen dira eta, segidan, esparruz esparru, horien gaineko iritzi eta ikusmoldeetan sakontzeari ekingo diot.

## **7.2. Zentroak, azpiegiturak eta barne-antolaketa**

Hasteko, espazioei dagokienez, elkarrizketatu gehienek nahiko argiro hautematen dute emakumeentzat zentro gutxiago egoteak desabantaila handia ekartzen diela, euren ohiko inguruneetatik are gehiago urruntzea esan nahi duelako. Nagusiki, arazo handi moduan aipatzen dute Bizkaian emakumeentzako modulu arruntik ez egotea, gehienek bizilekua han dutela aintzat hartuta. Baina, halaber, gabezia nabarmen bezala jasotzen dute Euskal Herrian Amentzako Unitate bat bera ere ez egotea edota emakumeek hirugarren gradua egiteko aukera material gutxiago izatea; egitate horiek ere urruntze handiagora eramaten baitituzte. Finean, elkarrizketatuek ondo dakite dispersio geografiko horrek deserrotze handiagoa dakarrela berekin, baita espetxean bisitak izateko aukera gutxiago eta irteera-baimenetan nahiz erregimen irekian etxera joan ahal izateko aukera gutxiago ere; joan-etorriak ordaintzea arazo larria baita zailtasun ekonomikoak dituzten emakume preso eta familia askorentzat.

Emakumeak atxilo hartzen dituen presondegi bateko Tratamendu Batzordeko partaideek baieztatzen dutenez, genero-bereizkeria gehienak gaindituta egon arren, emakumeentzat zentro gutxiago egotea diskriminazio azpimarragarria da. Honelaxe diote:

«Josean: Hay determinadas [...] circunstancias en las que la situación de mujer sí puede ser... Por ejemplo, si tú te quedas embarazada, te mandan a una Unidad de Madres. Unidades de Madres hay donde hay.

Irene: Tres. En toda España<sup>187</sup>.

---

<sup>187</sup> Amentzako Kanpoko Unitateez bakarrik ari da: Madril (Madril), Palma Mallorcakoa (Balearrak) eta Sevilla (Andaluzia).



Josean: Hay tres en toda España. Pues te vas a ir a... [...] Por ejemplo, las mujeres no tienen sección... No hay sección abierta en Bilbao, que eso es una discriminación muy gorda.

Irene: Exactamente. ¡Tremenda!

Pablo: ¡Eso es! Que no haya es una discriminación. En el País Vasco no hay...

Josean: Y causa un problema gravísimo a muchas mujeres.

Pablo: Eso es verdad»

(Josean, espetxeko jurista eta tratamendu-zuzendariordea; Irene, espetxeko jurista; eta Pablo, espetxeko gizarte-langilea).

Sandrak ere, beste kartzela batean lan egin arren, antzeko iritzia du:

«En concreto, el tema de la infraestructura siempre es un problema, porque al ser menos el número de mujeres, siempre tienen menos posibilidades a nivel de infraestructura. [...] El tema del tercer grado. No hay una sección abierta para mujeres. Entonces, pues... siempre salen perdiendo, porque algunas se tienen que seguir quedando en el módulo de mujeres, aunque salgan. Y otras están ubicadas en el módulo de hombres, en el tercer grado. Entonces, por ejemplo, a ese nivel siempre hay... El tema de la maternidad, de las madres. [...] Pues no hay una Unidad de... No hay Unidades de Madres suficientes. [...] En todo el País Vasco no hay una Unidad de Madres. [...] Bueno, pues a ese nivel sí que hay menos... menos posibilidades» (Sandra, espetxeko gizarte-langilea).

Sandraren hitzek bestelako gabetasunak ere azaleratzen dituzte. Emakumezkoentzako zentro gutxiago egoteaz gainera, presondegietan okerrago kokaturik ere egon ohi direla adierazten dute. Aitzitik, elkarrizketatu gehienek aburuz, espazio-motei, azpiegiturei eta instalazioei loturiko arazoak soilik espetxe zaharrei dagozkie; Makrokartzela edo Zentro Tipoetan horiek jada gaudituta daudelakoan. Edozelan ere, kartzela-sistemaren izaera androzentrikoa dela eta, ohikoa izan da urte luzez emakumeak presondegietako espazio eskasenetan, txikienetan nahiz okerren hornitutakoetan egotea; hasieran, antolaketa eta egituraketa bakarrik gizonengan pentsatuta egin zirelako eta, geroago, emakumeak ere kartzelatzen hasi zirenean, konponketak hala moduzkoak izan zirelako (Almeda, 2003: 39-40).

Paulak, adibidez, ondo islatzen du eredu zaharreko presondegien arazoa. Hamabost urte inguru daramatza emakumezko presoekin lan egiten duen elkarte profesionalista batean, tarteka boluntario bezala, tarteka langile bezala. Egitura zaharreko eta berriko espetxeak

ezagututa, zalantzarik gabe dio urteetan emakumeak espazio okerrenetan eta txikienetan egon direla. Bere hitzetan:

«La cárcel vieja estaba claro que no reunía las condiciones adecuadas, desde el punto de vista de las mujeres. Las mujeres es... O sea, se dieron cuenta en un momento determinado de que había que abrir algún módulo para mujeres, y les dejaron los dos módulos más pequeños. Ahí... O sea, es en plan “Bueno, tal, hay mujeres que también tienen que entrar en prisión y les dejamos los dos módulos más pequeños”. A nivel general, aquello no reunía las condiciones adecuadas. O sea, era una cárcel vieja. Tenía problemas. El tema de la temperatura: frío, calor... Se notaba que eso era una cárcel vieja, y la sensación era ésa. El patio de las mujeres, por ejemplo, era más pequeño que el de los hombres. [...] En la vieja se notaba simplemente ya el hecho de dónde tenían a las mujeres. ¡En los dos peores módulos que había en el centro penitenciario!» (Paula, emakume presoekin lan egiten duen elkarte profesionalista bateko kidea).

Esan bezala, elkarrizketatu gehienek ustez, presondegi berrien eraikuntzak arazo horien konponbidea ekarri du. Haatik, ezin dugu ahaztu Martuteneko espetxeak bere horretan segitzen duela, hau da, betiko bizigarritasun-baldintza eskas, espazio-falta eta hornitzezarekin. Sandrak, kasurako, honela deskribatzen du egoera:

«En el departamento de mujeres no se pueden hacer muchas de las cosas que se hacen [en la parte de los hombres]. Pero luego, por ejemplo, el... el que no haya otro módulo donde, en un momento dado, en un momento de conflicto, en una crisis, tú puedas separar a las mujeres... [...] Hay menos posibilidades de ubicarlas adecuadamente. Pues que estén en un entorno adecuado. Que el de los hombres tampoco es adecuado, porque la prisión está muy vieja y pues hay muchas carencias a nivel de infraestructura. Pero... ellas sí que están en peores condiciones» (Sandra, espetxeko gizarte-langilea).

Arabako eta Iruñeko Makrokartzelekin, printzipioz, gizonezko eta emakumezko presoek eremuak nola hala parekatu dira; baina soilik nola hala, emakumeek lehen baino espazio zabalagoak eta hobeto hornitutakoak erdietsi dituzten arren, gizonenak baino txikiagoak izaten segitzen dutelako. Bestalde, arazo berriak sortu dira. Horiek emakumezkoek soilik ez eraginda ere, aipatu beharrekoa da, orokorrean, presondegi berriak handiegiak direla, ez dagoelako ez hainbeste preso, ez hainbeste espetxe-behargin. Horren ondorioz, baita segurtasun-arazoak omen daudelako eta mantenua garestiegia omen delako ere, zenbait modulu itxita daude, eta igerilekua edota ginekologia-gela bezalako instalazio berri asko

estreinatu gabe daude. Era berean, eraikuntzaren kalitate eskasaren eta espazio askoren erabilera-erabileraren kausaz, espetxeak hondatzen hasi direla dirudi. Esandakoa gutxi izango balitz bezala, presoak kezu dira isolatze handiagoa bizi dutelako, langileekiko erlazioa hotzagoa delako eta murrak altuagoak direlako.

Nieves, esate baterako, ez dago batere kontent espetxe-aldaketarekin; eremu zabalagoak eta instalazio berriak izanda ere. Bere hitzetan:

«La nueva ahora es muy espaciosa, muy bien dotada de todo, muy... ¡Pero todo vacío! Primero, que no hay ni funcionarios para poder llevar todo eso. [*Arnasa hartzen du sakon*] Y segundo, que... el presupuesto que han metido allí, creo que se ha embolsado... se han embolsado... se han engordado los bolsillos de... de muchos. Porque, por ejemplo, en el departamento que estoy durmiendo yo, pues está todo lleno de humedad, no ponen calefacción, hay todo mapas en las paredes de la humedad, los marcos se levantan... [*Etenaldia*] Una chapuza. Una chapuza... Está todo muy bien dotado, de los mejores equipos en la cocina... Pero todo parado, ¡parado! La cárcel no sirve para nada» (Nieves, presoa).

Bestalde, espazio-gabeziak emakumeak profilen arabera sailkatu ahal izatea eragotzi du, espetxe-arautegia urratuta (Aguilera, 2011: 116). Hori derrigorrean kaltegarria den duda egin dezakegun arren, Errespetu Moduluen ezarpenarekin genero-desberdinkeria berriak sortu dituela dirudi. Teorian, horrelako modulu batean egotea borondatezkoa da, baina, praktikan, ez dirudi emakume presoek horrela bizi dutenik. Izan ere, emakumeentzako departamentu bakarra duten kartzeletan, Iruñean eta Martutenen, Errespetuzkoa izatea deliberatu zuten; eta emakume atxiloek, lekualdaketarik ez badute nahi behintzat, onartu beharrean daude, norberaren nahimenak zer esan handirik izan gabe. Beraz, emakumeen kasuan, badirudi borondatezko izaeraren orde, maiz, derrigorrezkoa duela.

Arabako presondegian, emakumeentzako bi modulu egonik, modulu-motaren araberako oinarritzko sailkapena dago; Errespetu Moduluen eta Konplimendu Moduluen artean bereizketa eginez. Hortaz, batean ala bestean egoteak gogozko irizpidea betetzen duela pentsa dezakegu. Alabaina, bestelako arazoak dituela dirudi; horietako bat preso onen eta gaiztoen arteko dikotomia sendotzea izanik (Ballesteros, 2013a, 2013b; Ballesteros eta Almeda, 2015; Francés, 2015). Errespetu Moduluan egoteak aparteko betebeharrak izatea esan nahi du; baita hainbat pribilegio edo abantaila izatea ere, baliabide gehiago, prestakuntza-, lan- nahiz aisialdi-aukera gehiago eta kalera lehenago ateratzen hasteko

posibilitate gehiago ekartzen baititu bertan egoteak. Zalantzarik gabe, hierarkia handia sortzen du presoan artean; zuzenean ez bada ere, inplizituki, honako bereizketak eginda: arduratsuak eta arduragabeak, egokiak eta desegokiak, diziplinuak eta diziplinarik gabeak, zentzagarriak eta zentzakaitzak, ondo dabiltzanak eta okerkerian dabiltzanak. Beraz, badirudi Errespetu Moduluan egon nahi edota ezin dutenak txarrera etiketatzen dituztela. Horren adierazgarri, azpimarragarria da ohikoa dela Konplimendu Moduluari «gatazkatsuen modulu» deitzea, bai presoan artean, baita elkarteetako kideen artean ere. Halaber, erabat arrunta da atxiloek zigor moduan ulertzea norbait Errespetu Modulutik Konplimendu Modulura bidaltzea; bada, aunitzetan, hori gertatzen da norbaitek arauak betetzen ez dituenean edota liskar batean sartzen denean. Haatik, kurioski, ez da sekula alderantziz gertatzen, askotariko arrazoiengatik Errespetu Moduluan bizi nahi ez duten hainbat preso egonda ere. Nolanahi ere, kontuan hartuta Espetxe Erakundeek batik bat emakumeei aplikatu dietela Errespetu Moduluen eredia eta, egun, euskal kartzelatako emakumezkoen departamentu ia guztiak halakoxeak direla –gizonezkoenekin gertatzen ez den bezala–, bistan dago atxilo onen eta gaiztoen arteko dikotomia eta hierarkia eurei eragin diela bereziki.

Tratamendu Batzordeko menbruen adierazpenek argiro erakusten dute bi modulu-moten arteko kontrastasuna eta mailaketa. Honela diote:

«Fernando: En mujeres tenemos menos posibilidades de clasificación. Para entendernos, sólo hay dos módulos donde pueden estar. El cielo y el infierno, si queremos verlo así. Módulo de Respeto y Módulo de Cumplimiento. Hasta físicamente el módulo es totalmente diferente. El Módulo de Respeto es... más limpio, más silencioso, más... Simplemente, porque la composición... Es más normalizado y tal.

Irene: Tiene otro ambiente, sí.

Fernando: En el Módulo de Cumplimiento hay más gritos, todas las demandas suelen ser a voces, hay menos respeto, hay gente que se quiere aprovechar de la compañera o de la que tenga menos entidad y tal. [...] La composición de los módulos... Módulo de Respeto, básicamente, pues hay que cumplir una serie de condiciones. Primero, que quieran estar. Voluntario. Es decir, ya de higiene personal, higiene de la celda o el entorno. No consumos básicamente, no sanciones... Es decir, gente que sabe que, si hay una sanción, le va a provocar la salida del módulo. Entonces, ya la composición cambia.

Irene: Todo cambia»

(Fernando, espetxeko gizarte-hezitzailea; eta Irene, espetxeko jurista).

Era berean, aintzat hartu behar dugu, espazioen banaketan eta horniketan ez ezik, horien erabileran ere agerikoa izan dela kartzelaren izaera androzentrikoa (Almeda, 2003: 40-41), emakumeek, maiz, hainbat eremutan egoteko mugak izan baitituzte. Labur esanda, ohizkoa izan da espetxeko zuzendaritzek gizonetzkoen lehentasuna ematea beti, gehiago izatearen egitateari helduta; baita emakumeak jarduera eta enplegu askotatik alboratzea ere, gizon-emakumeak elkarrekin egotea arazotzat hartuta. Iruñeko kartzelan bereizkeria horrek bere horretan jarraitzen duen arren, Arabako nahiz Martuteneko presondegiatan aldaketa aipagarriak gertatu dira azken urteotan. Izan ere, emakumezkoak desabantaila-egoera argian zeudenaz ohartuta, lantaldeek bestelako barne-antolaketak sustatu dituzte; emakumeek eta gizonak hainbat zeregin elkarrekin egitea baimenduta, eta, batzuek alde batetik eta besteek bestetik, jarduera-kopuru berbera edota antzekoa egiteko ahaleginak eginda ere.

Esate baterako, elkarrizketatutako Tratamendu Batzordearen ustez, urte luzez emakume presoek izan duten arazorik handiena, hain zuzen ere, hori izan da: hainbat espaziotan, jardueratan eta enplegutuan egoteko ezintasuna. Alta, euren esperientzia oinarri hartuta, iraganeko kontua dela eta egun guztiz gaudituta dagoela pentsatzen dute; baita, gizonak eta emakumeak elkartzea egiazki arazotsua izan den arren, emakumeentzat hobekuntza gogoangarria ekarri duela ere. Euren hitzetan:

«Josean: Yo creo que el gran cambio ha sido empezar a extender la posibilidad de que mujeres participen en actividades donde hay hombres, porque ese era el principal problema... o uno de los principales problemas que tenían las mujeres en prisión. Entonces, se organizaba una actividad y, evidentemente, se organizaba para el grueso de la población, que mayoritariamente son varones, y... Te estoy hablando de hace tiempo. Hace... Y las mujeres tradicionalmente, pues... Pues, por ejemplo, si los hombres trabajaban en cocina, las mujeres no podían trabajar en cocina y perdían la oportunidad de acceder a esos puestos de trabajo remunerados, que son lógicamente muy demandados por los internos. Eso ha ido cambiando y actualmente buena parte de las actividades, incluidas las laborales, cocina como te digo, actividades auxiliares, talleres productivos y, por supuesto, el resto, escuelas... se organizan. O bien está organizado para mujeres, con carácter exclusivo, o bien comparten la actividad con los hombres, sin ningún problema. Eso, por un lado, ha dado lugar a muchos problemas de convivencia, porque eso genera muchos problemas en prisión, de convivencia, el contacto entre hombres y mujeres, pero, por otro lado, ha permitido que muchas mujeres puedan...

Ahora mismo, yo creo que no existe ese problema ya, el que las mujeres no tengan acceso a... [...]

Fernando: Acceso al trabajo. Cuantitativamente o estadísticamente, acceden más al trabajo las mujeres que los hombres. [...]

Josean: En su tiempo, aquello era... Es que no... ¡no había! Las mujeres tenían... ¡[taller de] pinzas! Es lo que tenían.

Pablo: Sí. [...] En la cocina eran todo hombres, no había mujeres. En los talleres productivos eran todo hombres, no había mujeres.

Josean: Los cursos de FP, se hacía un curso de peluquería para ellas y el resto eran todo cursos para hombres. [...] Yo creo que esa discriminación... Sinceramente, eh. [...] No existe ahora mismo. Ahora mismo, eh»

(Josean, espetxeko jurista eta tratamendu-zuzendariordea; Fernando, espetxeko gizarte-hezitzailea; eta Pablo, espetxeko gizarte-langilea).

Dena dela, kontuan hartu behar dugu presondegitik presondegira diferentzia aipagarriak daudela. Sandrak bestelako egoera deskribatzen du. Gaur egun, berak lan egiten duen presondegian, kasik jarduera guztietan gizonak eta emakumeek elkarrekin parte hartzen dute, bereizketarik gabe. Alabaina, hainbat enplegu soilik gizonentzat izaten jarraitzen dutela nabarmentzen du. Antza denez, alde batetik, emakumeen departamentuak zenbait azpiegitura-gabezia ditu; eta, bestetik, gizonak eta emakumeak elkartzea arazo denean, gizonak lehentasuna izaten segitzen dute. Honela azaltzen du:

«Sí que falta, por ejemplo, [...] todo el tema del trabajo productivo, dentro de prisiones, ¿no? El que haya posibilidades de trabajar dentro del centro y poder ganarse un dinero. Ahí sí que las mujeres tienen menos... menos opciones. Pero, bueno, siempre... O sea, también se procura que ellas puedan acceder a los destinos productivos. Es verdad que hay en general... Hay falta de trabajo para todos, eh. Para todos. Pero ahí la mujer sí que tiene igual menos opciones, porque... El departamento de mujeres es más pequeño. Diríamos que los servicios que tiene el departamento son menores que los... Es decir, los servicios generales se ubican normalmente donde están los hombres, eh. [...] Luego, hay otros destinos, por razones de seguridad y así, que no pueden estar ellas, ¿no? Pues, solas con hombres o...» (Sandra, espetxeko gizarte-langilea).

Era berean, Leireren iritziak ere bestelako egoera azaleratzen du. Zortzi urte igaro ditu itxialdian atxilo eta, denbora horretan, hainbat presondegi ezagutu ditu; tartean, Euskal Herriko hirurak. Zehatz-mehatz, Iruñeko espetxeaz ari dela, emakume presoak hutsaren hurrengoa direla eta gizonak baino mugatuago daudela adierazten du. Bere hitzetan:

«Las mujeres en la cárcel podemos llegar a ser el cero a la izquierda seguramente. Yo me he sentido así muchas veces. [*Oso baxu*] Casi siempre. [*Arnasa hartzen du sakon*] Pues porque no... no te dejan... O sea, los hombres siempre tienen más libertad a la hora de hacer cursos, a la hora de hacer talleres... [...] Dicen que es por porcentaje. Evidentemente, es porque sacar a una mujer y a un hombre juntos en un grupo mixto para ellos les supone... más funcionarios a la hora de vigilar. Aunque haya cámaras, no importa, porque... No pasa nada. O sea, para ellos genera un problema. [...] Ya eso es un problema para ellos. O sea, sacar a un grupo de personas juntas, mixtas, es un problema. Entonces, siempre vamos a tener las de perder nosotras. Esa es mi opinión. Mi opinión como mujer... presa» (Leire, presoa).

Ildo beretik, urte luzez nahiko arrunta izan da gizonak emakumeek baino arreta gehiago jasotzea espetxeko langileen aldetik; berriro ere, barne-antolaketan gizonak lehentasuna ematearen kausaz (Almeda, 2003: 40-41). Elkarrizketatutako emakume preso zein preso ohietako batzuek, maiz, bigarren mailan sentitu direla adierazten dute, baita orokorrean tratamendua nahiko eskasa dela ere. Horren jakitun, elkarrizketatutako langileetako batzuek baiesten dute egoera ontzeko berariazko aldaketak burutu dituztela, emakume atxiloak gizonak baino hobeto artatzeraino; behinik behin, Arabako eta Martuteneko presondegietan, ez baitirudi Iruñekoan egoera hori denik.

Sandrak, kasu baterako, gaur egun emakumeek espetxean jasotzen duten arreta gizonena baino hobea dela pentsatzen du; kontzienteki, bere lantaldeak hori lortzeko saialdia egin duelako, ezohikoa izan arren. Honelaxe dio:

«Aquí, en concreto, con mujeres sí que tenemos... a ver, cierta... sensibilidad, porque creo que sí se ha trabajado el que... Por lo menos a nivel de atención y de intervención, sí que yo creo que están mejor atendidas. Mejor atendidas ahora que los hombres, eh. Porque hemos hecho un esfuerzo. Un esfuerzo y una apuesta pues para que a nivel de... incluso de personal, de tratamiento y tal, pues tengan más... más nivel. Más atención. Porque, al revés, tradicionalmente han estado menos atendidas. Porque, al final, era... bueno, pues tenías que atender hombres y mujeres. Entrabas a atender a hombres y te absorbían los hombres, y “Ay, tengo que pasar por mujeres”, pero siempre era como lo último, ¿no? “Pues, para otro día o tal”. Y ahora pues, por ejemplo, sí que hemos hecho una apuesta para que desde la Dirección y el equipo, pues que haya un equipo que atiende mujeres, que sea un equipo estable y que tenga una dedicación importante a las mujeres» (Sandra, espetxeko gizarte-langilea).

Sandraren iritziz, emakumeak kopuruz gutxiago izanik, euren lana errazagoa da, baita emaitza hobea ere, lankide gutxiagoren artean koordinatzen direlako. Elkarrizketatutako Tratamendu Batzordeko kideek baina, emakumeek jasotzen duten arreta hobea izatearen gakoa euren aldakortasun txikiagoan dagoela uste dute. Honela azaltzen du Pablok:

«Al ser un módulo de mujeres, que hay menos mujeres y que los profesionales somos los mismos, y que no se mueven de módulo... Porque con los hombres el problema que tenemos es que tú llevas... te corresponde el Módulo 3, pero los internos van cambiando: del 3 van al 4, del 4 van al 5, del 5 vuelven al 3... Entonces, hay un movimiento muy grande de hombres. Sin embargo, siempre permanecen las mismas mujeres en el mismo módulo, que son los mismos profesionales, y al final establecemos una relación diferente, yo pienso. Nos conocemos más. Nosotros les conocemos más a ellas y ellas también nos conocen más a nosotros» (Pablo, espetxeko gizarte-langilea).

Nolanahi ere, kartzela batzuetan emakumeek jasotako arreta hobetu egin dela dirudien arren, kanpoko baliabideei dagokienez, hutsuneak berdin-berdin jarraitzen du. Izan ere, elkarrizketatutako elkarreentako kideek diotenez, teorian gizonekin eta emakumeekin lan egiten dutenetako askok, egiaz, ia soilki gizonekin egiten dute; batzuetan, emakumeen egoeraren inguruko jakineza nabarmena izateraino. Agidanez, gizonak kopuruz gehiago izateak egunerokoan eurekin gehiago lan egitera bultzatzen ditu; baita bitartekoei ahalik eta probetxu handiena ateratzeko nahierak ere. Baina, hala eta guztiz ere, egon badago emakumeekin bakarrik eta genero-ikuspegiarekin lan egiten duen talderen bat edo beste; esaterako, Paularen elkarrearen adibidea baitugu. Hasieran, bere sorreran, gizonekin eta emakumeekin aritzen ziren; alabaina, duela urte batzuk, emakumeek atentzio eskasagoa jasotzen zuten eta oro har baliabide gutxiago zituztenaz konturatuta, soilik eurekin lan egitea erabaki zuten.

Emakume presoentzako zentro gutxiago egotearen eta presondegien antolaketan gizonen lehentasuna ematearen azken adierazle gisa, ezin aipatu gabe utzi emakumeek denbora gehiago behar izaten dutela espetxe batetik bestera lekualdatzeko; horretarako garraio-lineak ere gizonentzat pentsatuta daudelako. Honelaxe azaltzen dute elkarrizketatutako Tratamendu Batzordeko kideek:

«Josean: Si hay un traslado, por ejemplo, de una mujer a otro centro, las líneas que organizan los traslados se han hecho básicamente pensadas para... para la mayoría de la



población reclusa, y una mujer tiene que esperar mucho más tiempo para ser trasladada. A ese nivel sigue existiendo...

Irene: Tardan más.

Pablo: Una mujer de media se tira tres meses.

Josean: Una mujer se tira... A ese nivel la discriminación sigue siendo ¡grande! Y muy problemática para las mujeres. Es la verdad»

(Josean, espetxeko jurista eta tratamendu-zuzendariordea; Irene, espetxeko jurista; eta Pablo, espetxeko gizarte-langilea).

Hortaz, laburbilduz, badirudi azken urteotan kontuan hartu beharreko hainbat aldaketa gertatu diren arren, genero-bereizkerietako aunitzek bere horretan jarraitzen dutela eta, horrez gain, mudantzen harira, desberdinkeria berriak ere sortu direla. Zentzu batzuetan, hobekuntza batzuk jazo direla pentsa badaiteke ere, funtsean, begi-bistakoa da emakume atxiloek desabantailan jarraitzen dutela, bai zentroei, bai azpiegiturei dagokienez, baita barne-antolaketari dagokionez ere.

### **7.3. Jarduerak, ikastaroak, enpleguak**

Emakumezko presoek tailer hezigarri zein produktiboetan, espetxe-lanetan eta bestelako ekintzetan parte hartzeko dituzten aukerez haratago, askotan, horien nolakotasunak ere kritikak jaso ditu, genero-eredu tradizionalak sustatu dituelakoan; hau da, zuzenean edo zeharka, emakumeen feminizatzea eta etxekotzea indartu dituelakoan (Almeda, 2003, 2007). Haatik, egoerak hori baino konplexuagoa ere badirudi, ikerketan elkarrizketatuek adierazitakoaren baitan; alde batetik, azken urteotan eskaintza nabarmenki areagotu eta dibertsifikatu delako; bestetik, emakumeek gizonekin batera jardueretan aritzeak eremu berrietara eramán dituelako.

Dударик gabe, aldaketak gertatu diren arren, kartzelatutako emakumezkoek oraindik ere euren generizatzearekin loturiko jarduera ugari egiten dituzte. Izan ere, eurei espresuki eskainitako aukeren artean, oso ohikoak izaten jarraitzen dute ondorengo hauek: josketa, jantzigintza, gurutze-puntua, kakorraz-lana, broderia eta arropa-moldaketa; estetika eta ile-apainketa; altzarien zein azalaren garbiketa; geriatría; baita zeramika, pintura eta askotariko eskulanak ere. Aitzitik, kontuan hartu behar dugu presondegitik presondegira diferentzia nabarmengarriak daudela; esaterako, Iruñeko zein Martuteneko espetxeetan

Arabakoan baino arruntagoa dirudielako gizonetzko eta emakumezko atxiloek jardueramota ezberdinak egitea. Hala, berriz ere, elkarrizketatuen artean askotariko ikusmoldeak topa ditzakegu.

Esandakoaren erakusgarri, Tratamendu Batzordeko menbruek genero-rol tradizionalak indartzen dituzten jarduerak eta ikastaroak iraganeko kontua direla diote; gaur egunean, gizonei eta emakumei eskainitako aukeretan alde handirik ez dagoela baieztatuta. Hala adierazten dute euren ikuspuntua:

«Josean: Hubo una época en la que sí había un curso que era... ¿Cuáles había? Había, me acuerdo: costura, peluquería... Bueno, ¡sólo faltaba la Sección Femenina! ¡Vamos! Estamos hablando de los años... del año 92. Ahora es al revés. Ahora están todas con el mono y los cursos que hacen...

Marta: Sí. Pintura de superficies, albañilería...

Fernando: Limpieza de muebles, jardinería, panadería, cocina... [...] Hacen de todo.

Josean: Están con en el mono hasta... [...] Los cursos que están haciendo, pues están haciendo de soldadura. Eso también ha cambiado. Ya no... Ya en los talleres están igual»

(Josean, espetxeko jurista eta tratamendu-zuzendariordea; Marta, espetxeko psikologoa; eta Fernando, espetxeko gizarte-hezitzailea).

Sandrak, bere partetik, berak lan egiten duen espetxean genero-eredu hegemonikoekin bat egiten duten jarduerak eta ikastaroak oraindik ere badaudela onartu arren, dinamika hori aldatzeko saialdian daudela adierazten du. Bere hitzetan:

«En la oferta formativa nosotros hemos procurado deshacer un poco eso de... Porque siempre ha sido un poco en el sentido de peluquería, estética... Bueno, luego pues se han hecho cursos de auxiliar de geriatría y tal. [...] Se están abriendo los cursos a las mujeres en... al revés, en cosas que han sido tradicionalmente... masculinas, ¿no? Pues, el tema de auxiliar de almacén, el tema de... pues todos los que se han hecho en mantenimiento de edificios... Hace poco se hizo uno de alicatado, y han participado mujeres en ese curso, ¿no? Entonces, sí se intenta romper esa... esa dinámica. Y que la oferta no esté determinada por el género, ¿no?» (Sandra, espetxeko gizarte-langilea).

Itxura denez, emakumeak tradizionalki maskulintzat hartu izan diren ikastaro eta tailer hezigarrietan parte hartzen hasi direla da elkarrizketatuek nabarmentzen duten aldaketa nagusia. Azken batean, ikusi bezala, emakumeek luzaroan zenbait eremutan egoteko eta

zenbait jarduera egiteko izan dituzten mugekin amaitzeko, azken urteotan ohizkoa izan da gizon eta emakume presoak gehiagotan elkartzea; eta, testuinguru horretan, posiblea izan da emakumeak bestelako zereginetan trebatzea ere. Haatik, argi eta garbi hauteman daitekeenez, formakuntza-eskaintzak nagusiki gizonengan pentsatuta egiten dira, geroz eta gehiagotan onartu arren emakumeak ere horietan sartzea. Egitateek argi islatzen dute kartzelaren izaera androzentrikoak bere horretan segitzen duela eta Espetxe Erakundeek ez dutela behin ere ez auzitan jarri euren prestakuntza-aukeren nolakotasuna edo edukia. Gizonezkoen interesek jarraitzen dute lehentasuna izaten eta eredia zeharo maskulinoa da. Baina, edonola ere, ezin ukatuzkoa da egoera horrek, zeharka, emakumeak jarduereremu berrietara gerturatu dituela, askoren ezagutzak eta gaitasunak zabaldua; besteak beste, gaur egun, giltzapean honakoak ikasteko aukera baitute: igeltserotza, iturgintza, alikatatua, elektrizitatea, soldadura, brikolajea, eraikinen mantenua, gainazalen pintura, etab.

Aipatutakoez gainera, agerikoa da azken urteotan bestelako jarduerak ere areagotu egin direla. Kasu baterako, kirolen eta ariketa fisikoen esparruan, asko dira ondorengoak egin dituzten emakumezkoak: talde-kirolak, gimnasia, luzaketak, aerobic, batuka<sup>188</sup>, kardio-tonua<sup>189</sup>, dantza, pilates, yoga, tai ji<sup>190</sup>, etab. Era berean, ugariak dira honako ikastaroak eta tailerrak egin dituztenak: gatazken ebazpena, emoziozko adimena, komunikaziorako abilezia, gizarte-gaitasuna, enplegua topatzeko teknikak, informatika, hizkuntzak, lore-zaintza, elikagaien maneia, lehen sorospena, antzerkia, argazkigintza, irakurketa, etab. Bestalde, bereziki aipagarria da azken urteotan gehituz joan direla genero-ikuspegidun ikastaroak, adibidez: berdintasuna, norberaren zaintza, autodefentsa, garapen pertsonala, gorputzaren kontzientzia, osasuna eta sexualitatea, barreterapia, genero-indarkeria, etab. Ohargarria da azkeneko horiek guztiak, emakumeen jabekuntza edo ahalduntzea jomuga izanik, bakarrik emakumei eskainitakoak direla; eta, horren zergatia edo zentzua ulertu gabe, badagoela emakumeen pribilegio edo abantaila direla baieztatzen duenik, baita are kritikatzeko duenik ere.

Nolanahi ere, salbuespenak salbuespen, elkarrizketatutako emakume presoek jardueren eta ikastaroen eremuan gabetasun handiak aipatzen dituzte. Jasotako formakuntza

---

<sup>188</sup> Batuka aerobic-mota da, erritmo latinoen laguntzaz praktikatzeko dena. Esate baterako, sanba, reggaetoi edo merengue doinuekin egiten da.

<sup>189</sup> Kardio-tonua ariketa aerobikoez osatzen da, eta helburu nagusizat ditu kardio-arnasketako aparatua lantzea eta gorputza indartzea.

<sup>190</sup> Tai jia borroka-arte mota da.

positiboki balioztatzen duenik egon arren, gehiengoak askotariko arazoak nabarmentzen ditu: sakontasunik nahiz jarraipenik gabekoa dela; ez dela nahikoa eta, gainera, inoiz ez dagoela guztientzako lekurik; orokorki, ez dela kalean enplegua topatzeko lagungarria; etab. Alabaina, bestelako ikuspegietatik, zenbait ekarpen egin ditzakeela pentsatzen dute gehienek; batik bat, entretenimendu edota denbora-pasa huts moduan, egunerokotasuna arintzeko eta giroz aldatzeko aukera ona izan daitekeela adierazita. Bestalde, hezkuntza ofizialari dagokionez, badirudi emakumeek gizonak baino jarrera aktiboagoa eta parte-hartzaileagoa izan ohi dutela. Baina, berriro ere, hainbat zailtasunekin topo egiten dute; oro har, espazioen, ordutegien eta baliabideen aldetik, baldintzak desagokiak direlako, eta, emakumeen kasuan, baita liburutegiak eskasagoak, txikiagoak eta osatugabeagoak direlako ere.

Espetxeko destinoei eta tailer produktiboei helduta, ez dirudi emakumeen egoera askoz hobea denik. Bada, azken urteotan soldatapeko lana duten gizon-emakumeen kopuruek proportzionalki parekatzeko jaidura izan duten arren (Viedma eta Frutos, 2012: 103), ikusi bezala, presondegi zenbaitetan oraindik ere gizonezkoek aukera gehiago dituzte; halaxe gertatzen baita, behintzat, Iruñeko eta Martuteneko espetxeetan. Baina, lanerako posibilitate gutxiago izateaz gainera, aintzat izan behar dugu emakumezkoek soldata txikiagoak izan ohi dituztela; nagusiki, okerren ordaindutako lanpostuetan egoteagatik (*Ibidem*)<sup>191</sup>. Asko kexu dira lansariak benetan baxuak direlako, eta esplotazio-sentsazioa erakusten dute. Alta, batzuek enplegu horiek onartu beste aukerarik ez dute, dirua egiaz behar dutelako.

Esandakoaren erakuskari, Nievesen testigantza ekarriko dut. 2002an kartzelaratuta, ia hamar urte igaro ditu Iruñeko presondegiko garbitegian lanean, baita soldatarik gabeko hainbat espetxe-destino egiten ere. Bere laneguna oso luzea izan arren, lansari ikaragarri baxua kobratzen zuen; hasieran ez baitzituen hilero 70 euro ere jasotzen eta, aurrerago, soldata igo ziotenean, sekula ez baitzituen 150 euro baino gehiago jaso. Egoerarekin oso kritikoa, honela azaltzen du bere kasua:

«A las ocho, salíamos a desayunar. A las nueve, tenía que estar en lavandería. Pero antes, tenía que limpiar la oficina de las funcionarias. Entraba, y me iba a trabajar. Volvía a la una, que era la hora de la comida. Comía. Me volvía a hacer la cabina de las

---

<sup>191</sup> Gizon eta emakume presoen batez besteko soldaten arteko diferentzia zehatza jakin nahi izanez gero, ikus «3.2. Espetxe-egoera gaur egun: zigorrak eta genero-diskriminazioak miran» azpiatala.

funcionarias, y a las dos tenía que estar en la lavandería. Salía a las dos y entraba sobre las cuatro menos cuarto, que es la hora en la que las chicas están de descanso digamos, ¿no? Porque después de comer, están dentro [de la celda]. Yo no, yo estaba trabajando. Tenía que entrar, hacer el economato, el demandadero... y, luego, me apuntaba a cursos. He hecho muchos cursos de informática, de inglés, de manualidades, de todo habido y por haber. [*Arnasa hartzen du sakon*] Entonces, después del curso, pues sobre las siete o así, entraba otra vez. Era ya la hora de la cena. Cenaba. Salía. Volvía a limpiar la... la de los funcionarios y volvía a trabajar a la lavandería. Ahí, pues entraba igual a las diez o... a las diez de la noche o por ahí. ¡Todo por el módico precio de 68 euros al mes! [...] Eso es... Eso es aprovecharse. Abuso de poder. [*Etenaldia*] Eso es una explotación, a todos los niveles» (Nieves, preso).

Nievesen hitzetan argi islatzen den moduan, ohizkoa da emakume presoak tradizionalki femeninotzat hartutako zereginetan aritzea; etxeko lanekin eta zaintzarekin lotutakoetan, alegia (Almeda, 2003, 2007). Kasu baterako, asko dira honako espetxe-destinoak egin dituztenak: garbitegia, garbiketa, sukaldea, jantokia, etab. Alta, agerikoa da, pixkanaka, bestelako lanpostuetan ere hasi direla, espetxeko zerbitzuetan zein tailer produktiboetan; besteak beste, kable-sareak destajuan egiten dituenik edo kartzela-mantenuan dabilenik badago eta.

Adibide moduan, Kontxiren adierazpenei helduko diegu. 2000. urtean espetxeratu zuten eta hamahiru urte inguru pasatu ditu itxialdian; hastapenean, Martuteneko presondegian, eta, geroago, Langraiz Okakoan. Hainbat urtez sukaldean, ekonomatuan, garbiketan eta askotariko tailerretan lan egin ondoren, zeregin horiekin aspertuta, bestelako eremuetan aritzeari ekin zion; kalean enplegua lortzeko baliagarriagoak izango zirelakoan. Horrela, tradizionalki maskulinotzat hartutako zeregin askotan ibili zen. Haatik, eragozpenen bat edo beste topatu zuen, horietan lan egiten zuen aurreneko emakumea izanik. Espetxeko langileek aldaketak euren ekimenez gertatu ohi direla adierazi arren, Kontxiren kasuak argi islatzen du presoek euren inizatibaz ere jazotzen direla. Harrotasunez, Martuteneko kartzelan lan asko egin zituen lehen emakumea izan zela oroitzen du honela:

«Estuve en cocinilla. Fui la primera mujer en cocinilla. La primera mujer que cocinaba para los funcionarios. Les daba el desayuno y todo. Fui la primera mujer en el economato central. No había economato de mujeres. Pues, fui la primera mujer en el economato central. Que era la que llevaba todo... todo el historial del almacén. [...] Luego ya, pues de ahí ya me pasaron a talleres. Estuve trabajando en talleres de... Nos

traían herramientas a granel, había que etiquetarlas, ponerles la marca de la casa que era y embalarlas. Y ahí estuve hasta el 2007 o así. [...] Entonces, yo ya empecé a andar con uno allí. Estuve con él un año de pareja, estuvimos trabajando... estuvimos trabajando en talleres de bricolaje. Estuve pues tres o cuatro años trabajando ahí. [...] Y ya me dio rabia y yo “Ah, que yo también quiero en fontanería. Venga, que yo también quiero en mantenimiento, que quiero aprender oficios, que ya me he aburrido de estar en talleres”. “Ah, es que no, es que una mujer en mantenimiento nunca ha habido”. Digo “Pues alguna vez tiene que haber una, ¿no? O alguna vez tiene que ser la primera”. Y, al final, conseguí entrar en mantenimiento. Aprendí albañilería, alicatación... [...] No sé si éramos... nueve o diez personas trabajando. Todos chicos, menos yo. Era la única chica. Primero, empecé yo en fontanería. Empezamos con la instalación de calefacción y con averías de... pues eso, que si las cisternas, que si los cambios de baño... Pues, cuando no teníamos avisos de avería y no teníamos nada que hacer, pues ayudábamos a los compañeros de albañilería. [...] Porque es que... yo estaba harta de cursillos. Los cursillos a mí no me servían de nada. Y yo decía “Jo, es que... ¡puf! Yo no valgo para estar tirada en el patio y ¡estoy harta de limpiar! Siempre limpiando la mierda...”. [...] Digo “Aquí hay que aprender un poco de todo”. Y, claro, me gustaba el salseo de... A mí la herramienta me... Yo ya lo último que quería conseguir era soldadura, y conseguí hacer un curso de soldadura y sacarme el diploma en Vitoria, cuando salí en [artículo] 100.2<sup>192</sup>» (Kontxi, preso).

Langraiz Okako presondegira lekualdatu zutenean, ildo beretik jarraitu zuen; eta, berriro ere, hainbat esparrutan lan egin zuen lehen emakumea izan zen. Kontent dio pixkanaka ugarituz joan zirela horrelakoetan aritzen ziren emakumeak:

«Me mandaron a Nanclares [de la Oca]. [...] Ahí pues tardé en entrar en mantenimiento. Nunca había habido mujeres en mantenimiento. Tardé en entrar en mantenimiento. [...] Y hubo un día, pues eso, de que llegó el monitor y me dieron buzos, me dieron material para pintar, y pues... ¡de pintora! Justo había un curso de pintura. [...] Y luego conseguí que entrara también otra mujer. En Martutene entré yo la primera. Luego entró otra chica de electricista, y luego entró otra chica de pintora. Yo estaba de fontanera. Y luego, en Nanclares [de la Oca], yo entré de pintora. Entró otra... que cayó de rebote, porque pasaba por allí: “Ah, pues con la brocha yo te puedo echar una mano”. Y cayó de rebote ella» (Kontxi, preso).

---

<sup>192</sup> Espetxe Araudiaren 100.2. artikulua malgutasun-printzipioa ezartzen du gradu-sailkapenean. Horren arabera, progresiboki, erregimen irekiko zenbait ezaugarri aplikatzen zaizkie bigarren graduaren (erregimen arrunta) dauden presoak.

Kontxik bezala, emakume preso zenbaitek euren lan-esperientzia positiboki balioztatzen duten arren, asko dira kexak ere mahaigaineratzen dituztenak. Soldata baxuen kontuaz bestalde, aunitzek diote enplegu-aukerak urriak direla, zereginak nahiko mekanikoak eta errepikakorrek direla, prestakuntza eskasekoak, baita kalean lana topatzeko balio nahiko gutxikoak ere. Era berean, lansari txikien ondorioz, behin behineko nahiz behin betiko askatasunean jaso dezaketen langabezia-prestazioa oso eskasa delako kexu dira; hain baxua denez, zenbaitetan, Espetxetik atera direnentzako Subsidioaren azpitik baitago. Esandakoa gutxi balitz bezala, ezin dugu ahaztu, maiz, kartzela barruko lan-esperientzia egiaztatzea ere arazotsua dela.

Paulak, esate baterako, euren elkartean ezagututako kasuak hizpide, enplegua topatzeko zailtasunak askotarikoak direla pentsatzen du. Bere hitzetan:

«Cuando salen del centro penitenciario, cuando... “¿Y si me piden la vida laboral?”. Claro, la vida laboral, si has trabajado dentro de un centro penitenciario, te ponen “Centro Público” o tal. Hay gente que ya sabe. Hay mucha gente que no. Pero ya hay gente que sí sabe, depende de qué empresas, lo de “Centro Público”. Nos ha pasado hace poco, con una mujer que ha estado ahora en el piso [de acogida] que, para un puesto de trabajo, en la hoja que tenía que rellenar ponía “¿Tienes antecedentes penales?”. Claro, yo creo que es ilegal averiguar si tienes antecedentes o no. Pero, bueno, luego si no te cogen, te dirán que es por otra cosa y ya está. Pero, claro, en ese contexto “No”. Lo cual es lo más normal del mundo. Mientes como una bellaca. ¿Cómo vas a poner que sí? Bueno, pues de ese sitio no le han llamado. [...] Pues, lo mirarán, vete a saber con qué. O sea, y ya en la vida laboral te pone “Centro Público” o “Subsidio de no sé qué”. ¡En la vida laboral! Certificados, como es todo del [Ministerio del] Interior y tal...» (Paula, emakume presoekin lan egiten duen elkarte profesionalista bateko kidea).

Aitzitik, kexak kexa, eta zailtasunak zailtasun, emakume gehienek giltzapean enplegua lortzeko saialdia egiten dute; dirua eskuratzeko batik bat, baina baita entretenitzeko eta giroz edo lekuz aldatzeko ere. Egitate hori, ordea, ezin da arazoei muzin egiteko aitzakia izan. Agerikoa da gabeziak eta desberdinkeriak daudela, eta bai Espetxe Erakundeek bai presondegiatako lantaldeek horren erantzukizun zuzena dutela. Azken finean, eurak dira jardueren, ikastaroen eta enpleguen gaineko hautuak egiten dituztenak; baita batzuetan proposamenak kanpoko eragileek egiten badituzte ere. Betiere, eurek erabakitzen dute

zeintzuk onartu, zeintzuk baztertu, eta, gizon-emakume presoen artean, zeinek egingo duen zer.

#### **7.4. Kontrolaren adierazleak eta erasoak**

Kartzelako genero-diskriminazioak aztertzerakoan, presoen gaineko kontrolaren gaiari ere erreparatu behar zaio. Izan ere, askotan nabarmendu diren bereizkeriak dira honako hauek ere: emakumeekin diziplina zurrunagoa dela, esanekotasun nahiz sumisio gehiago exijitzen zaiela, baita modu zorrotzagoan eta maizago zigortu ohi zaiela ere (Almeda, 2003, 2007; Viedma eta Reviriego, 2012). Alabaina, elkarrizketatu guztiek bat egiten dute adieraztean, emakume presoen artean liskarrak zein tentsioak egon arren, benetako biolentzia-maila nahiko txikia dela eta, orokorrean, gizonak direla gatazkatsuagoak eta arriskutsuagoak. Dirudenez, edozein agresibitate-erakustaldi emakumeengan gehiago zehatzen dela eta eurekin permisibitate gutxiago dagoela da esplikazioa. Finean, genero-eredu hegemonikoen arabera, feminitatearekin lotzen dira afektibotasuna, leuntasuna, sentiberatasuna, ulerkuntza nahiz maitasuna; eta maskulinitatearekin, ostera, boterea, oldarkortasuna, biolentzia eta indarra.

Alta, elkarrizketatutako espetxe-langileek askotariko usteak dituzte gai horren inguruan, eta ez dago adostasunik inondik inora. Tratamendu Batzordeko menbruen kasuan, esate baterako, batzuek ukatu egiten dute emakumeek proportzionalki zigor gehiago jasotzen dituztenik edota eurekin diziplina zorrotzagoa denik; kontrara, emakumeekin tolerantzia handiagoa dagoela baieztatuta. Baina beste batzuek egoera hori egiazkoa dela uste dute. Haatik, ekintza biolento baten egilea emakumea izatea gizona izatea baino deigarriagoa dela onartuta ere, ez dute uste hori denik kausa nagusia; gakoa emakumeak kontrolatzea errazagoa dela pentsatzen baitute. Euren hitzetan:

«Josean: El control es mayor. Y el conocimiento de lo que pasa en el módulo es mayor.

Pablo: Sí, pero...

Marta: Sí, pero también se perdona ¡muchísimo!

Josean: Se perdona más, pero es que la clave es... Eso es así, yo creo, pero no porque a las mujeres se les haga una persecución, sino porque cometen las sanciones. Lo que pasa es que los hombres se van más de rositas. Se les tenía que haber impuesto...

Marta: Son más hábiles.



Josean: No. Simplemente, el control es menor. Pero en un módulo donde hay más... Es que eso es lo primero. Son espacios más pequeños. Los módulos de mujeres son...

Fernando: La mitad. La mitad.

Marta: Son más pequeños.

Josean: Son... El módulo, la mitad de... Que eso es mejor para todos los efectos. Un espacio mucho más humano que un módulo grande. Pero el control es mayor también» (Josean, espetxeko jurista eta tratamendu-zuzendariordea; Pablo, espetxeko gizarte-langilea; Marta, espetxeko psikologoa; eta Fernando, espetxeko gizarte-hezitzailea).

Elkarrizketatutako emakume presoen testigantzei helduta baina, bestelako egitateak ere azaleratzen dira. Izan ere, askok adierazten dute arau-hauste berbera eginda, ohikoa dela emakumeei gizonei baino zigor eta muga zorrotzagoak ezartzea<sup>193</sup>.

Aitanak gogor kritikatzten du emakumeak gehiago edo bakarrik zehatzen dituztela maiz, gizon-emakume bikoteak araututako eta onartutako egoeretatik at elkarrekin harrapatzen dituztenean. Honelaxe azaltzen du bere ikusmoldea:

«Siempre se suele castigar más a la mujer que al hombre. Así. Es la mujer... Siempre somos las culpables nosotras en la cárcel. ¡Pues, no! El hombre también tiene la culpa, porque si la mujer le da pie, el hombre también se lo está dando. ¿Entonces? Pero... No sé. Siempre se suele castigar más a la mujer. Al hombre no. El hombre... Claro, ¡como es hombre, es libre! ¡Pues, no! El castigo hay que hacérselo para los dos. Los dos han metido la pata, y los dos tienen que llevar el castigo. Pero... no. Siempre se lo lleva la mujer, y no es así tampoco» (Aitana, presoa).

Altagraciak ere egoera bera salatzen du. Bere hitzetan:

«Hubo una vez que pasó un problema en el polideportivo, por ejemplo. Encontraron a una pareja... en el baño, y nos prohibieron a las chicas... No nos daban las llaves de los servicios. Cerraron los servicios. Entonces, hicieron un informe a todas las chicas que tuvieron... que estuvieron ese día, en esas horas, en el polideportivo. Pero a todas. Aunque no hubiesen estado... ¡A todas un informe! ¡Y a los chicos, a ninguno! Entonces, esas cosas sí que me molestaban muchísimo» (Altagracia, presoa).

---

<sup>193</sup> Marko teorikoan ikusi bezala, ikerketek baieztatzen dute emakumeei zorrotzago eta gehiagotan zigortu ohi zaiela, gatazkatsuagoak ez izan arren (Viedma eta Reviriego, 2012: 200). Zehapenei buruzko datuak jakin nahi izanez gero, ikus «3.2. Espetxe-egoera gaur egun: zigorrak eta genero-diskriminazioak miran» azpiatala.

Aitzitik, arazoren bat dagoenean emakumeak gehiago zehatzeaz haratago, Altagraciak oro har emakumeek mugimendu-askatasun gutxiago dutela ere kritikatzten du; eurak beti funtzionarioek lagunduta joaten baitira leku batetik bestera, eta gizonek, oster, askotan bakarrik egiten baitute. Honela azaltzen du:

«Aquí hay mucha diferencia. Hay como... ¡puf! No sé. Creo que... discriminación sexual aquí. [...] O sea, una chica, para ir al polideportivo, tiene que salir con el funcionario. ¡Tiene que llevarla el funcionario! [...] Nosotras no podemos ir solas. Nos tiene que salir un funcionario a llevar. ¡Pero los chicos sí van solos! Mira, que desde nuestro módulo de mujer al polideportivo es nada. Son 100 metros. Y de los chicos, de abajo arriba es mucho más. El doble, por lo menos. Y ellos van solos. A nosotras no nos dejan ir» (Altagracia, presoa).

Hortaz, aurretik ere ikusi dugun moduan, badirudi gizon eta emakume presoak elkartzea arazo denean, oraindik ere emakumeek pairatzen dituztela mugaketa handienak; eta, era berean, euren kontrol handiagoa egotearen beste erakuskari bat dela eurekin jarrera paternalistak edo protekzionistak arruntagoak direla. Izan ere, emakumeen segurtasuna bermatzeko edo arriskuak ekiditeko ezarri ohi dira muga horiek, balizko arazoa gizonek sortzen duten arren.

Bestalde, elkarrizketatuetakoko baten batzuek diotenez, espetxe-langileek gehiago sartzen dute muturra emakumeen kasuan, gehiago esaten diete zer egin behar duten eta zer ez, eta gehiago juzgatzten dituzte ere. Neurri batean, emakumeak gizonak baino irekiagoak izateagatik edo euren bizitza pertsonalari buruz gehiago hitz egiteagatik izan daitekeela ukatu gabe, askok kritikatzten dute langileek nagusikeria-ikuspegitik egiten dutela.

Albak, kasurako, gizon-emakume presoekin lan egiten duten bi elkartetako kide bezala duen ezagutzan oinarrituta, emakumeei gizonei ez bezala epaitzen zaiela baieztatzen du; jarraibide gehiago ematen zaizkielakoan edota segitu beharreko norabidea nabarmenago markatzen zaielakoan. Honelaxe dio:

«Se sienten muy juzgadas. Creo que permanentemente las mujeres se sienten mucho más juzgadas por los funcionarios que... que los hombres. [...] Creo que se las juzga más, sí. Tanto por funcionarias como por funcionarios. [...] Yo creo que las tratan desde una superioridad tan... impresentable, y desde... y desde la perspectiva de... del bueno y el malo, ¿no? “Vosotras sois las delincuentes. Yo te voy a enseñar cómo tienes que

hacer, y tienes que hacer así”. Y todo lo que sea salirse de ahí está mal. [...] Creo que los funcionarios se permiten dar muchas más instrucciones de cómo tienen que hacer las cosas a las mujeres que a los hombres. A los hombres les dejan más... Bueno, pues, jugar al parchís, al fútbol, que estén entre ellos y tal. Creo que a las mujeres las... las instruyen más, para cómo tienen que ser cuando salgan. A los hombres igual les dicen “¡Ah, lo que tienes que hacer es no meterte en líos!”. Pero me da la sensación que con las mujeres van más allá. Es que todo parte de la perspectiva de que las juzgan. Creo que en el fondo les parece mucho peor que delinca las mujeres que los hombres. Creo que sí. [...] La diferencia está en dar más directrices: “Pues, si te sientes así, pues haz así, y haz así y asao”. De hecho, es que más de una vez he escuchado a mujeres decir “A mí ella no me va a decir cómo tengo que hacer...”, y a hombres no les he escuchado» (Alba, gizon-emakume presoekin lan egiten duten bi elkarte profesionalistako kidea).

Nolanahi ere, espetxe-sistemak emakumeengan gauzatzen duen kontrol handiagoa behar bezala ulertzeko, langileek eurei buruz dituzten iritzietan edota pertzepzioetan sakontzea ezinbestekoa da; horiek, halaber, eurekin erlazionatzeko duten moduan berebiziko eragina izanik. Hala, elkarrizketatuek esandakoari erreparatzen badiogu, argi hauteman dezakegu, funtzionarioen gehiengoaren ustez, emakumeekin lan egitea gizonekin egitea baino okerragoa dela. Antza denez, emakumeak maneiatzea zailagoa eta konplexuagoa dela pentsatzen dute, beti eskean eta hobekuntzak lortzeko presionatzen daudela, euren kontuetan maizago nahasten dituztela, baita, elkarri gizonen baino gehiago lagundu ohi dioten arren, liskar gehiago ere izaten dituztela garrantzirik gabeko arrazoiengatik.

Sandrak, adibidez, emakumeek lanak ematen dituztela baiesten du, gizonen baino askoz ere eskatzaileagoak eta tematiagoak izatearen kausaz. Bere hitzetan:

«En mujeres siempre... Yo, por lo menos, lo que he vivido a nivel de profesionales, las mujeres son muy demandantes. Muy demandantes en lo emocional. O sea... piden mucha atención. Piden mucha atención, descargan mucho más... y, a veces, bueno, pues es... agotador [*Barreak*]. Porque hay cosas... a ver, hay cosas que no tienen solución, que no se pueden arreglar, ¿no? Pero, bueno, pues tienes que hacer mucha escucha, eh. Entonces, a ese nivel sí que... que igual ellas son más demandantes. Más demandantes a todos los niveles, porque te vienen a plantear todo. O sea... En los hombres, pues yo qué sé, si uno no tiene para fumar o... o no tiene ropa, yo qué sé, pues no te viene a decir “Es que estoy sin ropa”. O se busca la vida o... No te viene a ti, trabajador social, a decirte eso, ¿no? Pero las mujeres todo. O sea... Todo, todo. Te... te lo descargan todo. A ese nivel sí que yo veo esa diferencia» (Sandra, espetxeko gizarte-langilea).

Halaber, elkarrizketatutako Tratamendu Batzordeko menbruek ere diote emakumeekin lan egitea nekezagoa dela; euren iritziz, gehiago eskatzeaz eta setatzeaz gainera, arazoak esajeratzen dituztelako. Honela azaltzen dute:

«Josean: Su demanda nunca tiene fin.

Irene: Nunca tiene fin. Eso sí. Las mujeres son muy demandantes. Se nota. Más que ellos. Mucho más. [...] Son mucho más demandantes. Da más trabajo una... bueno, una mujer que cuarenta hombres.

Josean: Buena parte de los funcionarios no quieren trabajar con mujeres.

Irene: ¡La mayor parte!

Josean: O sea, darían su brazo a torcer por no tener... [...]

Irene: Directamente te vuelven loco.

Fernando: Te vuelven loco.

Irene: Cualquier pequeño... cualquier problema que tengan, jo, entre ellas... Es que tú ya sabes cómo son las mujeres. Pues, lo hacen grande y, entonces, el problema con éste y Pepita y la otra, y tal, las críticas... Todo es...

Fernando: [...] Son pedetes. Yo las llamo pedetes. Entre ellas... Y luego, es que lo resuelven todo con el tremendismo. O sea, todo es... de vida o muerte.

Irene: ¡Todo! [...]

Pablo: En general, las mujeres suelen ser más demandantes que los hombres presos.

Fernando: Las mujeres son más... Ya, simplemente a nivel cuantitativo, de demanda de entrevistas, ¿no? [...] La petición de entrevistas de mujeres con los hombres...

Irene: No tiene nada que ver.

Fernando: Para el mismo tema, en la misma semana, igual te piden lo mismo o te vuelven a preguntar tres veces también. Es decir, más reiterativas, más... número de demandas. [...] Y luego, ¡puf! Es que ven más problemas. A lo mejor, donde otros no lo verían, ellas... para ellas es un problema»

(Josean, espetxeko jurista eta tratamendu-zuzendariordea; Irene, espetxeko jurista; Fernando, espetxeko gizarte-hezitzailea; eta Pablo, espetxeko gizarte-langilea).

Beraz, elkarrizketatutako espetxe-langileen aburuen arabera, badirudi emakume presoek jokaeretakoa asko ulertezinak iruditzen zaizkiela. Ildo beretik, sentimenduak adierazteko dituzten moduak ere eurentzat nahiko adigaitzak direla dirudi. Gizonek ez bezala, era nabarmenean edo deigarrian egin ohi dutenez, batzuetan, portaera okertzat hartzen dira, halakoxeak ez izan arren. Hala azaltzen dute Tratamendu Batzordeko kideek:

«Fernando: Digamos que la vena dramática, teatral, también la ejercen. [Barreak] Es decir... [Barreak] La puesta en escena. Sí. La puesta en escena... [...]

Marta: Son más histriónicas. Más dadas a... a la extensión de toda su persona, ¿no? Entonces, si estoy nerviosa, se tiene que enterar que estoy nerviosa desde la funcionaria hasta el médico, que está aquí abajo la enfermería. Y si estoy triste, se tiene que enterar de que estoy triste... Entonces, como hacen extensible su estado emocional...

Irene: Empiezan a gritar. Gritan.

Marta: ...a todo hijo de vecino que pase por allí, pues, entonces, parece que dan más guerra, pero no es que... A ver, si por comportarse peor atendemos a incurrir en hechos aquí dentro de prisión graves o que puedan generar inseguridad o tal, no es el caso.

Fernando: Para empezar, a ellas les da menos vergüenza manifestar sentimientos.

Marta: Claro, a nivel emocional...

Fernando: Expresarme emocionalmente. El hombre es más reservado, más retraído.

Pablo: No entran en emociones»

(Fernando, espetxeko gizarte-hezitzailea; Marta, espetxeko psikologoa; Irene, espetxeko jurista; eta Pablo, espetxeko gizarte-langilea).

Bestalde, emakumeekin lan egitea konplexuagoa izatearen zergati moduan, testuinguru larriagoetatik etorri ohi direla ere aipatzen dute; oro har, bazterkeria nabarmenagoa bizi izan dutela baieztatuta, baita okerrago sartu ohi direla eta baliabide eskasagoak izan ohi dituztela ere. Presoen nolakotasuna deskribatzerakoan, berriro ere espetxe-langileek gai batzuen inguruan duten ulertezintasuna antzeman daiteke. Besteak beste, baten batzuek diote «primarioak» eta «heldugabeak» direla, «gaitasun gutxikoak», komeni ez zaizkien bikote-erlazioetan sartzen direla behin eta berriz, gizartearen erritmoan eboluzionatu ez ei duten «inguru matxistetatik» datozelakoan. Tratamendu Batzordeko kideen hitzetan, adibidez:

«Josean: Todo es ¡más! con mujeres. Porque todo es más intenso y más... más extremo, ¿no? Quiero decir, la exclusión social en mujeres es mayor que en los hombres. Tienen un plus de exclusión. Sobre todo, por las cargas familiares y porque en el ambiente... En mujeres... Si existe todavía discriminación hacia la mujer, en las internas... Bueno, mejor dicho, en las mujeres que forman parte de las clases sociales excluidas, esa discriminación es aún mayor. O sea, el machismo se expresa de una forma mucho más brutal. De hecho, una buena parte de las mujeres [...] han sido víctimas de... de las mujeres que están en prisión, han sido víctimas de violencia de género, por ejemplo. Entonces, todo es más... complicado. Es más difícil. [...]

Irene: Es que se nota. A prisión entran mujeres más desestructuradas. Yo creo que es más difícil entrar siendo una mujer. Entran...

Fernando: Pero es que ahí metemos ya también lo cultural. Es decir, ellas todavía viven mucho más lo de... No han evolucionado en ese sentido. Que la mujer se emancipa, tiene su espacio, tal... [...]

Irene: Sí. No han evolucionado... como la sociedad. No han evolucionado. [...] Y cuántas veces has visto que han sido ellas víctimas de violencia de género y luego se lían con no sólo gente con violencia de género, sino incluso gente que igual ha matado a su pareja. A mí me pone...

Fernando: Y repiten y repiten... Quiero decir, repiten el esquema de... Han sido ellas mismas víctimas de violencia de género, y su siguiente pareja seguramente es el mismo perfil de...»

(Josean, espetxeko jurista eta tratamendu-zuzendariordea; Irene, espetxeko jurista; eta Fernando, espetxeko gizarte-hezitzailea).

Espetxeko langileen ustez emakumeekin lan egitea zergatik den zailagoa ikusi ondoren, azken urteotako aldaketan harira, Errespetu Moduluengan jarri behar dugu arreta berriro ere. Eredu horrek presoan gaineko kontrola, presioa eta eskakizun-maila areagotu egiten du (Ballesteros, 2013a, 2013b; Ballesteros eta Almeda, 2015; Francés, 2015) eta, jada esan bezala, emakumeei aplikatu zaie batik bat. Azken batean, horrelako moduluetan arauak nahiz obligazioak ugariagoak dira, diziplina ere zorrotzagoa da, eta eguneroko nahiz asteroko ebaluazioek presoan euren arteko jagoletza bultzatzen dute, istiluak eta tentsioak sortzeaz batera. Errespetu Moduluan egotea edo ez egotea aukeratu daitekeen kasu urrietan, espetxeratutako emakumeetako batzuk ezetzaren aldekoak dira; besteak beste, zentzurik gabeko betekizun gehiegi daudela eta presoan arteko salakeria indartzen duela kritikatur. Haatik, beste batzuek bertan egotea nahiago dute, abantailak ematen dituelako edo Konplimendu Modulua arriskutsuagoa ei delako. Itxura denez, Errespetu Moduluak atxiloen arteko liskarrak eraginda ere, giro orokorra lasaiagoa eta seguruagoa da; eta enfrentamenduak egon arren, ez dira beste modulukoak bezain agerikoak. Horri lotuta, deigarria da espetxe-langileentzat bereziki ulergaitzak direla Errespetu Moduluan sortutako gatazkak. Funtsean, ereduak eragindako dinamikaren inguruan hausnarketarik egin gabe, batzuek adierazten dute bertan dauden emakumeak, «ume mimatuak bezala», gogaikarriagoak edota txaplatagoak direla.

Kontrolaren gaiaren harietatik zertxobait gehiago tiraka, diziiplina ezartzerakoan edota zigorrak gauzatzekoan neurrigabekeriarik egon ote den ere hartu behar dugu kontuan. Baina, orokorki, bai emakume presoek bai espetxeko langileek tratua zuzena dela uste dute; eta, akaso, kasuren batean edo bestean biolentzia gehiegi baliatu dela edota neurri hertsatzaileak gogorregi aplikatu direla ukatu gabe, salbuespenak direla adierazten dute. Gehiengoaren iduriko, funtzionarioen erasoak ezohikoak dira, botere-gehiegikeriak hain urriak ez izan arren.

Eraso fisiko nahiz psikologikoetatik eta askotariko tratu iraingarrietatik harago, zehazki sexu-abusuen gaiari erreparatzen badiogu, ezinbestean, elkarriketatik topo egiten dugu Langraiz Okako presondegian 2009an gertatutakoarekin. Espetxeko langileen aburuz, jazoakoa ezin da inola ere ez orokortu, ohiz kanpokoak izan zelako argi eta garbi. Kasu baterako, elkarriketatutako Tratamendu Batzordeko menbruen arabera, hain zuzen ere, ezohikoa izanik horretarako prest ez zeudelako gertatu zen. Euren hitzetan:

«Josean: Mi opinión es que pasó... porque... no estábamos preparados para una cosa así. Es... era algo tan absolutamente... inusual y tan extraordinario, que, de hecho, no teníamos... Aquí sabemos cómo reaccionar cuando... Por ejemplo, tenemos más o menos una forma de actuar cuando vemos que un funcionario puede excederse. Sabemos cómo parar eso. O, por lo menos, se sabe cómo... Sabes cómo parar una situación en la que puedes incluso sospechar que alguien pueda meter la mano en la caja. Existe un procedimiento. Pero para eso, es que... ¡es que ni nos cabía en la cabeza que un tío fuera capaz de hacer eso! De hecho, antes de eso, nunca hubo ninguna queja de ninguna persona en ese sentido. Llegó ese tío, empezó a haber quejas, le condenaron, se fue y no ha vuelto a venir ese tío.

Irene: No ha vuelto a venir.

Josean: Nunca jamás nada de eso.

Irene: Muerto el perro, muerta la rabia»

(Josean, espetxeko jurista eta tratamendu-zuzendariordea; eta Irene, espetxeko jurista).

Haatik, beste gai askorekin ere gertatzen den modu berean, elkarriketatutako emakume presoan artean bestelako ikuspuntuak daude. Izan ere, gehienek uste dute sexu-abusuak dirudiena baino ohikoagoak direla, espetxe aunitzetan entzuten direlako horiei buruzko zurrumuruak, baina ez direla salaketak egiten erasotuak beldur direlako eta inpunitatea nagusi delako. Beraz, begi-bistakoa da kontrolaren eta erasoan eremuan ere emakumeen egoera larria izaten jarraitzen duela.

## 7.5. Osasun-egoera, arreta medikoa eta zaintza

Genero-desberdinkerien azterketan, alboratu ezin den beste esparru bat da osasunari eta arreta medikoari dagokiona. Edonorentzat da oso agerikoa espetxealdian neurrigabeko medikalizatzea gertatzen dela eta egoera bereziki larria dela emakumeen kasuan; azken batean, euren lasaigarri, antidepresibo zein antsiolitiko gehiago errezetatzen zaizkielako (Del Val, 2012b: 132-134)<sup>194</sup>. Espetxeko langile batzuen ustez, emakumeak eurak dira psikofarmakoak gizonak baino maizago eskatzen dituztenak. Aitzitik, zenbait kasutan hori horrela jazotzen denik ukatu gabe, elkarrizketatutako emakume presoetako askok bestelako ikuspegiak dituzte. Izan ere, askok medikazioa hartzeari ezezko biribila eman diote edota euren kontura utzi diote hartzeari, fuerteezia delakoan edota albo-ondorio kaltegarriak dituelakoan. Orokorrean, bai psikofarmakoak hartu dituztenen bai hartu ez dituztenen artean, gehienek baiesten dute medikazioa gehiegizkoa dela eta ez dela behar bezala gainbegirutzen. Halaber, batzuen batzuek gogor salatzen dute espetxe-sistemak presoak hutseratzeko nahiz kontrolatzeko erabiltzen duela.

Aitana ez omen da psikofarmakoak hartzearen oso aldekoa izan inoiz, eta, horregatik, kartzelan hartu bazituen ere, denbora laburrez egin zuen. Bere iritziz, medikazio fuertea neurritz gain banatzen zaie atxiloiei, karameluak izango balira bezala; eta, gainera, ez da segimendua zuzen egiten. Honelaxe azaltzen ditu bere kexak:

«A todo el mundo le dan medicación. ¡A todo el mundo! [...] Pero es que no te preguntan qué clase de medicación tomas, ¿no? “Te doy esto, y esto, y esto”. Yo lo he visto en la cárcel ésta. Vas y te dicen “Bueno, te doy Tranxilium, te doy Trankimazin y te doy Valium<sup>195</sup>, ¿vale?”. Y le digo “¿Pero, cómo es esto? Si yo no tomo ni esto, ni esto, ni esto. ¿Cómo me están dando esto? ¡Si yo no tomo nada de esto!”, ¿no? Pero a todo el mundo que entra... [...] Aquí te dicen “¿Qué quieres? ¿Un tranxilium? ¡Pues, toma un tranxilium! ¡Pues, toma! Te doy tres: uno por la mañana, otro al mediodía, otro por la noche”. Y te tienen todo el día atontada, todo el día... Entonces, ¿para qué? [...] ¡Puf! ¡Yo lo veo fatal! Lo veo mal, porque hay personas que las anulan. Las dan medicación, medicaciones que no tienen que darlas, y las anulan. No son personas. [...] Las anulan completamente como personas. [...] Yo eso no lo veo... No lo veo normal. [...] Lo de la medicación, ¡tenían que mirarlo bien! ¡Y con lupa! [...] Que tienen que

---

<sup>194</sup> Psikofarmakoen kontsumoan dagoen alde zehatza jakin nahi izanez gero, ikus kopuruak «3.2. Espetxe-egoera gaur egun: zigorrak eta genero-diskriminazioa miran» azpiatalean.

<sup>195</sup> Aipaturiko hirurak medikamentu lasaigarriak dira.



controlar a ver la clase de medicación que te toca a ti, le toca a la otra o a la otra. Y eso no lo miran. Que hacen “¡Toma!”. ¡Hala, veinte pastillas! ¿Qué vas a hacer? ¡Anulada todo el día! Si te tomas esas pastillas, estás anulada todo el día. [...] Y los síntomas que te producen las pastillas... [...] Te da ataques epilépticos y te da... [...] Yo preferiría que lo miraran con lupa. Pero, claro, estamos en la cárcel. No estamos en la calle» (Aitana, presoa).

Medikalizatzea gehiegizkoa dela esatean baina, ez da ezeztatu nahi itxialdian osasun-arazo larriak daudenik. Nabarmena da kartzelaldiak ondorio kaltegarriak dituela presoan osasunean, bai maila psikologikoan, baita fisikoan ere. Oso zargaldurik sartzen diren gutxi batzuek hobera egiten badute ere –giltzapean kalean ez dituzten osasun-zerbitzuak dituztelako–, begi-bistakoa da kasik denek okerrera egiten dutela eta hainbatek, gainera, osasun-arazoekin jarraitzen dutela kanpora irten eta gero. Hartara, medikazioa neurritz gain errezetatzen dela baieztatzean, osasun-tratamenduek, baliabideek nahiz zerbitzuek gabezia aipagarriak dituztela esan nahi da. Elkarrizketatutako preso nahiz preso ohien artean esperientzia positiboak eta negatiboak egon arren, aunitzek diote osasun-arreta ez dela nahikoa, osasun-taldeak langile gehiago behar dituela eta diagnostikoak hobetzeko premia dagoela. Kexa horien jakitun, medikuek eta erizainek ahalik eta hobekien egiten saiatzen direla erantzuten dute, itxialdiak euren zeregina asko zailtzen duela argudiatuta. Alabaina, nolana ere, badirudi azken urteotan egoerak onera egin duela, Osakidetza presondegietak osasungintzaz arduratzen hasteari esker; izan ere, lehen ez bezala, orain pazienteen istorio klinikoa eskuragai dutela azpimarratzen dute medikuek, horrek euren lanaren maila asko hobetzen duelakoan. Bestalde, espetxeratutako emakumeetako asko ere kexatzen dira, espezialistarenera edo ospitalera joateko ateratzen direnean, ertzainek lagunduta eta eskuburdinak jarrita joaten direlako. Osasun-langileek diotenez, batzuen batzuentzat hain da ezerosoa egoera hori, ezen, ez irteteko, ondoezari ahal bezala eusten ahalegintzen diren, benetan gaizki egonda ere.

Elkarrizketatutako emakume presoek eta preso ohiek esandakoarekin segituta, depresioa edo antsietatea bezalako arazoak oso ohizkoak dira kartzelaldian zehar. Baina, halaber, benetan arruntak dira ondorengoak ere: buruko minak, larruazaleko gaixotasunak, arazo ginekologikoak, elikadura-arazoak, ikusmenaren eta entzumenaren galera, ile-erorketa, etab. Larritasun bereziz aipatzen dituzte buruko gaitzak eta suizidioak ere. Euren ustez, dudarik gabe, giltzapetzeak berak sortutako kalteak dira; hau da, emozionalki bizitakoak ekarritako ondorioak.

Simonek, kasurako, emakume presoek itxialdian dituzten osasun-arazo larrietan arreta jarrita, espetxealdiak gaixotzen dituela eta hori onartezina dela pentsatzen du. Amorrutik oroitzen du berak atake batzuk nozitzen zituela aldizka, egoerak eragindako estresaren kausaz. Bere hitzetan:

«He tenido unos ataques que me ha dado en la cárcel, de que... yo me... Cada... equis tiempo... A veces era más frecuente. Me daba un apagón. Que... me caía redonda, donde estuviese, y me costaba mucho volver, ¿no? Me reanimaban y todo, y... Me costaba mucho. Era como un apagón. Y han hecho... He hecho una serie de exámenes, de pruebas, y ha dado que era un grado de estrese<sup>196</sup> y mi cuerpo... lo que hacía era... simplemente, ¡paraba! Daba un parón, momentáneo, y después volvía. Poco a poco. [...] De todo lo que provocaba ese cúmulo de... [*Arnasa hartzen du sakon*] de emoción, que... me daba... ¡puf! ¡Apagones! [...] Era como... como un tipo... ataque epiléptico. Yo no te sé decir muy bien, porque como apagaba, no me acuerdo de nada. Yo... no me acuerdo» (Simone, preso ohia).

Espetxe-langileek, euren aldetik, bereziki buruko gaitzei buruz hitz egiten dute; espetxe-sistemak gaur egun duen arazo larriena edo larrienetakoa direla baietsita eta emakumeen kasuan egoera are kezagarriagoa dela azpimarratuta, nagusiki eurek jasaten dituztelako horrelako osasun-asaldurak. Orokorrean, adostasuna dago adieraztean presondegiak ez direla buruko gaixoak artatzeko egokiak, itxialdian okerrera egiten dutelako nabarmen; eta, horrez gain, baita gutxi sartzen direlako tratamendu-programa espezifikoen ere<sup>197</sup>, arreta-baliabideak eskasak direlako, ez dagoelako behar bezalako segimendurik egiteko langile nahikorik eta patologiak batez ere farmakologikoki artatzen direlako (Arartekoa, 2014). Dena dela, Osakidetzak presondegietakoa osasungintza bere gain hartu duenetik, buruko gaixoen egoera ere zertxobait hobetu dela dirudi.

Bestalde, aipagarria da espetxe-langileek banaketa argia egiten dutela buruko patologia arinen eta larrien artean. Lehenengoei buruz hitz egiten dutenean, orokorrean, mugako

---

<sup>196</sup>Portugesez, estresa.

<sup>197</sup> Buruko patologiak tratatzeko Espetxe Erakundeek ezarri duten neurri garrantzitsuena PAIEM Buruko Gaixoentzako Osoko Arreta Programa da. Jomuga gaitz horiek dituzten presoek berariazko arreta jasotzea da; hau da, diziplina anitzeko langileen artean, atxilo horien diagnostikoa, tratamendua eta berreskuratzea hobetzea (SGIP, 2010a: 35). Espainiako Estatuko espetxe guztietan indarrean dago programa, baina gutxi dira parte hartzen duten presoak; buruko gaixo gehienak kanpo egonik.

nortasun-nahasmenduari<sup>198</sup> buruz ari dira. Preso guztien artean oso hedatua dagoela uste dute, baina, batik bat, ohikoa dela emakumeen artean; ia denek nahasmendu hori dutela baieztatzeraino. Bigarrenei buruz ari direnean, ostera, larritasun handiagoko patologien inguruan ari dira; desoreka psikotikoen edota eskizofrenikoen inguruan, esate baterako. Horiek eskuarki gutxiago izan arren, azken urteotan nabarmenki areagotzen ari direla pentsatzen dute, baita emakumeen artean gizonen artean baino askoz ugariagoak direla ere. Hortaz, buruko gaitz arinen zein larrien kasuan, emakumeek osasun-arreta gehiago behar dutela baiesten dute; baina, jada esan bezala, artatze horrek gabezia handiak ditu. Era berean, azpimarragarria da espetxeko langileak soilik patologia larriengatik daudela benetan kezkatuta eta, nolerebait, arinei garrantzia kentzeko joera dutela; kasu baterako, mugako nortasun-nahasmenduak normalizat hartuta. Horrez gainera, hainbatek Espetxe Erakundearen ardura ukatzen ere saiatzen dira, preso gehienek patologia horiek kartzelan sartu baino lehen jadanik bazituztela defendatuta, askotan diagnostikatuta ez egon arren; beraz, inplizituki, delinkuentziaren nolabaiteko patologizatzea egiten dute eta, espetxeak buruko osasunean izan dezakeen eragina ezeztuta, arazo indibidualizat aipatzen dituzte. Kontuan hartuta eurek diotenez emakume preso ia guztiek buruko gaitz arinak dituztela eta patologiarik larrienak euren artean arruntagoak direla, agerikoa da jaidura horiek ere emakumeei eragiten dietela nagusiki. Aitzitik, ezin da aipatu gabe utzi espetxeko langile zenbaitek kontrako iritzia dutela, ukaezina iruditzen zaielako itxialdiak atxiloen buruko osasunean ondorio nabariak dituela. Aurretik zituzten balizko gaitzak larriagotzeaz gain, gehiago ere sortzen dituela uste dute, eta horrek presoek zaurgarritasuna handiagotzen duela.

Esandakoaren erakuskari, elkarrizketatutako Tratamendu Batzordeko Joseanen aburuan barrenduko dugu. Izan ere, espetxe-sistemaren egungo arazorik handiena buruko gaitz larriak dituzten presoek ugaritzea dela pentsatzen du, eta egitate hori are kezkarriagoa dela emakumeen kasuan, eurek dituztelako halako patologia gehienak. Honelaxe dio:

«Las enfermas mentales [...] la proporción es muy grande también. Mayor que en hombres. Eso es un problema específico ahora mismo en las prisiones, porque cada vez más... pues, se están psiquiatrizando las prisiones, y... Como han cerrado muchos establecimientos psiquiátricos, porque se consideran que institucionalizan al paciente y

---

<sup>198</sup> *Borderline* edo mugako nortasun-nahasmenduaren adierazleak honakoak dira: harremanen, norberaren irudiaren eta afektibitatearen ezegonkortasuna; pentsaera polarizatu zein dikotomikoa; eta oldarkortasun nabarmena (Arartekoa, 2014: 99).

no sé qué, pues van a la calle, y de la calle van a la cárcel, porque no hay otro sitio. [Ironikoki] Aquí decimos eso, que debe ser muy buena la cárcel para los enfermos mentales, ¿sabes? Porque los psiquiátricos no son buenos, ¡pero las prisiones deben ser buenísimas! Entonces, es un problema grave, porque no les puedes aplicar el mismo sistema de control y contención que al resto de los reclusos, que está basado básicamente en la recompensa y el castigo. Pero a un enfermo mental eso no termina de... Entonces, siempre es un problema, porque... ¡puf! [...] Lo más difícil que hay. [...] El problema principal que tenemos ahora en prisión, en cuanto a la convivencia ahí dentro, son los enfermos mentales. Y en mujeres aún más» (Josean, espetxeko jurista eta tratamendu-zuzendariordea).

Buruko gaitzez bestalde, bai presoak bai espetxeko langileak kezkatzen dituen beste gai bat suizidioena eta suizidio-saialdiena da. Leirek, kasu baterako, erantzukizuna Espetxe Erakundeengan jarrita, honela adierazten du bere egonezina:

«He visto gente morir en la cárcel. [Arnasa hartzen du sakon] O sea, de estar una noche durmiendo con ella y despertarte a la mañana y ya no está, ¿no? Y... es... muy jodido. [...] Hay gente que aguanta en la cárcel. Gente que no. Y pienso que... que se podrían hacer más cosas para que la gente no se quite la vida. Dentro. Un poquito más de preocupación. [...] A mí me ha tocado vivir eso... Me ha tocado bajar a compañeras de la habitación y... [Etenaldia] y tener que llevarlas y... al hospital, y morir allí. [...] Te quedas mal. [Etenaldia] Pues, son gente con la que vives veinticuatro horas al día y... y duele. Duele ver que una persona no ha podido. [Etenaldia] Porque igual tampoco le han dado la oportunidad que ella necesitaba. Porque está claro que en esta vida cada uno necesita unas cosas, y lo que me sirve a mí, a ti no te puede servir. Entonces... Si de verdad hubiera profesionales como tiene que haber, [Arnasa hartzen du sakon] evitaríamos muchas cosas. [...] Si alguien le hubiera atendido mejor y se hubiera preocupado de ella, probablemente... no hubiera aparecido con una sábana... colgada... de un puto barrote. O no hubiera cogido una cuchilla y se ha cortado todas las venas y se ha desangrado, porque nadie se ha preocupado de a la hora del recuento mirar si estaba bien. [Arnasa hartzen du sakon] Es un palo para la que vive dentro, como para el funcionario que le toca, eh. Porque pienso que ver a una persona muerta... O sea, ayer la dejas viva y por la mañana vas y... la ves muerta. Es un shock. [Etenaldia] Y pienso que hay que tener muchos cojones para... [Arnasa hartzen du sakon] para hacer eso» (Leire, preso).

Espetxe Erakundeek, preso askok suizidatzeko ideia buruan darabiltela jakinik, martxan jarri dute PPS Suizidioak Prebenitzeko Programa<sup>199</sup>. Horren arabera, bere buruari min egiteko arriskua daukatenek une oro preso laguntzaile batek zainduta egon behar dute; eta, hala, zeregin hori egiteko ikastaro txiki bat besterik egin ez duten atxiloen eskuetan uzten dute beste batzuen ongizatea. Ezinbestean, ereduak preso askoren eta elkarteetako kide askoren kritikak jaso ditu; batik bat, honakoak salatuta: preso laguntzaileek ardura handiegia dutela, ez dutela hori egiteko prestakuntza nahikorik eta zaintzarako txandak luzeegiak direla. Era berean, aintzat izan behar dugu nagusiki emakume presoek eragiten dien egitatea dela. Errespetu Moduluetan nahitaezkoa da preso laguntzailea izatea eta, arestian esan bezala, euskal presondegietak emakumeentzako ia departamentu guztiak halakoxeak dira, gizonenak ez bezala.

PPS programari egindako kritiken erakusgai, Paulari onartezina iruditzen zaio emakume presoek horrelako zereginak ezartzea. Honelaxe dio:

«En Módulos de Respeto, o sea, les obligan a estar de PPS, ¿no? De personal de apoyo. Y, si no, te sales del Módulo de Respeto. Y igual hay situaciones en las que deberían ser los profesionales los que tendrían que estar de PPS, porque yo como presa, ¿por qué voy a tener que saber cuidar a una persona? ¿Vigilar a una persona? ¿Qué utilización se hace de todo esto, al final? ¿No? Tener que cuidar a una persona que está desintoxicándose, que está pasando un monazo impresionante, hablando claro, y tú tener que estar en el otro lado [de la celda], observando cómo igual en un momento determinado ¡le da por chinarse<sup>200</sup>! O sea... ¡igual psicológicamente no estás preparada para eso! Pero es que no lo está ni esa persona ni nadie. O sea... para una situación de ese tipo, igual tiene que estar una persona profesional, ¿no? O sea, ¿qué utilización se hace de las personas? Porque eso no está pagado. [...] Son beneficios penitenciarios. Pero es que no estamos hablando de limpiar el pasillo del módulo. No estamos hablando de repartir la comida. Estamos hablando de cuidar a personas, y estar atenta a personas. De estar de personal de apoyo en tu propio chabolo<sup>201</sup> con una persona que igual tiene una enfermedad mental. ¡Puf! A mí me parecen situaciones muy duras, y muy complicadas, como para que... hacer... hacerle eso a una persona. Y tienen que tragar, y tienen que tragar. Gente

---

<sup>199</sup> Izenak adierazten duen bezala, PPS Suizidioak Prebenitzeko Programak xedetzat du saihestea presoek euren buruaz beste egitea. Horren arabera, espetxe-langileek suizidio-arriskua identifikatzeko protokoloa dute eta, balizko kasuren bat antzematen dutenean, ustez bere burua zauritzekotan dagoen horrek une oro preso laguntzaile batek zainduta egon behar duela ezartzen dute (SGIP, 2010a: 34). Espainiako Estatutako presondegi guztietan indarrean dago programa.

<sup>200</sup> Kartzelako jargoian, nork bere burua zauritzea.

<sup>201</sup> Kartzelako jargoian, zelda.

que lleva no sé cuántos años de PPS. A mí me parece muy duro eso. Ahí, en ese aspecto, por ejemplo, yo a nivel personal no estoy de acuerdo. Pueden hacer quince mil cosas, pero no de personal de... de vigilancia [...] y de atención de una persona. ¡Que no tienen una formación para hacer eso! [...] Es que no tienen formación para hacer eso. Bueno, ¡estás cumpliendo una pena! Y te ponen esa obligación. Porque si no, ya sabes lo que hay: te vas al otro módulo» (Paula, emakume presoekin lan egiten duen elkarte profesionalista bateko kidea).

Hortaz, emakumeek osasun-arazo larriagoak eta medikalizatzeko nabarmenagoa jasateaz gain, Errespetu Moduluen ezarpenaren ondorioz ere gizonak baino okerrago daudela dirudi beste behin; azken finean, gizonen gehiengoak ez bezala, emakume gehienek beste presoaren zaintzaren ardura hartu beharrean baitaude.

## **7.6. Kanpokoekiko hartu-emanak**

Emakume atxiloek kartzelan pairatzen dituzten genero-bereizkerien artean azkena lotuta dago eurek murreratutako kanpokoekiko dituzten harremanekin. Izan ere, askotan adierazi da eurek erlazioen galera edo haustura handiagoa bizi dutela preso egotearen ondorioz (Aróstegui *et al.*, 2008; De Miguel, 2010, 2012, 2016; Etxebarrieta, 2013). Dirudenez, gizonen kasuan baino gehiagotan bukatzen dira emakumezkoen bikote-harremanak, bakardade handiagoa bizi dute eta, ondorioz, sostengu afektibo eta ekonomiko gutxiago dute.

Paulak, adibidez, gai horri dagokionez, diferentzia handia sumatzen du emakumeen eta gizonen bizipenen artean. Bere iritziz, azken batean, genero-eredu hegemonikoekin bat eginez, emakumeen gehiengoak zaintza-lanak bere gain hartzen ditu, eta gizonen artean hori egiten dutenak gutxiengo argia dira. Bere hitzetan:

«Una mujer cuando entra en prisión, la mayoría de las veces, las parejas que tenían... Muchas veces sucede... Desaparece. Cuando un hombre entra en prisión, la mujer se encarga de mantener el vínculo con la familia. No sólo porque ella intenta hacer todo lo posible por trasladarse desde donde sea y ir a visitar en las comunicaciones y en los vis a vis a su pareja, sino porque lo que va a intentar es mantener el vínculo con sus... con la familia. “Vamos a visitar a vuestro padre”. Un hombre es diferente. O sea, no es que sea diferente, es que las situaciones que vemos son diferentes. O sea, es que...

cuando mantienen el vínculo con la familia, igual la que mantiene ese vínculo es la madre de esa mujer, ¿no? Que lleva a los hijos y demás. O la hermana o tal. En algunas ocasiones, los hombres. Pero es que eso mismamente nos pasa con... las mujeres que vienen aquí al piso [de acogida], ¿no? Solemos preguntar “¿Tus hijos a cargo de quién están?”. En un tanto por ciento muy elevado, a cargo de la familia materna. O sea, a cargo del padre sí que se da, en ocasiones y demás, y con ayuda de la familia materna. Pero eso es algo... o sea, que está clarísimo» (Paula, emakume presoekin lan egiten duen elkarte profesionalista bateko kidea).

Era berean, kanpokoekiko hartu-emanen hausteaz hitz egiterakoan, kontuan izan behar dugu emakumeek gizonen baino gehiagotan galtzen dutela seme-alaben tutoretza; beste behin, gizonen zaintza-lanez arduratuko diren emakumeak izan ohi dituztelako inguruan eta emakumeek, ostera, maizago, ez dutelako ardura hori hartu nahi duen edo ahal duen inor (Manzanos eta Balmaseda, 2003; Cruells, Igareda eta Torrens, 2005a). Zalantzarik gabe, tutoretza galtzen bada, oso mingarria izaten da emakumeentzat; eta berreskuratzeko saialdiak ere ez dira nolana hikoak, eman beharreko urratsak luzeak bezain konplexuak direnez gero.

Norari, duela urte batzuk presondegi batean gizarte-langile bezala aritzean ezagututakoa oroitzean, izugarria iruditzen zaio, seme-alaben tutoretza galtzeari dagokionez, gizonen eta emakumeen artean halako aldea egotea. Honela azaltzen du:

«Niri harritzen zidana asko eta ez nuena inondik inora ulertzen zen nola [emakume] gehienak... la mayoría estaban peleando continuamente beraien umeak ikusteko, eta gehienek ez zuten custodia. Custodia kenduta zuten. Los hombres estaban por las mismas cosas o peores, y los niños... [...] Bazenekien, indarkeriagatik ez egon edo egonda, aita horiek custodia galtzearena no se planteaba ¡por nada! La mujer desde el momento que entraba a la cárcel parecía que era automático. Eta, si no era automático, ¡puf! Ama egoten zen, konstanteki-konstanteki, preokupazio horrekin. Amatasunaren bizipena hor barruan... oso gogorra» (Nora, espetxeko gizarte-langile ohia).

Norak bezala, elkarrizketatutako espetxe-langile eta elkarteetako kide guztiek uste dute amatasunaren eta aitatasunaren bizipenak zinez ezberdinak direla giltzapean; eta, horren erakuskari, agerikoa dela presoan partetik jasotako eskaeretan lehenengoa oso presente dagoela eta bigarrena, ostera, ez. Espetxeratutako emakumeak eurak ere iritzi berekoak dira; gehienek baitiote eurentzat gizonentzat baino samingarriagoa dela senideengandik

urruti egotea, gehienbat seme-alabengandik. Orokorki, elkarrizketatu guztiak bat datoz baiesterakoan emakumeak gehiago arduratzen direla familiagatik; askotan, euren kezka nagusia senideen egoera dela, eta gizonak, aldiz, sarriago bestelakoak aipatzen dituztela.

Paulak, kasu baterako, argi eta garbi du emakumeentzat familiaren gaia funtsezkoa dela, gizonentzat ez bezala. Bere hitzetan:

«Hay una clara diferencia de lo que son una mujer cuando entra en prisión y un hombre cuando entra en prisión. No tiene nada que ver. O sea, una mujer, la mayoría de las veces... No me gusta generalizar, pero la mayoría de las veces sucede así. O sea, una mujer, cuando entra en prisión, su gran preocupación no es ella misma, sino que es su familia. “¿Con quién voy a dejar a mis hijos? ¿En qué situación se van a quedar? A ver si puedo entrar cuanto antes en los talleres prelaborales para poder mandar dinero a mis hijos”. Hijos e hijas, perdón. [...] O sea, es su máxima preocupación» (Paula, emakume presoekin lan egiten duen elkarte profesionalista bateko kidea).

Montse, gizon-emakume presoekin lan egiten duen elkarte bateko abokatu legez, erabat ados dago. Bere iritziz, emakumeentzat espetxea zigor bikoitza izan ohi da, emozionalki askoz mingarriagoa delako, familia urrun izatearen ondorioz, baita estigmaren ondorioz ere. Azken batean, emakumeek batik bat familiarengan pentsatu ohi dutela uste du; eta, gizonak, aldiz, euren buruan ardaztuago daudela. Honela azaltzen du:

«El hombre está más centrado en su salida, le puede preocupar el tema de la familia y tal, pero [...] está más centrado en él y en lo que tiene que hacer para conseguir salir. Y las mujeres, pues bueno, sí, porque eso no lo pierden de vista, pero pues “Mi familia, mi tal... ¿Cómo estará mi hijo? ¿Cómo estará tal? ¿O mi madre?”. Están más pendientes de la situación fuera, o por lo menos, lo verbalizan así. Y el hombre es más... es más de contar, pues no sé, pues “Mira, qué mal lo estoy pasando aquí, o tal... o fíjate, pues para salir a ver una oferta de trabajo...”. Y la mujer, sí, también está pendiente de lo que tiene que hacer para salir, pero creo que está mucho más en contacto con los problemas de fuera. Y el hombre es “Bueno, bastante tengo yo con lo que tengo dentro, como para encima estar preocupándome de lo que hay fuera”» (Montse, gizon-emakume presoekin lan egiten duen elkarte profesionalista bateko kidea).

Bestalde, badirudi espetxe-langileek gehiagotan hartzen dutela kontuan familia-egoera emakumeen kasuan gizonen kasuan baino, hainbat erabaki hartzerako orduan; nahiz eta irizpide ofiziala ez izan. Dirudienez, askoz hobeto ezagutzen dute emakume bakoitzaren



familiako egoera; zalantzarik gabe, neurri batean, emakumeek gizonak baino askoz ere gehiago hitz egiten dutelako senideei buruz. Nolanahi ere, emakumeen kasuan, espetxe-langileek badakite zeinek dituen ardurapeko pertsonak eta zeinek ez, zer-nolako erlazioa duten, zaintzaz arduratu daitekeen inor dagoen edo ez, etab. Gizonen familia-egoeraren inguruan, aldiz, askoz gutxiago dakite eta, oro har, ez da hizketaldi-gaia.

Adierazi nahi denaren argigarri, Tratamendu Batzordeko kideen hitzak ikusiko ditugu. Izan ere, zenbait espetxe-onura ematerako orduan, emakumeen egoera familiarra aintzat hartzen dutela onartzen dute, deusen bermatzaile ez izan arren. Azken finean, emakume presoetako asko euren senideen arduradun eta zaintzaile nagusiak direlako egiten dutela diote, halabeharrez. Aitzitik, ezin ukatuzkoa iruditzen zaie ez dela guztiz bidezkoa; eta, gainera, kexu ere badira emakume batzuek kartzelatik lehenago irteteko baliatzen omen dutelako. Euren hitzetan:

«Fernando: Como son ellas las que tiran de la familia, también atiendes a la demanda familiar, es decir, en el entorno alguien tiene que seguir tirando de... del núcleo familiar. [...] Si entran los dos... No debería ser, pero no hay que dejar de reconocerlo. Entrando los dos por la misma condena y tal, probablemente... y sin probablemente, [...] probablemente salga antes la mujer.

Pablo: Hombre, la situación... Aunque no nos debe incidir... Bueno, no sé. No nos debe afectar a nosotros a la hora de clasificar, pero hay casos... Por ejemplo, una pareja que son clasificados mañana los dos, los dos han tenido el tercer grado. Pero ella tiene un tercer grado con control telemático, con lo cual va a poder cumplir su condena en casa, porque tiene cuatro hijos. [...] El marido es tercer grado también, pero tiene que volver todas las noches a dormir [a prisión]. [...] No tiene que afectar, pero a la hora de un tercer grado, por ejemplo, a ver...

Irene: Sí, les damos valor a los hijos. [...]

Josean: En teoría no das... No das el tercero, porque tengan hijos.

Marta: No. Pero sí que influye.

Josean: En teoría... El debate con ellas siempre es “Dame el tercer grado que mis hijos están sufriendo mucho”. Una postura... Y dices “Poco te han importado a ti tus hijos cuando te has metido en no sé qué, no sé cuántos...”. Vale. “Ah, ¿cómo me dice eso?”. Y luego lo tienes en cuenta. ¿Cómo no lo vas a tener en cuenta? Para un tercero, para... Siempre... Pero, en realidad, ¡no es justo! [...]

Pablo: Pero no sólo se da un tercer grado por los hijos. [...]

Fernando: Se valora todo. [...] Pero no te garantiza... El ser madre no te garantiza un tercer grado. [...] Pero se valora todo»

(Fernando, espetxeko gizarte-hezitzailea; Pablo, espetxeko gizarte-langilea; Irene, espetxeko jurista; Josean, espetxeko jurista eta tratamendu-zuzendariordea; eta Marta, espetxeko psikologoa).

Alabaina, espetxeko langileek asmo onez eginagatik ere, eta emakume preso askorentzat egiaz onuragarria izanagatik ere, tratamendu-lantaldeek modu horretan jokatzeko eragin negatiboak ere baditu. Izan ere, begi-bistakoa da genero-eredu hegemonikoak sendotzen dituela eta, espetxetik lehenago atera ahal izateko, emakumeak senideen zaintza-lanak euren gain hartzera bultzatzen dituela. Emakume batzuek nolabaiteko presioa ere sentitu dezakete, eredu nagusien arabera, ama eta zaintzaile izateko, edota behar bezalako amak eta zaintzaileak direla frogatzeko. Beraz, badirudi genero-rol tradizionaletatik aldentzen diren emakumeen kalterako dela.

Albak, adibidez, gogor salatzen du emakumezkoei buruzko espetxe-erabakiak hartzean euren familia-harremanak balioztatzea. Ez du ukatzen emakumeek senideak presentego izan ohi dituztela eta askok zaintza-lanak ez egiteagatik sufritzen dutela, baina familiako egoeran arreta jartzeak epaituago sentiarazten dituela eta presio gehigarria dela uste du. Hala azaltzen du:

«Creo que se meten mucho más en la vida personal y en la llevanza de vida fuera con los hijos y la familia en las mujeres que en... que en los hombres. A mí me gustaría alguna vez ver, en este expediente individualizado, ¿no? El tratamiento individualizado de cada uno de los internos, lo que pone de las mujeres y de los hombres. Yo... dudo mucho que... que se pongan las mismas cosas, y que para dar permisos y terceros grados se fijen en las mismas cosas. Yo no creo que para dar un tercer grado o un permiso a un hombre miren... Le darán el permiso pues... por búsqueda de empleo. No creo que hagan referencia a sus relaciones familiares, en sentido amplio. Pero, sin embargo, sí que creo que en... que con las mujeres se hace así. Y eso supone que ellas se sientan muy juzgadas» (Alba, gizon-emakume presoekin lan egiten duten bi elkarte profesionalistako kidea).

Espetxetik irtendakoan egitate hori ez dela kasik aldatzen kritikatzeko duenik ere badago. Estigmatizatzearekin lotura eginez, gizarteak emakumeak gehiago eta zorrotzago epaitu

ohi dituela baieztatzean, batzuek nabarmentzen dute emakume delitugileak ama, alaba edota bikotekide txartzat ere hartu ohi direla usu.

Eiderrek, gizon nahiz emakume presoekin harremanetan dagoen elkarte bateko gizarte-langile moduan, emakumeek gaitzespen handiagoa jasaten dutela uste du eta, nolerebait, kondena bikoitza pairatzen dutela, lege-haustea egiteagatik epaituak izateaz gain, ama txarra izateagatik ere epaituak direlakoan. Bere hitzetan:

«Nik uste emakumeekin orokorrean gizartea eta sistema gogorragoa dela. Azkenean kondenatzen dituzte “Egin duzun delituagatik, baina baita ere ama txarra... Denak utzi dituzulako, familia zaintzen ez duzulako...”. Agian, gizonek ematen du ez daukatela seme-alabarik, ez daukatela familiarik, eta ez du ezer inporta, ez? Baina emakumeari beti ematen du... o sea, utzi duela, ez? Eta nik uste gizonen igual ez zaiela hainbeste aurpegira botatzen hori, ez? “Seme-alabak dauzkazu”. Eta emakume bati beti nik uste hor dagoela seme-alaben istorioa, ez? Eta gizonek ez. Ordun, nik uste hor azkenean beste doble kondena bat ematen dela haiekiko, ez? “Ama txarra zara”» (Eider, gizon-emakume presoekin lan egiten duen elkarte profesionalista bateko kidea).

Hortaz, kanpokoekiko hartu-emanetan ere, badirudi emakumeen egoera maiz gizonena baino okerragoa dela eta, gainera, azken urteotan ez dela aldaketa handirik egon.

### **7.7. Generoa bestelako kategoriekin korapilatuta: jatorria, etnia eta klase soziala**

Emakumezkoek giltzapean pairatzen dituzten bereizkerien azterketa egitean, ezin ditugu ahaztu generoaren eta bestelako zapalkuntza-ardatzen arteko elkarrekiko loturak, etenik gabeko elkarreraginean daudenez gero. Azken batean, emakumezko presoen artean ere egon badaude desberdintasunak nahiz desberdinkeriak; eta, hartara, kontuan hartu behar ditugu, generoarekin batera, euren bizipenak zeharkatzen edo trebesatzen dituzten beste hainbat kategoria, hala nola, jatorria, etnia edota klase soziala (Bosworth, 1996, 1998, 1999, 2003; Tóth, 2010; Burgess-Proctor, 2012; Carlen, 2012; Bello, 2013). Hala izanik ere, genero-diskriminazioekin gertatzen den bezalaxe, elkarrizketatu gehienek bestelako bereizkeriak ere ukatzen dituzte; eta, hortaz, gutxiengo argia dira antzematen dituztenak eta horien inguruko gogoetak egiten dituztenak. Edonola ere, gutxi horiek esandakoari helduko diot, bereizkerien nondik norakoetan ahalik eta gehien sakontzeko.

Lehenik eta behin, atzerritartasunarekin lotutako desabantailak aipatu behar ditugu. Izan ere, elkarrizketatuetako hainbatek adierazten dute jatorri atzerritarra duten emakumezko presoen egoera bereziki zaugarria eta konplexua dela. Batzuek errotze edo gizarte-sare gehiegirik ez izatearen ondoriozko arazoak nabarmentzen dituzte; kasurako, ondorengo hauek aipatuta: bisita eta kanpo-laguntza gutxiago jasotzen dituztela; irteera-baimenak, hirugarren graduak eta baldintzapeko askatasunak lortzeko zailtasun gehiago dituztela; maizago lekualdatzen dituztela espetxe batetik bestera; etab. Elkarrizketatuetako beste batzuek jatorrizko herriekin komunikatzeko oztopoak ere azpimarratzen dituzte; besteak beste, kexatzen baitira ez direlako aintzat hartzen telefono-deien kostu altua eta ordu-diferentzia, baita batzuetan atzerrira deitzeko arazoak daudelako ere. Preso atzerritarrek usu bizi duten informazio faltaz nahiz desorientazioaz kexu denik ere badago, kontuan hartuta batzuek ez dutela hizkuntza menperatzen edo testuingurua gehiegi ezagutzen.

Nolanahi ere, elkarrizketatu gehienek ustez, larriena irregulartasun-egoerarekin loturiko guztia da; bada, Europar Batasunekoak ez diren espetxeratutako emakume kasik guztiek aurre egin behar diote Atzerritartasun Legeari, sistema penalari eta espetxekoari ez ezik. Gehienek egoitza- eta lan-baimenak galtzen dituzte kartzelan sartzean –baldin eta aurrez bazituzten– eta, beraz, posizio oso arazotsuan gelditzen dira, aurrekari penalekin egoera legeztatzea ia ezinezkoa delako. Horrenbestez, espetxe-zigorra beteta, berriro ere kalera irtetean, zailtasun handiak topatzen dituzte, lurraldetik kanporatze-agindua eta Schengen eremura epe batez itzultzeko debekua direla eta (Aguilera, 2005; García Berrio, 2011). Zalantzarik gabe, ziurgabetasun eta egonezin nabarmena eragiten duten egitateak dira.

Simonek emakume preso atzerritarren egoera zigor hirukoitza dela adierazten du, euren kasuan kondenak hainbat gehigarri dituelako. Bere bizipena oinarri hartuta, bera bezala irregularki dauden inguruan ari da; sistema penala nahiz espetxekoa, Atzerritartasun Legearekin batzen denean, emaitza benetan laugarria delakoan. Bera, konkretuki, behin behineko bisa batekin iritsi zen Euskal Herrira eta, ondorioz, berehala pasatu zen egoera irregularrean egotera. Alabaina, ez zen horren esanahiaz benetan ohartu, ez zuelako bere proiektu migratzailea prestatu eta pentsatzen zuelako banako guztiek libreki mugitzeko eta edonon bizitzeko aukera zutela. Hala, apurka joan zen Europar Batasunetik kanpoko atzerritarren egoeraren nondik norakoak ezagutzen, kanporatzeko aginduak jaso ahala, egoera legeztatzeko urratsak ikastearekin batera. Preso sartzean, arazo eta desabantaila gehiago ere topatu zituela baiesten du; esate baterako, errotzerik ez zuela argudiatuta,

hainbatetan espetxez aldatu nahi izan zutelako eta asko kostatu zitzaiolako lehen irteera-baimena lortzea. Halere, bakardadea da gehienbat aipatzen duena, atzerritarrek gizarte-sare apalagoa izan ohi dutelakoan eta emakumezkoen kasuan egoera hori are larriagoa delakoan; berak, kasu, ez baitzuen ez bisita ez gutun bat bera ere jaso atxilo egindako denboran. Gaur egunean, espetxe-zigorra ofizialki bukatuta, oraindik ere preso sentitzen dela baieztatzen du; zehatuta jarraitzen duela uste baitu, irregulartasun-egoera lagatzeko ezintasuna dela eta. Bere hitzetan:

«Sigo... presa del sistema carcelario. Todavía ainda no... no... no se ha quitado, ¿no? Teóricamente, digamos que he cumplido mi condena, pero todavía ainda tengo una serie de castigos... sociales, de leyes de extranjerías, de políticas de países, que me... me impiden de... de decir realmente... que soy libre. “Yo soy una persona libre para hacer lo que me apetezca”. No. Entonces, sigo todavía cumpliendo condena. No sé cuándo... cuándo voy a terminar de cumplir esa condena. [...] Yo sigo cumpliendo condena y yo creo que seguiré cumpliendo una condena, hasta que... ¡puf!, no sé, que no mejore. Las... las políticas de extranjería... [...] Una vez extranjero entrando en cárcere, ya cualquier proceso administrativo que tú tengas, te cancela automáticamente. [...]. Si tú tenías una situación bien, en regla y tal, y entras en cárcere, ya empezaste a complicar con relación a los papeles. [...] Los trámites... para extranjero es complicado, porque además que tú estás siendo regido por la... por lo penal, español, tú también atrás tienes lo que es la Ley de Extranjería. Y la Ley de Extranjería para mí es una de las leyes más crueles que hay. ¡Puf! [...] Entonces, una vez también que tú cumples, ya tienes otra tabla, porque tú tienes antecedentes penales, y dependiendo del delito [...] para cancelar los antecedentes es mucho tiempo. Então<sup>202</sup>, ya entras en otra dinámica» (Simone, preso ohia).

Irtenbiderik gabeko egoeran sentitzen da, alternatibarik gabe. Aurrekari penalen kausaz, ezin du ez egoitza-baimenik ez lan-baimenik lortu, eta kanporatze-gutuna helarazi diote berriro ere. Berak, ostera, helegitea jarri du, momentuz ez duelako Brasilera itzuli nahi, senideekin egoteko gogoz egonda ere. Urte hauetan guztietan bizitakoa kontuan hartuta, argi du ez dagoela berdintasunik justizian, ezta atzerritarrentzako birgizarteratzerik ere. Honela azaltzen du:

«Yo pensaba que la justicia funcionaba para todos igual y tal, ¿no? Porque esta utopía que tenemos de la justicia, que es ciega, ¿no?, y transparente, imparcial... y ta-ta-ta... Es

---

<sup>202</sup> Portugesez, orduan.

una tremenda utopía y una tremenda tontería. [*Arnasa hartzan du sakon*] No tontería en sí, es que son todos los procesos burocráticos, y para una persona extranjera es... es terrible. [...] Não<sup>203</sup> puedo acceder a los papeles, porque una vez que intento acceder a los papeles, comprovo el arraigo, que estoy estudiando, que hago esto, que hago lo otro, que no he vuelto a delinquir... una serie de comprobaciones, pero le doy entrada y me vuelve que tengo antecedentes penales. Con antecedentes penales no puedo tener papeles. Entonces, también es cuestionable, ¿no? ¿Qué tipo de proyecto de inserção<sup>204</sup> me dan, para que yo no vuelva a delinquir? [...] Porque, en mi caso, ahora tengo ya cumplido, no puedo tener los papeles, y tengo una orden de expulsión inminente, automáticamente, sin posibilidad de recurrir. Entonces... Y esta cosa de no recurrir no es lo que más me molesta. Lo que me molesta es que me ha caído cuatro años, yo he cumplido, hago mi proyecto de reinserção<sup>205</sup>, creo que estoy reinsersida en la sociedad y, además, yo no puedo entrar en Comunidad Europea por dez<sup>206</sup> años. Yo creo que es demasiado cruel con una persona não dejar a ella decidir lo que hacer con su vida. Y dejar sempre<sup>207</sup> así. [...] No te dejan alternativa. No te dejan alternativa y... además, de marean» (Simone, preso ohia).

Bigarrenik, jatorriarekin lotutako desberdinkeriez gain, etniari dagozkionak ere aintzat hartu behar ditugu (Barañí, 2001, 2007). Orokorrean emakume atzerritarrek jasandako bereizkeriak baino gutxiago hautematen diren arren, elkarrizketatu batzuk emakumezko ijitoen desabantailen inguruan ere mintzatzen dira. Funtsean, gizarteak diskriminatutako gutxiengo etnikoa direnaz jabetzen dira, baita, horren ondorioz, erregularizatutako lanak izateko aukera urriak dituztenaz ere. Egitate horiek pobreziarekin eta delituzko ekintzak ohiko diru-iturritzat hartzearekin lotzen dituzte, hausteko edo aldatzeko oso zailak diren dinamiketan sartuta daudela baieztatuta.

Miriamek, kasu, ijitoek pairatzen duten lan-bazterketa aipatzen du. Bere ustez, enplegua lortzeko zailtasun nabarmenak dituzte eta, horren kausaz aritzen dira erregulaziorik gabeko zeregin informaletan eta delituzko ekintzetan, nola hala lortu behar dituztelako bizirauteko diru-iturriak. Miriamek, esate baterako, egoera ekonomiko nahiko kaskarra izan du beti eta, horri aurre egiteko, merkatuan baratxuriak saltzen ibili da, baita txatarra jasotzen eta are lapurtzen ere. Behin baino ez du izan laneko kontratua, eguneko zentro

---

<sup>203</sup> Portugesez, ez.

<sup>204</sup> Portugesez, gizarteratzea.

<sup>205</sup> Portugesez, birgizarteratzea.

<sup>206</sup> Portugesez, hamar.

<sup>207</sup> Portugesez, beti.

batean, adinekoen eta aniztasun funtzionala zuten pertsonen zaintzan lan egin zuenean; baina soilik urtebetez izan zen. Beraz, zeregin informalak eta delituak ohikoak izan dira beretzat, lanbide moduan ulertzeraino. Honelaxe azaltzen du ijitoen lan-bazterketa:

«Nosotros ya sabes que... pa'... si nos cogen en algún trabajo, imposible. Na' más que por la presencia que tenemos, por ser gitanos, no nos cogen... a nadie. Hay muy pocos que estén haciendo sus trabajos. Y nosotros tenemos muchas necesidades, y quiera que no quiera, tienes que dar de comer a tus hijos» (Miriam, presoa).

Sandrak ere, bestelako posizio batetik, emakumezko ijitoen berezitasunak azpimarratzen ditu; nagusiki, ondorengoak nabarmenduta: egoera ekonomiko prekarioa, diru-laguntza instituzionalen mugak eta enplegua lortzeko trabak. Bere aburuz, aldatzeko oso nekezak diren egitateak dira. Honela dio:

«Tienen bastantes causas, ¿no? No son graves, gordas, sino son hurtos, pequeños robos que se van acumulando, ¿no? [...] Que a veces son en algunos casos... a ver, por necesidad. Sí es verdad que son familias que económicamente pues están... vamos, al límite. Al límite. Porque, además, la RGI<sup>208</sup> contempla unidades de tres miembros, y a partir de tres miembros, ya pueden ser cinco miembros, ocho miembros... cobras lo mismo. [...] Y estas mujeres, familias gitanas, que tienen proles muy numerosas, pues están con cinco hijos cobrando lo mismo que una pareja con dos o con uno. Entonces, es verdad que a ese nivel sí son familias que... que viven al límite. Entonces, pues cometen muchas veces pequeños hurtos de ropa o de productos de supermercados. Pero, claro, se van acumulando cosas, cosas, cosas... [...] y, al final, acaban siendo penas de prisión por todos los antecedentes que van acumulando, ¿no? [...] Al final son personas que tienen muchas dificultades para salir de... de lo asistencial, es decir, de... bueno, de vivir de las ayudas sociales. Perfiles muy difíciles de insertar laboralmente» (Sandra, espetxeko gizarte-langilea).

Hirugarrenik, eta azkenik, klase sozialari dagozkion desabantailak aipatu behar ditugu; azken batean, elkarrizketatuetako aunitzek adierazten baitute kartzela soilik pobreentzat dela eta, hartara, bistakoa dela ez dagoela parekotasunik espetxe-zigorren aplikazioan. Beraz, bestelako hitzekin izan arren, askok salatzen dute sistema polizialaren, penalaren eta espetxekoaren izaera hautakorra, jendarteko kide zaugarrienen kalterako delakoan.

---

<sup>208</sup> RGI/DBE Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta prestazio ekonomiko da, oinarrizko behar pertsonal zein familiarrei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenentzat, baldin eta baldintza zehatz batzuk betetzen badituzte. Enplegurik gabekoak, baliabide gutxiko langileak, pentsiodunak, bizileku-baimenik ez duten atzerritarrak eta abarrak izan daitezke onuradunak.

Esandakoa hobeto islatzeko, hainbat etsenplu azter ditzakegu. Hasteko, Juliaren hitzak ditugu, adibidez. Izan ere, presondegian sartu izana positiboki balioztatzen duen arren, amorru handiz bizi ditu legearen aplikazioan antzematen dituen desberdinkeriak. Honela dio:

«Tendrían que estar los de arriba dentro. [*Etenaldia*] Que las leyes... Eso sí, me gustaría que las leyes fueran para todos iguales, eh. Pero ¡para todos! ¡El que hace, que la pague! ¡Sea quien sea! ¡Sea el Rey o sea su puñetera madre! [...] Es que si todos fuéramos a cumplir las leyes, ¡que empiecen por los de arriba!» (Julia, presoa).

Ildo beretik, Saioa ere kexu da bidegabea iruditzen zaiolako zehatuenak beti pobreenak izatea; eta azpimarragarria iruditzen zaio, dirudun eta boteretsuek ez bezala, eurek maiz bizirauteko egiten dituztela delituzko ekintzak. Bere hitzetan:

«Está muy injusto todo, ¿no? ¡Que tengamos que entrar nosotros, y luego toda esa gente que está robando, políticos y todo, que estén en la calle! ¡Y que te echen dos años por [robar] 20 euros y un móvil! [...] El coraje que te da, que tú te lo comes todo. ¿Y por qué te vas a buscar la vida? Porque en ese momento no tienes» (Saioa, presoa).

Simonek ere kritikatzan du egoeraren injustizia eta hipokresia. Ondo daki presondegian sartzen direnak gizarteko kide zaugarrienak izan ohi direla gehienbat. Alabaina, argi du egitate hori jendartean txertaturik dauden desberdinkerien beste erakuskari bat baino ez dela. Klase sozialaren ondoriozko bereizkeriez kexatzen da, jatorriari lotutakoak ahaztu gabe. Halaxe dio:

«¡Hala! Los pobres, los más débiles... ¡a la cárcere! Pero, ¿[Luis] Bárcenas, [Iñaki] Urdangarin...? Bueno, otro tipo de sistema, porque... Los rusos éstos, que no tienen papeles, millonarios que vienen y compran casas en Cataluña, ¡ah, no pasa nada! Automáticamente les dan la tarjeta de residencia y son ciudadanos españoles. ¿Y los chicos de la patera o que tienen que saltar la valla de Melilla? ¿No? Bueno... Entonces, quiero decir, ¡somos muy hipócritas! En ese sentido, ¿no? La sociedad, de una forma general. Para algunos sí, para otros no, ¿no? Entonces, después la ley: “No, es un sistema igualitario. Si has cometido un delito, hay que... hay que pagarlo, hay que...”. ¡Vale! Vale, vale. Bueno. ¡Pero para todos! ¿No? Para todos» (Simone, preso ohia).

Dudarik gabe, emakumeek giltzapean topatzen dituzten desberdinkerien nolakotasun zabalaren berri ematen digute elkarrizketatuen adierazpenek, bakoitzak bere berezitasun



zein ñabardurekin. Genero-bereizkeriei nahiz bestelakoei buruzko gainbegiratu osatuta, ezin ukatuzkoa da kartzelaldiak posizio zinez zailean kokatzen dituela emakumeak. Izan ere, balorazio orokorra zeinahi ere izan, euren jokatzeko gaitasuna eta autonomia-maila gutxitzen ditu, zaugarritasuna areagotzearekin batera. Alabaina, ez dugu ahaztu behar emakume presoek berriazko ekintzak gauzatzen dituztela desabantailei aurre egiteko, era kontzientean ala inkontzientean izan. Azken finean, testuinguru murriztatzaileenetan ere badago agentzia; eta, beraz, kartzelako egoera benetan mugatzailea edo hertsatzailea izan arren, atxiloak askotariko erresistentzia-praktikak burutzeko gauza dira. Oztopoak oztopo, betiere subjektu aktiboak dira; eta, modu sortzailean, aldakorrean eta zabalean, saialdiak egiten dituzte arazoak gainditu eta nolabaiteko ongizatea lortzeko, gogoko ez dituzten egitateak aldatzeko, espetxealdiaren ondorioak nolabait neutralizatzeko, baita kartzela-sistemari nola hala aurre egiteko ere. Aitzitik, ahalegin horiek gutxietsiak dira maiz, eta horrexegatik horiek azaleratzen saiatuko naiz hurrengo kapituluetan.



## 8. Harremanak presondegian: abaguneak, mugak eta gorabeherak

*Nagusiaren tresnek ez dute sekula eraitsiko nagusiaren etxea.  
Agian, baimenduko digute tarte batez nagusiari bere jokoan  
gailentzen, baina ez digute sekula ahalbidetuko egiazko aldaketa.*

Audre Lorde (2007: 112)<sup>209</sup>

Emakumezko atxiloen agentziaren gaiari heltzean, saihetsezina da espetxearen barruko harremanak jorratzea; azken batean, betiere gizarte-erlazioen baitakoa delako kartzela-erregimenak ezarritako oztopo, muga eta desabantailei nola hala aurre egiteko banakoen ahalmena edo gaitasuna. Hartara, modu kontzienteagoan edo inkontzienteagoan gertatu, hormen barneko hartu-emanek berebiziko garrantzia dute emakume presoek nolabaiteko ongizatea lortzeko, aldaketak gauzatzeko edo itxialdiaren ondoreak nolerebait arintzeko. Egoera zinez hertsatzailea eta eragozgarria izateari behin ere ez utzi arren, espetxealdiko elkarrekintzei esker presoak onura batzuk lortzeko gai dira, tarte batzuez bederen. Hala, munta handiko harremanak dira, nahiz eta askok aldi baterako bakarrik direla adierazi, kartzela-garaira mugatzen direla pentsatu edota beren «benetako» erlazioak murrueetatik kanpo daudenak direla baieztatu. Nolanahi ere, jarraian, espetxealdiko hainbat harreman aztertuko ditut, kartzelaratuak emakumeen erresistentzia-praktika esanguratsuenetako asko horietan topatuko ditugulakoan. Lehenik, aurreneko azpiatalean, emakume presoen arteko hartu-emanen helduko diet, gehienbat, elkartasun-adierazpenak nabarmenduta; ondoren, bigarren azpiatalean, euren eta espetxe-langileen arteko harremanak jorratuko ditut, sumisio-plantak egitea edo preso perfektuarena egitea bezalako praktikak aintzat hartuta; elkartruke ekonomikoak nahiz salerosketak landuko ditut hurrenik, hirugarren

---

<sup>209</sup> Ingelesez jatorrizkoan: «*The master's tools will never dismantle the master's house. They may allow us temporarily to beat him at his own game, but they will never enable us to bring about genuine change*» (Lorde, 2007: 112).

azpiatalean; eta, amaitzeko, askotariko erlazio sexu-afektiboetan sakonduko dut azken azpiatalean. Ikusiko dugunez, espetxe barruko eta kanpoko harremanen nolakotasunak, neurri handi batean, antzekoak dira; eta, era berean, itxialdiari aurre egiteko erabiltzen diren erresistentzia-praktiketako aunitz kalean ere aurki ditzakegu. Alabaina, emakume presoen elkarrekintzek berezitasunak dituzte giltzapean, eta hori islatzen saiatuko naiz.

### **8.1. Presoen arteko erlazioak, elkartasun-sareak eta adiskidetasun-loturak**

Dударik gabe, kartzelaraturako emakumeen arteko harremanak askotarikoak dira; baina horien inguruan galdegitean, maiz, aurreneko aipamenak elkarbizitza-arazoei buruzkoak dira. Elkarrizketaturako emakume preso eta preso ohi ia guztien ustez, egunerokotasuna konplexua, zaila eta neketsua da. Elkarbizitza oro har lasaia izanagatik ere, eta benetako indarkeria-maila txikia izan arren, askok diote tentsio- zein agresibitate-mailak kanpoan baino askoz ere handiagoak direla eta giroa sarri desatsegina bilakatzen dela horregatik. Gatazkak saihesten ahaleginduta ere, erraz sortzen omen dira liskarrak, eztabaidak zein haserrealdiak; eta, nahiz eta ohizkoena ez izan, eraso fisikoak eta hitzezkoak ere gertatu ohi dira batzuetan. Elkarrizketatuen arabera, beste egoera edo baldintza batzuetan arazo-sortzaile izango ez liratekeen zergatiengatik piztu ohi dira istiluetako asko; eta itxialdiak berak eragindako zerbait dela ere zehazten dute hainbatek, frogatzat erabilita pertsona berberen arteko giroa asko hobetzen dela murrueetatik kanpo, tratamendu-lantaldeek edo elkarteek antolaturiko irteeretan elkarrekin ateratzen direnean edo harrera-pisuetan topo egiten dutenean. Gehienen iritziz, egoera ulertzeko, kontuan hartu behar da askotarikoak direla, behartutako elkarbizitza dutela, espazioa oso txikia dela eta ordu asko igarotzen dituztela elkarrekin; baina, ororen gainetik, bakoitzaren egoera emozionala aintzat hartu behar dela uste dute, euren arteko enfrentamendu gehienen iturburua honakoa delakoan: guztiek egonezin, arazo eta kezka handiak bizi dituztela, eta baldintza horiek eragindako tentsioa ingurukoekin deskargatzen dutela, gehienetan nahita ez egin arren.

Esandakoaren adibide moduan, Elenaren hitzak ekar ditzakegu. Hainbat espetxeratze eta presondegi ezagutu ditu, eta suerte guztietako hartu-emanak izan ditu beste emakume atxiloekin. Orokorki, ez du adiskiderik topatu itxialdian; bai, ordea, behar izan duenean lagundu dion kideren bat edo beste. Liskarrak ekiditen saiatu arren, batzuen batzuk izan

ditu; eta, droga-kontu bategatik, emakume-talde baten jipoia ere hartu zuen. Eguneroko istiluen jatorria bakoitzaren zaman eta itxialdian beran daudela adierazten du honela:

«Puede ser por cualquier chorrada. Por la tontería más tonta que pueda haber... por ahí ya puedes entrar en un conflicto. Son... Yo creo que es el día a día, ver siempre las mismas caras, haciendo las mismas cosas y... la carga que vamos llevando cada una ya también, ¿no? Al final... donde te sentías bien, ya no te sientes bien» (Elena, 39 urte).

Alta, zentzugabe samarrak ei diren haserrealdietatik haratago, enfrentamendu larriagoak ere badaude batzuetan; esaterako, batzuek arazoak baitituzte euren arteko elkartrukeen eta salerosketen ondorioz, euren arteko zorren nahiz lapurretaren kausaz, ingurukoek hainbat espetxe-abantaila lortzeak eta eurek ez egiteak sortutako suminduraren kausaz, baita presondegietako erlazio sexu-afektiboen gorabeheren ondorioz ere, besteak beste. Ildo beretik, ezin dira ahaztu emakume atxiloen arteko erlazio «interesatuak» ere, istilu eta eztabaiden beste eragileetako bat direnez gero. Finean, badirudi presoetako batzuk beste batzuegana hurbiltzen direla euren egoera ekonomikoa eta materiala hobetzeko asmoz; esate baterako, zerbait eros diezaietela lortzeko edota espetxe-lanposturen bat eskuratzeko. Elkarrizketatu askoren ustez, faltsukerian oinarrituriko hartu-emanak dira, eta, hori dela eta, gogor gaitzesten dituzte, horrelakoak abiatzen dituztenek dirua duten presoez edota karguren bat dutenez aprobeztatu nahi dutela kritikatu. Ezetz esaten eta mugak jartzen ikasteari behar-beharrezko irizten diote; eta, antza, gatazken pizgarri da hori ere.

Bestalde, elkarbizitza-arazoez ari garela, azpimarragarria da elkarrizketatuetako batzuek azken urteotan espetxe-sistemak izandako aldaketak ere aipatzen dituztela, euren arteko harremanak okerragotu eta gaiztotu dituztelakoan. Batetik, Makrokartzelek isolamendua handiagotu eta moduluen arteko kontaktua gutxiagotu dutela salatzen dute; eta, bestetik, Errespetu Moduluek presoen arteko kontrola, presioa eta zaingoa inoiz ez bezala sustatu dituztela. Kartzela-sistemak indibidualismoa eta lehiakortasuna indartu dituela diote, eta testuinguru horretan sortutako tentsioek ere liskarrak eragiten dituztela.

Dianak zortzi urteko espetxe-zigorra ia osorik bete du itxialdian. Denbora-tarte horretan, Langraiz Okako espetxe zaharra eta Arabako berria ezagutu ditu. Aldaketak hobekuntza batzuk ekarri dituela ukatu gabe, emakume presoen lagunartekotasuna nabarmenkiro galdu dela pentsatzen du. Bera bere ahizpa gaztearekin eta beste zenbait senitarteko zein

adiskiderekin batera egon da preso, eta euren babesa izan du une oro. Bere bizipenaz harago baina, giro orokorrak txarrera egin duela uste du; batez ere, emakumeentzako bi moduluen arteko hartu-emana asko gutxitu delako. Bere hitzetan:

«A mí me gustaba más la cárcel vieja, porque era más alegre. Sí. Era más alegre y... No sé. Para mí. Para mi gusto, eh. Me gustaba más la vieja. Lo que ha tenido la cárcel nueva... Lo que ha ganado es el chabolo. Las comodidades, la ducha, pues... las camas también, la tele... La forma que tiene el cuarto. Antes era muy distinto. [*Etenaldia*] Pero lo que toca para... ¿Cómo te digo? Puf... Para estar, era mejor la vieja. [*Etenaldia*] Era más alegre que ésta, que la nueva. Porque distribuyeron los módulos, el 9 y el 10, y casi no nos veíamos, nada más que para ir a la escuela y eso, ¿sabes? Y en la vieja, pues... pues nos podíamos juntar en el gimnasio o... nos veíamos en el teléfono. Era otra forma de... ¡Otra forma! ¡Otro ambiente! [*Etenaldia*] Era otro ambiente» (Diana, 33 urte).

Era berean, Mertxek ere dio azken urteotako eraldaketak negatiboak izan direla presoen arteko harremanei dagokienez; eta gakoa Errespetu Moduluen ereduari jartzen du. Bere bi espetxeratzeetan ezaguturikoa oinarri hartuta, elkartasuna gutxitu eta aurkaritza nahiz itxurakeria hazi direla nabarmentzen du. Berak, hala ere, Errespetu Moduluan egon nahi izan du, giroa Konplimendu Modulukoa baino seguruagoa iruditzen zaiolako. Alabaina, inori laguntza ukatu gabe, bere kasa ibili da maiz, istiluak saihesteko. Honelaxe azaltzen du Errespetu Moduluekiko kritika:

«Somos nosotras más verdugos que las... que los funcionarios, entre nosotras. [...] He visto más hipocresía ahora que antes. Antes nos tapábamos enseguida. Enseguida. [...] Ahora estás deseando de tú misma pillar a ésta, para coger, decírselo a la presidente [del Módulo de Respeto] y que la presidenta se lo diga al educador. [...] Te lo puede decir cualquier interna de las que ha estado, eh» (Mertxe, 61 urte).

Mertxeren moduan, elkarrizketatutako emakume preso zein preso ohietako asko ere nor bere kasa ibiltzearen aldekoak dira. Izan ere, aunitzen ustez, balizko arazoak saihesteko, aukerarik onena gaineratiko presoekin gehiegi ez nahastea da; azken batean, ikusi dugun bezala, istilu-mota batzuk erraz sortzen direlako. Alta, halabeharrez, denak daude gutxi-asko harremanetan eurekin batera atxilo direnekin; eta, egoera horretan, tentuz jokatzeko eta ez fidatzeak guztiz aholkatzen dute batzuek, baita zenbait ikaskuntza egitea ere; esate baterako, zer esan eta zer isildu, edo nola ihes egin gatazkatia den jendeari. Nolabaiteko babes-estrategia moduan uler ditzakegu portaera horiek, eta beren testuinguruan kokatu

behar ditugu elkarrizketatutako emakumeen artean maiz aipatzen diren bi esakune: bata, presondegian «itsu, gor eta mutu» izan beharra dagoela; eta, bestea, «bakarrik sartu eta bakarrik irten» egingo zarela.

Léaren hitzek ondo islatzen dute gaineratiko presoekin gehiegi nahastu nahi ez izatearen ideia. Ez du kartzelaratutako beste emakumeekin tratu gehiegirik izan nahi inoiz, istiluei alde egiteko jarrera egokiena dela ulertuta; nahiz eta espetxean pare bat adiskide on egin dituen eta beti besteak laguntzeko prest egon den. Bere hitzetan:

«Yo bien con todo el mundo. [*Etenaldia*] Nunca he tenido un follón con nadie y... Lo mejor es: no te metes con nadie y nadie se mete contigo. [*Etenaldia*] Yo solamente pues sí tenía amistad con Maya, que... bueno, es francesa, mi paisana, y... y ya. Después, te comunicas con las demás, hablas y todo eso, pero... iba un poco a mi bola. No... no he estado metiéndome en líos. Yo he estado otro... Pues, no sé, hay gente que le gusta... No tienen suficientes problemas, y se tienen que meter en la vida de los demás. Y eso a mí no... No iba con la gente por eso. [...] Yo era una persona... Para la gente yo era un poco fría. Soy fría, pero a mí da igual. Yo nunca he tenido ningún problema con ninguna, ¿sabes? [...] Me llevo bien con todas. Hasta ahora, nunca he tenido ningún careo con ninguna. ¡Pero prefiero a mi bola! A mi marcha y a mis cosas. Pero sí que, si una viene y me pide apoyo o ayuda, o lo que sea, siempre estoy dispuesta» (Léa, 28 urte).

Nor bere kasa ibiltzearen hautuak, zentzu batean, bakardadearen gaira ere igortzen digu. Ikusi dugunez, kasu batzuetan, emakume presoak besteengandik aldentzen saiatzen dira, balizko haserrealdiei ihes egiteko jokaera bezala. Baina, horrez gainera, elkarrizketatuen arabera, bakartasuna bilatu egiten da baita, batzuetan, itogarria bilakatzen delako jende askorekin espazio txiki batean bizikide izatea ere. Hartara, askok positiboki balioztatzen dute zeldan beste inor gabe egotea edo bakarrik egoteko lekuak eta uneak topatzeko gai izatea. Ez dugu, oster, bakardade hori beste batzuekin nahastu behar. Azken finean, batzuentzat bakarrik egotea zinez zamatsua da; gehienbat, ez badute ez kanpo- ez barne-laguntzarik, sostengu horiek berebiziko garrantzia dutelako giltzapetzea jasateko.

Azken batean, eta hasieran esan bezala, espetxeratutako emakumeen arteko harremanak askotarikoak dira; eta ezinbestean, dena ez da ez liskar ez istilu, ezta gatazka edo eztabai ere. Presoen artean babes- eta elkartasun-sareak ere sortu ohi dira, eta askorentzat munta handikoak dira zinez. Elkarrizketatuetako hainbatek diotenez, kideak funtsezkoak dira nork bere burua giltzapean kokatzeko, espetxeko arauak eta funtzionamendua ikasteko,

baita nolabaiteko egunerokotasuna sortzeko ere. Dirudienez, sartuberriengana hurbiltzea eta hasierako informazio-ezari eta ezjakintasunari aurre egiten laguntzea nahiko ohizkoa da; batik bat, espetxean sartzen diren lehen aldia bada edo nahiko gazteak badira. Baina, hastapeneko laguntza-adierazpen horietaz gainera, epe luzeagoko sostengu-keinuak ere arruntak dira; bada, kartzelatutako emakumeek elkar babestu ohi dute, bai emozionalki, bai ekonomikoki. Elkarrizketatuek adierazitakoaren arabera, kideak oso garrantzitsuak dira estutasunetik atera, eta aurrera egiteko, barrena husteko, aholkuak jasotzeko, baita animoak eta afektu-adierazpenak hartzeko ere. Elkarrekin, espetxealdia jasangarriagoa egiteko eta egonezina nolabait arintzeko egoerak sortzen dituzte; kasurako, urtebetetze eta santu-egunetan askariak antolatuz, noizean behin festak eta dantzaldiak eginez edota egunerokotasunean umorea eta ironia erabiliz euren egoeraz barre egiteko. Era berean, kideak garrantzizkoak dira arazo ekonomikoei aurre egiteko. Izan ere, sarri, pekulioa<sup>210</sup> elkar banatzen dute, askotariko gauzak erosten dizkiote elkarri, eta arropa zein bestelako ondasunak partekatzen dituzte. Ohikoa da, halaber, eskaerak eta helegiteak prestatzeko elkarri laguntzea, auzi juridikoetan gomendioak ematea, etab. Elkarrizketatuen iduriko, halako elkartasun- eta babes-sareetan elkarrekikotasuna da alderdirik oinarritzkoena; eta, usu, «lagunak» baino, partaideak «kide onak» dira.

Emakume presoen arteko sostengu-taldeak afinitatearen arabera eratu ohi dira nagusiki. Baina, dudarik gabe, «kidetasunak» ez dira ezerezean topatzen; eta, beraz, antzekotasun soziokulturalek berebiziko garrantzia dute. Hala, babes- eta elkartasun-sareak jatorriaren eta etniaren arabera dira maiz, baita adinaren arabera ere.

Adibide moduan, Marcelaren testigantzari helduko diogu. Ekuadortarra sortzez, 25 urte zituela atxilotu eta kartzelatu zuten, *mula*-lanetan harrapatu zutelako, bere herrialdetik Madrilera drogaz beteriko maleta garraiatzen. Arabako presondegian bukatu zuen arren, hasiera batean Soto del Realen (Madril) egon zen. Bere kontaeraren arabera, oso urduri eta izututa sartu zen espetxean; ordura arte sekula ez zelako presondegi baten barruan egon eta ez zekielako zer gertatuko zen, ez nola jokatu behar zuen. Apur bat lasaitu zen beregana gerturatu zenean emakume hegoamerikarren talde bat; partaideek harrera egin ziotelako, laguntza eskainiz, aholkuak emanez eta orientatuz. Marcelak ez ditu «lagun»

---

<sup>210</sup> Presondegietan ezin da diru arrunta erabili. Horren orde, atxiloek txartel magnetiko berezia dute; eta, erosketak egin ahal izateko, aldez aurretik dirua sartu behar dute «pekulio» deituriko kontuan. Espetxe-zuzendaritzek kudeatzen dituzte pekulio-kontu guztiak, presoen gastuak kontrolatuta.



izendatzen; bai ordea, «*comadre*»<sup>211</sup>, haiek izan zirelako espetxearen funtzionamendua irakatsi ziotenak eta sostengua eskaini ziotenak, elkarrekin igaro zuten denboran. Egun, bakoitzak bere bidetik jarraitu badu ere, hartu-eman mantentzen dute. Marcelaren iritziz, gakoa giltzapeko kideetasunaren nolakotasuna da, bizipen horrek modu berezian batzen dituelakoan. Honela deskribatzen du egoera:

«Allí dentro encontré un grupo de chicas, que eran sudamericanas también. Muy buenas personas. Ellas me ayudaron. Me aconsejaron, me enseñaron, me inscribieron en la escuela, me inscribieron a la oferta de empleo, hablaron con el educador, asistente social y psicóloga por mí... [...] Han sido las mejores personas que he conocido en una cárcel. [...] Si te soy más sincera, algunas... algunas de ellas, se podría decir que son mejores personas de lo que yo me pude alguna vez imaginar. En el sentido de que yo estoy en la calle, tengo amistades, vale, listo. Pero en la calle las amistades son de “Vámonos hoy de juerga, vámonos de marcha, vámonos a conocer chicos o chicas...”, pero al día siguiente ni se acuerdan de ti, hasta que necesitan algo de ti. En la cárcel es diferente. En la cárcel están contigo día a día, ven por qué estás pasando, ven lo que necesitas... No te estoy hablando de cosas materiales, sino de poder hablar con una persona» (Marcela, 28 urte).

Ildo beretik Amparoren hitzak ere aipa daitezke. Ijitoa eta heldua, oso gaizki pasatu du kartzelan; familia urrun izatearen kausaz, gehienbat. Ezintasun-sentipenak samin handia eragin dio eta, bere ustez, ahal izan duen bezala kudeatu du egoera. Batzuetan, tentsioak gainezka egin dio, eta ingurukoen kontra bideratu du bere egonezina; eta, noiz edo noiz, bakarrik egoteko eta negar egiteko aukerak bilatu ditu. Nolanahi ere, aurrera segitzeko, funtsezkoena kideen laguntza dela dio. Emakume ijitoz osaturiko sostengu-sare zabala izan du kartzelan, eta honela azaltzen du:

«En la cárcel, cuando tú te ves mal, que estás apagada y estás así... ya te vienen las compañeras a animarte. Pues, “¿Qué te pasa? ¿Cómo estás, cariño?”, y te besan, te miman... Es lo que yo... Es lo que yo he visto y ¡lo que a mí me han hecho! Porque cuando yo me he visto así, baja, ya me han venido donde mí y es lo que me ha levantao, ¿sabes? Ahí, “Tranquila, que de aquí se sale”. Es lo que te anima» (Amparo<sup>212</sup>).

---

<sup>211</sup> Hegoamerikan arrunki erabilitako kontzeptua da *comadre*, senideak ez diren emakumeen arteko lotura estua eta konfiantza adierazteko. Marcelaren kasuan, espetxeko elkartasun-kideak izendatzeko balio du. *Compadre* kontzeptua ere existitzen da, eta laguntasuna edo kideetasuna adierazten du.

<sup>212</sup> Ez dut Amparoren adina zehaztuko, ez baitakit zein den.

Marcelaren eta Amparoren adibideetan, jatorriaren eta etniaren arabera elkartzeko joera antzeman dezakegu. Haatik, ezin dugu alde batera utzi kartzelan askotariko emakumeak daudela eta, ondorioz, soziokulturalki ezberdin(ago)ak direnekin nolabaiteko harremana dagoela, halabeharrez, egunerokotasuna partekatu behar dutelako espazio txiki batean. Egoera horretan, bestela ezagutuko ez lituzketen praktikak, pentsamoldeak, bizierak eta baldintzak topatzen dituzte askok; eta, ezinbestean, egitate horrek euren aurreiritzietako batzuk kolokan jartzen ditu maiz. Presoen artean xenofobia, arrazakeria, lesbofobia edo klasismoa azaleratuko dira batzuetan, gaineratiko herritarren artean gertatzen den legez. Sendoagoak edo ahulagoak izango dira horiek, era batekoak edo besteakoak, banakoaren balioen arabera. Alabaina, batzuetan, kasik denek nabaritzen dituzten diferentziak albo batera geldituko dira eta nolabaiteko komunitate- edo talde-sentimendua gailenduko da, denak azken batean atxiloak direlakoan eta horrek, nolabait, parekatzen dituelakoan. Alta, ez dirudi sentipen horrek luzaroan irauten duenik; alde batetik, esan bezala, euren artean ere badaudelako aurreiritziak, besteak beste, jatorriari, etniari, klase-sozialari edo sexu-hautuari buruzkoak; eta, bestetik, batzuek delitu jakin batzuekiko arbuioa sentitzen dutelako, edota estigmari ihes egiteko, distantzia markatzen dutelako eta eurak «presoen modukoak» ez direla nabarmentzen saiatzen direlako.

Presoen artean sortzen diren taldeei dagokienez, Altagraciaren gogoetak aipa ditzakegu. Izan ere, berak ez du gustuko atxiloak jatorriaren edo etniaren arabera multzokatzea, eta taldeetako batzuk oso itxiak direnaz ere kexu da. Ez omen du orokorki inorekin arazorik izan, eta preso guztiekin erlazionatu nahi izan du, «taldekeria» alde batera utzita. Behin edo behin xenofobia sentitu du; berak, baina, hori gainditu nahi izan du. Honela azaltzen du bereizketa kulturalen kontrako bere iritzia:

«Cuando yo me iba de la cárcel, me hicieron una despedida, y pusimos... intentamos poner... Preparamos la música. Música comercial. Shakira, el Pitbull... Pusimos unos flamenquitos, que la Miriam bailó [*Barreak*] mogollón. La Dioni, la Amparo... bailaron todas. Y un poco, eso, mezcla. Un poco para ti, un poco para mí, pues si queremos estar todas, tiene que haber algo de todas, ¿sabes? Pusimos hasta cumbia. [...] Dos bolivianas que había, pues pusimos un par de cumbias, ¿sabes? [...] Tenemos que ser conscientes de que somos multiculturales. Yo no me puedo hacer sólo a la cultura y las costumbres dominicanas estando presa en ese... en esos metros cuadrados delimitados. ¡No puedo! Entonces, ¿qué pasa? ¿Voy a estar con las dos [dominicanas] sólo? ¿No comparto con las demás? Entonces, eso sí que suele pasar. Mucho. Pero yo creo que tienen mucha

culpa las... las mismas que hacen su grupo. Porque ese grupismo no ha sido bueno nunca, ni en el colegio, ni en la universidad, ni en los trabajos, ni... Porque hay un tira y jala, tira y... y no» (Altagracia, 35 urte).

Edozelan ere, kontuan hartu behar dugu giltzapean sortutako elkartasun- eta babes-sare horien iraupena nahiko aldakorra dela. Batzuetan, kideen arteko harremana mantentzen da kalera irten eta gero; baina, beste askotan, lotura eten egiten da, ateratzearekin batera. Antza denez, kartzelaratutako emakume askorentzat hartu-eman horiek itxialdi-gairara mugatzen dira, eta, horrenbestez, aldi baterako soilik dira. Hainbatek, gainera, ez diote erlazioari eutsi nahi, emakume presoek estigmari aurre egiteko estrategia bezala. Haatik, nolana ere, behar-beharrezkoa da azpimarratzea kideetasun-sare horien jarraipen-ezak ez duela beren garrantzia auzitan jartzen nahitaez; jada ikusi bezala, berebizikoak dira emakume atxilo aunitzentzat.

Bestalde, sostengu-harreman horiez haratago, aintzat izan behar dugu elkarrizketatutako emakumeetako batzuek adiskidetasun-erlazioak ere aipatzen dituztela. Gehienen iritziz, ez da erraza kartzelan «lagunak» egitea; baina, hala ere, batzuek benetako adiskidantzak topatu dituztelakoan daude. Horien arabera, laguntasunaren balioa zinez handia da preso zaudenean; eta, elkarrekiko sostengu emozionalaz eta ekonomikoaz gain, konfiantza eta zintzotasuna nabarmentzen dituzte. Horrelako hartu-emanetan, adiskideetako bat kalera irteten denean, atxilo segitzen duenarentzat pozgarria eta tristea izan ohi da aldi berean; atsegingarria lagunaren lorpenak alegeratzen duelako, baina hitsa euskarri garrantzitsua urrutiratzen zaiolako. Adiskidantza kasuetan, ohikoa da erlazioa mantentzea espetxetik kanpo ere.

Adibide bezala, Léaren esperientzia aipa dezakegu. Izan ere, arestian ikusi bezala, ez du kartzelan gehiegi erlazionatu nahi izan eta, usu, bere kasa ibili da; baina, hala eta guztiz ere, beretzat benetan garrantzitsuak izan diren bi adiskide izan ditu itxialdian, eta biekin mantendu du laguntasuna espetxetik irten ondoren ere. Bata, Picassenteko presondegian (Valentzia) ezagututako emakume frantsesa da, droga-kontsumoa uzteko sostengatu eta zaindu zuena; eta, bestea, Maya, frantsesa bera ere. Léaren aburuz, giltzapean, harreman asko interesatuak dira, eta ez dira aise topatzen «benetako» lagunak. Aitzitik, Mayarekin izandako hartu-eman guztiz zintzoa izan dela dio, beti elkar babestu eta lagundu dutela. Honela adierazten du:

«Muchas gentes miran por su bien, por sus cosas... No miran... Y yo siempre miraba por mí, pero por Maya también. [...] Pues, cogerle su bandeja, cogerle su comida... y cuando yo estaba con la educadora hablando, ella me cogía la mía. Preocuparse una de la otra. “Léa, me falta... No tengo para comprar tabaco” “Toma, te compro”. Apoyo. Estábamos las dos mal... Un día perdió a su papá... y las dos... llorando... y pasar todo el tiempo... el máximo de tiempo con ella. [...] Aprendimos a conocernos mejor, contar su vida y la mía. [...] Las cosas que nos gustan: el deporte, las comidas con los horarios de Francia... [...] Cositas que conectamos o... Si ella está mal, con su mirada solamente lo sé, ¿sabes? No sé... Es fuerte también» (Léa, 28 urte).

Halaber, kontuan hartu behar dugu, batzuetan, kartzelan topo egin aurretik jada kalean elkar ezagutzen zuten emakumeak ere badaudela. Izan ere, elkarrizketatuek positibotzat hartzen dute oro har. Haatik, senideekin, ezagunekin eta bizilagunekin kointziditzea ona bezain txarra izan daiteke (Cunha, 2002).

Esandakoaren erakuskari, Angieren testigantza hartuko dugu. Kolonbiarra jaiotzez, bere herrialdetik Madrilera *mula* bezala droga-garraioan harrapatu zutenean, Alcalá-Mecoko presondegian (Madril) sartu zuten. Bertan, ustekabean, bere lehengusinarekin topo egin zuten. Bere ustez, euskarri garrantzitsua izan dira bata bestearekiko, bai Madrilen, topatu zirenean, bai Araban, lekualdatu zituztenean. Gaineratiko presoekin ez omen da gehiegi erlazionatu, liskarrak eta desengainuak ekiditeko «koraza» jartzea nahiago izan duelako; batzuetan elkartasun-adierazpenak daudela pentsatu arren. Espetxealdia pitin bat arindu dion egitateetako bat bere lehengusinarekiko hartu-emana izan dela azaltzen du honela:

«Yo... mi prima me ayudó mucho. O sea, nosotras nos hemos hecho... Hemos estado muy unidas, ¿no? Hemos discutido como toda familia, que discutimos por tonterías, pero siempre hemos estado ahí, nos hemos dado un apoyo, ¿no? Cuando ella ha estado mal, he estado yo ahí. Cuando yo he estado mal, siempre ha estado ahí. No sé si por suerte o... casualidades de la vida, pero... ¡Para mí es suerte! Me encontré a mi prima en prisión, en Madrid. Yo no sabía que estaba presa. Nos encontramos por accidente. [Arnasa hartzen du sakon] Al principio yo me entristecí mucho al haberla visto, pero en el fondo sentí una alegría, porque dije “Dios, no voy a llevar este tormento sola”, ¿no? [...] Tener un apoyo ya es mucho» (Angie, 22 urte).

Elkarrizketatuen kontakizunen arabera, laburbilduz, begi-bistakoa da emakume presoan arteko kidetasuna eta laguntasuna oso presente daudela –tirabirak edo gorabeherak ere

nahiko arruntak izan arren—. Ezbairik gabe, hartu-eman horiek garrantzi handikoak dira estutasunetik atera eta aurrera segitzeko, sostengu afektiboa eta ekonomikoa eskaintzen dutenez gero. Aitzitik, presoen arteko erlazioez gainera, bestelakoei ere erreparatu behar diegu.

## **8.2. Harremanak espetxe-langileekin: aurkarizatik preso onaren itxurakeriara**

Emakume atxiloen erresistentzia-praktikak itxialdiko elkarrekintzen markoan lantzean, euren arteko harremanekin batera, espetxe-langileekiko erlazioak ere jorratu behar dira, agentzia argia azaleratzen dutenez gero. Azken batean, hartu-eman horiek berebizikoak dira kartzela-sistemari aurre edo aurka egiteko; baita –inork kontraesankorra dela pentsa badezake ere– neurriren batean edo bestean giltzapetzeak ezarritako oztopo, muga nahiz desabantailei buru egiteko ere, eragin negatiboak nolabait arintzeko eta tarteka onuraren bat edo beste lortzeko.

Oro har, esan dezakegu emakume presoen eta espetxeko beharginen arteko harremanak askotarikoak direla, gisa guztietako iritziak eta balorazioak topa baitaitezke. Segurtasun-funtzionarioei dagokienez, elkarrizketatutako emakume preso eta preso ohiek aniztasun zabala mahaigaineratzen dute. Batzuk tratuaz kexatzen dira, eta beste batzuek positiboki balioesten dute; batzuek funtzionarioen nagusitza zein harrokeria kritikatzeko dituzte, eta beste batzuek laguntzeko zein animoak emateko prest egon ohi direla baieztatzen dute; batzuek diote ez dutela konfiantzarik ematen, eta besteek haietako batzuekin babestuta senti zaitezkeela. Funtsean, badirudi euren bizipen pertsonal zehatzak oinarritzat hartuta egiten dituztela elkarrizketatuek halako balorazioak; funtzionarioak edozein kolektiboko kideak bezain desberdinak direlakoan eta aburu orokorr(ago)ak ezinezkoak direlakoan. Nolanahi ere, aipagarria da elkarrizketatu askok azken urteotako aldakuntzak aipatzen dituztela, presoen eta funtzionarioen arteko hartu-emanek eskuarki okerrena egin dutela adierazita. Izan ere, Makrokartzelen eredua zabaltzearekin batera, kontaktua nabarmen gutxitu da; lehen ez bezala, funtzionarioak gariten barruan egon ohi direlako ia une oro eta postua maiztasun handiz txandakatzen dutelako, garitak altuago kokaturik daudelako eta kristalak beltzez tindaturik dituztelako, jagoletza nagusiki segurtasun-kameren bidez egiten delako, etab. Bai espetxeko langileen, baita presoen iritziz ere, tratua hoztu egin da, eta geroz eta inpersonagoa da.

Tratamendu-lantaldeko kideei dagokienez, aldiz, elkarrizketatutako emakume preso eta preso ohiek ezagutza eza azpimarratzen dute, gehienbat. Izan ere, gizarte-hezitzaileekin tratua hurbila eta egunerokoa izanda ere, Tratamendu Batzordeko gaineratiko kideekin kontaktua ia hutsala da. Batzuek jasotako arreta positiboki balioetsi arren, eta lagundu dietela adierazita ere, beste batzuek gabeziak azpimarratzen dituzte. Azken horien ustez, esaterako, haiengana hurbiltzea ez da batere erraza, ez dute espetxe-tratamendua behar bezala aplikatzen, ezta presoan banan-banako jarraipenik egiten ere. Aunitzek, gainera, amorru handiz bizi dute ia ezagutzen ez dituzten horiek izatea eurei buruzko erabakiak hartzen dituztenak.

Edozelan ere, espetxeko langileei buruzko iritziak eta balorazioak positibo(ago)ak edo negatibo(ago)ak izan, emakume presoan hitzetan erraz azaleratzen dira botere-erlazioak edota asimetria. Elkarrizketatu gehienek aburuz, presoan eta kartzela-beharginen artean gaindiezina den distantzia dago beti, baita tratua «zuzena» dela esan daitekeen kasuetan ere. Areago, gerta daiteke atxilo batzuk gehiago identifikatzea espetxe-langileekin beste presoekin baino; haatik, jazoera horietan ere, ez dugu batzuen eta besteen arteko inolako parekatzerik izango, kartzela-sistemaren ardatzetako bat den barne-hierarkiaren kausaz (Goffman, 1961; Foucault, 1975). Finean, beharginak dira presoek buruzko erabakiak hartzen dituztenak, baita zigorrak eta sariak aplikatzen dituztenak ere. Halabeharrez, alde batera utzi ezin den bereizketa edo muga dago euren posizioen artean. Hala izanik, elkarrizketatutako emakume preso nahiz preso ohietako aunitzen arabera, garrantzitsua da kartzelan zure lekua zein den jakitea; besteak beste, zenbait liskar saihesteko edota gaizki pasatzea ahalik eta gehien ekiditeko. Horrela, hainbatek euren NIS Identifikatze Zenbaki Sistematikoa<sup>213</sup> esaten dute, itxialdian zenbaki bat besterik ez zarela argi eduki behar duzula adierazteko; eta, era berean, zenbaitek eskaerak eta arrangurak tentuz egin behar direla diote, beste batzuen burubide arbitrarioen menpe zaudelako. Dударik gabe, kartzela-langileen nagusitasuna –presoen menpekotasuna– agerikoa da elkarrekintzen nolakotasun orokorrean. Izan ere, beharginei zuzentzean, atxiloek argi utzi behar dute haien autoritatearen onarpena; kasurako, zuka hitz eginez, dena «mesedez» eskatuz, edozein huskeria nabarmenki eskertuz, ahots-tonuan eta gorputz-jarreran otzantasuna

---

<sup>213</sup> Espetxe-sistemaren baitan, preso bakoitzak NIS zenbakia du, bere identifikatzea errazte aldera. Hamar digituz osaturiko zenbakia da; lehenengoek espetxeratze-urtea adierazten dute eta gainerakoak aleatorioak dira.

nahiz esanekotasuna erakutsiz, baita «*don*», «*doña*» edo «*señorita*»<sup>214</sup> moduko trataerak erabiliz ere. Kanean nahiko ezohikoak diren egitate horiek egunerokoak eta arruntak dira giltzapean, espetxealdiaren bereizgarri izateraino.

Saioak, segurtasun-funtzionarioak eta tratamendu-lantaldeko kideak askotarikoak direla pentsatu arren, eurei buruzko iritzi negatiboa du eskuarki, bere espetxealdiaren gaineko ikuskera orokor guztiz txarra duen bezalaxe. Honela salatzen du presoan eta kartzela-langileen arteko hierarkia eta bigarren horien nagusikeria:

«Siempre el respeto a ellos. [*Etenaldia*] De usted, por favor, gracias... [*Etenaldia*] En fin. Es como los tienes que tratar. Claro, luego ellos a ti no te tratan ni la mitad de eso. [*Etenaldia*] Eso también me parece... [...] Tienes que hacer lo que ellos digan. Allí los que mandan son ellos. No puedes negarte... No puedes hacer nada. [*Etenaldia*] Todas como debajo de sus pies. [...] Ellos son más que tú» (Saioa, 23 urte).

Saioak adierazitakoaren ildo beretik, Angieren testigantza ere jaso dezakegu. Bada, bere ustez, presoek espetxe-langileekin arazoak saihesteko, ezinbestekoa da lehenengoek argi izatea zein den bakoitzaren posizioa kartzela-sistemaren estrukturan eta ikaskuntza hori lehenbailehen egitea. Berak, presondegitik ahalik eta lasterren irteteko, tirabirak ekidin nahi izan ditu, langileekiko portaera obeditzailea erakutsita. Ez du ukatzen, baina, beste pertsona batzuen esanetara egotea mingarria ez denik; eta, horregatik, kartzelaldia «zure nortasuna ez galtzeko etengabeko borroka» dela uste du. Ikus dezagun nola irudikatzen duen giltzapeko botere-asimetria:

«Yo creo que en ese mundo tienes que centrarte y saber que tú eres un preso, que eres un número. ¡Que no eres nada! Para que no te vayas a sentir mal cuando te hablen o te contesten mal. ¿No? Que no te hagan sentirte una mierda, porque... porque tú ya tienes que entender y ser consecuente contigo misma, en qué estás, en qué sitio y ¡que no tienes nada! O sea, tienes que coger y agachar la cabeza» (Angie, 22 urte).

Bai Saioaren bai Angieren hitzetan hauteman daitekeenez, espetxe-langileen nagusigoa ez da atsegina emakume atxiloentzat. Alabaina, ez dirudi oro har presondegiko araudia, diziplina zein kontrola barneratzeko eta betetzeko zailtasun gehiegi dituztenik. Batzuek

---

<sup>214</sup> Aipagarria da, batzuetan, espetxe-langileekin hitz egitean, «*sita*» edo «*seño*» moduko izendapenak ere erabiltzen dituztela emakume presoetako batzuek. Deitura horiek nolabaiteko gertutasuna erakusten duten arren, begi-bistakoa da beren baitan duten infantilizatzea.

diotenez, kalean ere ugariak dira arauak, betebeharrak eta galarazpenak, baita hierarkiak ere; eta, hortaz, samingarria izan arren, egoera onartzea ez da horren nekeza ere.

Aitzitik, kontuan hartu behar dugu, joera orokorra aipaturikoa izanagatik ere, beti topa daitekeela presondegiko langileen autoritateari desafioa egiten dionik, botere-asimetria salatzen duenik, egoeraren zilegitasuna auzitan jartzen duenik edo konfrontazio zuzenak gauzatzen dituenik. Begi-bistakoa da kartzela-sistemak sarien eta zigoren gama zabala duela, presoek portaera moldatzeko (Goffman, 2001: 60); eta, horren ondorioz, oso zaila da aurkaritza edo enfrentamendu-jarrera luzaroan mantentzea (*Ibidem*: 70-71). Espetxe-langileekiko kekek, protestek eta istiluek «preso problematiko» ala «diziplinarik gabea» bilakatzera daramate, «portaera txarreko atxilo» etiketa jasotzera. Zalantzarik gabe, oso egoera zaila da posizio horretan daudenentzat, balizko abantaila guztiak galtzea esan nahi baitu. Kartzelatutako emakumeentzat bide hori mesedegarria den edo ez duda egin dezakegun arren, ukaezina da espetxe-sistematikiko erresistentzia-jardunbidea dela.

Adibide argigarri moduan, Leireren kontakizuna ikusiko dugu. Berak ere pentsatu arren kartzelako langileek esandakoa konplitu beharra dagoela –itxialdiko dinamikak nola edo hala derrigortzen zaituelako–, makina bat enfrentamendu izan du haiekin. Alde batetik, liskarrak izan ditu funtzionarioen eta tratamendu-lantaldeko kideen autoritateari desafio egiteagatik; antza denez, beharginen trataera umiliagarria iruditzen zaiolako eta bera ez delako isiltzen zerbait bidegabetzat baldin badu. Bestetik, istiluak izan ditu baita «preso problematiko» moduan etiketatuta sentitu delako ere, eta horren kontra asaldatu delako. Urteekin liskarrak hobeto kudeatzen ikasi duela pentsatzen badu ere, luzaroan izandako tirabirek kalte egin diotela dio; espetxe-langileekin harreman txarra izatearen kausaz, ia zigor osoa bete baitu itxialdian eta kartzela-abantailak ukatu baitizkiote behin eta berriz. Honelaxe azaltzen du presondegiko beharginekin izandako harreman tirabiratsua:

«No me llevo bien, porque... [...] ¡Es que no me callo! Lo mismo que te digo a ti, se lo puedo decir a una directora o a una subdirectora. O sea... de la misma manera. O sea, “No me toques los cojones”, si te tengo que decir “No me toques los cojones. Esto es mentira”, o “Esto es verdad” o “Quiero esto”. O sea, yo soy así. [...] Yo no me llevo bien. O sea, con... Creo que la autoridad para mí no... La que tengo yo. [...] A mí que me manden, me jode. Porque tengo gente que me tiene que mandar y tienes que agachar la cabeza. [...] Ya me he cansado de que... bajarme los pantalones y que me den por culo, la verdad. [...] Al principio, era muy rebelde. Cuando entras en la cárcel, es la ley de...



del más fuerte. Entonces, te tienes que hacer respetar. Me vas a pegar dos veces, ¡pero tres no! Entonces... a la tercera igual te voy a soltar un tortazo que te vas a flipar. Entonces, ya me he ganado un parte [disciplinario]. [...] Para la Junta de Tratamiento que tengas partes [disciplinarios] es... es tal y como vas a llevar... Ya te van a poner un cartelito, ¿sabes? O sea, cuidado. Es como “Producto peligroso. Danger”, ¿no? Y, entonces, eso jode mucho. [...] Ellos juegan un poco con eso, con tu miedo a... a “Te voy a poner un parte [disciplinario] y ya no sales más”. Si te ponen un parte [disciplinario], ya la has cagado. En seis meses ya no haces nada. Ni puedes salir de permiso, ni puedes salir a... un curso, ni puedes salir a nada. Entonces, es... como que te tienes que morder un poco las entrañas. [...] Es muy jodido que te manden. Yo creo que para cualquiera. No nos gusta, ¿no? Que te manden en el trabajo, pues vale. Pero ya en tu vida... ¿Qué tipo de marioneta eres entonces? ¿No? Allí creo que somos un teatro de guiñol enorme. Porque tienes que hacer lo que ellos digan y ya está. No hay vuelta de hoja» (Leire, 41 urte).

Esan bezala, eta elkarrizketatuen aipuetan argiro islatzen den moduan, benetan zaila da funtzionarioekiko eta tratamendu-langileekiko aurkaritza zuzena mantentzea luzaroan, espetxe-sistemak portaera hori ezerezteko mekanismo ugari dituen gero. Testuinguru horretan, kartzelaratutako emakumeetako asko istiluak saihesten ahalegintzen dira, eta, are gehiago, batzuen batzuk esanekotasuna erakusten ere saiatzen dira. Eraitza espetxe-sistemaren garaipentzat uler dezakegun arren, nabarmentzekoa da emakumeen agentzia ere ikus dezakegula. Bada, agerikoa da –prozesua kontzienteagoa ala inkontzienteagoa izan– egoera aztertzen dutela, euren aukeren inguruan gogoeta egiten dutela, ondorioak kontuan hartzen dituztela eta, azkenean, euren ustez komenigarriena den hautua egiten dutela. Elkarrizketatutako kasik emakume guztiek adierazitakoaren arabera, langileekin arazoak ekidin nahi izan dituzte, merezi ez duela erabakita, nolabaiteko kalkulua eginda. Hortaz, otzantasun edo mendetasun zintzoaz baino, sumisio plantaz edota itxurakeriaz hitz egin beharko genuke (Bosworth, 1999). Horren erakuskari argia da funtzionarioei zuzentzean zuka eta «don», «doña» edota «señorita» tratamenduak erabiltzen dituztela, baina, eurak aurrean ez daudenean, destainazko goitzenak jartzen dizkietela, hala nola, «rastreator», «pitbull», «pistolero» edota «patxaran». Ukatu gabe presoan eta langileen arteko botere-asimetriak oso posizio konplexuan kokatzen dituela lehenengoak, espetxe-sistemaren nahiak gailentzen direla eta ezin dela esan atxiloentzako etekina dagoenik, ez da alde batera utzi behar, agentziaren ikuspegitik, barneratutako sumisioa eta sumisio estrategikoa ez direla gauza bera.

Adierazitakoa hobeto ulertzeko, Juliaren iritziari helduko diot. Izan ere, argi eta garbi azaltzen du presoak kartzela-langileekin istiluak itzuri behar dituela, sinpleki, kontrakoa ez zaiolako komeni. Beharginak askotarikoak izanagatik ere, betiere nagusigo-posizioan daudela dio eta, atsegina ez izan arren, garrantzitsua dela atxilo bezala dagokizun lekuaz ohartzea, amorrua eta ezintasuna irentsi behar badituzu ere. Honela azaltzen du liskarrak saihestea espetxealdia arintzeko hautu kontzientea dela:

«Cuando entras en prisión, tus opiniones, tus cosas... las tienes que dejar en la calle, porque ya no depende de ti. Tú tienes que regirte por un régimen que te ponen. ¿Lo quieres aceptar? Lo aceptas. ¿No lo...? Si lo aceptas, y entras por el aro, sales antes. Si eres una persona que buscas problemas, nunca sales. [...] ¿Tú crees que merece la pena entrar al trapo? [...] Somos un número. [...] Yo soy 2006001949. Me lo sé de memoria» (Julia, 53 urte).

Miriamek ere pentsatzen du kartzelako langileek esandakoa bete beharra dagoela, azken batean, balizko enfrentamendu batean, presoak dituelako galtzeko aukera guztiak. Bera, portaera zuzena izateaz gainera, langileei itxura ona helarazten ere saiatu da, itxialditik ahalik eta azkarren ateratzeko. Honela deskribatzen du bere hautua, presoan eta espetxe-beharginen arteko botere-desorekaz jabetuta:

«Lo que te digan ellos tienes que hacerlo. No puedes decir que no. [*Etenaldia*] Si no, te ponen un parte [disciplinario], te ponen algún negativo... Y si te buscas un parte [disciplinario], son seis meses de castigo. Si tienes un permiso concedido y metes parte [disciplinario], te lo quitan, no te dejan salir. Y esas cosas... Prefieres, vamos... como digo yo, morderte las uñas. Sin más. Te jodes tú misma. [*Etenaldia*] Si haces cualquier cosa, te van a joder bien jodida, porque... ¡vas a perderlo todo! Pierdes todo. [...] Nosotras somos obligadas a lo que nos manden» (Miriam, 39 urte).

Hartara, kasu gehienetan, aurkaritza zuzena albo batera utzita eta esanekotasun-plantan aldeko aukera eginda, kartzela-langileak euren kontuetan nahastea izango da emakume presoek maiz erabiltzen duten erresistentzia-praktiketako bat. Bada, hainbat hobekuntza lortzeko eta itxialdiaren ondorio negatiboak arintzeko, arrunta dirudi emakume atxiloek beharginengana jotzea eta euren arazoan berri ematea, euren bizitza pertsonalari buruz hitz egitea, euren espetxe-egoeraren inguruan galdegitea, eskaerak egitea, etab. Finean, badirudi kartzelaratutako emakumeak langileekin nolabaiteko loturak ezartzen saiatzen direla, zenbait onura eskuratzeko bidea direlakoan. Ezbairik gabe, ez dituzte saialdiak

edonola egiten. Izan ere, alde zuzenetik –nahiz eta gehienetan oso modu inkontzientean gertatu– funtzionarioak eta tratamendu-lantaldeko partaideak behatzen dituzte, beraiei buruzko informazioa elkartrukatzeko dute eta bakoitzarekin nola jokatu erabakitzen dute. Elkarrizketatutako preso zein preso ohien arabera, badakizu langile batzuk beste batzuk baino permisiboagoak direla; batzuk oso zorrotzak direla arauarekin eta beste batzuek ez ikusiarena egin ohi dutela; batzuekin zuzena bezain formala izan behar duzula eta beste batzuekin informalago aritu zaitezkeela; batzuek hainbat kontu azalduko dizkizutela eta beste batzuek ez dizutela txintik ere esango. Kasu baterako, espetxeratutako emakumeek «*guardia buena*» eta «*guardia mala*» izendapenak erabiltzen dituzte funtzionarioak zer-nolakoak diren deskribatzeko, nahi dutena lortzeko dituzten posibilitateen arabera.

Miriamen adierazpenek argiro islatzen dute emakume presoek ondo dakitela nola jokatu espetxe-langile bakoitzarekin, erlazioa ahalik eta onuragarriena izateko. Honelaxe dio:

«Vas conociendo a los funcionarios como... Pues, “Ésta es así y la otra...”, “Hay guardia buena”... Porque nosotros sabemos la guardia que entra y la guardia que no entra, y la guardia que puedes ir a preguntar cosas y la guardia que no puedes ir a preguntar. [...] Igual tenemos una cosa y miramos a ver quién... quién está. “Puf, ¡la guardia que hay hoy! ¡Madre!”. [Barreak] Y ya estamos todas... pues eso, esperar a que se marche y que venga otra... otro relevo, para preguntar las cosas que tienes que preguntarle, sin tener problemas» (Miriam, 39 urte).

Miriamen antzera, Nievesek ere adierazten du nolabaiteko ikaskuntza-prozesua dagoela kartzela-beharginetik hartu-emanen. Bere hitzetan:

«A mí me han conocido, como yo les he conocido a ellos. Ya sabes más o menos el perfil de cada uno, porque ya sabes que con el roce... Sabes cómo actuar con cada uno de ellos. Yo sé lo que le puede molestar a uno y lo que le puede agrandar a otro» (Nieves, 61 urte).

Era berean, badirudi langileetako batzuk presoan aldetik behatuta eta aztertuta sentitzen direla; eta, horrez gainera, aurreko kapituluan ikusi bezala, atxiloek eurekin «antzerkia» egiten dutela pentsatzen dutela hainbatek. Antzaenez, beharginen iritziz, dramatismo handiz azaltzen dituzte zenbait istorio, gertakariak nahi bezala deskribatzen dituzte eta eskaerak egiten dituzte modu tematian; halaber, askoren iduriko, maiz biktima moduan aurkezten dute euren burua eta familia-egoera asko nabarmentzen dute, senideek etxean

behar dituztela adierazteko. Jokaera horiek bestelako azalpenak ere badituzte; esaterako, emakume preso askok genero-eredu hegemonikoen eraginaren ondorioz azpimarratzen baitituzte familia-loturak, baita estigma maila batean arintzeko eta sozialki hondatutako identitatea ahal bezala berregiteko ere (Juliano, 2011; De Miguel, 2012, 2016). Edonola ere, ezin ukatuzkoa da kartzelaratutako emakumeak genero-eredu hegemonikoak euren mesedetan erabiltzen saiatzen direla batzuetan (Bosworth, 1999). Dagoeneko badakigu askotan ez dutela euren jomuga lortzen, aurreko atalburuan ikusi baitugu presondegiko langileak euren portaeraz kexatu ohi direla maiz. Alabaina, arestian ere adierazi bezala, badirudi batzuetan arrakasta dutela, eta amaren edota zaintzailearen rola esajeratuz abantailak eskuratzen dituztela; besteak beste, tratamendu-lantaldeek zenbait espetxeonura emateko kontuan hartzen baitute egoera familiarra.

Nolanahi ere, aintzat hartu behar dugu langileekiko hartu-emanen haratago doanik ere badagoela. Asko dira preso on moduan agertzen saiatzen direnak, tratamendu-taldearen aurrean itxura egokia helarazten ahalegintzen direnak; besteak beste, obeditzaile bezain diziplinatu agertuta, adeitsu jokatuta, kexatzeari eta protestatzeari uko eginda, Errespetu Moduluan sartuta, PPS zeregina boluntarioki eginda, jarrera aktiboa eta parte-hartzailea izanda, zenbait pertsonakin erlazionatzeari utzita, etab. Hainbatek urrats bat gehiago ere ematen dute, eta kartzela-langileak lausengatzen ere saiatzen dira; kasurako, beharginei eta haien senideei opariak eginda edota askotariko zerbitzuak eskainita (jantzigintza, ile-apainketa, manikura, pedikura, sukaldaritza, etab.). Arauen betetze-zorrotza eta portaera sumisoa muturrera eraman, eta «konfiantzazko preso» ere bilakatzen dira baten batzuk; zenbait abantaila bakarrik posizio horretatik eskuratu daitezkeelakoan edota beharginen «mesedeak» lortuko dituztelakoan. Oro har, horrelako praktiken bidez, espetxe-egoera hobetzea eta giltzapetik lehenbailehen ateratzea bilatzen dute presoek; aitzitik, tartean, bestelako interesak ere badaude: kartzelan lanpostu ona lortzea, ezohiko komunikazioak izatea, baimendu gabeko zenbait produktu edo janari eskuratzea, arau-hauste txikiekin permisibitate handiagoa edukitzea, etab. Sumisio-itxurakeriaz hitz egitean esan bezala, espetxe-sistemaren nahiak gailentzen diren arren, eta emakume presoen lorpenak apalak direla pentsa badezakegu ere, garrantzizkoa da nolabaiteko antzezlan besterik ez dela nabarmentzea, baita emakumeek eurek aukeratutako bidea dela esatea ere, horrek beren agentzia azaleratzen digulako beste behin. Eskakizun-maila handiko jardunbidea da, eta etekinak ez daude ziurtatuta; baina, hala eta guztiz ere, begi-bistakoa da jokaera horren

alde egiten dutenek euren helburuak lortzeko eskura dituzten aukerekin jokatzeari ekin diotela.

Simoneren kasua aipa dezakegu, preso onaren rola baliatzearen erakuskari moduan. Izan ere, kalera irtendakoan espetxe-sistemaren aurkako jarrera aktiboa eta kritikoa izan duen arren, giltzapean «atxilo eredugarria» eta «konfiantzazkoa» izan zen. Bere kontaeraren arabera, kartzelan izugarria da langileen eta presoan arteko botere-asimetria; eta egoera are eta larriagoa da ez baduzu kanpo-sostengu gehiegirik. Berak familiaren babesa izan zuen preso igarotako denboran, baina senide guztiak urruti zeuden; eta bertan ez zuen ia sare sozialik. Ez zuen ez bisitarik ez gutunik jaso espetxealdian zehar, eta egitate horrek eragindako babesgabetasun- eta bakardade-sentipenek langileekiko guztiz menpeko ere sentitzera eramán zuten. Honelaxe adierazten du:

«Ahí... tú tienes claro, desde el primer día, que tú eres un número. [*Etenaldia*] Tú no eres la... Tú no eres Simone. No eres María. Tú eres el número... 564, que ha entrado el 1 de septiembre. ¡Nadie te conoce! ¡No son tus padres! ¡No son tu círculo social! [...] Entonces, es como si tú no existieses. ¡Eres invisible! Todos ahí somos invisibles. Yo creo que... las personas tienen más dignidad, cuando tienen más visitas, porque están con los suyos. [*Etenaldia*] Pero yo no he tenido esto, porque no tengo nadie aquí, de mi familia ni... No tenía círculo social, ¿no? Entonces, ¡yo no era nada! ¡No tenía ni vis [a vis]! Entonces, no era considerada nada. ¡Nadie me reclamaba! ¡Podían hacer lo que quisiesen conmigo!» (Simone, 36 urte).

Izugarri sufritu zuen itxialdian, norbanako batek bizi dezakeen esperientziarik okerreña zela pentsatzeraino. Egoera emozionalki jasangaitza zen beretzat. Hortaz, lehenbailehen irteteko «edozer» egiteko prestu bilakatu zen, eskura zituen aukerekin jokatzeari ekinez. Bere hitzetan:

«En el final de las contas, de una forma o otra, buscas la mejor estrategia para que pase eso, ¿no? Para que pase todo el tiempo y que tú salgas de allí lo más rápido posible. [*Etenaldia*] Tú vas a optar la opción... Yo creo que es así: tú partes de una situación... de entrada, conocimiento, saber cuáles son tus posibilidades... Tú creas tus estrategias, pero el objetivo es ¡salir de allí! [*Etenaldia*] Y... yo digo, vulgarmente, y vuelvo a repetir, si le tengo que chupar la polla de diez, quince... funcionarios, ¡no me importa! Para salir de allí. Es triste, pero es la realidad. Yo no tendría el menor problema. Si me dices “Oye, mira, ¿harías...?” “Haría”. [*Etenaldia*] Si quieres saber, sí. No voy a ser

hipócrita y decir a ti que no, porque estaría mintiendo. Porque eso estaba me matando. [Arnasa hartzen du sakon] Yo lo que quería era salir. No importaba cómo. Quería salir. [...] Objetivo era salir. Salir cuanto antes. Y cualquier... cualquier cosa<sup>215</sup> estaba dispuesta para salir. Cualquier cosa, eh. Cuando digo “cualquier cosa” es cualquier cosa. Imagina... Lo que cada uno quiera imaginar, pero... ¡cualquier cosa! Yo quería respirar. No podía con olor da cárcere. No puedo con olor da cárcere. [Hunkituta] No puedo» (Simone, 36 urte).

Presondegitik ahalik eta arinen irteteko helburu horren testuinguruan, askotariko bideak jorratu zituen. Esaterako, legez kontrako drogak kontsumitzen hasi zen, desintoxicazio-programa baten bitartez kalera ateratzeko itxaropenez, aukera hori aipatu ziotelako. Ikus dezagun nola azaltzen duen:

«Según mi abogada, que intentase utilizar o empezar a consumir lo que sea, porque me ayudaría a salir, porque podría salir por Proyecto Hombre. Entonces, quiere decir: si tú no eres consumidora, que consumas. [...] Se crean estrategias, ¿no? Porque siempre... siempre me dijeron bien claro “¿Qué quieres?”. Y yo “Salir de aquí”. “¡Uy! Bueno, para salir de aquí, tienes que hacer esto, esto, esto y esto”. Y esto eu<sup>216</sup>... seguía a rajatabla. Si me hace daño, si no... no me importaba. Porque era para salir de ahí. [...] [Pero no funcionó] porque era una mierda de droga. [Barreak] Y, claro, antes de entrar en la cárcere me hicieron analítica también, entonces... ya sabían que era limpia<sup>217</sup>. Y, claro, el consumo no te da de un día para otro. Ese consumo que te lleva a pensar “Sí, es una persona drogodependiente” [...] Pero de todo, eh. De todo he tomado» (Simone, 36 urte).

Droga-kontsumitzailearen itxurak egitearen alferrikako praktika horretaz bestalde, esan bezala, Simonek preso onaren rola ere erabili zuen, itxialditik lehenbailehen ateratzeko. Hala, istiluak kosta ahala kosta saihestu zituen, eta otzan bezain obeditzaile jokatu zuen. Tratamendu-taldeak berari buruzko iritzi positiboa izateko ahaleginak egin zituen; eta, horretarako, leporatutako delitua egin zuela onartzera ere iritsi zen, hori egitea beretzat samingarria izanda ere. Simoneren ustez, maskara janztearen edo antzeztearen modukoa izan zen. Honela dio:

---

<sup>215</sup> Portugesez, edozer.

<sup>216</sup> Portugesez, ni.

<sup>217</sup> Ez zuela drogarik kontsumitzen esan nahi du.

«Sinceramente, yo he creado un personaje. No era yo. [*Etenaldia*] Todo lo que eu hacía era... una cosa muy planeada. Puede te parecer maquiavélico, pero me he creado un personaje ahí. Lo que ha pasado fue con ese personaje. Ese personaje ha hecho eso y eso pasó con ese personaje. [...] Renunciar a mis pensamientos, mis ideas políticas, mi concepto de cómo tienen que tratar a las personas...» (Simone, 36 urte).

Simoneren arabera, praktika hori gogorra, neketsua eta akigarria izan zen; baina hainbat onura lortzeko lagungarria izan zela uste du, nahiz eta ez duen argi kartzelatik lasterrago irteteko baliagarria izan zen ala ez. Nolanahi ere, konfiantzazko lanpostuak izan zituen; kasu baterako, funtzionarioen garita eta aurrez aurreko bisitentzako gelak garbitzen aritu baitzen. Zeregin horiek langileekin gertutik erlazionatzea esan nahi zuten, baina Simone bakoitzaren posizioa zein zen ez ahazten saiatzen zen; gainera, tarteka beharginek egiten zizkioten miaketa integralek ere oroitarazten zioten presoak zen heinean menpekoea zela, eta «konfiantzazko» atxiloekin ere funtsean mesfidantza handia dagoela. Hala eta guztiz ere, hartu-eman horietatik etekina ateratzen ahalegindu zen hainbatetan, beretzat nahiz beste presoentzat. Horrela, harrotasunez dio segurtasun-funtzionario baten bidez kaleko izokin ketua eta zenbait liburu lortu zituela; baita, tratamendu-zuzendariordearekin hitz eginez, aurrez aurreko bisitetako baldintzak ontzea erdietsi zuela ere, gelak apaintzeko koadro batzuk zintzilikatu baitzituzten, haurren bisitetarako kolorezko arkatzak eta orri zuriak jarri baitzituzten, eta bisita intimoetarako koltxoia aldatu baitzuten.

Haatik, aise hauteman daitekeenez, preso perfektuaren rolarena muga handiko praktika da, argi-ilun sakoneko jardunbidea. Hasteko, aintzat izan behar dugu atxiloak langileen gehiegikerien arriskuan jartzen dituela. Neurriren batean, nahiz eta presondegiko botere-asimetriak betiere peril hori duen bere baitan, zalantzarik gabe, konfiantzazko presoekin egoera larriagoa da; bada, maizago, askotariko eskaerak egiten dizkiete eta usu ez dira ezetz esateko gai sentitzen. Adibide moduan, aipagarria da guardia zuten funtzionarioek behin baino gehiagotan esnatu zutela Simone gauaren erdian, eurentzako patata-tortilla edo pizza prestatzea eskatuz, eta Simone ez zela sekula ezetz esatera ausartu.

Era berean, aintzat hartu behar dugu espetxeko beharginen konfiantzazko presoak izateak beste atxiloekin arazoak edota tirabirak edukitzea esan nahi duela gehienetan. Izan ere, azken horiek lehenengoak salatariak omen direlako eta faboritismoaz probetxu ateratzen dutelako kexu dira, eta horrek etsaitasunak sustatzen ditu.

Esandakoaren adierazgarri, Kontxiren adierazpenak jasoko ditugu. Espetxean askotariko lanpostuak izan ditu eta, batzuetan, konfiantzazkoak izan dira; esaterako, langileentzako janaria prestatzen aritu baita. Orokorrean, funtzionarioekin hartu-eman ona izan du, eta tratamendu-lantaldeko kideei irudi positiboa helarazteko ahaleginak egin ditu. Aitzitik, badirudi egitate horiek istiluak ekarri dizkiotela beste presoekin. Bere iritziz, itxialdian garrantzitsua da zeinekin erlazionatzen zaren ondo jakitea, benetako lagunak oso urriak direlakoan. Honela azaltzen du zer-nolako tirabirak izan dituen beste presoekin:

«Pues decían “Es que los que trabajan en cocinilla son chivatos”. Y a mí me ha tocado más de una vez coger, pararle los pies y decir “Eh, chss, yo trabajo en cocinilla y no soy ninguna chivata. Yo si hablo de algo es mío. Y si tengo que llamar a un jefe de servicios y decirle algo, es algo mío, ¡personal! A mí lo que tú hagas o dejes de hacer me la refanfinfla”. Pero había movidas con eso» (Kontxi, 48 urte).

Azkenik, aipatzekoa da ere, neurketak egitea zaila izan arren, preso onaren rola betetzen dutenen lorpenek sarri txikiak edo xumeak diruditela; jardunbidearen kostu altua aintzat hartuta, batik bat. Baina, are gehiago, batzuetan ez dago inolako irabazirik edo onurarik; elkarrizketatutako emakume askok dioten moduan, portaera otzanak edo esanekoak ez duelako deus bermatzen.

Nievesen kasuan sakonduko dugu azken jazoera hori islatzeko. Izan ere, denbora luzez, preso onaren rola bete zuen. Konfiantzazko lanpostuetan aritzen zen eta, estraofizialki, funtzionarioei ilea moldatzen zien, baita manikura egiten ere. Alabaina, urteak igarotzen zirenez eta ez zuenez inolako espetxe-onurarik lortzen, tratamendu-taldearen erabakien kontra helegiteak jartzen hasi zen, Espetxe Zaintzarako Epailearen bidez. Une horretatik aurrera, presondegiko langileekin zuen harremana nabarmenkiro okerragotu zen. Egun, horregatik alde batera utzi dutela uste du; eta beharginen profesionaltasun ezaz kexatzen da. Azken batean, arazoak saihesteko isilik egoten ikasi beharra dagoela dio, zaila izan arren. Honela deskribatzen du kartzelako langileekin bizitakoa:

«He tenido que soportar que la dignidad a veces te la dejasen en el suelo. Hasta el día de hoy, que veas que se vulneran muchos Derechos Humanos... Pero te tienes que callar, porque siempre están las represalias. Yo, como soy muy luchadora, todo lo que me han denegado allí [...] lo he recurrido al Juez [de Vigilancia] y he ganado todos los recursos. Y eso molesta muchísimo. Lo que quiero decir es que ya me tienen un poco... como de lado. Si pueden, me hacen venganzas pobres. [...] Cuando eres la persona de confianza,



todo muy bien, muy bien. Pero cuando dejas de serlo, porque ya llega tu hora, no sienta bien, y te hacen venganzas pobres. Eso duele mucho» (Nieves, 61 urte).

Agerikoa da kartzelaratutako emakumeak murruek baitako elkarrekintza guztien bitartez saiatzen direla espetxealdiari aurre nahiz kontra egiten. Alta, ikusi bezala, presondegiko langileekin horrek konplexutasun handia du, kartzela-sisteman oinarritzea den botere-desorekaren kausaz. Beharginekiko hartu-emanen bidez probetxua lortzen ahalegintzea edo giltzapeko botere-erlazioen kudeaketarekin jokatzeko ez da nolana hiko jardunbidea, baina presoetako batzuek argi-ilunez beteriko bide horren alde egiten dute, dagoeneko azaldutako moduan. Botere-asimetria hain agerikoa izanik, ziur aski, emakume atxiloen agentziak boterearen zentzuan (Ortner, 2006) duen adierazpenik argiena da. Nolanahi ere, itxialdiaren markoan, kontuan hartu beharreko bestelako erlazioak eta praktikak ere badaude.

### **8.3. Salerosketak eta elkartruke ekonomikoak: «trapitxeatzeko» tartea**

Aurreko azpiataletan adierazi dudanez, espetxeratutako emakumeek giltzapean dituzten elkarrekintzen atzean askotariko motibazioak edo interesak daude. Kasurako, afektiboak izan daitezke, kartzela-onurei loturikoak, baita ekonomikoak ere. Azken horietan jarrita arreta, ukaezina da, iradokitako moduan, beste presoekiko nahiz espetxeko langileekiko hartu-emanek maiz arazo ekonomikoei aurre egitea edota gabezia materialak gainditzea dutela helburu nagusi. Baina, jada esandakoaz haratago, kontuan hartzekoa da emakume presoan artean nolabaiteko «merkatua» dagoela ere, horrek aparteko azterketa merezi duenez gero. Izan ere, presondegian, atxiloek salerosketen eta elkartrukeen sare zabala dute; eta, horren bitartez, euren egoera ekonomiko-materiala hobetzen ahalegintzen dira, baita kartzelan erosi ezin diren produktuak –baimendutakoak edo debekatutakoak izan– lortzen ere, itxialdiaren mugak neurri batean gaindituta.

Giltzapean, kalean bezalaxe, baliabide ekonomikoek berebiziko garrantzia dute. Aintzat izan behar dugu, Espetxe Erakundeek presoek aldi-aldian zenbait produktu dohainik eman arren<sup>218</sup>, eta otordu- eta ostatu-beharrak nola hala bermatzen badituzte ere, egitate

---

<sup>218</sup> Espetxe Erakundeek, aldizka, presoek oinarritzeko zenbait produktu ematen dizkiete; esaterako, honako hauek: plastikozko mahai-tresnak, edalontzia, lixiba, bainurako gela, hortzetako pasta, komuneko papera, konpresak, preeserbatiboak, lubrifikatzailea, etab.

horiek ez dutela egunerokotasunean kontsumo-ondasunak erosteko beharra ezabatzen; batzuetan, maiztasun edota kopuru gehiagoz behar dituztelako eta, besteetan, bestelako produktuak ere behar edo nahi dituztelako. Halaber, kontuan hartu behar dugu emakume presoentzat iturri ekonomikoak ezinbestekoak direla bestelako arrazoiengatik ere; kasu baterako, senideei dirua bidaltzeko, delituzko ekintzaren erantzukizun zibila ordaintzeko edo kanpora ateratzean nolabaiteko aurrizkiak edukitzeko. Hartara, argi dago baliabide ekonomikoak izateak edo ez izateak diferentzia nabarmena esan nahi duela itxialdiaren bizipenean zein nolakotasunean. Kanean ere orokorrean gertatzen den bezalaxe, atxiloen arteko ezberdintasun ekonomikoek euren arteko aldeak areagotzen dituzte, mailaketak eraginda. Azken batean, euren egoerak askotarikoak dira: batzuek zailtasun ekonomiko larriak dituzte, eta beste batzuek arazo handirik gabe egiten dute aurrera; batzuek eurek irabazitako diruarekin edo aurrizkiekin bizirauten dute, eta besteek diru-laguntzak behar dituzte; batzuek soldatapeko lana dute, nahiz eta gehienek ez duten enplegurik; batzuek kanpo-sostenguak dituzte, eta familiak edota lagunek bidalitako laguntza ekonomikoak eta paketeak jasotzen dituzte, eta beste aunitzek ez dute horren pareko ezer. Agerikoa da aniztasuna nabarmena dela.

Behar materialak zein ekonomikoak asetzeko, espetxe-sistemak zenbait bide eskaintzen ditu. Alde batetik, presoek hainbat kontsumo-ondasun eros ditzakete ekonomatuan; kasu baterako, kozinatze beharra ez duten jakiak, norberaren garbitasunerako produktuak, tabakoa, etab. Ekonomatuan salgai ez dagoen zerbait nahi izanez gero –betiere araudiak baimendutakoa bada–, «*demandadero*»<sup>219</sup> delakoaren bitartez ere saia daitezke lortzen; azken batean, horren bidez, arropa, oinetakoak edo jangai bereziak lor baitaitezke. Era berean, kanpo-sostengua badute, senideen edo lagunak paketeen bidez ere egin dezakete saialdia. Bestetik, diru-sarrerak izateko, espetxe-sistemak soldatapeko zenbait lanpostu eskaintzen ditu; baita pekulio-kontuetan presoek eurek edota hurbilekoek diru-sartzeak egiteko posibilitatea ere. Kartzelaratutako emakumeentzat bereziki garrantzitsua dirudi enplegua lortzearen aukera; eta, beraz, askok egiten dute ahalegina. Balio handia ematen diote zenbait zergati direla eta: tratamendu-taldeari itxura positiboa helaraztea, denbora pasatzea, entretenitzea eta, jakina, dirua irabaztea.

---

<sup>219</sup> Ekonomatuan salgai ez dagoen eta Espetxe Araudiak baimentzen duen zerbait erosi nahi badu preso batek, «*demandadero*» delakoaren bidez egin diezaioke erosketa-eskaera espetxeko zuzendaritzari. Azken horrek baiezkoa edo ezezkoa emango du, bere irizpideen arabera. Eskaera betez gero, atxiloak ordainduko du produktuaren kostua.

Haatik, kontuan hartu behar dugu espetxe-sistemak eskainitako bide ofizial horiek muga handiak dituztela emakume presoentzat. Agerikoa da ezin dutela edozein produktu lortu, baimendutakoen artean; eta, horrez gainera, bistan denez, ezin dituztela debekatutakoak eskatu. Era berean, badakigu kartzelako lanpostuak urriak direla, presondegi aunitzetan emakumeek lan-aukera gutxiago dituztela eta, oro har, beren soldatak baxuagoak direla (Almeda, 2003; Viedma eta Frutos, 2012). Hori guztia gutxi balitz bezala, ezin dugu ahaztu kanpotik sostengu ekonomiko gutxiago izan ohi dutela (Aróstegui *et al.*, 2008). Egoera horretan, emakumezko atxilo askok bilatutako eta gauzatutako bide ekonomiko alternatiboak azpimarratu behar ditugu.

Elkarrizketatutako emakume preso zein preso ohien arabera, askotariko elkartrukeak eta salerosketak gertatzen dira giltzapean, arazo ekonomikoei nahiz gabezia materialei aurre egitearen testuinguruan. Eurek diotenez, itxialdian, kasik edozer izan daiteke salgarri eta erosgarri; eta, besteak beste, honakoak aipatzen dituzte: norberaren ondasunak, kalean zein kartzelan lortutako produktu eta substantziak (arropa, oinetakoak, jakiak, alkohola, tabakoa, legez kanpoko drogak, medikamentuak, telefonoz deitzeko txartelak, telefono mugikorak, etab.), giltzapean egindako gauzak (erretratuak, apaindutako gutun-azalak eta orriak, ehun-gaiak, pultserak, eskulanak, etab.) eta zerbitzuak (garbiketa, manikura, pedikura, ile-apainketa, eskabideen zein helegiteen idazketa, etab.). Hortaz, salerositako edo trukaturako gaien nolakotasuna zabala da, irizpidea zeinahi ere izan; bada, murrueen barruko nahiz kanpoko gauzak dira, bai produktuak bai zerbitzuak, legezkoak eta legez kanpokoak, Espetxe Araudiak onartutakoak nahiz debekatutakoak, baita presoek eurek fabrikatutakoak eta beste batzuek egindakoak ere. Azken batean, elkarrizketatu aunitzek adierazten dutenez, ordaindu badezakezu, ia edozer lor dezakezu, giltzapean egonda ere. Horrek, ostera, ez du esan nahi prozesua konplexua edo nekeza ez denik; izan ere, antza denez, batzuetan istiluak pizten dira ordainketak, zorrak eta antzerakoak direla eta. Alta, horiek saihesteko, badirudi usu nolabaiteko arauketa ezartzen dela; eta, horren arabera, tarifak eta interesak zehazten direla, besteak beste. Edozelan ere, arruntak dira hainbeste erregulatu gabeko salerosketak ere, espontaneoki egindako elkartrukeak.

Esandakoa hobeto islatzeko, Léaren kontakizuna aipatuko dut. Izan ere, presondegian diru-sarrerarik izan ez duenean, ekonomikoki aurrera egiteko eta bizirauteko bitartekoak aurkitzen jakin du. Kasu baterako, enkarguzko erretratuak egin ditu arkatzez presoentzat nahiz funtzionarioentzat, eta manikura zein pedikura ere eskaini dizkie kartzelaratutako

emakume askori; zerbitzu horien truke, askotariko produktuak jasota: tabakoa, telefonoz deitzeko txartelak, litxarrerriak, etab. Leák gaztetatik baliatutako biziraupen-praktikekin lotzen ditu jardunbide horiek, nolabaiteko *continuuma* ikusita. Bere iritiz, aspaldi ikasi zuen nola mantendu bere burua ekonomikoki, bide alternatiboak jorratuta. Honelaxe azaltzen du egoera:

«Al principio, como no trabajaba ni nada de talleres, no tenía ni tabaco ni nada, pues... ¡como podía! Como desde niña dibujo retratos y todo eso, pues me ha venido muy bien. Después también hacía las uñas. Mi madre cuando vino una vez me trajo todo pintauñas y todo eso. Pues, he hecho... he pintado... hacía la [manicura] francesa, o los dibujos y todo eso, y las chicas que iban a vis a vis [íntimo] a ver al marido, me pagaban, ¿sabes? Un paquete de tabaco. Y así me busco... Bueno, estoy espabilada desde niña [Barreak], que si no... De verdad que nunca, nunca me ha faltado nada. La verdad que... A veces, pues sí, pasaba un poco de hambre, porque no me atrevía a pedir o algo así. No puedo. Pero... me busqué siempre la vida haciendo cosas para... para sacarme al menos para comer, para dormir o... [...] Estaba muy espabilada» (Léa, 28 urte).

Era berean, Léaren ildo beretik, Marcelaren testigantzan sakontzea interesgarria da; bere antzera, giltzapean ekonomikoki bizirauteko bide ez-ofizialak argi eta garbi azaleratzen dituelako. Izan ere, hasieratik, Soto del Realeko presondegian (Madril) sartu zutenetik, Marcela bere egoera ekonomikoaren larritasunaz konturatu zen. Alde batetik, bazekien bizirauteko diru-iturriak behar zituela, besteak beste, egunerokoan behar zuena erosteko, irteeran aurrizkiak izateko edota bere abokatuari ordaintzeko. Bestetik, ondo zekien ere ez zuela inolako kanpo-laguntzarik jasoko. Izan ere, atzerritarra izatez, urrun zuen bere elkartasun- eta babes-sarea, senide eta lagun gehienak Ekuadorren baitzitu; familiak, gainera, gertatutakoa jakin zuenean, harremana etetea erabaki zuen; Madrilen, atxilotua izan arteko bizilekuan, ez zuen ia adiskiderik; eta bere neska-lagunak, espetxeratzearen berri izan eta gutxira, erlazioa utzi egin zuen. Testuinguru horretan, bere kabuz gaudituz behar izan zituen zailtasun ekonomiko guztiak. Une oro nola hala bizimodua ateratzen eta aurrera egiten dakiten horietakoa dela adierazita, baita inoren mende egotea gogoko ez dutenetakoa ere, honelaxe adierazten du lehenik soldatapeko lana lortzeko eginahalak egin zituela:

«Es que tienes que aprenderte a buscar la vida. En mi caso, yo necesitaba dinero. Yo veía que otras personas tenían dinero y decía “¿Cómo lo haces? Porque tú no tienes familia, a ti no te interesan dinero... ¿Cómo lo haces?”. Me decían “Pues, trabajando”

[...] Los únicos trabajos que había entonces eran cocina, enfermería y... una cosa que llaman “Brigada”, que es un grupo de mujeres que les dejan el permiso de salir fuera del módulo a limpiar lo que son ingresos, locutorios, vis a visés... Tienen esa libertad de poder moverse dentro de una cárcel. Pero, les pagaban... vulgarmente, mal hablado, ¡una mierda! Y donde más se ganaba, y el más duro, era cocina. Yo decía “Vale, listo. Yo quiero entrar a trabajar a cocina”. Había una lista... que si tú veías la lista, decías “Pero, vamos a ver, ¿es la lista para entrar a trabajar o la lista que pasan todos los días contándonos?”. “No, es la lista para entrar a trabajar” “Ah, vale, listo. O sea, ¿que hay una lista de espera como de dos años?”. Digo “En dos años, yo no voy a estar aquí... ¡Quién sabe!”. Hice chanchullos... Venía el educador, yo le compraba el café. Venía el educador, yo le iba, le lloraba, le suplicaba... Vulgarmente, como nosotras solemos hablar allá adentro, si es posible... hasta se la chupaba. Algo literal. La que quiere lo hace, y la que no quiere, no. Entonces... vi que eso no me funcionaba, porque pasaba el tiempo y yo seguía en las mismas. Entonces, yo dije “Vale, listo. Voy a ver quién es la encargada de cocina”. [...] En el módulo había la encargada interna, la encargada que trabajaba en cocina y que ella decía “Tú entras, tú no”. Pues, yo me le pegué a ella como una lapa. Yo le compraba el café, le lavaba la ropa, le arreglaba el chabolo... Lo que esa mujer pedía, yo lo hacía. [...] Estuve un mes así, dándole de todo. Yo dejaba de comprar una Coca Cola, para comprársela a ella. Era su chacha prácticamente, hasta que un día yo dije “Pues, vamos a ver, chica. No quiero ser tu chacha, no quiero ser tu perro faldero... Quiero que me des trabajo”. Digo “Dame esa oportunidad de trabajar” y me dijo “Vale”. Al día siguiente, yo ya estaba trabajando» (Marcela, 28 urte).

Baina, emakume presoen enplegu-egoera kaskarraren markoan, arazo ekonomikoak eta kanpoko laguntzarik eza gaintitzeko, bestelako diru-iturriak bilatu zituen, eta horiekin egokiro moldatzen ikasi zuen. Esaterako, ezagueraz, marrazteari zein eskulanak egiteari ekin zion. Bere hitzetan:

«Yo me dedicaba a eso también, a dibujar, para yo poder tener cosas. [...] Claro. Ahí te compras el paquete de sobres, que te vienen veinte sobres, y te compras el paquete de hojas, que son cien... o setenta... No me recuerdo bien. Entonces, de ti depende qué haces con eso. Me conseguí colores, me conseguí goma... Me conseguí todos los materiales. Yo digo “¿Y ahora qué hago? Si no sé dibujar. ¿Qué hago?”. Lo que hacía era calcar los dibujos, de la manera más nítida que podría haber, que era... me ponía en la ventana, a esperar el sol, y cuando hacía el sol, se veía reflejado el dibujo y lo calcaba. ¡Hacía unos dibujos que te cagas! [Barreak] ¡Aprendí a dibujar! Aprendí a dibujar ¡muy bien! Hacía rostros. Una me decía “Oye, quiero que me dibujes. Me pongo

de perfil”. Yo decía “De puta madre, chica... ¿Cómo le hago?”. “¿No tendrás una fotito por ahí?” “Sí, sí... Tengo una foto”. Me daban la foto. Yo esa foto cogía, la mandaba a la calle, que la amplíen. Una vez ampliada al tamaño se podría decir real, yo cogía y hacía el mismo procedimiento. Cogía y lo calcaba. Pero, solamente cosas puntuales. El resto ya era... por mi parte. Y yo venía con mi cara dura como que si fuese una experta. Me cogía y me sentaba en el comedor a dibujar, y venían y se ponían alrededor mío y me veían dibujar “Ay, mira, que sí sabe, sí sabe...”. Ese chiste me demoraba tres o cuatro días en hacer un dibujo de esos, y yo cobraba tres tarjetas [de teléfono]. ¡Eso era una pasta! Por un dibujo que lo... “Ay, ¡si está bonito!”, que “Para mi novio”, que “Para mi madre”. [...] O sea, uno tiene que saber buscarse la vida. Hacía manualidades. Hacía muchas cosas» (Marcela, 28 urte).

Azken batean, eskura zuen ia oro egin zuen gauza materialak lortzeko eta ekonomikoki bizirauteko. Aipatutako jardunbideekin batera, alkohola eta legez kanpoko drogak saldu zituen, telebisten eta irratien konponketak kobratu zituen, etab. Aitzitik, bere mugak ere bazituen; kasurako, pilulekin «trapitxeatzeari» uko egin baitzion beti, inori min emateko beldur zelako. Ikus dezagun nola deskribatzen dituen bere praktiketako batzuk:

«Yo aprendí lo que es la droga, en el sentido que aprendí a venderla, cómo se vende, cómo se corta, cómo se pesa... dentro de la cárcel. Eso lo aprendí yo en Soto [del Real]. Y para vivir, porque a mí no me ingresaban dinero, yo tenía que trabajar, y yo trabajaba, pero también vendía cosas. Yo arreglaba televisores y vendía televisores, arreglaba radios, las vendía... [...] Yo las arreglaba y las vendía. Vendía porros, vendía coca<sup>220</sup>, vendía marihuana... Todo yo lo vendía. Lo que sea vendible, yo te lo vendía. ¡Aprendí! Cosa de la cual... Fue un sistema... un sistema de vida que tomé, porque... Me arriesgaba a cada momento, porque si me llegan a pillar con eso, ¡buah! Todo por lo que he luchado todo este tiempo, lo botaba a la basura. Pero es que no tenía otra. Si quieres vivir y tener dinero, para sobrevivir, tienes que hacerlo. [Etenaldia] Allí dentro, las gitanas, su sistema de vida es... tienen a sus familias afuera, no sé lo que hacen afuera, y les entran ropa y ellas venden su ropa. Me parece fenomenal. Pero a mí no me ingresaba nadie nada. Yo estaba sola... y yo tenía que buscarme la vida. Yo vendía eso, vendía droga. De no saber cómo... cómo se mira, cómo se huele, cómo se sabe si es harina, azúcar o droga... tener que aprender. [...] Eso fue lo que yo hice en la cárcel» (Marcela, 28 urte).

---

<sup>220</sup> Kokaina.

Bere hitzetan ondorioztatu daitekeenez, arretatsu egon zen eta trebetasun berriak garatu zituen. Era berean, modu zehatzean negoziatzen nahiz jokatzeko ikasi zuen, debekatutako bere ekintzen balizko kalteak ekiditeko. Adibidez, honelaxe azaltzen du nola moldatzen zen droga saltzeko:

«Uno tiene que contactar con personas. Para vender, tienes que salir del módulo. Yo, como trabajaba en cocina, me era más fácil. Entonces, contacté con un chico de un módulo y... supuestamente... éramos novios. Ante los ojos de los demás, novios. Me tocaba besarme con ese hombre, cosa que me daba un asco... ¡puf! Pero, él me pasaba lo que son las huevas de chocolate<sup>221</sup>. Me decía “Mira, te doy tres, vendes dos y te quedas con una. Tú verás si la vendes o si te la consumes”. Digo “Vale”. Entonces, ese era el trapicheo que yo hacía allá, con la persona que me daba a mí el... la droga, se podría decir. Yo iba al módulo y la vendía. Obvio, no vas a decir “Toma, dame”, porque no se puede. Si no que yo las guardaba, hasta cuando yo decía... ¡veía! Tú tienes que saber ver a las personas a las cuales les puedes vender y a cuáles no. Todo el mundo consume. ¡Todas! Entonces... Pero, no todas te pagan. Entonces, tú tienes que saber ver quién te puede pagar y quién se puede quedar callado. No es lo mismo que a ti te paguen, y cojan y vayan a la garita “Mira, ella me vendió esto”. No es lo mismo. Entonces, tienes que aprender a hacer eso. Cuando ya más o menos crees que lo tienes controlado, vas y lo vendes. [...] Una la vendes entera y otra la cortas. La entera es para una persona en concreto que sabes que es... es fiel, como quien dice. Y las pósturas<sup>222</sup>, pues, a yonquis, a personas... normales, ¡a todo el mundo! ¿Y tú qué es lo que haces? Miras lo que te... lo que tú necesitas. ¿Quieres dinero o quieres productos para ti? Vale, listo. Con la entera, quiero dinero. Me lo depositan en la calle, lo tengo en el peculio a los tres días. A los tres días, cojo y te la doy. Y con las pósturas, vale, listo. Necesito tarjetas para llamar, necesito tabaco, necesito... yo qué sé... champú, gel, desodorante, comida... Entonces, tú vas, me compras, y yo te la doy. No es que yo te la doy y me la compras, porque siempre te van a engañar. Entonces, tú muestras “Mira, ve, yo la tengo. Cómprame lo que necesito”. Tú coges, le das una lista, y van al economato, la compran, te la traen a ti, y tú se la das. Así es como tú ganas dinero allí dentro» (Marcela, 28 urte).

Alabaina, Madrilgo presondegitik Arabakora lekualdatu zutenean, Marcelak alde batera utzi zituen horrelako praktikak, eta kable-sareak egiten irabazten zuen soldatarekin eta aurrizkiekin bizitzera zedarritu zen. Nolanahi ere, argiki antzeman daitekeenez, arazo ekonomikoetara aurre egiteko eta bizirauteko gai izan zen; behatuz, erne ibiliz eta kartzela-

<sup>221</sup> Gizon horrek ematen zizkion haxix-kopuruez ari da.

<sup>222</sup> Haxix-zati txikiez ari da.

testuingurura moldatzen ikasiz. Irispidean zituen aukerak baloratu zituen, aproposenak iruditu zitzaizkionak hautatuta, edota, gutxienez, okerrenak begitandu ez zitzaizkionak. Dударik gabe, arriskatu egin zen, baina bere xede nagusia izan zen kartzelan bizirauteko baliabide ekonomikoak kostatuta ahala kostatuta lortzea; argi eta garbi baitzuen ez zuela kanpolarik jasoko eta espetxeko aukerak zinez eskasak zirela. Aitzitik, begi-bistakoa da kartzelaratuak emakume guztiak ez daudela horrela bizirauteko prest; baita, itxialdiko elkarrekintzen markoan, kontuan hartu beharreko erresistentzia-praktikak eta harremanak ere badaudela.

#### **8.4. Kartzelako erlazio sexu-afektiboak: ekarpenak, mugaketak, aldaketak**

Espetxeratutako emakumeek presondegiatan dituzten hartu-emanetako hainbat jorratu ondoren, giltzapeko harreman sexu-afektiboak heltzea baino ez zaigu falta. Agerikoa da presoek halako erlazioak dituztela bai kartzela barruko baita kanpoko jendearekin ere; baina, une honetan, kapitulu honen ildo jarraituta, soilik barnekoak landuko ditut. Izan ere, beste behin, espetxe-sistemari aurre egiteko nahiz itxialdia jasateko erresistentzia-praktika esanguratsuak hauteman ditzakegu horietan. Euren nolakotasunari erreparatzen badiogu, aniztasuna azpimarratu behar da, gainerako elkarrekintza-motekin egin bezala. Harreman sexu-afektiboetan motibazio afektiboak, sexualak nahiz ekonomikoak daude, erlazio bai heterosexualak bai lesbikoak, itxialdiko garaira soilik mugatzen direnak zein kalean ere jarraitzen dutenak, etab. Era berean, emakume atxiloen balorazioak jasotzen baditugu, askotariko iritziak izango ditugu. Azken batean, batzuetan, ekarpen-sentsazioa nagusi da, zer edo zer positiboa bizi izan delakoan; beste batzuetan, alabaina, mugatze-sentipena gailentzen da; eta, orobat, aldaketaren, berritasunaren edo esperimentazioaren pertzepziorako tartea ere badago (De Miguel, 2012, 2016; Etxebarrieta, 2013).

Gizonezko presoekin izandako harreman sexu-afektiboekin hasita, aipagarria da halako erlazioak izan dituztenek kartzelaldia jasateko eta eramangarriago egiteko bizipen zinez lagungarri moduan aipatzen dituztela. Batzuentzat aurrera jarraitzeko eragingarria izan omen dira, nolabaiteko «ilusioa», nor bere burua gehiago zaintzeko edota egunerokoa kemen gehiago hartzeko arrazoia; beste batzuentzat denbora-pasa edo entretenimendua izan dira gehienbat, olgetarako pizgarria, baita errutina arintzeko «*vidilla*» ematen duen osagaia ere; haratago, berebiziko sostengu afektibo bezala bizi izan dituenik ere badago,



are enamoratzearekin eta maitasunarekin batera mahaigaineratzen dituenik ere; eta, nola ez, batzuen batzuek zerrendatutako elementu horien guztien konbinazio gisa ere ikusten dituzte.

Nolanahi ere, argi dago gizon eta emakume presoak elkartzea ahalbidetzen duten uneak zein espazioak bereziak direla giltzapean; horren esangura suerte batekoa edo bestekoa izanda ere, posizioaren edo ikuspegiaren arabera. Espetxe-langileek, adibidez, aurreko kapituluan ikusitako moduan, egoera horiek arazotzat hartzen dituzte askotan; nahiz eta azken urteotan gizonak eta emakumeak zenbait jarduera juntu egitea baimentzeko joera zertxobait gehiagotu den. Emakume presoek, euren aldetik, bestelako aburuak izan ohi dituzte elkartze-aukera horien inguruan; baina denek ez dute bat egiten, jarraian ikusiko dugun moduan. Antza denez, elkarrizketatutako emakume preso eta preso ohien iduriko, ohikoa da horrelako egoeretan gizonak emakumeekin ligatzeko ahaleginak egitea; kasu baterako, euren izena eta modulua jakiten saiatzea, hitz batzuk egiteari ekitea, etab. Era berean, badirudi nahiko arrunta dela emakume preso sartuberriek ezagutzen ez dituzten gizon presoek partetik opariak jasotzea. Kartzelatutako emakume zenbaitzuen aburuz, egoera zinez desatsegina da; eta gizonak jazartzen dietelako eta objektu sexualak izango balira bezala tratatzen dietelako kexu dira, usu errespetu gutxirekin hurbiltzen direla ere kritikatu. Hain zuzen ere, hainbatek ez dute gizon presoekin inolako harremanik izan nahi horregatik. Aitzitik, hori ez da emakume atxilo guztien ustea; azken batean, batzuk gustura daudelako gizonak hartu-eman horietan. Horrela izanik, batzuek une horiek bilatzen dituzte; zenbaitetan, gizonen arreta jasotzeko eta ligatzeko euren burua bereziki apainduta ere. Orokorrean, gizonekin ligatzea eta binatzea erraza delakoan daude.

Nolabaiteko bikote-harremana hasten badute, kointziditzeko momentuak aprobetxatzen saiatzen dira, oro har, gizon-emakumeentzat elkarrekin diren jardueretan parte hartzen ahaleginduta. Alabaina, horrez gainera, komunikatzeko bestelako bideak ere bilatu ohi dituzte; esaterako, modulutik modulura leihoetatik hitz eginez, hormen gainetik oharrak jaurtiz edota, ahal bezala, (maitasun-)gutunak<sup>223</sup> elkarri bidaliz. Elkarrizketatuen ustez, gizon eta emakume atxiloen arteko kontaktu-maila asko aldatzen da presondegi batetik bestera; baina, orokorki, Makrokartzeletan modulu barruko isolatzea asko areagotu dela nabari dute.

---

<sup>223</sup> Usu, apainketa handiko maitasun-eskutitzak dira (De Miguel, 2012: 151). Amodio-mezuekin egindako marrazkiak dituzte, baita bihotzak eta irudi erotikoak ere.

Halako harreman sexu-afektiboen iraupenari dagokionez, berriz ere, askotariko iritziak aipa ditzakegu. Orokorrean, badirudi askok pentsatzen dutela espetxealdi garaira soilik mugatzen diren erlazioak direla; bikotekide biek edo batek ez duelako hartu-emanarekin jarraitu nahi kalean edota, testuingurua aldatuta, jada ez duelako funtzionatzen. Zentzu horretan, ohikoa da presoek «*amor taleguero*<sup>224</sup>, *amor pasajero*» esamoldea erabiltzea; preseski, bikote-harremanek ez dutela luzaroan irauten adierazteko. Haatik, ezinbestean, salbuespenak daude; eta erlazio batzuek kalean ere aurrera segitzen dute. Edozelan ere, eta beste elkarrekintza batzuen kasuan ere adierazi bezala, hartu-emanarekin jarraitzeak edo ez egiteak ez du itxialdian izandako balioa zalantzan jartzen nahitaez.

Kartzelatutako emakumeek gizon presoekin dituzten erlazio sexu-afektiboetan gehiago sakontzeko, hainbat adibide aipa ditzakegu. Hasteko, Altagraciaren kasua dugu. Zenbait urtez ezkontuta egon eta gero, espetxeratu zutenean dibortziatuta zegoen. Ez omen zuen presondegian bikote-harremanik hasteko inolako gogorik; haatik, azkenean mutil-laguna hartu zuen eta, egun, erregimen irekian egonda, erlazioarekin jarraitzen du. Giltzapeko harreman sexu-afektiboak zinez biziak direla uste du; eta erakusgarri moduan aipatzen du bikotekideek maitasun-adierazpen nabarmenak egiten dituztela, gutun luzeak idazten dizkiotela elkarri eta ohizkoa dela emakumeen artean liskarrak piztea gizonetikiko hartu-emanengatik. Gustura omen dago bere bikote-harremanarekin, baina ez duela luzaroan iraungo baieztatzen du. Bere hitzetan:

«Yo le conocí y... me pareció atractivo, porque es muy alto, rubio de ojos verdes. [...] Pero, cuando se me acercó, como que no... Yo no quería rollos, ¿sabes? Pero una amiga: “¡Venga, escríbele! Escríbele, escríbele... Ya verás, se te pasa el tiempo”. Pero ya había recibido mogollón de cartas. Cuando llega una chica allí, a prisión, comienza a recibir cartas y regalos. Yo recibía cartas de tíos que no conocía, eh. [...] Y dije que no quería, pero, al final, me lié y aquí estoy. Pero, bueno, un poco... un poco consciente de que... pues, hombre, este chico lleva muchos años preso. Ahora mismo está loco por mí, ¡pero loco! [Barreak] Es una cosa... ¡El amor del preso! Es... es como el amor más grande que pueda tener una persona aquí fuera, pero elevado a la décima potencia. Es que es exagerado. [...] Es el amor taleguero. [...] Aún estando aquí fuera, él me gusta y tal. Se lo curra, eh. ¡Ojo! [Barreak] Pero yo soy consciente de que... yo tengo tres niños, de que no... O sea, que bien, bien mientras dure, pero no es mi amor. “Te quiero y te amo”, sí, pero con fecha de caducidad» (Altagracia, 35 urte).

---

<sup>224</sup> Kartzelako jargoian, espetxeari dagokiona.

Era berean, aipagarria da Mayaren testigantza. Egun, kartzelan ezaguturiko mutil-laguna du; baina, harreman horren aurretik ere, hainbat flirt izan ditu presondegian ezaguturiko gizonekin. Bere ustez, erlazionatzerakoan, batzuetan ez dago behar adinako errespeturik eta gizon batzuek sexu-objektuak balira bezala tratatzen dituzte emakumeak; horregatik kexu da, baina oro har, gizonezkoekin hartu-eman positiboak izan dituela adierazten du, sostengu eta eragingarri garrantzitsua direlakoan. Aurreko bikote-erlazio batez ari dela, honela adierazten du bere esperientzia:

«Yo he tenido la suerte de tener un novio cuando llegué a Nanclares [de la Oca] [Barreak]. Fue después de un año. Llegué a Nanclares [de la Oca] y la primera semana fuimos a una obra de teatro. Era algo en común y estaba lleno de chicos y tal [Barreak]. [...] Y, entonces, pues enseguida conecté con un chico y nos empezamos a cartear, y pues estuvimos juntos todo el tiempo que él estuvo en Nanclares [de la Oca]. [...] La verdad es que gracias a eso... [...] Cuando tienes algo para soñar... [...] te vas a tu celda y quieres hacerle algo en un papel o yo que sé. ¡Te da vida! Te da ganas de hacer cosas o ponerte guapa o hacer deporte para él. Y, bueno, he tenido suerte de ir a la biblioteca todos los días. Me dejaban ir a la biblioteca, porque tenía estudios. Y ahí lo veía todos los días» (Maya, 27 urte).

Ildo beretik, Mertxeren kontra ere jasoko dut. Gazte ezkondu eta banandu ondoren, urte luzez iraun zuen eta beretzat oso garrantzitsua izan zen bikote-harremana izan zuen. Gizona hil zenean amaitu zen erlazioa, Mertxe preso zegoela. Zalantzarik gabe, beretzat kolpe benetan gogorra izan zen. Bere elkarrizketan azaltzen duenez, ez zuen berriro ere maitemintzea burutan; ez zuen uste halakorik gerta zitekeenik. Alabaina, gaur egunean, espetxean ezaguturiko gizon batekin enamoratu dela eta oso kontent dagoela baieztatzen du. Hasieran, informalki idazten zioten elkarri, beste preso baten bidez; baina, geroago, aurrez aurreko intimoak izan ahal izateko, bide ofizialen bidez idazteari eta lokutorioan elkar ikusteari ekin zioten. Erregimen irekian dagoela, Mertxek harremanarekin aurrera egiteko gogotsu dago, eta ez dio ardua jendeak zer esaten duen. Honelaxe adierazten du erlazio hori zer-nolako ilusioa den beretzat:

«Esta vez, donde he estado tantos años sin enamorarme, me he enamorado de uno. Ya le han dado un permiso, ahora le van a dar otro. Y... y sigo con él. Y voy a los [vis a] vises y voy a comunicaciones, y estoy encantada. Y digo “Mira, dónde he ido yo a conocer a este pipiolo, ¡tantos que hay en la calle!”. Y ni... ni... Vamos, es que no tenía ni ganas de enamorarme. Y, mira, me he enamorado. Me dicen que no, que “Amores talegueros,

amores pasajeros”. Pero yo siempre he sido de un hombre y he sido muy correcta en ese aspecto, ¿sabes? Entonces... Antes de enamorarme de él, nos escribíamos, apoyándonos, ¿no? Porque nos recomendó una chavala. [...] Empezamos como amigos, contándonos todo, todo, todo. [...] Luego, ya empezó a decir “Nena, que me parece que vamos a tener que hacer locutorios. Hay que escribimos por [correspondencia] intermodular, porque... tengo ganas de...”. [...] Ahí empezó una historia muy bonita. [...] Una ilusión tremenda. Pues, muy ilusionada. Una ilusión... unos sentimientos, ¡que no recordaba haber tenido ya! O sea, que sí sé que he vivido y he querido, pero es que ahora lo estoy sintiendo. Aquello se me olvidó casi. Aquello se me olvidó. Yo sé que lo he vivido, pero es que ahora lo estoy notando. Y estoy muy bien con él. Encantadísima» (Mertxe, 61 urte).

Orobat, azpimarragarria da Angieren iritzia. Preso egindako denboran, hainbat harreman sexu-afektibo izan ditu, gizon nahiz emakume atxiloekin. Aitzitik, aipaturiko gainerako kasuetan ez bezala, erlazio horietako batek ere ez du jarraipenik izan kalean. Angieren iritziz, giltzapean, halako hartu-emanak garrantzi handikoak dira aurrera egiteko; baina oso zaila da kalean ere funtzionatzea, sentimenduak ezberdin bizi direlako. Honela dio:

«La mayoría de los chicos buscan cariño. Y las chicas también buscan cariño. [...] Echas de menos que alguien se preocupe por ti, o que te escriba una carta y te diga “¿Qué tal estás?”, [...] que se preocupe, o te diga “Oye, quedamos en el poli<sup>225</sup>” o “Quedamos, que hay cine”. [...] Eso te alegra mucho, ¿no? Pero, después, yo creo que el amor... No sé. Dudo todavía si se puede encontrar el amor en prisión, porque a la hora de salir es muy diferente. La gente cambia. [...] No sé qué es. Quizás costumbre o falta de cariño, que te hace apegar a una persona y que cuando sales descubres que no es... no es amor. Y ahí lo confundes. [...] Hay momentos en que no sabes interpretar los sentimientos. Estás tan abrumado, tan congestionada y tanta cosa que tienes en la cabeza que no... no te paras a pensar si es verdad que sientes amor o qué es. Porque a veces se confunde. Si nos confundimos fuera, ¿no? Confundimos el cariño con el amor. ¡Imagínate dentro! Que estamos... a falta de eso» (Angie, 22 urte).

Edozelan ere, Angieren bizipenek adierazi bezala, kartzelatutako emakumeek gizonekin dituzten erlazio sexu-afektiboekin batera, euren artekoak ere aintzat hartu behar ditugu; izan ere, harreman heterosexualen kasuan bezalaxe, emakume askok sostengu afektiboa, babesa eta ongizatea topatzen dute erlazio lesbikoetan. Baina, dena dela, horiei buruz ari garela, badirudi elkarrizketatuentzat deigarriena sexu-portaeran batzuetan jazozen diren

---

<sup>225</sup> Kiroldedia.

aldaketak direla. Antza denez, erlatiboki arrunta da preso sartu arte harreman lesbikorik izan ez duten emakumeek giltzapean halakoak hastea. Elkarrizketatutako emakumeek suerte guztietako iritziak dituzte aldakuntza horien inguruan; aldeko jarrerak nahiz kritikak, portaera ulerkorrak zein gaitzesleak, ikuspegi lesbofoboak barne. Batzuk gaia ekiditen ere ahalegintzen dira; eta, dudarik gabe, argien hitz egiten dutenak aurretik ere praktika lesbikoak izan dituzten horiek dira. Nolanahi ere, askotariko ikusmoldeak egon arren, adostasun nahiko zabala ikus daiteke lesbianismoak kartzela barruan kalean baino onarpen handiagoa duela adieraztean. Izan ere, elkarrizketatutako emakume preso eta preso ohi ia guztiak iritzi horren aldekoak dira; nola hala, harreman lesbikoak kanpoan baino gehiago toleratzen direla eta heteronormatibitatea normalean bezain zurruna ez dela mahaigaineratuta. Era berean, giltzapean, emakumeen homosexualitatea gizonena baino onartuago dagoela ere nabarmentzen dute zenbaitzuk; hain ezkutukoa ez dela edo permisibitate gehiago duela iradokita, baita gaiaren inguruan emakumeek gizonen baino maizago eta argiago hitz egiten dutela adierazita ere.

Nolanahi ere den, sexu-praktiken aldaketaren gai horretan zertxobait gehiago sakonduta, eta nahiz eta emakume presoen artean askotariko usteak daudela esan dudan dagoeneko, bereziki azpimarragarria da aldakuntza horiek egin dituzten emakumeen «lesbianismoa» edota lesbianismoaren «benetakotasuna» zalantzan jartzeko joera handia dagoela. Hala, behin eta berriz entzun daiteke zenbait emakume atxiloren eta espetxe-langileren ahotan ez direla «egiazko lesbianak», ukapena zein aintzatespenik eza erakutsita. Are gehiago, kartzelan emakumeekin harreman sexu-afektiboak abiatu dituzten emakumeetako askok ere baztertzen dute euren burua «lesbianatzat» edo «bisexualtzat» hartzea, erlazio horiek euren sexu-identitatean eragiten ez dutelakoan (De Miguel, 2012: 158). Elkarrizketatu gehienek iduriko, moldaera zehatz eta zirkunstantzialak dira, baldintzek bultzaturikoak; hots, gizonetzkoekin harremanak izateko ezintasunak kausatutako erlazioak, ordezkioak, behar afektibo nahiz sexualak asetzeko bestelako modurik ez dutelakoan (Juliano, 2011: 145). Alabaina, begien bistakoa da praktika horiek ez direla beste askoren modu berean interpretatzen; balioa gutxitzeko nahia nabarmena baita, jaidura lesbofoboa azaleratuta. Esate baterako, jardunbide horien «egiazkotasunik ezaren» frogatzat erabiltzen da, maiz, harreman horiek ez dutela kalean jarraipenik; baina gauza bera gertatzen da usu erlazio heterosexualekin eta ez du inork horregatik euren izaera «gezurrezkoa» azpimarratzen, are emakume batzuek «denbora-pasagarritzat» hartzen dituztela diotenean ere. Halaber, ohikoa da «beharrak» ekarritako jokaerak direla nabarmentzea; erlazio heterosexualetan

eta kidesun- zein adiskidesun-harremanetan behar afektiboak eta sexualak egongo ez balira bezala. Orobat, praktika «aizunak» direla argudiatzeko, aditzera ematen da baita emakume horiek beste aukerarik izan ez dutela ere, euren erabakitze gaitasuna horrela ezeztatuta; nahiz eta agerikoa den nolabaiteko hautak badaudela eta, gainera, gizonekin ligatzea ez omen dela zailegia.

Ikuspegi guztiak hain heteronormatiboak ez izanagatik ere, argi dago errezeloa dagoela sexu-praktiketan aldaketak gerta daitezkeela ulertzeko. Alde batetik, eragozpen moduan aipatu behar dugu identitatea ulertzeko modu zurruna, aldaezina eta finkoa nagusi dela gure gizartean. Bestetik, traba bezala kontuan hartu behar dugu sexu-praktiken hierarkia ere dagoela (Rubin, 1984), eta, horren arabera, heterosexualitatea bultzatu egiten dela, «ona», «naturala» eta «normala» delakoan, eta lesbianismoak, aldiz, gizarte-gaitzespena jasotzen duela, «okerr(ago)a», «antinatural(ago)a» eta «anormal(ago)a» delakoan. Alta, identitatea modu irekian, dinamikoan nahiz aldakorrean hartzen badugu, eta ikuspuntu heteronormatiboak alde batera uzten baditugu, sexu-jardunbideen balizko aldaketak ez dira horren ulertezinak ere. Era berean, aldakuntzak jazo ahal izateko faktore nagusiak aintzat hartzen baditugu –testuinguruak nahiz jarduerak, elkarrekintzak eta erreferentzia ideologikoak (Esteban, 2004: 245-246)–, are eta adigarriagoak dira eraldaketak, presoak ohiko girotik kanpo daudelako, bestelako gizarte-harremanak dituztelako, lesbianismoa aukera «posibleagoa» bilakatzen delako eta itxialdiak nolabaiteko «babesa» eskaintzen dielako.

Harreman lesbikoen iraupenari dagokionez, erlazio heterosexualen kasuan bezala, askok kalean ez dutela jarraitzen esan beharra dago; salbuespenak salbuespen. Aipatzekoa da, halaber, giltzapean hartu-eman lesbikoak hasi dituztenetako aunitzek ez dutela kanpoan halako jardunbideekin segitzen; berriro ere, salbuespenak salbuespen. Edozelan ere den, bestelako elkarrekintza-motekin adierazitako moduan, harremanek aurrera ez egiteak ez du esan nahi itxialdian zehar baliozkoak izan ez direnik.

Hartu-eman lesbikoen eta sexu-praktiketan gerta daitezkeen aldakuntzen adibide bezala, Angieren hitzetara bueltatuko gara. Esan bezala, berak erlazio sexu-afektiboak izan ditu bai gizon bai emakume presoekin; baina, beste batzuek ez bezala, bere kasuan itxialdian ez da inolako aldaketarik egon, aurretik ere gizonekin zein emakumeekin izan dituelako halako harremanak, bere burua bisexualtzat hartuta. Sexu-jardunbideetan gertatzen diren

eraldaketen zergatia ulertu ezinik, honela adierazten du nola ikusten duen lesbianismoa kartzelan:

«Las mujeres, al principio, iban con su tabú, ¿no? “Ah, mira, le gustan las mujeres. Yo jamás...”. Pasan tres-cuatro meses, o un año, y luego las ves a ellas con una mujer. [...] Entonces, yo digo “Pero, bueno, ¿qué es esto?”. Una de dos. Están buscando cariño, están muy necesitadas, ¿no? Por decirlo así. O es que... su orientación sexual la han tenido siempre y nunca la han podido sacar por miedo. [...] Hay mujeres que... que viven la vida, que van y disfrutan con las mujeres y luego salen a la calle y tienen su marido. [Barreak] Porque también se ve de todo. Ahí... yo creo que se ve más... más la homosexualidad en las mujeres que en los hombres. Porque los hombres son... quizás por miedo, son más reprimidos ellos» (Angie, 22 urte).

Era berean, Marcelaren iritzia ere aipa dezakegu. Kartzela barruan zein kanpoan hainbat neska-lagun izan ditu, une oro, bere burua lesbiana izendatuta. Ez ditu espetxealdiko sexu-praktiken aldaketak gaizki ikusten. Berak presondegian izandako zenbait erlazio sexu-afektibo, hain zuzen ere, ordura arte esperientzia lesbikorik gabeko emakumeekin izan dira. Baina, oro har, aldakuntza horiek egiten dituzten emakumeak egiaz lesbianak direnik ukatzen du; eta afektu edota lasaialdi sexualaren bila baino ez daudela baiesten du. Batzuen zintzotasunik eza kritikatur, honela azaltzen du bere ikuspegia:

«Hay muchas que son... por naturaleza, por decirlo así, lesbianas. ¡Muchísimas! Y que dentro siguen actuando igual que en la calle. Pero hay otras que no, que se hacen allí las santas de que “Uy, yo eso, ¡jamás! Eso está... Eso es pecado, eso está prohibido, eso está mal visto...”, pero mas sin embargo, lo hacen. Entonces, es que... no sé por qué son así. Si lo eres, hazlo. Y si no lo eres, pero quieres probar, ¡hazlo! Pero sé sincera contigo misma. A mí no me importa lo que tú me vayas a decir, pero sé sincera contigo, porque de ahí dependen muchas cosas. [...] Yo no diría que son lesbianas. Simplemente quieren un desahogo... corporal, y sentirse un poco... se podría decir ¡mimadas! Eso es al menos lo que yo siento» (Marcela, 28 urte).

Marcelaren hitzek adierazten dutenez, hartu-eman sexu-afektiboen testuinguruan, behar-beharrezkoa da sexualitatearen gaiari ere berariaz heltzea; finean, funtsezko elementua baita. Kasu honetan ere, aniztasun handia topatuko dugu emakume presoen bizipen eta iritzietan. Ikusi bezala, hasteko, sexu-jardunbide berrietarako tartea dago; baina, horrez bestalde, kontuan hartu behar dugu batzuek positiboki balioztatzen dituztela itxialdian

izandako sexu-harremanak, eta beste batzuek, ordea, mugatuta, hutseratuta nahiz itzalita sentitu dutela euren burua, sexualitatea behar bezala garatzeko ahalbide nahikorik gabe. Halaber, deigarria da emakumeen sexualitatea ezkutatzeko nolabaiteko joera dagoela; bada, usu beraien behar afektiboen inguruan hitz egiten da, baina oso gutxitan aipatzen dira beraien behar sexualak, desira edo plazera. Alabaina, elkarrizketatutako emakume preso eta preso ohietako batzuek argi eta garbi diote hainbatek erlazionatzean motibazio sexualak besterik ez dituztela, hau da, sexu-harremanez haratago, ez dutela beste ezer bilatzen. Zentzu berean, beren nahiera sexuarekin jarraituta, azpimarragarria da batzuek masturbazioa ere aipatzen dutela; orokorki, horren inguruan gehiegi hitz egiten ez bada ere eta hainbatek gogoko ez dutela baiesten duten arren.

Espetxe-sistemaren baitan, sexu-harremanak mantentzeko eremu ofiziala aurrez aurreko intimoena da. Horiek ezagutu dituzten elkarrizketatutako emakume kasik guztien iritzi, giroa hotza da, eta espazioa ezegokia hartu-eman sexuareko nahiz afektiborako. Kexa ohikoenen arabera, iraupena eskasa da, ez dago intimitate nahikorik, espetxe-langileen intrusioak gertatzen dira batzuetan, etab. Gehienek diotenez, enkontru planifikatuegiak dira eta sentipen bitxiak sortzen ditu sexu-harremanak non, noiz, zenbat denboraz edota zeinekin izan ditzakezun kartzela-zuzendaritzaren esku egotea. Dudarik gabe, deserosoa da emakume preso askorentzat; batzuentzat, baita lotsagarria eta umiliagarria ere. Hala, askok diote egoera desatsegin samarra dela, hasieran batez ere. Alabaina, gehienek diote azkenean ohitu egiten zarela eta, guztiz gustura sekula ez egon arren, elkartzeko momentu horiek gozaten bukatzen duzula. Elkarrizketatuek adierazten dutenez, une horiek zinez garrantzitsuak dira harremana garatzeko, bai sexualitateari dagokionez, baita bestelako alderdiei dagokienez ere. Hartara, gehienek dezente apaintzen dute euren burua elkartzeko horietarako.

Esandakoaren erakuskari, Mertxeren kontatari helduko diogu berriro ere. Bere aburuz, presondegiaren baitako sexualitatea mugatua bezain programatua da, eta aurrez aurreko intimoek gabezia nabarmenak dituzte. Halere, azkenean sexu-harremanak izaten eta are gozaten ere hasten zarela uste du. Honela dio:

«Totalmente limitadas. Totalmente limitadas. Y luego también es que estamos muy programadas. Tiene que ser tal día, a tal hora. Y luego, te tocan a la puerta, ¡bum! ¡Te la abren entera! Sin avisar de que se va a abrir. Que... que igual a ti se te pasa la hora y media más rápido. Claro, pero es normal, ¿no? Que es una vez a la semana y... entonces



se pasa rápido. Te pueden pillar hasta desnuda, te abren la puerta: “¡Venga, todos fuera! ¡Venga, todos fuera! ¡Venga!” Es muy desagradable. Es desagradable. Lo que pasa que claro, acabas haciendo el amor. Porque el primer día no, el segundo la mitad y el tercero bien y el cuarto mejor. Porque es lo que hay y no hay más. Pero sí estás pendiente del reloj, ya te cortas un poco, ya... Seguirías y ya no puedes» (Mertxe, 61 urte).

Aurrez aurreko intimo horiek izateko baina, baldintza zehatzak konplitu behar dira; kasu baterako, ezin dira horrelakoak izan pertsona batekin baino gehiagorekin aldi berean eta nolabaiteko «bikote-egonkortasuna» frogatu beharra dago<sup>226</sup>. Alta, betekizun horiek ez betez gero, sexu-erlazioak bide ofizialek eskainitako aukerez haratago eduki nahi izanez gero, edo pertsona batekin baino gehiagorekin elkartu nahi izanez gero, kartzelaratutako emakumeek bide ez-ofizial eta alternatiboak erabiltzen dituzte. Labur esanda, harreman heterosexualan, gizon-emakumeek kointziditzen duten espazioak eta uneak baliatu ohi dira; eta erlazio lesbikoetan, ohikoa da zelda partekatzen ahalegintzea.

Mayak sexu-harremanak izan ditu kartzelan, aurrez aurreko intimoetan zein bestelako egoeretan. Aurreko mutil-lagun bati buruz hitz egiten ari dela, honela azaltzen du nola lortzen zuten bisean bisetik at larrutan egitea:

«Con Iván, mi chico de... de Nanclares [de la Oca], pues... tardamos seis meses para tener un vis a vis íntimo. Y luego se fue a otra cárcel a San Sebastián. Entonces, pues... cuando nos veíamos, en el anfiteatro, cuando había algún... Porque teníamos la suerte que en el anfiteatro teníamos buenos presos. Encargados. O sea, que confiaban mucho. Llegaba el encargado, cogía la llave en la garita del funcionario, decía “Vamos al curso de teatro” y ¡nos dejaban! Todo... únicamente presos en una sala enorme con cortinas, salas un poco tal... lugares para poner las cosas de teatro... Y, bueno, ahí para... si tienes... Es que hay que tener amigos que te vigilen y tal. Y si el encargado... Si eres amigo del encargado, porque si no, ¡nada, eh! [...] En los lugares cerrados donde no están los funcionarios, y donde hay actividades mixtas, pues ahí si lo haces a escondidas, pues... y si la gente no está envidiosa, porque luego te chivatean... ¡aunque no te han visto! Dicen “Ña, ña, ña, ña...”». Entonces, tienes que llevarlo bien la... Yo he tenido eso, oportunidades de estar ahí y me han dejado con mi chico, pero porque éramos nosotros y... porque llevaba yo un año [Barreak] sin hacer nada, entonces, pues eso... Él también llevaba un año en la cárcel, más o menos, en Nanclares [de la Oca]» (Maya, 27 urte).

---

<sup>226</sup> Aurrez aurreko intimoak izateko ezinbestekoa da ezkondata egotea, izatezko bikotea izatea edo bikote-harremana frogatzea zenbait hilabetez lokutorio bidezko bisitak eginez.

Halako jazoerak direla eta, espetxe-langileen artean maiz entzun daitekeen komentarioa da presoek edozein lekutan eta edozein modutan mantentzen dituztela sexu-harremanak. Alabaina, aipagarria da zenbait egitatek baieztapen hori zalantzan jartzen dutela; esate baterako, nahiko ohizkoa baita sexu-erlazioak izan aurretik mediku-analisen emaitzak eskatzea balizko bikote-lagunari, eritasun kutsakorrik ez duela ziurtatzeko.

Bestalde, orain arte harremanen alderdi afektiboak eta sexualak soilik jorratu baditugu ere, ezin dugu alde batera utzi osagai edota motibazio ekonomikoak ere badaudela. Egia esateko, ez da harrizkeoa, erlazio-mota askotan elkartrukatzen baitira sexu-harremanak eta dirua edo gauza materialak; kasu baterako, ezkontzatik prostituzioraino, askotariko posibilitateak *continuumean* hartuta (Tabet, 1989; Pheterson, 1996, 2013; Juliano, 2002, 2004; Desportes, 2006). Elkarrizketatuetako hainbatek diotenez, ohikoa da bikotekideek dirua sartzea emakumeen pekulio-kontuan, baita ekonomatuan produktuak erostea ere; beraz, argi dago halako elkarrekintzak garrantzitsuak direla sostengu ekonomiko bezala ere. Orokorrean, kanpotik, ez da batere erraza antzematea motibazio afektiboa, sexuala edo ekonomikoa gailentzen den; baina elkarrizketatutako emakumeetako askok ez dute duda egiten harreman interesatuak eta iruzurrak daudela baieztatzeko, ezta prostituzioa ere gertatzen dela adierazteko. Egitate batzuen eta besteen arteko mugak nahiko lausoak dira maiz –kalean bezala–, baina agerikoa da emakume preso zenbaitzuentzat harreman sexu-afektiboak biziraupen ekonomikorako praktika direla nagusiki. Tartean engainuren bat egon ala ez, horrelako jardunek emakume presoen kritikak eta gaitzespena jasotzen dute oro har, iraingarriak direlakoan.

Mayaren aburuz, presondegiko harreman sexu-afektibo kasik guztiak interesatuak dira, sexualki izan edota ekonomikoki izan. Oso gogor kritikatzten du egitate hori, maitasunik ez dagoela eta «faltsukeria» nagusitzen dela baietsita. Bere orduko bikote-erlazioan ere truke ekonomiko-sexuala bazegoen ere, ez du duda egiten egoera erabat ezberdina zela. Bere hitzetan:

«Las relaciones son muy falsas, ya de por sí, eh. Hay que saber que el chico no está interesado nada más que para eso, porque los hombres son... Pues, yo creo que tienen más necesidades [sexuales] que las mujeres. Yo creo, eh. No lo sé, pero lo supongo. Y entonces, pues, se juntan ¡con la que sea! Si quieren follar, ¡vamos! Y son capaces de comprarle tabaco y tarjetas y lo que sea para tener un vis a vis [íntimo]. Entonces, hay que saber con quién te juntas. Son malos. Son muy... desesperados, vamos. Se les ve, y

entonces hay que tener... eso, cuidado de “Ay, mami, no sé qué...” y te pueden encantar mil cosas para que te enamores, ¡pero no! No, yo... ¡Yo sé captar las cosas! [Barreak] Entonces, pues las relaciones son como... puf... no sé... Yo, por ejemplo, estaba en la batuka, que era mixto, y luego el teatro también mixto. [...] Casi siempre están en plan ligue y... y no está chulo, porque te sientes objeto [Barre etsia]. Pero bueno, las mujeres también mal, porque las mujeres también se ponen en ese plan, de que hay que follar y entonces... A mí no me gusta nada, nada, nada, porque a mí me gustan las cosas de calidad, las que no son por el interés, porque hay muchas chicas que, aparte de que tienen necesidades [sexuales], pues tienen necesidad también de tener tabaco, dinero y tal, y entonces un hombre les da todo al mismo tiempo, ¡pues cogen el primero! Y no... no es así, no es así... Porque el amor para mí es puro y no se puede comprar así, por la cárcel. [...] Y yo he tenido la suerte, la verdad que no lo he pedido para nada, pero este chico con quien he estado, me ha gustado, por sus valores, por lo que era. Pues, me ha ayudado, me compraba tabaco, me compraba cosillas... y es verdad... te sientes como... “¡Alguien se preocupa por mí!”, ¿sabes? ¡Puf! Y eso... no sé... A veces, pasaba por los funcionarios ropa, una bolsita con cosas del economato, me compraba... Si no nos podíamos ver, por ejemplo, con una cartita me decía “Hoy el funcionario no me deja salir, no sé qué... Te mando esto con un paquete de tabaco”. Dices “Joe, pero ¿qué haría yo sin él?”. [Barreak] Porque al final del día, eso es lo que te acuerdas. “¿Qué he hecho hoy? Ah, le he visto a él y...”. ¿Sabes? Te da un ánimo increíble. Entonces, yo entiendo que las chicas que no tienen novio, buscan un novio, pero me parece que las relaciones son muy falsas; tanto entre chicas, entre chicos, y entre chica y chico, vamos. Todo está falso, ¡porque es todo por el interés! Es “A ver qué le puedo sacar”» (Maya, 27 urte).

Mayaren aipuaak gehienbat gizonen eta emakumeen arteko erlazio interesatuak jorratzen baditu ere, kontuan hartu behar dugu emakumeen arteko harreman sexu-afektiboetan ere gertatzen direla horrelakoak. Kasu baterako, Marcelak ataka latza izan zuen bere bikotelaguna zen emakumeak aldi berean mutil-laguna ere bazuela jakitean eta berekin soilik diruagatik zegoenaz ohartzean. Honela azaltzen du:

«Fui un poco tonta. No fui... ¡Fui muy tonta! ¿Por qué? Yo tenía mi dinero. No es que se ganase mucho dinero, pero... [...] Hubo una chica que se llamaba como yo, y ella estaba mal económicamente. Tenía a su familia y a su hija en nuestro país, porque somos del mismo país. Fue tal el cariño que esa niña me dio a mí, ¡que me dominó! En el sentido de que “Marcela, necesito dinero. ¿Me podrías prestar?”. Prestar es regalar, porque nunca me lo va a pagar... Entonces yo, con mi linda cara de gilipollas, cogía y le daba casi la mitad de mi suelo. Se lo daba. Decía “Toma. Deposítale a tu hija”. [...] Pasó

el tiempo. Ella me dijo “Quiero estar contigo ya en plan de pareja”. Ni tonta ni perezosa. Una tía audaz. Yo como gilipollas “Ah, vale, ¡tengo pareja! ¡Perfecto!”. Lo que yo no me estaba dando cuenta que ella lo que quería era ¡todo mi sueldo! [...] Te voy a ser sincera, ¡me echaba un polvo que te cagas! Yo me quedaba toda gilipollas, “Ah, ¡el mejor polvo de mi vida!”. Cuando no era así. Ese polvo me costaba... vamos, ¡todo mi sueldo! Y era así como ella tenía dinero, y era así como yo me quedaba sin dinero» (Marcela, 28 urte).

Argi dago, beraz, kapitulu honetan zehar ikusi dugunez, kartzela barruko elkarrekintzak askotarikoak direla. Era berean, begien bistan gelditu da horien bidez emakume presoek euren egoera zentzuren batean edota bestean hobetzen ahalegintzen direla; dela sostengu afektiboa lortzeko, dela sexu-harremanak izateko, egoera ekonomikoa hobetzeko edota presondegitik lehenbailehen irteteko. Halaber, agerikoa da horietako praktika batek ere ez duela espetxe-sistema benetan ezerezten eta, betiere, hertsatzailea bezain mugatzailea dela. Hala eta guztiz ere, ezin ukatuzkoa da emakumeek nolabaiteko onurak lortzeko gai direla, tarte batzuez bederen, eta horrek euren agentzia azaleratzen duela.

## **9. Kanpo-harremanak, espazioak eta denborak.**

### **Murruen zurruntasunari ihes egiteko bideak**

*Barruan dugun mundua ez da kabitzen  
barruan gaituen gelan.*

Joseba Sarrionandia (1992: 42)

Kartzelaratutako emakumeen giltzapeko agentziaren gaiarekin jarraitzeko, aberasgarria izango da itxita egotearen beste zenbait esangurei eta horiei aurre egiteko erresistentzia-praktikei ere heltzea. Hala, itxialdi fisikoaren edo murrueetatik bestaldeko munduarekiko bereizkuntza fisikoaren nondik norakoetan zentratuko naiz, jarraian, kapitulu honetan. Izan ere, zalantzarik gabe, kartzela-sistemaren gako nagusietako bat da bereizketa hori; hots, beste batzuek erabakitako denbora-tarte zehatz batez, beste batzuek deliberatutako espazio jakin batean egoteko betebeharra, kanpora ezin atera, mugimendu-askatasuna mugatuta, denbora antolatze gaitasuna izugarriro murriztuta, baita hormetatik kanpo daudenekiko kontaktu-bideen arautze zorrotza pairatuta ere. Ohiko bizimodua nabarmen galarazten duen egoera da. Alta, kontuan hartu behar dugu emakume presoek itxialdiko muga, arazo edota kalte horiek ere gainditzeko saialdiak egiten dituztela, modu sortzaile bezain eraldatzailean. Nahiz eta, zentzu zabalean, pentsa dezakegun emakume atxiloen erresistentzia-praktika guztiak giltzape fisikoa arintzera zuzenduta daudela, presondegi bateko murrueen baitan itxita egotearen alderdi zehatz batzuk jorratu nahi ditut. Agerikoa da kartzelaratutako emakumeen jardunbideetako batzuk hormen zurruntasuna higitzera bideratzen direla; dela espetxetik kanpoko mundura hurbiltzera, barrukotik aldentzera, dela giltzapean daudela hainbeste ez sentitzera edo tarte batzuek ahaztera. Alde batetik, aurreneko azpiatalean, kartzelatik at daudenekin kontaktua aztertuko dut, murrueetatik landako eremuarekin hartu-emanen egoteko eginbideen bitartez; bestetik, bigarren eta azken azpiatalean, itxialdiko espazioaz eta denboraz nolabait ere jabetzeko jardunbideak

jasoko ditut. Labur esanda, kanpo-erlazioei, espazioari eta denborari dagozkien ekintza berariazkoak azaleratuko ditut, giltzaperatutako emakumeek –subjektu aktibo bezala– horren preso ez sentitzeko eskura dituzten aukerekin nola jokatzeko duten islatuta; baina, betiere, ahantzi gabe kartzela-sisteman kontrol zurruna nagusitzen dela (Goffman, 1961; Foucault, 1975). Era berean, une oro aintzat hartuko dut instituzioaren iragazkortasuna; espetxea guztiz isolatutako gunea denaren ideia alboratuta, barrukoari nahiz kanpokoari buruzko irudi dikotomikoak eta bereizkuntza zorrotzak alde batera utzita, baita bi eremu horien arteko etenik gabeko elkarrekintzei erreparatuta ere (Cunha, 1994, 2002, 2005a, 2005b, 2008a, 2008b, 2008c, 2014; Garreaud, 2011; Maciel, 2011).

### **9.1. Espetxetik kanpoko hartu-emanak: arnasgune eta estugune**

Kartzelatutako emakumeek hainbat kontaktu-bide dute presondegi-horretatik haragoko eremuarekin. Izan ere, harremanetan daude sartu-irtenak egiten dituzten atxiloen bidez, espetxeko langileen bidez, baita telebistaren zein prentsaren bidez ere. Alabaina, nahiko argi dago gehientzat konexio edo lotura nagusia senide eta bikotekideen bitartekoa dela. Hartu-eman horiei esker, kanpora ematen duen nolabaiteko irekigunea eskuratzen dute, giltzapetzea baino lehenagoko bizitzarekin lotura, askorentzat beraien «benetako» izatea denarekin juntura; eta, halaber, askok sostengu afektiboa nahiz ekonomikoa ere lortzen dute. Dagoeneko ikusi dugunez, baten batzuek espetxe-onurak erdiesteko edo emakume presoaren estigma konpentsatzeko baliatzen dituzte familia-erlazioak; baina bistakoa da harreman horiek askoz haratago doan garrantzia dutela gehientzat. Orokorki, euskarri dira, baita ihesbide ere, bizipen mingarrietatik salbuetsita ez egon arren.

Aurretik jada aipatutako moduan, emakume preso gehienek oso presente dituzte senide zein bikotekideak, eta gehientzat mingarriena ez da kartzelako murruekin artean egotea, maite dituzten horien eta euren ardurapean dauden horien ondoan ez egotea baizik. Oro har, askok sentitzen dute senitartekoei huts egin dietela (Juliano, 2009a, 2011; Aguilera, 2011). Erruduntasuna bizi dute mintu dituztelakoan, haienezako zama direlakoan, baita babesgabe utzi dituztelakoan ere. Ohizko rolak betetzeko ezintasunak min ematen die; batez ere, euren ardurapekotzat dituzten horiekiko zaintza-lanak egin ezin izateak. Ama, alaba edota amona txarrak ere sentitzen dira batzuetan. Kezka eta buruhauste handiak dituzte jazo daitekeenagatik. Bikote-erlazio asko bukatzen direnaren jakitun, baita ama

askok seme-alaben tutoretza galtzen dutenaren jakitun ere, euren erlazioak hondatzearen edo gaiztotzearen beldur dira. Askotan, burua berotzen dute euren rola nola mantendu pentsatuz, harremanak nola iraunarazi hausnartuz edo, kartzelak ezarritako distantziatik, presente nola egin asmatuz (Nari *et al.*, 2000; Cunningham, 2006; Mignon eta Ransford, 2012; Granja, Cunha eta Machado, 2012; Cunha eta Granja, 2014). Zalantzarik gabe, itxialdiak gorabehera emozional handiak eragiten dizkie. Hala, arruntak dira egonezina, etsipena, frustrazioa, amorrua, atsekabea edota nahigabea. Hori guztia dela eta, agerikoa da emakume atxilo gehienentzat presondegitik landa daudenekiko kontaktu-aukerak ez direla nolanahikoak.

Aurrez aurreko bisitak, lokutorioetako bisitak, telefono-deiak eta gutunak dira espetxe-sistemak presoek eskura jartzen dituen komunikazio-moduak. Guztiak zeharo araututa eta kontrolatuta daude; bai maiztasunari zein iraupenari dagokienez, bai hartzaileari edo jasotzaileari dagokionez, baita nolakotasun orokorrari dagokionez ere. Hartara, presoek ezin dute edonola komunikatu; ez edonoiz, ez edonon, ezta edozeinekin ere. Egitate hori bereziki gogorra da bikote- edota familia-arazoren bat dagoenean; esaterako, eztabaidan aritu direnean, ezbeharren bat dagoenean edota senitartekoren baten heriotza gertatzen denean. Baina, halaz ere, ezin dugu ahaztu atxiloek komunikatzeko bide ez-ofizialak ere badituztela; kasu baterako, batzuentzat gutxi-asko ohizkoa delako telefono mugikorrek ezkutuan erabiltzea, kartzela-araudiak zorrozki debekatuta egonagatik ere. Orokorrean, elkarrizketatutako emakume preso gehienek iritziz, komunikazio-bide ofizialak eskasak bezain ezegokiak dira harremanak behar bezala zaintzeko eta mantentzeko. Ia denek bat egiten dute adierazterakoan, murruekin artetik, komunikazioa ez dela erraza; kudeatzeko nahiko zailak diren emozioak pizten direlako, tentsio konplexuak sortzen direlako, baita komunikazio-markoak eta adierazpen-moduak ezohikoak direlako ere. Baina, zailtasun horietaz gain, eta bakoitzaren hartu-emanen edo gizarte-sareen nolakotasunetik harantz, aintzat izan behar dugu baldintzen eta posibilitateen testuinguruan kokatzen diren arazo baten batzuk ere badaudela. Adibidez, emakume presoetako batzuek egoera ekonomiko kaskarra dute eta, hortaz, ezin dituzte nahi beste erosi telefonoz deitzeko txartelak, ezta gutunak bidaltzeko gutun-azalak eta seiluak ere; orobat, senitarteko batzuek ezin dituzte nahiko lituzketen bisita guztiak egin, joan-etorriak ordaintzeko zailtasunak dituztelako; atxiloetako batzuek, atzeritarrek gehienbat, urrun dituzte sostengu-sareak eta batzuetan, hori dela eta, ez dute bisitarik izaten; era berean, atzerrira deitu nahi dutenek deien kostu

altuagoaren eta ordu-diferentziaren trabak dituzte; etab. Agerikoa da, beraz, giltzapean harremanak ezinbestean aldatzen direla.

Alabaina, komunikazio-aukera horien hutsuneak hutsune, elkarrizketatutako emakume gehienek suerte bateko edo besteko kontaktua izan dute euren senide eta bikotekideekin. Gehiengoaren ustez, preso zaudenean, familia da euskarri edo sostengu garrantzitsua; aurrera egiteko eta ez hondoratzeko, indarra edo kemena ematen dizun eragile nagusia. Senitartekoen babesa, laguntza eta elkartasuna munta handikoak direlakoan daude.

Esandakoaren adibide bezala, Saioa, Amparo, Aitana eta Juliaren hitzak ikusiko ditugu; bada, familia-bizipen anitzak izanda ere, denek bat egiten dute baieztatzean kartzelaldia jasateko heldulekurik garrantzizkoena kanpoan dituzun horiek osatzen dutela, nagusiki, senitartekoek. Honelaxe diote:

«Saioa: En la gente que llevas afuera tienes que pensar.

Amparo: En tus hijos.

Aitana: ¡En tus hijos!

Julia: ¡En tus hijos!

Aitana: Y lo que tienes afuera.

Amparo: Tus hijos, tu madre...

Saioa: Lo que tienes afuera. Tienes que fijarte en eso. Si no, puedes quitarte la vida o...

Julia: Yo mi psicólogo, por ejemplo, no lo tengo, pero tengo el pensamiento en mi familia, tengo el pensamiento en mis nietas... [...] “Voy a pensar sólo en procurar salir, por mis nietas, por mis hijos, por... por mi familia”, porque eso te da vida.

Amparo: Es verdad.

Julia: Te da vida. ¡Es lo que te mueve!

Saioa: Es lo que te sostiene ahí, para que no te caigas.

Julia: Es que si no fuera por eso... La gente que no tiene familia a mí da pena. Te lo juro. Porque es horrible. Tiene que ser horrible... ¡Un palo! ¿Que nadie te vaya a ver o que no puedas depender de una familia? Es que si no fuera por los hijos o los nietos o los familiares... ¡estaríamos a matarnos! ¡Todas!

Amparo: Sí. Es como yo. Yo tengo... Bueno, yo he sufrido mucho ahí dentro por... bueno, por cosas, y lo que me ha sacado adelante son mis hijos. ¡Por ellos estoy aquí! Si no, yo creo que yo no estaría aquí. No, no.

Julia: O, si estás, estarías a lo mejor de otra manera.

Amparo: Exactamente. ¡Estaría perdida!

Julia: Claro.



Amparo: Pero por ellos. Por ellos estoy yo aquí ahora»  
(Saioa, 23 urte; Amparo; Aitana, 47 urte; eta Julia, 53 urte).

Ildo beretik, Angiek ere dio senitartekoak izan direla giltzapetzea jasateko sostengurik garrantzitsuena. Alta, gorabeherak izan ditu haiekiko hartu-emanean eta biziki sufritu du horregatik, bakardade handia sentitzeraino. Antzaenez, hasiera batean, senideengandik urrutiratu egin zen, baina, geroago, erlazio ona berrekuratu zuen ia guztiekin; bereziki, Kolonbian bizi direnekin. Egun, aita da hitzik egiten ez dion bakarra. Hala adierazten du familiaren babesak eta maitasunak zer-nolako garrantzia duten itxialdiari aurre egiteko:

«Pensaba en mi... en mi familia. En mis hermanos. [Etenaldia] Yo tengo un hermano pequeño que es mi adoración. Y pues siempre cuando iba con mis... con mi hermano mayor, me decía “Nana, quiero que salgas pronto, para que nos... ¡Vamos al parque!”. Porque estaba muy pequeño a su tiempo. Entonces, eso me daba aliento, ¿no? Yo estaba así... puf... ¡destruida! Y de un momento a otro me decía “Que te quiero ver, Nana. Quiero que salgas pronto. Nos vamos a la playa o lo que sea”. Entonces, es como que dices “¡Buah!”. ¿No? “Tengo que salir, al menos para estar...”, ¿no? Como que te llena ahí, te llena como de fuerza, de ímpetu, y dices “Venga, va, vamos, puedo con todo. A tomar por saco”. Pero por dentro puedes estar destruida. Pero te pueden más las ganas, ¿no? El... la emoción de que alguien te está esperando, de que alguien te anhelé... ¿no? Que te extrañe, como tu extrañas a las personas de fuera. Eso te llena de valor para seguir y decir “Venga, lo que sea. Lo que sea. Lo que sea me lo llevo”. ¿No? [Barreak] Yo creo que la familia influye mucho en las personas. El cariño. El cariño te hace llenarte de fuerzas» (Angie, 22 urte).

Orobat, Ritaren adierazpenei ere helduko diegu; familia-egoera nahiko konplexua izanik ere, baiesten baitu senitarteko zenbaiten babesak nahiz konfiantza funtsezkoak izan direla espetxealdiari aurre egiteko. Brasildarra jaiotzez eta euskal herritarra aspalditik, Ritaren hango naiz hemengo familia-loturak hartu behar ditugu kontuan; bere esperientzian, bai batzuk eta bai besteak baitira aipagarriak. Hala, duela hainbat urte, Brasiletik Espainiara emigratzea erabaki zuen; eta tarte batez Madrilén bizitzen eta lan egiten egon zen, harik eta bere senarra izango zena ezagutu, eta berekin Euskal Herrira joan zen arte. Bikoteak hiru seme-alaba izan zituen; Rita zen euren zaintzan aritzen zena nagusiki. Elkarrizketan azaltzen duenez, hasiera batean, senar-emazteen harremana ona zen; baina, geroago, gizonaren jarrera aldatu egin zen, Rita irainduz eta fisikoki ere kolpatuz. Azkenean, urte batzuen buruan, dibortziatu egin ziren, eta Rita seme-alabekin gelditu zen. Bere iritziz,

une horiek zinez gogorak izan ziren beretzat eta horregatik hasi zen legearen kontrako drogak hartzen. Trafikatzailea zen gizon batekin bikote-erlazioa ere abiatu zuen orduan; hain zuzen ere, horri lotuta bukatu zuen espetxean. Ertzaintzak euren etxebizitzan droga mordoa aurkitu ostean eta Ritak, drogaturik, bere seme gazteenari alkohola eman ziola jakin ostean izan zen kartzelaratua, haurrei kalte egin izana eta delituzko banda bati lagundu izana egotzita. Seme gazteenaren tutoretza galdu zuen, baita harekiko urruntze-agindua jaso ere. Itxialdian egindako denboran, ez zituen seme-alabak sekula ikusi; bere senar ohiak ez zuelako onartu. Egun, alaba nagusiarekin badu nolabaiteko hartu-emana; ez, ostera, gazteagoak diren bi semeekin. Hori izan ei da beretzat kartzelaren alderdirik samingarriena eta hunkitu egiten da gogoratzean. Nolanahi ere, Euskal Herrian zeuden senitartekoekin kontakturik ez izan arren, beste familia-juntura batzuk berebizikoak izan dira beretzat; urruntetik, Brasilgo senideen erabateko laguntza eta elkartasuna izan baitu. Honela azaltzen du babes horren munta:

«Gloria a Dios, gloria a Dios y a la familia que tengo, que oran mucho por mí, ¿sabes? Nunca me ha dejado tirada. Nunca. [...] Siempre tuve a mi familia. “Nosotros sabemos que tú no has hecho esa atrocidad que te están acusando”. Mi hermana. Y mi mamá siempre ha acreditado en mí. Y eso me ha dado mucha fuerza. ¿Entendes? Para sair<sup>227</sup> adelante. Porque es impresionante lo que... lo que una familia... [*Hunkituta*] ¿Sabes? [*Arnasa hartzen du sakon*] Te... te ayuda en un momento de esos, ¿sabes? La minha familia sí que todos de mi parte. Mi mamá me hablaba “Hija, yo sé que tú no has hecho eso con tus niños. Eu sé que tú has estado tomando esa sustancia y todo eso. Pero tú no has hecho eso con tus niños. Mamá sabe, cielo”. Todo eso me ayudó para sair adelante» (Rita, 53 urte).

Espetxeratutako emakume gehientzat familiarreko harremanak hain inportanteak izanik, asko komunikazio-uneak izateko irrikan daude. Kontaktu-aukera horiek gabeziak izan arren, ahalik eta gehiena aprobetxatzen saiatzen dira; bateratze-momentu horiek indarra ematen dietelakoan edo presondegian daudela tarte batez ahazteko abagunea eskaintzen dietelakoan.

Elenak, kasu baterako, senideekiko kontaktu-uneak energia- edota indar-txute moduan gogoratzen ditu. Kartzelan egin dituen urte luzeetan, familiaren babesa eta laguntza izan du; eta zinez garrantzitsua izan da beretzat, haiengan pentsatuz lortu baitu espetxealdiak

---

<sup>227</sup> Portugesez, atera.

jasateko kemena. Familiarekin komunikazioa maizkoa izan ei da. Azken espetxeratzean, ahizparen eta alaba zaharrenaren bisitak izan ditu, eta gurasoekin telefonoz hitz egin du, presondegira joatea gogorregia egiten zitzaielako. Haatik, ez ditu adinez txikikoak diren bere beste hiru alabak aspaldian ikusi; haien tutoretza galdu baitzuen, kartzelatzean eta droga-menpekotasunaren ondorioz. Hirurak elkarrekin daude harrera-familia batean, eta harrera-gurasoekin ondo zainduta daudela jakiteak Elena lasaitzen du; baina harremana berreskuratu nahiko luke haiekin. Senideekin komunikatzeko giltzapeko aukerei buruz, honakoa dio:

«La verdad, era... ¡recargar! Era recargar. Recargar energía. Darne fuerza. [Etenaldia] Era sentirme apoyada. Sentirme arropada de saber que estaban ahí. Esperándome. O sea, estaban conmigo y estaban esperándome. [...] En ese sentido, vamos, muy arropada. Siempre he estado... Estoy muy arropada» (Elena, 39 urte).

Miriamentzat ere, familiarekin kontaktu-uneak oso garrantzitsuak izan dira, nahikoa ez izanagatik ere. Izan ere, senitartekoak munta handikoak dira beretzat eta zinez mingarria izan da haiengandik urrutira egon behar izatea. Batik bat, bi alaba gazteenen ondoan ez egoteagatik sufritu du, alaba zaharrenaren ardurapean ondo zeudela jakin arren. Senide guztien elkartasuna izan du aldiro; eta, ahal bezala, harreman hurbila mantentzen saiatu dira. Honela adierazten du, mugak muga, kanpoko bisitek nola lagundu dioten kartzela une batez ahazten:

«El ratito que estás con las personas que vienen de la calle... olvidas un poquito. Casi como que lo olvidas, ¿sabes? Y no estás ahí... Ese rato teníamos. Pero dura mu poco» (Miriam, 39 urte).

Alabaina, kontuan hartu behar dugu emakume atxilo guztien esperientziak ez direla beti halakoak, komunikazio-uneei dagokienez. Izan ere, hainbatentzat kontaktu horiek zinez gogorak eta samingarriak dira; lur jota uzten dietelako, baita erruduntasunak edo lotsak gainezka egiten dielako ere. Hala, presoetako batzuek kontaktua murrizteari ekiten diote edo komunikazio-era batzuk baztertzeari. Hautu mugatzaile hori, aitzitik, ez da senideen garrantzia nabarmentzearekin bateraezina. Are gehiago, gehienetan, nolabaiteko babes-estrategia dirudi, emakume presoek euren edota euren senideen sufrimendua gutxitzeko erabilitako praktika, ongizatea areagotzen saiatzeko jardunbidea.

Adibide moduan, Altagraciaren kasua aipa dezakegu; zeinak, senitartekoak oso presente izanda ere, kontaktu-mota askori uko egin zien, egokiena zelakoan. Esaterako, itxialdian egindako urtebetean, bere hiru seme-alabekin harremanetan egon zen –bi gazteenek ama preso zegoela ez jakin arren–, baina ez zuen haien bisita bakar bat ere izan. Era berean, senar ohiaren laguntza eta sostengua izan zuen, baina harekin aurrez aurreko bisitak eta telefono-deiak egin zituen nagusiki; lokutorioko ikustaldiak ahalik eta gehien murriztu baitzituen, mingarriegiak zirelako. Honela azaltzen du zergatik sufritzen zuen hainbeste kristal bidezko bisitekin:

«Lo que para mí ha sido más difícil ha sido los... los locutorios. Eso es muy difícil. [...] Es... ¿Sabes lo que es estar ahí con una persona? Bueno, cuando la primera vez que fue Joseba, el papá de mis hijos a... a [Alcalá-]Meco, que es... Es que fue... Yo no pude ni hablar. ¡Fue una cosa...! Si es que no sé ni cómo decirte, me... ¡puf! A mí me pareció muy frustrante, negativo. Yo eché para atrás un mes de... de lo que había adelantado. Fue muy difícil tenerle ahí... No poder escucharle bien, no poder tocarle... [...] Para mí es deprimente. Tener a la persona ahí enfrente y ni siquiera poder tocarle. Es muy muy deprimente. Y mira que en [Alcalá-]Meco, ya que tienes... Cuando tienes confianza y tal, algún funcionario te deja... o deja entrar a personas ahí un poquito, por lo menos para que te toque y tal. Pero es que... eso sin tocar a la persona, estar ahí casi una hora, a mí... ¡Puf!» (Altagracia, 35 urte).

Mertxek ere, Altagraciaren antzera, alde batera utzi zituen komunikazio-aukera batzuk; bai bisitak bai telefono-deiak murriztu baitzituen. Bere ustez, kontaktu-bideak urriegiak dira eta, gainera, lur jota lagatzen zaituzte. Berak, zehazki, izugarri sufritu du kartzelan alaben ondoan ez egoteagatik, baina nahiago izan du haiekin harremana apur bat hoztu eta presondegi barruko bizimoduan zentratu, aurrera egitea pisutsuegia zelako bestela. Hasiera batean, bere alabak izan ziren ez zutenak ama ikusi nahi, lotsaturik eta haserre zeudelako; geroago, babesa eta sostengua eskaini ziotenean, Mertxe izan zen kontaktua pixka bat gutxitu nahi izan zuena, alabekin elkartzean erruduntasunak txikitzen zuelako. Ikus dezagun nola argudiatzen duen bere erabakia:

«Que para una vez que viene tu familia es un... cuarto de hora, veinte minutos, se te hace cinco. ¡Y te quedas peor! ¡Te quedas peor! ¡Se te hace más larga la espera! Yo casi ni llamaba por teléfono, porque cogía unos berrinches tremendos después. O sea, yo me ahogaba, me entraba una pena... una tristeza... Casi es mejor no pensar, ¿sabes? Es como... como querer que pase el tiempo, pero sin recordar sentimientos para no hacerte

daño. Para que no te duelan. Te haces igual más insensible. Sí, sí. Pues, para no sufrir. [Etenaldia] Tienes que tener capacidad para olvidar todo aquello, o sea, para pensar cuanto menos en lo que te preocupe. Porque es cuando te entran las ansiedades, puedes caer en depresión... Y todo eso hay que tener fuerzas y... y controlarlo. Y yo creo que lo he podido controlar. Lo he sabido controlar» (Mertxe, 61 urte).

Aitzitik, kasu batzuetan, eurentzat baino, senideentzat delako nekosoia erabakitzen dute emakume atxiloek komunikazioa gutxitzea. Hori da, hain zuzen ere, Aitanak esandakoa. Bere bi espetxeratzeak kontuan hartuta, preso egin dituen urte guztietan zehar familiaren babesa izan du; batik bat, gurasoena. Lehen kartzelatzean, senitartekoen bisita ugari izan zituen. Alabaina, bigarren aldian, itxialdian sartu eta hilabete gutxitara, senideei adierazi zien ez zuela inolako bisitarik nahi; telefonoz hitz egingo zutela eta irteera-baimenetan haiek ikustera joango zela, baina besterik ez. Aitanak ez zituen presondegian ikusi nahi, senideek ez zutelako hori merezi eta guztientzat mingarria zelako. Zergati berberengatik ezetz esan zion alaba gaztea kartzelan berekin batera egoteko aukerari. Ez zaio bidezkoa iruditzen haurrak espetxean egotea; eta, gainera, eurentzat benetan kaltegarria delakoan dago<sup>228</sup>. Horrenbestez, kartzelan sartu zutenean, bere ahizpari eman zion hiru hilabeteko alabatxoaren zaintza. Aitanak senideengan pentsatuta lortu du aurrera egiteko indarra, egoera jasateko kemena. Oso gogorra izan da haiengandik aldentzea; baina bere hautua hori izan da, zuzenena zelakoan. Bere hitzetan:

«Esta condena a mí no me ha venido nadie a visitar. Llevo nueve años y medio y mi familia no me ha venido a visitar. Ya tiraron la otra condena y... no les voy a castigar, que la que ha delinquido he sido yo. No mi familia. [Etenaldia] Pero yo con mi familia fenomenal. Tengo muy buena relación. De hecho, es que somos... Bueno, ahora somos diez hermanos y... me hablo con todos. Y me relaciono con todos muy bien. Y con mis sobrinos, con mis hijos... O sea, en ese sentido, con la familia siempre muy bien. ¡Soy la niña pequeña! ¡Soy la bonita de casa, maja! [Barreak] [...] Pero siempre por teléfono. Yo con mi familia siempre me he relacionado por teléfono. [...] Aparte, mi padre... en paz descansa, era muy mayor, mi madre también, y mis hijos ya tiraron la otra condena, los pobrecicos, con 9 y 6 años. Y... ¡qué va! No necesito a nadie para seguir... ¡para sobrevivir! Y para seguir luchando» (Aitana, 47 urte).

---

<sup>228</sup> Espetxean bizi diren hurrek jasandako gabezien eta baldintza desegokien inguruan sakontzeko, baita presondegian seme-alabekin egotea edo ez egotea erabakitzeak amei eragindako sufrimenduaren inguruan barrendatzeko ere, ikus Vara (2011), Gea, Domínguez eta Sádaba (2014).

Era berean, Kontxik ere eskatu zien senideei bisitak egiteari uztea. Giltzapean egindako denboran, haien babesa eta laguntza izan zuen beti. Baina hainbat urtez haien bisitaldiak izan eta gero, une zehatz batean, nahikoa zela erabaki zuen, haientzat gogorregia zelako, eta beretzat ere bai. Beste emakume preso askoren gisan, senitartekoak gogoan edukita lortu zuen egoerari eusteko ahalmena; eta okerrena bere hiru alaben aldamenean egon ez izana izan zela dio, haien tutoretza galtzeko zorian ere egonik. Alabaina, momentu jakin batean, bisitei amaiera ematearen alde egin zuen, eta honelaxe azaltzen du burubidea:

«Mi familia toda, siempre estaban allí pendientes. Iban todos los fines de semana, hasta que al final yo les dije que no, que dejaran de ir. Mi padre un día fue y me dijo “Kontxi, yo... cada vez que vengo me impresiona muchísimo la cárcel”. Le dije “Papá, deja de venir. No te preocupes, no pasa nada”. [*Arnasa hartzen du sakon*] Mi familia seguía yendo, seguía yendo a los [vis a] vises, y al final, ya me cansé y les dije “No. O sea, esto es una tortura, de que estéis todos los fines de semana aquí, de que vengáis una vez o dos veces al mes a tener los [vis a] vises. No. Dejarlo. Total, más tarde o más temprano...”. No tardaron ya mucho en darme los permisos. [...] A mi familia le dije que ya valía. Yo cada vez que veía a mi madre ahí tan viejita, cada vez más viejita... dije “No. No me vengáis más que...”. Ellos tenían su calvario y yo lo pasaba fatal cada vez que la veía. Dije “No”. Dije “Hala, descansar que ya esto... Ya está... Lo peor ya está pasado. Ya no tardaré mucho en salir”» (Kontxi, 48 urte).

Julia ere dugu familiarekiko kontaktua gutxiagotu nahi izan dutenetako bat. Hala, nahiz eta ez duen ukatzen itxialdiaren garraztasuna jasateko senideengan pentsatu duela, batik bat emakume bakarzale bezala deskribatzen du bere burua; konpainiarik onena zakurra dela baietsita, baita bizitzan aurrera egiteko ez duela inoren beharrik azpimarratuta ere. Dirudenez, hartu-eman tirabiratsuak izan ditu bere alaba bakarrarekin, preso sartzearen kausaz. Hori dela eta, tarteka, abandonatuta eta baztertuta sentitu da; egun, euren arteko erlazioa zertxobait hobea bada ere. Bere lehen espetxeratzean, Juliak alabaren eta biloba bikien bisitaldiak izan zituen. Baina, bigarrenean, bisitan ez joatea eskatu zien; senideak babesteko, aukerarik onena eurak ez nahastea zelakoan. Honela azaltzen du:

«Yo soy yo, pero mi hija no tiene por qué pasar por una cárcel, por una cosa que no ha cometido. La primera vez, cuando mis nietas eran pequeñas, sí fueron a la cárcel a verme, con mi hija y mi yerno. Pero ahora con 10 años, pedí que por favor que no, aparte que... yo no quiero que mis nietas sepan ahora que estoy en la cárcel, ¿no? Ellas piensan que estoy en Vitoria trabajando en una clínica de ancianos y tal y cual. Mentiras

piadosas... por no hacer daño, ¿no? Porque son unas niñas. No tienen por qué saber los problemas de los mayores. Es mi manera de verlo. Yo soy yo, y a mí me puede venir todo, pero ¿mi hija y mis nietas? No. Es privado. Sí. Lo dejo estancado. Mi hija antes no me apoyaba, pero ahora me está apoyando súper... bastante» (Julia, 53 urte).

Juliaren hitzetan nabari daitekeenez, senideengandik urrutiratzea haiek zaintzeko modua izan da; baina, horrekin batera, baita bere burua babesteko era ere, kasurako, emakume presoaren estigmaren balizko ondorio negatiboak saihesteko mesedegarri izan baitzaio. Ildo beretik, bere onerako, Juliak barruko bizimoduan zentratzea eta kanpokotik pixka bat aldentzea hautatu du; hala, itxialdia zertxobait jasangarriago egin baitzaio. Honela gogoratzen du nola ez dituen zenbait kontu jakin nahi izan:

«Tú tienes que olvidarte de lo de fuera y pensar en lo de dentro. [*Etenaldia*] Si tú desconectas la calle con la cárcel, te va bien. Si mezclas las dos cosas, no te va bien. Yo cuando... Mira, cuando venía mi marido a comunicar<sup>229</sup> ahora, yo no quería hablar de la calle. Solamente le preguntaba por mis nietas y por mi perra. Mi perra, por supuesto. Ante todo. Lleva quince años conmigo [*Barreak*] y es mi vieja, y es mi chafardera y esa me lo chiva todo. Pero no quería saber nada de la gente» (Julia, 53 urte).

Azken aipu horietan guztietan begi-bistakoa denez, emakume presoetako askok familia zaintzeko eta babesteko ahaleginak egiten dituzte. Azken finean, genero-eredu nagusien testuinguruan, emakume askok barneratzen dute senitartekoen ongizatea bermatzearen zeregina. Espetxeko hormetatik kanpo, aunitzek heltzen diote lan horri; eta, giltzapean ere, oztopoak oztopo eta mugak muga, ez dira gutxi ardura horri ekiten diotenak, nahiz eta kartzela-baldintzek zainketaren nolakotasuna aldatzera edo zaintze-modu «berriak» aurkitzera behartzen duten. Senideak zaintzeko eta babesteko nahi horren baitan ulertu behar ditugu, esate baterako, emakume presoaren ondorengo jardunbideak: bisitaldietan, ondo egotearen itxurak egiteko eta familiari irudi positiboa helarazteko, oso dotore eta apain jartzea; bisitariarentzat askariak prestatzea; senideentzat kezka-iturri izan daitezkeen zenbait kontu isiltzea; haurrei eta egia kostata onartuko duten helduei kartzelan daudela ezkutatzea eta bestelako bertsioak ematea; familiari dirua bidaltzeko, edo familiak eurei dirua bidali behar ez izateko, gaizki ordaindutako enpleguetan eta estrategia ekonomiko alternatiboetan aritzea; etab. Era berean, aintzat hartu behar ditugu, espetxeak ezarritako distantziatik, euren maitasuna adierazteko edota euren presentzia indartzeko erabilitako

---

<sup>229</sup> Espetxe-sisteman, harremanetan jarri.

hainbat eginbide ere. Bada, kasurako, ohikoa da emakume atxiloek presondegian eskuz egindako opariak bidaltzea euren senitartekoei. Eurek egindako edo beste presoen bidez lortutako marrazkiak eta erretratuak izan ohi dira, baita apaindutako orriak zein gutun-azalak ere, eskumuturrekoak, kakorrazt-lanak nahiz brodatuak, etab. Zalantzarik gabe, batzuk zein besteak familiako partaideak zaintzeko moduak dira. Baina ezin ukatuzkoa da, kasu askotan, euren buruak babesteko bitartekoak ere badirela; finean, urruntasunaz gaindi, senitartekoen artean presente jarraitzeko balio baitute, ohiko rolak nola edo hala mantentzeko, hartu-emanak iraunarazteko, baita estigmaren kalteak saihesteko ere.

Altagraciak, arestian aipatutako moduan, preso egindako denboran seme-alabak bisitan ez joatea hautatu zuen. Alabaina, hutsunea konpentsatzeko, haurren egunerokotasunean presente segitzeko baliabideak aurkitu zituen. Soilik seme zaharrenak zekien ama atxilo zegoela; beste biei epealdi batez kanpoan lan egin behar zuela esan baitzien. Hirurekin mantendu zuen erlazioa telefonoz, baita gutunen bidez ere, eta, ahal izan zuen guztietan, eskuz egindako opariak bidali zizkien; Altagraciak berak egindako edota beste presoei erositako eskulanak. Bere hitzetan:

«Diez llamadas a la semana. Pues diez llamadas a los niños. A los niños o... o, entre ellas, alguna a su padre, pero a los niños. Cartas y sobres para los niños. Mandarles cosas, tal... Aprendí a hacer de todo: dibujos en hilo, pulseras de tal, pulseras de cual... ¡de todo! Les mandaba de todo a los críos. Siempre hecho» (Altagracia, 35 urte).

Altagraciaren antzera, Nieves ere aritu da opariak egiten eskuz, senideei bidaltzeko; eta, era berean, seme-alabek nolabaiteko ongizate ekonomikoa erdietsi arte, dirua bidali die aldizka. Dirudienez, itxialdian egindako denboran, gogoan izan ditu beti senitartekoak eta biziki sentitu du euren falta; batez ere, seme-alabena eta bilobena. Egoerari eusteko, euren gan pentsatu du, nahiz eta samingarria ere izan. Harreman ona mantenduta ere, erlazioak aldatzea saihestezina dela uste du, baita familia-alderdi asko berreskuraezinak direla ere. Hori dela eta, senideei buruz hitz egiteak min egiten dio eta gaiari ihes egiten saiatzen da. Presondegitik kanpo daudenekiko kontaktu-bideak zinez eskasak direlakoan dago, hartu-emana egokiro mantentzea kasik ezinezkoa dela salatuta. Lotura indartzeko, kanpora atera daitezkeen gauzak egiten ahalegindu dela azaltzen du honela:

«Hacer unas toallas de punto de cruz para mi hija, con su nombre, para mis nietos... Hacer cosas... que puedas sacar al exterior luego. Una bufanda bonita, un...» (Nieves, 61 urte).



Orobat, Miriamek ere ekin zion eskulanak egiteari, bere alaba gazteei bidali ahal izateko eta, nola edo hala, haiengana gerturatzeko. Kontent, bere opariak jasotzean alabek ilusio handia zutela adierazten du honela:

«Mandaba los dibujitos que me daba el monitor, cosas... Les pintaba, les hice unos cuadros pa' las niñas... Estuvimos haciendo y les mandaba cosas. Hacíamos unas muñequitas con unos trapos, pa' las niñas les mandaba. Sí... Se ponían contentas cada vez que mandaba algo. No se lo creían» (Miriam, 39 urte).

Aitzitik, opariak bidaltzearekin batera, Miriamek bestelakoak ere egiten zituen familian presente egoteko, baita senitartekoak zaintzeko ere. Kasu baterako, bisitaldietan, askaria prestatzen zuen, senideentzako askotarikoak erosiz: kafea, tea, zukua, txokolatea, etab. Era berean, beregatik kezkatu ez zitezen, apain-apain jartzen zen eta negarrez ez hasteko esfortzua egiten zuen. Ikus dezagun nola azaltzen duen:

«Cada vez que bajaba [a comunicar], bajaba mu bien, bajaba mu guapa, pa' que me dirían... o pa' que no me verían mal. Procuraría de no llorar cuando se iban. Me costaba mucho, pero... Ellos, si me ven llorar, digo "Van a estar mal, se van a ir mal... las niñas también...". Procuraba de no llorar, de reírme... de despedirme bien de ellos, estar contenta... Todo eso. Es mucho... Sí. Aunque me iba pa'riba luego ya... Pero, ¿en el momento de irme? Aguantaba y... Luego ya, sí. Pero luego ya cuando subía arriba. A llorar. Ya cuando se iban ellos. Ya cuando me subían pa'riba, ya empezaba a llorar. Pero... no quería ponerles mal a ellos» (Miriam, 39 urte).

Saioak, bere aldetik, antzeko bizipena mahaigaineratzen du. Izan ere, bera ere saiatu zen beti senideei irudi positiboa helarazten bisitetan, beregatik arduratu ez zitezen eta gaizki pasatu ez zezaten. Hala, bisitaldietarako apaindu eta makillatu egiten zen, eta irribarre egiteko ahalegin berezia egiten zuen ere bai. Familia izan zen beretzat itxialdia jasateko heldulekurik garrantzitsuena; eta, une oro, gurasoen eta ahizparen babesa eta sostengua izan zuen. Izugarri sentitu zuen senitartekoen falta, eta kezka handien iturburu izan zen haiei mina edo kaltea ez eragitea. Bere hitzetan:

«Me ha faltado mucho mi familia. [Etenaldia] Cuando llegaban, tenías que ponerte lo mejor, ¿no? Para que te vieran bien, alegre. Es una sonrisa falsa, pero... Bien. Primero fueron a una comunicación y luego a un vis a vis. [...] Les he echado mucho en falta. [Etenaldia] Todo, vamos. Todo lo echas en falta. [Etenaldia] ¡Si no tienes la libertad, no tienes nada! [...] Cada vez que hablabas con ellos o algo, no podías ponerte mal. Yo,

por lo menos, no podía, por... porque ellos son... Los pones mal a ellos, se comen la cabeza fuera ellos... que mi padre también... No sé... [Etenaldia] Es mucho, ¿no? Porque es que también... te lías a pensar en que hay para sentirse muy nervioso o “Que no me vea mal” o... No sé... Es muy fuerte para una madre también» (Saioa, 23 urte).

Nolanahi ere den, eta giltzapetutako emakume gehienek mota bateko ala besteko kanpo-kontaktua izan arren, kontuan izan behar dugu hainbatek ez dutela inolako sostengurik jasotzen familiaren partetik. Batzuetan, espetxeratzearen aurretik harremana jadanik ez zelako ona gertatzen da; besteetan, senideentzat kartzelaratzea disgustu izugarria delako izaten da, edota itxialdiko tentsioek sortutako tirabirek azkenean hartu-emanak hausten dituztelako. Halaber, aurretik jada adierazitako moduan, ezin dugu ahantzi emakumeek erlazioen haustura handiagoa bizi dutela orokorki, preso sartzearen kausaz. Gehiagotan bukatzen dira beren bikote-harremanak (Aróstegui *et al.*, 2008; De Miguel, 2010, 2012, 2016; Etxebarrieta, 2013) eta, era berean, maizago kentzen diete seme-alaben tutoretza (Manzanos eta Balmaseda, 2003; Cruells, Igareda eta Torrens, 2005a). Ikerketa honetan elkarrizketatutako emakume gehienek iritziz, kanpotik senitartekoen babesik ez jasotzea hondatzailea da; horrela baiesten dute kanpo-laguntzarik ez dutenentzat zinez mingarria dela beste batzuek bisitak, gutunak edo deiak nola dituzten ikustea.

Esandakoaren etsenplu argigarri moduan, Leireren testigantza hartuko dugu. Izan ere, itxialdian igaro dituen zortzi urteetan ez du sekula izan bere familiaren elkartasuna; eta, zalantzarik gabe, egitate hori biziki lazgarria izan da beretzat, kartzelaldiaren alderdirik samingarriena izan dela baieztatzeraino. Antza denez, senideekin harremana aurretik ere nahiko tirabiratsua zen, Leirek droga-menpekotasunarekin eta lege-hausteekin izandako gorabeheren ondorioz. Hartara, espetxeratu zutenean eta senitartekoei laguntza eskatuz deitu zienean, ezezkoa jaso zuen; gurasoek nahiago zutelako Leire presondegian egotea, kalean baino. Honela azaltzen du horrek eragin dion bakardade-sentsazioa<sup>230</sup>:

«¡Sola! [Etenaldia] O sea, más sola que siempre. O sea, si antes me sentía sola, pues allí dentro me sentí mucho más... Y más cuando llamas a tu madre, o a tu familia, pides ayuda y... y te dicen que no. O sea, a mí... La respuesta de mi madre fue muy clara. Creo que muy dolorosa, porque ella estaba pasando por una enfermedad... terminal, y me dijo que prefería morirse sabiendo que estoy en la cárcel a morirse que estoy... tirada por una esquina o que me he muerto en una cuneta, ¿no? Y que no me iba a pagar

---

<sup>230</sup> Emakumezko presoek giltzapean usu bizi duten bakardadeari buruzko testigantza gehiago ezagutzeko, ikus López Riaño (2012).

los 3.000 euros de la fianza ni... ni nada. Que tenía que aprender que en la vida las cosas se hacen y se pagan. [*Arnasa hartzen du sakon*] Entonces, pues creo que ha sido lo más duro de... de todo» (Leire, 41 urte).

Leireren kasuan antzeman dezakegunez, emakume presoek batzuetan desengainuak eta desilusioak bizi dituzte, igurikitako kanpo-sostenguek kale egiten dietelako edota hartu-emanak ustekabeko moduan ahultzen direlako. Alabaina, noiz edo noiz, erlazioak beste norabide baterantz ere aldatzen dira. Bada, kartzelaratutako emakumeetako zenbaitzuek espero ez zuten kanpo-babesa topatzen dute giltzapean sartzean. Finean, posibletasunen artean daude bai familiarreko harremanak estutzea, bai hainbat lotura berreskuratzea.

Kasu baterako, Mayak familiarekin kontaktua dezente galdu zuen Frantziatik Mexikora lekualdatu zenean, hartu-emanak guztiz ez eten arren. Haatik, espetxeratu egin zutenean, erlazio estua berreskuratu zuen, senideek elkartasuna eskaini ziotelako. Mayak ez zuen halako sostengurik espero, baina ezuste atsegina izan zen, senitartekoen babesari gogor heldu baitio itxialdiari aurre egiteko. Honelaxe adierazten ditu familiarreko harremanari buruzko iritziak:

«Pues nos ha acercado, porque en México yo no escribía ni llamaba casi. [...] Cuando llegué en la cárcel, sí que todo el mundo... y gente que no pensaba que... que iba a escribir... Subieron. Mi tío “Que todos estamos aquí. Cuando saldrás, estaremos y tal”. Entonces, me ha acercado de alguna manera a mi familia; a mis hermanitas, que también han ido creciendo. Cuando me fui a México, tenían igual 12 años, y no se daban cuenta... No éramos como hermanas de hablar de problemas, de la escuela y tal. Ahora, gracias a la cárcel, nos escribimos y me cuentan sus cosas de novios, de... cosas de adolescente. [*Etenaldia*] Eso me ha ayudado, porque sé que sin la cárcel no... no hubiéramos contactado tan bien. [*Etenaldia*] Pero al mismo tiempo, vamos, yo sé que he decepcionado a mi familia, porque... soy la única... la única de mi familia que... que se ha metido en eso. Mi familia es muy ¡normal! Vamos a decirlo así. [...] La verdad, que de ellos no tengo ninguna queja. Es más, ¡me han dado muchísimo más de lo que yo esperaba! Yo lo que esperaba es “Que no me tengan rencor y que no me juzguen”, pero luego, si no me querían hablar, lo hubiera entendido, ¿sabes? [...] A mí me ha ayudado mi familia» (Maya, 27 urte).

Bestalde, oraindaino soilik familiarreko harremanak aipatu baditugu ere, kontuan hartu behar dugu emakume atxilo askorentzat zinez garrantzitsuak direla kanpoaldeko beste

zenbait pertsonetikiko kontaktuak ere. Nagusiki, Espetxe Erakundearen partaide izan gabe, presondegiaren lan egiten duten edota boluntario moduan sartzen diren norbanakoetikiko eta elkarteetako kideetikiko loturez ari naiz. Izan ere, kartzelatutako emakumeen iritziak askotarikoak izan arren, gehienentzat hartu-eman positiboak eta inportanteak dira; batik bat, senitartekoen laguntza gutxi edo bat ere badute. Elkarrizketatutako emakume preso nahiz preso ohien arabera, laguntzeko asmoa duten banakoak izan ohi dira; eta animoak ematen dituzte, baita orientabideak eta gomendioak ere, noizik behin sostengu afektiboa ere eskaintzarekin batera. Espetxeko murrueetatik kanpoko munduarekin elkarrekintzan egoteko bitarteko direla nabarmentzen duenik ere badago; nolabait ere, kalea hurbiltzen dutelakoan, albisteak eta hizketaldi-gai berriak eramaten dituztelakoan, itxialdiko ohiko giroa jasangarriago egiten dutelakoan. Kartzelatutako emakume askoren ustez, «*vidilla*» handia ematen dute, eta ia-ia berdin du nondik edo zertarako joan diren espetxera.

Baina animoaz eta babes afektiboaz harantz, ezin dugu ahaztu kartzelatik kanpokoekin hartu-eman horiek –senideekin, elkarteetako kideekin edota boluntarioekin izan– munta handikoak direla presoentzat baita alde ekonomiko-materialari dagokionez ere. Erlazio horien bidez, batzuek diru-sartzeak izango dituzte pekulioan, baimendutako produktuez osaturiko paketeak jasoko dituzte, telefonoz deitzeko txartelak edo gutunak bidaltzeko seiluak lortuko dituzte. Aitzitik, azpimarratu beharra dago denek ez dituztela horrelako laguntza ekonomikoak. Izan ere, alde batetik, familia, elkarte edo boluntario bakoitzaren posibilitate eta irizpideen arabera dira; bestetik, atxilo bakoitzaren usteen baitakoak ere badira, batzuek ez baitute halako sostengurik onartzen, ez dutelako zama izan nahi inorentzat edo ez dutelako inoren beharrez egon nahi.

Halaber, bide ofizialetatik eta araututako esparruez bestalde, kontuan hartu behar ditugu presondegiko murrueen barrualdearen eta kanpoaldearen arteko beste zenbait interakzio ekonomiko-material ere. Emakumezko presoetako asko debekatutako produktuak edota kartzelan eskuragai ez daudenak lortzeko konpontzen dira, sartu-irtenak egiten dituzten atxiloen, espetxe-langileen zein senide bisitarien bidez, baita elkarteetako menbruen eta boluntarioen bidez ere. Batzuetan, ezkutuan sartzen dira produktu horiek; dela arroparen artean eta oinetakoetan, dela ile-mototsetan edota ile bilduan, dela gorputzaren barruan. Horrelaxe egiten da, bereziki, espetxe-sistemak debekaturiko gauzak direnean: legearen kontrako drogak, telefono mugikorak, kargagailuak, mp3 irakurgailuak, kaleko jakiak, etab. Alabaina, denak ez dira galarazitako gauzak; batzuk, sinpleki, espetxean lortu ezin

diren produktu zehatzak baitira: makillaje-mota jakin bat, marka zehatz bateko arropak eta oinetakoak, liburu konkretu bat, eguneko prentsa, etab. Batzuetan, presoek eurentzat nahi dituzten gauzak dira; besteetan, gainerako presoekin salerosketan edo elkartrukean aritzeko behar dituzten produktuak. Era berean, batzuetan dohainik eskuratutakoak dira; besteetan, ordaindutakoak. Elkarrizketatuek diotenez, debekatutako produktuak bereziki garestiak dira giltzapean, sarri kalitate txarrekoak izanagatik ere; azken finean, kartzelan halakoak sartzek arrisku handia hartzea esan nahi duelako. Izan ere, jagoletzan aritzen diren funtzionarioek kontrol-neurri zorrotzak erabiltzen dituzte. Halaz ere, begien bistan dagoenez, ezinezkoa da den-dena kontrolatzea. Orobat, aipagarria da beharginek nahita egiten dutela pentsatzen duenik ere badagoela emakume presoan artean. Esate baterako, badirudi legez kanpoko droga mordoa eta askotarikoa sartzek delatzen dela kartzelatan –kanpoan baino gehiago dagoela baieztatzeraino–; eta, hori dela eta, atxiloetako batzuek uste dute funtzionarioek, jakinaren gainean, hainbat droga-kopuru sartzek lagatzen dutela –horrela presoak lasai egon daitezken– edo, areago, funtzionarioek eurek sartzek dutela. Nolanahi ere, argi dago emakume presoak gauza direla itxialdia zentzu horretan ere gaintzeko; neurri batean, behintzat.

Esandakoaren adierazgarri, Kontxiren hitzei helduko diegu. Izan ere, bisitatzailen zein espetxe-funtzionarioen bidez, kartzelan denetarik lor daitekeela baiesten du. Berak, kasu baterako, itxialdian askotariko drogak hartu zituen eta bi telefono mugikor izan zituen. Ikus dezagun nola deskribatzen duen egoera:

«Allí las drogas entran. Lo mueven. Primero decían que las entraban por... por los [vis a] vises. Entran por los [vis a] vises. Pero es que... yo llegué hasta el punto de conocer el ambiente que... Es que... ya los funcionarios las metían. Los móviles los metían los funcionarios. Te cobran 400-500 euros y tenías un móvil. Recogías un... recogían un paquete, y a la noche te abrían la puerta y te lo daban. Te decían “Escóndelo, y... como me delates, ya sabes lo que tienes”. Los propios funcionarios te meten. O sea... ¡tienes que dar con el adecuado! ¡Ahí tienes lo que quieres! Consigues lo que te dé la gana, siendo... Sabiendo cómo manejarte, cómo moverte y teniendo pasta, consigues lo que quieras. Ya no solamente en [vis a] vises, que tú lo hagas, sino porque es que los mismos funcionarios te meten. O sea, que por eso digo que... allí la droga abunda. [...] Yo pues igual le decía a mi hija, ¿no? Pues, la única manera de que pudiera dormirme, aparte que me dieran la medicación, dormir relajada, era fumando un porro por las noches. Entonces, pues mi hija me llevaba pues igual un cacho de chocolate para todo el

mes. Me lo fumaba con mi compañera. Y si alguien me pedía, y le podía sacar provecho y lo que yo me fumaba me saliera gratis, le sacaba provecho. Pero sabía a quién se lo daba o a quién se lo vendía. [...] El problema es que había demasiada droga. Y cuando no la metían los presos, ya eran los funcionarios. Y la metían a saco. [...] Las drogas pues entraban por los [vis a] vises, al principio. Luego, ya se fueron enmarronando los funcionarios. [...] A ver, ¿te parece normal que a las doce de la noche te abra [la puerta de la celda] un funcionario, te meta un... bote de patatas de Pringles, y dentro está... pues igual 200 gramos de chocolate, 200 gramos de coca, un... dos móviles? [...] Lo gordo gordo, ya es cosa de los funcionarios» (Kontxi, 48 urte).

Era berean, Itziarrek esandakoa ikusiko dugu; bere esperientzia oinarri hartuta, kanpoan duzun jendearen bidez nahi duzun edozer lor dezakezula pentsatzen baitu. Berak, kasu baterako, ahizparekin eta orduko mutil-lagunarekin zituen aurrez aurrekoetan, legearen kontrako drogak eskuratzen zituen. Bere hitzetan:

«La verdad que a mí en la cárcel no me faltó de nada, porque si no lo tienes, pues la gente de fuera te lo mete... y... no vivías como en la calle, pero parecido. O sea, tenías los mismos hábitos. Yo me metía [droga] en la cárcel. Todo lo que no se podía hacer dentro, lo hacía, porque se podía. Lo podías conseguir todo» (Itziar, 47 urte).

Alabaina, arestian aipatu bezala, kanpo-kontaktuen bitartez eskuratutako gauzak ez dira beti debekatutakoak, batzuetan, soilik eskura ez daudenak baitira. Hori dugu Simoneren kasua, hain zuzen ere. Presondegiko eskolako irakasle batekin erlazio ona zuela baliatu zuten liburuak eta aldizkariak lortzeko. Irakurgai horiek, itxialdia jasangarriago egiten zioten eta hormetatik kanpoko munduarekin ez arrotzen laguntzen zioten. Hala azaltzen du:

«Era pesadísima con la maestra, que ha tenido mucha paciencia conmigo, que le pedía “¿Me trae libros? ¿Me trae revistas?”, y ella muy prestativa siempre me traía una revista de... El lunes para mí era el mejor día, porque ella siempre me traía la revista de los domingos, que ella compraba los domingos, y me encantaba porque tenía lectura fresca, ¿no?» (Simone, 36 urte).

Azken jardunbide moduan, kartzelatutako emakumeen zenbait produkzio-estrategia ere aipatuko ditugu. Izan ere, zenbait produktu ezin direnean espetxean erosi, ezta kanpoko kontaktuen bitartez lortu ere, maiz, emakume presoek nola hala ekoizteari ekiten diote. Hala, berez bestelako jomuga duten osagaiak birdefinituz, askotarikoak sortzen dituzte:

alkohola prestatzen dute, fruta irakinda; tatuajeak eta piercingak egiten dituzte, pilak eta orratzak erabilia, boligrafoak edo erretako oinetako-zola tinta bilakatuta; mahai-jokoak lortzen dituzte, oihalean edota paperean marraztuta; sexu-jostailuak fabrikatzen dituzte; etab. Nahiz eta agerikoa den giltzaperatutako emakume guztiek ez dituztela horrelakoak egiten, zentzu zabalean, gutxi-asko, denek egiten diete aurre gabeziei gaitasun sortzailea edo asmamena areagotuta. Horrenbestez, hormen zurruntasuna nolabait ere gainditzeko erresistentzia-praktiketako beste bat da. Haatik, tankerako gehiago ere badaude, jarraian ikusiko dugunez.

## **9.2. Hormen arteko espazioa eta denbora birdefinitzeko saialdiak**

Itxialdi penalaren testuinguruan, kanpoaldearekiko bereizketa fisikoaz ari garela, behar-beharrezkoa da espazioari eta denborari buruzko bizipenei erreparatzea. Jadanik adierazi bezala, kartzela-zigorra denbora zehatz batez presondegi bateko hormen artean itxita egotearen obligazioan datza; mugimendu-askatasuna eta denbora antolatzeko ahalmena nabarmenki murriztuta, besteak beste. Dudarik gabe, esperientzia zinez mugatzailea da espazioari eta denborari dagokienez (Goffman, 1961; Foucault, 1975). Hala, emakume atxiloek kontraste handia nabari dute murrueetatik kanpoko bizimoduarekin alderatuta. Izan ere, suerte guztietako iritziak egon arren, askorentzat galera-sentsazioa nagusi da. Antza, egunerokotasunarekin ohi bezala jarraitzeko ezintasunak gorabehera emozional handiak eragiten dizkie gehienei eta, hori dela eta, aldarte aldakorrak oso arruntak dira. Emakume preso askok euren bizitzen aldi baterako eten moduan bizi dute espetxealdia, euren ohizko bizieratik denbora batez aldentzen dituen egitate gisa, parentesi edota kako artean kokatu beharreko zer edo zer izango balitz bezala. Dagoeneko aipatu dudanez, hornez bestaldean gertatzen denaren inguruko buruhauste handiak bizitzen dituzte; eta kanpoaldearekiko bereizkuntza zorrotzak frustrazio handia sortzen die, baita etsipena, amorrua zein nahigabea ere. Alabaina, arazo horiei ere aurre emateko ahaleginak egiten dituzte; ahal bezala, egoera hobetzeko saialdian. Hain zuzen ere, segidan, testuinguru horretan aztertuko ditut espazioaz eta denboraz nola edo hala jabetzeko praktikak; hots, itxialdiko espazio eta denborari bestelako esanahiak edo edukiak emateko jardunbideak. Azken batean, bereizkuntza fisikoa kudeatzeko eginbideak direlakoan nago; giltzapean preso daudela hainbeste ez sentitzeko, tarte batzuez nolabait ere ahazteko edota kartzela barruko mundutik apur bat aldentzeko bitartekoak.

Itxialdiko espazioarekin hasita, elkarrizketatutako emakumeek izaera mugatzailea edota zedarriztatzailea azpimarratzen dute gehienbat. Eremu erabilgarri guztiak txikiak bezain eskasak direlako kexu dira, baita mugikortasun-ahalmena zinez murriztailea delako ere. Antza denez, espetxean hainbeste gutxiagotzen da higikortasuna, ezen emakume atxilo askok zorabioak, desorientazioa eta nahasteak pairatzen dituzten berriz ere kalera irteten hastean. Elkarrizketatuen ustez, espazioari dagokionez, kartzela itogarria eta desatsegina da, nolabait ere, eremuen konfigurazioak etengabe eta argiki oroitarazten baitio presoari giltzaperatuta dagoela.

Simonek espetxea arkitektonikoki murrizta eta itogarria dela baiesten du. Kartzela utzi zuenetik hainbat urte igaro badira ere, ondo gogoratzen ditu horizontea ikusten lagatzen ez zioten murrutatuak, baita mugimendu-ahalmena gutxitzen zioten eremu txikiak ere; azken finean, batzuek zein besteek lotuta eta airerik ezan sentiarazten baituzten. Espetxe batean itxita egotea inoiz bizitako bizipenik okerrena izan delakoan, hala deskribatzen du:

«Agobiante. [*Etenaldia*] Es la experiencia más dura que una persona puede pasar. [*Hunkituta*] Es te atar, ¿sabes? Es como si estuvieras atada. Parece que tú estás en un manicomio con una... camisa de fuerza... ahí... ¡Y que no te dejan salir! Te quitan tus movimientos. Tú te quedas un poco torpe, eh. Porque debilita la visión, te... No, tú no estás espabilado, ¿sabes? Tú estás muy torpe, muy agobiado, muy... [...] No he quitado todavía esa sensación de agobio. De no poder... de no poder estirar [*Besoak zabaltzen ditu*] ¡así! Con esa sensación de libertad<sup>231</sup>, ¿sabes? De espacio, de respirar... Parece que hasta el aire es... No es un aire natural. Porque parece que es... Ese aire es... es contado ahí. Es como una cápsula, ¿no? Te colocan ahí y “Es este aire. No te queda más”. Da la sensación que tú estás siempre con una bombona de oxígeno<sup>232</sup>, ¿no? Ahí... Y que en cualquier momento te va a ir y te va a acabar, y tú vas a quedar sin aire. Yo tenía mucho esa sensación. He vivido muchísimo con esa sensación, esa ansiedad, esa... ese estresse, ¿no? Esa adrenalina que da la sensación tuya que te va a faltar el aire. Que te falta el aire» (Simone, 36 urte).

Era berean, Mertxek ere uste du espetxean espazio-eskasia eta mugimendu-askatasunik eza nagusi direla. Bere hitzetan:

---

<sup>231</sup> Portugesez, askatasuna.

<sup>232</sup> Portugesez, oxigenoa.



«La cárcel es una cárcel. Es un sitio donde estás... donde estás... cerrado, con un espacio limitado y que no puedes moverte de ahí sin permiso. Tienes ese espacio, donde puedes estar, y como te muevas de ese espacio, te puedes buscar una ruina» (Mertxe, 61 urte).

Orokorki, Simonek eta Mertxek bezala, elkarrizketatutako emakume guztiek negatiboki baloratzen dute itxialdiko espazioa. Aitzitik, aipagarria da espetxearen nolakotasunaren arabera euren iritziak zertxobait hobek ala okerragoak izan daitezkeela. Bereziki, eredu zaharreko eta berriko presondegien arteko ezberdintasun arkitektonikoak azpimarratzen dituzte; baina ikuspegiak askotarikoak dira eta aburuak zinez anitzak, ez baitago inolako adostasunik espetxe zaharrak edo berriak hobek diren erabakitzean, nahiz eta badagoen argiro diferenteak direla baiestea. Eskuarki, kartzela zaharrak kaskarragoak direla uste dutenek eraikinen kalitate txarra nabarmentzen dute, frogatzat hartuta haien narriadura edo hondatzea. Halaber, Makrokartzelak hobekagoak direla adierazten dute, instalazioak berriak nahiz hornituagoak direlako. Espetxe berriak okerragoak direla diotenek, oster, hotzagoak zein inpersonalagoak direlako eta isolamendu-sentsazioa handiagoa delako kexu dira. Funtzionarioekin eta beste moduluetakoko presoekin kartzela zaharretan baino hartu-eman gutxiago dagoela kritikitzen dute, baita atxiloak dagokien departamentutik gutxiagotan irteten direla ere, eta espazio batetik bestera mugitzea korapilatsuagoa dela. Besteak beste, eremuan jazotako aldaketen erakuskari, honako ezaugarriak zerrendatzen dituzte: espetxe-murru garaiagoak, altuago kokaturiko eta kristalak beltzez tindaturiko funtzionarioen garitak, segurtasun-kamerak, burdin hesiak nahiz alanbre arantzuak, etab. Orobat, Makrokartzelak berriak izanagatik ere, kalitate eskaseko eraikinak izaten jarraitzen dutela diotenik ere badago.

Iritziak iritzi, giltzapetutako emakume guztiak saiatzen dira itxialdiko espazioa nola edo hala atseginago egiten –edo horren zakarra izatea saihesten, behintzat–. Zentzu horretan, askok kartzelako espazioei bestelako esangurak emateari ekiten diote, espetxe-sistemak emandako definizioetatik eta edukietatik aldenduta. Kasu baterako, paseatzera irteteko ezintasunaren aurrean, patioan biraka aritzen dira; halaber, hondartzara edota igerilekura joateko ezindura gainditzeko, eguzkia hartzen dute patioan, toallan etzanda eta bikiniak jantzita; orobat, sexu-harremanak izateko aukeren mugatzeari aurre egiteko, horrelako enkontruak izaten dituzte berez horretarako baimenduta ez dauden lekuetan; etab.

Era berean, presondegiko espazioaz nolabait jabetzeko praktiken testuinguruan, kontuan hartu behar dugu emakume atxiloek norberaren eremua sortzeko eginahalak ere egiten dituztela. Oro har, elkarrizketatutako emakumeen iduriko, espetxean ez da batere erraza espazio propioak eta intimoak lortzea, baina baten batzuk euren zelda edota «txaboloa» halakoxe bihurtzen saiatzen dira, eremu bat norberarena izateko ekinaldian. Hala, euren aukeren baitan, zelda apaintzen ahalegintzen dira, norberaren nahierara egokitzen, baita pertsonalizatzen ere. Presondegiaren arabera, espazio propio hori eskuratzeko abagunea handiagoa ala txikiagoa da. Izan ere, espetxe-langile zehatzen eskutan dago zorrotzagoa ala malguagoa izatea zeldaren dekorazioa edo apainketa, eta kudeaketa orokorra ere bai. Edonola ere, gela moduan duten espazio horretan atxiloek euren ondasun guztiak gorde behar dituzte; arropa zein oinetako, osagarri nahiz apaingailu, garbiketarako produktu, liburu edo jaki. Horiekin batera, eremua hobetzeko, erosoagoa edo atseginagoa egiteko, presoek askotarikoak gehitzen dituzte: argazkiak, aldizkarietako ebakinak, marrazkiak eta erretratuak, kartzelan eskuz egindako ehun-gaiak (oherako estalkiak, mahai-zapiak, gortinak edo alfonbrak, kasu), landareak, etab. Atxiloek zelda partekatzen badute, nola edo hala, bertako apaingarriak adostu beharrean daude; aitzitik, bakarrik baldin badaude –gehienek nahiago duten bezala–, euren gustua, nahia eta gogoia askatu dezakete. Halaz ere, ezin dugu aipatu gabe utzi zelda dekoratzeari edo edertzeari uko egiten dioten gutxi batzuk ere badaudela, kartzela euren lekua ez dela argi eta garbi uzteko asmotan, hots, berez giltzapekoak ez direla erakusteko saialdian.

Zelda nolabait ere apaintzearen adierazgarri bezala, Leireren hitzak jasoko ditugu. Bada, presondegiko langileek gela gehiegi dekoratzen lagatzen ez badute ere, emakume atxilo bakoitzak bere «txaboloa» gustuko dituen osagaiekin nolabait betetzen duelakoan dago. Bere aburuz, itxialdia jasangarriago egiteko praktika da; azken batean, espetxe guztiak txarrak izanagatik ere, nola edo hala egokitzen ikasten duzula uste baitu. Ikus dezagun nola kontatzen duen zelda eta gauzak esekitzeko kortxoak beretzat garrantzizkoak diren elementuekin bete dituela:

«Yo tengo mis cosicas, mis pitxias [joyas, adornos], mis brujas... que me gustan mucho y las cuelgo en el corcho. Mis dibujos... ¿Sabes? En mi chabolo entras y es verde, porque tengo muchas hierbas, de que voy cogiendo por ahí, porque en la cárcel encontrarte una hoja, pues ¡es un poco raro! O que te regalen laurel o que te regalen cosas de esas, una rama o... Pues, eso. Es un poco verde mi chabolo. Verde y... con muchas brujas. Aparte de las dos que estamos dentro ya, vamos [Barreak]. Pero sí, así.

Y, bueno, pues las fotos de tus hijos o... En el caso de mi compañera, pues las de sus amigas, porque no tiene familia tampoco. [...] El corcho lo decoras como te da la gana. Luego, [las funcionarias y los funcionarios] vienen y te lo tiran todo, pero bueno... [Arnasa hartzen du sakon] Es un poco así» (Leire, 41 urte).

Leireren antzera, Marcela ere ahalegindu zen bere zelda espazio zertxobait atseginagoa egiten; hau da, bere ahalbideen esku, espazio bat norberarena lortzen. Berriz ere presoan arteko salerosketen gaira igorrita, honelaxe azaltzen du Soto del Realeko presondegian (Madril) tindaturiko ehun-gaiak erosten zituela bere «txaboloa» dotoretzeko:

«Cuando trabajaba en cocina, yo hablaba con las chicas de talleres para que me cosan cosas. Ahí tela no tienes. La tela que tienes son de las sábanas. Entonces, tú coges sábanas, se las das a las chicas, “Quiero que me hagas una manta, un forro, una cosa para la mesa...”, porque ahí tienes una mesa, tienes las cortinas de la ventana, tienes para apoyar la televisión, un trapito que viene con muchos huecos que se ponen en una balda... Decorábamos los chabolos así. ¿Cómo pintaban las telas? ¡A saber! Te lo juro, nunca supe cómo pintaban las telas. Yo sé que llegaban con telas rosadas, celeste, verde, morado... ¡buah! Y las sábanas eran blancas, porque todas eran blancas. Eso sí, era súper caro. Más caro que en El Corte Inglés, y eran sábanas de prisión. [Etenaldia] Un juego entre sábanas, sábana de arriba, sábana de abajo, cortinas, para apoyar lo de la tele, para hacer lo del muro que es como para poner lo que es el champú, pasta de dientes y tal, más la cortina del baño, porque no hay cortinas allí... todo ese chiste, me costaba casi 50 euros. Aparte, claro, dale el cafecito para que no se lo olvide. Dale el tabaco, para que te lo haga más rápido. Atenderla bien, para que la niña te lo haga bonito. O sea... Y de esos juegos yo tenía casi cuatro. Cada semana o cada quince días, yo cogía y lo cambiaba. “Ah, no, ya no quiero verlo de verde”. ¡Lo cambiaba a celeste! Yo decoraba mi chabolo así» (Marcela, 28 urte).

Orobat, zeldak apaintzeaz ari garela, Altagraciaren adierazpenak ere esanguratsuak dira. Izan ere, gogoz dekoratu zuen bere gela Alcalá-Meco espetxean (Madril), beste atxiloek egindako ehun-gaiekin nahiz kalean erositako osagaiekin. Azken batean, presondegiko murruekin eta hormigoiarekin gogaituta, itxialdiko espazioa txikia eta itogarria iruditzen zitzaion; egoera horri aurre egiteko, zelda dotoretzen eta eremu propio bilakatzen saiatu zen, bere eran edertzeaz gain, «txabolo» izendapena erabiltzeari uko eginez ere. Honela gogoratzen du:

«En [Alcalá-]Meco, todos los chabolos eran decorados. ¡Vamos! ¿Unas decoraciones? Venden cortinas. Porque allí tienen como un taller de costura, que se hacen... cosen, cosen a la gente de empresas, trabajos de... de ropa de trabajo y eso, ¿no? Y a los funcionarios mismamente también les cosen. Y las chicas que trabajan ahí, pues se llevan trozos de tela y no sé qué, y hacen entonces las cortinas ellas a mano, y... se venden. A 15 [euros] el juego completo. El juego completo es: una cortina para ese armario de medio metro; media cortinita para tapar las cajas ésas que te haces; una cortina para el baño; una para la ventana, que da al escritorio; y otra que cubría la parte de abajo del escritorio, porque ahí, tú la... se utilizaba eso de almacén. [...] Yo no me compré nada. Pero me regalaron a mí. Un juego así me lo regaló una africana, muy buena, muy buena chica. Caroline. [...] Me lo regaló completo, ¡el juego completo! Luego, mi ex [marido] me mandó sábanas. Se las pedí rosas. Yo soy muy... muy chicle, y se las pedí rosas y me las mandó rosas. [...] Y como la cortina ésta del baño era para la parte de fuera, la parte de dentro necesitaba una cortina de baño porque se mojaba, la parte del... de la taza. Entonces, le pedí una cortina y me la mandó, me la llevó. Fondo rosa, con flores fucsia. ¡Súper bonita! Pues como la cortina, la del baño, era una cosita muy pequeña, pues se la corté, y corté todas las flores, y decoré las paredes. Bueno, estaba la habitación pre... Bueno, la habitación, nunca le llamé chabolo. [...] Yo hacía de ese espacio, como... mío. [...] Yo digo “Voy a poner este sitio como que es mi casa, porque es que es donde voy a vivir ahora. Y mientras más cómoda yo esté, aunque esté en... en un chabolo, pues cuando yo entre será mi habitación”. ¿Sabes? Y en mi habitación, ¿qué hago? Pues mi habitación la tengo bonita, en mi habitación tengo mis cosas, en mi habitación leo, descanso, aprendo, me relajo, estudio... Pues eso. Y fue lo que hice. Y la puse así, muy muy bonita» (Altagracia, 35 urte).

Alabaina, Alcalá-Mecotik Arabako presondegira lekualdatu zutenean, Altagraciak zelda nahi bezala dekoratzeko traba batzuk topatu zituen. Halaz ere, murrizketa horiek neurri batean gainditzeko gauza izan zen. Espazioa apur bat erosoago eta atseginago egin zuen, eskuz egindako hainbat osagairekin. Bere hitzetan:

«Aquí te obligan a dejar las cortinas que tienes. Aquí todo está conjuntado. Lo que pasa es que es... son colores de cárcel. Porque las cortinas, por ejemplo, es gris, verdoso. ¡Feo! La manta igual. La manta que va por encima. Luego tienen unas azules, pero... pero la que va por encima del todo, es a juego con la... con la de la ventana. ¡Horrible! Pero bueno, nada. ¿Qué hice? No se pueden pegar cosas. Pues, ¿qué hice? Pues mira, en el mural... Bueno, una cosa que no superé nunca... De hecho, aquí tampoco, eh. Fue poner las fotos de mis hijos. ¡Nunca! En la habitación nunca puse. [...] Eso sí que no lo

hice nunca. No. Y aquí tampoco, eh. [...] Te dan un mural, para pegar... fotos y tal, lo que quieras pegar. Yo me hice un collage, de moda. [Barreak] Un collage de modas y famosos. Así como para darle un toque... ¡yo qué sé! Divertido, muchos colores... conocidos, no sé qué, deportes, deportistas... De fútbol y [Rafa] Nadal... Pues, un lado... Fernando Alonso, el [Mark] Webber... Me gusta mucho la Fórmula 1. Puse un lado, un lado como de deporte, y otro de famosas y tal. Famosas... de cantantes, actrices y no sé qué. Y... otro luego de moda, que me gustan mucho los zapatos, y puse zapatos, zapatos y tal. [...] Estaba muy bonito, porque tenía de todo. Sí. Luego tenía, por ejemplo, tenía cesta para echar la ropa sucia, con su tapa y todo, hecha en periódico. [...] Tenía unos trabajos de... hechos por mí, en cerámica. [...] Tenía un tazón grande, tenía un vaciabolillos de esos, una... [...] Unas cuantas cosas que hice así todo... todo bien puesto. Tenían un bloque, como un lado... como que todo era de cosas hechas a mano. Un cofre, hecho en papel, cositas de papel así estilo corazón... Eso me lo mandó un pretendiente [Barreak]. Todas esas cosas. Pero un montón de cositas más, eh. De cosas que se hacen allí y eso. [...] Y ya luego tenía la parte del armario. Lo tenía bien, porque... pues tenía unas cajas tapizadas y así, que me traje de [Alcalá-]Meco. Que ahí es donde ponía todos mis enseres de... de mujer [Barreak], tus cosas, tu maquillaje y no sé qué. Y bueno, ya la ropa ahí también, doblada y tal. Y cortinas rosas [Barreak] y... y un montón de libros. [...] Muchos hilos. Porque aprendí a hacer unas pulseras que aquí no sabían hacerlas. [...] Papiroflexia hicimos y tal. Todas esas cositas que hacíamos así quedaban chulas, pues yo dejaba ahí como de cosa de exhibiendo» (Altagracia, 35 urte).

Bestalde, itxialdiko espaziotik harantz, denborari arreta eskaini behar diogu<sup>233</sup>. Finean, aipatu bezala, kartzelatutako emakumeek kontraste handia nabaritzen dute, kanpoaldeko denboraren bizipenarekin konparatuz gero. Alde batetik, elkarrizketatutako emakumeek espetxe-ordutegien zorrotasuna eta hertsiki programaturiko egunerokotasuna aipatzen dituzte; eta, antza denez, batzuentzat hain da handia zehatz-mehatz konplitu beharreko ordutegien zurruntasuna, ezen roboten pare ere sentitzen diren. Bestetik, monotonía eta errutina nabarmentzen dituzte; giltzapeko bizimodua benetan errepikakorra delakoan eta egun guztiak antzekoak izateak kondena are astunagoa egiten duelakoan. Begi-bistakoa da norberaren denbora antolatze gaitasuna galtzen dutela neurri handi batean. Horrela izanik, eta salbuespenak salbuespen, askok sentitzen dute itxialdian igarotako denbora galdutakoa dela, hutsartea, alferrik egindakoa, norbaitek kendutakoa, nola hala bete edo arrastaka eraman beharrekoa. Orokorrean, badirudi hasieran denek dutela denbora oso pisutsua izatearen eta motel pasatzearen sentsazioa, baita denbora gehiegi edukitzearena

<sup>233</sup> Kartzelaldiko denboraren bizipenetan sakontzeko, ikus Cunha (2005a, 2008b).

ere. Eskuarki, denbora larregi izatearen sentipena negatiboa da elkarrizketatuen arabera; egitekorik edo okupaziorik gabeko uneetan, gauetan gehienbat, gogoeta estugarriek eta ideia frustragarri bezain ezkorrek presoak harrapatzen dituztela baitiote. Baina, edozelan ere, atxiloek pixkanaka denbora eramangarriago egiten ikasten dutela dirudi.

Angiek itxialdiko egun guztiak antzerakoak direla adierazten du, berdintsuegiak direla. Horrela, giltzapean monotonia izugarria delako kexu da, biziki gogaitu duen zerbait izan dela azalduta. Dirudenez, egunerokotasunarekin nazka-nazka eginda, egoera nolerebait aldatzen saiatu zen; besteak beste, preso zegoela horrenbeste ez pentsatzeko medikazioa hartuta, baita entretenitzeko eginkizunak bilatuta ere. Haatik, ez omen zen sekula libratu errutinaren zamaz. Honela laburbiltzen du kartzela-denboraren izaera errepikakorra:

«Es todo lo mismo. Son trescientos sesenta y cinco días que haces lo mismo. ¡Imagínate! O sea... Al menos, en la calle no. Vas al trabajo, sí, pero al menos te encuentras alguien diferente o... o algún amigo que hace mucho tiempo que no lo ves y cambia al menos, ¿no? Tu monotonía o tu día. Allá no. Era levantarte a las ocho de la mañana, ir a estudiar, hacer tu destino, lo que sea hasta que llegue... comer, chaparte<sup>234</sup>, salir, cenar, chaparte... y hasta el otro día ¡y vuelve otra vez! La misma monotonía. Y eso es lo que termina quemándolo a uno, ¿no? El ser tan monótonos. Si nos quejamos en la calle, ahí no te cuento cómo es. Eso es ya...» (Angie, 22 urte).

Era berean, preso igarotako epealdian, Miriami denbora zinez astuna egin zaio. Egunak oso poliki pasatzen zirenaren sentsazioa izan du. Hala, espetxean errutina handia delako kexu da, baita burua berotzeko eta samingarriak diren ideietan murgiltzeko beta sobera duzulako ere, gauetan gehienbat. Honela azaltzen ditu denborazko espetxe-bizipenak:

«Mu lenta... muy muy lenta... Eso es mu lento. Ahí no tienes que tener prisa ni tienes que... Según viene. Según viene... Todos los días es lo mismo. Ahí no hay prisas, no hay... Eso tienes que llevarlo según viene. ¡No hay más! Ahí no puedes decir... No, no. Según viene tienes que... afrentarlo así, sin más. ¡No hay otra! Ahí, lo que quieras hacer, no lo puedes hacer. Pasa cualquier cosa, no puedes hacer nada. Llamar. Na' más. Pero, bueno... Las horas son... son lentas y los meses son, como digo yo, años. Porque no pasa el tiempo. Y las noches... puf... pues, ¡no te digo nada! He estado noches sin dormir, por el estrés, por pensar, por estar pensando en las niñas... “¿Estarán bien?

---

<sup>234</sup> Kartzelako jargoian, zeldan itxi.

¿Estarán bien? ¿Qué les pasará?». Todas esas cosas... Hay noches que, vamos, que me pegaba... despierta» (Miriam, 39 urte).

Aipuak erakusten duen moduan, Miriamek egunean bizitzearen alde egin du, giltzapeko denbora zertxobait arintzeko lagungarria delakoan. Baina, nonbait, ez da hautu hori egin duen bakarra. Badirudi kartzelatutako emakumeetako asko direla egunean zentratzearen aldekoak; epe luzeragoko egitasmoak alde batera lagatzen saiatuta, kondenaren iraupena gogoan izatea saihestuta, espetxetik irteteko eguna noiz iritsiko den pentsatzea itzurita, azken batean, espetxealdia atzerako kontaketa gisa bizitzea alboratuta. Gehienek iritziak, behar-beharrezkoa da presondegi barruko egunerokotasunean ardatzea eta kanpoaldekoa apur bat baztertzea, bestela egoera zinez hondatzailea delako. Alta, badirudi hori guztiz egitea gehienentzat ezinezkoa dela.

Egunean bizitzeko ekinaldiaren adibide argia dugu Juliaren kasua. Izan ere, espetxealdia pairagarriagoa egiteko, denboraren kontaketa baztertu du, orduen eta egunen igarotzean ez pentsatzeko moduak aurkitzen ahaleginduta. Hala, oharkabetzeko eta entretenitzeko jardunbideak bilatu ditu, barruko egunerokotasunean zentratzen eta kanpoaldekotik ahal bezala urrutiratzen saiatzearekin batera. Honela adierazten du denbora zenbatzeari uko egiteko bere erabakia:

«Es que no puedes contar las horas ahí dentro. Tienes que pensar “Un día más, un día menos”. Es que no te puedes quedar estancada en el tiempo. Solamente tienes que vivirlo. [...] Yo allí dentro no quería reloj» (Julia, 53 urte).

Elkarrizketatutako emakume preso gehienek iritziak, itxialdiko denboraren izaera astuna, geldoa eta nekosoak gainditzeko erarik aproposena denbora-pasak edo entretenimenduak aurkitzean datza. Agidanez, ikastaroen, tailerren, enpleguen eta gisa guztietako ekintzen alde egiten dute; denbora arinago igarotzen dela sentitzeko, distraitzeko, monotonia zein errutina hausteko, burua euren egonezinekin hainbeste ez berotzeko, eta horren preso ez sentitzeko ere bai. Halako jarduerak baliatu ohi dituzte usu bestelako arrazoientatik ere, esaterako: euren ohizko modulutik ateratzeko eta eremuz aldatzeko, jende gehiagorekin erlazionatzeko, prestakuntza hobetzeko edota dirua irabazteko, Tratamendu Batzordeari irudi positiboa emateko, etab. Alabaina, ukalezina da atxilo askorentzat jarduera horien funtziorik garrantzitsuena denbora nola edo hala betetzea dela. Elkarrizketatuen arabera, jardueraren nolakotasuna maiz ez da inportantea, benetan munta duena giltzapetzeaz

oharkabetzeko okupazio edo zereginen bat izatea delakoan, klase batekoa edo bestekoa izan. Hala, askorentzat egiatzko arnaguneak edo ihesbideak dira eta, horrexegatik, kasik denetarik egiten dute. Ildo beretik, batzuk udan jarduera gutxiago daudelako kexu dira, hilabete horietan kartzelaldia gogorragoa dela argudiatuta. Orokorki, emakume presoek jarrera aktiboa dute, baina aintzat izan behar dugu tarteka beheraldi sakonegiak dituztela eta, ondorioz, batzuetan ez dutela deus egiteko indarririk.

Jarduera entretenigarri edo denbora-pasagarrien garrantziari dagokionez, nahiko ugariak dira elkarrizketatutako emakumeen adierazpenak. Kasurako, Elenaren iritziz, espetxeko denboraren astuntasuna gainditzeko, zurtu beharra dago, eta olgatzeko nahiz okupatuta egoteko bitartekoak lortu. Bere hitzetan:

«Los días... por muy bien que los lleves, ¡pesan! Estás privada de libertad. No dejas de estar... O sea, eso... Pero, bueno, lo único que te queda es entretenerte en hacer algo, o sea, estar lo más entretenida... ocupada posible, para que el tiempo pase cuanto antes, y cuando llega la hora de que te cierran, a la cama y mañana es otro día. O sea, no te... Es que no te queda otra. Es... adaptarte al funcionamiento. O sea, pero no quedarte ahí de “Ay, pobrecita de mí, que me ha pasado...”. No, no, no. O sea, “¡Venga, vamos!”. Para arriba y a seguir» (Elena, 39 urte).

Era berean, Saioak ere egiten du entretenimenduzko jardueren alde. Izan ere, bere ustez, espetxe-onurak lortzeko baliagarriak izateaz gain, mesedegarriak dira baita distraitzeko ere, adigabetzeko eta kartzelaldian hainbeste ez pentsatzeko. Areago, horrelako jarduera gehiago eskaini beharko lituzketela dio, giltzapean burua izugarri berotzen duzulako eta denbora betierekoa dirudielako. Honelaxe dio:

«Está bien, porque también despejan a las chicas un poco. Lo agradecen. Te despejas, no estar pensando... Estás haciendo algo, moviéndote, se te va un poco la cabeza... No estás... Porque estás en ese patio, donde estés, ¡puf! Das vueltas y vueltas y vueltas, te comes mucho la cabeza... Esos talleres están bien, lo que tendría que haber es más, para ellas, que les ayudarían en algo. Porque también si vas a algún lado, tienes más puntos. [Etenaldia] Eso está bien porque te va la cabeza. Te despeja... la cabeza. Y que estás movida, porque si no... acabas con tu vida allí adentro. Te guardas tú sola, te encierras, te encierras... [Etenaldia] Por eso tienes que poner al mal tiempo buena cara» (Saioa, 23 urte).



Julia, bere aldetik, bat dator ikastaroak, tailerrak eta enpleguak denbora pasatzeko zinez garrantzitsuak direnaren iritziarekin. Funtsean, espetxealdiaren ondorioetan pentsatzea biziki hondatzailea dela uste du, eta nola edo hala hori saihesten saiatu beharra dagoela. Honela azaltzen du:

«La mente tienes que trabajarla. Si encima te ponen un trabajo, unos estudios o unos cursillos de... aunque sea solamente de jugar a la pelota, vale mucho. Porque es el tiempo que estás ganando. Te entretienes y no piensas. [...] Es que es así. No puedes pensar. [...] No pensaba... No pensaba. Vivía el momento y las circunstancias. Porque si pienso... ¡puf! A hostia limpia... ¡o me drogaba! Soy sincera. Yo no pensaba. Es que no puedes pensar. No puedes pensar ni si has hecho mal o si has hecho bien, o si estás bien o estás mal. Tienes que... No piensas. No... Estás trabajando en hacer ganchillo, en pintar... en evadirte, porque si yo me paraba cinco minutos a pensar, me hundía. Yo no podía hundirme» (Julia, 53 urte).

Elkarrizketatutako emakumeek adierazten dutenez, denbora-pasa edota entretenimendu moduan gauzatzen dituzten jarduerak askotarikoak dira: ikasketak eta lanak; irakurketa zein idazketa; marrazketa; eskulanak; josteta, kakorraz-lana eta tankerakoak; kirola eta bestelako jarduera fisikoak; antzerkia; mahai-jokoak eta beste hainbat jolas; festak nahiz ospakizunak; estetikarekin loturiko praktikak (manikura, pedikura, ile-apainketa edota depilazioa, kasu); etab. Batzuetan, eurek prestatutako eginbideak dira; besteetan, ostera, espetxeak antolatutakoak. Azken horiei dagokienez, ohizko jarduera-eskaintzaz gainera, badirudi emakume atxiloek oso positiboki baloratzen dituztela jaiegunitako nahiz egun berezietako jardunbideak. Izan ere, horrelakoetan, presondegiko egunerokotasun arrunta hausten duten ekintzak egon ohi dira; bisitaldi bereziak izan, antzezlan edo kontzerturen bat izan. Besteak beste, errutina aldatzen duten egunak dira honako hauek: Emakumeen Nazioarteko Eguna (martxoak 8), Mesedetako Ama Birjinaren eguna (irailak 24)<sup>235</sup>, San Tomas eguna (abenduak 21), Eguberriak, etab. Alta, ospakizun horietako batzuk tristeak ere izan ohi dira kartzelaratutako emakumeentzat; Gabonak, esaterako, mingarriak izan ohi dira askorentzat kanpoan dituzten horietaz bereziki oroitzen direlako.

Jarduera entretenigarri zein denbora-pasagarrien nolakotasunari buruz apur bat gehiago jakiteko, elkarrizketatutako emakumeen hitzetan sakondu dezakegu. Léa, kasu baterako, adibide argigarria da. Bere iritziz, emakume preso gehienek aburuz bezalaxe, giltzapean

---

<sup>235</sup> Tradizio katolikoaren arabera, Mesedetako Ama Birjina presoek zaindaria da.

denbora oso geldoa dirudi eta burua asko berotzen duzu; horrenbestez, munta handikoak dira distraitzeko, adigabetzeko eta denboraren bizipena arintzeko ekintzak. Picassenteko presondegian (Valentzia) egon zenean, enplegua mesedegarri egin zitzaion horretarako; Langraiz Okara eraman zutenean, kirolean eta askotariko jarduera fisikoetan murgildu zen. Honela laburbiltzen du bere esperientzia:

«Yo lo que quería conseguir es ¡ocupar la mente haciendo cosas! Me... me preocupaba más qué podía hacer hoy o tal... o... deporte. Me he metido muchísimo. ¡No paraba de hacer deporte! Estoy... Si no pasaba cuatro o cinco horas haciendo gimnasia un día, pues creo que no... no... ni unas horas... En Nanclares [de la Oca]. En Picassent, como trabajaba y hacía cosas, no tenía ni tiempo. Pero, en Nanclares [de la Oca], como no... Me aburría. Pues, hacía una hora y media de batuka. Volvíamos de la batuka, pues me metía dos horas y media, casi tres horas... o más, depende de los días, al gimnasio. A las tardes íbamos a hacer fútbol, “Módulo 1 contra Módulo 2”, tal, en el patio. Ahí dando caña... Nos pegábamos y todo [*Barreak*]. A pasarlo, bien o mal, pero a pasarlo [*Barreak*]. A mí el deporte sí que me ha... Sí. Hasta he salido demasiado cuadrada [*Barreak*]» (Léa, 28 urte).

Era berean, Itziarrek dioenez, hasieran espetxe-denbora astuna eta betierekoa iruditzen zitzaion, baina pixkanaka jasangarri egiten ikasi zuen, entretenitzeko eta oharkabetzeko praktiken bidez. Bera presondegian egondako garaian, orain dela ia hogeita hamar urte, egun baino denbora-pasa gutxiago omen zeuden; askoz ere ikastaro, tailer zein enplegu gutxiago zeudelako. Hala ere, bestelako jarduera denbora-pasagarriak zituzten. Itziarrek, adibidez, festak, jolasak, ligatzea eta «trapitxtoa» oroitzen ditu, besteak beste. Zereginik gabeko kartzela-denbora zinez kaltegarria delakoan, honela adierazten du nola saiatu zen horri aurre egiten:

«El tiempo al principio se me hacía eterno. Se me hacía eterno. Pero, luego, me tomé la vida como que... Al principio se me hacía eterno porque no... no estaba acostumbrada. No estaba acostumbrada y... puf... vueltas para arriba y para abajo... Pero ya cuando empecé a hacerme mis enramadas y... Aparte de que la gente me conocía, pero ya empecé a conocer a la gente, había chicos también que me conocían, a tener relación, y pues nos lanzábamos cosas, yo, mandaban cosas... Luego, también las comunicaciones que tenías con la calle. Entonces, como... A mí me metían droga. Entonces, yo sí que evadía mucho el tiempo... o en el patio, nos poníamos a hacer nuestras fiestas o jugábamos un poco al parchís. [...] Entonces, el tiempo... al principio no me corría el

reloj, pero luego ya sí me corría el reloj, eh. Ya se me hacía más ameno, ¿sabes? Pero también era por eso, porque ya conocí a un chico en el otro lado, íbamos a comunicar... siempre estabas liando alguna, siempre estabas haciendo alguna... Pues para pasar el rato siempre estabas con movidas, ¿no? “Pues, mira, éste me tiene que mandar esto y tal”, y así pasábamos la tarde. Así pasábamos la tarde o... Luego, cuando ya te ponías a gusto, te ponías a jugar al parchís o te ponías... o te ibas al gimnasio a echarte unas risas o a fumarte... lo que sería. Y evadías el tiempo así. Tampoco había mucho más para evadirte antes. Ahora ya tienen más recursos. [...] Antes la cosa estaba más reducida. Más reducida. También por eso la gente tenía más partes [disciplinarios] y tenía más... en celdas de castigo, porque el aburrimiento hace que te... que la cabeza piense mucho y que la lías mucho y... nosotros... Yo, eso, al principio me aburría, pero luego ya no me aburría, porque estaba todo el día maquinando ahí, para arriba y para abajo... dentro de la cárcel, en nuestras posibilidades, ¿no? Hoy era una, mañana era otra... Siempre estábamos... el recodillo siempre» (Itziar, 47 urte).

Jarduera horien bitartez, Itziarrek nola hala distraitzea lortzen zuen; baina eragin hori ez omen zen iraunkorra, une batzuez baino ez baitzen entretenitzen eta adigabetzen. Antza denez, egunak nahiko ondo igarotzea erdiesten zuen, baina gauak biziki gogorak egiten zitzaizkion, sentipen samingarriei aurre egin behar zielako. Bere hitzetan:

«Por las noches lloraba o me ponía triste. Por el día no, eh. Por el día estaba distraída. Pero por la noche sí que... sentía... eso, como que me sentía sola. [*Etenaldia*] Es que me sentía sola. A pesar de que estaba con mi hermana, me sentía sola. Te sientes sola allí dentro. Estás sola. Sabes que eres... Ahí sabes ¡que eres tú! No hay nada más. No hay nada más. Te das cuenta... Es tu hermana, pero en realidad... Me sentía como yo en la obligación de cuidar de mí y cuidar de mi hermana. Entonces, me sentía muy sola. Mucha... Sí, desolación. Sientes desolación ahí dentro. Desolación... y te sientes, pues... ¡una desgraciada! Ahí te das cuenta que eres una mierda, que eres lo que la sociedad no quiere, porque... [...] Encima de que empezó el boom del Sida y todo eso. Nos tenían como la peste. Éramos la peste para... ¡Yo me sentía como una mierda! En la cárcel. Por la noche. Por el día, yo como estaba en mi salsa, pues... Pero cuando llegaba la noche, que estás ahí en tu cama, ahí te sientes una mierda. Así. [...] Llegué a llorar por las noches y me sentía como una mierda, pero que al día siguiente... Por el día era ¡diferente! ¡Era diferente! No sé si por la movida o... por la situación. Hombre, había días, por el día, ¡que era una mierda! Pero era diferente a la noche. Era diferente. En la noche sentías más soledad que en el día. En el día, pues eso, si no era una cosa era otra, si no te ponías de una cosa, te ponías de otra» (Itziar, 47 urte).

Nerabazarotik droga-kontsumoan, giltzapetzeaz oharkabetzeko bide garrantzitsuenetako bat legezko nahiz legez kanpoko drogak hartzea izan zen Itziarrentzat. Jada ikusi bezala, zenbait bisitariren bitartez lortzen zituen horrelakoak. Alabaina, bestelako moduak ere bazituen. Honela azaltzen du:

«Buscas muchas veces evadirte del tiempo. Te colocas también pues para evadirte un poco. Aparte de que te gusta, porque era la vida que yo siempre... Sólo había conocido esa vida. Tan joven... Entonces, era lo que me gustaba. También me evadía bastante. [...] En aquel tiempo a mí lo que me gustaba era la droga, drogarme, porque no había conocido otra cosa. [...] Había un jarabe que era para el catarro, que si te tomabas el bote entero, pues te colocabas. Y pues muchas veces nos apuntábamos al médico pues para coger... si no teníamos dinero, para coger ese jarabe. Pero, claro, ya se empezó a dar cuenta que todo el mundo pedíamos ese jarabe y tal, pero sí que había medicaciones que te buscabas la vida y que sí que te colocabas. Y luego, pues con el alcohol. El alcohol de... ¿de curar? Nos lo bebíamos con la Coca Cola o con el café. Hacíamos muchas burredas [*Barreak*]. Muchas burredas, allá adentro, para... pues eso, ¡para colocarte! Hacías todo lo que... todo lo que podrías hacer para colocarte, lo hacías» (Itziar, 47 urte).

Itziarren antzera, badirudi espetxeratutako emakume askok legezko zein legez kontrako drogak hartzen dituztela, baita beste zenbait substantzia ere, oharkabetzeko, giltzapeko denboraren astuntasuna gainditzeko eta nolabaiteko baretasuna edo ongizatea lortzeko. Agidanez, droga ilegalak kanpoaldean baino garestiagoak eta kalitate txarragoak dira. Halakoak lortzeko trabak ere kontuan hartuta, ez da harritzekoa emakume preso batzuek psikofarmakoak ere erabiltzea burua arintzeko edota «kolokatzeko»; are gehiago, lixiba hartzen duenik ere badago eta. Kasu batzuetan, aurretik ere drogazaletasunean aritutako emakumeak dira; beste batzuetan, aldiz, kontsumo hori kartzelan hasi dutenak. Nolanahi ere den, eta nahiko praktika arrunta izan arren, espetxeko droga-kontsumoak askotariko iritziak sortzen ditu presoan artean. Batzuen ustez, itxialdiari nola edo hala ihes egiteko baliabide mesedegarria da; beste batzuen aburuz, ostera, atxiloak nabarmenki kaltetzen dituen jardunbidea; espetxe-sistemak presoak hutseratzeko eta kontrolatzeko baliatutako bitartekoa dela pentsatzen duenik ere ez da falta.

Adibide moduan, Mayak esandakoan sakondu dezakegu. Bere iduriko, presondegietan legezko nahiz legez kanpoko droga piloa dago, eta «trapitxtoa» agerikoa da. Emakume atxiloek droga-kontsumoa itxialdiari nolabait ere ihes egiteko baliatzen dutelakoan dago

eta, antza, ez omen zaio harritzekoa iruditzen. Alabaina, berak ez du halakorik egin nahi izan. Preso sartu aurretik, tarteka drogak hartzen zituen eta jardunbide horretan gehiago murgiltzea saihestu nahi izan du. Ikus dezagun nola adierazten duen:

«Sí que hay muchas chicas que se meten pastillas para dormir. ¿Por qué? ¡Porque no aguantan la realidad! Vamos, ¡te quieres escapar! ¡Quieres dormirte! Lo único que quieres es dormirte, para no escuchar, para no ver, para no sentir... la tristeza, las preocupaciones. Es que yo lo entiendo, pero yo sabía que era una manera de drogarse. ¡Es como una droga! Y por eso nunca he aceptado, pero sí... sí que veía trapicheos. [...] Pues, hay de todo. Hay muchas y de todo... Y muchas se enganchan dentro. O muchas nunca lo han probado fuera, y es tan duro lo que vives, que dices “¿A este nivel donde estoy? ¿Qué más me va a pasar? ¿Qué más voy a sufrir, más que esto? No puedo... me escapo de aquí y me meto... no sé qué”. [...] Casi todo el mundo fuma chocolate, fuma porros, y los funcionarios dejan pasar... porque los tranquiliza» (Maya, 27 urte).

Bestalde, oraindaino itxialdiko denbora galdutakotzat, alferrikakotzat edota hutsartetzat jorratu badugu ere, ezin dugu aipatu gabe utzi kartzelaturako emakume guztiek ez dutela horren ikuspegi negatiboa. Gutxiengoa izan arren, emakume atxilo batzuentzat espetxedenbora baliagarria izan daiteke; besteak beste, prestakuntza ontzeko eta kalera hobeto irteteko. Oro har, itxialdian norberarentzako denbora eta espazioa nolabait topatu duten emakumeak dira; besteekiko dedikazioa eta etxe barruko nahiz kanpoko zereginak tarte batez desagertuta, euren burua zaintzeko eta euren egoera hobetzeko nolerebaiteko beta sentitu dutenak. Gutxi horien iduriko, kartzelako jarduerak ez dira denbora-pasa edota entretenimendu soilak, norberaren egoera suspertzeko aukerak baizik.

Altagraciari, hasiera batean, espetxeko denbora astuna eta betierekoa iruditzen zitzaion; baina pixkanaka sentipen horiek gutxitzea lortu zuen. Kanpoan ez zuen denbora propioa izan omen zuen giltzapean; soilik bere buruan zentratzeko denbora, utzitako zaletasunak berreskuratzekoa, formakuntza areagotzekoa. Dirudienez, askotariko jarduerak egin eta antolatu zituen; horrenbeste, ezen beste emakume presoek «*culo inquieto*» esaten zioten. Kasu baterako, irakurketari ekin zion, baita eskulanei eta kakorraz-lanei ere, askotariko ikastaroak egiteari eta ingelesa irakasteari ere bai. Preso gehientzat ez bezala, beretzat jarduera horiek ez ziren denbora-pasagarri soilak izan; sartu zena baina hobeto irteteko lagungarriak izan zirela pentsatzen baitu. Honela azaltzen du jarduera horietako batzuen balioa:

«Poco a poco, me puse a leer. Hacía mucho que... como que no leía. [...] No. Me puse a leer, que había dejado la... Siempre he sido muy fanática de los libros. La lectura. Literatura clásica y eso. Pero lo había dejado. Por... mismamente por la vida, el... ¡yo qué sé! Pues eso. Y... y comencé a leer otra vez. El primer libro que leí... Me fui a la biblioteca y busqué libros de autoayuda. Nunca jamás había leído libros de autoayuda. Yo me considero una persona mentalmente muy fuerte, mucho. Pero en ese momento... es que no era yo, era otra persona, es que es una pasada. Pero, bueno, me abandonó esa fuerza. Me abandonó. Pero bueno, nada. Comencé a leer. El primer libro que leí fue *Tus zonas erróneas*, de Wayne [W. Dyer]. Ese libro, es un manual de la autoayuda. Pero es muy... es muy egoísta. No... Dice autoayuda sobre ti mismo sin importarte nadie más que tú. Es un poco ese... ¿no? Pero también te pone que lo que tienes que vivir es el momento presente. ¿Qué es el momento presente? Que no vivimos... que no vivimos... no disfrutamos el presente por estar pensando en el futuro. O por intentar... o porque nos quedamos anclados en el pasado. Entonces, esa era... mi... mi doble... ese era mi doble problema. Porque estaba jodida en el presente, pensando en mi pasado, ¿no? Y estaba... No vivía el presente, porque temía a lo que podía encontrarme en un futuro, ¿sabes? O sea, vivía... No vivía el hoy, por miedo a lo que puede pasar mañana. Entonces, pues ahí comencé a asimilar lo que ponía el libro y eso, y... y realmente me ayudó muchísimo, muchísimo. Luego, me hice un curso sobre inteligencia emocional. Que es esto que te enseñan a colocar el... las emociones a nivel del cerebro, ¿no? Como el corazón a nivel del cerebro. Un poco, pues que no te dejes llevar por las emociones, porque las emociones lo que hacen es que te controlan, ¿no? ¿Y qué tenía yo contra mí misma? No era contra nadie, ni con la policía, ¡ni siquiera con la jueza! El problema lo tenía yo conmigo misma. Entonces, tenía rabia conmigo misma. Tenía... pues de todo. Pero conmigo misma» (Altagracia, 35 urte).

Jada ikusi bezala, Altagraciak ez du ukatzen kartzelaldia esperientzia gogorra, mingarria edo traumatikoa ez denik. Aitzitik, egoera onartu eta itxialdiari onura ateratzen saiatu beharra dagoela uste du, denbora galtzea ekiditeko. Izan ere, bere ustez, norberaren esku dago espetxealdia probetxugarria edo alferrikakoa izatea. Berak, kasurako, giltzapearen alde positiboa aurkitzen jakin zuelakoan dago. Ikus dezagun nola adierazten duen:

«Que sí, que yo sé que jode estar en una cárcel, jode mucho. Porque no estás con tu familia, con tus hijos. Si eso es... De verdad. Pero es que si estás, una vez que ya estás dentro, tienes que aceptarlo y tratar de aprovechar el tiempo que tienes allí. Y si no lo ves así, estás mal. Si no lo ves así estás mal, porque... porque pierdes el tiempo. Ese tiempo que vas a estar ahí, que puede ser un año, dos, tres, seis meses... ¡como que sean

tres meses! ¡Uno! Me da igual. Pero saca algo. ¿Sabes? “¡Ay! ¿Para qué me vale a mí esto?”. “Que no vale para nada, que tú crees que no te vale para nada, pero eso que te llevas”. Lo único que puedes sacar de la cárcel, es lo que te lleves contigo. Y lo que te lleves contigo no te lo quita nadie. Te van a quitar un año de estar en la calle. Pero si aprovechas... Yo, vamos a ver, yo estuve ahí y aproveché muchísimo. Aquí, tanto aquí [en Araba] como en [Alcalá-]Meco» (Altagracia, 35 urte).

Alabaina, emakume preso gehienek ez dutela inolako probetxurik lortzen pentsatzen du; kartzela-denbora edonola betetzen dutelako, aldia edozein modutan igarota. Asaldatuta, etekinik gabeko denbora ezinbestean hutsarte bezain negatiboa dela adierazten du, eta kexu da kartzelatutako emakume asko denbora berreskurazina denaz ez omen direlako konturatzen. Bere hitzetan:

«Yo creo que la mayoría no es consciente de... de... [Arnasa sakon hartzen du] No sé, cómo... No es consciente de... de lo... ¡Puf! ¡Jolín, que el tiempo pasa! Y que si no lo aprovechas, es que lo pierdes. Y esto de que “¡Ay! Voy a recuperar el tiempo perdido”. ¡Es mentira! El reloj no da... no gira hacia atrás. ¡No se recupera nunca ni el tiempo, ni el sueño! ¡No se recupera! Sea porque el reloj... No tienes más horas para recuperar el sueño perdido, ¿sabes? [...] Es un poco... Pero es así. El tiempo perdido no se recupera nunca. Porque el reloj jamás gira al contrario. Giran. Las agujas del reloj tienen un sólo giro, y no se devuelven. Entonces, no... La gente... La mayoría no son conscientes de eso y pierden el tiempo. Y pasan... un mes, tres, seis, un año, tres, o... o cinco. Y no se dan cuenta todo lo que han podido hacer ahí dentro y que no han hecho. Mucha gente que tiene tiempo ahí presa que no ha hecho nada. ¡Que no ha hecho nada! Está ahí sin hacer nada. Años vienen y años van y no hacen nada. [...] Pero... yo quise aprovechar mi tiempo, ¿sabes? Sacarle el máximo partido a la cárcel. Y yo creo que... No temo equivocarme, porque creo que lo he sacado. De verdad te digo. He sacado... he sacado todo lo que he podido en ese año» (Altagracia, 35 urte).

Balorazioa positiboagoa ala negatiboagoa izan, agerikoa da emakume presoak itxialdiko denboraren balizko esangura kaltegarriei aurre egiten saiatzen direla. Orobat, giltzapeko espazioari lotutako arazoak eta oztopoak ere gainditzen ahalegintzen direla ikusi dugu. Murrueatik bestalde daudenekiko hartu-emanetan egoteko praktikak ere aintzat hartuta, begi-bistakoa dirudi hormen zurruntasuna nolerebait gutxitzeko askotariko jardunbideak dituztela. Nola hala, espetxe baten barruan itxita egotearen ondorioak arintzea erdiesten

dute, kanpoaldearekiko bereizketa fisikoa gutxiagotzea eta, tarte batzuez behintzat, hain preso ez sentitzea. Argiki, emakume atxiloen agentzia islatzen diguten egitateak dira.



## 10. Barrena lasaitzeko ahaleginean: giltzapeko adierazpen-moduak eta sormena

*Zure gorputza gudu-zelaia da.*

Barbara Kruger (1989)<sup>236</sup>

*Zaindariak paper bila ari dira zeldetan.*

Joseba Sarrionandia (1992: 24)

Aurreko atalburuetan aztertu ondoren presondegi barruko erlazioak, murrueetatik kanpo daudenekiko harremanak eta espazioaz nahiz denboraz nolabait ere jabetzeko praktikak, atal enpirikoaren azken kapitulu honetan, emakume atxiloen agentzia azaleratzen duten beste hainbat jardunbide jorratuko dut. Zehazki, giltzapetzea egonezin handia eragiten duen bizipen samingarria eta estugarria izanik, sentipenak adierazteko, kudeatzeko zein kanporatzeko bide zenbaitzuei heldu nahi diet; barrena husteko askotariko bitartekoei. Adierazpen-moduen eta sormenaren markoan kokatzen diren erresistentzia-praktikez ari naiz konkretuki; hain zuzen ere, kartzelatutako emakumeen agentziaren izaera sortzaile bezain asmatzailea argien erakusten duten eginbide horiez. Lehenik eta behin, gorputz-espresioan eta nork bere buruari egindako zauritze-ekintzetan, autolesioetan, barrenduko dut, espetxeko emozioak adierazteko jardunbide nabarmengarriak direlakoan; bigarrenik eta azkenik, kartzelaldiko idazketan sakonduko dut, adierazpen idatzizkoa ere kontuan hartzekoa denez gero. Nire ikusmoldearen arabera, aurreko bi atalburuetan aipatutako erresistentzia-praktikak bezala, zauritze-ekintzak eta idazketa baliagarri dira kartzelako erregimenaren ondorioak nola edo hala arintzeko, murruen artean nolabaiteko ongizatea

---

<sup>236</sup> Ingelesez jatorrizkoan: «*Your body is a battleground*» (Kruger, 1989).

lortzeko; kontzienteki ala inkontzienteki izan. Dagoeneko nahiko argi dagoenez, betiere, espetxealdia biziki hertsatzailea da, eragozgarria; eta ez dute hori aldatzen ez zauritze-ekintzek ez kartzela-izkribuek. Hala eta guztiz ere, ezin ukatuzkoa da, jarraian ikusiko dugun gisan, adierazpen-moduak eta sormena mesedegarri izan daitezkeela onura baten batzuk erdiesteko.

### **10.1. Gorputz-espresioa eta nork bere buruari egindako zauritze-ekintzak**

Aurreko kapituluetan islatu dudanez, espetxealdia emozio oso biziko aldia da emakume preso gehienentzat. Bada, asko dira gorabehera emozional handiak aipatzen dituztenak, baita aldarte aldakorren inguruan hitz egiten dutenak ere. Askotariko emozio mingarriak zerrendatzen dituzte: frustrazioa eta etsipena, amorrua, estura, atsekabea zein nahigabea, ezinegona; ororen gainetik, ezintasuna. Alabaina, kartzelaratutako emakumeak sentipen horiei guztiei aurre egiten saiatzen dira; usu, norberaren gorputza erabilita. Hain zuzen ere, askotariko praktika korporalen bidez, giltzapetzearen eragin emozionalak nolabait ere arintzeari ekiten diote; itxialdiko emozioak adierazteari, kudeatzeari zein agertzeari, asaskatzeko eta barrua nola edo hala lasaitzeko ahaleaginean.

Hasteko, elkarrizketatutako emakume preso nahiz preso ohietako askok jarduera fisikoa edo kirola aipatzen dute barrena husteko jardunbide erabilgarri bezala. Batzuek dantza ere gaineratzen dute; eta sexu-harremanak aintzat hartzen dituen bat edo beste ere ez da falta. Orokorrean, gorputzeko praktika horien bidez tentsioa kanporatzea lortzen dutela diote, gorabehera emozionalei nolabaiteko irteera ahalbidetzen dietela; finean, neurriren batean, baretzea erdiesten dutela.

Kasurako, Simoneren hitzak azter ditzakegu; zeintzuek, lasaigarri gisa, kirolak beretzat izan duen aparteko garrantzia adierazten dute. Bere elkarrizketan dioenez, kartzelaldia benetan estugarria izan zen beretzat, kezkak zein buruhausteak izugarriak zirelako, baita ezintasun-sentsazioa hondatzailea zelako ere. Egoera samingarriegia zenean, egonezina kanporatzeko jarduera fisikoei ekiten zien; betiere, norbait kolpatzearen antzekoak ziren jarduera fisikoei. Bere hitzetan:

«Gimnasio. ¡Puf! ¡Desestresa un montón! Yo hacía. Pero a mí me gustaba más la pala. Entonces, estaba todo el rato jugando pala. Cuando estaba muy muy muy muy... cogía

y hacíamos un partidito ahí. [...] El deporte siempre me ha... Pero tiene que ser un deporte donde podría... que me diese la sensación de que estaba... pegando a alguien, ¿sabes? Bruto. No era, por ejemplo... No me iría a rebajar o me desestresar, si estaba jugando a ajedrez. No» (Simone, 36 urte).

Era berean, Amparok, tentsioa kudeatzeko beste hainbat moduren artean, pilota bati ostikadak ematea aipatzen du. Antza denez, kartzelan asko sufritu du, eta ezintasuna edo samina gehiegizkoak izan direnean, barrena nola hala arintzen ahalegindu da; batzuetan, bakarrik egoteko eta negar egiteko aukerak bilatuta; eta, besteetan, esan bezala, jarduera fisikoa erabilita. Honelaxe azaltzen du:

«Meterte al servicio, que las compañeras no te vean, y desahogarte ahí... llorar, desahogarte y... desahogarte. Sin más. [...] Coger una pelota y... Yo he hecho, coger una pelota y empezar a patadas con la pelota, tra-tra y ¡puf! “Ya está, se me ha ido”. ¡Te desahogas!» (Amparo).

Itxialdiak sortutako larritasuna kanporatzeko bideen artean, Amparok emakume presoen arteko liskarrak, jipoiak eta astinaldiak ere aipatzen ditu; bada, bere iritziz, ezintasunak gainezka egiten dizunean, maiz, ingurukoen kontra asaldatzen zara. Honela dio:

«Según la impotencia que tengas ese día... ¡liarte con una a golpes! [...] Que según la impotencia que tengas ese día, vienes adonde mí... y lo he pagao con ella» (Amparo).

Ikusitako hiru aipuetan azaleratzen da «kolpatzeko» nolabaiteko beharra. Egitate hori hirugarren kapituluan jasotakoarekin lotu dezakegu, hots, emakume atxilo gehienen aburuz, euren arteko enfrontamendu askoren eragilea euren egoera emozionala denaren ideiarekin; giltzapeko tentsioa usu ingurukoekin deskargatzen delakoan, oro har nahita ez eginda ere. Zalantzarik gabe, istilu horiek askotariko arazoak eragiten dizkiete; eta, seguru asko, erresistentzia-praktikatzat hartzea gehiegizkoa bezain problematikoa izan daiteke, balizko onurak oso zalantzarriak direnez gero. Alabaina, ezin da nolabaiteko aipamena saihestu; ikusi bezala, batzuek tentsioa kanporatzearekin lotzen baitituzte.

Bestalde, orobat, nork bere buruari egindako zauritze-ekintzak edo autolesioak ere hartu behar ditugu aintzakotzat; azken batean, kartzelan erlatiboki arruntak diren gertakariak direlako –espetxe-langileek gaur egun iraganean baino urriagoak direla baieztatu arren, antza denez, protesta-modu bezala nabarmenki murriztu direlako–. Lina Cristina Casadó

antropologo eta erizainaren arabera, norbanako batzuek euren gorputza ebaki, erre edota harramazkatu egiten dute, suizidatzeko asmorik gabe (2011: 7). Bere iduriko, askotariko ekintzak uler ditzakegu autolesio bezala; aitzitik, soilik batzuetaz ohartzeko joera dugu, beste batzuk normalizatuta daudelako. Azken horien artean koka ditzakegu, esaterako, tatuajeak edo piercingak bezalako aldakuntza korporalak, baita dietak edota ebakuntza estetikoak ere. Baina gehienetan ez ditugu horrelakoak kontuan hartzen, eta jendarteak arbuiatutakoak eta estigmatizatutakoak baino ez ditugu izaten gogoan. Desbideratutako portaeratzat hartutako autolesio horiek, orokorrean, ulertezintasun handia eragiten dute, are protagonisten euren artean ere; bada, nagusi dira interpretazio patologikoa, buruko gaixotasunekin lotura eta tratamendu farmakologikoa (*Ibidem*: 74). Nolanahi ere, begi-bistakoa da autolesioa egitate soziala dela (*Ibidem*: 26), hots, testuingurua dela ekintza legitimatzen edo estigmatizatzen duena (*Ibidem*: 23).

Espetxeko jargoian, nork bere burua zauritzeari «*chinarse*» esaten zaio. Kontzeptu hori, nagusiki, ebakiei zein harramazkadei buruz hitz egiteko erabiltzen da. Haatik, ez ditugu kartzelako testuinguruan gertatzen diren beste zenbait autolesio ahaztu behar; adibidez, pareten kontrako ukabilkadak eta kolpeak, pilulen edota objektuen autoingestioa, lixiba edatea, gose-grebak, ahoa jostea, tatuaje «talegeroak», etab. Agerikoa denez, autolesio-mota horiek guztiek xede desberdinak dituzte. Batzuetan, jomuga nagusia arreta deitzea da; baina bistakoa da ez dela beti horretarako egiten, zigorra jasotzeko arriskua baitago eta, askotan, ezkutuan egiten baita. Beste batzuetan, helburua protesta egitea edo zerbait aldarrikatzea da. Noiz edo noiz, ospitalera edo erizaindegira joatea ere bilatzen da, lekuz aldatu nahi delako edo medikazioa lortu nahi delako. Edozelan ere den, ohikoena dirudi espetxealdiko zauritze-ekintzak barrua husteko modua izatea, ondoeza kanalizatzeko eta nolabait lasaitzeko bidea. Zentzu horretan, Casadóren arabera, estres emozional handiko egoeran, autolesioak hitzez adierazi ezin den mina azaleratzen du, hizkuntzaren mugak gainditzen dituen sufrimendua (2011: 88) eta, dirudienez, ohikoagoa da emakumezkoen artean (*Ibidem*: 33)<sup>237</sup>. Horrela, nahiz eta ezin ukatuzkoa den zauritze-ekintzak nolabait kaltegarriak direla, ukagaitza dirudi ere emakume preso batzuentzat itxialdiaren oinaze emozionala nola hala kudeatzeko, arintzeko eta kanporatzeko balio dutela.

---

<sup>237</sup> Espetxean ez ezik, bestelako testuinguruetan ere autolesioak emakumezkoen artean arruntagoak direla dirudi. Gehienetan eman izan den azalpenaren arabera, gakoa gizonen eta emakumeen genero-sozializazio ezberdinean dago. Izan ere, oro har, gizonen agresibitatea erakustea baimetzen zaie, emakumeei ez bezala, eta, egoera horretan, emakumeek usu euren buruen kontra bideratzen dute (Izquierdo, 1998; Berga, 2009; *in* Casadó, 2011: 148).

Elkarrizketatutako emakumeek esandakoaren arabera, denek ezagutu dituzte autolesio-kasuak kartzelan. Oro har, horietaz hitz egiten dutenean, ebakien inguruan ari dira batez ere; alde batera utzita nork bere buruari egindako beste zenbait lesio. Halakorik sekula egin ez dutela pentsatzen dutenen artean, maiz ulertezintasuna agertzen da, baita kritika ere, jardunbide zentzugabeak direlakoan edo bakarrik deigarri izateko egiten direlakoan. Zauritze-ekintzak egin dituztela uste dutenen artean, bestalde, askotariko iritziak daude. Batzuek negatiboki bizi dituzte autolesioak, diskurtso estigmatizatzaile eta patologikoa barneratuta; baina hainbatek nolabaiteko poza erakusten dute, mina euren buruari egiten diotelako eta ez beste inori. Halaber, azpimarragarria da autolesioek oinazea sentitzeko nahiarekin nolabaiteko lotura dutenaz jabetzen denik ere badagoela –horren esangura ez ulertu arren– eta deigarria dela amorruari buruzko aipamenen ugaritasuna, emakumeek eskuarki gutxiago kanporatzen duten emozioa izanik.

Esandakoa hobeto adierazteko, hainbat aipu jaso ditzakegu. Hasteko, Amparoren hitzak ditugu. Berak ez omen dio sekula bere buruari min eman; eta, areago, hori egiteko ezgai sentitzen da. Ez du ulertzen autolesioen zergatia, baina ziur da ez direla arreta deitzeko soilik, ezkutuan egiten dituzten emakumeak ezagutu baititu. Honelaxe azaltzen du:

«Yo he visto mujeres, se han cortao, y no han dicho nada. ¡Y no han dicho nada! Y no han dicho... Y yo preguntarles “¿Por qué te has hecho eso? Si no es... ¡Si es una tontería!”. ¿Y sabes lo que me han dicho? “Nada, porque así yo también... sufro también”. [...] Para ella también sufrir. Pa’ sufrir. ¡Pa’ tener dolor! “Así tengo dolor”. [...] Claro, se corta. Se hace unos tajazos grandes y luego se cura sola. Y ella decía que era pa’ tener dolor» (Amparo).

Marcelak autolesio bezala uler dezakegun praktika usatu zuen kartzelako ezintasunari, amorruari eta frustrazioari aurre egiteko, lasaitzeko eta asaskatzeko; azken finean, mina kanporatzeko. Alta, ez du uste jardunbide horrekin bere buruari kalte egin zionik inoiz. Ikus dezagun nola argudiatzen duen:

«Es un arranque de ira, impotencia... Tu mente se nubla, tus ideas... tus pensamientos se bloquean y te viene todo lo negativo que tú alguna vez en tu vida quieres sacar... y lo sacas en ese momento. Pero tienes que calmarte, respirar. Si quieres, si no encuentras la manera de desahogarte... Porque gritar, no se puede gritar. O sea, un ejemplo: te cogen, te chapan y gritas desesperadamente, viene el funcionario “¿Qué te pasa?” y tienes un parte [disciplinario]. O sea, ¡que te jodes! Tienes que intentar buscar otra solución, o

hacer deporte o correr o... Lo que yo hacía era llenar un cubo de agua y meter la cabeza ahí, y gritar. Me desahogaba un montón y me quedaba tan tranquila. Es así, casi me ahogaba, pero me quedaba relajada. Porque sacaba toda esa rabia, toda esa frustración, esa ira, impotencia... Lo sacaba para afuera y no le hacía daño a nadie, ni me hacía daño yo, que era lo más importante. Entonces, pasaba del mundo. Ese era un momento para mí, de sacar mi... dolor, se podría decir, y me desahogaba así» (Marcela, 28 urte).

Marcelaren ildo beretik, Juliak ere azaltzen du bere burua nola edo hala lesionatu duela, nahiz eta berak ere ez duen zauritze-ekintzatzat ulertzen. Areago, euren buruari ebakiak egiten dizkieten emakumeak kritikatzten ditu; eginbide horiek zentzugabeak direlakoan eta, maiz, arreta lortzeko egiten direlakoan, ukatzen ez badu ere batzuetan beheraldiekin batera gertatzen direla. Bere kasuan, egonezina gutxitzeko eta kanporatzeko modua izan omen da, baita besteekin liskarrak ekiditekoa ere. Bere hitzetan:

«Pegarle puñetazos a la pared [*Barreak*]. [...] Te desahogas muchísimo. Porque si te pones a gritar, ya te pilla la cámara de vídeo y hace “¡Uy!” la funcionaria, “¿Qué pasará?”. ¡Es verdad! Yo cuántas veces me he ido al baño y le he pegado un puñetazo así en los azulejos... Es en serio. Cuando he visto que no podía... que a lo mejor una llamada de teléfono o un mal pie... de día, me ha sacado histérica, y por... Yo tengo un pronto muy jodido, ¿sabes? Entonces, para no pegarme con nadie, lo primero que hacía era: iba al baño y ¡pumba! [*Ukabilkada bat jotzearen keinua egiten du*] Y yo decía “O rompo el brazo o rompo esto, pero tengo que sacarme...”» (Julia, 53 urte).

Aitanak antzeko egoera islatzen du. Agidanean, amorrua kanporatzeko ukabilka hasten zen bere zeldako paretaren kontra edo bere gauza guztiak botatzen zituen. Berak ere ez du uste bere ekintza horiek autolesiotzat har daitezkeenik; eta, Juliaren moduan, ebakiak egiten dituzten emakumeak kritikatzten ditu, nork bere buruari horrelako zauriak egitea burugabea dela adierazita. Honela azaltzen du bere bizipen zehatza:

«Esa rabia... Mira, yo esa rabia la desgastaba golpeándome con las manos en la pared... o destrozando el chabolo. Cogía, tiraba toda la ropa y tiraba todo. Luego lo volvía a colocar. Y es de la única manera que yo he sacado mi rabia» (Aitana, 47 urte).

Azkenik, Angieren testigantzari helduko diogu; aurrekoekin alderatuta, erabat ezberdina baita, berak bere buruari egindako zauriak autolesiotzat ikusten dituen gero, eta euren gaineko iritzi guztiz negatiboa duenez gero. Giltzapean sentitzen zuen amorruekin eta minarekin lotzen ditu bere lesionatze-ekintzak. Ez du ukatzen horien bidez baretzea eta

hobeto sentitzea erdiesten ez zuenik; baina, antza, geroago, hori egiteagatik gaizkoatzen zen, autolesioei buruzko diskurtso patologikoa barneratuta. Koldar sentitzen zen, baita beldur ere, inori min emateko aukerak izugarriro ikaratzen baitzuen. Nolanahi ere, mina materializatzeko bide bezala azaleratzen da bere hitzetan:

«Yo he sido muy cobarde. [...] Yo... Yo cuando he sentido... Yo soy una persona que cuando siento dolor, tengo que sentirlo mucho, [...] tengo que estar muy mal. Y las veces que he estado muy mal, he sentido tanta rabia conmigo por estar así, por dejar que las personas o que las cosas me afecten más, [...] que me he hecho daño a mí misma. [...] Por eso también me mandaron en parte la medicación y todo eso, para que no me autolesionara, porque el psiquiatra me dijo que, con el tiempo, cuando uno es impulsivo, yo soy una persona impulsiva, que... podemos hacer cosas y no nos damos cuenta. Podemos hacer daño. Entonces, eso a mí me daba mucho miedo, ¿no? El hacerle de pronto daño a mi prima o a alguien cercano a mí, sin querer, por una rabia o algo [...]. Yo hacía eso y no me miraba cuando... Como que reaccionaba y estaba toda llena de sangre, y ya me paraba la rabia. Se me quitaba el dolor. Lloraba... y ya después me sentía como nueva. Y yo decía “Pero, ¿qué es esto? ¿Me estoy volviendo yo adicta a hacerme daño?”. [...] Hubo un tiempo en el que yo necesitaba hacerme daño para poder estar bien. Al menos sentir que me salía sangre o ver la sangre cómo corría para poder tranquilizarme, sentir... Decir “¡Buah! Descanso”. Como que me sentía tan saturada, tan abrumada... No sé, no sé cómo... No sé puede... una palabra como para explicar concretamente qué es lo que sientes. Porque es que es una mezcla de sentimientos, de impotencia, tristeza... Desolación. Son muchas cosas. Y el hecho de que me tuviera que hacer daño, eso también para mí... peor me ponía. Ya, sí, me lo pasaba la rabia, el dolor, la impotencia que tenía por algo de lo que había pasado. “Pero, ¿ahora qué?”. Luego, cuando estaba cortada... ¡yo qué sé! Y mi prima, yo la veía que lloraba, y me tenía que curar o cualquier cosa, yo decía “¿Qué estoy haciendo? ¿Qué estoy haciendo? ¿Me voy a matar, lentamente?”. Y yo dije “No”. “No le voy a regalar mi vida a la prisión”. Me dije “No le voy a regalar mi vida a la prisión”. [Etenaldia] Soy cobarde. Sí. Y no lo niego. Aunque es duro reconocer que eres cobarde. Pero... es así. Hacerte daño [...] es cobardía, ¿no? Es intentar evadir los problemas de alguna forma. Yo pasé mucho, mucha rabia así. Mi rabia siempre ha sido así. Me he hecho daño» (Angie, 22 urte).

Ikusitako aipuetan islatzen denez, elkarrizketatutako emakumeek hainbat bizipen dituzte autolesioen inguruan, baita egitatearen gaineko kontzientzia-maila arras ezberdinak ere. Orokorrean, ulertezintasuna zein gaitzespen-irritziak nagusi dira; akaso, hori izan daiteke norberaren zenbait jardunbide auto-zauritzetzat hartzeko zailtasunaren gakoa eta soilik

ekintzarik agerikoenak –arrunki, odoltsuenak– kontuan hartzeko giltzarria. Nolabaiteko baretzea aipatzen denean ere, nekeza da aburu positiborik topatzea. Alta, barrua husteko praktika guztiek ez dute autolesioek duten traza kaltegarri hori.

## 10.2. Adierazpen idatzia edo kartzelako izkribuak

Aurreko atalburuetan idazketaren garrantzia nolabait ere adierazi dut, nahiz eta soilki zeharka izan den; esate baterako, emakume presoek bidalitako nahiz jasotako eskutitzen munta seinalatu baitut, bai espetxe barruan, bai kanpoan daudenekin komunikatzeko bide bezala. Haatik, jada adierazitakoaz harago, behar-beharrezkoa da idazketak barrena lasaitzeko izan dezakeen balioa ere jorratzea; bada, dezente dira itxialdiari aurre egiteko bitartekoen artean idaztea nabarmentzen duten emakumezko atxiloak. Egiazki, idatzizko espresioaz bestalde, nolabaiteko adierazpen artistikoa ere aipatu daiteke –marrazketa, pintura edota argazkilaritza aintzat hartuta, adibidez–. Baina idazketan zentratutako naiz soilik, espresio-bide ohizkoagoa, argiagoa eta guztientzat eskuragarriagoa izanik; azken batean, jendarte honetan gehienok baitugu praktika gehiago gure gogoetak hitzen bidez adierazten, irudien bidez baino.

Batzuetan, idazketa lantzeko, emakume atxiloek espetxeak euren eskura jartzen dituen aukerak baliatzen dituzte. Oro har, boluntario moduan sartzen diren norbanakoek edota elkarteetako menbruek antolaturiko jarduerak dira, atxiloei nolabaiteko entretenimendua edo ihesbidea eskaintzeko asmoz prestaturikoak. Alde batetik, kartzelatako aldizkariak aipatu behar ditugu; hain zuzen ere, *Galería* Iruñeko presondegian, *Gurea!* Arabakoan eta *Martuberriak* Martutenekoan. Hirurak presoek egindako aldizkariak dira, elkarteren baten koordinaziopean, eta askotariko edukiak biltzen dituzte: gaurkotasun-albisteak eta iritzi-artikuluak, kronikak, elkarrizketak, kontakizunak, poemak, marrazkiak, denborapasarriak, etab. Bestetik, kanpoko agente horiek ere antolatutako lehiaketak ere hartu behar ditugu kontuan; dela maitasun-eskutitzen txapelketa, dela kontraera laburrena edo poesiarena.

Adibide bezala, irakurri dezakegu Intza Mendiguren (2011) izeneko emakume atxiloak idatzirikoa, ADAP Presoen Laguntzarako Elkarreak Langraiz Okako espetxean eginiko kontraera laburren lehiaketan. Honela dio testuak:





# Ladrillo, Cemento y Barrote

Intza Mendiguren

Camino, derecha izquierda, derecha izquierda, un pie tras otro. El patio es muy pequeño, o quizás es que yo soy de zancadas muy grandes. Llevo quince minutos, empiezo a entrar en calor, tenía frío al empezar pero ahora ya no, vaya, que mareo, ladrillo va, ladrillo va, esa es la visión que tengo a cada vuelta que doy. ¿Qué medirá este patio? Creo que más o menos serán dos metros y medio de largo, por dos de ancho.

Miro hacia arriba y veo el cielo, está un poco nublado y a la vez bastante blanco, seguro que desde un punto de vista aéreo, al ver este patio diría: - **Mira qué terracilla más guapa para hacer una cenita alguna noche de verano** - .

Pero claro, la realidad es que estoy dando una vuelta tras otra dentro de ese cuadradillo, que a su vez es un patio pequeño, rodeado de ladrillo, cemento y ventanas con barrotes.

Así es, estoy en la Cárcel de Nanclares de Oca, qué fría es Vitoria. En que mal día me di el porrazo con el coche, llevando anfetamina dentro y para colmo, mal guardada. Vaya con el bote de espárragos, me ha salido muy caro.

Se acabó el paseo, me voy para adentro, ya no tengo más ganas de caminar, lo veo todo de color amarillo.

***Menudo trabajo de albañilería,  
ladrillo, cemento y barrotes***

Me voy al comedor, enciendo un cigarrillo. Qué bien me sabe el primero del día, es alucinante cómo mis pulmones lo absorben, porque apenas echo humo al respirar, me lo quedo todo para mí.

Vaya, igual que mi condena, tres años. Ahí te los repartes nenita, derecha izquierda y mientras tanto reflexiono en mi interior. Intento canalizar esta situación y que me sirva para saber que voy a hacer una vida mejor al salir y sobre todo, no volver.

Levanto la cabeza y tras el cristal pienso: - **Menudo trabajo de albañilería, ladrillo, cemento y barrotes . ¡Nena, qué trabajito das!** - .

Diciembre 2011.  
Intza Mendiguren

Espetxeko aldizkarietako nahiz lehiaketetako idazkietan, emakume presoek askotariko gaiak lantzen dituzte; baina, dudarik gabe, betiere oso presente dagoenetako bat kartzela bera da, Mendigurenen testuak argi islatzen duen moduan. Marko horretan, hainbat ildo jorratzen dituzte: giltzapeak sortutako ezintasuna zein amorrua, itxialdiari aurre egiteko indarra eta kemena, itxaropena, barruan edo kanpoan dituztenekiko maitasuna, familia-harremanak eta amatasuna, bikote-erlazioak, delituzko ekintza, droga-kontsumoa, etab. Askotarikoak izanda ere, gehienetan, espetxealdiaren inguruan jiraka mahaigaineratzen dituzte. Esanguratsuak dira, kasurako, *SelfFOCUS. Zaballako presondegian atxilotuta dauden emakumeek egindako argazkigintza proiektua* izeneko erakusketan<sup>238</sup>, irudiak laguntzeko emakume presoek idatziriko esaldiak: «¡Amor, salud y libertad para todas!» (talde-lana), «Mi salvación es salir de estas cuatro paredes» (talde-lana), «Vida feliz, vida de amor, vida en familia. ¡Vida valiente, con ganas de luchar!» (talde-lana), «Elijo las nubes por la sensación de libertad. Al mirar las nubes siento y me imagino el mundo más allá de los muros» (A.P.), «Pensando en mi amor» (A.P.), «¡Lucha por tu libertad!» (D.R.), «Entre sombras y luces miro esperanzada hacia la luz de mi libertad» (I.B.), «Con calma y con paciencia todo llega a su debido tiempo» (L.B.), «Siempre te echaré de menos... Siempre es siempre... Siempre» (L.B.), «Un día más que ha pasado» (L.B.), «Lo que yo quiero es estar con mis hijos» (L.M.), «¡Yo nunca cambiaré!» (R.J.), etab.

Alabaina, beste askotan, emakume presoek ez dituzte espetxeak euren eskura jarritako aukerak baliatzen; eta, bide horietatik harantz, euren kabuz ekiten diote idazketari, euren ekimen propioz. Egia esateko, idazketa –zentzu zabalean ulertuta, askotariko agerpenak kontuan hartuta– garrantzi handikoa izan da beti kartzela-testuinguruan, garai eta marko geografiko guztietan (Navarro, 2005: 18). Munta aipagarri hori azaltzeko, ikerlariek bi egitate nabarmendu dituzte gehienbat: alde batetik, giltzapeko idazketa identitate-eduki sakoneko komunikazio-praktika dela –egoera batean non, preseski, oso gutxituta dauden bai identitatearen zenbait alderdi bai komunikazioa bera– (Gándara, 2005); eta, bestetik, idazketaren bitartez, presoak ahotsa gorpuztea lor dezakeela, jendarteak nahiz espetxeak ukatutako hitza edo izatea aldarrikatuta, atxiloaren estigmari aurre egiteko eta baliozko

---

<sup>238</sup> Erakusketa ikusgai egon zen 2013ko abenduaren 16tik 30era Gasteizko Hegoalde Gizarte Etxean. Izan ere, noiz edo noiz, kanpo-eragileek erakusketak antolatzen dituzte presoek egindako lanak gizarteratzeko. Ondorengoak dira beste zenbait etsenplu: *Emakume presoak: indarkeria matxistaren inguruko gogoetak* (2013ko abenduan zehar, Donostiako Emakumeen Etxean), *Askatasun binetak* (2014ko abuztuaren 30etik irailaren 28ra, Iruñeko Ziudadelako Armen aretoan), etab.

solaskide bilakatzeko (Garreud, 2011; Retolaza, 2014). Hartara, idazkien arteko aldeak alde, idaztea erresistentzia-jardunbidea dirudi, betiere adierazpena ardatz hartzen duena.

Ekimen propioz idazten dutenean, emakume presoek askotariko gaiak jorratzen dituzte; baina, berriro ere, kartzela da arruntenetako bat, zuzenean edo zeharka. Kasu baterako, ugariak dira ondorengo ildoak: emozioak (samina, erruduntasuna, bakardadea, tristura, egonezina edo maitasuna, adibidez), askatasuna, espetxeko egunerokotasuna, etab. Usu, mezua sekula jasoko ez duten hartzaileei idatzirikoak dira; beraz, maiz, gakoa jasotzaile horri nolabaiteko presentzia sinbolikoa ematea da, komunikazioa egiazki ezinezkoa izan arren (Gándara, 2005: 244), arrazoia zeinahi ere den. Euskarriari dagokionez, aniztasuna azaleratzen da beste behin ere. Ohizkoena papera erabiltzea izanagatik ere, batzuetan bestelakoak usatzen dituzte –larruzala edo paretak, esaterako–, zer edo zer adierazteko premia dagoenean, ia edozer baliagarri dela erakutsita.

Ugariak dira euren espetxeko bizipenak idatzi eta argitaratu dituzten emakumezkoak<sup>239</sup> (Davis, 1971; Forest, 1975, 1979; Palou, 1975; Falcón, 1977; Doña, 1978; Cuevas, 1985; al-Sa'dawi, 1988; Shakur, 2001; Beguán *et al.*, 2006; Kerman, 2010; Cabrera, 2011, 2012, 2013; López Riaño, 2012; Heras, 2014; Eizagirre, 2016)<sup>240</sup>. Zerrendak garai

---

<sup>239</sup> EPPK Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren kasuan, aipagarria da Ataramiñe kultura-elkartea. Izan ere, 2002. urteaz geroztik, gizon-emakume atxiloen idazkiak eta bestelako sorkuntza-lanak argitaratzen dihardu. Ikus <http://www.literaturakoadernoak.org>.

<sup>240</sup> Angela Davisek *If They Come in the Morning... Voices of Resistance* (1971) liburua argitaratu zuen, Estatu Batuetan, afroamerikarren askapen mugimenduko preso politikoen askotariko idazkiak jasota, bere izkribu propioak barne. Eva Forestek *Diarios y cartas desde la cárcel* (1975) eta *Testimonios de lucha y resistencia: Yeserías 75-77* (1979) lanak eman zituen argitara. Lehenengoan, Yeserías espetxean (Madril) preso egondako denboran idatziriko egunkaria eta eskutitzak aurkeztu zituen; eta, bigarrean, presondegian horretan giltzaperatutako 21 emakumeren lekukotzak jaso zituen. Inés Palouk *Carne apaleada* (1975) lan autobiografikoa idatzi zuen, kartzelaldi-garaiko bere memoriak bilduta eta diktadura frankistaren azken urteetako espetxe-egoera islatuta. Ildo beretik, Lidia Falcónek *En el infierno: ser mujer en las cárceles de España* (1977) idatzi zuen, Juana Doñak *Desde la noche y la niebla. Mujeres en las cárceles franquistas* (1978) eta Tomasa Cuevasek *Cárcel de mujeres (1939-1945)* (1985). Hirurek, giltzapeko euren bizipenak oinarri hartuz, frankismo garaiko emakume preso politikoen nondik norakoak landu zituzten. Urrunagoko testuinguruetan, Egipton, Nawal al-Sa'dawik *Memorias de la cárcel de mujeres* (1988) liburua plazaratu zuen, preso politiko moduan itxialdian igarotako denboraldiko memoriak jasota. Estatu Batuetan, Assata Shakurrek *An Autobiography* (2001) argitara eman zuen; besteak beste, presondegian bizitakoak bilduta. Argentinan, Viviana Beguánek eta beste 111 emakume preso politikok *Nosotras, presas políticas* (2006) liburu kolektiboa argitaratu zuten, 1974 eta 1983 urteen arteko euren kartzela-idazki askotarikoak bilduta. Estatu Batuetan, Piper Kermanek *Orange is the New Black. Crónica de mi año en una prisión federal de mujeres* (2010) idatzi zuen, preso egindako denboraren testigantza moduan. Argentinan, Liliana Cabrerak zenbait poesia-liburu autoeditatu zituen, kartzelan idatzirikoak bilduta: *Obligado tic tac* (2011), *Báncame y punto* (2012) eta *Tu nombre escrito en tinta china* (2013). Bestalde, Idoia López Riañok *El Umbral del Dolor* (2012) argitaratu zuen, Frantziako nahiz Espainiako hainbat presondegitan ezagaturiko emakumeen testigantzak bilduta, baita bere bizipen propioak jasota ere. *Poeta Muerta* (2014), berriz, Patricia Herasen hil osteko lana da, eta, besteak beste, Wad Ras-eko kartzelan (Bartzelona) atxilo egindako epealdiko bere kronika barne hartzen du. Amaitzeko, Ekhine Eizagirreren *Alde erantzira nabil* (2016) liburuak idazleak Fresnes espetxean (Frantzia) idatziriko poemak biltzen ditu.

eta herri ezberdinetako emakumeak biltzen ditu, testuinguru anitzetan kartzelatutakoak, baita askotariko arrazoiengatik ere. Era berean, zerrendak hainbat genero jasotzen ditu. Emakume presoen idazkien artean badago lekurik bai poesiarentzat bai narratibarentzat, idazlan autobiografiko zein egunkarientzat, kronikentzat, are eskutitzentzat ere, besteak beste.

Iratxe Retolaza (2014) literatura-kritikariaren iritziz, logika literarioek ezohiko moduan jokatzen dute kartzelako testuinguruan. Horren erakusgarri, presoek kalean nagusi diren genero literarioak –nobela, kasu– baztertzen dituztela dio, eta horren ohizkoak ez diren generoak erabiltzen dituztela, diskurtso kritikoak zein baztertutako subjektuen ahotsak gorpuzteko bigarren horiek egokiagoak direlakoan (*Ibidem*: 144). Horrela, bere iduriko, poemak, lan autobiografikoak –fikziozkoak izan ala ez– eta kartzela-kronikak idazteko joera gailentzen da. Lehenengo bien kasuan, nitasuna eraikitzeke eta gorpuzteko tresna aproposak direla nabarmentzen du (*Ibidem*: 143), gizarteak ukaturiko espazioak lortzeko bitarteko direla (*Ibidem*: 149-150). Kronikari dagokionez, aldiz, kartzelaz beste egiteko edota nork bere egoeratik distantzia hartzeko ariketa dela adierazten du; ez horrenbeste norberaren identitateaz edo gorpuztasunaz jabetzeko modua. Nolabaiteko kontraesaneari garatuko litzateke, beraz; espetxeaz hitz egiten baitu, baina bertatik ihes egiteko; atxiloa baita mintzo dena, baina atxiloaz beste sentitzeko eta giltzapeari aurre egiteko (*Ibidem*: 154).

Emakume presoen eta itxialdiko idazketaren arteko erlazioaren gakoetako batzuk aipatu ostean, jarraian, elkarrizketatutako emakume preso eta preso ohietako batzuek itxialdian idatziriko zenbait testu ikusiko dugu. Zehazki, Simoneren, Lourdesen eta Altagraciaren izkribuak irakurriko ditugu.


### *10.2.1. Simone: komunikatzeko beharra*

Arestian esan bezala, Simone atxilotu eta espetxeratu zutenean, epaiketa amaitu zenetik hainbat hilabete igarota zeuden. Judizio horretan, epaileak osasun publikoaren aurkako delitua frogatutzat jo zuen. Horrela, lau urteko espetxe-zigorra zegokion Simoneri. Alta, kondena horren ordeaz, Espainiako Estatutik alde egiteko agindua eman zion epaileak. Arazo penalak bazter uzteko aukera ona izan zitekeen Simonerentzat, eta hala jakinarazi

zioten Brasilgo senitartekoek, bai aitak bai ahizpak etxera itzultzeko erregutu baitzioten. Simonek baina, ez zuen modu horretan bueltatu nahi. Ez zuen leporatutako lege-haustea egin eta ahalkegarria iruditzen zitzaion etxerako bidea horrela egin behar izateak. Hala, ofiziozko abokatuari helegitea jartzeko eskatu zion; baina, agidanez, hark ez zuen egin. Simone ez zen inoiz egon guztiz lasai kontu horrekin; baina, edonola ere, ez zuen bere burua giltzapean irudikatu behin ere ez. Hainbat hilabete iragan ziren judiziotik, berririk gabe, eta auzia konponduta zegoela pentsatzen zuen. Are gehiago, beharbada, poliziek topaturiko kokaina-poltsak bereak ez zirenez ohartu izango zirela ere okurritu zitzaion. Alabaina, ez zen horrela izan; eta, azkenean, hilabete batzuk geroago, beste hiri batean zegoela, beste enplegu bat zuela, Ertzaintzak Simone atzeman eta kartzelatu zuen, epaia hausteagatik. Horrela, 2009ko irailaren 1ean, 32 urte betetzekotan zegoela, Martuteneko espetxean itxi zuten.

Preso sartzea oso estugarria izan zen Simonerentzat. Ez zuen gertatzen ari zena ulertzen, eta babesgabetasuna, lotsa zein bakardadea sentitzen zuen. Hutsaren hurrengoia uste zen eta bere buruak nazka ematen zion. Ateak ixten gogoan zituen une oro, bizitza ere ixten ari zitzaizkiola pentsatzen baitzuen. Era berean, senideez ere oroit zen izugarri, beretzat oso inportanteak izanik. Beldur zen, senitartekoek ez zutelakoan gehiago errespetatuko, biziki huts egin zielakoan eta euren konfiantza hautsi zuelakoan; nahiz eta hastapenetik euren babesa izan zuen –eta horrelaxe izaten jarraitu zuen espetxean pasatutako denbora osoan zehar–.


Kartzelan sartzean, bost minutu baino ez zituen izan bere ahizpari deitzeko Brasilerara eta espetxean zegoela azaltzeko. Ezin izan zuen harekin berriz ere hitz egin astebete pasatu arte. Tarte horretan, nolabaiteko eskutitza idatzi zion; ahizpa hartzailetzat zuen egunkari moduko zer edo zer. Horretarako, Sartze Moduluan eskura zuen euskarri bakarra erabili zuen: *post-it* urdin txiki batzuk. Horietan, Simonek jakinarazitakoaren arabera, ahizpari esan nahi ziona agertu zuen, nahiz eta benetan ez zen hori guztia adieraztera atrebitzen eta ez zuen sekula idazki hori bidaltzeko egiazko intentziorik izan. Letra xehez eta alde bietan idatziriko zortzi papertxotan, bere sentimendurik sakonenak azaldu zituen. Ikus dezagun testua:



1. irudia. Simoneren lehenengo *post-ita* aurretik.




2. irudia. Simoneren lehenengo *post-ita* atzetik.



3  
realmente estou na procura de  
reglas p/ tudo, todos te olham  
para todos mesmo que n' sejam  
culpados, sabem sendo sendo  
condenados como eu me sinto  
condenada n' sei de verdade  
se sou capaz de suportar  
isso, confesso que minha  
voluntade é de morrer mas


3. irudia. Simoneren bigarren *post-ita* aurretik.




4  
n' tem como, pq n' tem como  
suportar aqui, o que mais  
desejo nesse momento é te  
abracar bem forte e mais a  
realidade é outra.

4. irudia. Simoneren bigarren *post-ita* atzetik.






5. irudia. Simoneren hirugarren *post-ita* aurretik.




6. irudia. Simoneren hirugarren *post-ita* atzetik.







7. irudia. Simoneren laugarren *post-ita* aurretik.




8. irudia. Simoneren laugarren *post-ita* atzetik.




9. irudia. Simoneren bosgarren *post-ita* aurretik.



10. irudia. Simoneren bosgarren *post-ita* atzetik.



11. irudia. Simoneren seigarren *post-ita* aurretik.



12. irudia. Simoneren seigarren *post-ita* atzetik.




7  
 ver su consiço com que [redacted]  
 entre em contato com minha  
 irmã e com [redacted] pq é o  
 único que poder ajudar vamos  
 ver quanto tempo mais posso  
 aguentar tudo é muito duro  
 05/09/09  
 Hoje diz passou mais rápido  
 do [redacted] umho me ver chorei  
 muito depois passou agora


13. irudia. Simoneren zazpigarren *post-ita* aurretik.

Si estou na cama e amanhã  
 é domingo vamos ver o que  
 vai acontecer ainda parece  
 que tudo é ~~uma~~ surreal e  
 contendo algumas coisas p/ os  
 os murinhos brasileiros que  
 estão aqui. Espero sair  
 daqui o mais rápido possível  
 vamos ver o que diz e depois  
 de enquanto isso vou estudar  
 bastante.


14. irudia. Simoneren zazpigarren *post-ita* atzetik.



15. irudia. Simoneren zortzigarren *post-ita* aurretik.



16. irudia. Simoneren zortzigarren *post-ita* atzetik.



17. irudia. Simoneren *post-itak*.

01/09/09 1

Karolina<sup>241</sup>, ñ sei o que dizer estou em  
 carcel com +3 pessoas é muito triste como  
 ve disse acabei ficando sem Joxepa<sup>242</sup>, sem  
 nada e na carcel sem poder falar com nada e  
 sem ter nada fora a ñ ser ve do outro lado  
 do mundo.

Como sempre achei que

<sup>241</sup> Karolina Simoneren ahizpa da.

<sup>242</sup> Simone atxilotu zuten unean, Joxepa izeneko adineko emakume baten barneko zaintzailea zen.

2

isso ñ fosse passar pq dentro de pouco  
estaria em casa contigo mas as coisas comigo  
ñ funcionam assim e estou aqui chorando com  
medo de tudo o que pode acontecer, Joxepa  
ñ sei como esta, minhas lágrimas já ñ tenho  
mais e estou morrendo de medo pq o tempo  
aqui são eternos a hora ñ passa agora

3

realmente estou na carcel ai reglas p/ tudo,  
todos te olhão pero todos mesmo ñ sejam  
culpados acabam sendo sendo condenados  
como eu me sinto condenada ñ sei de  
verdade se sou capaz de suportar isso,  
confesso que minha vontade é de morrer mas

4

ñ tem como, pq ñ tem como se matar aqui, o  
que mais desejo nesse momento é te abraçar  
bem forte mas a realidade é outra<sup>243</sup>

---

<sup>243</sup> «09/09/01 Karolina, ez dakit zer esan kartzelan nago beste hiru pertonekin oso tristea da zuk esan bezala azkenean Joxepa gabe gelditu naiz, ezer gabe kartzelan inorekin hitz egiteko aukerarik gabe eta kanpoan inor izan gabe zu izan ezik munduaz bestalde. Betiere hau ez zela gertatuko pentsatu nuenez laster zurekin etxean egongo nintzelako baina nirekin gauzek ez dute horrela funtzionatzen eta hemen nago negarrez gertatuko denaren beldur, ez dakit Joxepa nola dagoen, dagoeneko ez dut malkorik eta beldurrak airean nago hemen denbora amaigabea delako ordua ez da igarotzen orain kartzelan nago benetan arauak daude edozertarako, denek begirutzen dizute baina denek errudunak ez izan arren zigortuta bukatzen dute ni zigortuta sentitzen naizen bezalaxe bene-benetan ez dakit hau jasateko gai

02/09/09 1

Ka<sup>244</sup>, tudo isso parece surreal quando podia imaginar que passaria por isso se encontro de tudo e tem regra para tudo creio que o sistema ~~pen~~ penitenciario ñ funciona em nenhum país do mundo 1º pq todos estão juntos digo classificação de crime ñ sei quanto posso suportar. Mas é verdade que

2

no fim acabei ficando sem nada e ñ sei quanto tempo vou demorar aqui mas ñ sei se tenho estrutura pra aguentar. Não tenho vontade de nada...

E tudo é muito pesado<sup>245</sup>.

---

naizen, hiltzeko gogoia dudala aitortzen dut baina ez dago modurik, hemen ez dutelako hiltzeko modurik, une honetan gehien desiratzen dudana zu biziki besarkatzea da, baina errealitatea bestelakoa da».

<sup>244</sup> Karolina.

<sup>245</sup> «09/09/02 Ka, honek guztiak surrealista dirudi nola pentsa nezake horrelako zerbait pasatuko nuenik denetarik topatzen dut eta gauza guztietarako arauak dituzte uste dut espetxe-sistemak ez duela munduko herrialde bakar batean ere funtzionatzen lehenik eta behin denak elkarrekin daudelako delitu-sailkapenaz ari naiz ez dakit zenbat jasan dezakedan. Baina egia da azkenean ezer gabe amaitu dudala eta ez dakit zenbat geratuko naizen hemen baina ez dakit jasateko estrukturarik dudan. Ez dut ezertarako gogorik... Eta dena oso astuna da».



03/09/09

1

Estou super angustiada pq quero falar com vc e ñ me liberam o tel, pq aqui tem muitas regras e tudo quanto é tipo de pessoa e tem que se portar bem com tudo e com todas, todos querem saber o pq esta o que faz e na verdade ñ tenho vontade

2

de nada pq é tudo como uma pesadilha ou pior que ñ tenho o que fazer o tempo aqui é uma locura e cada um é um universo com suas nuances, suas posturas seu caracter e assim declaro que tudo me faz longo e muito forte de passar.

3

Nada é claro e a oscilação de humor é total, tudo se encontra aqui e a lei da carcele é o silêncio e seguir a norma p/ tudo ñ se pode falar nada e tão pouco mirar demasiado as pessoas e tudo da impressão que se estão jogando o único

4

que pode fazer é sempre calar e ñ olhar  
cada um tem uma informação e ninguém sabe  
nada todo é feito através de solicitudes e  
nunca ninguém te informa nada corretamente  
e vc aprende a valorar tudo mas o principal  
eu nunca

5 deixei de valorar que é o amor que tenho  
por vc. É a vergonha por tudo isso<sup>246</sup>.

04/09/09

O que estou usando aqui é um pouco de  
ilusão achando que vou sair pronto ñ sei  
prefiro acreditar nisso pq se ñ me morro cada  
dia o que mais me esta matando é ñ poder

6

falar com minha irmã deve estar desesperada  
ñ sei o certo que vai acontecer só vou saber

<sup>246</sup> «09/09/03 Guztiz nahigabetuta nago zurekin hitz egin nahi dudalako eta ez dutelako telefonoa libre uzten, hemen arau asko dituztelako eta guztia pertsona-motari dagokionez eta ondo portatu behar dute denarekin eta denekin, denek jakin nahi dute zergatik zauden hemen zer egin duzun eta egia esan ez dut ezertarako gogorik amesgaizto baten modukoa delako dena edo are eta okerrago ez dut zereginik denbora hemen eromena da eta gutariko bakoitza unibertso bat da bere ñabardurekin, bere jarrerekin bere izaera eta hala diot hau dena igartzeko luzea eta zaila iruditzen zaidala. Ez dago deus argi eta umore-oszilazioa erabatekoa da, denetik dago hemen eta isiltasuna da kartzelako legea eta edozertarako araua betetzea ezin da ezer esan ezta jendeari gehiegi begiratu ere eta denak jolasten daudela ematen du egin dezakezun gauza bakarria beti isilik egotea da eta ez begiratzea bakoitzak bere informazioa du eta inork ez daki ezer dena eskaeren bidez egiten da eta ez dizu inoiz inork ezer ondo azaltzen eta dena baloratzen ikasten duzu baina ez diot inoiz utzi funtsezkoena baloratzeari zukanako maitasuna da. Eta honen guztiaren ondoriozko lotsa».

ao certo quando falar com a advogada amanhã  
vou ver Ane<sup>247</sup>, Joxepa já esta num centro  
todo tempo e eu agora aqui como disse minha  
irmã sem Joxepa, sem nada vamos

7 ver se consigo com que Ane entre em  
contato com minha irmã e com a Tereza<sup>248</sup>  
pq é a única que pode ajudar vamos ver  
quanto tempo mais posso aguentar tudo é  
muito duro<sup>249</sup>.

05/09/09

Hoje o dia passou mais rápido Ane venho me  
ver chorei muito depois passou agora

8

Já estou na cela e amanhã é domingo vamos  
ver o que vai acontecer ainda parece que  
tudo é ~~um~~ surreal a contado algumas piadas  
p/ as meninas brasileiras que estava aqui  
espero sair daqui o mais rápido possível vamos

<sup>247</sup> Ane Simoneren ofiziosko abokatua zen.

<sup>248</sup> Tereza Simoneren laguna zen.

<sup>249</sup> «09/09/04 Itxaropen apur bat erabiltzen ari naiz hemen laster aterako naizela pentsatuz ez dakit nahiago dut hori pentsatu bestela egunero hil egiten naizelako gehien akabatzen nauena nire ahizparekin ezin hitz egitea da etsita egongo da ez dakit zer gertatuko den ziurtasunez ez dut abokatuarekin hitz egin arte jakingo bihar Ane ikusiko dut, Joxepa zentro batean dago aldi oro eta ni orain hemen nire ahizpak esan zuen bezala Joxepa gabe, ezer gabe ea lortzen dudan Ane nire ahizparekin eta Terezarekin harremanetan jartzea lagun diezadakeen bakarra baita ea zenbat denbora gehiago iraun dezakedan dena oso gogorra da».

ver o que diz a advogada enquanto isso vou estudar bastante<sup>250</sup>.

07/09/09 1

Ontem ñ escrevi nada me cambiarão de cela sem eu pedir disserão que era ordem assim que tenho que acatar, mas foi um tremendo show pq as meninas que estava pensou que eu havia pedido p/ cambiar enfim uma tremenda bronca agora estou com 1 brasileira e mais 2 espanholas enfim sem querer

2

já estava metida em confusão sem procurar ñ passa nada vamos ver se consigo sair daqui o quanto antes a advogada volta de ~~vaca~~ férias amanhã então acho que dentro de pouco consigo algo... cada vez te quero mais Karolina e quando sair daqui nos vemos e vi-  
vêramos coisas novas, que saudade de vc...<sup>251</sup>

<sup>250</sup> «09/09/05 Gaurko eguna azkarrago igaro da Ane ni ikustera etorri da negar asko egin dut baina geroago pasatu zait Zelda batean nago dagoeneko eta bihar igandea da ikusiko dugu ea zer gertatzen den oraindik dena surrealista dirudi txiste batzuk kontatu dizkiet hemen dauden neska brasildar batzuei hemendik ahal bezain laster irtetea espero dut ea zer dioen abokatuak momentuz asko ikasiko dut».

<sup>251</sup> «09/09/07 Atzo ez nuen ezer idatzi zeldaz aldatu ninduten nik ezer esan gabe agindua zela esan zuten beraz men egin behar nuela, baina izugarritzko ikuskizuna izan zen bertan zeuden neskek aldaketa nik eskatu nuela pentsatu zutelako laburbilduz sekulako liskarra orain brasildar batekin eta bi espainiarrekin nago hitz batez nahi gabe nahaste batean sartuta nengoen bilatu gabe ez da ezer gertatzen ea hemendik lehenbailehen ateratzea lortzen dudan abokatua bihar itzuliko da oportetatik orduan laster zerbait lortuko dudala uste dut... gero eta gehiago maite zaitut Karolina eta hemendik irteten naizenean elkartuko gara eta gauza berriak biziko ditugu, zure falta sentitzen dut...».

Antzeman daitekeenez, Simoneren narrazioa oso bizia da: puntuazio-zeinuak falta dira; azkar idazten du. Nolabait ere, «larrialdi narratiboa» (Curcio, 2011) da, eta bere gogoaldatea argi islatzen du. Bakarrik sentitzen da; triste, izututa, estututa. Gertatutakoaren erantzule uste da, eta dena alferrik galdu duelakoan dago. Artega dago bere familiaren nahiz zaintzen zuen adineko emakumearen egoeragatik, baita bere egoeragatik ere, bizi duen ziurgabetasuna dela eta. Ahizparenganako maitasuna adierazten du eta kartzelatua izatearen kausazko lotsa eta erruduntasun-sentimendua azaltzen dizkio. Behin eta berriz giltzapetzea jasateko gai izango den ala ez duda egiten duela erakusten du, eta hiltzeko gogoia ere baduela aitortzen du –lehenengo hilean, hirutan saiatu zen bere buruaz beste egiten–. Sentipen horiek guztiak egunerokotasunari eta espetxearen funtzionamenduari buruzko deskribapen xumeekin nahasten dira. Orokorrean, kartzela surrealista iruditzen zaio, zentzugabea eta amesgaizto baten parekoa. Marko horretan, idazketa adierazpen-modua da Simonerentzat; bere ahizpari esan nahi dion eta, saminaren ondorioz, esatera ausartzen ez den hori guztia kontatzeko bidea. Horrela, badirudi sentimenduak paperean jartzea lagungarria dela, komunikazio-trabak gainditzeari dagokionez. Idazketa oinazea kudeatzeko mesedegarri zaio, sentitzen duena izendatzeko, adierazteko, baita Karolinari esan nahi diona praktikatzeko ere. Simonek hitz egiteko nahiera du; eta, mingarria izan arren, egiten du.

#### *10.2.2. Lourdes: egunerokotasunaren kontraera*

Lourdes, 48 urteko gipuzkoarra, nerabezaroan hasi zen legez kontrako drogak hartzen eta, geroztik, ez dio sekula utzi heroina, kokaina eta haxixa hartzeari, hainbat desintoxikazio-tratamendutan ibili bada ere. Jardunbide horrek hainbatetan eraman du giltzaperara; droga-garraioan nahiz salmentan aritu baita maiz, modu horretan bere kontsumoa ere ziurtatzeko. Espetxeratze batzuk onerako izan direla uste duen arren –heriotzatik salbatu dutelakoan–, gehienetan kalterako izan direla baieztatzen du, arras presente dituela eta bizitza «izorratu» diotela nabarmenduta. Esate baterako, bere hamargarren eta azken kartzelaratzearen oroitzapen zinez negatiboa du; batetik, hamabi urtez kalean egon eta gero, itxialdira itzultzea izan zelako; bestetik, droga-kopurua normalki baino handiagoa izanik, kondena luzeagoa jaso zuelako. Gainera, prebentiboki sartu zen, eta urte eta erdi igaro arte ez zuen zigorra jakin. Aitzitik, egoera zalantzarri horretan, idazketa erabili zuen aurrera egiteko denbora-pasa moduan. Ikus dezagun bere idazkietako bat:



los puntos que te ganas con trabajo escuela, cursillos... Estas actividades están puntuadas trimestralmente y con esos puntos puedes cambiarlos por un vis extraordinario, una hoja meritória, otra con cancelación de partes... Tiene huecos, lo que por una parte, como la permanencia en celdas si la quieres, la cambias y te cuesta de tu trabajo si te ponen un parte el castigo suele ser el no bajar al patio, o sea, permanencia en celdas, pero no es lo mismo hacerlo por que uno quiere o por "castigo".

Bueno, sigo con mi exatante y a menudo día. Las celdas se abren otra vez a las 18'30 para que las presas cojan los trastos para la cena y a las 19'00 cenamos y nos cuentan otra vez. ¡VF! De la comida para mí no puedo decir que sea una maravilla, pero hay sitios prisiones en la que aun es peor. No es que sea mala, pero si hay que hacer 300 filetes por ejem el que pille el 34 seguro que lo come mas seco que una alpargata.

El año pasado desde que cenabas podias ir al patio hasta la hora de subir pero yo no se que no mas hay ahora que ya para la cena nos cierran el patio y o te quedas a fumar y charlar en un cuarto o te vas al chabolo hasta que cierran. Y jodete y baila, que mañana te espera un día igual, y son ya 3 años...



## 1 DIA EN MARTU:

Aun hay noches en las que me despierto de madrugada y por un momento no se donde estoy. Rapido caigo en que estoy aquí, en la prision de Martu e intento seguir durmiendo.

Nos despiertan con el 1<sup>er</sup> recuento del día a las 8 de la mañana volviendonos a cerrar para el aseo y la limpieza del chabolo (celda) y nos abren definitivamente a las 8´45 que ya puedes bajar a desayunar

Los días resultan largos. Las mañanas serían una ~~penuria~~ agobio si no dispusiésemos de escuela o de cursos que se nos ofertan, pero claro, en mi caso la mayoría de los cursillos no puedo acceder. por salud, esos son los deportivos o de baile y los que puedo como manualidades o pintura o algo tranquilo mandas la instancia y te contestan YA HAS HECHO y hala, por lo menos ahora estoy en este de radio en el que se esta tranquilas y puedo hacerlo. ~~La escuela ya es el 3er nivel porque ya tengo la eso y la escuela ya es la 3<sup>a</sup> vez que la repito, pero me ocupa voy a clase más por la amabilidad de Ana Mari, la maestra. Joder se nos jubila~~

\* A las 13h toca comer, 1´45 cierre de celdas y recuento ¡AH! En la comida tambien hay recuento, luego al cerrarnos tambien 13´45 y al cambio de guardia 14h otro recuento señores... no se vaya a perder alguna.




Nos abren de la siesta a las 16´45 aunque algunas nos podemos quedar en la celda pero eso sí has cambiado los puntos que te ganas con trabajos escuela, cursillos... Estas actividades están puntuadas trimestralmente y con esos puntos puedes cambiarlos por un vis extraordinario, otra con cancelación de partes... Tiene huevos, lo que por una parte, como la permanencia en celdas si la quieres, la cambias y te cuesta de tu trabajo si te ponen un parte el castigo suele ser el no bajar al patio, o sea, permanencia en celdas, pero no es lo mismo hacerlo porque uno quiere o por "castigo".

Bueno, sigo con mi excitante y ameno día. Las celdas se abren otra vez a las 18´30 para que las presas cojan sus trastos para la cena y a las 19´00 cenamos y nos cuentan otra vez. ¡UF! De la comida para mí no puedo decir que sea una maravilla, pero hay sitios prisiones en la que aun es peor. No es que sea mala, pero si hay que hacer 300 filetes por ejm el que pille el 34 seguro que lo come mas seco que una alpargata.

El año pasado desde que cenabas podías ir al patio hasta la hora de subir pero yo no se que normas hay ahora que ya para la cena nos cierran el patio y o te quedas a fumar y charlar en un cuarto o te vas al chabolo hasta que cierren. Y jodete y baila, que mañana te espera un día igual, y son ya 3 años...

Lourdesen idazkiak kartzela-kronikaren tankera du. Martuteneko espetxeko egun arrunt baten kontakizuna da; eta, hain zuzen ere, garrantzitsuena errutinaren edota ohikeriaren kontraera dirudi, egilearen iritziak ere jasota. WhatsApp bidez, elkarrizketa egin eta egun batzuetara, honela deskribatu zuen Lourdesek berak:



Halaber, agidanez, idazketak Lourdesentzat duen munta ez da giltzaper mugatzen. Izan ere, bere etorkizuneko proiektuetako bat bere autobiografia idaztea da. Senitartekoentzat egin nahi du, bi alaba eta bilobarentzat gehienbat, bere ibilbidea ulertu dezaten. Droga-menpekotasunaren kausaz, erlazio gorabeheratsu bezain tirabiratsua izan du senideekin eta, hortaz, bakardade handia ezagutu du. Oro har, badirudi gizarte-bazterketa itzela bizi izan duela droga-kontsumoa dela eta; emakume presoaren estigma baino, samingarriena emakume «jonkiarena» dela adierazteraino, bere kasuan bederen.

### *10.2.3. Altagracia: idazteko zaletasuna*

Altagraciarentzat, 35 urteko dominikararentzat, zinez gogorra eta traumatikoa izan zen presondegian sartzea. Aurreneko hilabeteetan biziki sufritu zuen senideengandik urruti egoteagatik. Hiru seme-alaben eta senar ohiaren barkamena behar zuela sentitzen zuen; baina, aldi berean, bere burua barkatzeko ezgauza zen. Alta, denborarekin, kartzelaldia bestela bizitzen hasi zen, jarrera eta ikusmoldea aldatuta; horrenbeste aldatuta ere, ezen, gaur egunean, esperientziaren oinazea ukatu gabe, itxialdia positibotzat baloratzen duen, behar bezala aprobetxatzen jakin duelakoan. Nolabait ere, beharrezkoa zuen geldialdia izan dela uste du; bere bizitzak une batean hartutako norabide okerra zuzentzeko aukera eman dion eternaldia eta bere buruan zentratzeko abagunea eskaini dion pausua. Barnegarbiketa egitearekin edota berriro ere jaiotzearekin parekatu ohi du maiz. Konkretuki,

Altagraciak gehien nabarmentzen duen egitateetako bat da preso pasatutako urtebetean denbora propioa izan zuela eta, horrela, aspaldian utzitako zaletasunak berreskuratzeko parada izan zuela. Berrartutako jardueretako bat idazketa izan zen, eta hala azaltzen du:

«Relatos ficticios y... y artículos para la revista, así, en plan quejas o reivindicaciones, y un poco... [Barreak] de izquierdas. [Barreak] Sí. [...] He vuelto a escribir. Escribía antes. Y lo dejé, como todo. Lo había dejado todo aparcado por ahí. Y ahora recuperé un poco eso» (Altagracia, 35 urte).

Fikziozko kontakizunak, iritzi-artikuluak, pelikulen kritikak, poemak, etab. idatzi zituen Altagraciak; usu, baita presondegiko aldizkarian argitaratu ere, horrek «*vidilla*» handia ematen ziolako. Inauteri batzuetan, aldarrikapenezko «*chirigota*» batekin ere ausartu ei zen. Bere hitzetan:


«Escribí una chirigota, para la presentación de carnavales. Muy bonita, pero era en plan reivindicativa, ¿no? [Barreak] Mencionamos... Pedimos permiso, claro. Mencionamos al educador... Nos metimos con el educador, con varios funcionarios, con el jefe de los [vis a] vises, el que autoriza los [vis a] vises, y no sé qué. Con los problemas que había en el polideportivo, porque no nos dejaban... No abrían los baños, había que pedir llave. Y... ¡Hicimos un montaje! Un montaje súper bien de... ¡Ah! También hablamos sobre el frío que hacía. El frío que hace en la... en los chabolos, y... ¿Y qué más dijimos? Pues un montón de cositas así, puntazos y no sé qué. Dijimos como que el educador no resuelve, que... [Barreak] A ver... “El del frío, no sé qué... [Kantatzen] Vamos a hablar con el educador...”, y otra “Y esperemos que llegue antes la calor”, ¿sabes? Como que no hacía nada el educador. Y lo presentamos y muy bien. O sea, la gente aparte, “Muchas gracias”, ¿no? La gente se rió mucho. Llevamos las mantas para taparnos así, que “Aquí estábamos con frío, no sé qué”. Muy bonito. Y los funcionarios que... con los que nos metimos con ellos que antes les pedimos permiso, pues... se sorprendieron, porque una cosa es leerlo, ¿no? Las letras, “¡Ah! Aquí estamos nosotros, ta, ta, ta, ta...”. Pues sí, vale, bien. Pero otra cosa es presentarlo. Súper chula nos quedó» (Altagracia, 35 urte).

Arabako presondegira iritsi baino lehen, oraindik Alcalá-Mecon (Madril) zegoenean, Altagraciak idatziriko lehen izkribua bere egunkaria izan zen. Beretzat bakarrik idazten omen zuen, bere gogoetak paperean jartzeak on egiten ziolako. Aurrerago baina, egunkariko oharra oinarri hartuta, kontakizun autobiografiko bat osatu zuen, fikziozko osagaiak erabilita, beste batzuek ere irakur zezaten. Ordenagailuz idatzi zuen, izenburua

eta azalaren irudia aukeratu zituen, bere izen-abizenekin sinatu zuen. Elkarrizketan azaldutakoaren arabera, bere sentimenduak eta iritziak adierazi nahi izan zituen, beste zenbait gai jorratzearekin batera; egunerokotasun orokorra, presoen arteko harremanak edo espazioaren bizipena, kasu. Honelaxe mintzo da egunkaritik fikziozko kontakizun autobiografikora egindako urratsaz:

«Cuando yo lo escribí, [el diario] era en plan... como para mí misma. [...] Ya luego le di forma de... [relato] ¿no? Porque eso no... Yo no lo escribí así tal cual. Eso fue un diario. [...] Ese diario no sé quién me regaló. Era un día pues... allí, de promoción. Alguna asociación o algo. Era una agenda escolar. Finita, muy pequeña, con los espacios muy pequeños... Pues yo escribía ahí “Esto, tal, no sé qué, hoy he visto tal, cual”. Un poco eso, sí. Y luego ya dije “Mira, lo voy a escribir y le voy a dar forma”. Y... lo pasé a limpio y lo escribí» (Altagracia, 35 urte).

Ikus dezagun, bukatzeko, Altagraciaren kontakizuna hurrengo orrialdeetan:



**20. irudia.** Altagraciaren kontakizunaren azala eta lehenengo orrialdea.

## La libertad entre rejas



**21. irudia.** Altagraciaren kontakizunaren azala.

## La libertad entre rejas

Corría la extraña primavera del año 2012, esa que impedía guardar la pesada ropa invernal, pero que a la vez nos obligaba a tener en el armario prendas de verano que en varias ocasiones llegamos a utilizar casi alternando con gorros de lana, guantes y chaquetas bien forradas. La primavera de ese año marcada precisamente por los estragos del cambio climático, obligó a los grandes almacenes a mostrar en sus tiendas doble escaparate tan desiguales como curiosos: Ropa de esquiar, abrigos, botas y bufandas por un lado, camisetas de tirantes, ropa ibicenca, sandalias y viseras por el otro; Aquello fue una locura y por primera vez en mucho tiempo, la opinión pública, el gobierno, los medios de comunicación, las organizaciones no gubernamentales y los indignados del 11m coincidían en algo: *Nos estamos cargando el planeta.*

Tras una agotadora semana de trabajo, Maríe se encontraba totalmente relajada, acababa de premiarse con un baño caliente tras el cual se dispuso a colorear su pelo intentando ocultar alguna cana que esporádicamente amenazaba con revelar sus ya pasadas 35 primaveras. Satisfecha con el resultado de su tinte, secaba su corta melena tarareando una de sus canciones favoritas al compás del ensordecedor ruido que emitía su secador de mano, cuando de repente, unos contundentes toques a la puerta interrumpía ese momento *zen* tal cual denominaba ella el hecho de dedicarse unas horas a si misma.

Sobresaltada sale del cuarto de baño y mira con extrañeza la hora en su teléfono móvil faltaban poco más de 45 minutos para dar las doce del día, hora en la que se supone debería abandonar el hotel donde se encontraba desde la noche anterior acompañada únicamente por un par de libros, una pequeña bolsa de compra, un teléfono móvil y un ordenador portátil que se había convertido en su compañero y aliado durante este último año. Sin poder disimular el malestar que le ocasionaba la interrupción, se dispuso a abrir, pensando que serían los empleados del hotel apresurados por hacer la limpieza de

## La libertad entre rejas

la habitación con el fin de tenerla disponible al siguiente cliente que se presentase en su búsqueda.

- Si? dice Maríe con voz entrecortada al darse cuenta de que fueron tres agentes policiales los que habían llamado a la puerta.

- Nos muestra su documento, por favor? Inconscientemente Maríe se tranquilizó, ya que esto le hizo suponer que se trataba de una inspección rutinaria a los clientes del hotel.

- Ah! Si, claro! dijo ella dirigiéndose rápidamente al bolso donde guardaba entre otras muchísimas cosas, su carnet de identidad.

El agente toma el documento, lo verifica en una máquina y continúa hablando:

- Hemos visto que le sale algo en nuestra base de datos, tendrá que acompañarnos a comisaría. Fueron las únicas palabras pronunciadas por aquel miembro de la policía nacional, quien en ese momento prestaba más interés al pequeño espacio interior de la habitación, que a la persona que tenía delante.

- Tendré que vestirme! comentó Maríe de manera jocosa en un intento vano de disimular los nervios que la consumían por dentro.

- Está usted acompañada? preguntó el agente en un tono impreciso y difícil de distinguir.

- No, señor, estoy sola!

- Muy bien, le esperamos aquí, tómese su tiempo, dijeron dos de ellos casi al unísono con una apreciable amabilidad.

## La libertad entre rejas

La inquietud, el miedo, la desesperación, la intriga, la tristeza, el desamparo, la impotencia, la culpabilidad... fueron los sentimientos que de repente y sin permiso alguno invadieron todo su ser.

Unas horas antes de ser interrumpida, Maríe llevaba por lo menos una hora y media en el cuarto de baño de aquel hotel. El espejo continuaba empañado, el secador esperando a terminar la mitad izquierda del pelo que faltaba, los restos del tinte esparcidos por doquier amenazaban con no ser bien recibida en otra ocasión en aquel conocido y céntrico hotel madrileño.

Maríe comenzó a recogerlo todo rápidamente y sin coordinación, tenía a tres miembros del cuerpo del orden esperando por ella detrás de aquella puerta. De repente, entro todo el desastre, se encontró con un colorido pantalón pesquero a rayas, un minúscula vaquero de cinturilla elástica, una visera de color rosa y una foto tomada en un cochecito de supermercado que plasmaba dos caritas angelicales; Instantáneamente y durante unos segundos se derramó en lágrimas, lágrimas emergentes de lo más profundo de su corazón, lágrimas de rabia consigo misma, lágrimas de dolor, lágrimas de sangre.

Retomó fuerzas, sabía que el miedo, el llanto y la culpabilidad que sentía no le ayudarían a mejorar o cambiar las circunstancias, tal vez este era el momento de poner en práctica toda la teoría aprendida sobre inteligencia emocional, esa rama de la psicología que enseña a colocar el corazón justo a nivel del cerebro como un solo órgano que realizan una misma función.

Terminó de recogerlo todo y salió:

- Ya estoy lista, cuando quieran. Se dispusieron a salir del hotel, mientras ella se



## La libertad entre rejas

conectaba al whatsapp por su teléfono móvil aprovechando enviar un mensaje común a sus amigos diciendo que se ausentaría un tiempo de España por un problema médico familiar; lo cual fue muy creíble, ya que Maríe es de origen inglés.

Mientras esperaba el coche para llevarle a comisaría, Maríe pensaba en que justo el día anterior a todo esto, ella había comido con la hija de una compatriota suya que se encontraba en Madrid por Erasmus, habían organizado una salida turística para el siguiente fin de semana, se había ido de compras, ya que se acercaba el puente del primero de mayo y las vacaciones con sus pequeños hijos estaban prácticamente organizadas, pero tal como dice Jorge Luís Borges en uno de sus poemas: **“los futuros tienen forma de caerse a la mitad y el terreno de mañana es demasiado inseguro para planes”**. Ahora Maríe estaba en un coche policial esposada, otros dos coches detrás haciendo de escolta y tres motos delante abriendo paso; todos ellos con sus respectivas luces y sirenas para que no pase inadvertido el cumplimiento de sus funciones. A través de la ventanilla de aquel coche policial en compañía de la que supuso sería la “agente jefe”, podía ver la curiosidad que causaba en los conductores y viandantes aquel séquito policial en medio de la gran vía madrileña, veía el morbo y la intriga reflejados en sus rostros, suponiendo cuando menos que llevarían allí dentro al mismísimo Hanibal Lecter. Mucha parafernalia o mucho intento por justificar el poder que se ejerce o el salario que se gana... *Tal vez!* pero para ella, fue sin imaginarlo el inicio del camino que cambiaría su vida para siempre.

La libertad entre rejas

*La vida en la cárcel.*

Mi nombre es Maríe Barry Devlin, soy Inglesa, gracias a todas por la acogida. Se presentaba Maríe en un perfecto castellano ante la atenta mirada de funcionarios, educadores, psicólogo, trabajador social, jurista y todas las internas del módulo de respeto de aquel Centro Penitenciario. A partir del momento de la presentación que no solía ser mayor de tres o cuatro días contando desde la llegada al módulo, la vida de las reclusas dejaba de ser privada, cada una empezaba a indagar o simplemente especular sobre la nueva compañera. Comienzas a sentirte importante, todas quieren saber de ti, necesitan información da igual que sea cierta o no, se suceden entrevistas como si del show business se tratara, te aconsejan unas, te desaconsejan otras, te hacen sentir un bicho raro entre tantas depredadoras cautivas con sed de información. ¿Quién dice la verdad, quién miente??? No lo sabía, pero tampoco le importaba. Maríe fue educada en una familia de clase media y de fe cristiana, tenía sus valores muy bien inculcados, un civismo y una moral muy arraigada, gozaba de una educación privilegiada y una cultura general bastante clara. Sabía sacar provecho a sus grandes bazas: Escuchar, ver y callar. Tomaba sus propias decisiones sin dejarse influenciar, no se formaba ningún prejuicio de nadie por comentarios deliberados y absurdos que esporádicamente llegaban a sus oídos. Maríe socializaba con todas sus compañeras, era observadora y había leído mucho sobre la psicología humana y la kinésica esa curiosa ciencia que estudia el lenguaje corporal, así que no le resultaba muy difícil crear su propia opinión al respecto de cada una, aunque fuera totalmente distinta al resto de las internas como curiosamente sucedía en la mayoría de los casos. Fue así como Maríe encontró su propio espacio entre todas aquellas chicas tan peculiares como distintas, fue así como

## La libertad entre rejas

finalmente podía contar con el respeto de todas y con el aprecio y la confianza de unas cuantas.

Aquella manera de vivir trajo a su memoria gratos recuerdos de su niñez. Maríe se sorprendió a si misma estupefacta, todo aquello le parecía un *dejavou*: El comedor del colegio donde había estudiado, los chismes, peleas, dimes y diretes en el patio. Recordaba perfectamente a la madre superiora recriminarles mil veces por tirar la comida en las mesas, por dejar las sillas sin meter, por pegar chiclets en los asientos, por colarse en las filas. Día tras día recibían la misma reprimenda en aquel colegio de monjas, exactamente igual que ahora, con la pequeña gran diferencia de que Maríe ya no tenía 8 años y sus compañeras del centro tampoco. Esta forma de vivir le parecía desesperante, comenzó a sentirse asfixiada entre aquellas paredes, cada día era igual al anterior y al siguiente, estaba harta, su cuerpo agotado de no hacer nada, su cabeza ausente de tanto pensar y sus ojos secos de tanto llorar. Una mañana mientras escuchaba la historia de una de sus compañeras, se dio cuenta de que había llegado allí justamente cuando su vida se desmoronaba en mil pedazos, justo cuando buscando a su alrededor se daba cuenta de que no tenía nada ni a nadie. Maríe tomó consciencia de la situación y reconoció la oportunidad que una vez mas le brindaba la vida. Ahora le sobraba tiempo para recuperarse a si misma y a todo aquello que había dejado en el camino, tendría la oportunidad de cuidar su cuerpo y cultivar su mente, se dio cuenta de que debía sacarle provecho a todo aquello, rentabilizar su estancia entre rejas, sacar a flote esa personalidad desparpajada, segura y proactiva que le había caracterizado siempre. Maríe comenzó a participar en todas las actividades en las que podía inscribirse (con la limitante de ser nueva y no tener asignado un centro de cumplimiento), talleres, cursos, volvió a meterse de lleno en la lectura, en la búsqueda de su espiritualidad y fue cuando

## La libertad entre rejas

verdaderamente confirmó que no estaba allí por casualidad del destino; sabía que estos últimos años de su vida había tomado un giro equivocado y que había perdido el contacto con todo aquello que le hacía vivir. Maríe se había transformado en una mujer indolente, ausente, orgullosa, ególatra y vanidosa. Esa misma noche decidió hacer un balance de su vida y se dio cuenta que le quedaba mucho camino por recorrer, pero esta vez consciente y valorando lo que tenía, por que ahora la cuenta de su vida estaba en números rojos. Maríe se sintió sola, necesitaba encontrarse a si misma, necesitaba volver a sentirse persona, necesitaba volver a reír, necesitaba volver a entender la chispa de la alegría en su mirada, andar libremente, sin miedos, volver a situar la cabeza sobre los hombros y apoyar los pies firmemente a la tierra. Hacía poco más de 15 años que residía en España y todos los momentos buenos y malos que había vivido en todo ese tiempo llegaban a su mente una y otra vez, le venían imágenes de una vida llena de ilusiones, de amor y libertad, esas mismas imágenes eran las protagonistas de sus sueños, unas imágenes tan claras como una película en pantalla gigante de gran definición. De repente explotó en llanto, sentía la necesidad de hablar con alguien, necesitaba perdonarse a si misma, necesitaba el perdón de sus amigos y familiares, sentía la imperiosa necesidad de volver a reconciliarse con Dios, ese mismo Dios al que hoy le agradecía tenerla en aquellas interminables paredes de hormigón, aquel Dios todopoderoso que le llenaría de fe y de esperanza, a ese Dios que entre lágrimas incontenibles le suplicaba perdón, un perdón que fue escuchado y que tuvo como respuesta el parpadeo constante de una estrella que destacaba por el brillo intenso de su resplandor, una estrella que posó durante unos segundos en el pequeño espacio de su ventana exterior, una estrella que quiso anunciar un nacimiento: El renacer de una mujer nueva, un alma limpia y un corazón lleno de paz.

La libertad entre rejas

### *La celda, la habitación*

La urbanización era la cárcel, su celda su habitación, las reclusas sus vecinas, los funcionarios vigilantes y el resto de las instalaciones el trampolín desde el cual daría el gran salto para ir en busca de todo aquello que había dejado escapar. Lo que al principio le parecía imposible, en estos momentos le parecía algo normal, Maríe observaba la habitación y veía espacio suficiente para que dos personas viviesen justamente con lo necesario en tan solo dos metros cuadrados. Un pequeño armario que no permite guardar prendas de recuerdos pasados ni vaqueros que nos hacen añorar una figura imposible de volver a alcanzar, baldas, ducha, wáter, lavabo, litera, escritorio y una pequeña ventana que mantiene el contacto con el exterior: La luna, las estrellas, el color de la vida dibujada en un misterioso cielo azul y el fascinante verde de las montañas. Después de llevar allí casi tres meses, Maríe veía todo diferente al día en que llegó por primera vez, dos metros cuadrados es lo que tiene! intimas, haces amigos, conoces a la gente, la cercanía entre una habitación y otra mantiene la familiaridad y la unión que nos hacen perder los grandes espacios, nos acerca a nosotros mismos y a los demás, nos regala pequeños y deliciosos instantes de felicidad con sabor a las gracias de un vecino satisfecho, el calor de la vida, el embriagante sabor de intimidad con uno mismo; Todo esto es muy breve para ser eterno, pero si lo guardamos podríamos tener un valioso cofre de donde extraer las joyas de felicidad con que adornamos nuestras vidas, joyas reales y verdaderas que brillan con la luz propia de una mirada radiante que emana la paz interior, la liberación de las cadenas y el sosiego del alma. En el exterior de la vivienda se aprecian unos jardines bien cuidados, patio con cancha adaptada a volley, basket, futbol y frontenis, un lavadero, escalinatas para compartir impresiones y

## La libertad entre rejas

anécdotas, un café o simplemente para disfrutar las torpezas de los deportes que se esfuerzan en perfeccionar. La urbanización en general está dotada de todo lo necesario para el disfrute de los inquilinos fijos y temporales: Una piscina común cerrada por la crisis que azota la vecindad, pero que en su momento fue una ayuda muy valiosa contra el calor sofocante en los meses de verano, polideportivo, salón de actos, panadería, autoescuela, facilidades de estudios a distancia, biblioteca, centro médico, teléfono público con horario y tiempo limitados, escuela, iglesia, academia de idiomas para extranjeros, cine semanal, tienda por catálogo, guardias de seguridad, comedor gratuito, sala audiovisual para talleres y cursos educativos, entre otros detalles. Todo cuidadosamente pensado para una estancia agradable y perfectamente aprovechable. Esto adquiere un valor diferente cuando lo miras a tan solo dos metros cuadrados de distancia. Insistimos en vivir en urbanizaciones de lujo en las que no conocemos a nuestros vecinos, edificios gigantescos con gimnasios a los que nunca vamos, piscinas en las que nunca nadamos, jardines perfectamente cortados en los que nunca paseamos, canchas deportivas que no disfrutamos y avanzados sistemas de seguridad que no necesitamos; Es tan grande el espacio, que se pierden los pequeños detalles de la vida, es tan grande nuestro ego que cada día nos exige más y si hoy le compramos un coche mañana querrá un avión, es tan fuerte que nos hace olvidar quienes somos, de donde venimos y hacia donde nos dirigimos. Marié lo analizaba de esta forma y se reprimía a sí misma por haber sido víctima de su propio ego durante tanto tiempo, por colocarlo unos centímetros por encima de su corazón, por haberle permitido dominar su vida hasta el punto de arrebatarse su propia voluntad, por no pararle a tiempo cuando le exigía más. Un tanto abrumada por los recuerdos de sus actos, se levantaba intentando encontrar en su imagen reflejada en un minúsculo espejo de bolsillo las ilusiones desvanecidas en el tiempo, su sonrisa borrada por la angustia, sus sueños destrozados

## La libertad entre rejas

por la realidad de sus errores, sus alas rotas por unos barrotes de seguridad... Titubeó durante unos segundos, le daba miedo encontrarse con el reflejo de sí misma. Para sorpresa de Maríe, lo que encontró en aquella imagen fue algo distinto, aquel espejo reflejaba un rostro relajado, un alma libre, limpia, un corazón lleno de bondad, de fe y esperanza, un corazón fuerte y motivado, tranquilo, rebosante de perdón y libre de autocompasión, encontró a la madre abnegada, a la mujer entregada, honesta y valiente que había sido siempre, se encontró a sí misma; fue como si de una manera mágica o extraña el tiempo hubiera retrocedido, volvió a ver en su cara esa paz que sólo se refleja en una imagen cuando ya la sientes en el alma. Entonces por primera vez en mucho tiempo, echó de menos sus raíces y su gente, necesitaba sus orígenes, su tierra. Fue la primera vez en mucho tiempo cuando Maríe comenzaba a sentirse natural, real, empezaba a valorar lo que tenía en ese momento y lo aquello que había perdido en el camino, se sentía libre de egocentrismos inútiles y vanidad superficial, se sentía renovada, plena, con ganas de luchar por los suyos y por su felicidad, esa que se dejó arrebatar por el ego que hoy vencían la realidad, su fuerza maternal y las ganas de vivir en la libertad que le ofrecían su fe, su amor, sus amigos y sus confortables dos metros cuadrados de habitación compartida.

***El reto...***





*No vamos a morir, y si morimos, no moriremos en silencio, no desapareceremos a medianoche sin levantar alboroto, tenemos que enfurecernos, tenemos que golpear el suelo hasta que tiemble. ¡No moriremos sin montar una revolución!*

Nawal al-Sa'dawi (1995: 48-49)



## **ONDORIOAK**



Urratsez urrats bere ibilbidea osatuta, doktore-tesi hau bere amaierara iritsi da; eta, nola ez, bere ondoriorik aipagarrienak biltzeko ordua da. Horrenbestez, jarraian, ikerketaren ekarpen nagusiak laburbiltzeari ekingo diot.

•

Ikerketak ardatz izan du kartzela genero-erakunde bezala aztertzea, generoa (bir)sortzen duen instituzio moduan hartuta. Hartara, genero-ikuspegia gako izan da ikerlanaren hiru ildo nagusiak garatzeko: 1) espetxeratutako emakumeen bizipenak, ibilbideak, aldaketak nahiz ikaskuntzak; 2) kartzelaldiko genero-diskriminazioak eta desberdinkeriak; eta 3) itxialdiko arazoei eta zailtasunei aurre egiteko erresistentzia-praktikak eta agentzia.

Ikuspegi biktimizatzaileak eta kriminalizatzaileak baztertu nahi izan ditut, eta emakume presoak baliozko solaskidetzat hartu. Euren arteko aniztasuna kontuan hartuta egin nahi izan dut, horren konplexutasunari helduta. Izan ere, emakume atxiloek ez dute inolako talde bateraturik osatzen. Diferentzia nabarmenak daude haien artean, baita askotariko ikuspegiak, posizionamenduak eta iritziak ere. Hori guztia jaso eta islatu nahi izan dut, ezinbestekoa iruditzen zaidalako, batetik, emakume presoek buruzko bestelako iruditeria sortzea, errespetua eta aintzatespena funts hartuta; eta, bestetik, euren nondik norakoen jakintzan sakontzea, aktore sozialak euren bizitzen oinarrizko protagonista legez hartzen dituen ikusmoldearen bitartez –nahiz eta, batzuetan, aktore sozial horiek ekintzarako eta eraldaketarako aukerak murrizten dituzten testuinguruetan egon–.

• •

Lehenengo ildoari dagokionez, emakume presoek bizipenetan dibertsitate handia ikusi dugu; eta, aniztasun zabal horrekin batera, ñabardurei heltzeko beharra ere topatu dugu. Apur bat orokortuta baina, delituetara eta presondegira daramaten bideak askotarikoak izanda ere, esan daiteke nolabaiteko gizarte-kalteberatasuna presente dagoela kasik beti; oro har, zaurgarritasun-faktoreak pilatzen dituzten emakumeak baitira. Horren erakusle, agerikoa da emakume atzeritarren, ijitoen eta droga-kontsumitzaileen gainordezkapena.

Delituzko ekintzaren hautua arrazoi ekonomikoengatik egiten da gehienetan. Batzuetan, biziraupen-estrategia dirudi, beharrak nolabait ere bultzatutakoa; besteetan, aldiz, bizi-maila edota kalitatea hobetzeko nahiera nagusi da. Edozelan ere, lege-haustea estrategia ekonomikoa da orokorki. Hortaz, emakumeen artean bi delitu-mota ageri dira batez ere: osasun publikoaren aurkako delituak, legearen kontrako drogen garraioarekin –nagusiki, *mula* bezala– edo salmentarekin –txikikazko salerosketan edo «trapitxeoan», batik bat– lotutakoak; eta jabetzaren nahiz ordena sozioekonomikoaren kontrakoak –ebasketa eta lapurreta txikiak, oro har–.

Preso sartzeari zauskada handiko unea da emakume gehientzat; segurtasunik ezaren eta egonezinaren kausaz, zaurgarri bezain babesgabe sentitzen baitira ia denak. Aurreneko aldiz sartu direnak nahigabetuta, kezkatu, urduri eta galdurik egon ohi dira, eta espetxe-aurreiritzien ondoriozko beldurrak ere bizi dituzte. Aitzitik, kartzelan aurretik ere egon direnentzat, desberdina izaten da; eurentzat ere kezkarria eta samingarria izan arren, espetxe-sistemaren gaineko ezagutzari esker ezberdin egiten baitiote aurre egoerari. Oro har, denek bat egiten dute adieraztean nolabaiteko ikaskuntza-prozesua dagoela; hau da, azkenean, zure burua kartzelan kokatzen duzula, itxialdira nola edo hala moldatu egiten zarela, bertan nola bizi(raun) ikasita.

Presondegitik irtetea ere ez da nolana hiko momentua. Emozio askoren eztanda moduan deskribatzen dute elkarriketatutako emakume gehienek. Izan ere, pozgarria izan ohi da, baina baita zaila eta gogorra ere. Hutsetik abiatu behar izatearen sentsazioa dute askok, eta, ondorioz, arruntak dira ziurgabetasuna, egonezina eta beldurra. Gehienetan, aurretik zituzten arazo berberak topatzen dituzte, eta horiei gehitu egiten zaizkie kartzelaldiaren kausazkoak. Azkeneko horien artean arretoa berezia merezi du estigmaren gaiak. Gizarte-gaitzespenari buruzko bizipenak askotarikoak izanagatik ere, kartzelaratutako emakume guztiek kritikatzeko dute estigmatizatzea, eta kexu dira jendarteak ezjakintasunez gogorki epaitzen dituelako. Halaber, denek kudeatzen dute etiketa negatibo hori moduren batean edota bestean; egoeraren eta hartzailearen arabera, une bakoitzean erabakita zer esan eta zer gorde, isiltasuna babes-estrategia moduan erabili edo ez.

Kartzelaldia orokorrean baloratzean, gehienek emozio oso biziko aldi moduan aipatzen dute. Oso ohikoak omen dira gorabehera emozionalak, aldarte aldakorak eta askotariko sentipenak (ezintasuna, frustrazioa, etsipena, atsekabea, nahigabea, amorrua, etab.). Era berean, genero-eredu hegemonikoak barneratuta, arrunta ei da senideei huts egin izana

pentsatzea eta horregatik sufritzea, errudun sentitzea, baita ama, alaba edo amona eskasa uste izatea ere. Egoera horretan, espetxealdiak eragina du eurengan guztiengan; denak baitaude nolabait markatuta. Zuzenean edo zeharka, guztiek aipatzen dituzte aldaketak; anitzak diren aldaketak: batzuk lehen baino ahulago sentitzen dira, eta ziurtasunaren eta autonomiaren galera aipatzen dute; beste batzuek, kontrara, indartsuago aurkitzen dira; batzuk egoistago eta oldarkorrago bihurtu omen dira; beste batzuk, ordea, solidarioago eta pazienteago.

Orobat, kartzelaldiari buruzko balorazio orokorrak ere askotarikoak dira. Hala, batzuek itxialdia gutxi-asko positiboki balioztatzen dute, sartu zirena baino hobeto irten ei direla baloratzen dutelako edo beraien bizimodua zentzuren batean edota bestean hobetu omen dutelako. Alabaina, ez dira derrigorrean espetxe-sistemaren aldekoak; finean, positiboki baloratzen dutena soilik euren esperientzia propioa baita. Kartzelaldiaren inguruko iritzi positiboa duten emakumeen aburuz, giltzapea euren bizimodua hobetzeko «aukera» izan da; ohartarazpen edo hondoa jotzearen moduko zerbait, gogoeta sustatu duen inflexio-puntua. Azken batean, batzuek aldaketak gauzatzeko baldintza egokiak topatzen dituzte kartzelan; bestelako testuinguruan daude, ekintzak eta gizarte-erlazioak ere bestelakoak dira, baloreak zein pentsaerak bezalaxe. Orokorrean, hiru kasutan baino ez da agertzen balorazio positiboa: 1) espetxean kalean baino arrisku gutxiago eta segurtasun gehiago topatzen denean; 2) drogak hartzeari uzten zaionean; eta 3) norberaren ongizatean edota zaintzan zentratuta, egoerari onura ateratzen zaionean.

Aitzitik, espetxean egondako emakume gehienek balorazio negatiboa egiten dute, inoiz bizitako esperientziarik okerreana edota okerrenetarikoa delakoan. Samingarria, gogorra bezain suntsitzailea dela adierazten dute, sekulako buruhausteak eta atsekabeak eragin dizkiela, baita asko galduarazi diela ere. Halaber, ez duela deus onerako balio uste dute, eta bere helburu ofizialak omen diren birgizarteratzea, birgaitzea eta berreztea zalantzan jartzen dituzte, zigorra nagusi dela kritikatur. Orobat, umiliazioaz, beheramenduaz eta duintasun ezaz mintzo dira, eta itxialdia amesgaizto batekin edo amaierarik gabeko zulo batekin parekatzen dute. Batzuentzat hain kaltegarria izan da esperientzia, ezen horren inguruan hitz egiteko zailtasunak ere badituzten. Bizipenak eragindako minaren kausaz, ohikoak dira isiluneak, hutsuneak, etenaldiak eta amaitu gabeko esaldiak, zatikatutako edo hautsitako lengoia.

• • •

Bigarren ildoari dagokionez, hots, kartzelaldiko genero-diskriminazio eta ezberdinkeriei dagokienez, ikusi dugu zertan datzan kartzelaren genero-erakunde izaera. Ezbairik gabe, eremu diskriminatzailea, sexista eta androzentrikoa da emakume atxiloentzat, genero-rol tradizionalak eta erlazio hierarkikoak sendotzen dituen. Azken urteotan hobekuntzaren bat edo beste jazo dela pentsa badaiteke ere, begi-bistakoa da emakumeak desabantailan jarraitzen dutela, bereizkerietako gehienek bere horretan jarraitzen dutelako eta, Espetxe Erakundeek burututako azken aldaketan harira –batez ere, Makrokartzelen eta Errespetu Moduluen harira– berriak ere sortu direlako. Alabaina, genero-diskriminazioen inguruan galdetuz gero, emakume preso gehienek ez dela horrelakorik gertatzen erantzuten dute, espetxe-langileek eta kartzelarekin harremana duten elkartetako kideek ere egin bezala. Antza, genero-diskriminazioez jabetzeko zailtasunak daude, genero-ikuspegia ezohikoa delako eta gizartean hedatutako berdintasunaren mito faltsuak presondegian ere eragina duelako. Edozelan ere, desberdinkerien inguruan sakon itaunduta, bereizkerien markoan uler daitezkeen egitate ugari azaleratzen dira.

Lehenik eta behin, emakumezko atxiloentzako zentro gutxiago daude. Bizkaian ez dago emakumeentzako departamenturik, Euskal Herrian ez dago Amentzako Unitate bat bera ere eta hirugarren gradua (erregimen irekia) egiteko posibilitate material gutxiago dago. Horren guztiaren ondorioz, dispertsio geografiko eta deserrotze gehiago pairatzen dute. Era berean, Makrokartzelek egoera apur bat parekatu badute ere, oraindik ere okerrago kokaturik egon ohi dira maiz, eremu txiki eta eskasenetan. Espazio falta horren kausaz, ezinezkoa da emakumeak perfilaren arabera sailkatzea, eta horrek arazo aipagarria sortu du Errespetu Moduluen ezarpenarekin. Izan ere, espetxe gehienetan emakumeentzako modulu bakarra egonik eta hura Errespetuzkoa bihurturik, presoek maiz ezin izan dute aukeratu bertan egotea edo ez, ustez duen borondatezko izaerarekin hautsita. Bestalde, barne-antolaketan hobekuntzaren bat egon den arren, oraindik ere emakumeek espazio, jarduera zein enplegu askotan egoteko mugak dituzte, gizonek lehentasuna dutelako eta usu ez direlako gizon-emakumeak elkartu nahi. Orobat, presondegi batetik beste batera lekualdatzeko ere gizonek lehentasuna dute; garraio-lineak eurengan pentsatuta prestatu dira eta, ondorioz, emakumeek denbora gehiago behar izaten dute.

Bigarrenik, jardueren eta ikastaroen eskaintza areagotu eta dibertsifikatu den arren, egun oraindik ere ugariak dira emakumeen feminizatzearekin eta etxekotzearekin loturikoak



(joskintza, ile-apainketa, etab.). Hala ere, elkarrizketatuetako askok nabarmentzen dute emakumeak tradizionalki maskulinoztat hartutako ikastaro eta tailer hezigarrietan parte hartzen hasi direla (igeltserotza, iturgintza, etab.). Gizonen interesek lehentasuna izaten jarraitu arren, badirudi emakumeek zeregin berrietan trebatzen hasteko nolabaiteko beta lortu dutela. Alta, orokorki gabezia handiko jarduerak eta ikastaroak dira, sakontasunik eta jarraipenik gabeak, kalean lana lortzeko alferrekoak. Kartzela-enpleguei dagokienez, soldatapeko lanean dauden emakumeen kopurua hazi egin da, baina oraindik ere espetxe batzuetan lan-aukerak urriagoak dira emakumeentzat. Gainera, soldatak baxuagoak dira, oro har, okerren ordaindutako lanetan daudelako nagusiki, horiek usu feminizatutakoak izanik.

Hirugarrenik, maizago eta zorrotzago zehatzen zaie emakumeei, eta diziplina handiagoa eskatzen zaie, gizonak baino gatazkatsuagoak edota arriskutsuagoak ez izan arren. Era berean, kontrol handiagoa bizi dute, mugimendu-askatasun gutxiago dute eta espetxeko beharginek gehiagotan esaten diete zer egin eta zer ez. Bestalde, Errespetu Moduluekin jarraituta, aintzakotzat hartu behar dugu exigentzia-maila, presioa, kontrola eta presoen arteko mailaketa edo hierarkia sendotzen dituen eredu dakartela eta horrek emakumeei eragin diela gehienbat; Euskal Herriko emakumeen departamentu ia guztiak halakoxeak direlako, gizonenak ez bezala.

Laugarrenik, emakumezkoen osasun-egoera larriagoa, kezkarriagoa eta okerragoa da. Izan ere, aunitz dira depresioa, antsietatea, buruzko gaixotasunak, etab. bizi dituztenak. Alabaina, osasun-tratamenduek, baliabideek eta zerbitzuek gabezia handiak dituzte, eta neurrigabeko medikalizatzearekin estali nahi izaten dira. Bestalde, Errespetu Moduluei lotutako arazoak azaleratzen dira beste behin ere; bada, bertan derrigorrezkoa da beste presoen zaintzaz arduratzea, hots, beste atxiloen ongizatearen obligazioa hartzea.

Bosgarrenik, emakumeek kanpo-erlazioen galera edo haustura handiagoa bizi dute preso egotearen kausaz. Maizago bukatzen dira beren bikote-harremanak, bakardade gehiago bizi dute, eta, hortaz, sostengu afektibo eta ekonomiko gutxiago dute. Hori guztia gutxi izango balitz bezala, gehiagotan galtzen dute seme-alaben tutoretza. Orobat, ama, alaba edo amona bezala epaituagoak daude. Esaterako, irizpide ofiziala ez izan arren, espetxe-langileek gehiagotan hartzen dute kontuan familia-egoera emakumeen kasuan gizonen kasuan baino. Emakume batzuentzat positiboa izanagatik ere, argi dago horrek genero-eredu hegemonikoak sendotzen dituela, emakumeak zaintza-lanak euren gain hartzera

bultza ditzakeela eta nolabaiteko presioa sor dezakeela zaintzailea eta ama izateko, edo behar bezalako ama eta zaintzailea izatea frogatzeko.

Seigarrenik, eta azkenik, generoarekin korapilatutako bestelako kategorien ondoriozko bereizkeriak ditugu. Genero-diskriminazioekin gertatu bezala, gutxiengoa dira bestelako ezberdinkeriak sumatzen dituztenak, baina egon badaude batzuk. Gutxi horiek salatzen dute emakume atzerritarren zaugarritasuna –batik bat, egoera irregularrean daudenena– eta emakume ijitoen desabantaila-egoera, baita kartzela-sistemaren klase-iragazkia ere. Horrela, bestelako hitzekin esan arren, sistema polizialaren, penalaren eta espetxearen izaera hautakorra kritikatzeko dute, jendarteko kide zaugarrienen kalterako delakoan.

• • • •

Zalantzarik gabe, kartzelaldiak oso posizio zailean kokatzen ditu emakumeak, jokatzeko ahalmena gutxituta eta zaugarritasuna areagotuta. Alabaina, testuinguru murriztatzaile eta hertsatzaileenetan ere badago nolabaiteko agentzia. Horrek, hain zuzen, ikerketaren hirugarren eta azken ildora igortzen gaitu, hots, itxialdiko arazoei, trabei eta zailtasunei aurre emateko erresistentzia-praktiketara. Azken batean, modu sortzailean, aldakorrean eta dinamikoan, emakume presoek itxialdiaren ondorioak neutralizatzeko edo arintzeko eginahalak egiten dituzte, nolabaiteko ongizatea lortzeko saialdiak, gogoko ez dituzten egitateak aldatzeko ahaleginak. Mugak muga, subjektu aktiboak dira, eta espetxealdiko egoera hertsatzailea izateari behin ere ez utzi arren, onura batzuk lortzeko gai dira, tarte batzuek bederen. Erresistentzia-praktika indibidualak eta kolektiboak dira, kontzienteki zein inkontzienteki egindakoak –nahiz eta nahitasuna presente dagoen beti–. Horietako asko kalean ere egikaritzen dira, baina giltzapean berezitasunak dituzte.

Erresistentzia-praktikak bihitzen hasita, espetxe barruko harremanetan barrendu dugu. Izan ere, betiere gizarte-erlazioen baitakoa da kartzela-erregimenak eragindako oztopo, muga nahiz desabantailei nola hala aurre egiteko norbanakoen ahalmena edo gaitasuna. Hartara, giltzapekoak munta handiko hartu-emanak dira; nahiz eta asko itxialdi-garaira baino ez diren mugatzen. Hasteko, kontuan hartu behar ditugu emakume presoen arteko elkartasun-adierazpenak. Haien arteko elkarbizitza-arazoak eta istiluak nahiko ohikoak izan arren, babes-sareak ere sortu ohi dira. Elkarrizketatuen arabera, garrantzitsuak dira

zinez; giltzapean kokatzeko lagungarriak baitira, espetxeko funtzionamendua ikasteko, nolabaiteko egunerokotasuna sortzeko, itxialdia jasangarriagoa egiteko, baita sostengu emozionala eta ekonomikoa izateko ere. Sare horien gakoa elkarrekikotasuna da eta, oro har, afinitatearen arabera eratutako taldeak dira, jatorriaren edota etniaren arabekoak maiz. Haatik, elkartasun-sare horiek ez ezik, adiskidetasun-harremanak ere sortzen dira kartzelan –gehienen ustez, benetako adiskidantzak egitea zaila izan arren–. Laguntasun-erlazioek ere sostengu emozionala eta ekonomikoa eskaintzen dute, eta, horrez gainera, baita konfiantza eta zintzotasuna ere.

Era berean, emakume presoen eta espetxe-langileen arteko hartu-emanak ditugu. Horien gaineko balorazioak askotarikoak izan arren, botere-erlazioak eta asimetria oso presente daude beti, kartzelaren ardatz nagusietako bat denez gero beharginen eta atxiloen arteko hierarkia. Alde batera utzi ezin den bereizketa dago presoen eta langileen artean; eta, horrenbestez, elkarrekintza guztietan agerikoa da beharginen nagusitasuna eta atxiloen menpekotasuna. Hala eta guztiz ere, giltzapetutako emakumeek botere-harreman horiek nola hala kudeatzen dituzte, euren posizio menpekotik nolabait ere jokatzeko dute, onura batzuk lortzeko, itxialditik lehenago irteteko edota espetxe-sistemari aurre egiteko, nork bere irizpide zein aukeren arabera. Batzuek langileen autoritateari desafioa egiten diote eta konfrontazio-zuzenak gauzatzen dituzte. Beste batzuk liskarrak eta istiluak saihesten ahalegintzen dira, sumisio-plantak edo itxurakeria egikarituta; egoera eta posibilitateak aztertu ondoren, komenigarriena hori delakoan. Orobat, asko kartzelako langileak euren kontuetan nahasten saiatzen dira, bakoitzarekin nola jokatu ikasita. Haratago doanik eta preso perfektu eta eredugarri bilakatzeari ekiten dionik ere ez da falta, portaera horrekin abantailak lortuko direlakoan. Deus bermatzen ez duten jokaerak dira, argi-ilun askoko praktikak, baina ezin ukatuzkoa da agentzia azaleratzen dutela.

Presoen arteko elkartruke ekonomikoen eta salerosketen esparruan ere erresistentziazko praktika aipagarriak mahaigaineratu dira. Izan ere, atxiloen artean nolabaiteko merkatua dago, «trapitxeoen» sare zinez zabala. Bide ekonomiko-material alternatiboen bitartez, arazo ekonomikoak eta gabezia materialak gainditzen saiatzen dira, baita presondegian erosi ezin diren produktuak –baimendutakoak nahiz debekatutakoak– lortzen ere. Azken batean, giltzapean ere, munta handikoak dira baliabide ekonomiko-materialak. Noiz edo noiz, elkartruke eta salerosketa horiek istiluak sortzen dituzte; baina, batzuetan, arazorik ez egoteko nolabaiteko arauketa ere badago.

Halaber, espetxe barruko erlazioez ari garela, ezin aipatu gabe utzi presoan arteko hartu-eman sexu-afektiboak. Azken batean, munta handiko harremanak dira kartzela-sistemari aurre egiteko eta itxialdia jasateko, hots, espetxealdia pairagarriago edo eramangarriago egiteko. Aniztasun zabala azaleratzen duten erlazioak dira; motibazio afektibo-sexualak eta ekonomikoak baitaude, harreman heterosexualak nahiz lesbikoak, itxialdiko garaira mugatzen direnak eta kalean ere jarraitzen dutenak.

Erresistentzia-jardunbideak aletzen jarraituta, kanpo-erlazioak, espazioak eta denborak ere jorratu ditugu, murrueen zurruntasunari ihes egiteko praktiken ikuspegitik. Izan ere, itxialdi fisikoa edo hormen bestaldeko munduarekin bereizkuntza fisikoa funtsezkoa da kartzela-sistemaren logikaren baitan. Alta, emakume presoek murrueen zorrotasun hori higitzera bideratzen diren praktikak ere gauzatzen dituzte; espetxetik landako mundura hurbiltzera zuzentzen diren egintzak, barrukotik aldentzera, giltzapean egotea hainbeste ez sentitzera edo tarte batzuek ahaztera, behintzat.

Espetxetik kanpoko harremanak euskarri eta ihesbide garrantzitsua dira espetxeratutako emakume gehienentzat, bizipen samingarrietatik salbuetsita ez egon arren. Izan ere, jada esan bezala, oso arruntak dira huts egin izanaren sententzia, erruduntasun-sentimendua, ohiko rola ez betetzearen kausazko sufrimendua, etab. Testuinguru horretan, emakume presoek komunikazio-moduekin jokatu egiten dute, askotariko jomugak miran: batzuek kontaktu-bide ez ofizialak –telefono mugikorrek, kasu– erabiltzen dituzte, presondegiak eskaintako aukeren eskasiari aurre eginez; beste batzuek, aldiz, hartu-emanak pixka bat murrizten dituzte edo komunikazio-modu batzuk baztertzen dituzte, nolabaiteko babes-estrategia bezala, kontaktu-une horiek eurei edo euren senideei eragindako sufrimendua gutxitzeko; hainbatek zaintza-modu berriak ere jartzen dituzte praktikan (bisitetan ondo egotearen plantak egitea eta senideentzat kezka-iturri izan daitezkeen kontuak isiltzea, senitartekoei dirua bidaltzea, etab.); hainbatek euren presentzia sendotzeko eginbideak ere baliatzen dituzte –esate baterako, espetxean eskuz egindako opariak bidalita–; etab. Alta, babes edo sostengu afektiboaz gain, kontuan hartu behar dugu kanpo-harremanen garrantzia esparru ekonomiko-materialean ere badagoela; bada, batzuek senideen bidez lortzen dituzte diru-sartzeak pekulioan, paketeak, kartzelan eskuragai ez dauden edota debekatuta dauden produktuak, etab.

Espazioari eta denborari dagokienez, kontuan eduki behar dugu preso egoteak espetxe bateko hormen artean itxita egoteko obligazioa esan nahi duela, epealdi jakin batez, bai

mugimendu-askatasuna, bai denbora antolatzeke ahalmena nabarmen murriztuta. Beraz, ez bairik gabe, esperientzia mugatzailea da espazioaren zein denboraren ikuspegitik, eta, ondorioz, emakume preso askok galera-sentsazioa bizi dute. Haatik, gehienek espazioaz nahiz denboraz jabetzeko nolabaiteko praktikak egikaritzen dituzte, bestelako esanahiak eta edukiak landuta. Jardunbide horien artean aipa ditzakegu, kasu baterako, kartzelako espazioak birdefinitzeko saialdiak, espetxe-sistemak emandako definiziotik aldenduta; zelda norberaren eremu bilakatzeko eginahalak, norberaren nahierara egokituta eta ahal bezala dotoretuta; denboraren astuntasuna gainditzeko, oharkabeteke eta entretenitzeko jardunbide edo denbora-pasak; etab.

Erresistentzia-praktiken zerrendarekin amaitzeko, barrua arintzeko ahaleginak ere landu ditugu, adierazpen-moduen eta sormenaren bidez. Arestian aipatu bezala, espetxealdia emozio biziko epealdia da. Ohikoak dira gorabehera emozionalak, aldarte aldakorak eta sentipen mingarriak. Emakume presoek horri aurre egiten saiatzen dira, dagoeneko ikusi ditugun praktikekin batera, gorputz-espresioa eta adierazpen idatzia ere erabilia.

Gorputzeke espresioari dagokionez, elkarrizketatutako emakumeetako askok tentsioa kanporatzeko bide bezala aipatzen dituzte jarduera fisikoa eta kirola, dantza, etab. Antza denez, baretzeko baliagarri egiten zaizkien praktikak dira. Alta, horiek ez ezik, kontuan hartu behar ditugu nor bere buruari egindako zauritze-ekintzak edo autolesioak ere; ez baita batere ezohikoa emakume presoek euren gorputza ebakitzea eta harramazkatzea, paretaren kontra ukabildak edo kolpeak jotzea, etab. Halakoak helburu ezberdinekin egin baitaitezke ere, gehienetan barrena husteko bideak dira, ondoeza kanalizatzeko eta nolabait lasaitzeko moduak, mina materializatzeko bitartekoak. Alabaina, ezin da aipatu gabe utzi atxiloek ez dituztela beti horrela interpretatzen, oso hedatuta baitaude kritikak, ulertezintasuna, ikuspegi estigmatizatzaile eta patologizatzailea.

Idazketa edo adierazpen idatzia ere, ezberdintasunak ezberdintasun, barrena lasaitzeko bitarteko baliagarri moduan ageri da maiz. Presoek, batzuetan, espetxeak euren eskura jarritako aukerak erabiltzen dituzte; kasu baterako, kartzela-aldizkarietan edo idazketa-lehiaketetan parte hartuta. Baina, beste askotan, euren kabuz edo ekimen propioz ekiten diote idazketari. Garrantzi handiko praktika bezala azaleratzen da giltzapean, identitate-eduki sakoneko komunikazio-jardunbidea denez gero eta presoak jendarteak ukatutako ahotsa gorputzu eta aldarrikatu dezakeenez gero. Testuen nolakotasunari dagokionez, aniztasun handia antzeman daiteke, baina nagusi dira espetxealdiarekin loturiko gaiak,

baita poemak, lan autobiografikoak –fikziozkoak izan edo ez– eta kartzela-kronikak ere, itxialdiko nondik norakoentzat egokienak direlakoan.

•••••

Ikerketa amaituta eta bere ondorio nagusiak laburbilduta, espetxe-sistemaren inguruan eta emakume presoaren egoeraren inguruan zer pentsatu edo hausnartu badagoela esango nuke. Beraz, doktore-tesia bukatutzat jota ere, ezin dugu esan Gizarte Antropologiaren edo Ikasketa Feminista eta Generokoen zereginak ahitu direnik. Oraindik ere asko dago egiteko, arakatzeko eta sakontzeko, dudan jartzeko nahiz kontrastatzeko, baita begirada, galdera edota norabide berrien zentzuan berraztertze ere. Kasu baterako, interesgarria izango litzateke hurrengo ikerketek aztertzea zeren araberakoak diren erresistentziazko jardunbideen hautaketan eta aplikazioan emakume presoaren artean dauden diferentziak, ikerketa honek ezin izan baitu hori azaldu. Kartzela-sistemaren abolizioa gertatu artean, asko dira ikuspegi antropologikotik nahiz feministatik egin daitezkeen –egin beharreko– ekarpenak. Ez dago ezer ebatzita edo itxita, eta ugariak dira aurrera begirako ikerketa-ildoak, galdekizunak eta eztabaidak.

## **BIBLIOGRAFIA**





## Bibliografía

- ABU-LUGHOD, Lila (1990): "The Romance of Resistance: Tracing Transformations of Power Through Bedouin Women", *American Ethnologist*, 17(1), 41.-55. orr.
- ACALE SÁNCHEZ, María (2015): "Preámbulo estadístico y jurisprudencial", María Acale Sánchez eta Rosario Gómez López (koordk.), *Derecho Penal, Género y Nacionalidad*, Comares, Granada, 111.-131. orr.
- ACKER, Joan (1990): "Hierarchies. Jobs, Bodies: A Theory of Gendered Organizations", *Gender and Society*, 4(2), 139.-158. orr.
- \_\_\_\_\_ (1992): "From Sex Roles to Gendered Institutions", *Contemporary Sociology*, 21(5), 565.-569. orr.
- \_\_\_\_\_ (1998): "The Future of "Gender and Organizations": Connections and Boundaries", *Gender, Work and Organization*, 5(4), 195.-206. orr.
- ADAY, Ronald H.; KRABILL, Jennifer J.; DEATON-OWENS, Dayron (2014): "Religion in the Lives of Older Women Serving Life in Prison", *Journal of Women & Aging*, 26(3), 238.-256. orr.
- AGUILERA REIJA, Margarita (2005): "Situación jurídica de las extranjeras presas", María Teresa Martín Palomo, María Jesús Miranda López eta Cristina Vega Solís (argk.), *Delitos y fronteras. Mujeres extranjeras en prisión*, Instituto de Investigaciones Feministas, Universidad Complutense de Madrid, Madril, 253.-269. orr.
- \_\_\_\_\_ (2011): "Mujeres presas: la doble condena", César Manzanos (koord.), *Políticas Sociales para abolir la prisión / Kartzela abolitzeko gizarte politikak*, Ikusbide, Gasteiz, 111.-120. orr.
- AGUSTÍN, Laura María (2005): "Cruzafronteras atrevidas: otra visión de las mujeres migrantes", María Teresa Martín Palomo, María Jesús Miranda López eta Cristina Vega Solís (argk.), *Delitos y fronteras. Mujeres extranjeras en prisión*, Instituto de Investigaciones Feministas, Universidad Complutense de Madrid, Madril, 91.-110. orr.

ALMEDA, Elisabet (2002): *Corregir y castigar. El ayer y hoy de las cárceles de mujeres*, Bellaterra, Bartzelona.

\_\_\_\_\_ (2003): *Mujeres encarceladas*, Ariel, Bartzelona.

\_\_\_\_\_ (2007): “Ejecución penal y mujer en España: Olvido, castigo y domesticidad”, Elisabet Almeda Samaranch eta Encarna Bodelón González (argk.), *Mujeres y Castigo: Un enfoque socio-jurídico y de género*, Dykinson, Madril, 27.-65. orr.

\_\_\_\_\_ (2010): “Privación de libertad y mujeres extranjeras. Viejos prejuicios y nuevas desigualdades”, Fanny T. Añaños (koord.), *Las mujeres en las prisiones. La Educación Social en contextos de riesgo y conflicto*, Gedisa, Bartzelona, 201.-234. orr.

ALMEDA SAMARANCH, Elisabet; DI NELLA, Dino; NAVARRO, Carmen (2012): “Mujeres, cárceles y drogas: datos y reflexiones”, *Oñati Socio-legal Series*, 2(6), 122.-145. orr.

AL-SA'DAWI, Nawal (1995 [1988]): *Memorias de la cárcel de mujeres*, Horas y Horas, Madril.

ALSEDO, Quico (2015-01-27): “Reclusas forzadas al sexo con funcionarios en la cárcel de Brieva”, *El Mundo*, <<http://www.elmundo.es>> helbidean [Kontsulta: 2015eko urtarrilaren 28a].

ALVARADO SÁNCHEZ, Ruth (2012): *Perspectiva histórica y problemas actuales de la institución penitenciaria en España. Las mujeres encarceladas toman la palabra*, doktore-tesia, Universidad de Salamanca, Departamento de Sociología y Comunicación, Salamanca.

AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA (2009): *Burdinen arteko herria. Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren historia*, Amnistiaren Aldeko Mugimendua, lekurik gabe.

APAOLAZA BERAZA, Joxe Migel; HERNANDEZ GARCIA, Jone Miren; PEREZ ALDASORO, Pio (koordk.) (2014): *Antropologiako hiztegia*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

ARARTEKOA (1996): *Situación de las cárceles en el País Vasco*, Arartekoa, Gasteiz.

\_\_\_\_\_ (2014): *La atención sociosanitaria a la salud mental de las personas privadas de libertad en la CAPV*, Arartekoa, Gasteiz.

- ARBELAITZ GARCIA, Miren; BENGOTXEA SOROZABAL, Edurne; MÉIJOME TEJERO, Alma; RUIZ TORRADO, Maria; VARA JIMENEZ, Laura (2012): *Mujeres ex-presas: vulnerabilidad y autonomía*, argitaratu gabeko ikerlana, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Emakunderen 2011ko ikerketa-beka.
- ARENAL, Concepción (1991 [1894]): *El visitador del preso*, ACOPE Emakume Presoen Kolaboratzaileen Elkarte, Madril.
- ARETXAGA, Begoña (1995): “Dirty Protest: Symbolic Overdetermination and Gender in Northern Ireland Ethnic Violence”, *Ethos*, 23(2), 123.-148. orr.
- ARNOSO MARTÍNEZ, Ainara (2005): *Cárcel y trayectorias psicosociales: actores y representaciones sociales*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- ARÓSTEGUI, Elisabete; FERNÁNDEZ, Araceli; GARCÍA DEL MORAL, Nieves; URBANO, Aurora (2008): *Prisión y género. Efectos del encarcelamiento en mujeres y hombres presos y en su entorno familiar*, Zubiko Elkarte, Bilbo.
- AYUSO, Alejandro (2001): “La intervención socioeducativa en el tratamiento penitenciario”, *Pedagogía Social. Revista Interuniversitaria*, 6-7, 73.-99. orr.
- AZAOLA, Elena (1996): *El delito de ser mujer. Hombres y mujeres homicidas en la ciudad de México: historias de vida*, Plaza y Valdés, Mexiko.
- \_\_\_\_\_ (2007): “Género y justicia penal en México”, Elisabet Almeda Samaranch eta Encarna Bodelón González (argk.), *Mujeres y Castigo: Un enfoque socio-jurídico y de género*, Dykinson, Madril, 67.-82. orr.
- AZNAR, Blas (1968): *Notas para un estudio sobre biología criminal de la mujer. La delincuencia catamenial*, Escuela de Medicina Legal, Madril.
- BALLESTEROS PENA, Ana (2013a): “Els Mòduls de Respete (MdR) i les Unitats Terapèutiques i Educatives (UTE) en les presons espanyoles: un primer abordatge des d’una perspectiva de gènere”, VI Congrés Català / Internacional de Sociologia, Perpinyà.
- \_\_\_\_\_ (2013b): “Las mujeres encarceladas en los Módulos de Respeto (MdR) y las Unidades Terapéuticas y Educativas (UTE) del sistema penitenciario español: una propuesta de análisis”, Heriberto Cairo eta Lucila Finkel (koordk.), *Actas del VI*

*Congreso Español de Sociología “Crisis y cambio: propuestas desde la Sociología”,*  
Madrid, 1, 1302.-1313. orr.

BALLESTEROS PENA, Ana; ALMEDA SAMARANCH, Elisabet (2015): “Políticas de igualdad en las cárceles del siglo XXI. Avances, retrocesos y retos en la práctica del encarcelamiento femenino”, *Praxis Sociológica*, 19, 161.-186. orr.

BARAÑÍ [EQUIPO] (2001): *Mujeres gitanas y sistema penal*, Metyel, Madrid.

\_\_\_\_\_ (2007): “Apuntes sobre la situación de la comunidad gitana en la sociedad española. Mitos y realidades que influyen en la criminalización de las mujeres gitanas”, Elisabet Almeda Samaranch eta Encarna Bodelón González (argk.), *Mujeres y Castigo: Un enfoque socio-jurídico y de género*, Dykinson, Madrid, 163.-184. orr.

BARRENETXEA, Olatz; MARKEZ, Iñaki; MORENTIN, Benito; LOPEZ, Gabriela; BARRIOS, Oihana; KRAKENBERGER, Andrés (koordk.) (2014): *Inkomunikazioa eta tortura. Azterketa egituratua Istanbulgo Protokoloaren arabera*, ARGITUZ, AEN, Ekimen Elkartea, GAC, Jaiki-Hadi, OME, OSALDE, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

BAUMAN, Zygmunt (2005): *Vidas desperdiciadas: la modernidad y sus parias*, Paidós, Bartzelona.

\_\_\_\_\_ (2007): *Miedo líquido: la sociedad contemporánea y sus temores*, Paidós, Bartzelona.

BAZÁN, Iñaki (1992): *La cárcel de Vitoria en la Baja Edad Media. 1428-1530*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.

BAZÁN, Iñaki; IBÁÑEZ, Carlota (2000): *La Cárcel Celular de Vitoria*, Gasteizko Udala, Gasteiz.

BECCARIA, Cesare (1998 [1764]): *De los delitos y de las penas*, Alianza, Madrid.

BEGUÁN, Viviana; et al. (2006): *Nosotras, presas políticas*, Nuestra América, Buenos Aires.

BELLO RAMÍREZ, Jeisson (2013): *Cuerpos encerrados, vidas criminalizadas. Interseccionalidad, control carcelario y gobierno de las diferencias*, argitaratu gabeko tesina, Universidad Nacional de Colombia, Magister en Estudios de Género, Bogotá.

- BENERÍA, Lourdes (1987): “¿Patriarcado o sistema económico? Una discusión sobre dualismos metodológicos”, Celia Amorós *et al.*, *Mujeres, ciencia y práctica política*, Debate, Madril, 39.-54. orr.
- BENTHAM, Jeremy (2011 [1791]): *Panóptico*, Círculo de Bellas Artes, Madril.
- BERGA, Anna (2009): “Adolescencia en riesgo y perspectiva de género”, *Servicios Sociales y Política Social*, 87, 93.-107. orr.
- BERGALLI, Roberto (1996): “La violencia del sistema penal”, Roberto Bergalli (arg.), *Control social punitivo: sistema penal e instancias de aplicación (policía, jurisdicción, cárcel)*, J. M. Bosch, Bartzelona, 7.-23. orr.
- BHAVNANI, Kum-Kum; DAVIS, Angela Y. (2007 [1996]): “Mujeres presas, estrategias de transformación”, Barbara Biglia eta Conchi San Martín (koordk.), *Estado de Wonderbra. Entrejeando narraciones feministas sobre las violencias de género*, Virus, Bartzelona, 197.-215. orr.
- BLÁZQUEZ VILAPLANA, Belén; RAMOS VÁZQUEZ, Isabel (2011): *La mujer en la cárcel: historia jurídica y políticas penitenciarias en España*, Universidad de Córdoba, Kordoba.
- BODELÓN GONZÁLEZ, Encarna (2007): “Mujer inmigrante y sistema penal en España. La construcción de la desigualdad de género en el sistema penal”, Elisabet Almeda Samaranch eta Encarna Bodelón González (argk.), *Mujeres y Castigo: Un enfoque socio-jurídico y de género*, Dykinson, Madril, 105.-131. orr.
- \_\_\_\_\_ (2011): “Prólogo”, CELS Lege- eta Gizarte-Ikasketen Zentroa, DGN Nazioaren Defendatzailletza Orokorra eta PPN Nazioaren Espetxe-Prokuradoretza, *Mujeres en prisión. Los alcances del castigo*, Siglo XXI, Buenos Aires, 9.-12. orr.
- BONFIL BATALLA, Guillermo (1990): *México profundo: una civilización negada*, Grijalbo, Mexiko.
- BOSWORTH, Mary (1996): “Resistance and Compliance in Women’s Prisons: Towards a Critique of Legitimacy”, *Critical Criminology*, 7, 5.-19. orr.
- \_\_\_\_\_ (1998): “The Imprisoned Subject: Agency and Identity in Prison”, *Social Pathology*, 4(1), 48.-54. orr.

- \_\_\_\_\_ (1999): *Engendering Resistance: Agency and Power in Women's Prisons*, Ashgate, Aldershot.
- \_\_\_\_\_ (2000): "Confining Femininity: A History of Gender, Power and Imprisonment", *Theoretical Criminology*, 4(3), 265.-284. orr.
- \_\_\_\_\_ (2003): "Gender, Race and Sexuality in Prison", Barbara H. Zaitzow eta Jim Thomas (argk.), *Women in Prison. Gender and Social Control*, Lynne Rinner Publishers, Boulder, Colorado, 137.-153. orr.
- BOSWORTH, Mary; CARRABINE, Eamonn (2001): "Reassessing Resistance: Race, Gender and Sexuality in Prison", *Punishment & Society*, 3(4), 501.-515. orr.
- BOSWORTH, Mary; FLAVIN, Jeanne (2007a): "Introduction. Race, Control, and Punishment: From Colonialism to the Global War on Crime", Mary Bosworth eta Jeanne Flavin (argk.), *Race, Gender, & Punishment. From Colonialism to the War on Terror*, Rutgers University Press, New Brunswick, 1.-10. orr.
- \_\_\_\_\_ (2007b): "Epilogue. Humanizing Difference: Toward a New Penalty", Mary Bosworth eta Jeanne Flavin (argk.), *Race, Gender, & Punishment. From Colonialism to the War on Terror*, Rutgers University Press, New Brunswick, 216.-223. orr.
- BOURDIEU, Pierre (1977): *Outline of a Theory of Practice*, Cambridge University Press, Cambridge.
- \_\_\_\_\_ (2007 [1998]): *La dominación masculina*, Anagrama, Bartzelona.
- BRAH, Avtar (2004 [1992]): "Diferencia, diversidad, diferenciación", Zenbait Egile, *Otras inapropiables. Feminismos desde las fronteras*, Traficantes de Sueños, Madril, 107.-136. orr.
- BULLEN, Margaret; HERNÁNDEZ GARCÍA, Jone Miren (2010): "El concepto de género", *Añamendi Eusko Entziklopedia*, <<http://www.euskomedia.org/aunamendi>> helbidean [Kontsulta: 2015eko abuztuaren 3a].
- BULLEN, Margaret (2011): "Antropología feminista, antropología aplicada: encuentros y desencuentros", Luis Díaz Viana, Óscar Fernández Álvarez eta Pedro Tomé Martín (koordk.), *Lugares. Tiempos. Memorias. La Antropología Ibérica en el siglo XXI*, León, 671.-681. orr.

- BURGESS-PROCTOR, Amanda (2012): “Intersections of Race, Class, Gender, and Crime”, Sandra Walklate (arg.), *Gender and Crime. Critical Concepts in Criminology (Volume I)*, Routledge, New York, 314.-336. orr.
- BURILLO ALBACETE, Fernando J. (1999): *El nacimiento de la pena privativa de libertad*, EDERSA, Madril.
- CABRERA, Liliana (2011): *Obligado tic tac*, Báncame y punto, Buenos Aires.
- \_\_\_\_\_ (2012): *Báncame y punto*, Báncame y punto, Buenos Aires.
- \_\_\_\_\_ (2013): *Tu nombre escrito en tinta china*, Báncame y punto, Buenos Aires.
- CABRERA CABRERA, Pedro José (2002): “Cárcel y exclusión”, *Revista del Ministerio de Trabajo e Inmigración*, 35, 83.-120. orr.
- \_\_\_\_\_ (2011): “Exclusión social y prisión: algunas propuestas para combatirla”, César Manzanos (koord.), *Políticas sociales para abolir la prisión / Kartzela abolitzeko gizarte politikak*, Ikusbide, Gasteiz, 83.-99. orr.
- CAGE, John (1961): *Silence: Lectures and Writings*, Wesleyan University Press, Middletown.
- CANTERAS MURILLO, Andrés (1990): *Delincuencia femenina en España. Un análisis sociológico*, Justizia Ministerioa, Madril.
- CARLEN, Pat (1983): *Women’s Imprisonment. A Study in Social Control*, Routledge and Kegan Paul, Londres.
- \_\_\_\_\_ (1985): *Criminal Women*, Basil Blackwell, Oxford.
- \_\_\_\_\_ (1988): *Women, Crime and Poverty*, Open University Press, Oxford.
- \_\_\_\_\_ (2012): “Why Study Women’s Imprisonment? Or Anyone Else’s?”, Sandra Walklate (arg.), *Gender and Crime. Critical Concepts in Criminology (Volume V)*, Routledge, New York, 240.-250. orr.
- CARRIZO, Janete Alanis; GUTIÉRREZ MIRANDA, Judith Irais; TAPIA JIMÉNEZ, Olivia (2013): “El ideal femenino y la educación emocional a principios del siglo XX”, *Revista Electrónica de Psicología Iztacala*, 16(4), 1361.-1384. orr.

- CASADÓ MARÍN, Lina Cristina (2011): *Los discursos del cuerpo y la experiencia del padecimiento. Acciones autolesivas corporales en jóvenes*, doktore-tesia, Universitat Rovira i Virgili, Departament d'Antropologia, Filosofia i Treball Social, Tarragona.
- CASTILLA DEL PINO, Carlos (zuz.) (1992): *El Silencio*, Alianza, Madril.
- CASTILLO ALGARRA, Joaquina; RUIZ GARCÍA, Marta (2010): “Mujeres extranjeras en prisiones españolas. El caso andaluz”, *Revista Internacional de Sociología*, 68(2), 473.-498. orr.
- CEBERIO BELAZA, Mónica (2010-06-17): “Prisiones cree que en Meco hubo sexo entre presas y funcionarios”, *El País*, <<http://elpais.com>> helbidean [Kontsulta: 2014ko urriaren 13a].
- CENDÓN, José Manuel; BELINCHÓN, Esteban; GARCÍA, Henar (2011): *Módulos de Respeto. Manual de Aplicación*, Barne-arazoetako Ministerioa, Madril.
- CEREZO DOMÍNGUEZ, Ana Isabel (2015): “La aplicación de las reglas de Bangkok a la normativa penitenciaria española”, María Acale Sánchez eta Rosario Gómez López (koordk.), *Derecho Penal, Género y Nacionalidad*, Comares, Granada, 25.-44. orr.
- CERTEAU, Michel (2000 [1980]): *La invención de lo cotidiano. I. Artes de hacer*, Universidad Iberoamericana, Mexiko.
- CHUECA, Josu (2013): “Mendekuaeren garaipena”, *Argia*, 2358, 4.-8. orr.
- CLEMENTE DÍAZ, Miguel (1987): *Delincuencia femenina. Un enfoque psicosocial*, UNED Urrutiko Hezkuntza Unibertsitate Nazionala, Madril.
- CLIMENT, Carlos; ERVIN, Frank; ROLLINS, Ann; PLUTCHIK, Robert; BATINELLI, Catello (1977): “Epidemiological Studies of Female Prisoners. IV. Homosexual Behavior”, *Journal of Nervous & Mental Disease*, 164(1), 25.-29. orr.
- CONSTANT, Chloé (2014): “Economía del espacio carcelario amplio: una cárcel limeña en el centro de múltiples operaciones informales”, *Bulletin de l'Institut Français d'Études Andines*, 43(1), 93.-110. orr.
- CONTRERAS HERNÁNDEZ, Paola (2014): “Latinoamericanas encarceladas: Una reflexión crítica desde el feminismo Decolonial”, II Jornadas/Seminario Taller sobre la Ejecución



Penal Femenina “Mujeres, Sistema Penal y Exclusión Social. Construyendo alternativas desde el género”, Bartzelona.

\_\_\_\_\_ (2015): “Extranjeras encarceladas: una reflexión crítica y decolonial, a propósito del caso español”, María Acale Sánchez eta Rosario Gómez López (koordk.), *Derecho Penal, Género y Nacionalidad*, Comares, Granada, 45.-55. orr.

COSIDÓ, Ignacio; AVILÉS, Juan; RUBIO, Mauricio; GÓMEZ DE LA SERNA, Pedro (2003): *El desafío de la seguridad*, FAES Gizarte Analisisirako eta Ikerketarako Fundazioa, Madril.

COSIDÓ, Ignacio (2009): *Inseguridad ciudadana: Una verdad que Rubalcaba oculta*, FAES Gizarte Analisisirako eta Ikerketarako Fundazioa, Madril.

COWIE, John; COWIE, Valerie A.; SLATER, Eliot (1968): *Delinquency in Girls*, Heinemann Educational, Londres.

CPDT Torturaren Prebentziorako eta Salaketarako Koordinakundea (2014): “Informe 2013. La tortura en el Estado español”, <<http://www.prevenciontortura.org>> helbidean [Kontsulta: 2015eko urtarrilaren 9a].

CRENSHAW, Kimberlé (1989): “Demarginalizing the Intersection of Race and Sex: A Black Feminist Critique of Antidiscrimination Doctrine, Feminist Theory, and Antiracist Politics”, *University of Chicago Legal Forum*, 139.-167. orr.

\_\_\_\_\_ (2012 [1991]): “Cartografiando los márgenes. Interseccionalidad, políticas identitarias y violencia contra las mujeres de color”, Raquel (Lucas) Platero (arg.), *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*, Bellaterra, Bartzelona, 87.-122. orr.

CRUELLS, Marta; IGAREDA, Noelia (argk.) (2005): *Mujeres, Integración y Prisión*, SURT Lan-merkatuan Sartzeko Emakumeen Elkarte, Aurea, Bartzelona.

CRUELLS, Marta; IGAREDA, Noelia; TORRENS, Miriam (2005a): “Inclusión de la perspectiva de género en las políticas penales, penitenciarias y post-penitenciarias”, Marta Cruells eta Noelia Igareda (argk.), *Mujeres, Integración y Prisión*, SURT Lan-merkatuan Sartzeko Emakumeen Elkarte, Aurea, Bartzelona, 78.-91. orr.

\_\_\_\_\_ (2005b): *Violencia contra las mujeres. Análisis en la población penitenciaria femenina*, SURT Lan-merkatuan Sartzeko Emakumeen Elkarte, La Caixa de Catalunya, Bartzelona.

CUEVAS, Tomasa (1985): *Cárcel de mujeres (1939-1945)*, Sirocco, Bartzelona.

CUNHA, Manuela Ivone P. da (1994): *Malhas que a reclusão tece. Questões de identidade numa prisão feminina*, Cadernos do Centro de Estudos Judiciários, Lisboa.

\_\_\_\_\_ (2002): *Entre o Bairro e a Prisão: Tráfico e Trajectos*, Fim de Século, Lisboa.

\_\_\_\_\_ (2005a): “El tiempo que no cesa. La erosión de la frontera carcelaria”, *Replones*, 58-59, 32.-41. orr.

\_\_\_\_\_ (2005b): “From Neighborhood to Prison. Women and the War on Drugs in Portugal”, Julia Sudbury (arg.), *Global Lockdown. Race, Gender, and Prison-Industrial Complex*, Routledge, New York, 155.-165. orr.

\_\_\_\_\_ (2008a): “Closed Circuits. Kinship, Neighborhood and Incarceration in Urban Portugal”, *Ethnography*, 9(3), 325.-350. orr.

\_\_\_\_\_ (2008b): “O tempo insuspenso. Uma aproximação a duas percepções carcerais da temporalidade”, Ana Maria Duarte, Emília Araújo eta Rita Ribeiro (koordk.), *O Tempo, as Culturas e as Instituições. Para uma Abordagem Sociológica do Tempo*, Edições Colibri, Lisboa, 91.-104. orr.

\_\_\_\_\_ (2008c): “Prisão e Sociedade. Modalidades de uma conexão”, Manuela Ivone P. da Cunha (koord.), *Aquém e além da prisão. Cruzamentos e perspectivas*, Editora 90°, Lisboa, 7.-32. orr.

\_\_\_\_\_ (2014): “Etnografias da prisão: novas direções”, *Configurações*, 13, 47.-68. orr.

CUNHA, Manuela P. da; GRANJA, Rafaela (2014): “Gender Asymmetries, Parenthood and Confinement in two Portuguese prisons”, *Champ penal / Penal field*, XI, <<http://champpenal.revues.org>> helbidean [Kontsulta: 2015eko apirilaren 16a].

CUNNINGHAM, Ebonie L. (2006): *Mothering While Incarcerated: A Multi-Method Approach to Understanding Identity Strategies, Mothering Strategies, and Mother-Child Relationships among Incarcerated Women*, doktore-tesia, Purdue University, West Lafayette, Indiana.

- CURCIO, Renato (2011): “Donde todo comenzó”, Dario Malventi (koord.), *Umbrales. Fugas de la institución total*, Universidad Internacional de Andalucía, Sevilla, 14.-20. orr.
- \_\_\_\_\_ (2014): “Cárceles y encarcelados”, *Viscera*, 5, 80.-91. orr.
- DALTON, Katherine (1961): “Menstruation and Crime”, *British Medical Journal*, 2, 1752.-1753. orr.
- DAÑOBEITIA, Olatz (2013): “Ikusezintasunak berak ere ikusezina ezkututzen duenean”, *Ankulegi. Gizarte antropologia aldizkaria*, 17, 115.-118. orr.
- DAVIS, Angela Y. (1971): “A Letter to Ericka from Angela”, Angela Y. Davis (arg.), *If They Come in the Morning... Voices of Resistance*, New American Library, New York, 123.-127. orr.
- \_\_\_\_\_ (2001): “Race, Gender, and Prison History: From the Convict Lease System to the Supermax Prison”, Don Sabo, Terry A. Kupers eta Willie London (argk.), *Prison Masculinities*, Temple University Press, Filadelfia, 35.-45. orr.
- \_\_\_\_\_ (2003): *Are Prisons Obsolete?*, Seven Stories Press, New York.
- \_\_\_\_\_ (2005 [1981]): *Mujeres, raza y clase*, Akal, Madril.
- \_\_\_\_\_ (2012 [1999]): “I Used To Be Your Sweet Mama. Ideología, sexualidad y domesticidad”, Mercedes Jabardo (arg.), *Feminismos negros. Una antología*, Traficantes de Sueños, Madril, 135.-185. orr.
- \_\_\_\_\_ (2016): *Democracia de la abolición. Prisiones, racismo y violencia*, Trotta, Madril.
- DAVIS, Kathy (2008): “Intersectionality as Buzzword. A Sociology of Science Perspective on What Makes a Feminist Theory Successful”, *Feminist Theory*, 9(1), 67.-85. orr.
- DAVIS, Nanette; FAITH, Karlene (2002): “Las Mujeres y el Estado: modelos de control social en transformación”, *CODHEM*, 26, 90.-102. orr.
- DE ALÓS-MONER, Ramon; ESTEBAN, Fernando; JÓDAR, Pere; MIGUÉLEZ, Fausto; ALCAIDE, Vanessa; LÓPEZ, Pedro (2011): *La inserción laboral de los ex internos de los centros penitenciarios de Cataluña*, Generalitat de Catalunya, Bartzelona.

- DEFENSOR DEL PUEBLO ANDALUZ (2006): *Mujeres privadas de libertad en las cárceles de Andalucía*, Parlamentuarentzat txosten berezia, Sevilla.
- DE GRAAF, Kaitlyn (2013): *Disciplining Women/Disciplining Bodies: Exploring How Women Negotiate Health and Bodily Aesthetic in the Carceral Context*, argitaratu gabeko tesina, University of Ottawa, Masters of Arts, Ottawa.
- DEL CURA, Jorge (2011): “Derechos Humanos y cárceles: ¿son compatibles? El caso de los malos tratos y torturas en prisión”, César Manzanos (koord.), *Políticas sociales para abolir la prisión / Kartzela abolitzeko gizarte politikak*, Ikusbide, Gasteiz, 47.-70. orr.
- DEL VAL CID, Consuelo (2012a): “Presentación”, Consuelo del Val Cid eta Antonio Viedma Rojas (argk.), *Condenadas a la desigualdad. Sistema de indicadores de discriminación penitenciaria*, Icaria, Bartzelona, 7.-27. orr.
- \_\_\_\_\_ (2012b): “Encierro y derecho de salud”, Consuelo del Val Cid eta Antonio Viedma Rojas (argk.), *Condenadas a la desigualdad. Sistema de indicadores de discriminación penitenciaria*, Icaria, Bartzelona, 109.-141. orr.
- DEL VALLE ORELLANA, Nicolás (2012): “Entre poder y resistencia. Tras los rastros de la política en Foucault”, *Revista Enfoques*, XI(17), 147.-168. orr.
- DE MIGUEL CALVO, Estibaliz (2010): “Las relaciones de pareja de las mujeres encarceladas”, Daniela Heim eta Encarna Bodelón González (koordk.), *Derecho, género e igualdad: cambios en las estructuras jurídicas androcéntricas*, 2, 9.-20. orr.
- \_\_\_\_\_ (2012): *Relaciones amorosas de pareja en las trayectorias vitales de las mujeres encarceladas*, doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Soziologia II Saila, Leioa.
- \_\_\_\_\_ (2014): “Encarcelamiento de mujeres. El castigo penitenciario de la exclusión social y la desigualdad de género”, *Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetako aldizkaria. Revista de servicios sociales*, 56, 75.-86. orr.
- \_\_\_\_\_ (2015): “Mujeres usuarias de drogas en prisión”, *Praxis Sociológica*, 19, 141.-159. orr.
- \_\_\_\_\_ (2015-02-25): “Encarceladas y abusadas”, *Eldiario.es*, <<http://www.eldiario.es>> helbidean [Kontsulta: 2015eko otsailaren 26a].

- \_\_\_\_\_ (2016): *Relaciones amorosas de las mujeres encarceladas*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- DESPENTES, Virginie (2009 [2006]): *Teoría King Kong*, Melusina, Bartzelona.
- DEUTSCH, Helene (1952 [1944]): *La Psicología de la Mujer*, Losada, Buenos Aires.
- DGIP Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusia (2005): *Unidad Terapéutica y Educativa. Centro Penitenciario Villabona. Un modelo de intervención penitenciaria*, Barne-arazoetako Ministerioa, Madril.
- \_\_\_\_\_ (2007): *Módulo de Respeto. Módulos Penitenciarios para la mejora de la convivencia*, Barne-arazoetako Ministerioa, Madril.
- DÍEZ RIPOLLÉS, José Luis (2015): *Delitos y penas en España*, Catarata, Madril.
- DOBASH, Russel P.; DOBASH, R. Emerson; GUTTERIDGE, Sue (1986): *The Imprisonment of Women*, Basil Blackwell, Oxford.
- DOÑA, Juana (2012 [1978]): *Desde la noche y la niebla. Mujeres en las cárceles franquistas*, Horas y Horas, Madril.
- DOUGLAS, Mary (1991 [1966]): *Pureza y peligro. Un análisis de los conceptos de contaminación y tabú*, Siglo XXI, Madril.
- DUARTE, Vera Mónica (2012): *Discursos e Percursos na Delinquência Juvenil Feminina*, Edições Húmus, Vila Nova de Famalição.
- EATON, Mary (1986): *Justice for Women? Family, Court and Social Control*, Open University Press, Filadelfia.
- EDIS Ikerketa Soziologikoaren Taldea (2005): *Realidad social de las mujeres sin techo, prostitutas, ex reclusas y drogodependientes en España*, Berdintasun-Ministerioa, Madril.
- EGAÑA, Iñaki (2012): *Ondarreta. Gezalaren kartzela / la cárcel del salitre*, Donostiako Udala, Aranzadi Zientzia Elkarte, Donostia.
- EIZAGIRRE, Ekhine (2016): *Alde erantzira nabil*, Susa, Zarautz.

- ELÍAS ORTEGA, Ángel; MANZANOS BILBAO, César (2001): “Medidas para fomentar el empleo de las personas que han sido privadas de libertad”, *Lan Harremanak: Revista de Relaciones Laborales*, 4, 53.-88. orr.
- ELLIS, Lee (1982): “Genetics and Criminal Behavior: Evidence through the 1970s”, *Criminology*, 20, 43.-66. orr.
- ENCK, Suzanne Marie; McDANIEL, Blake A. (2015): ““I Want Something Better for My Life”: Personal Narratives of Incarcerated Women and Performances of Agency”, *Text and Performance Quarterly*, 35(1), 43.-61. orr.
- ESTEBAN, Fernando; ALÓS, Ramon; JÓDAR, Pere; MIGUÉLEZ, Fausto (2014): “La inserción laboral de los ex reclusos. Una aproximación cualitativa”, *REIS Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 145, 181.-204. orr.
- ESTEBAN, Mari Luz (2004): *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*, Bellaterra, Bartzelona.
- \_\_\_\_\_ (2009): “Identidades de género, feminismo, sexualidad y amor: Los cuerpos como agentes”, *Política y Sociedad*, 46(1-2), 27.-41. orr.
- \_\_\_\_\_ (2013): “Gorputza eta politika feministak: feminismoa gorputz gisa”, Isa Castillo Etxano eta Iratxe Retolaza (koordk.), *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak*, Edo!, Donostia, 167.-202. orr.
- ETXEBARRIETA LEGRAND, Oihana (2013): *Erlazio afektibo sexualak espetxe garaian, askatasun (g)une? Hainbat euskal emakumeren esperientziak*, argitaratu gabeko tesina, Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra, Donostia.
- EUSKO JAURLARITZA (2004): *Droga-kontsumitzaileen zigorrak eta espetxeko egonaldiak betetzea. Jarduera-protokoloa*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- FABRE, Andrea; NARI, Marcela (2000): “Prólogo”, Marcela Nari eta Andrea Fabre (konpk.), *Voces de mujeres encarceladas*, Catálogos, Buenos Aires, 11.-17. orr.
- FAITH, Karlene (2011 [1993]): *Unruly Women. The Politics of Confinement & Resistance*, Seven Stories Press, New York.

- FALCÓN, Lidia (1977): *En el infierno: ser mujer en las cárceles de España*, Ediciones de Feminismo, Bartzelona.
- FERNÁNDEZ GALÁN, Roxana (2011): *Exclusión social de mujeres presas: análisis de necesidades y su percepción del proceso de rehabilitación en el centro penitenciario de Villabona*, doktore-tesia, Universidad de Oviedo, Departamento de Psicología, Oviedo.
- FERRÁNDIZ, Francisco (2014): *El pasado bajo tierra. Exhumaciones contemporáneas de la Guerra Civil*, Anthropos, Bartzelona.
- FIESTAS LOZA, Alicia (1978): “Las cárceles de mujeres”, *Historia 16*, VIII. gehigarria, 89.-99. orr.
- FISHMAN, Laura T. (1995): “Slave Women, Resistance and Criminality: A Prelude to Future Accommodation”, *Women & Criminal Justice*, 7(1), 35.-65. orr.
- FLAMTERMESKY, Helga (2012): “*Mujer frontera*”. *Experiencia de Investigación Acción Participativa Feminista con Mujeres Víctimas de la Trata de Personas*, doktore-tesia, Universitat Autònoma de Barcelona, Programa de Doctorat en Psicologia Social, Bartzelona.
- FOREST, Eva (1979): *Testimonios de lucha y resistencia: Yaserías 75-77*, Hordago, Donostia.
- \_\_\_\_\_ (1995 [1975]): *Diarios y cartas desde la cárcel*, Iru, Hondarribia.
- FOUCAULT, Michel (1979): “El ojo del poder”, Jeremias Bentham, Michel Foucault eta María Jesús Miranda, *El panóptico*, La Piqueta, Madril, 9.-26. orr.
- \_\_\_\_\_ (1994 [1977]): “No al sexo rey. Entrevista con Bernard Henry-Lévy”, *Un diálogo sobre el poder*, Altaya, Bartzelona, 146.-164. orr.
- \_\_\_\_\_ (1998 [1976a]): *Historia de la sexualidad. 1. La Voluntad del Saber*, Siglo XXI, Madril.
- \_\_\_\_\_ (1999 [1982]): “Sexo, poder y gobierno de la identidad”, *La balsa de la Medusa*, 49, 150.-159. orr.
- \_\_\_\_\_ (2006 [1976b]): *Defender la sociedad*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.

\_\_\_\_\_ (2012 [1975]): *Vigilar y castigar: Nacimiento de la prisión*, Biblioteca Nueva, Madril.

FOX-GENOVESE, Elizabeth (1986): “Strategies and Forms of Resistance. Focus on Slave Women in the United States”, Gary Y. Okihiro (arg.), *In Resistance: Studies of African, Caribbean, and Afro-American History*, University of Massachusetts Press, Amherst, 143.-165. orr.

FRANCÉS LECUMBERRI, Paz (2015): “¿Módulos de respeto o módulos de la vergüenza? El experimento terapéutico y de control en las cárceles del Estado español”, Diana Patricia Arias Holguín (arg.), *¿Reformar o abolir el sistema penal?*, Siglo del Hombre Editores, Bogotá, 167.-198. orr.

GALLEGO, Manuel; CABRERA, Pedro José; RÍOS, Julián; SEGOVIA, José Luis (2010): *Andar 1 km en línea recta: la cárcel del siglo XXI que vive el preso*, Universidad Pontificia Comillas, Madril.

GÁNDARA, Lelia (2005): “Voces en cautiverio. Un estudio discursivo del graffiti carcelario”, Antonio Castillo Gómez eta Verónica Sierra Blas (argk.), *Letras bajo sospecha. Escritura y lectura en centros de internamiento*, Trea, Gijón, 237.-255. orr.

GARCÍA BERRIO, Andrés (2011): *Mujeres extranjeras presas y delitos contra la salud pública*, argitaratu gabeko tesina, Universidad de Barcelona, Máster en Criminología y Sociología Jurídico-Penal, Bartzelona.

GARCÍA DE CORTÁZAR, Marisa; GUTIÉRREZ BRITO, Jesús (2012): “Relaciones en prisión”, Consuelo del Val Cid eta Antonio Viedma Rojas (argk.), *Condenadas a la desigualdad. Sistema de indicadores de discriminación penitenciaria*, Icaria, Bartzelona, 143.-171. orr.

GARCÍA IDIAKEZ, Mikel (2013): “Seme-alabekin kartzelara”, *Argia*, 2386, 4.-8. orr.

GARCÍA, Ter (2014-05-29): “Esa industria llamada cárcel”, *Periódico Diagonal*, <<http://www.diagonalperiodico.net>> helbidean [Kontsulta: 2014ko maiatzaren 30a].

GARLAND, David (2005): *La cultura del control: crimen y orden social en la sociedad contemporánea*, Gedisa, Bartzelona.



- GARREAUD, Álvaro (2011): “Biopolítica y prisión. Umbrales de trabajo”, Dario Malventi (koord.), *Umbrales. Fugas de la institución total: entre captura y vida*, Universidad Internacional de Andalucía, Sevilla, 36.-54. orr.
- GEA FERNÁNDEZ, María José; DOMÍNGUEZ SÁNCHEZ-PINILLA, Mario; SÁDABA RODRÍGUEZ, Igor (2014): *Una condena compartida. Un estudio de caso sobre el control penal*, Tierradenadie, Madril.
- GIBBENS, Trevor Charles Noel (1960): *Theft from Departments Stores*, Fourth International Criminological Congress, Haga.
- GIBBENS, Trevor Charles Noel; PRINCE, Joyce (1962): *Shoplifting*, MW Books, Londres.
- GIDDENS, Anthony (1979): *Central Problems in Social Theory: Action, Structure and Contradiction in Social Analysis*, University of California Press, Berkeley.
- GIRALDO DÍAZ, Reinaldo (2006): “Poder y resistencia en Michel Foucault”, *Tabula Rasa*, 4, 103.-122. orr.
- GOFFMAN, Erving (2001 [1961]): *Internados: ensayos sobre la situación social de los enfermos mentales*, Amorrortu, Buenos Aires.
- \_\_\_\_\_ (2006 [1963]): *Estigma: la identidad deteriorada*, Amorrortu, Buenos Aires.
- GOIKOETXEA, Garikoitz (2012-09-15): “Betirako kartzela eta guzti, frankismo osteko zigor kode gogorrena da PPrena”, *Berria*, <<http://www.berria.eus>> helbidean [Kontsulta: 2012ko irailaren 17a].
- GOMES, Sílvia; GRANJA, Rafaela (koordk.) (2015): *Mulheres e crime. Perspetivas sobre intervenção, violência e reclusão*, Edições Húmus, Vila Nova de Famalição.
- GONZÁLEZ GOROSARRI, María; BARINAGA, Eduardo (2010): *No lloreis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos. La cárcel de Saturrarán y la represión franquista contra las mujeres, a partir de testimonios de supervivientes*, Ttartalo, Donostia.
- GRANJA, Rafaela; CUNHA, Manuela P. da; MACHADO, Helena (2012): “Children on the Outside: the Experience of Mothering among Female Inmates”, 3rd Global Conference Experiencing Prison, Praga.

- GUAGLIARDO, Vincenzo (2013 [1997]): *De los dolores y las penas. Ensayo abolicionista y sobre la objeción de conciencia*, Traficantes de Sueños, Madril.
- HARAWAY, Donna J. (1995 [1991]): *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza*, Cátedra, Madril.
- HEIDENSOHN, Frances M. (1985): *Women and Crime*, Macmillan, Londres.
- HERAS, Patricia (2014): *Poeta muerta*, Capirote, Bartzelona.
- HERMOSILLA, Gotzon (2012-10-04): “Zigor Kodea, koska bat estuago”, *Berria, Igandea* gehigarria, 1.-5. orr.
- HERNÁNDEZ, Carlos E. (2005): “Género, transgénero y torturas sexuales: agresiones, abusos y vejaciones sobre la identidad sexual bajo custodia del Estado español (1995-2005)”, <http://www.ub.edu> helbidean [Kontsulta: 2011ko abenduaren 16a].
- \_\_\_\_\_ (2009): “Agresiones sexuales bajo custodia del Estado español”, *Rojos y Negros*, 226, 19. orr.
- HERNÁNDEZ GARCÍA, Jone Miren; GREGORIO GIL, Carmen; APAOLAZA BERAZA, Txemi (2011): “Etnografiando resistencias”, Luis Díaz Viana, Óscar Fernández Álvarez eta Pedro Tomás Martín (koordk.), *Lugares. Tiempos. Memorias. La Antropología Ibérica en el siglo XXI*, León, 783.-784. orr.
- HERNÁNDEZ HOLGADO, Fernando (2011a): *La prisión militante: las cárceles franquistas de mujeres de Barcelona y Madrid (1939-1945)*, doktore-tesia, Universidad Complutense de Madrid, Departamento de Historia Contemporánea, Madril.
- \_\_\_\_\_ (2011b): “La prisión militante. Ventas (Madrid) y Les Corts (Barcelona)”, *Studia historica. Historia contemporánea*, 29, 195.-236. orr.
- \_\_\_\_\_ (2013): “Cárceles de mujeres del novecientos: una práctica de siglos”, Pedro Oliver Olmo (koord.), *El siglo de los castigos. Prisión y formas carcelarias en la España del siglo XX*, Anthropos, Bartzelona, 145.-187. orr.
- HERRERA MORENO, Myriam (1993): “Mujeres y prisión”, *Cuadernos de política criminal*, 49, 339.-354. orr.

- HERRERO RIESGO, Inés (2015): *Deseo(s) y resistencia(s) en las cárceles: algunas experiencias de mujeres ex-presas*, argitaratu gabeko tesina, Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra, Donostia.
- HOOKS, bell (1989): *Talking Back: Thinking Feminist, Thinking Black*, South End Press, Boston.
- \_\_\_\_\_ (2004 [1984]): “Mujeres negras. Dar forma a la teoría feminista”, Zenbait Egile, *Otras inapropiables. Feminismos desde las fronteras*, Traficantes de Sueños, Madril, 33.-50. orr.
- IGAREDA, Noelia (2009): “La maternidad de las mujeres presas”, Gemma Nicolás eta Encarna Bodelón (konpk.), *Género y dominación. Críticas feministas del derecho y el poder*, Anthropos, Bartzelona, 159.-194. orr.
- IMAZ, Elixabete (2007): “Mujeres reclusas, mujeres invisibles”, Barbara Biglia eta Conchi San Martín (koordk.), *Estado de Wonderbra. Entretejiendo narraciones feministas sobre las violencias de género*, Virus, Bartzelona, 189.-195. orr.
- IMAZ, Elixabete; MARTÍN PALOMO, Teresa (2007): “Las otras otras: extranjeras y gitanas en las cárceles españolas”, Barbara Biglia eta Conchi San Martín (koordk.), *Estado de Wonderbra. Entretejiendo narraciones feministas sobre las violencias de género*, Virus, Bartzelona, 217.-227. orr.
- IRAOLA, Arantxa (2014-06-11): “Bizi osorako kondenaren beldur”, *Berria*, 8.-9. orr.
- IZQUIERDO, María Jesús (1998): *El malestar en la desigualdad*, Cátedra, Bartzelona.
- JANSSEN, Janine (2007): “Mujeres detenidas: el caso particular de las latinoamericanas en las prisiones holandesas”, Elisabet Almeda Samaranch eta Encarna Bodelón González (argk.), *Mujeres y Castigo: Un enfoque socio-jurídico y de género*, Dykinson, Madril, 241.-259. orr.
- JIMÉNEZ MARTÍN, Eva; LEÓN NANCLARES, Ander; ORBEGOZO ORONOZ, Izaskun; PEGO OTERO, Laura; PÉREZ MACHÍO, Ana Isabel; VOZMEDIANO SANZ, Laura (2012): *Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturrarán durante la Guerra Civil Española y la primera postguerra: hacia la recuperación de su memoria*, Emakunde, IVAC-KREI Kriminologiaren Euskal Institutua, Donostia.

JULIANO, Dolores (1992): *El juego de las astucias: mujer y construcción de modelos sociales alternativos*, Horas y Horas, Madril.

\_\_\_\_\_ (1998): *Las que saben: subculturas de mujeres*, Horas y Horas, Madril.

\_\_\_\_\_ (2002): *La prostitución: el espejo oscuro*, Icaria, Bartzelona.

\_\_\_\_\_ (2004): *Excluidas y marginales. Una aproximación antropológica*, Cátedra, Madril.

\_\_\_\_\_ (2006): “Introducción. Género e inmigración”, *Mujeres inmigrantes, viajeras incansables*, Harresiak Apurtuz, Bilbo, 7.-9. orr.

\_\_\_\_\_ (2008): “Las mujeres y los delitos”, Patricia Laurenzo Copello, María Luisa Maqueda Abreu eta Ana María Rubio Castro (koordk.), *Género, violencia y derecho*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 217.-230. orr.

\_\_\_\_\_ (2009a): “Delito y pecado. La transgresión en femenino”, *Política y Sociedad*, 46(1-2), 79.-95. orr.

\_\_\_\_\_ (2009b): “Estrategias femeninas de supervivencia y estereotipos”, Jornadas Feministas Estatales, Granada, <<http://www.feministas.org>> helbidean [Kontsulta: 2011ko apirilaren 5a].

\_\_\_\_\_ (2010): “La criminalización de las mujeres. Estigmatización de las estrategias femeninas para no delinquir”, Fanny T. Añaños (koord.), *Las mujeres en las prisiones. La Educación Social en contextos de riesgo y conflicto*, Gedisa, Bartzelona, 25.-44. orr.

\_\_\_\_\_ (2011): *Presunción de inocencia. Riesgo, delito y pecado en femenino*, Gakoa Liburuak, Donostia.

\_\_\_\_\_ (2012): “Las monjas en las cárceles de la posguerra”, Raquel Osborne (arg.), *Mujeres bajo sospecha. Memoria y sexualidad 1930-1980*, Fundamentos, Madril, 253.-273. orr.

\_\_\_\_\_ (2013): “Prólogo”, Gail Pheterson, *Mujeres en flagrante delito de independencia*, Bellaterra, Bartzelona, 11.-20. orr.

\_\_\_\_\_ (2014): “Consideraciones sobre el delito, desde la perspectiva de género”, Elisabet Almeda Samaranch, Dino Di Nella (zuzk.) eta Ana Ballesteros Pena (koord.),

*Mujeres y Ejecución Penal. Debates y experiencias en España desde una perspectiva intersectorial*, Copalqui, Bartzelona, 215.-224. orr.

KERMAN, Piper (2010): *Orange is the New Black. My Year in a Women's Prison*, Spiegel & Grau, New York.

LAGARDE Y DE LOS RÍOS, Marcela (2011 [1990]): *Los cautiverios de las mujeres. Madresposas, monjas, putas, presas y locas*, Horas y Horas, Madril.

LA REBELIÓN DE LAS PALABRAS (2013-07-04): “Condenado a más de 25 años de talego un carcelero por abusos sexuales a presas de Soto del Real”, <http://vozcomoarma.blogspot.com> helbidean [Kontsulta: 2013ko irailaren 11].

LE BRETON, David (2001): *El silencio*, Sequitur, Madril.

LEIZAOLA, Aitzpea (2006): “La antropología a pie de fosa. Diálogo con Francisco Etxeberria y Francisco Ferrándiz sobre la memoria de la guerra civil”, *Ankulegi. Gizarte antropologia aldizkaria*, 10, 33.-46. orr.

LLEDÓ, María del Mar; ÁLVAREZ LLEDÓ, Marcos (2011): “Drogodependiente en prisión: penas y programas alternativos”, César Manzanos (koord.), *Políticas sociales para abolir la prisión / Kartzela abolitzeko gizarte politikak*, Ikusbide, Gasteiz, 127.-143. orr.

LOMBROSO, Cesare; FERRERO, Guglielmo (1895): *The Female Offender*, D. Appleton & Co., New York.

LÓPEZ RIAÑO, Idoia (2012): *El Umbral del Dolor*, Autodefensa Taldea, Gasteiz.

LORDE, Audre (2007 [1984]): *Sister Outsider*, Crossing Press, Berkeley.

LORENZO RUBIO, César (2013): *Cárceles en llamas. El movimiento de presos sociales en la Transición*, Virus, Bartzelona.

LOUGHRAN, Christina (1986): “Armagh and Feminist Strategy: Campaigns Around Republican Women Prisoners in Armagh Jail”, *Feminist Review*, 23, 59.-79. orr.

MACAYA, Laura (2013): *Esposas nefastas y otras aberraciones: El dispositivo jurídico como red de construcción de feminidad*, Diletants, Bartzelona.

- MACIEL, Daniel Martins Pinheiro (2011): “O trabalho de campo institucional: entrar e sair de um estabelecimento prisional”, Luis Díaz Viana, Óscar Fernández Álvarez eta Pedro Tomé Martín (koordk.), *Lugares. Tiempos. Memorias. La Antropología Ibérica en el siglo XXI*, León, 835.-842. orr.
- MAKOWSKI MUCHNIK, Sara (1997): “Formas de resistencia y acción colectiva en cárceles de mujeres”, *Fermentum*, 7(19), 68.-77. orr.
- MALVENTI, Dario; GARREAUD, Álvaro (2008a): “Curar y reinsertar. El fenómeno de la deslocalización terapéutica en el engranaje penitenciario”, *Espai en Blanc: La sociedad Terapéutica*, 3-4.
- \_\_\_\_\_ (2008b): “Manifiesto sobre el poder terapéutico”, *Viscera*, 2, 6.-11. orr.
- MALVENTI, Dario (2009): *Curar y reinsertar. Líneas de fuga de la máquina penal contemporánea*, doktore-tesia, Universidad de Barcelona, Departamento de Antropología Cultural e Historia de América y África, Bartzelona.
- \_\_\_\_\_ (2011): “Presentación”, Dario Malventi (koord.), *Umbrales. Fugas de la institución total: entre captura y vida*, Universidad Internacional de Andalucía, Sevilla, 7.-11. orr.
- MANDARAKA-SHEPPARD, Alexandra (1986): *The Dynamics of Aggression in Women's Prisons in England*, Gower, Aldershot.
- MANZANOS BILBAO, César (1991): *Cárcel y marginación social: contribución crítica e investigación aplicada a la sociedad vasca*, Gakoa Liburuak, Donostia.
- \_\_\_\_\_ (2007): “Vivencias y percepciones de las mujeres presas de su discriminación en las cárceles ubicadas en el País Vasco”, Elisabet Almeda Samaranch eta Encarna Bodelón González (argk.), *Mujeres y Castigo: Un enfoque socio-jurídico y de género*, Dykinson, Madril, 133.-161. orr.
- MANZANOS BILBAO, César; BALMASEDA RIPERO, Juana María (zuzk.) (2003): *Situación de las mujeres en las cárceles del País Vasco*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.
- MAPELLI CAFFARENA, Borja; HERRERA MORENO, Myriam; SORDI STOCK, Bárbara (2013): “La exclusión de las excluidas. ¿Atiende el sistema penitenciario a las

- necesidades de género?: una visión andaluza”, *Estudios Penales y Criminológicos*, XXXIII, 59.-95. orr.
- MAQUEDA ABREU, María Luisa (2008): “La hipocresía de las leyes penales”, *Jueces para la Democracia*, 61, 19.-29. orr.
- MAQUIEIRA, Virginia (2001): “Género, diferencia y desigualdad”, Zenbait Egile, *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*, Alianza, Madril, 127.-190. orr.
- MARCO FURRASOLA, Ángeles (2001): *Una antropología del silencio*, PPU, Bartzelona.
- MARTÍN CASARES, Aurelia (2006): *Antropología del género. Culturas, mitos y estereotipos sexuales*, Cátedra, Madril.
- MARTINEZ, Josu (2014): *Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak*, Elkar, Donostia.
- MARTÍNEZ ESCAMILLA, Margarita (zuz.) (2013): *Mujeres en el CIE: género, inmigración e internamiento*, Iusmigrante I+G+b, Madril.
- MARTÍNEZ GALINDO, Gema (2002): *Galerianas, corrigendas y presas. Nacimiento y consolidación de las cárceles de mujeres en España (1608-1913)*, Edisofer, Madril.
- MARTINEZ-MERINO, Nagore; MARTÍN-GONZÁLEZ, Nerian; USABIAGA ARRUBARRENA, Oidui; MARTOS-GARCÍA, Daniel (2015): “Jarduera fisikoaren rola emakume presoan bizi-kalitatean. Euskal Autonomia Erkidegoko bost preso ohien espetxeratze-aldiko ongizatearen inguruko bizipenak”, *Uztaro*, 95, 99.-115. orr.
- MARTÍNEZ REDONDO, Patricia (2010): *Extrañándonos de lo normal. Reflexiones feministas para la intervención con mujeres drogodependientes*, Horas y Horas, Madril.
- MARTÍN PALOMO, María Teresa (2002): “Mujeres gitanas y el sistema penal”, *La Ventana*, 15, 149.-174. orr.
- \_\_\_\_\_ (2006): “Mujeres extranjeras en prisión”, *Mujeres migrantes, viajeras incansables*, Harresiak Apurtuz, Bilbo, 25.-40. orr.
- MARTÍN PALOMO, María Teresa; MIRANDA LÓPEZ, María Jesús; VEGA SOLÍS, Cristina (2005): “Introducción”, María Teresa Martín Palomo, María Jesús Miranda López eta Cristina Vega Solís (argk.), *Delitos y fronteras. Mujeres extranjeras en prisión*, Instituto de Investigaciones Feministas, Universidad Complutense de Madrid, Madril, 1.-41. orr.

- MARTIN ZAPIRAIN, Itxaso (2015): *Eromena, azpimemoria eta isiltasuna(k) idazten: Hutsune bihurtutako emakumeak garaiko gizartearen eta moralaren ispilu*, doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila, Donostia.
- MATOS, Raquel Maria N. de (2006): *Vidas raras de mulheres comuns. Percursos de vida, significações do crime e construção da identidade em jovens reclusas*, doktore-tesia, Universidade do Minho, Instituto de Educação e Psicologia, Braga.
- MATTHEWS, Roger (2003): *Pagando tiempo. Una introducción a la sociología del encarcelamiento*, Bellaterra, Bartzelona.
- MEDLICOTT, Diana (1999): “Surviving in the Time Machine: Suicidal Prisoners and the Pains of Prison Time”, *Time & Society*, 8, 211.-230. orr.
- MEEK, Rosie; LEWIS, Gwen Eleanor (2014): “Promoting Well-Being and Desistance Through Sport and Physical Activity: The Opportunities and Barriers Experienced by Women in English Prisons”, *Women & Criminal Justice*, 24(2), 151.-172. orr.
- MEJÍA REYES, Carlos (2012): “Imaginarios y reclusión. Las mujeres en el confinamiento penal”, Blanca Elisa Cabral, Sileny Rivas, Carmen Cristina Silva, Gladys Cáceres eta Urimare Ramallo (konpk.), *La perspectiva de género en la construcción de los saberes. Reflexiones, investigaciones y propuestas*, Universidad de los Andes, Venezuela.
- MÉNDEZ PÉREZ, Lourdes (2008): *Antropología feminista*, Síntesis, Madril.
- MENDIGUREN, Intza (2011): “Ladrillo, cemento y barro”, *Algo más que palabras. VI Concurso de Relatos Cortos*, ADAP Presoen Laguntzarako Elkartea, Gasteiz.
- MESTRE I MESTRE, Ruth (2005): “Estrategias jurídicas de las mujeres migrantes”, María Teresa Martín Palomo, María Jesús Miranda López eta Cristina Vega Solís (argk.), *Delitos y fronteras. Mujeres extranjeras en prisión*, Instituto de Investigaciones Feministas, Universidad Complutense de Madrid, Madril, 217.-249. orr.
- MIDDLETON, Warren (1933): “Is There a Relation Between Kleptomania and Female Periodicity in Neurotic Individuals?”, *Psychology Clinic*, 22, 232.-247. orr.
- MIGNON, Sylvia, I.; RANSFORD, Paige (2012): “Mothers in Prison: Mantaining Connections with Children”, *Social Work in Public Health*, 27(1-2), 69.-88. orr.



- MIRANDA, María Jesús (1979): “Bentham en España”, Jeremias Bentham, Michel Foucault eta María Jesús Miranda, *El panóptico*, La Piqueta, Madril, 127.-145. orr.
- MIRANDA, María Jesús; MARTÍN PALOMO, Teresa (2007): “Mujeres no nacionales en prisión”, Elisabet Almeda Samaranch eta Encarna Bodelón González (argk.), *Mujeres y Castigo: Un enfoque socio-jurídico y de género*, Dykinson, Madril, 187.-210. orr.
- MONCÓ, Beatriz (2011): *Antropología del género*, Síntesis, Madril.
- MOORE, Henrietta L. (2009 [1991]): *Antropología y feminismo*, Cátedra, Madril.
- MOUNTIAN, Ilana (2007): “Mujeres bajo control”, Barbara Biglia eta Conchi San Martín (koordk.), *Estado de Wonderbra. Entretejiendo narraciones feministas sobre las violencias de género*, Virus, Bartzelona, 73.-82. orr.
- MUNGUÍA, Aingeru (2013-01-24): “El eslabón de la cárcel de Zubieta”, *El Diario Vasco*, <<http://www.diariovasco.com>> helbidean [Kontsulta: 2013ko urtarrilaren 24a].
- MUÑOZ, Jorge (2015-07-02): “Investigan a un funcionario de prisiones por abusos a 5 internas”, *Diario de Sevilla*, <<http://www.diariodesevilla.es>> helbidean [Kontsulta: 2015eko uztailaren 6a].
- MURRAY, Raymond (1998): *Hard Time. Armagh Gaol, 1971-1986*, Mercier Press, Dublin.
- MURUGARREN, Luis (1995): “Historia de las cárceles donostiarras”, *Eguzkilore. Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología*, 9, 39.-74. orr.
- NAREDO MOLERO, María (1999): “Reclusas con hijos en la cárcel. La punta del iceberg de la sinrazón penitenciaria”, Iñaki Rivera (koord.), *La cárcel en España en el fin del milenio*, M. J. Bosch, Bartzelona, 197.-221. orr.
- \_\_\_\_\_ (2005): “¿Qué nos enseñan las nuevas reclusas? La criminalización de la pobreza desde la situación de reclusas extranjeras y gitanas”, María Teresa Martín Palomo, María Jesús Miranda López eta Cristina Vega Solís (argk.), *Delitos y fronteras. Mujeres extranjeras en prisión*, Instituto de Investigaciones Feministas, Universidad Complutense de Madrid, Madril, 271.-300. orr.
- \_\_\_\_\_ (2007): “Reclusas con hijos/as en la cárcel”, Elisabet Almeda Samaranch eta Encarna Bodelón González (argk.), *Mujeres y Castigo: Un enfoque socio-jurídico y de género*, Dykinson, Madril, 263.-275. orr.

- NARI, Marcela; FABRE, Andrea; HAUSER, Silvia; CALANDRA, Nilda; FRAGUAS, Noemí; FRIEDMAN, Jaquelin (2000): “Me queda la palabra. Estrategias de resistencia de mujeres encarceladas”, Marcela Nari eta Andrea Fabre (konpk.), *Voces de mujeres encarceladas*, Catálogos, Buenos Aires, 19.-64. orr.
- NAVARRO BONILLA, Diego (2005): “Archivos y cultura escrita carcelaria: escribir y documentar la prisión desde el siglo XVI”, Antonio Castillo Gómez eta Verónica Sierra Blas (argk.), *Letras bajo sospecha. Escritura y lectura en centros de internamiento*, Trea, Gijón, 17.-41. orr.
- NO SOMOS DELITO (2013): “Los puntos clave de la reforma del Código Penal”, <http://nosomosdelito.net> helbidean [Kontsulta: 2014ko otsailaren 23a].
- \_\_\_\_\_ (2014): “Resumen del futuro Código Penal”, <http://nosomosdelito.net> helbidean [Kontsulta: 2014ko otsailaren 23a].
- NOTICIAS JURÍDICAS (2015-03-31): “Las 15 claves de la Reforma del Código Penal”, <http://noticias.juridicas.com> helbidean [Kontsulta: 2015eko uztailaren 2a].
- NUÑEZ VEGA, Jorge (2007): “Las cárceles en la época del narcotráfico: una mirada etnográfica”, *Nueva Sociedad*, 208, 103.-117. orr.
- O’GRADY, Lucy; ROLVSJORD, Randi; McFERRAN, Katrina (2014): “Women Performing Music in Prison: an Exploration of the Resources That Come into Play”, *Nordic Journal of Music Therapy*, 24(2), 1.-25. orr.
- OLABARRI, David S. (2015-02-22): “Las últimas monjas de Martutene”, *El Diario Vasco*, 10.-11. orr.
- ONG, Aihwa (1987): *Spirits of Resistance and Capitalist Discipline. Factory Women in Malaysia*, State University of New York Press, Albany.
- ORMAZABAL, Markel (2014): *Hemen naiz, ez gelditzeko baina*, Txalaparta, Tafalla.
- ORTIZ GONZÁLEZ, Ángel Luis (2008): *Propuestas sobre medidas de seguridad postpenales en España*, FAES Gizarte Analisisirako eta Ikerketarako Fundazioa, Madrid.
- ORTNER, Sherry B. (1996): *Making Gender: The Politics and Erotics of Culture*, Beacon Press, Boston.

\_\_\_\_\_ (1999): *Life and Death on Mt. Everest: Sherpas and Himalayan Mountaineering*, Princeton University Press, Princeton.

\_\_\_\_\_ (2003): *New Jersey Dreaming: Capital, Culture, and the Class of '58*, Duke University Press, Durham.

\_\_\_\_\_ (2006): *Anthropology and Social Theory. Culture, Power, and the Acting Subject*, Duke University Press, Durham.

OSBORNE, Raquel (2009): “La sexualidad como frontera entre presas políticas y comunes bajo los nazis y el franquismo”, *Política y Sociedad*, 46(1-2), 57.-77. orr.

\_\_\_\_\_ (2012): “Los castigos a las mujeres. (De la ecuación roja-degenerada al castigo maternal: el caso de Carlota O’Neill)”, Raquel Osborne (arg.), *Mujeres bajo sospecha. Memoria y sexualidad 1930-1980*, Fundamentos, Madril, 123.-141. orr.

OSPDH Sistema Penalaren eta Giza Eskubideen Behatokia (2006): *La cárcel en el entorno familiar. Estudio de las repercusiones del encarcelamiento sobre las familias: problemáticas y necesidades*, Universitat de Barcelona, Bartzelona.

PALMA CAMPOS, Claudia (2014): “Mujeres, tráfico de drogas y cárcel: el impacto de un delito en el sistema penal en Costa Rica”, II Jornadas/Seminario Taller sobre la Ejecución Penal Femenina “Mujeres, Sistema Penal y Exclusión Social. Construyendo alternativas desde el género”, Bartzelona.

PALOU, Inés (1975): *Carne apaleada*, Planeta, Bartzelona.

PHETERSON, Gail (2000 [1996]): *El prisma de la prostitución*, Talasa, Madril.

\_\_\_\_\_ (2013): *Mujeres en flagrante delito de independencia*, Bellaterra, Bartzelona.

PIÑEIRO ZABALA, Igor (2010): “Derecho penitenciario y mujeres”, <<http://noticias.juridicas.com>> helbidean [Kontsulta: 2011ko otsailaren 5a].

PLATERO MÉNDEZ, Raquel (Lucas) (2008): “Apunts sobre la repressió organitzada del lesboerotisme i la masculinitat de les dones en el període franquista”, José Benito Eres Rigueira eta Carlos Villagrasa Alcaide (koordk.), *Homosexuals i transsexuals: els altres represaliats i discriminats del franquisme, des de la memòria històrica*, Bellaterra, Bartzelona, 85.-113. orr.

\_\_\_\_\_ (2012): “Introducción. La interseccionalidad como herramienta de estudio de la sexualidad”, Raquel (Lucas) Platero (arg.), *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*, Bellaterra, Bartzelona, 15.-72. orr.

\_\_\_\_\_ (2013): “Basoerdi bat dela eta. Maskulinitateari eta trabestismoari buruzko historiak”, Isa Castillo Etxano eta Iratxe Retolaza (koordk.), *Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak*, Edo!, Donostia, 75.-103. orr.

\_\_\_\_\_ (2014): “Metáforas y articulaciones para una pedagogía crítica sobre la interseccionalidad”, *Quaderns de Psicologia*, 16(1), 55.-72. orr.

POLLAK, Otto (1961 [1950]): *The Criminality of Women*, A. S. Barnes, New York.

REJADO, Jon (2013-02-05): “Langraizko Segurtasuneko zuzendariorde ohiaren zigorrari eusteko eskatu dute”, *Berria*, 13. or.

REQUENA AGUILAR, Ana (2015-05-26): “Más hogares monoparentales y niños cayeron en la pobreza en 2014 en España”, *Eldiario.es*, <<http://www.eldiario.es>> helbidean [Kontsulta: 2015eko ekainaren 1a].

RESTREPO RODRÍGUEZ, Diana; FRANCÉS LECUMBERRI, Paz (2016): “Rasgos comunes entre el poder punitivo y el poder patriarcal”, *Revista Colombiana de Sociología*, 39(1), 21.-46. orr.

RETOLAZA, Iratxe (2014): “Kartzela-kronikak eta kartografiak. Subjektu kartzelatutik kartzela-subjekturantz”, Markel Ormazabal, *Hemen naiz, ez gelditzeko baina*, Txalaparta, Tafalla, 141.-162. orr.

RIBAS, Natalia; ALMEDA, Elisabet; BODELÓN, Encarna (2005): *Rastreando lo invisible. Mujeres extranjeras en las cárceles*, Anthropos, Bartzelona.

RIBAS MATEOS, Natalia (2005): “La globalización desde el módulo azul”, María Teresa Martín Palomo, María Jesús Miranda López eta Cristina Vega Solís (argk.), *Delitos y fronteras. Mujeres extranjeras en prisión*, Instituto de Investigaciones Feministas, Universidad Complutense de Madrid, Madrid, 339.-370. orr.

RIVERA BEIRAS, Iñaki (1996): “Sociología de la cárcel”, Roberto Bergalli (arg.), *Control social punitivo: sistema penal e instancias de aplicación (policía, jurisdicción, cárcel)*, J. M. Bosch, Bartzelona, 97.-120. orr.

- RODRÍGUEZ LARA, Zuriñe (2012): *Mujeres armadas: una mirada a las mujeres de ETA a través del discurso mediático*, argitaratu gabeko tesina, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gobernantza eta Politika Ikasketak Unibertsitate Masterra, Leioa.
- ROMERO MENDOZA, Martha (2003): “¿Por qué delinquen las mujeres? Parte II. Vertientes analíticas desde una perspectiva de género”, *Salud Mental*, 26(1), 32.-41. orr.
- ROQUERO, Charo (2014): *Historia de la prostitución en Euskal Herria*, Txalaparta, Tafalla.
- ROS DOMÈNECH, Mireia (2013): *Presoneres del moviment republicà irlandès. Her Majesty's Armagh Prison, 1971-1982*, doktore-tesia, Universitat Rovira i Virgili, Departament d'Història i Història Contemporània, Tarragona.
- RUBIN, Gayle (1989 [1984]): “Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad”, Carole S. Vance (arg.), *Placer y peligro: explorando la sexualidad femenina*, Revolución, Madril, 113.-190. orr.
- SABATER TOMÁS, Antonio (1962): *Gamberros, homosexuales, vagos y maleantes: estudio jurídico-sociológico*, Hispano-Europea, Bartzelona.
- \_\_\_\_\_ (1972): *Peligrosidad Social y Delincuencia. Hippies – Beatniks – Vagos – Gamberros – Rufianes – Enfermos mentales – Alcohólicos – Toxicómanos – Proxenetas – Homosexuales – Prostitutas*, Nauta, Madril.
- SAGARZAZU, Jokin (2015-01-22): “Bizi osoko espetxe zigorrari oniritzia eman dio Espainiako Kongresuak”, *Berria*, <<http://www.berria.eus>> helbidean [Kontsulta: 2015eko urtarrilaren 22a].
- SAHLINS, Marshall (1981): *Historical Metaphors and Mythical Realities: Structure in the Early History of the Sandwich Islands*, University of Michigan Press, Ann Arbor.
- SALES I CAMPOS, Albert (2014): *El delito de ser pobre. Una gestión neoliberal de la marginalidad*, Icaria, Bartzelona.
- SALHAKETA (2005): *Observando una Cárcel: Nanclares de la Oca / Langraitz*, Salhaketa, Gasteiz.
- \_\_\_\_\_ (2010): “Sobre los proyectos de construcción de macrocárceles en la CAPV. Información al Parlamento Vasco”, <<http://www.salhaketa.org>> helbidean [Kontsulta: 2011ko apirilaren 25a].

- SALHAKETA NAFARROA (2011): *Mujeres en prisión. Voces desde dentro del Centro Penitenciario de Pamplona*, Salhaketa Nafarroa, Iruñea.
- SAN JERÓNIMO, Magdalena de (1991 [1608]): “Razón y forma de la Galera y Casa Real. Que el rey, nuestro señor, manda hacer en estos reinos para el castigo de las mujeres vagantes y ladronas, alcahuetas, hechiceras y otras semejantes”, María Isabel Barbeito Carneiro (arg.), *Cárceles y mujeres en el siglo XVII*, Castalia, Madril, 61.-95. orr.
- SARRIONANDIA, Joseba (1992): *Gartzelako poemak*, Susa, Iruñea.
- SASSEN, Saskia (2000): “Women’s Burden: Counter-geographies of Globalization and the Feminization of Survival”, *Journal of International Affairs*, 53(2), 503.-524. orr.
- SCARRY, Elaine (1985): *The Body in Pain. The Making and Unmaking of the World*, Oxford University Press, Oxford.
- SCOTT, James C. (1985): *Weapons of the Weak: Everyday Forms of Peasant Resistance*, Yale University Press, New Haven.
- \_\_\_\_\_ (2003 [1990]): *Los dominados y el arte de la resistencia*, Txalaparta, Tafalla.
- SGIP Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusia (2009a): *Programa de Acciones para la Igualdad entre Mujeres y Hombres en el ámbito penitenciario*, Barne-arazoetako Ministerioa, Madril.
- \_\_\_\_\_ (2009b): *Unidades Externas de Madres*, Barne-arazoetako Ministerioa, Madril.
- \_\_\_\_\_ (2010a): *El Sistema Penitenciario Español*, Barne-arazoetako Ministerioa, Madril.
- \_\_\_\_\_ (2010b): *La prisión paso a paso*, Barne-arazoetako Ministerioa, Madril.
- \_\_\_\_\_ (2010c): *Ser mujer.eS. Programa de Intervención con mujeres privadas de libertad. Guía para profesionales*, Barne-arazoetako Ministerioa, Madril.
- \_\_\_\_\_ (2010d): *Ser mujer.eS. Programa de Intervención con mujeres privadas de libertad. Manual de la Participante*, Barne-arazoetako Ministerioa, Madril.
- \_\_\_\_\_ (2014): *Informe General 2013*, Barne-arazoetako Ministerioa, Madril.

- SHAKUR, Assata (2001): *An Autobiography*, Lawrence Hill Books, Chicago.
- SIEP Espetxe Azpiegituren eta Hornikuntzen Estatuko Sozietatea (2011): *Centro Penitenciario Araba/Álava*, Barne-arazoetako Ministerioa, Madril.
- \_\_\_\_\_ (2012): *Pamplona I Centro Penitenciario y Centro de Inserción Social*, Barne-arazoetako Ministerioa, Madril.
- SMART, Carol (1976): *Women, Crime and Criminology*, Routledge and Kegan Paul, Londres.
- STANLEY, Eric A.; SMITH, Nat (argk.) (2015): *Captive Genders. Trans Embodiment and the Prison Industrial Complex*, AK Press, Edinburgh.
- STOLCKE, Verena (2003): “La mujer es puro cuento: la cultura del género”, *Quaderns de l’Institut Català d’Antropologia*, 19, 69.-95. orr.
- SUÁREZ NAVAZ, Liliana (2005): “Género, migración y cambio: una perspectiva transnacional”, María Teresa Martín Palomo, María Jesús Miranda López eta Cristina Vega Solís (argk.), *Delitos y fronteras. Mujeres extranjeras en prisión*, Instituto de Investigaciones Feministas, Universidad Complutense de Madrid, Madril, 45.-77. orr.
- SUBIRATS, Joan (zuz.) (2004): *Pobreza y exclusión social. Un análisis de la realidad española y europea*, La Caixa, Bartzelona.
- TABET, Paola (1992 [1989]): “Yo soy la carne, yo soy el cuchillo. Servicio sexual, emigración y represión en algunas sociedades africanas”, Gail Pheterson (konp.), *Nosotras, las putas*, Talasa, Madril, 301.-329. orr.
- THOMAS, William I. (1967 [1923]): *The Unadjusted Girl*, Harper & Row, New York.
- THURÉN, Britt-Marie (1993): *El poder generizado. El desarrollo de la antropología feminista*, Instituto de Investigaciones Feministas, Universidad Complutense, Madril.
- TOKATA (2014-02-14): “El Tribunal Supremo confirma la pena de 25 años de cárcel para un carcelero por abusar sexualmente de varias presas”, <<http://tokata.info>> helbidean [Kontsulta: 2014ko urriaren 13a].
- TORRES ANGARITA, Andreina (2008): *Drogas, cárcel y género en Ecuador: la experiencia de mujeres “mulas”*, FLACSO-Abya Yala, Quito.

- TÓTH, Herta (2010): *Inequality and Discipline. The Production of Inequalities in a Women's Prison*, doktore-tesia, Central European University, Department of Sociology and Social Anthropology, Budapest.
- TOWNHEAD, Laurel (2006): *Mujeres en la cárcel e hijos de madres encarceladas: desarrollos recientes en el sistema de derechos humanos de las Naciones Unidas*, QUNO, Genova.
- UGARTE LOPETEGI, Miren Arantza (2011): “Saturrarán: sólo quedan los tamarindos”, *Studia historica. Historia contemporánea*, 29, 267.-280. orr.
- UGARTE ZUBIZARRETA, Larraitz (2003): *Kanada eta Espainiar Estatuko emakume espetxeratuaren egoeraren gaineko analisi gonbaratiboa*, argitaratu gabeko tesina, Lege-Soziologiako Nazioarteko Institutua, Lege Soziologiako Nazioarteko Masterra, Oñati.
- VARA JIMÉNEZ, Laura (2011): *Amatasuna eta espetxeak: hainbat euskal emakumeren esperientziak*, argitaratu gabeko tesina, Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra, Donostia.
- VIEDMA ROJAS, Antonio; FRUTOS BALIBREA, Lola (2012): “El trabajo en prisión: observando las desigualdades de género”, Consuelo del Val Cid eta Antonio Viedma Rojas (argk.), *Condenadas a la desigualdad. Sistema de indicadores de discriminación penitenciaria*, Icaria, Bartzelona, 87.-108. orr.
- VIEDMA ROJAS, Antonio; REVIRIEGO PICÓN, Fernando (2012): “Ejecución penal y punitividad. La convivencia cotidiana con el castigo”, Consuelo del Val Cid eta Antonio Viedma Rojas (argk.), *Condenadas a la desigualdad. Sistema de indicadores de discriminación penitenciaria*, Icaria, Bartzelona, 173.-214. orr.
- VIEZZER, Moema (2005 [1977]): “Si me permiten hablar...”. *Testimonio de Domitila. Una mujer de las minas de Bolivia, Siglo XXI, Mexiko*.
- VILLA, Imanol (2008-09-14): “La cárcel de Larrínaga”, *El Correo*, <<http://www.elcorreo.com>> helbidean [Kontsulta: 2015eko apirilaren 1a].
- VINYES, Ricard (2002): *Irredentas. Las presas políticas y sus hijos en las cárceles franquistas*, Temas de Hoy, Madril.
- \_\_\_\_\_ (2005): *Presas políticas*, RBA, Bartzelona.



VON HENTIG, Hans (1975): *La criminalidad de la mujer lésbica. Estudios de psicología criminal*, Espasa Calpe, Madril.

WACQUANT, Loïc (2001): *Las cárceles de la miseria*, Alianza, Madril.

\_\_\_\_\_ (2008): “The Place of the Prison in the New Government of Poverty”, Mary Louise Frampton, Ian Haney López eta Jonathan Simon (argk.), *After the War on Crime. Race, Democracy, and the New Reconstruction*, New York University Press, New York, 23.-36. orr.

\_\_\_\_\_ (2010): *Castigar a los pobres: el gobierno neoliberal de la seguridad social*, Gedisa, Bartzelona.

WALMSLEY, Roy (2013): *World Prison Population List*, ICPS Espetxe Ikerketen Nazioarteko Zentroa, Londres.

\_\_\_\_\_ (2015): *World Female Imprisonment List (third edition)*, ICPR Politika Kriminalaren Ikerketarako Institutua, Londres.

WOOLF, Virginia (1938): *Three Guineas*, <<http://www.blackwellpublishing.com>> helbidean [Kontsulta: 2015eko urriaren 22a].

YAGÜE OLMOS, Concepción (2005): “La maternidad en la prisión: Estado actual de la cuestión”, *Revista de Estudios Penitenciarios*, 251, 9.-22. orr.

\_\_\_\_\_ (2006): “Las mujeres encarceladas”, Adelina Calvo Salvador, Marta García Lastra eta Teresa Supinos Rada (argk.), *Mujeres en la periferia. Algunos debates sobre género y exclusión social*, Icaria, Bartzelona, 121.-147. orr.

\_\_\_\_\_ (2007): “Mujeres en prisión: Intervención basada en sus características, necesidades y demandas”, *REIC Revista Española de Investigación Criminológica*, 5, 1.-24. orr.

\_\_\_\_\_ (2010): “Panorama actual de la situación de las mujeres y madres en los centros penitenciarios españoles. El programa de igualdad”, Fanny T. Añaños (koord.), *Las mujeres en las prisiones. La Educación Social en contextos de riesgo y conflicto*, Gedisa, Bartzelona, 183.-200. orr.

YOUNG, Jock (2003): *La sociedad “excluyente”. Exclusión social, delito y diferencia en la Modernidad tardía*, Marcial Pons, Madril.

YUVAL-DAVIS, Nira (2006): “Intersectionality and Feminist Politics”, *European Journal of Women’s Studies*, 13(3), 193.-209. orr.

ZAMORA, Esteban (2011): “El poder terapéutico: mutaciones y resistencias en el gobierno de las prisiones”, Luis Díaz Viana, Óscar Fernández Álvarez eta Pedro Tomé Martín (koordk.), *Lugares. Tiempos. Memorias. La Antropología Ibérica en el siglo XXI*, León, 2323.-2332. orr.

ZULOAGA, Lohitzune (2014): *El espejismo de la seguridad ciudadana. Claves de su presencia en la agenda política*, Catarata, Madril.

## Erreferentzia juridikoak

Kode Penal, Gorteek dekretatutakoa ekainaren 8an, Erregeak onetsitakoa, eta promulgatzeko agindutakoa 1822ko uztailaren 9an.

2940/1975 Dekretu Orokorra, azaroaren 25ekoa, Indultuari buruzkoa, Juan Carlos Borboikoa Espainiako Errege aldarrikatzea dela kausa.

10/1976 Errege Lege-dekretua, uztailaren 30ekoa, Amnistiari buruzkoa.

19/1977 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, Indultu Neurriei buruzkoa.

388/1977 Dekretua, martxoaren 14koa, Indultu Orokorrari buruzkoa.

46/1977 Legea, urriaren 15ekoa, Amnistiari buruzkoa.

1978ko Espainiako Konstituzioa.

1/1979 Lege Organiko Orokorra, irailaren 26koa, Espetxeei buruzkoa.

1201/1981 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Espetxe Araudia onartzen duena.

3482/1983 Errege Dekretua, abenduaren 28koa, Espetxe Administrazioako zerbitzuak Estatutik Kataluniako Generalitatera igarotzeari buruzkoa.

Presondegiak Amortizatzeko eta Sortzeko Plana, 1991ko uztailaren 5ean ministro-kontseiluak onartutakoa.

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Kode Penalari buruzkoa.

190/1996 Errege Dekretua, otsailaren 9koa, Espetxe Araudiari buruzkoa.

4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, Atzerritarren Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta horien Gizarteratzeari buruzkoa.

Presondegiak Amortizatzeko eta Sortzeko Plana, 2005eko abenduaren 2an ministro-kontseiluak onartutakoa.

894/2011 Errege Dekretua, ekainaren 24koa, Espetxe Osasungintzaren funtzioak eta zerbitzuak Estatuaren Administrazioetik Euskal Autonomia Erkidegora igarotzeari buruzkoa.

1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Kode Penalari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena.

ASHKENAZI, Noga (2012): *The Grey Area. Feminism Behind Bars*, WMM A Women Make Movies Release, AEB Ameriketako Estatu Batuak.

BOSCH, Carles (2007): *Septiembre*, Bausan Films, Espainia.

DE MIGUEL, Estibaliz (2015-03-25): “La cárcel refeminiza a las mujeres como amas de casa, madres y esposas en lugar de para ser autónomas en el ámbito laboral”, *Mar de Fueguitos*, <<http://mardefueguitos.info>> helbidean [Kontsulta: 2015eko apirilaren 1a].

FERMIN MUGURUZA ETA DUT (1997): “Bidasoa fundamentalista”, *Ireki Ateak*, Esan Ozenki Records, Irun.

GUTIÉRREZ, Juan Miguel (2012): *Mur-mur*, Zazpi T’erdi Produkzioak, Euskal Herria.

HERNÁNDEZ VELA, Laura (2015): *La mochila invisible*, Bidez Bide, Euskal Herria.

KRUGER, Barbara (1989): *Untitled (Your Body Is a Battleground)*, binilozko argazki-serigrafia (284,5 x 284,5 cm.).

MACÍAS, Belén (2008): *El patio de mi cárcel*, El Deseo, Espainia.

MARCOS, Teresa; MUÑIZ, Ángeles (2010): *Módulo 10*, De Souna, Espainia.

MARTINEZ, Josu; LARREATEGI, Txaber (2010): *Prohibido recordar. Cárcel de Saturrarán 1938-1944*, Tentazioa Produkzioak, Moztu Filmak, REC Grabaketa Estudioa, Euskal Herria.

MARTINEZ, Josu; LARREATEGI, Txaber; GABILONDO, Mireia; GOIKOETXEA, Enara; OLASAGASTI, Eneko (2012): *Barrura begiratzeko leihoak*, Zinez, Euskal Herria.

PARADISO, Marcia (2012): *Lunas cautivas*, INCAA, Argentina.



## **Webguneak**

<http://www.eustat.es> (EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea)

<http://www.ine.es> (INE Espainiako Estatistika Institutua)

<http://www.institucionpenitenciaria.es> (SGIP Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusia)





## **ERANSKINAK**



## I. ERANSKINA:

### Emakume presoekin erabilitako elkarrizketa-gidoia

(banakako elkarrizketa)

#### SARRERA

- Aurkezpena. Nola aurkeztuko zenuke zure burua? Zer esango zenuke zutaz edo zure bizitzaz?
- Aurreko bizimodua. Nolakoa zen zure eguneroko bizitza espetxean egon aurretik? Jatorria, egoera sozio-ekonomikoa, gizarte-erlazioak, amatasuna, elkarbizitza, legez kontrakoak diren drogen edo alkoholaren kontsumoa, etab. Zer arazo edota zailtasun zenituen?
- Delitua. Zein zen zure egoera delitua egin baino lehen edo delitua egiterakoan? Nola iritsi zinen delituzko ekintzara? Zer gertatu zen? Zuk hartutako erabakia izan zen? Kartzelan buka zenezakeela pentsatu zenuen unereren batean?
- Espetxe-zigorra. Nolakoa izan zen atxiloketa? Eta epaiketa? Zer zigor jaso zenuen? Nola sentitu zinen espetxeratuko zintuztela jakitean? Eta zure ingurukoak?

#### BIZIPENAK

- Espetxean sartzea. Nola oroitzen duzu kartzelan sartzearen unea? Zein izan zen zure lehen inpresioa? Nola sentitu zinen? Arreta edota informazio nahikoa jaso zenuen? Kartzela horrelakoa izatea espero zenuen edo bestelako irudia zenuen?
- Eguneroko bizitza. Nolakoa da espetxeko bizimodua? Nolakoa da egun arrunt bat? Nolakoa da giro orokorra? Nola ohitu edo egokitu zara?
- Espazioa. Deskribatu dezakezu nolakoa(k) d(ir)en ezagutzen d(it)uzun kartzela(k)? Espazio anitzak, gelak, etab.
- Denbora. Nola igarotzen da denbora espetxean? Denbora-tarte libreak dituzu edota beti duzu zer edo zer egiteko?

- Itxialdia. Nolakoa da giltzapean edota itxita egotearen sentsazioa?
- Askatasun-gabetzea. Nolako mugak ezartzen ditu espetxeak? Nolakoa da kontrola? Nola bizi duzu?
- Norberaren zainketa. Garbiketa, apainketa, arropa, ariketa fisikoa, itxura, etab.
- Objektuak. Zer-nolako objektuak, tresnak, apaingarriak, etab. dituzu? Zer jarri duzu zure «txaboloan»?

## **DISKRIMINAZIOAK (ESPARRUZ ESPARRU)**

### ***Lan-egoera eta prestakuntza***

- Lan-egoera. Lan egiteko zer-nolako aukerak daude kartzelan? Lanposturen bat izan duzu? Ordaindutakoa? Zer moduzkoa izan da? Baliagarriak dira espetxeko lanak?
- Prestakuntza. Zer-nolako jarduerak eta programak egiten dira presondegian? Parte hartzen duzu horrelakoetan? Probetxugarriak dira? Zertarako balio dute?
- Azpiegiturak eta baliabideak. Oro har, nolakoak dira? Emakumeentzako espazioak gizonentzat direnak baino txikiagoak dira? Okerragoak? Espazioen edo baliabideen erabilera mugatua duzue?

### ***Osasun-egoera, medikalizatzea eta legez kontrako drogen kontsumoa***

- Bizigarritasun-baldintzak. Berokuntza-sistema, hezetasuna, argiztapena, garbitasuna eta higiene-baldintzak, elikadura, etab. zer-nolakoak dira?
- Osasun-egoera. Zure osasun-egoera nolakoa da? Osasun-arazoren bat duzu? Zure osasunak okerrera egin du espetxean? Hobera egin du? Maila fisikoan, ikusmenaren galera, buruko minak, elikadura-arazoak, etab.? Eta, maila psikologikoan, depresioa, antsietatea, klaustrofobia, histeria-krisiak, etab.? Nork bere burua zauritzea?
- Medikalizatzea. Zer moduzkoak dira osasun-zerbitzuak? Nahikoak al dira? Egokiak dira? Nolakoak dira tratamenduak? Osasun-arazoren bat izan baduzu, behar bezala lagundu dizute? Arreta eta eskainitako informazioa behar bestekoak izan dira? Gain-

medikaziorik dago? Nola erabiltzen dituzue emakume presoek medikuek emandako medikamentu eta pilulak? «Trapitxeoak» gertatzen dira?

- Legez kontrako drogen eta alkoholaren kontsumoa. Legearen kontrako edo legezko drogak hartzen dira espetxe barruan? Zuk hartu edota hartzen dituzu? Nolakoa da «trapitxeoa»? Zer gertatzen da droga-mendekotasunarekin kartzelan? Tratamenduak egokiak dira?

### ***Harremanak, afektibitatea eta sexualitatea***

- Emakume presoen arteko harremanak. Nolakoak dira emakumeen arteko erlazioak? Nolakoa da giro orokorra? Taldetxoak daude? Zeren arabera? Adiskideak, lagunak, etab. daude? Konfiantzazko harremanak daude? Harreman interesatuak? Elkertasun-adierazpenak gertatzen dira? Eta liskarrak edota istiluak? Nolakoa da elkarbizitza? Espetxe barruan eta kanpoan sortzen diren harremanak ezberdinak dira?
- Bakardadea eta intimitatea. Bakarrik sentitu zara? Edo, alderantziz, bakarrik egotea faltan bota duzu?
- Harremanak espetxeko langileekin. Nolako erlazioa duzu Tratamendu Batzordeko kideekin? Eta gaineratiko funtzionarioekin? Laguntza eskatu edo behar izan baduzu, eskaini dizute? Nolakoa izan da zure jarraipena? Behar bezala ezagutzen zaituztete? Zuen egoerari buruzko informazio nahikoa eskaintzen dizuete? Trataera egokia da?
- Diziplina. Zer-nolakoa da? Zorrotza? Mendekotasun eta obedientzia handia eskatzen dizuete? Permisibitatea dago? Diziplinazko parterren bat izan duzu inoiz? Eta graduatzerapenen bat? Nolakoak dira kontrol-neurriak, segurtasun-neurriak, arauak, etab.? Zer iritzi duzu zenbaketen nahiz miaketen inguruan? Isolamenduan izan zara inoiz? Zuen moduluak gizonenak baino gatazkatsuagoak dira? Espetxeko funtzionarioekin eztabaidatu duzu noizbait? Zergatik?
- Indarkeria. Tratu iraingarririk edo erasorik ezagutu duzu espetxean?
- Harremanak gizon presoekin. Nolakoak dira?
- Harremanak espetxetik kanpo daudenekin. Erlazioa duzu espetxetik kanpo dagoen jendearekin? Zure familia? Lagunak? Deiak, gutunak, kristal bidezko bisitak, aurrez aurreko bisitak, etab. dituzu? Nolakoak dira? Uneren batean abandonatuta edota alde batera utzita sentitu zara? Nola eragi(te)n die kanpoan daudenei zure espetxealdiak? Kanpoko laguntza ekonomikorik jasotzen duzu? Pekulioa? Paketeak?

- Afektibitatea. Kartzelaldian harreman edo lotura afektiboak sortzen dira? Nolakoak dira? Nolakoak dira harreman afektiboak espetxetik kanpo daudenekin? Nolako da barruko nahiz kanpoko sostenguen garrantzia?
- Sexualitatea. Zer gertatzen da sexualitatearekin espetxean? Nola bizi duzu? Mugak daude? Nolakoak dira sexu-harremanak? Zu nola sentitzen zara? Intimitate nahikoa dago? Masturbazioa? Sexu-aukera edo praktika berriak? Lesbianismoa?

## **DISKRIMINAZIOEN GAINEKO JABETZE-MAILAK ETA IRITZIAK**

- Genero-diskriminazioak. Zure iritiz, emakume eta gizon presoek trataera parekidea jasotzen duzue? Desorekak edo desabantailak daude? Ezberdinkeriak? Pribilegioak? Emakumezkoak diskriminaturik zaudetela uste duzu?
- Bestelako diskriminazioak. Beste zio batengatik diskriminaturik zaudela uste duzu? Etnia, jatorria, klase soziala, sexu-aukera, drogen kontsumoa, erlijioa, etab.

## **ERRESISTENTZIA-PRAKTIKAK**

- Biziraun. Nola lortzen duzu aurrera egitea eta egoera jasatea? Ez hondoratzea edota eustea? Nondik ateratzen duzu indarra?
- Ongizatea bilatu. Zer egiten duzu zure burua babesteko? Eta ondo sentitzeko? Nola lortzen duzu nahi duzuna? Negoziatzeko aukerak topatzen dituzu? Presoen arteko negoziaketak? Presoen eta funtzionarioen artekoak? Nola egiten diezu aurre mugei?
- «Ihes» egin. Espetxean zaudela ahazteko edota horretan ez pentsatzeko zer edo zer egiten duzu? Esate baterako, legez kontrako edo legezko drogak hartzen dituzu, edo hartu dituzu inoiz, horretarako?
- Erantzun. Kartzelaren aurkako kexarik aurkeztu duzu inoiz? Edo espetxeko langileei aurka egin diezu inoiz? Aldarrikapen edota protestaren batean parte hartu duzu? Zer egiten duzu zerbait aldatu nahi baduzu edota zerbaitekin ados ez bazaude?
- Adibide batzuk. Preso perfektuaren rola, nor bere burua zauritzea, legezko eta legez aurkako drogen kontsumoa, «trapitxeoak», harreman sexu-afektiboak eta elkartasun-sareak, feminitatearen eredu hegemonikoaren erabilera estrategikoa, etab.

## HAUSNARKETAK, GOGOETAK, IRAKURKETAK

- Emozioak. Nola daramazu zure espetxealdia? Nola sentitzen zara? Erruduntasuna, etsipena, ezintasuna, amorrua, bakardadea, etab. Autoestimua? Zeintzuk dira kezka nagusiak?
- Balorazioa. Nola baloratzen duzu espetxean igarotako denbora? Esperientzia latza da? Zer da okerrena edota mingarriena? Positiboa den zerbait dago? Nola eragi(te)n dizu kartzelak? Aldatu egin zara? Zerbait ikasi duzu?
- Espetxearen definizioa/esanahia. Zure bizipenen arabera, nola azalduko zenuke zer den kartzela? Zer esan nahi du zuretzat? Zeintzuk dira bere funtzioak? Zertarako balio du? Zer iritzi duzu «birgizarteratzea», «berreztea» edota «birgaitzea» bezalako kontzeptuen inguruan?
- Espetxe-testuinguruaren aldaketa. Nola ikusten dituzu presondegietan gertatzen ari diren aldaketak? Errespetu Moduluak? Zentro Tipo edo Makrokartzelen eraikuntza? Geroz eta preso gehiago egotea?
- Emakume presoak. Nolakoak dira/zarete preso dauden/zaudeten emakumeak? Nola iritsi dira/zarete kartzelara?
- Gizartea. Eskuarki, nolakoak dira gizarte-jarrerak emakume presoekiko? Zer-nolako iritziak daude presoen inguruan? Espetxe-sistemaren inguruan? Ezjakintasuna dago? Aurreiritziak? Nolakoa da «emakume delitugilea» edo «emakume preso» izatearen etiketa? Epaituta edota baztertuta sentitu zara? Preso zaudela/egon zarela kontatzen duzu? Ezkututzen saiatzen zara?
- Espetxea eta gero. Zer egin nahi duzu espetxe-zigorra amaitzean? Nola irudikatzen duzu etorkizuna? Nola baloratzen duzu zure ibilbidea?
- Zerbait gehiago?





## II. ERANSKINA:

### Emakume presoekin erabilitako elkarrizketa-gidoia (talde-elkarrizketa)

#### SARRERA

- Ikasi. Espetxean lehen aldiz sartzen den emakume batek nola ikasten du bertan zelan bizi? Nola ohitzen edota egokitzen da? Nola ikasten du zer den kartzela?
- Aholkuak. Zer aholku emango zenioke espetxean sartzen den emakume bati? Zer komeni zaio? Zer da jakin edo ikasi behar duena?

#### ERRESISTENTZIA-PRAKTIKAK

- Biziraun. Nola lortzen da bizirautea, aurrera egitea eta kartzelako egoera jasatea? Ez hondoratzea eta eustea? Zuek zer hartu zenuten sostengutzat? Nondik atera zenuten indarra? Zer zenuten gogoan? Zer esaten zenioten zuen buruari? Non topatu zenuten babesa? Nola biziraun zenuten emozionalki? Eta materialki?
- Ongizatea bilatu. Zer egin daiteke ondo sentitzen ahalegintzeko? Nola lortu daiteke batek nahi duena (ofizialki nahiz extraofizialki izan)? Gainditu al daitezke espetxeak ezarritako mugak? Nola lortzen dira debekaturiko ondasunak (telefono mugikorrak, legez kanpoko drogak, etab.)? Nola egiten dira debekaturiko ekintzak?
- «Ihes» egin. Zer egiten da burua ez berotzeko, distraitzeko, etab.?
- Erantzun. Zer egin daiteke zerbait ez baduzu gustuko, ados ez bazaude edota aldatu dadila nahi baduzu? Kexak? Protestak? Liskarrak?
- Adibideak:
  - o *Preso perfektuaren rola*. Espetxeak sarien zein zigorren arabera jokatzen du. Zer iritzi duzue horren inguruan?
  - o *Jarduerak*. Jarduerekin denbora betetzen saiatu zarete? Distraitzeko? Burua ez berotzeko?

- *Emakume-eredu hegemonikoa*. Erabili al duzue inoiz «emakumezkoa» izatea zuen probetxurako? Feminitatearen eredu nagusiaz baliatu zarete inoiz?
- «*Trapitxeoak*». Elkartrukeak, negoziaketak, etab. nolakoak dira? Zer gauza-mota elkartrukutzen dira? Zer lortu daiteke? Medikamentuak, tabakoa, legez kanpoko drogak, arropa, telefono mugikorrak, zerbitzuak, etab.
- *Legezko nahiz legez kanpoko drogen kontsumoa*. Legearen kontrako drogak? Alkohola? Medikamentuak? Zer-nolakoa da kontsumoa? Zer dela eta?
- *Nork bere burua zauritzea («Chinarse»)*. Ebakiak, kolpeak, pilulak irenstea, lixiba edatea, etab. Zergatik edo zertarako egiten dira halakoak? Ezintasuna? Amorrua? Zer da adierazi edo lortu nahi dena?
- *Erlazioak*. Babes- edo elkartasun-sareak daude? Adiskidetasuna? Harreman interesatuak? Hartu-emanak emakume presoen artean, emakume nahiz gizon presoen artean, emakume preso eta espetxe-langileen artean, etab.
- *Lesbianismoa*. Emakumeen arteko harreman sexu-afektiboak?

## **HAUSNARKETAK, GOGOETAK, IRAKURKETAK**

- *Genero-diskriminazioak eta ezberdinkeriak*. Zuen ustez, emakume eta gizon presoek trataera parekidea jasotzen duzue espetxearen aldetik? Emakumeek eta gizonek era ezberdinean bizi duzue kartzelaldia?
- *Emozioak*. Emozionalki, zer-nolakoa da espetxealdia?
- *Definizioak*. Zuen bizipenei helduta, zer da kartzela? Nola definituko zenukete?
- *Emakume presoak*. Nolakoak zarete emakume atxiloak? Zer iritzi du gizarteak zuen inguruan?
- *Zerbait gehiago?*

### III. ERANSKINA:

## Espetxe-langileekin eta elkarteetako kideekin erabilitako elkarrizketa-gidoia

### SARRERA

- Aurkezpena. Nola aurkeztuko zenuke zure burua? Zer esango zenuke zutaz edo zure bizitzaz? Zertan datza zure harremana emakume presoekin? Zein da zure lanbidea? Zeintzuk dira zure zereginak?
- Balorazioa. Nola baloratzen duzu edo nola definituko zenuke emakume presoekin duzun harremana/egiten duzun lana? Espetxeratutako emakumeak ezagutu ondoren, beraiekiko edo kartzelarekiko zure jarrera aldatu da?
- Espetxea. Nola deskribatuko zenituzke ezagutzen dituzun presondegiak? Espazioa, denbora, giro orokorra, emakume presoak, gizon presoak, langileak, etab.
- Emakume presoak. Nolakoak dira espetxean dauden emakumeak? Nolakoak dira beraien bizitzak edota istorioak? Beraien delituak? Nola iritsi ziren delituzko ekintza horiek egitera? Zer iritzi duzu beraien espetxe-zigorren inguruan?

### BIZIPENAK

- Kartzelatzea eta espetxealdia. Zer esan nahi du emakumeentzat espetxean egoteak? Nolakoa da beraien eguneroko bizitza han barruan? Nola bizi dute? Nola egokitzen dira? Nola ikusten dute kartzela? Eta beraien burua? Eta beste emakume presoak?
- Itxialdia. Nola daramate giltzapean edota itxita egotea? Eta jendartetik bereizita eta beraien bizimoduetatik aldentuta egotea?
- Askatasun-gabetzea. Nola daramate galera hori? Espetxearen kontrola eta diziplina? Nola bizi dute zer egin behar duten edo zer ezin duten egin esatea, erabakiak beraien esku ez egotea, etab.?

## **DISKRIMINAZIOAK (ESPARRUZ ESPARRU)**

### ***Lan-egoera eta prestakuntza***

- *Lan-egoera eta prestakuntza.* Lan egiteko zer-nolako aukerak daude kartzelan? Zer-nolako prestakuntza-jarduerak eskaintzen zaizkie emakumezkoen? Baliagarriak dira? Behar adina?
- *Azpiegiturak eta baliabideak.* Zer-nolakoak dira? Emakumeek erabilitako espazioak gizonenak bezalakoak dira? Txikiagoak dira? Okerragoak? Espazio, baliabide edota material batzuk erabiltzeko mugak dituzte?
- *Emakume presoan jarrera.* Lan egiteko nahiz jardueretan parte hartzeko interesa eta gogoia dute? Probetxuzkoak iruditzen zaizkie?

### ***Osasun-egoera, medikalizatzea eta legez kontrako drogen kontsumoa***

- *Bizigarritasun-baldintzak.* Berokuntza-sistema, hezetasuna, argiztapena, garbitasuna edo higiene-baldintzak, elikadura, etab. zer-nolakoak dira?
- *Osasun-egoera.* Nolakoa da emakume atxiloen osasun-egoera? Zer-nolako arazoak dituzte? Beraien osasunak okerrera egiten du espetxean? Hobera egiten du?
- *Medikalizatzea.* Zer moduzkoak dira osasun-zerbitzuak? Nahikoak al dira? Egokiak dira? Eta tratamenduak? Gain-medikaziorik gertatzen al da? Nola erabiltzen dituzte emakume atxiloek medikuek emandako medikamentuak eta pilulak? «Trapitxeoak» gertatzen dira?
- *Legez kontrako drogen eta alkoholaren kontsumoa.* Legearen kontrako eta legezko drogak hartzen dira kartzela barruan? Nolakoa da «trapitxeo» hori? Zer gertatzen da droga-mendekotasunarekin espetxean? Tratamenduak egokiak dira?

### ***Harremanak, afektibitatea eta sexualitatea***

- Emakume presoen arteko harremanak. Nolakoak dira harreman horiek? Nolakoa da giro orokorra? Taldetxoak daude? Zeren arabera? Adiskideak, lagunak, etab. daude? Konfiantzazko harremanak daude? Harreman interesatuak? Elkartasun-adierazpenak gertatzen dira? Eta liskarrak edo istiluak? Nolakoa da elkarbizitza?
- Harremanak espetxeko langileekin. Nolako harremana dute Tratamendu Batzordeko kideekin eta gaineratiko funtzionarioekin? Banakako jarraipena behar bezala egiten da? Egokiro ezagutzen dituzte/dituzue? Nolakoa da trataera?
- Diziplina. Zer-nolakoa da? Zorrotza da? Edo permisibitatea dago? Kontrol-neurriak, segurtasun-neurriak, araudiak, etab. egokiak dira? Emakumeen moduluak gizonenak baino gatazkatsuagoak dira?
- Indarkeria. Tratu iraingarriak, erasoak, etab. gertatzen dira? Kasuren bat ezagutzen duzu?
- Harremanak gizon presoekin. Nolakoak dira espetxeratutako gizon eta emakumeen arteko erlazioak?
- Harremanak espetxetik kanpo daudenekin. Nolakoak dira emakume presoek hartu-emanak espetxetik kanpo dagoen jendearekin? Nolakoak dira komunikazioak? Nola daramate kontu hori? Gizonak baino bakardade handiagoa bizi dute? Bisita gutxiago dituzte? Laguntza ekonomiko gutxiago jasotzen dute?
- Afektibitatea. Espetxealdian harreman edo lotura afektiboak sortzen dira? Nolakoak dira? Nolakoak dira harreman afektiboak espetxetik kanpo daudenekin? Nolakoa da barruko nahiz kanpoko sostenguen garrantzia?
- Sexualitatea. Zer gertatzen da sexualitatearekin espetxean? Nola bizi dute? Mugak daude? Nola sentitzen dira? Intimitate nahikoa dago? Masturbazioa? Lesbianismoa? Heterosexualitate normatiboa zalantzan jartzen da? Edo ez?

### **DISKRIMINAZIOEN GAINEKO JABETZE-MAILAK ETA IRITZIAK**

- Genero-diskriminazioak. Zure ustez, emakume eta gizon presoek trataera parekidea jasotzen dute? Desorekak edo desabantailak daude? Ezberdinkeriak? Pribilegioak? Emakumezkoak diskriminaturik daude? Beraiek horrela sentitzen dira? Arazo edota

zailtasun gehiago dituzte? Espetxe Erakundeen Berdintasun Plana ezagutzen duzu?  
Zer iritzi duzu?

- Bestelako diskriminazioak. Bestelako diskriminazioak daude? Etnia, jatorria, sexu-  
aukera, klasea, drogen kontsumoa, etab. Presoak arrazoi horiengatik diskriminaturik  
sentitzen dira?

## **ERRESISTENTZIA-PRAKTIKAK**

- Biziraun. Nola lortzen dute aurrera egitea eta egoera jasatea? Ez hondoratzea edota  
eustea? Nondik ateratzen dute indarra?
- Ongizatea bilatu. Zer egiten dute euren burua babesteko? Eta ondo sentitzeko? Nola  
lortzen dute nahi dutena? Negoziatzeko aukerak topatzen dituzte? Presoen arteko  
negoziaketak? Presoen eta funtzionarioen artekoak? Nola egiten diete aurre mugei?
- «Ihes» egin. Espetxean daudela ahazteko edota horretan ez pentsatzeko zer edo zer  
egiten dute? Esate baterako, legez kontrako edo legezko drogak hartzea?
- Erantzun. Kartzelaren aurkako keak, protestak edota aldarrikapenak egiten dituzte?  
Langileei aurre egin diete inoiz?
- Adibide batzuk. Preso perfektuaren rola, nor bere burua zauritzea, legezko eta legez  
kontrako drogen kontsumoa, «trapitxeoak», harreman sexu-afektiboak, elkartasun-  
sareak, feminitatearen eredu hegemonikoaren erabilera estrategikoa, etab.
- Estrategien ikusezintasuna. Emakume atxiloen estrategiak gutxiesten dira? Beraien  
agentzia onartzen da? Ekintzarako eta erantzuteko beraien gaitasuna?

## **HAUSNARKETAK, GOGOETAK, IRAKURKETAK**

- Balorazioa. Nola eragiten die espetxeak emakumeei? Zer suposatzen du beraientzat?  
Aldaketak? Zailtasun gehiago? Hobekuntzak? Ikaskuntzak?
- Espetxearen definizioa/esanahia. Zure bizipenen arabera, nola azalduko zenuke zer  
den kartzela? Zer esan nahi du zuretzat? Zeintzuk dira bere funtzioak? Zertarako  
balio du? Zer iritzi duzu «birgizarteratzea», «berreztea» edota «birgaitzea» bezalako  
kontzeptuen inguruan?

- Norbera. Inoiz irudikatu duzu zure burua kartzelan? Nola moldatuko zinateke?
- Espetxe-testuinguruaren aldaketa. Nola ikusten dituzu presondegietan gertatzen ari diren aldaketak? Errespetu Moduluak? Zentro Tipo edo Makrokartzelen eraikuntza? Geroz eta preso gehiago egotea?
- Gizartea. Eskuarki, nolakoak dira gizarte-jarrerak emakume presoekiko? Zer-nolako iritziak daude presoen inguruan? Espetxe-sistemaren inguruan? Ezjakintasuna dago? Aurreiritziak? Nolakoa da «emakume delitugilea» edo «emakume preso» izatearen etiketa? Emakumeek gizarte-gaitzespen handiagoa jasaten dute?
- Zerbait gehiago?







